


Antonio Zavala

TXIRRITA

JOSE MANUEL LUJANBIO RETEGI



B0-3024

10689

TXIRRITA

(Bizitza eta bertsoak)

Auspoaren Sail Nagusia

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 67 12 82

Antonio Zavala

(Bizitzaren egille eta bertsoen biltzaille)

TXIRRITA

(Jose Manuel Lujanbio Retegi)
(1860-1936)

(Bizitza eta bertsoak)



EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA

Auspoaren Sail Nagusia

© Jose Erauskin Arrieta. Altza, Gipuzkoa.

© Auspoa Liburutegia (Tolosa - Gipuzkoa)

Fotokonposatzaile: Cometip fotocomposición, s.l. - Pamplona

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S.L., Estella (Navarra)

ISBN: 84-7158-163-9

Depósito Legal: NA. 197-1992



Jose Manuel Lujanbio Retegi, Txirrita bertsolaria, 1860-1936.

ITZAURREA

Bi zati ditu, Txirrita bertsolaria gai ar-
turik gaur irakurleari eskeintzen diogun
liburuak.

Leenengoan, jaio eta il bitarteko argi-
bideak eta gorabeerak, gertakariak, aotik
aorako bertsoak, ibillerak, zelebrequiak,
ateraldiak eta abar bildu ditugu. Itz ba-
tean esateko, Txirritaren bizitza,

Eta bigarrenean, aren literatura emai-
tza: paperetan jarri eta zabaldutako ber-
tsoak.

Baiña bi liburu aukeratu nola egin diran
adieraztea, irakurleari erreztasuna emai-
tea izango dala uste degu. Ori egin nai
genduke, beraz, itzaurre gisako lerro aukeratu.

* * *

Liburu au prestatzerakoan, ni ere Txir-
ritari iñoz ikusi eta ezagutu gabea bainaiz,
amaika bider eragin diot nere buruari,
aren izena leenengo aldiz noiztsu entzun
edo ikasi nuan oroitu nairik. Baiña ez naiz
gogoratzen.

1936'garren urtean, Txirritak bertsolari
txapelketa irabazi zuanean, Errenteri'n
omenaldia egin ziotenean eta erioak eram-
an zuanean, iru egokiera oietan alegia,
egunkariak aren izena aidatu zuten noski,
eta jende elduak ere itzalitako bertsolari-
az itzegingo zuan. Nere aurrean itzegin

ere, bearbada. Baiña ez naiz ezertaz oroiz-
tzen.

Nik zortzi urte nituan orduan. Garai
artako oroipen asko ditut. Gerra-asiera-
koak, batez ere. Baiña or nunbait aitona
xaar bat il zala-ta, naiz bertsolari aundia
izan, ajola gutxi adin ortako ume bati.

Bestetik, berriz, Bilintxen aitamenak
egin oi ziran gure etxean, ama zana do-
nostiarra genduan. Baita Ramos Azka-
rate'renak ere, tolosarrak geran ezkerok.
Eta bai Pello Errota eta Otaño'tarrenak
ere, Asteasu ta Zizurkil'ko auzo egiten
dan Aduna'ko errian udara pasatzen bai-
genduan. Baiña Txirritarenik ez det uste.

Urte-mordoska igaroko zan, beraz, ni
euskalzaletu arte-edo, ernaniar bertsolari
aundiaren izena entzun eta ikasteko.

Baiña ondo gogoan daukat, eta atzoko
gertaera balitz bezela eduki ere, 1954 urte
inguruan *Aranzazu* aldizkariaren zenbaki
zaar bat nola eskuratu nuan: 1946'ko
abendukoa, ain zuzen. Bertan, Basarriren
idazlan bat zetorren, *Txirrita'ren ateral-
diak* izenarekin, bertso pare bat eta beste
zenbait txecetasun irakurleari eskeiñiz.
Asieran onela zion:

«Ainbeste eunka ta milletatik, bere er-
tenaldi bakan batzuk gogoan artzeko zo-
ria izan genduan baitare. Guk eskeñi ge-
nezazkenak ale bakarrak dira, ordea.

Erriaren auetan ba'da ugari ta giartsurik. Ainbat aldiz gogoratzen degun Gregorio Mujika'k Pernando Amezketarrenak bildu zituan bezela bildu bear lirakela derizkiogu, Txirrita zanaren esakera ta ateraldiak. Ortarako beste Mujika baten utsunea daukagu, ordea».

Ni arrituta gelditu nintzan. Ainbeste-ko aberastasuna or alper-alperrik galtzen, gure zabarkeriak beste inork erruak etzituala... Bildu bear litzakela, ta artarako inor ere ez... Nere eskuan balego, ez litzakela arazo ori ortan geldituko pentsatu ere egin nuan.

Andik denbora asko gabe, udarako oporraldietan, Azpeiti'ko Loiola'tik leenengo eta Donosti'tik urrena, eta bai eskutitzen bitartez bati eta besteari nere asmoen berri eman ez ere, ekin nion bertso zaar biltzeari, gazte izateak ematen duan berotasunarekin.

Txirritaren bertsoak ere bereala asi ziran barra-barra andik eta emendik etortzen: batzuk bertso-paperetan, eta aotik aorakoak besteak.

* * *

Baiña Txirritaren bertso oiek danak, eta berdin berari buruzko argibideak ere, zipristiñak ziran, esate baterako. Ez nintzan iturburura iritxi, Altxa'ko Gazteluene baserriko atea jo nituan arte.

Baserri ortara ezkondu zan Txirritaren arrea gazteena, Isabel; eta Txirrita bera ara erretiratu zan, zaartzaroaren ajeak eta eziñak gaiñera zetozkiola antzeman zionean. Azken urteak igarotzeko kabi goxo eta epela billatzen ere jakin zuan arek. Amabost bat urte egingo zituan etxe ortan.

Gazteluene'n, beste familikoen artean, Jose Ramon, bere arrebaren seme

bat, arkitu zuan, orduan mutil gazte eta argia, gaur ura ere mundu ontatik joana.

Txirrita, berak idazten ez baitzekian, sekretariotza egingo lioken bat edo baten premian arkitzen zan, bertsoaren batzuk papereratu asmoak artzen zituanean. Gazteluene'ra etorri ezkerotzik, illoba orrek egingo zion lan ori.

Etxe ortara babesaren billa joana zan, beraz. Eta, ortaz gaiñera, bertso-paperak ateratzeko sekulan izan zuan laguntzailerik onena topatu zuan. Orri esaten zaio tiro batez bi txori iltzea. Arrezkeroz, Txirritak, bertsoaren batzuk argitaratu nai zituanean, bere illoba orri deituko zion eta aren lumaz baliatuko zan.

Osaba-illoben arteko artu-eman onek bi ondoren ekarri zituan. Txirritarentzat, bertsoak papereratzeko erreztasuna. Eta guretzat, Txirritaren aldamenen beraren bertso, ateraldi eta gertakariak jasoko zituan testigu edo lekuko argi bat izatea.

Liburu onen leenengo zatiaren oarrei begiratzea naikoa du irakurleak: zenbat aldiz Jose Ramon Erauskin Lujanbio orren izena agertzen dan, alegia. Bereala konturatuko da, liburu au ez litzakela dan erdia ere izango, Txirritaren illoba ori izan ez balitz.

Bigarren zatiak ere, paperetan argitaratutako bertso-saillak biltzen dituan orrek alegia, illoba orri zor dio geien-bat. Txirritaren sail asko, izan ere, enkarguz jarriak izanik, egillearen izenik gabe inprentatu eta kaleratu ziran. Baiña urteren buruan illoba orrek ezagutu zituan, berak osabari kopiatuak zirala oroituta.

Asieran, osabaren oroipenak esan egiten zizkidan, eta nik kopiatu, eskolan *dictado* egin oi dan antzera. Amaika arratsalde gozo igaro genituan era ortan, Gazteluene'ko txoko paketsuan. *Auspoa*'ren

18-19'garren zenbakia orrela idatzia da geiena.

Ondoren, ordea, bera asi zan idazten. Osabaren gertaeraren bat oroitu-ala, papereratu eta korreoz bialdu egiten zidan, nere lana ikargarri erreztuz. *Auspoa*'ren 101-102 eta 103-104 zenbakietan, zati asko daude orrela moldatuak. Baita 126'garrenean ere.

Aren idazkera eroso eta jatorra ikusiz, beste burutapen bat izan nuan: garai bateko baserritarren oiturak azalduz, liburuaren bat ez ote zuan idatziko esan nion Txirritaren illobari. Liburu ori nere iritzian nola egin zitekean adierazi ere bai. Itzeko gizonak oi duten bezela, baietzkoa etzuan bereala eman. Baiña bein emandakoan, bai zintzo eta gogotik lanari ekin. Lan orren frutua, or dago *Aien garaia* izeneko liburu mardula, orduko *Cámara Agraria* zeritzaionak antolatzen zuan *San Isidro Saria* 1974 urtean irabazia.

Osabaren lekukotasuna egiñez asi, beraz, eta azkenerako idazle trebe biurtu.

* * *

Txirritaren bizitzaren beste lekuko asko ere arkitu nituan an eta emen: illobak eta gaiñontzeko aideak, auzokoak, erritarrak, bertsolariak, adiskideak, bertsozaleak...

Garai artan, izan ere, ogei urte ziran Txirrita il zala, eta artean gizon-emakume asko bizi ziran ezagutu zutenak.

Lekuko oiek, Ernani, Errenteri eta Altza'n izan ziran noski ugarienak, Txirritaren bizitzak iru erri oiekin baitauka loturarik geiena.

Inguru ortan ainbat ez bada ere, Gipuzkoa guztian ere arkitu genituan Txi-

rritaren testigantza eman zigutenak, an eta emengo bertsozaleak alegia, Txirrita beren errira kantura etorri zaneko oroipena urre-puska bat balitz bezela gordetzen zutenak.

Baiña Txirritaren famak Gipuzkoa'ko mugak igaro eta beste euskal probintzietan ere zabalduta zegoan. Napparroa'n eta Bizkaia'n aren berriak jaso ditugu, beintzat. Eta Txirritari buruzko idazlan batzuk ere agertu ziran Bidasoa'z beste aldeko *Gure Herria* aldizkarian. Are geiago: Ameriketatik bialdutako kuaderno batean, Txirritaren bertso batzuk ere arkitu ditugu.

Txirritari buruzko azterketa oien frutu, lau liburu argitaratu genituan: *Auspoa*'ren 18-19, 101-102, 103-104 eta 126'garren zenbakiak. Eta geroztik ere beste zenbait berri, bertso eta argibide bildu ditugu.

Baiña liburu oiek, azkenekoa izan ezik, aspaldi agortuak daude. Oso arrera ona egin baitzien bertsozale jendeak.

* * *

Orain bost urte, 1986'garrenean alegia, Txirrita il zaneko berrogei ta amargarren urtea bete zan. Ori zala-ta, Txirritaren bizitza eta bertsoak berriro plazaratzea gauza egokia litzakela ikusten genduan. Nola argitaratu, ordea? Leengo liburuak leen dauden bezela atera? Ala liburu oietan dagoana liburu aundi batcan bildu? Zalantza ortan denbora-puska bat joan zitzaigula aitortu bearrean gera. Baiña arkitu genituan bidea erakutsi zigutenak. Galdetu eta liburu audiaren alde agertu baitziran danak ere.

Ala, lanari ekin eta bi gauza bereala ikusi genituan. Bata, liburu txiki aietan bertsoak eta gertakariak oso sakabanatuta

eta naastuta zeudela; batera bildu eta ordenean eratu bear zirala, beraz. Bestea, berriz, liburuak bi zati eskatzen zituala. Batean, leen ere esan bezela, Txirritaren bizitza; eta bestean, Txirritak paperetan agertutako bertsoak.

Leengo liburuetan ematen ziranaz gainera, geroztik bildutako gertaerak ere sartu ditugu. Aberastu eta osoagotu egin da, beraz, Txirritaren bizitza.

Ortaz gainera, Txirritaren leengo liburuetan agertu etziran bertso-sail batzuk ere arkituko ditu irakurleak bigarren zatian.

Adibidez, Udarregi eta Pello Errota asarretu eta alkarri bertso-sail mikatz aiek atera zizkiotenean, Txirritak ere eman zuan bere iritzia auzi artan, bertso-paper bat plazaratuz. Sail ori *Auspoa*'ren 27'garrenean eman genduan argitara. Baiña nork jarria zan artean ez genekian. Orain, berriz, Txirritarena dala seguru gaude.

Auspoa'ren 24'garrenean, berriz, Txirritaren iru bertso-sail argitaratu genituan. Oietako bat, 1912'garren urtekoa, Fermin Imaz'ek eta Txirritak alkarrekin moldatua, urte artako galerna negargarria gai artuta. Eta beste biak, Fermin Imaz eta Txirrita alkarrekin asarretu ziranean, onek jarri zituan bertsoak.

* * *

Txirritaren bertso-bilduma aberastu eta osoagotu egin da, beraz, liburu ontarako. Ala ere, Txirritaren beste sei bertso-sail, oraingo beintzat illunpean gorde bearrak dirala derizkiogu. Sail oiek egilearen izenik gabeko kanta-paperetan zabaldu ziran. Baiña Txirritarenak dirala, illobak ezagutu zuan, berak osabaren aotik kopiatuak izanik.

Enkarguz moldatutako bertsoak dira,

ordea. Norbaiten aurka aundiak esateko jarri araziak. Eta norbait ori oraindik bizi dalako, edo ondorengo urbil samarrak edo bere familikoak bizi diralako, kontzientziko karga genduke, iñoren izen ona berriz ere jendearen aotan ipiñiko bagendu. Toki eta giza-izen guztiak kenduagatik ere, oso errez igerri baititeke bertsolaria norengatik ari dan.

Orixe izan da Txirritaren zenbait bertso gordetzeko izan degun arrazoi bakarra. Batzuen ustetan, eta esan ere egin dutenez, bai omen ditugu ernaniar bertsolariaren bertsoren batzuk berdekeria dariotelako izkutatuta. Orregatik argitaratuko genituzke. Baiña Txirritak era ortako bertso-sailik ez du. Aotik aorakoak, berriz, liburuaren leenengo zatian sartu ditugu. Irakurleak ikusiko duanez, orrelako bertso gutxi du; eta are gutxiago, arena dala ziur esan ditekunik. Baiña, leen adierazi degunez, duda-mudako berdekeria baiño gauza serioagoa da, gure ustez beintzat, iñoren fama eta izen garbia.

* * *

Liburu au prestatzerakoan, Txirritaren berriak eman zizkiguten testigu edo lekuko oietatik asko samar illak dirala ikusi degu. Bertsolari aundi onen mundu-aldia joan zan bezela, ura ezagutu zutenena era pasatuxea dago. Bertsosale familiaren belaunaldi bat laster izkutatu bearra dala esan genezake.

Ortaz oartzean, tristurak artu gaitu, batetik bertsozale oiek adiskide genituala; eta bestetik, emendik joandakoan utsune aundia utzi digutelako. Baiña aien itz biziak gerorako jaso izanak duan poza ere gurekin degula ezin ukatu.

Oarretan, ildako lekuko oien izenei *zana* itza eranstea pentsatu genduan asie-

ran. Egokiena ere orixe litzake noski. Baiña beste lekuko batzuek zer egin duten. bizi diran edo il diran alegia, ez dakigu. Eta batzuen esan eta besteena ixiltzea ere etzan, bada, itxurazkoa izango. Orre-gatik, inorenik ez degu esango.

* * *

Berrikuntza bat badakar liburu onek. Txirritari buruzko orain arteko liburuak, argazkirik gabeak izan dira. Eta argazkia, apaingarria ez-ezik, dokumentua ere izan diteke.

Ori ala izanik, ezagutzen diran Txirritaren argazkiak biltzen alegindu gera.

Txirritak, egia esateko, bertsolari gutxi izan duten suertea izan du. Bera nortasun aundikoa izan zala ukatzerik ez dago. Baiña bai beste bertsolari asko ere.

Ala ere, Txirritarenak bai, baiña beste oien gertaerak, aotik aorako bertsoak, zelebrekeriak, ateraldiak eta abar etziran bildu, inor artara jarri etzalako; edo-ta, inor jarri bazan, garaiz asi etzalako. Ori dala-ta, bertsolari oiek ez ditugu guk nai bezin ondo ezagutzen.

Xenpelar datorkit burura. Denbora zan artean inor arekikoak biltzen alegindu izan balitz, beste Xenpelar bat izango genduke gaur.

Onenbesterekin, itzaurre gisako ontan esan bear ziran guztiak, edo geienak beintzat, adierazi ditugula uste degu. Liburu au atsegingarri izan dezala opa diogu irakurleari. Gure iritzian, bertsolari aundi baten nortasuna ez-ezik, Euskalerraren garai berezi eta jakingarri bat ezagutzen ere lagunduko dio.

BIZITZA

Jaiotetxean

JAIOTZA ETA BATAIOA

Jose Manuel Lujanbio Retegi, Txirrita bertsolaria izango zana alegia, 1860'garren urteko abuztuaren 14'ean jaio zan, goizeko irurretan.

Gurasoak, Bautista, ernaniarra, eta Juana Josefa, oiartzuarra, izan zituan. Aitaren aldeko aiton-amonak, Pedro Lujanbio eta Paskuala Ganborena, biak ernaniarrak; amaren aldekoak, Inazio Retegi, oiartzuarra, eta Frantziska Iraola, errenteriarra.

Sorlekua Ernani'ko partean izan zuan, Latze edo Latze-zar zeritzaion baserrian. Baserri ori, Ernani'tik Goizueta aldera goazela, kaletik zortzi bat kilometrora zegoan, Urumea ibaiaren eskubi aldera, Benta-txuri, Pagoizarte eta Urdaburu'tik datorren eta Uxako-erreka deritzaion erreka baten ertzean.

Bera baiño zaarragoa arreba bat zuan: Josefa Inazia, 1858-II-11'an jaioa. Gaz-

teagoak, berriz, beste bost senide: Migel Jose, 1862-XII-23'an jaioa; Juan Maria, 1865-XIII-4'an; Maria Aszension, 1867-XI-20'an; Juana Bautista, 1870-IV-6'an; eta Isabel Bizenta, 1872-XI-5'ean.

Leenengo bie *Luxanbio* esaten zaie eliz-agirietan, urrengoei *Lucambio* eta azkenari *Lujambio*. Txirritak bere denbora guztian orrela erabili baitzuan, azken era au artuko degu guk, euskal ortografiari jarraituz *Lujanbio* idatzita.

Leen esan degunez, etxetik kalera zortzi bat kilometroko bidea zeukaten. Ala ere, etziran nagi ibili aurrak bataiatzera eramaten. Goizean jaioak, zazpi senideetatik bost, egun bereko arratsaldean eram zituzten pontera. Eta arratsaldean jaioak, beste biak, biaramonean. Oitura alaxe zan garai artan. Kristau izatea biotzez estimatzen zuten nunbait gure aurrekoak.

EREÑOZU'KO ELIZA

Txirrita jaio eta andik bost urte t'erdira, Ereñozu'ko eliza egin zan. Latze'tik kilometro batera dago, eta orra nola altxatua dan.

Ernani'tik Naparroa'ko mugaraiño kilometro asko dago. Tarte ortan, Urumea ibaiaren bazterrean eta bi aldeetako mendi-egaletan, baziran iru baillara edo auzo, Fagollaga, Ereñozu eta Aparrain, eta berrogei ta zazpi etxe, baserriak geien-geienak noski¹. Oietan irurogei ta lau famili bizi ziran, lareun ta irurogei lagunekin. Baziran elizaraiño bi edo iru orduko bidea zutenak.

Garai artan, Don Agustin Jauregi Ernani'n apaiz zegoan. Andik urte batzuetara, Don Agustin ori Azpeiti'ko erretorea zalarik, Udarregi eta Pello Errota alkarrekin asarretuko ziran, D'Abadie'k jarritako saria artarako bidea izanik². Euskaltzale prestua zan, eta euskerazko zenbait liburuxo ere idatzi zituan.

Don Agustin orrek, kristau aientzat eliza berri bat egin bear zala pentsatu zuan. Ala, 1864'eko iraillaren 17'an, batzarra egin zuten inguru artako etxekojaunak. Baietz erabaki zuten, eliza berria egin bear zala alegia, eta gizon-mordoska bat izendatu ere bai, tokia aukeratzeko eta dirua eta bear ziran guztiak sortzeko. Gizon oien artean, Juan Bautista Lucambio azaltzen da. Txirritaren aita gogotik saiatu zan, beraz, eliza berriaren lanetan.

Ereñozu jo zuten tokirik egokienetzat.

Gero, bakoitzak al zuana eman, gainera-koa al zuten tokitik inguratu eta auzo-lanean lan egiñez, aurrera atera zituzten beren asmoak. 1866'ko ilbeltzaren 15'ean, eliza berria bukatu dala eta elizkizunak bertan egiten asteko baimena eskatzen dute. Otsaillaren 12'an eman zan baimen ori. Asi ziran, bada, mezak-eta ematen, San Antonio aldarean jarrita.

Eliza bukatutakoan, bost urte t'erdi zituau Txirritak. Andik aurrera, aita edo amaren eskutik etorriko zan mezatara jaietan. Etzuan inork pentsatuko, denboraz mutil koxkor ura izango zala, San Antonioetan, baillarako festetan alegia, urte-urtero ekarri bear zuten bertsolaria.

Ain zuzen, kantu-lanean ementxe azaldu zan plazara leenbiziko aldiz. Ala adieraziko zuan berak, zaartu eta gero, irurogei ta amar bat urte zitularik jarritako bertso batzuetan.³

Urte batean, Ereñozu'ra kantura etorri eta bi bertso auek kantatu zituan:

Nikolas Aundi arotz burua
dana guztien aurrian,
gure aita ta Bizorro berriz
ganaduakin lorrian;
beste batzuek arri bildutzen
Alkatxuin'go larrian,
ermitatxo au sortu ziguten
Txokolate'ren aurrian.

Don Agustiñek aterria da
lendabiziko idia,

gizarajoa gizon ona zan,
prestua eta noblia;
gure aita're ortarako zan
ontza bat urre botia,
ori egiten gastatua da
nik bear nuen dotia.⁴

1. Etxe oien izenak: Ereñozu, Etxeberri, Olaburu, Bazterrola, Arbelabienea, Pagollaga, Zubimutur, Larragain, Larragain-goikoa, Akola, Alkatxuri, Iturralde, Abilaz, Txabolategi, Ubarreto-aundi, Ubarreto-txiki, Laatzain, Tximistanea, Atxikar edo Beskita, Alzusta, Olazar, Hermita, Nikolas-Marieña, Urruzuna-goikoa, Urruzuna-bekoa, Latze, Pikuaga, Pikuaga-etxeberrri, Iraola, Paguaga, Apa-

rrain, Lizarregi, Bentatxuri, Izen-cder, Izen-cder-bekoa, Txabolategi, Urdandegieta, Zulueta, Amorola, Etxolaberri, Urdaneta, Atabaleruen-txabola, Astabizkar, Larraz, Larrarburu, Landerbaso ta Argorri.

Etxe auek iru erri auen lurretan banatzen ziran: Ernani, Donosti eta Errenteri.

2. Ikus: *Auspoa*, 27.

3. Ikus: ... orrialdean.

4. Jose Oiarbide, Latze, Ernani.

Gregorio Santa Cruz, Akola, Latze, Ernani. Onek beste onela kantatu zidan leenengo bertsoa:

Nikolas aundi Goikoctxe'kua
arotz guztien aurrian,
gure aita zana eta Pizarro
aziendakin lorrian.
Beste batzuek arriya biltzen
Katilluzar'ko larrian,
ermita eder au egin ziguten
Txokolate'ren lurrian.

LATZE'N

Latze'n bizi izan zan Txirrita, amairu bat urte bete arte. Urte auetaz ezer gutxi dakigu, gertaera bat edo beste izan ezik.

Batean, mutil koxkorretan, Kalbario guztiak buruz ikasi zituan. Bikarioak jakin zuan ori, eta bost pezta eman zizkion. Garai artan, ia aste beteko gizon larri baten jornala omen zan diru ori.¹

Eskolan zebilela, okerren bat egin zualako, komunean sartu zuan maistrak bein batean.

Komunean, kolka bere txitoeekin zegoan. Txirritak, kolka-txitoak artu eta komuneko zulotik beera bota zituan.

Ori jakin zutenean, izugarrizko jipoia eman zioten Txirritari ama eta maistraren

artean. Amak eldu eta maistrak jo, edo maistrak eldu eta amak jo. Jotzeko, xexto baten buruzaria dantzatu zuten. Buruzaria, xextoak goien, jira guztian, uztaian izaten duan makilla da.

Biamamonean, mezetara zijoala, bidean topo egin zituan Txirritak ama eta maistra ori.

Zaartutakoan, onela esaten omen zuan, gertaera au kontatzean:

–Dudan-dudan egon nintzan, biak artu eta bidetik goitik beera botako ote nituan.²

Beste batean, auzoko famili batek xextera bat sagar enkargatu zien Txirritaren

gurasoei; on-ona izatea nai zutela, gaine-
ra.

Txirritaren amak, banaka-banaka one-
nak berezi eta bialdu zien xextera sagar
ori.

Baiña prezioa jakin zutenean, garestia
iruditu eta bueltatu egin zizkioten saga-
rrak. Beste etxe artako alaba batek ekarri
zituan, eta mengantzaz tolare buruanustu
zuan xextera, sagar guztiak lurrera bo-
teaz.

Orduan, Txirritaren amak, *zapla!*, ma-
saillean jo zuan auzoko neska ori. Orta-
tik, bi familiak asarre gelditu ziran.

Latze utzi eta Txirrita baserrira alda-
tzerakoan, onela esan zien beste etxe arta-
ko etxeoandreak:

–Zoazte, zoazte! Arraza gaiztoak alde
egin dezala emendik!

–Eta Txirritaren amak onela erantzun
zion:

–Ez, etxeoandre, ez. Gu bagoaz, bai-
ña arraza gaiztoa bertan geratzen da.

Tolarea ere bazuan, beraz, Latze'k.
Baiña ez omen zan batere gaurkoak beze-
lakoa; zurezkoa omen zuan ardatza.³

* * *

Ernani'ko 1860 urteko *Padrón Muni-
cipal*'ean esaten danez, Txirrita jaio zane-
ko urtekoan beraz, Ereñozu'ko Txabolategi
baserrian, Txabolategi bertsolariaren
jaiotetxean, Domingo Erroizenea izeneko
etxeojauna bizi zan.

1868 eta 1871 urtekoetan ageri danez,
bertan jarraitzen zuan Domingo orrek.

Ereñozu'ko Jose Oiarbide'k, Domin-
go orren aditzera bazuan, leengo zaarrei
entzunda. Bertsotan zer edo zer aritzen
zana omen zan, eta Txirritak, artean zor-

tzi edo bederatzi urteko mutikoak, onela
esaten omen zion:

–Neri bertsotan erakutsi bear didazu,
Domingo.

* * *

Fabrika batek artu zituan, ordea, La-
tze'ko soro eta lurak. Au dala-ta, berta-
ko familiak alde egin bear izan zuan an-
dik, eta Errenteri'ko Txirrita baserrira al-
datu zan.

Dalako fabrika ori, izen onekin ezagu-
tu da ia oraintsu arte: *Hijos de Jaime Puig*
– *Destilería de Leñas y Fábrica de Produc-
tos Químicos*. Baiña gaur itxita dago.

Orko egur-karraioak eta abar egiten
zituzten itzaiak, Latze'n izaten omen zu-
ten beren babes-lekua. Bai perratokia
bertan jarri ere.

Denbora askoan etxeak oso-osorik
iraun zuan. Baiña gero, betikorik ez baita
mundu ontan, erori egin zan. Gaur ez da
ikusten, untzaz jantzitako arri pareta zaar
batzuk besterik.

Beeko aldetik, Uxako erreka dijoa;
eta, errekaen alde batetik bestera igaro-
tzeko, zubi zaar bat dago.

Kamiotik ez da Latze baserria ikusten.
Fabrikaren atzera pasa eta onen bazterre-
tik joan bearko du. Txirritaren jaiotetxea-
ren aztarrenak ezagutu nai dituanak.

Fabrikak langilleak bear, eta langi-
lleak etxeak. Ala, baillara berri bat sortu
zan fabrika aurrean, kamio bazterrean.
Baillara orrek Latze edo Latxe du bere
izena. Etxea galdu bazan ere, izenak irau-
ten du, beraz.

1963'ko urriaren 20'an, omenaldia
egin zitzaion Txirritari Ereñozu'n. Baita
ere oroitarri bat, bere irudiarekin, Latze
baserriaren pareta zaarren ondoan ezarri.

* * *

Fabrika egitean, langilleetan bazan argin andaluz bat.

Bein batean onek, berak bezperan egindako pareta, okertua arkitu zuan. Bultzaka asi zan, pareta okerra zuzendu nairik.

Lan ortan ari zala, Txirritak ikusi zuan. Artean mutiko gaztea zan, baiña bertso au bota zion:

Aiziak biali du
andikan onuntza,
geroztik emen dabil
gure andaluz;
argiñ ona zala ta
zakurraren putza,
bera eroriko dek,
ez akiyok bultzatza.⁴

* * *

Andaluzaren gertaera eta bertso aukerak beste onela ere eman dizkirate:

Argin andaluz bat etorri omen zan, eta berealdiko famarekin gaiñera, oso argin ona zala-ta.

Txirrita, motikoa, beste batekin argin aprendizatzen omen zan, eta ari begira egoten zan beti.

Argin andaluz orrek aurreko egunean pareta oker xamarra egin omen zuan. *Bizkarra* esaten omen zaio orri argintzan. Eta, inor ez ikusteagatik goizean goiz joanda, mailluarekin *danba!* eta *danba!* jotzen ari omen zan barren aldera.

Eta Txirritak, ala ikusirik, bertso au kantatu:

Aiziak bialduta
etorri da onuntza,

geroztik emen dabil
gure andaluz;
argiñ ona zala ta
zakurraren putza,
bera eroriko dek,
ez akiok bultzatza.⁵

* * *

Egun batean, gizon larria zala, Latze inguruan ari omen zan lanean Txirrita. Artean, Latze baserria oso-osorik zegoan. Fabrikako enkargatuari or etorri zitzaion, bere jaiotetxea ikusi nai zuala esanez.

Baietz, lagunduko ziola, erantzun zion, eta alkarrekin joan ziran.

Ateondoraiño eldu ziran, eta orduan Txirritak onela esan zuan:

–Arrayia!... Arrayia!... Esaera zaarra da: jaiotako tokira iltzera. Ni ez noa, ba, barrena sartzera.

Eta buelta eman eta sartu gabe alde egin zuan.⁶

* * *

Beste egun batean, Ereñozu'ra kantura etorri eta bertso au bota zuan bere jaiotetxeagatik:

Txirrita zarrak beti izan du
aurreko zarren fedia,
zenbait bezela ez da izandu
sinismenikan gabia;
zaku bat erre izan biar du
gure aitonak gordia,
saiatzen dira galanki baña
ezin billatu ordia.⁷

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

3. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

4. Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze baillara,
Ernani. Bertso au oso ezaguna da Euskalerrian. Bai-
ña gertaera bestela kontatzen dute, irakurleak
urrengo atal batean ikusiko duan bezela.

Dudarik gabe, Latze'n bertan eman zidatena
izango da egitazkoa, bertako kontaerak, ao arrotze-
tan ibili gabeak alegia, aldatzeko ere arrisku gutxia-
go baitu.

5. Kreszentzio Imaz, Ataun. Ofizikoa bera
ere; argiña alegia.

6. Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze baillara,
Ernani.

7. Jose Oiarbide, Ereñozu, Ernani.
Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze baillara, Er-
nani:

gure aita zanak Latze'n or zuen
zaku urria gordia,
saiatzen dira gogotik bañan
ezin billatu ordia.

TXIRRITAREN BURUA

Txirritaren burua aundi xamarra omen
zan. Ala diote ezagutu zutenak, eta ala
ematen du argazkietan ere.

Bein batez, Andoain'en-edo, Pello
Errota eta Txirrita bertsotan ari ziran. Pe-
llo buru soilla zan, eta txapela eraztean
jenerala edo apaiza ematen zuala esan
zion Txirritak.

Pello Errotak onela erantzun zion:

...onela soiltzen bada
zure aundi ori,
argi egingo diyo
mundu guztiyari.

Etzan, beraz, nolanaiko puska izango.
Baiña zenbateraino zan obeto edo zeatza-
go juzkatzeko, asko lagunduko digu Az-
peiti'ko Joxe Lizaso bertsolariak kontatu
digun beste gertaera onek.

Bein batean, Txirrita, Saiburua eta
Txapel bertsotan ari omen ziran Azpei-
ti'n.

Kaxkante esaten zioten *xelebre* oietako
bat ere an omen zegoan jende artean,
bertsolariei begira.

Lagun batek etorri eta esan zion:

–Aizak, *Kaxkante*: ez nian uste orren
bertsozalea intzanik.

Eta *Kaxkante*'k erantzuna:

–Ez nitxioken bertsoak entzuten!

–Zertan ago, ba, emen?

–Txirrita orren buruarekin zenbat txis-
kero arri egin ditezken pentsatzen ari nak.

Txirritak bazekian berak ere puska
ederraren jabe zala, eta nundik edo zerga-
tik zuan ere bai. Bein baiño geiagotan
entzun omen zion ori Altza'ko Gaztelue-
ne'ko bere illoba Jose Ramon Erauskin
Lujanbio'k, eta onek guri onela kontatu
zigun:

«Txirritak esan izandu zuen, bera jai-
ozanean edo bera jaiotzeko egunetan,
amak auzoko andre bat jakiñaren gañean
jarri zuela, laguntzera etortzeko.

Ordua allegatu zanean, etorri eta Txirritaren amari lagundu omen zion aurra egiten; bañan pixka bat edan ere egin omen zuen, eta berotu edo moxkortu ere bai.

Ta, aurra jaio zanean, eraman omen zuen sukaldera; ta an, amak egun aietarako preparatuta zeukan ollo-saldatik, berak artu katillukada bat. eta Txirritari eguardirako zegoen baba-saldatik eman omen zion kuxarekada bat. Txirritak, berriz, artu...

Eta, berriz aurra amarengana eraman zuenean, onela esan omen zuen emakume orrek:

–Au den onen apetitua, au! Oni naita ematen badiozute, egin bear du galanta!

Eta esaten zuen Txirritak, orregatik izango zuela ainbesteko burua: lenbiziko tragua baba-saldatik egin zuelako».

ITAURREAN

«Txirrita, mutil koskorra zala, bere osabaren etxera bialdu zuten, itaurrean edo bei aurean ibiltzera; bada badakizute, ganaduak zelaican zuzen ibiltzeagatik, aurretik bat jartzen dala, ondo joan ditezzen; eta ala jarri zuten Txirrita ere.

An zebiltzan, osaba atzetik areari kontu egiten eta illoba aurretik ganaduak zuzen eramanaz, lurra txikitzen; baña aguro aspertu zan Txirrita lan artan; eta, nola etzuen ikusten inola biderik andik libratzeko, esan zion osabari:

–Osaba, nik tripako miña daukat.

–Ori ez dek ezer. Bereala joango dek ori –erantzun zion.

Baña Txirritak etzeukan gogorik an ibiltzeko, eta esan zion berriz ere:

–Osaba, nik miña daukat.

–*Bueno*, min baldin badaukak, nik ba-

zekiat errezo bat ori sendatzeko; eta, beste aldeko muntora irixten geranean, egingo diat errezo ori. Ikusiko dek nola joango dan tripako min ori.

Iritxi ziran beste aldera eta galdetu zion:

–Oraindik min al daukak, Joxe Manuel?

–Baaai! –erantzun zion onek.

–Etorri adi onera eta jarri adi emen etzanda lurrean.

Jarri zan Txirrita luze-luze etzanda; osaba ere bai aldamenean belauneko, eta asi zan esanez:

Tripan min,
ipurdia biribil,
ipurditik laratzera,
osasuna gorputzera!

Eta berriz ere:

Tripan min...

Orrela iru aldiz, eta esan zion:

–Ikusiko dek nola joango dan. Eta, orrekin ez bada joaten, nik bazekiat beste erremedio bat, ori baiño gogorragoa eta fuerteagoa, eta ura egingo diat laixter!

Ura aditu zuenean, Txirritak igarri zion etzetorrela gauz onik, eta pentsatu zuen:

–Ia onek ezagutu didan zer dedan eta ematen didan paliza bat, eta lenago miñik

gabe ibilli nai ez eta gero atze aldean min ederrarekin ibilli bear izaten dedan!

Eta andik laixter galdetu zion berriz osabak miñik bai al zeukan, eta ezetz erantzun zion.

Orrelako milagroak egiten zituzten denbora bateko erremedioak.

Esango nuke gaurko pastilla, indizio eta botika askok ez lutekela ain ondo eta axkar sendatuko».¹

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio: *Aien garaia* liburuan, 1975, 321-2 orrialdeetan.

Txirrita baserrian

TXIRRITA'N

Txirrita baserria San Markos mendia-
ren azpiko aldean dago, Errenteri'tik As-
tigarraga'ra dijoan kamiotik eskubira, ka-
letik kilometro ta erdira.

Kamioa utzita, leendabizi Txirrita-be-
rri baserria dago. Baserri au berria da.
Andik pixka batera, muiño batean eta
gutziz toki erosoan, Txirrita ageri da.

Txirrita antziñako baserria da. Base-
rria ez-ezik, jauregi zaarra ere bai. Zabala
eta aundia; eta, euskaldun etxe bezela,
oso itxura jatorrekoa.

Leendabizi, egutera aldeko alderdia
agertzen da. Alderdi ortan, arkuzko bi ate
dauzka, bata dana borobilla, bestea pun-
taduna. Oien gaiñean, alde batetik beste-
raiño, etxeari aurre guztia artzen dion bal-
koa, bere zurezko baranda zaarrarekin.
Balkoi-peko pareta guztia arrizkoa da;
goikoa, berriz, ladrilluz eta abe zaarrez
egiaña (*entramado*). Goien, teillatuaren er-
tzaren parean, uxozentzako zuloak.

Ipar aldean, atzeko aldean alegia, ar-
kuzko beste ate bat du; eta San Markos
aldean ere bestea.

Barreanean, berriz, ukuillu zabala, ji-
ran saietera bat edo beste duala, mandioa,
eta emen toleara.

Ederra da, batez ere, balkoitik ikusten
dana: inguru guztian berdez jantzitako

muiñoak; an eta emen baserriak; eta
atzean mendiak: Aiako Arria, Urkabe,
Bianditz, Landerbaso, Aldura'ko gaiña...

Inguruko baserrietan bi dira izendatu
bearrak. Bata, San Markos mendia-
ren egalean, Saiburu edo Sareaburu izena
duana. Onak zutik irauten du. Eta bestea,
orain urte batzuk fabrika bat egiteko bota
izan zana, Telleri-txiki. Txirrita'tik oso
gertu zegoan au, sakonean, kamioaren
ondoan.

Bi etxe oietatik, Txirritaren kideko bi
bertsolari on askoak sortu ziran; eta biei
ere, Txirritari bezela, beren jaiotetxeko
izenez deitu zien jendeak: Saiburu eta Te-
lleri-txiki.

Txirritaren familia Txirrita'ra aldatu
baiño leen, *Xoxua* izengoitia zuan familia
bizi zan etxe ontan.

Aldaketa egiterakoan, beren trasteak
gurdiz eta zaldiz ekarri omen zituzten La-
tze'tik Txirrita'raiño.

Esan bezela, emen jaioa ez bazan ere,
etxe oni zor dio bere izena Txirrita'k.

Bertan bizi zaneko gertaera askotxo
dakizkigu.

Egun batean, amalau-amabost bat ur-
te zituala, aita bi erreal eman eta beia
zezenarengana eramateko agindu zion.
Garai artan, bi erreal bear izaten ziran

ortarako. Gero, 1963 urtean, ogei duro. Gaur, berriz, ez dakigu.

Artu du Txirritak beia sokatik; baita ere dirua patrikan. Joan dira pixka batean; baiña zezena zegoan tokira aillegatu baiño leen, bidetik jira, denbora pixka bat egin eta etxera berriz ere, dirua beretzat gorderik.

Ori izan omen zuan Txirritak aitaren eskutik jasotako leendabiziko dirua.¹

* * *

Karlisten gerratean (1872-1876), famili bakoitzetik gizaseme bana bialdu bear omen zan erriko guardiak-eta egiteko. Agindu ori emana zuten liberalak.

Txirrita'renean, etxean beste gizonik etzala-ta, aita joateko prestatzen asi zan. Baiña Txirritak ala esan zion:

–Berori iltzea baiño, ohea da ni iltzea, eta neroni joango naiz.

Aitak erantzun zion:

–Joan adi, ba.

Eta an ibili zan amalau urteko mutikoa soldadu artean, aita arriskuan ez jartzeagatik.²

* * *

Andik urte batzutara, jai batean, bei bat ume egiteko zegoan Txirrita baserrian. Anaiak esan zion:

–Joxe Manuel, nik oraindik mezetara joan bearra diat, eta bei orri begiratu akiok.

–Bai, motell, bai. Joan adi lasai.

Ala, anaia mezetara joan zan, eta Txirrita beiari kontu egiten gelditu zan.

Anaia mezetatik zetorrerenerako, beiak umea egin eta Txirrita auzoko sagardotegi

batera joana zan. An alkar toko egin zuten bi anaiak.

Anaiak, Juan Marik, galdetu zion:

–Beiak umea egin al dik, Joxe Manuel?

–Bai, motell, bai. Egin dik.

–Zezena ala urruxa?

–Ez dekala asmatzen!

–Baietz bitatik batean asmatu!

–Ezet bitatik batean!

Baietz eta ezetz, ezetz eta baietz, egin dute apostu, an zeuden danentzako sagardo erronda. Jende dana ere aien ingurura bildu zan.

Anaiak esan zion:

–Zezena?

Txirritak orduan segituan:

–E?

Eta anaiak berriz ere:

–Zezena?


Apostua galdua zuan. Txirritak «e?» ori sekulako maliziarekin esan zion, ondo entzun etzualakoan alegia. Baiña berez, anaiari leengoa berriz ere esan arazteagatik. Orrela, anaiak apostua galdu bearra zeukan nai eta nai ez. Bitan asmatu edo bat ere ez asmatu egingo zuan; ez, ordea, bitatik batean, apostua zan bezela.³

* * *

Garai artan, neguan, ganaduari beste zer emanik etzutenean, otea moztu, txiki-txiki egin eta jaten ori eman oi zioten. Txiki-txiki egite orri «otea jo» esaten zioten.

Egun batean, anaiak otea jotzeko agindu zion Txirritari. Onek kolperik ere eman ez, noski.

Etorri da anaia eta galdetu dio:



Txirrita baserria.

–Otea jo al dek, *hermano*?

–Ez, motell, ez. Desafio ederrak egin zizkat, baiña ez nak atrebitu jotzera.⁴

* * *

Gogorragoa egin zion amari. Zenbait egun bertsoan edo parrandan pasata, etxera etorri zan. Biaramon-goizean, jeiki eta sei erreal eman zizkion amari.

Ama pozik. Onela esan zion alaba bati:

–Bai al dakin? Gure Joxe Manuel asi den dirua etxera ekartzen.

–Zenbat ekarri du, ba?

–Sei erreal.

–Ta zer dira oiek?

–Gauza aundirik ez noski; baiña asi den beintzat.

Gero, gosaria eskatu zion Txirritak amari. Eta onek:

–Korajea badek gosaria eskatzeko? Aita eta besteak or ari dituk lanean; eta i, olako sasoiarekin, beti parrandan!

Baiña ama izaki eta eman zion.

Txirrita ixil-ixilik egon zan, gosaria jan zuan arte. Bukatu zuanean, ala esan zion amari:

–Ama, ekatzu bi pezta.

Garai artan, bi pezta gizon larri baten egun beteko jornala izaten omen zan. Amak esan zion:

–Baiña lotsik ez al dek? Aita zaarra or ari dek lanean ler egiten; eta ik, oinbeste egun parrandan pasata, bi pezta bear ditukela? Ez al dizkidak, ba, leen sei erreal eman?

–Bai; baiña oiek zertarako nituan?

Ain zuzen ere, auzoko taberna batean ardi zaarra jatea bi peztan izaten omen

zan. Orregatik, amari sei erreal eman eta bi pezta eskatu zizkion.

Txirritak, leen bezela pixka batean ixil-ixilik egon ondoren, berriz ere esan zion:

–Ama, ekatzu bi pezta.

Baiña amak ez ematen. Orduan, ama iturrira joan eta etorri bitartean, ukuillura sartu eta txekor zezen aundiena askatu zuan Txirritak. Gero, sukaldean exeri zan.

Amak, txekor zezen ori libre zebillela konturatu zanean, onela ots egin zion semeari:

–Joxe Manuel, Joxe Manuel! Etorri adi aguro! Txekorra askatu dek eta lotu zak azkar!

Ez baitzekian semeak askatu zuanik.

Txirritak erantzun zion:

–Bi pezta ematen badizkidazu, bai.

Amak berriz ere:

–Lotu zak txekorra, motell, bazter guztiak ondatuko dizkik-eta!

Eta Txirritak:

–Bi pezta ematen badizkidazu, bai.

Beste erremediorik etzuala, amak bi pezta eman zizkion. Eta Txirrita, txekorra lotu eta an joan zan auzoko taberna artara, ardi zaarra jatera.⁵

* * *

Egun batean, babarrun motxa biltzen ari zan, eta lekak banaka-banaka biltzen zituan.

Batek galdetu zion:

–Zer ari zera, Txirrita?

–Babarrun motxa biltzen.

–Guk ez degu orrela biltzen; guk ipur-ditik ateratzen degu.

-Nik orain ez; jan eta gero.⁶

* * *

Beste batean, etxean ezer egin gabe zegoan. Amak ikusi eta esan zion:

-Motell, zertan ago emen? Oa emendik, bareak biltzera bederenik.

-*Bueno*, joango naiz, ba, ama.

Joan eta arkitu du bat. Onela esan zion:

-Ai, nere bare alarguna, jan dezu nere babarruna, orain zoaz sasian barruna!

Eta, ori esanez, sasian barruna bota eta etxera bueltatu zan segituan.

Amak galdetu zion:

-Billatu al dek deus?

-Bai, ama; eta ura alarguna. Beltzez jantzita zegoan beintzat.⁷

* * *

Euskalerriko kanta zarrak deritzaion liburuan (*Tomo II, Imp. Macazaga, Rentería*), bertso au dator:

Milla demoniozko
bare adarduna,
nola tratatu dezu
nere babarruna?
Lengo egun batian
il diyot laguna,
geroztik oneraño
dabil alarguna,
artu ta botako at
sasiyan barruna.

Seguru esateko ez dakigu; baiña, bear-bada, bertso eta gertaera auek ez dira Txirritarenak, Zizurkil'ko Otaño'tarrenak baizik.

* * *

Beste egun batean, aita sorora lanera joan bai, baiña Txirrita etzectorren laguntzera.

Bein bear-ta, azaldu da noizbait ere, aitaren gosaria berekin dakarrela. Eta bere aitari onela dio:

-Kaixo, Batista!

Aitak, berriz, kasorik ere ez. Eta orduan Txirritak:

-Asarre al dago, ba? Berorren emaztea ere ala gelditu da, daukan familiarekin.⁸

* * *

Amak, aren lanerako gogoia ikusita, onela galdetu zion bein batean:

-Motell, motell! Zer egin bear dek zartzian?

Eta Txirritak onela erantzun zion bat-batean:

-Ama, zaku zar bat atzian.⁹

* * *

San Markos mendiko fueratea egiten ari ziran garaian, langille batzuk Txirrita'n zeuden ostatuz.

Goiz batean, oietako bat, ondo-ezik edo miñez zegoalako itxura egin, beranduago jeiki eta aize pixka bat artzera zi joala esanez, kanpora atera zan. Baiña ordurako bere pardela balkoitik botea zeukan. Eta pardela artu, ostatua zor utzi eta alde egin zuan.

Amak, noski, pena artu zuan. Baiña Txirritak esan zion egoteko lasai; berak billatuko zuala gizon ori, eta kenduko zio-la dirua.

Amak esan zion:

-Zer kendu bear diok ik ari?

Eta Txirritak erantzun:

–Bai. Nik kenduko diot. Ez diot bar-
katuko.

Esan eta egin. Atzetik joan eta arkitu
du gizon ori. Kargua artu eta kendu dio
dirua.

Baiña txanponak berak jaso zitua-
nean, *Albaiteruena* deitzen zitzaion taber-
na batera joan eta danak gastatu zituan.

An, dantzan eta saltoka zebilela, txur-
nioa estrokatu zuan (txorkatilla biurritu),
eta bestek ekarri bear izan zuten etxera
aidean.

Gisa artan ikustean, onela galdetu zio-
ten etxeokak:

–Motell, zer egin dek? Zer pasa zaik?

Eta Txirritak bertso onekin erantzun
zien:

Albaiteruen sala
demonio ortan,
demoniozko estropozo bat
egin nuen bertan.
Demoniuak emen,
demoniuak an,
demoniuak beti
gorputzaren bueltan,
demoniuak sasoi zeukaten
demoniuetan.¹⁰

Albaiteruen sala ori Bonatxo baserrian
zegoan. Taberna ortan gertatutako maki-
ña bat pasadizo kontatuko dira liburu on-
tan.

* * *

Erretereri'ko Juanito Zabaleta bertso-
laria zanaren kuaderno batean, bertso au
onela dator bere doiñuarekin:

Al- bai- te- ru- an sa- lan
de- mo- ni- ño ar- tan,
de- mo- ni- ñoz- ko es- tro- po- zo bat
e- gin nu- en ber- tan,
de- mo- ni- ñu- ak e- men,
de- mo- ni- ñu- ak an,
de- mo- ni- ñu- ak sa- soi dau- ka- te
de- mo- ni- ñu- e- tan.

Aita Donosti'k, 1921'ean argitaratu
zuan *Euskal eres sorta* kanta-bilduman,
bertso au bere doiñuarekin dakar:

Al-bai-te-ru-ben-sa-la
 de-mo-ni-o-ar-tan
 de-mo-ni-oz-ko-es-tro-pe-zo-bat
 e-gin-nu-en-ber-tan.
 De-mo-ni-u-ak-e-men,
 de-mo-ni-u-ak-an,
 de-mo-ni-ok-za-bil-tzen
 gor-pu-tza-ren-buel-tan,
 de-mo-ni-u-ak-sa-soi-zau-ka-ten
 de-mo-ni-u-e-tan.

(Donosti: Euskal eres sorta, 66)

* * *

Beste batean, denbora asko kanpoan igaro ondoren, etxera etorri omen zan. Baiña lanik ez egitearren, berriz ere kanpora. Abiatzerakoan, bertso au bota omen zuan:

Bartarratsean etorri nintzan,
 gaur atera naiz etxetik,
 aita ta ama errietan da
 zakurra zaunkaz atzetik;
 ni etxerako ona ez izan,
 gauzak itxura bazetik,
 gure Jainkoak libra nazala
 komeni ez dan gaitzetik.¹¹

* * *

Beste egun batean, Txirrita, gaupasa tabernan egin eta goizaldean azaldu zan etxera. Etxekoak noski, erritan eman zioten, eta Txirrita atzera ere tabernara. Ontan sartzean, bertso au bota zuan atetik:

Gure etxean asarre daude,
 jaunak, ez dago atsegin,
 udaberria badator eta
 pentsatuko det zer egin;
 aitzurra eta pala artuta
 Naparroa'ra aldegin,
 aberastuko ez banaiz ere
 begin bistatik aldegin.¹²

Azkue'k, bere *Cancionero popular vasco* bilduman, 544'garren zenbakian, Mondragoi'ko Alejandro Altube'ri jasota, bertso onen aurreko erdia dakar doiñu onekin, beste erdia *lara, lara...* beste letrarik gabe utzita:



* * *

Etxeko maiorazkua nintzan tokamentuz, baldin serbitu banu aita pulamentuz; nere bizimodua beti dabil kantuz, despatxatuko naute ez banabil kontuz, aita ikullun dabil beiak gobernatzuz.¹³

* * *

Donosti'ko Oriamendi baserriko Segundo Kalonje bertsolariak, berriz, onela esan digu:

«Ibili xelebreak egiña izango zan Txirrita ere, gizarajoa. Mutilzarra, ordea, ta ez apurutzen ezertarako ere, ta segi alaxe.

Gaspe denboran bere disgustuak bai; baiña bai egun ederrak ere pasa. Ura bertsoara joan eta aurretik tabernara jendea galanki eramán arazten arek. Baiña jan eta edaten emanda, jendea nazkatu ere bai igoyal azkenerako.

Amarekin badira beti etzala ondo kontontzen edo alako bertsoak. Kanpoan egun bat pasa, bigarrena igoyal eta etxera joan. Baiña «alde egin zak emendik» nola esango zion, ba, amak?

Maiztar-etxeko maiorazkoari arto-maiorazkoa deitzen omen zioten orduan. Ola entzun izan det nik. Ori, bearbada, emengo esaera izango da.

Etxera joan zan batean, bertsoa onela bota omen zuan beintzat:

Arto-maiorazko nintzan nere tokamentuz, serbitu izan banu aita pulamentuz. Lengo paraje xarrian arkitzen naiz puntuz,

Beste batean, amak ala galdetu omen zion:

—Aizak: aita nun dabil?

Eta Txirritak bertso batekin erantzun zion:

bueltiatuko naute
ezpanabil kontuz.

* * *

Orra nola jaso nuan bertso au bera, Ormaiztegi'ko Bizente Mujika'ren esku-idatzi batean:

«Txirrita ia beti etxetik kanpora ibiltzen zan, maiorazgoa izanatik; ta egun batean aita gaizkitu zitzaion, elizakoak eta guzti emateraño. Orduan Irun'en omen zebillen. Ala, deitu zioten etxera etortzeko. Etxera etorri zanean, an zegoen sukaldean erriko apaiz jauna, ta bere ama (Txirritarena).

Apaizak onela dio amari:

–Au al dezute arako bertsolari ura?

–Bai, bai. Au degu. Au nor izan bazan, etxean egon bear zuan. Orain ez daikit nundik nora ibiltzen dan.

Ta Txirritak, oriek danak entzun da gero:

Ni etxerako nengon
nere tokamentuz,
aitarekin portatu
banintz pundamentuz;
orain Irun'en nago
jan eta ostatuz,
andik e bialduko naue
ez banabil kontuz».

* * *

Beste batek bi bertso eman zizkidan:

Komeri bat pasa da
entero polita,
Errenteria'tikan
onuntz etorrita;
geiegi estutzia
alfer-alferri-ta,¹⁴

iñoiz bezin kontentu
ez dago Txirrita.

Ni nintzan maiorazko
nere tokamentuz,
serbitu izan banu
aita pulamentuz;
lengo leku zarrera
etorri naiz puntuz,
berriz e galduko det
ez banabil kontuz.¹⁵

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

3. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

4. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

5. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba, eta Errezil'ko Eusebio
Eizmendi, *Txapel* bertsolaria zana. Onek Amezke-
ta'n Txirritari berari entzun omen zion gertaera au.

6. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.

7. Pastora Aizkorreta, Txirrita-berri, Errenteri.

8. Pastora Aizkorreta, Txirrita-berri, Errenteri.

9. Pastora Aizkorreta, Txirrita-berri, Errenteri.

10. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba. Bai gertaera eta bai
bertsoa cre.

*Txirrita-ren Testamentua. Imp. Macazaga, Rente-
ria, 1930: 2: demonio artan; 7: demoniuak nun nai;
9: demoniuak sasoi zebillen.*

Jose Ariztimuño *Aitzol* zanaren bertso-bildu-
man, Donosti'ko batek bialdutako orri batean, ber-
tso au dago; baiña alaxe dio: «Albaitero areto demonio
ontan...». Ez degu uste Txirritak *areto* esango
zuanik.

11. Ernani'ko Pablo Zubiarrain, Ernani-txikia
bertsolaria.

Estanislao Urruzola *Uxola*, Tolosa: 3: aita ta ama
biyak asarre; 5: familiako nonbait ona ez; 7: Jaun
Zerukuak guarda nazala.

12. Antonino Pagola, Ernani.

Patxi Labandibar, Larria, Ugaldetxo, Oiartzun.
Onek beste onela eman zidan bertso au:

Gure etxean asarre xamar
egon biaute nerekin,

udaberria datorrenean
nik jakingo det zer egin;
aitxurra eta palaarekin
Naparro aldera tellegin,
aberastuko ez gera bañan
bistatik beintzat aldegin.

13. Ez nuan apuntatu nori jaso nion.
14. Alfer-alferri-ta: alfer-alferrik da.
15. Ez nuan apuntatu nori jaso nion.

ANAIAREN ERIOTZA

Txirritaren anai bat, Migel Jose, ogei ta lau urterekin il zan, 1887^ogarren urteko azaroaren 22^oan. Orra nola:

Bularretik gaixotu zan. Asi zan medikueta joaten, leendabizi errikoetara, gero kanpokoetara. Aien esanak egin, baiña danak alperrik. Izan ere, etzegoan orduan bularreko gaitzarentzat, gaur minbiziarentzat baiño sendabide geiago. Gero eta gaizkiago nabaitzen zuan bere burua.

Orduan aztiarengana joan zan. Aztiak onela esan zion:

–Bateonbategin inbiriz egindako begizkoa edo erregua dezu.

–Eta zer egin bear det?

–Nor izan dan jakiteko, artzazu oillar bat, kendu iozu biotza bizirik dagoala, sartu izkiozu biotzean orratz asko gurutzearen moduan, eta ipiñi zazu eltzean egosten. Eta, erregua edo begizkoa izan baldin bada, ura egin dizuna etorriko da biotza egosi baiño leen, eta onela galdetu du: «Zer daukazute or egosten?».

Bai egin ere: artu zuan oillarra, kendu zion biotza bizirik zegoala, josi zuan orratzez eta sartu zuan tupian.

Tupia jarri du larretetik zintzilik, egin dio azpitik sua eta exeri da bera bazterrean, bruxaren poltxikoan bi kañoiko pistola zuala, iñor etortzen bazan eta tupian zer zegoan galdetzen bazuan, ari kargua zorrotz artzeko.

Onela zegoala, orra nun etortzen zaion adiskidetasun aundiko eta mesede asko egindako amona haar bat. Asi zan amona haar ori izketan, eta bitartean Migel Joxe ixilik, tupian egosten zer zegoan noiz galdetuko zion zai. Baiña etzion galdetu.

Gertakizun au gero jakin zuan Txirritak, bere anai Migel Joxek esanda. Onela esaten zuan Txirritak ondoren, gertaera au illobei kontatzean:

–Amona gajo arek tupian egosten zer zegoan deskuidoan galdetu izan balu, ez dakit, baiña garbitu egingo zuan arek bere amorruan...

Migel Joxek andregaija ere bazuan. Gaixotu zanean, bixitaz etortzen zitzaion, eta berriketan jarduten zan, parrez, algaraz eta oso alai. Bitartean, Migel Joxe serio eta ixil-ixilik egoten zan; eta, ura

kanpora joatean, onela esaten zien etxekoei:

–Orrek ez du nigatik batere penarik artzen...

Garai artan, Endaia'tik Lezo'ra mediku bat etortzen zan. Kamino zuan izena. Fama aundikoa zan.

Arengana joaten zan Migel Joxe; baiña pixkanaka gaitza gaillentzen zijoakion, eta azkenerako etxetik ateratzeko gauza etzala gelditu zan.

Andik aurrera, etxekoak joaten ziran medikurengana, gaixoa nola zegoan esatera, gero arek agindutako botikak emateko.

Baiña Migel Joxek ongi ezagutzen zuan medikuak agindutakoak onik egiten etziotela, eta ala esaten zien etxekoei:

–Erremedio onek ez dit ezer ere egiten, eta joan eta esaiozute.

Etxekoak, ordea, bazekiten sendatzeko alegin guztiak alperrik zirala, eta onela esaten zien amak alabei:

–Joan itxura egin zazute, eta buelta-

koan esaiozute leen agindutako botikekin segitzeko esan duala.

Ala egiten zuten. Kalera jeixteko bezela jantzi, gaixoa zegoan gelara agertu bazijoazela esateko, etxean bertan anaia-aren gelara azaldu gabe ixil-ixilik ordu bete edo ordu pare bat egin, eta berriro gaixoa-arengana agertzen ziran, onela esanez:

–Izan gera eta leengoarekin segitzeko esan du.

Eta bein bear eta allegatu zitzaion gizarajoari eriotzako ordua. Illundu eta gero zan. Etxekoei esan zien:

–Egarriak nago eta eskaillera-pean da-goan barrika koxkor ortatik sagardo pixka bat ekar zaidazute.

Ekarri zioten, pozik edan zuan eta andik pixka batera il zan. Gaueko amaikak ziran.¹

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

TXIRRITAREN AITA

Txirritaren aita indar aundiko gizona omen zan. Ba omen zuten morroi bat erdi eroa zana; eta, aren indarraz arrituta, onela galdetu zion bein batean:

–Bautista, baiña nola dezu zuk ainbeste indar?

Onela erantzun zion:

–Ik ere izango dek, nere galtzak jazten badituk.

Eta biaramonean an azaldu zan morroi erdi ero ori nagusiaren galtzak jantzita;

eta, aren indarrak zitualakoan, guztizko egiñalean aritu omen zan lanean.¹

* * *

Leen ere esan bezela, Latze'tik Txirrita'ra aldatu eta laister, karlisten bigarren gerratea (1872-1876) sortu zan. Esan degunez, Txirritak naiago izan zuan bera soldaduetara joan, aita bizi arriskuan jarzea baiño.

Egun batean, ba omen zijoan soldadu-mordoxka bat Txirrita baserriaren ondotik, lagun bat kamillan zeramakitela.

Baserriaren ondoan atsedeten gelditu ziran pixka batean. Zerbait edateko atera zieten; eta Txirritaren aitak, gaixorik zeramakitena ikusita, onela esan zien:

–Ez da posible mutil au onela eramatea, eta utzi zazute emen.

Soldadu batek erantzun zion:

–Baiña baztanga du, *compadre*.

Ajolarik etziola erantzun zion Txirritaren aitak, eta ala utzi zuten.²

* * *

Egun batean, Txirrita, amasei urte zitu-tuala, Oiartzun'a joan zan bertso-tara. Ar-tean etzuan iñork ezagutzen noski.

Kantuan ari zala, jendea mutiko aren etorriaz gustatu eta argurioan asi zan:

–Nungoa da mutil kozkor au?

Txirritak aditu zuan jendeak ziona, eta bertso au bota:

Ezautzen al dezute
Jose Latze'kua?
Gizon txiki xamar bat
pizkor antzekua.

Ni aren semia naiz
olako trapua,
aitak etxetik aurrian
bialdutakua.³

* * *

Bein batean, Txirritaren aita ukuilluan lanean ari zan esola bat sartzen. Esola zuzen ote zegoan ikusteko, begi bat itxi zuan, eta orduan konturatu zan beste begiaz ikusten etzuala. Argi zuana ere pixkanaka galdu zitzaion. Bederatzi bat urte egin zituan itxututa.

Etxe barruko bideak ondo zekizkian. Etzuan iñoren bearrik izaten batetik bestera joateko. Baiña etzan kanpora irten zale. Eguraldi ona egiten bazuan, etxeko balkoian egoten zan eguzkitan. Eta, an zegoala, beti, edo geienetan beintzat, kantari aritzen zan.

Billobak esaten zioten:

–Aitona, eguraldi ona dago. Goazen zelaira.

Eta aitonak erantzuten zien:

–Joan adi erori, nai badek. Ni ondo natxiok emen.

Errezatu besterik etzuan egiten. Baze-kizkian errezo-klase guztiak: tripako miña kentzekoa, sugearen eldua sendatzekoa...

Sugeak eldutakoan, berrogei kredo errezatu bear ziran, aldrebes ordea. Errezatu ondoren, berak egindako *emplasto* bat jartzen zuan, sugeak eldutako tokian.

Oso pipa zalea zan. Besoak altxatu eziñik geratu zanean, billoba mutil kozkor bati eskatzen zion pipa ezpafiñetan edukitzeko. Eta il ere orrela il zan, billoba mutil kozkor orrek pipa ezpafiñetan eusten zio-la, barrengo kezkarik gabe, pake santuan.

1904'garren urteko martxoaren 18'ga-

rrena zan, eta irurogei ta amairu urte zitu-
tuan. Zaaardadea beste gaitzik etzuan
izan.⁴

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

3. Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze baillara,
Ernani.

Onen anaiak, Martin Josek, beste onela kanta-
tzen zuan azkeneko puntua: etxian sobratuta – bial-
dutakua.

4. Txirritaren illobak, Arriaga baserria, Altza.

TXIRRITAREN AMA

Ama, Juan Josefa Retegi Iraola, oiart-
zuarra zan.

Beraren ama ere Txirrita baserrian bi-
zi zan, eta pulmonia arrapatu zuan.
1884'garren urtea zan, ain zuzen ere, eta
larogei ta bost urte zituán.

Pulmoniaz oian zegoala, baztanga sar-
tu zan etxean. Amona xaar arek onela
esaten zien etxekoei:

–Nerea ikusita dago, eta ni utzi eta
besteei kaso egin.

Eta orrela il zan, 1884'garren urteko
abenduaren 21'ean.

Garai artan, baztangaz edo alako gaitz
kutsakorren batez erasotako etxeak, ma-
darikatuta bezela gelditzen ziran berrogei
egunean (*cuarentena*), gaitzaren bildu-
rrez. Inor ere etxe artara urbiltzea debe-
katuta egoten zan, eta etxetik ateratzea
ere etzan libre izaten, bideraiño beintzat.
Ildakoak bidetik ez; zelaitik barrena era-
maten zituzten lur ematera. Jatekoa ekar-
tzeko, berriz, etorri, ozta-ozta etxe ata-

rian ekarritakoa utzi eta presaka alde egi-
ten zuten ekarleak.

Txirrita'renean, gisa ortan berrogei
egun oiek osatu ziranean, aurrena azaldu
zana erriko sakristaua izan zan, amonaren
illeta kobratzera.

Txirritaren ama urrena konfesatzera
joan zanean, bikario jauna egokitu zi-
tzaion; eta, galdezka ari zitzaioła, inoren-
tzat gorrotorik ba ote zuan galdetu zion.

Txirritaren amak onela erantzun zion:

–Bai, jauna. Badet, eta berorrentzat
gaiñera.

–Neretzat? Zergatik, bada?

–Orrenbeste denboran etxea egon dan
bezela egon; eta, libertadea etorri da-
nean, aurrena kanpotik etorri dan per-
tsona berorrek bialdu dualako, entierroa
kobratzera. Berorren etxean, diru premi
aundiagoa izango zan, gurean baiño.

Bikarioak onela esan zion:

–Meza bukatzean, sakristira etorri zai-
te.

Joan zan eta amar pezta eman zion,
illetak balio zuan baiño geiago, ain zu-
zen.¹

* * *

Txirrita baserrian famili aundia ziran
ezkero, ez dakigu noiz eta nola gertatu
izango zan urrengo pasadizo au; baiña
kontatu ziguten bezelaxe jarriko degu.

Txirrita oso gaztea zala, etxera sei sar-
din ekarri omen zituzten; eta aita eta
amak bina, eta berak eta anaiak bana izan
omen zuten. Orduan bertso au bota omen
zuan:

Gure etxean laurentzako
gaur sei sardiña,
bañan ez dute egin
partizio berdiña;
guri bana eta berak
jan digute biña,
zergatikan ez partitu
bata ta erdiña?²

* * *

Txirrita bertsoara kanpora ateratzen
asi zanean, ala esan zion amak bein ba-
tean:

–I beti or abil batean eta bestean, bai-
ña etxean ez dek kantatzen. Noiz kantatu
bear dek?

Eta Txirritak orduan onela kantatu
zion:

Atso lepa luze bat
dala nere ama,

Erretereria'n dauka
sorgiñaren fama;
soñean jazten ditu
lau edo bost gona,
ni gaiztoa naiz baña
bera ez dek ona.³

Amak, asarretu eta esan zion:

–Alde egin zak emendik! Orrekin nai-
koa dek gaizto zital orrek!

* * *

Erraiña il zitzaion eta bere azken ur-
teetan billoben ama egin bear izan zuan.

1911'garren urteko ilbeltzaren 10'an il
zan, irurogei ta emeretzi urterekin, *por
insuficiencia del miocardio*, eliz-paperetan
ageri danez.

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

2. Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola,
Azpeitia.

3. Gertakizuna: Patxi Lazkano, Otxoki, Altza.
Bertsoa: Mariano Erauskin, Andoain.
Estanislao Urruzola, *Uxola*, Tolosa; 2: Txirrita-
ren ama; 5: jazten dituean; 6: Iru lau bat gona; 7:
ni txarra naizela baña.

Aita Donosti'ren bertso-bilduman: 1: Atso ttiki-
-ttiki bat; 2: nobiaren ama; 5: donian jautzen ditik;
6: lau edo bost gona; 7: ni gaxtua nauk baño; 8:
hura ez duk ona.

Patxi Lazkano, Otxoki, Altza:

Amona zar bat begi gorria
orixen da nere ama,
Erretereria'n zabaldu die
sorgiña ote dan fama;
oraintxen ere soñian dauzka
zazpi edo zortzi gona,
neroni ere ni gaiztua naiz
bañan bera're ez da ona.

JUAN MARI ANAIA

Leen esan degunez, Txirritaren anaia, Juan Mari, gelditu zan etxerako.

Zezenia Etxebeste'rekin ezkondu zan, donostiarra bera, eta amaika seme-alaba izan zituzten. Ama, amaikagarrena jaiotzean il zan. Aurra bizirik atera zan, baiña andik lau illabetera il zan. Beste bi aur ere bereala il zitzaizkien.¹

* * *

1914'garren urte inguruan, Txirrita baserria utzi eta Altza'ko Arriaga'ra aldatu ziran.

Arriaga baserria muiño batean dago. Lizar eta intxaurren artean gordea, gu an izan giñanean beintzat, eta Pasaiko kaia-
ren gain-gaiñean. Gaur egunean, langille-
-etxe berri aundi oiek inguru guztia artu diote ia; baiña garai artan, leku soilla zanean, zoragarria izango zan toki ura: bean, Pasaiko kaia, bere ontzi ta guzti, mendiak atxitutako itxas adar bat bezela; atzean, Altza'ko erria, belardi eta sagastiz inguratua; jira guztian mendiak: Igeldo, Urgull, Ulia, Jaizkibel, Aia'ko Arria, Aritxulegi, Bianditz, Munanier, Txoritokie-
ta, San Markos...

Arriaga antziñako jauregia da, bi arku, armaarri eta guzti.

Arriaga'n zirala, pago-egurretara joan zan bein batean Juan Mari, Txirritaren anaia, eta ezpal bat sartu zitzaion eskubiko beatz lodian. Ortatik esku dana gaizkitu zitzaion, pasmoak ere artu zuan, eta iltzera etorri zan. Enplasteroetara joan zan. Elgoibar'erañño ere bai, eta onek menderatu zizkion pasmoak nolabait ere. Eskua oker eta ezertarako gauza etzala gelditu zitzaion.

Txirrita baiño urte t'erdi bat leenago il zan, eta bat-batean gaiñera. Orra nola: oso osasun onez zebillen bolara artan. Gau batean, platerkada bat potaje sagardoarekin apaldu eta oiera joan zan. Lau t'erdietan zerbaitetara jeikia zala sentitu zuten. Urrengo goizean, oian illa arkitu zuten. Batere mugitu gabe zegoan. Lotan zegoala emango zuan arek azken arnasa.²

1. Arriaga baserria, Altza, Juan Mariren illobak.

2. Arriaga baserria, Altza, Juan Mariren alabak.

TXIRRITAREN ARREBAK

Lau arreba izan zituan Txirritak: Josefa Inazia, Axentxi, Juana eta Ixabel.

Txirrita baserrian bizi zirala, ba omen zan atso xaar bat, eskean ibiltzen zana eta etxera sarri askotan etortzen zitzaiena.

Egun batean, atso xaar ori pixka bat toriatzeagatik, onela galdetu zion Txirritaren arreba batek:

–Billatuko al dezu neretzako nobioren bat?

Baita baietz agindu ere atso arek.

Denbora joan eta denbora etorri, atso xaar ura etxera azaldu zan beste batean, onela galdetu zioten Txirritaren arrebak:

–Zer egin zuan gure enkarguak?

Eta atsoak:

–Ai, gaixoak! Suerte txarra dezute! –erantzun zien–. Naparrak Aita Santuari akelaziyo ta pelaziyoak jarri dizkate eta ez dago ezer egiterik.

Orduan Txirritaren arrebak:

–Lastima! Zurekin genduan esperantzua guztia jarrita eta orra!...

Eta atsoak:

–Aizue! Neronek ere aditu nuan, bai, alako *quiero y no puedo*'ko bat.¹

* * *

Mutil bat asi omen zan Txirritaren arreba batekin tratatzen; baiña ondoren atzera egin zuan.

Arreba ori neskame joan zan Donosti'ra.

Andik egun asko baiña leen, Txirritak sagardotegian topatu zuan mutil ori. Esan zion:

–Zer pasa zaik, gure arrebarekin ez itzegiteko?

–Emendik izkutatu zan, ta nun dabilen ere ez dakigu ta...

Eta Txirritak orduan bertso au bota zion:

Santa Katalinako zubian pasa,
artu ezazu eskubi,
eta zerorrek ez badakizu
galde zaiozu askori;
bigarren atean, laugarren biritza,
an izango da nesk'ori.
Oraindik zuk nai izan ezkeru
logra liteke gauz ori.²

* * *

Bere arreba bat neskame joan zanean, Txirritak:

Gure tortotsa auzo serbitzen
mantal txuriya jantzita,
laister etxian esperatzen det
eltze zarren bat autsita.
Zori onian jarri intzanen
Mari Lukaink'oi serbitzen,
gona luziaz ikasiko den
orpo zikiñak garbitzen.

Bertso au eman zidanak³, onela zion:

–Oiek izango dute segida, baiña nik jakin ez.

Ain zuzen, bi puntu *ita* eta beste biak *itzen*, garbi ikusten da or au ez dala bertso bakarra, bi bertsoaren puskek alkarri erantsita daudela baizik.

* * *

Txirritaren arreba Josefa Inazia, seni-deetan zaarrena, Ameriketara joan zan eta bertan ezkondu.

An il zan eta an bizi dira ondorengoak.

* * *

Axentxi, Bizente Mendizabal kontratista ezagunarekin ezkondu zan. San Markos fuertea egiten ari zirala, Bizente Txirrita'n egon zan ostatuz, eta an ezagutu zuten alkar.

Eztai-egunean, bertsoan jardun zan Txirrita ia ixildu gabe. Gero, biajea aste-ko trenaren zai zeudela, onela esan zion Bizente Mendizabal'ek:

–Kunau, bota zak bertso bat.

–Bai; lenago gutxi kantatu diagu ta...

–Bai; asko kantatu dek. Baiña trenea etorri bitarte, nai nitek bat kantatzea, go-goan izateko modukoa.

Eta Txirritak:

–Arrayia, arrayia!... Botako diat, ba.

Eta onela kantatu zion:

Nere arrebak orain badizkik
oi ta bost urte pasiak,
ori ez dik, ez, ikaratu
elurak eta aiziak;
portatzen baaiz, emango dizkik
eskatze'izkaken klasiak,
ai, motell, ori bizi dan arte
i ez au ilko gosiak.⁴

* * *

Juana ere Ameriketara joan zan. An amar bat urte egin zituan sukaldari bezela, eta atzera bueltatu zan. Mendizabal'enean bizi izan zan, bere aizpa Axentxirekin.⁵

* * *

Isabel, Jose Manuel Erauskin Altza'ko Gazteluene'ko maiorazkoarekin ezkondu zan, 1894'garren urtean. Bertan bizi izan zan il arte. Famili ederra azi zuan.

Gero ere esango degunez, arreba onengana, arreba gazteenaren etxera alegia, erretiratu zan Txirrita bere zaartzaroan.

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren iloba.

2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren iloba.

3. Martina Makulegi, Bekoetxea, Oiartzun, Donostia'n bizi dana.

4. Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia.

5. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren iloba.

AZKEN AGURRA

Bi bertso auek, Ameriketara zijoan familiko batekin alkarren artean kantatuak omen dira. Ezin gogoratu, ordea, familiko ori zein izan zitekean. Baiña beretakoa omen zan beintzat.

Txirritak:

Motell, Amerikara
joan bea'ukela ik,
sentimentu aundi bat
artutzen diat nik;
bañan esperantzetan
natxiok oraindik,
alkar joko degula
nundik edo andik.

Eta erantzuna:

Jendiak bazebiltzik
amaika armoni,
bañan ez dek neretzat
gerrarik komeni.

Gerraren igesi zijoana, beraz. Zein gerra ote? Karliten azken gerra-denboran gazteegia zan Txirrita. Ziur asko, Kuba'ko edo Afrika'koa izango zan,

Baiña dalako ori ez omen zan bueltatu. An, ur putzu bat egiten ari zala, lurrak lertu, azpian arrapatu eta bertan il omen zan.¹

1. Juan Mari Lujanbio, Saiburu, Erretereri, Txirritaren illoba txikia.

EZKONGAI

Zaartu ta gero, askotan aitatzen omen zituan Txirritak gaztetan neskatxekin izandako kontuak. Bere illobak, gogoan gelditu zaizkionak kontatu dizkigu.

Orain ez dago olako oiturarik; baiña, garai batean, mutil gazteak neskatxan

etxeetara joaten ziran jai illunabarrean. Aillegatu eta atean deitu edo leiora arri koxkor bat botatzen zuten. Neskatxak idiki eta an egoten ziran, ate edo leio ondoan, kontu kontari eta berriketan.

Jai illunabar batean, joan omen zan

Txirrita neskata batengana. Atarira aille-gatu eta arri kokxor bat leiora bota zuan; baiña neskatak etzion idikitzen. Txirritak bazekian neska ori beste mutil batekin tratatzen asia zala, eta mutil ori etortzekoa izango zuala eta orregatik etziola idiki nai pentsatu zuan.

Etxe atarian ba omen zan erramu arbola bat. Txirrita aren babesean gorde eta an gelditu zan zai.

Andik denbora piska batera, beste mutil ura azaldu. Gau illuna zan. Bota zuan arri kokkorra; baiña neskatak onela esan zion barrendik:

–Ez; ez dizut idikiko.

–Zergatik ez, bada?

–Txirrita ere orain etorri da, eta ez diot idiki ta...

Orduan onela esan zion Txirritak, erramu tartetik oju aundi ikaragarri bat egiñez:

–Zertan esan diooooo?...

Mutilla, egundoko orru ori illunetik entzutean, korrika itzuli abiatu zan, izutu-ta. Etzuan arnasik artu, an auzoan zegoan sagardotegi batera aillegatu artean.

Txirrita ere sagardotegi artara joan zan aren atzetik.

Mutilla ikustean, onela galdetu zion, ezer ez baleki bezela:

–Zer uken olako korriarekin etortzeko?

Eta mutillak:

–Ezer ez.

Ez baitzekian gizarajoak, ojua egin zuana Txirrita zanik.¹

* * *

Beste jai illunabar batez, joan da Txi-

rrita neskata batengana. Onen baserria muiño batean zegoan, eta aren ondoan malda.

Deitu zuan Txirritak; baiña neskatak etzion aterik idiki nai.

Atarian gisa artan zegoala, alderatzen zetorren kuadrilla baten argurioa somatu zuan. Belarria erne jarri eta leengo jaian Txirritarekin burrukan eta sesioan oso gogor ibilitako gazte batzuk zirala ezagutu zuan.

Ala bearrez, upel bat zegoan etxeko atarian, konpontzeko edo garbitzeko aterea. Aien bildurrez, eta zer zioten entzuteagatik ere bai, upel barrenean sartu zan Txirrita.

Etorri dira gazte oiek, deitu dute, baiña neskatak etzien idikitzen. Asarretu eta or asten dira upel ori maldan beera erre kara botako ote duten esaten.

Txirritaren estuasuna orduan! Aiek esaten zutena ederki asko entzuten zuan zegoan tokitik, eta onela omen zion bere artean:

–Ateratzen banaiz, jo egingo naute; eta, ateratzen ez banaiz, bueltaka errekaraiño botako naute. Zer egin?

Baiña bota gabe joan ziran.²

* * *

Txirrita gaztetan ezagutu zuan gizon batek, onela esaten omen zuan:

–Txirrita, alkandora zuri-garbia ondo tolestatu soinean jantzita jaietan ateratzen zanean baiño gizaseme ederragorik, ez da sekulan nere begien aurrean jarri.

Bolara batean, Martutene'ko taberna batean egon omen zan ostatuz. Bertako alaba bat artaz gustatu omen zan, eta egun batean Txirritari deitu zion. Bere gelara eraman, kofrea idiki eta an ondo-

txo gordeta zeukan ontzako urre pilla eder bat erakutsi zion. Eta, erakutsiz batera, onela esan:

–Nerekin ezkontzen bazera, oien erdiak zuretzako izango dira.

Baiña Txirritak ezetz esan zion; etzuala nai.

Andik urte askotara, biak ere oso zaartu ziranean, taberna artan bertan biak berriro alkar ikustea gertatu zan.

Txirritak esan zion:

–Kaixo, Joakiña! Zer moduz?

Baiña onek, bizkarrari eragiñez, onela esan omen zion:

–Um!...

Txirrita, ardo piska bat eskatu eta edatera exeri egin zan.

Alako batean, Joakiñak galdetu zion:

–Zer zabilta, Txirrita?

Eta Txirritak orduan, Joakiñak bezelaxe egiñez, bizkarrari eragin eta esan zion:

–Um!...

Eta, besterik gabe, alkarrengandik banatu ziran, alkar berriro ez ikusteko.³

* * *

Andregaiia ere izan omen zuan. Bertsua onela kantatu izan omen zuan beintzat bein batean:

Andregai bat banuen eta
esan bear det zeñ ere,
mantal txuria jantzitzen zuan
da ibiltzen zan dotore;
amaika bider eskatu nion,
etzidan eman beñere,
geroztik iru aur izan ditu,
Paris'en dabil iñure.⁴

* * *

Beste bat izango da, Txirritak despeira eman zion andregaiia. Ernani'koa omen zan. Tratabidean asita omen zeuden. Baiña Txirritak, senar prestu on bat izango etzala garaiz antzeman zion bere buruari; eta, egun batean, andregaiarengana joan eta onela esan omen zion:

–Aizu: bai al dakizu zer pentsatu dedan?

–Zer, Joxe Manuel?

–Biak gaizki bizitzea baiño, obe dala bat bakarrik gaizki bizitzea, bai?, eta ez det ezkontzerik pentsatzen.⁵

* * *

Andregaiaren gertaera au beste onela kontatu zioten Ereñozu'n Aranzazu'ko Aita Julian Alustiza'ri, berak eskutiz batean esaten zidanez:

«Andregaiia Goizueta'koa omen zun; ta bein batean joan da esan omen zion:

–Ni egunean bost pezta irabazteko kapaz naiz –asko omen zan ordurako–. Baiñan egun berean sei pezta gastatzeko ere bai. Ta biok gaizki bizitzea baiño, obe izango da bat bakarrik gaizki bizitzea, ta ez det pentsatzen ezkontzerik».

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

3. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

4. Estanislao Urruzola, *Uxola*, Tolosa.

5. Jertrudis Arrieta. Erretereri.

MUTILZAR

Andik aurrera, au da, mutilzar gelditzea erabaki zuan ezkeroztik, txantxetan artu zuan beti bere izate ori.

Egun batean, Zizurkil'era joanak ziran Gaztelu eta Txirrita, biak mutilzarrak. Tabernako atean, batek besteari onela otsegin zion:

-Txirrita, umeak nun dituk?

Eta besteak:

-Ireekin jostatzeraz joanak dituk.¹

* * *

San Antonio egun batean, atso batekin erretratu omen zan, eta onako bertso au bota zuan:

Nik andregaiarekin daukat,
ez dizut erakutsiko,
gurutze-pean artu nai nuke
nere denbora guziko;
au mantentzeko ainbeste diru
ez dedala irabaziko,
izeba zarra asarre zio,
noski etzidak utziko.²

* * *

Urrengo iru bertso auetan, eztaiak nolakoak izango zituan esaten du. Ez dakigu boteak ala jarriak diran. Osabari makiña bat bider entzun omen zizkion Txirritaren illobak. Onek kantatu zizkigun bezela idatziko ditugu.

Ogei eta bi urtetarako nitzan ezkondu nayian, irurogei ta bederatzitan oraindik nago gayian; lendabiziko nere preoia botatzen duten jayian, suzko zezanak izango dira Zurriola'n da kayian.

Gañera berriz esposatzean debalde nappar zezanak, kostako zaizkit galanki baño aundiak eta gizenak; aiek iltzeko bi kastillano indar aundiko gizonak, Machaquito ta Bombita ditut etorritzeko esanak.

Dozen erdi bat urdai azpiko zintzilik dauzkat jarriyak, saltxitxoi eta lukainka asko Aragoi'tik ekarriyak; lau kapoi pare eta sei ollo agindu dizkit erriyak, eta ondoren toreatzeko bi zekor gorri-gorriyak, ni ezkontzean izango dira bankete izugarriyak.³

* * *

Leen ere esan deguna, bere azken urteetan Altza'n bizi izan zan Txirrita, arrebarenean, Gazteluene deritzaion basezrian.

Jai batean, meza nagusira joan eta bikarioak, Don Meliton Pagola'k alegia, mutil zaarren kontra egin zuan sermoia.

Andik aterata, Txirrita eta bikarioak alkarrekin topo egitea gertatu zan, biak amaiketako batera konbidatuak. Ikusi eta bertso au bota zion Txirritak:

Gure erriko bikaio jaunak
pulpitotikan esan du,
kontzientziko kargan gaudela
ez giñalako ezkondu;
gazte denboran saiatu nintzan,
etzan neretzat izandu,
gazte polit bat artuko nuke
zuk billatuko bazendu.⁴

1. Zizurkil'ko aiton bati entzuna.
2. Pablo Zubiarraín, Ernani-txikia bertsolaria, Ernani.

3. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

Txirrita'ren Testamentua, 1930, Imp. Macazaga, Renteria: 2/7: munduan diran onenak ditut; 3/7-8: falta dira.

Juan Maria Lujanbio, Saiburu, Errenteri, Txirritaren illoba txikia: 3/1: Dozenaren bat urdai azpiko; 3/5: sei kapoi pare ta amabi olo; 3/7: ogeina erraldekuak ditut; 3/9: ni ezkontzean emango ditut.

4. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia: 2: sermoia egin omen du.

Lino Kalonje bertsolaria, Bentaberri, Donosti:

Gure erriko bikarioak
kulpitotikan esan du,
kontzientziko karga degula
ez giñalako ezkondu;
gazte denboran proportziorik
nola ez nuen izandu,
polit-polit bat artuko nuke
zuk topatuko bazendu.

BARE ADARDUNA

Urrengo bertso au Txirritarena zala esaten genduan *Auspoa*'ren 18-19'an, 29 orrialdean; *Auspoa*'ren 66'an, berriz, 37 orrialdean, Asteasu'ko Zakarra bertsolariarena izango ote zan. Gaurko ontan, orde, beste testigantza bat agertu bearrean gaude.

Errenteri'ko Enrike Elizetxea'ren bertso-bilduman, periodiko-puska bat azaldu da. Puska orretan *Txirrita Bertsolariya* izeneko idazlan bat dator. Eskuz idatzita, onoko itz auk: *La Voz de Gui-*

púzcoa. Martes 16 de Junio de 1936. Lan ori azaldu zan eguna izango da.

Firma bezela, letra auk daude inprentaz: *Eatar-ek*. Eta ondoan beste itz auk eskuz: *es Enrique Elicechea*. Eskuz erantsitako oiek danak, Enrike Elizetxea orrek berak idatziak dira, dudarik gabe; beraren letra da.

Ortaz gaiñera, firma ori onela askatu bear litzake, Elizetxea jaunaren seme Manuelen iritziz beintzat: *Elizetxea Arrieta'tar Enrike'k*.

Idazlan orrek merezi du onera oso -osorik aldatzea. Ona emen:

«Oraindik egun gutxi dala, irakurri nituen pozez izperkingi ontan bertan *Otarbe* jaunak euskera garbi ta ederrean idatzitako berri batzuek gure Txirrita ospetsuaz, eta orduan bururatu zitzaidan aspaldi bertsolariyak berak edestu edo kontatutako gertaera bat. Aspaldi, bai, zoritxarrez, zergatik orduan mutill gazte eta liraña nintzan, eta orain aguretua arkitzen naiz. Ontatik igerriko dezute gertaera gaur goizekoa ez dala.

Txirrita, Ernainin jaioa bazan ere, oso gaztetan bere guraso eta senideekin Errenderira bizitzera etorri zan, San Markos izendatzen dan mendi ederraren oñian arkitzen dan baserri *Txirrita* deitzen zaionera. Orregatik, Joxe Manuel Lujanbio izandu da ezaguna, baserri orren izena izengoiti bezela duela.

Txirrita argiña zan eta denbora aietan ere, oraingoetan ezik, argiñtzarako baiño, argiñak etxe inguruan egoteko egualdi obiak izaten ziran maizko.

Ala, beiñ, erdipurdiko eguna zan eta nere lagun batekin joan bear izandu nuen, egiteko batez, baserri arren aurretik, eta an ikusi genuen gure bertsolariya baberrun baratz baten inguruan.

–Jaungoikoak egun on dizula, Joxe Manuel! Etxe aldi?

–Ala dizutela zueri ere. Bai; gaur ere, lanerako baño etxe inguruan egoteko giro obia dago, ta ementxen nabill bare billa.

–Bare billa? Zer dala-ta?

–Gizona, ezin degu burutu; baberrun dana ondatu digute iya. Auxen da kome-riya. Guk zerbait egiñ nai eta oiek egiñ baño len jaten digute arrapatzen duten guziya. Ezin liteke orrela irau! Lengo goiz batean, denbora txarra zan lanerako,

etorri nitzan onera eta, jaunak, ura bare pill! Ez dakit zenbateri kendu nion bi-ziya. Geiena txea; bañan bazan bat gizen, mardul, aundiya. Ura izango zan noski beste guzien ama. Garbitasun eder egin nuen goiz artan. Andik iru edo lau egunera, beste jiratxo bat egiñ nuen eta or topatzen det beste bare guri aundi eder bat. Ura izango zan, nere ustez, len ill nituen bare txe aien aita. Aserre biziyan, jarri nitzan beste ume pillen bat arkitu bear ote nuen ustian; baña bazter guziyetan ibilli arren, etzan besterik ageri. Jarri nitzaion begira eta bota nion bertsotxo au, nere birikak zuten indar guztiyakin, ingurueta-ko bare denak entzun zezaten:

Deabruaren gisako
bare adarduna,
nola tratatu dezu bart
nere baberruna?
Lengo egun batean
ill nizun laguna,
geroztik emen zabiltz
triste alarguna,
jo ta botako zaitut
sasiyan barruna.

Eta esan ta egiñ, atzapar aundi onekin jota, lerdokatu nuen eta or joan ziran aidi-
an gure barearen... txermoni guziyak. Nonbait orduan, emen inguruan arkitzen ziran bare denak, batzarren bat egiñ zuten eta epalle edo juez onen zorroztaunaz ikaratu eta denak emendik aienatuak izan bear dute, bada geroztik bat bakarrik ere ez da azaltzen. Eta, nere aserre biziari eskerrak, uste det baberrun puskatxo bat bilduko degula aurtin; eta, gaur bezelako egun txarretan, irabazi-piderik ez danian, atsegiñ izango degu goiko sapai edo ganbara ortan baberrun pill! bat izatea. Beintzat goserik ez degu izango, eltzezaririk gabe ez geralako arkituko; eta gañerako

bizitzeko bear diran gauzak, gure Jaungoikoak bialduko al dizkigu. Ni beñepiñ siniste ortan nago.

–Ederki, ederki, Joxe Manuel! Egiñ bada gogor bareari eta egun on bat igaro!

–Ala berian, jaunak, eta ondo juan!».

Lana eta lagunartea

ARGINTZAN

Nekazaritza utzi eta argintzan asi zan, beraz, Txirrita. Seguru asko, etxetik urrutigabe ikasiko zuan langintza ortan, San Markos'ko fuertea egiten ari ziralako-edo.

Lana sortzen zitzaion tokietan jarduten zan. Geienetan, Errenteri'n, Ernani'n, Irun'en eta alakoetan. Baiña urrutisamarrera ere joan izan zan: Zaragoza'ra, Prantzi'ra... Donosti'tik Bilbo'ra dijoan burnibideko paretak jasotzen ere ibili zan. Eta lantegia zuan errian etxeren batean ostatuz jarri eta orrela bizi izaten zan.

Egun batean galdetu zioten:

-Txirrita, nun ago ostatuz?

Eta Txirritak:

-Ementxe, irabazi-ala gastatuz.¹

* * *

Beste batean, ostatuan egon eta egon, eta etzuan ezer pagatzen. Etxekoandreak ala esan omen zion egun batean:

-Txirrita, kontuak egin bearko ditugu ba...

Txirritak erantzun zion:

-Bai. Neroni ere beti egiteko nengoan. Ogei duroko kanbioak bai al dituzu?

Eta etxekoandreak:

-Bai. Ez dira askotan izaten, baiña gaur badira gure etxean.

Txirritak orduan:

-Alajaiña! Ni baiña obeto zaude, nik ez det xentimorik eta...

Etxekoandreak parrari eman zion, eta Txirrita kanpora atera zan.

Zaartutakoan ez omen zitzaion gustatzen gertaera au kontatzea.²

* * *

Beste egun batean, kale-bazterrean pareta egiten ari zala, arrainketaria pasa da aldamenetik ojuka:

-Akula, akulaaaaa!...

Eta Txirritak:

-Ez al den, ba, salduko sekulaaaaa!...

Arrainketariak, asarretu eta esan zion:

-Ez ago, ez, i akula janda olako tripa aundia!...³

* * *

Egun batean, lan billa zebillen eta nagusi bati galdetzen dio:

-Aizu, nagusi: lanik bai al dezute nerretzat?

Nagusiak esan zion:

-Lan gutxi zeukagu.

Eta Txirritak orduan:

-Lan gutxi aski det nik, ba.⁴

* * *

Beste egun batean ere, onela galdetu zuan:

–Lanik bai al dezute?

Erantzun zioten:

–Bai; badegu lana.

Eta Txirritak:

–Arrayia, arrayia!... Ez nian beste bildurrik!⁵

* * *

Egun batean, ala omen zion:

–Duro bat duan gizonak lanera joan bear al du? Nik duro bat badet eta batere ez nijoa lanera.

Urrena lanera bildu zanean, lagunak ala esan zioten:

–Oraingo ontan botako au nagusiak lanetik, Joxe Manuel.

–Ez natxiok botako.

–Bai. Botako au. Irekin asper-asper eginda zioik.

–Ez. Ez natxiok botako, maite natxiok eta.

Baietz eta ezetz, ezetz eta baietz, apostua egin dute pitxar bat ardo.

Nagusiarengana urreratu eta bat-batean, aurrea artuz alegia, ala esan zion Txirritak:

–Txintxurreraiño nazka eginda niok emengo lantegiaz eta ekatzak kontua. Ez diat geiago irekin lan egiterik pentsatzen.

Apostua irabazita zeukan: bera atera zan lanetik; etzuan nagusiak bota.⁶

* * *

Beste batean, markes bat alderatu eta

begira jarri zitzaion, lana nola egiten zuan.

Orduan Txirritak bertso au bota zion:

Txikitandikan artua nuen
argintzan afiziyua,
beñere aprendiz ibilli gabe
ikasi ofiziyua;
eman ezker materiala,
gañera despaziyua,
denborarekin egingo nuke
markesen palaziyua.⁷

* * *

Lanean asi orduko kantatzeari ekiten zion, eta berak lanik egin ez eta besteei egiten galerazi.

Bere koñaduearekin, Bizente Mendizabal'ekin, ari omen zan; eta onek, azkenean, aspertu eta ez geiago etortzeko esan zion.

Zer gertatu zan jakin zuanean, onela esan zion koñatak:

–Burua makur-makur eginda, koñaduearengana joan bear zenduke, lana berriez ere eskatzera.

Eta Txirritak erantzun zion:

–Ez orixe. Jaungoikoa ere, demonioekin bein asarretu zan eta ez da geiago adiskidetu.⁸

* * *

Errenteri'ko elizako eskaillerak 1895⁹garrenean berritu ziran. Bertan jar-tzen du urtea. Txirrita ere lan ortan jar-dun zan. Batean, ortan ari zala, bateonba-tek etorri ta galdetu zion:

–Zenbatxo denbora du, egin zala, Errenteri'ko elizak?

–Bikarioaren etxera joan ta galde egin zak.

Ez dituk nik egiñak emengo argintzak.⁹

* * *

Beste batean, onela galdetu zioten toriatzeko asmotan:

-Txirrita, Errenteri'ko eliza ez al da oraindik bukatu?

-Neri pakean utzi ta bikarioari kargu artu.¹⁰

* * *

Errenteri'ko elizan lanean ari zala, maillu-kolpe aundi batekin, *plast!*, arriari puska kendu zion. Baita bikarioak esan ere:

-Bejondeizula, Txirrita! Gure pater noster guztiak baño geiago balio zuan maillu-kolpe orrek!

Eta Txirritak:

-Ez Santu Guztien eguna izan balitz.

Anima-egunean, eta bezperan ere bai, kobratuz aritzen baitziran apaizak errespontsoak errezatzen, garai artan beintzat.¹¹

* * *

Beste egun batean, esan bezela Errenteri'ko elizan lanean ari zala, bikarioak arrantxoa litro erdi ardorekin ekarri zion.

Txirritak esan zion:

-Bai al daki edateko gogorik badedan ere?

Bikarioak:

-Argiñik ez da izaten edaten ez duanik.

Eta Txirritak:

-Bai, jauna. Argiña izan diteke; baiña apaizik ez.¹²

* * *

Beste bein, Txirrita lanean pareta egiten ari zala, mediku batek esan zion:

-Ondo ziok, Txirrita, argiñen okèrrak igeltseroak tapatuko ditu ta!

Eta Txirritak:

-Bai, jauna. Gureak igeltseroak tapatzen ditu, eta berorrenak berriz enterradoreak.¹³

* * *

Aurreko gertaera orrek antza aundia du Azpeiti'n kontatu zidaten beste onekin.

Medikuak argiñari esan omen zion:

-Argin txarraren erremedioa, lurra ta karia.

Eta argiñak:

-Bai; ta mediku txarrarena, berriz, atxurra ta palia.¹⁴

* * *

Egun batean, sagardotegian zala, apostua egin zuan lagun batekin, zein alperrago izan.

Laguna lurrean etzan egin zan, eta Txirrita zutik edo zegoan bezela gelditu.

Lagunak esan zuan:

-Zein alperrago? Ni!... Ni etzanda niok.

Eta Txirritak:

-Ez orixe! Ni, etzateko alperrez niok.

Eta Txirritak irabazi zuan apostua.

Gertaera au oso ezaguna da Euskalerrri guztian, eta orrela kontatzen da toki guztietan. Orrela jarri degu guk ere.

Baiña Altza'ko Arriaga baserrian, Txi-

rritaren iloba batzuen etxean alegia, ango gizonak, Martin Artano'k, esan zidanez, etzan ori orrela izan. Gertaera ori Tabla zeritzaion sagardotegian gertatu zala zion; Txirritaren laguna Astigarraga'ko Mina baserriko Jose Joakin Oloki izan zala; apostua egun guztiko sagardoa egin zute-la; Txirrita izan zala etzanik jarri zana; eta Oloki orrek, zegoan bezela geldituz, apostua irabazi ziola.

* * *

Jon Garmendia *Zeleta*'k apostu au Lasarte'n jartzen du¹⁵, aurretik Txirritaren beste gertaera bat kontatzen duala:

«...Jakingo dezuten bezela, argiña zan Txirrita opizioz, eta argintzako lanen bat zuala edo San Pedro jaiak zirala, sarri ikusi oi zan Lasarte'n Txirrita.

Egun baten, bere lagun argiña zan Pontxio Olano'kin –gure Txirritan gisa, oso alperra, gizarajoa– eliz-osteko orma edo paret bat zutitzen ari zirala, eta uste gabea, beren nagusi edo kontratista azaldu zitzaie, ze tajutan lanean ari ziran ikustera; eta nagusiak, oarturik edo ikusirik arri ta morteroaz naasi orma-zuloak itxi bearrean mortero utsez orma-zuloak ixten ari zirala, onako galdera au egin zion Txirritari bere nagusi jaunak:

–Aizu, Txirrita: orma-zuloak morteruaraz bakarrik ixtekotan, ez degu arri bearrik!

Eta Txirritak, nagusiaren uste-eztako galdera arekin oso asarreturik, onela erantzun berari:

–Ori esan neri? Ba, nagusi jauna, orma-zuloak arrikin ixtekotan, ez degu palan bearrik ere.

Eta eskutan zeukan pala arrika bota,

lana bertan bera utzi, eta beriala, asarre bizian, Yurrita-enea zeritzan sagardotegira jua zan, bere lagun Pontxiorekin; eta ordu artan beste batzuekin sagardotegian aurkitzen zan sagardo-zale batek, eta ixil-antzean, au esan bestieri, argiñ aiek ordu artan an ikustean:

–Motellak, emen dizkigu oraintxe, munduan diran bi alperrik aundiñak...

Pontxiok entzun egin, ordea, ark bere lagunei esan ziena biengatik, eta Pontxiok onela dio belarrira Txirritari:

–Aizak, Txirrita: gu munduan diran bi alperrik aundiñak omen gaituk...

Txirrita ernegatzen da ori entzuteaz, eta an zeuden sagardo-zale guzien aurrean jarri eta au esaten dio Pontxiori:

–Alperrek gerala gu?

–Bai; ala ziotek berritsu abek...

–Ez dek gezurra –dio Txirritak Pontxiori–; baiña batak baiña besteak alper aundiago bear dik izan, eta oraintxe bertan, danen aurrian, apustu egin bear diagu, i ala ni naizen alper aundiagoa.

An zeudenak, Txirritaren ateraldi onekin arriturik, pentsakor jarri ziran, nola demontre egin zitekean apostu xeble ura; baiña egoki asmatu zuten nola egin alper biak:

Pontxio, poliki-poliki, lurrera jetxi zan, eta antxe luze-luze etzanda gelditu; eta Txirrita, berriz, zutik, Pontxiori begira geratu... Eta puxka batean tankera parregarri artan biak egon ondoren, Pontxiok esaten dio Txirritari, lurretik alaiki jekiaz:

–Orra, Txirrita: alper-apustu au nik irabazi diat!...

–Ik irabazi dekela apustua? Nola ordea? –galdetzen dio Pontxiori; eta onek:

–Ni, zeria bezela etzanda, geldi-geldi egondu naizelako denbora guzian...

Eta Txirritak algaraz:

–Bai, baiño ni zutik ordea. *etzateko alperrez!* Eta nik irabazi diat, ez ik, alper-apustu au.

Txirritaren ateraldi arrigarri ura entzutean, parrez lertu bearrean algaraka asi zan sagardotegian zegoan jendea...».

* * *

Ernani'n, Santio'ko Zentraleko kanala egiten ari zirala, Txirrita ere an zan lanean.

Goiz batez, jela aundia zegoan. Lantokira joan, eta alde batetik porlanak jelarekin bere lana ondo egiten ez dualako, eta bestetik gogo aundirik etzualako, lanean asi gabe zegoan, eskuak patrikan sartuta.

Kapatazak, etorri eta esan dio:

–Ez al dek lanean asi bear?

Eta Txirritak bertso au bota zion:

Osasun ona kontserbatzeko dago goiz-giro preskua, emen ai ta're ez degu, jaunak, egingo danen gustua; belarrik dauzkat ubel-ubelak. sudurra berriz beztua, bi anak ere sumindu eta ipurdia're oztua, bestetan ezin berotu eta patrikan daukat eskua.¹⁶

* * *

Astelen-goiz batean, ba omen zijoan lanera, maillua bizkarrean zuala. Tabernako ateondotik igarotzean, lagunak an zeuden eta asi zaizkio ojuka, etortzeko eta etortzeko.

Txirritak tentazio aundirik etzuan bear izaten ortarako, eta sartu da tabernan. Sartu eta bertso au botatzen dio etxe-koandreak:

Goian sartzen dan iltza bean errematxa, neuk ere badet bada inork ainbat tatxa; onerañokoa zan gaurko nere martxa, biyar arte, etxe-koandre, mallu ori altxa.¹⁷

* * *

Ernani'ko Epele'ko presa egitean, Txirrita an ari zan lanean.

Fagollaga'n zegoan ostatuz, eta etxe-koandreak egunero bialtzen zion gosaria lantokira.

Egun batean, ordea, etzion bialdu. Txirrita etzegoan gustora. Epele'ko Etxeberri'ko morroia ikusi eta bertso au bota zion:

Penagarriyak izaten dira arlotiaren pausuak, adiskidiak gera ni ta zu eta gañera auzuak; gosaririkan ez dit bialdu Fagollaga'ko auzuak, laster ageri ez baldin bada aztuko dira bertsuak.¹⁸

* * *

Egun batean, Igeldo'ko arrobian ari zan, eta bertsoan orduan ere.

Batek esan zion:

–Txirrita, ori dek etorriya!

–Bai. eten gabeko iturriya!¹⁹

* * *

«Jakiña, Txirritak ere, langille beroa izateko, nagusi askotxo ezagutu zitzuan, nola euskaldun ala erdeldun.

Danak berdintsu errespetatzen zitzuan, parranda egin bear zuanean. Poltxikoan dirurik etzuanean, gizon bezela portatzea gustatzen zitzaion lantegian.

Baña dirua zuanean, sagardotegiko etxeoandarearentzat ere kupitu egiten zan, ark ere norbaiten diru laguntza bear-ko zuala pentsaturik eguneroko ogia etxeratzeke, eta geienean bertara jotzen zuan.

Nagusi erdeldunarekin lanean ari zala, gertatu omen zitzaion ondoren idatziko dedan au.

Orduan ere parrandak egiten omen zitzuan, baña astearen aurreneko egunetan lanera zintzo joaten omen zan.

Ostegunean jai erdia egokitu nunbait; eta, norabait bertsoak kantatzera joan da irabazitako txanponakin, ostiral egun guztian parranda egin omen zuan, eta berriro ere larunbatean zintzo lanera, ez noski lanerako gogo geiegirekin, baña lanean pasatako egunak kobratuko baziran joan egin bear.

Nagusiak, illunabarrean, kontuak egi-terakoan, onela esan omen zion:

–*Txirrita, usted ayer medio día ¿no?*

Eta Txirritak:

–*¡Qué medio día! ¡Todo el día, sidrería, Rentería!*».²⁰

* * *

«Kanpoan lanean ari zala, euriak arrapatu zuan, bai au –Txirrita– eta bai bere lagunak. Oso busti ziran eta inguruko baserri batera arrimatu ziran.

Su aundi bat egin zuten etxe artakoak, ta an jarri ziran bueltan, oñetakoak edo

alpargatak erantzi eta suaren ondoan jarriz, aguroago legortzeagatik.

An zeuden etxeko guziekin kontu kontari, eta besteen artean etxeko bi alaba ere bai.

Alako batean onela esan zuan Txirritak:

–Arraio-arraioa! Oraintxe galdu nak!

–Zer pasa zaizu? –galdetu zion bertako gizonak.

–Alpargatak erre.

–Alpargatak erre?

–Bai.

–Nola?

–Neskai begira nagola!».²¹

1. Pello Zabaleta bertsolaria, Erreenteri.
2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.
3. Pello Zabaleta bertsolaria, Erreenteri.
4. Pello Zabaleta bertsolaria, Erreenteri.
Basarrik onela kontatu du gertaera au bera, *La Voz de España* egunkarian, 1972-VII-14'ean:
«Txirrita zana lan eske joan zan kontratista batengana.
–Bolarra ontan oso lan gutxi daukat bada –esan zion kontratistak.
–Egia esan, asko-asko gabe ere pasako nintzake ni –erantzun zion Txirritak».
5. Ez nuan idatzi nori jaso nion.
6. Pello Zabaleta bertsolaria, Erreenteri; Migel Zuaznabar, Sasoea, Lasarte; Juan Mari Lujanbio, Saiburu, Erreenteri, Txirritaren illoba txikia.
7. Juan Bautista Gesalaga, Zaldubi bertsolaria, Zarautz.
8. Pastora Aizkorreta, Txirrita-berri, Erreenteri.
9. Pello Zabaleta bertsolaria, Erreenteri.
10. Pello Zabaleta bertsolaria, Erreenteri.
11. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.
12. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.
13. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.
14. Jose Agirre bertsolaria, Oanda, Azpeitia.
Oiantzun'go Kaskazuri bertsolariak (*Auspoa*, 114) bere bertso bati bukaera au eman zion:

gríña gaizto guziak
tiratzen dirate,
aitzurak eta palak
mudatuko naute.

15. Bi tokitan kontatu du *Zeleta*'k gauza bera: *Zeruko Argia* astekarian, 1969-VI-20'an, *Txirrita* – *Lasarte* idazlanean; eta *La Voz de España* egunkarian, 1979-III-21'ean, *Lengo ta oraingo Lasarte* izeneko lanean. Bietan ia itz berekin kontatu ere. Baiña *Zeruko Argia*'k puska falta baitu, *La Voz de España*'ri kopiaiu diogu.

16. Antonino Pagola, Ernani.

17. Gabino Huizi, Goizueta.
18. Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze, Ernani.
19. Balentin Zamora apaiz jauna, Leku-eder, Igeldo, Donostia.
20. Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia, idatziz bialdua.
21. José Ramón Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

MORROI

Argintzan ez-ezik, nekazaritzan ere
saiatu omen zan, bein batean beintzat.
Morroí joan zan baserri batera.

Tratua egitean, onela galdetu zuan:

–Zer ordutan jeiki bear da?

–Astoaren arrantzean jeikitzen gera
goizero etxe ontan nagusi-morroiak.

Joan zan baserrira eta leendabiziko
goizean, astoak arrantza egin zuanean, er-
lojuari begiratu eta seiak zirala ikusi zuan.

–Etziok oso gaizki –esan zuan bere ar-
tean.

Biamamonean, arrantza egin zuanean,
begiratu eta bostak ziran. Txirrita etze-
goan gustora.

Irugarren goizean, berriz, lauretan
egin zuan astoak arrantza.

–Arrayia!... Arrayia!... Etziok etxe
ontan gauza onik.

Izan ere, nagusiak ondo eskolatua zeu-
kan astoa. Astoa zegoan tokiaren gainean

lo egiten zuan; eta berak, *tak-tak!*, an-
karekin jotzean, astoak arrantza egiten
zuan.

Baiña Txirrita etzan tontoa, eta igerri-
zion nagusiari tranpian zebillela.

Bere amorruan, artu zuan atxurra eta
abiatu zan eskailleretan beera astoarenga-
na.

Nagusia, gisa artan ikusi edo sentitu
zuanean, atzetik korrika joan zitzaion:

–Zertara oa?

Eta Txirritak:

–Zertara? Despertadorea konpontze-
ra!¹

* * *

Gertaera au bera, beste onela konta-
tzen du Jose Ramon Erauskin Lujanbio
Txirritaren illobak, bere *Aien garaia* libu-
ruan:

«Ara emen batzuek² nik osaba Txi-

rritari entzun izandu nizkanak, eta oso errezelotan gelditu nintzan, lenengoa beintzat berari gertatua izango zala.

Nagusi batek bi morroi zeuzkan, eta etxean artzerakoan egin zuten tratua.

Beste gauza askoren artean itzegin zuten goizeko jeikiera; emen nagusiak esan zioten jeiki bear zutela goizero astoak arrantza egiten zuenean.

Orduan morroiak galdetu zioten:

–Noiz egiten du arrantza?

–Bada... seiak aldean; ez du oker aundirik ibiltzen, eta beti garai jakintsuan egiten du.

Konforme gelditu ziran morroiak; baina etzekiten morroi auek asto arek arrantza nagusiak nai zuenean egiten zuela, bada oitua zeukan goizero-goizero jeikitzean jatena ematen.

Nagusiak oietik ateratzean egiten zuen soñuan akordatzen zan astoa nagusia jeiki zala, eta orduan egiten zuen arrantza.

Orrela, etzeukan bulla pixka bat ateratzea besterik. Laixter egingo zuen astoak arrantza. Eta, bein edo bein oitutako garaiean ez bazuen soñua ateratzen ere, etzitzaion aztuko astoari eskatzea edo arrantza egitea.

Olako batean, etorri zan baserrian lan-

-presa pixka bat, eta nagusia lengoetan baño goizago mugitu zan eta zerbaitekin soñu atera zuen; baita astoak aguro egin ere arrantza, eta jeiki ziran morroiak.

Eta urrengo egunean pixka bat goizxeago; eta, ala, egunean baño egunean goizago zijoazen jeikitzen, eta aspertu ziran.

Orrela, pentsatu dute paliza on bat ematea astoari.

Olako batean, sekula baño goizago asi da nagusia soñu egiten, eta besteak ere bai arrantza.

Jeiki dira morroiak, eta biak makilla banarekin asi dira *dili* ta *dale* astoa joka.

Alako makilla-soñuak ari zituzten eta akordatu zan nagusia; etorri eta esan zioten:

–Zer ari zerate, mutillak?

–Erlejua konpontzen, egunetik egunera asko aurreratzen du eta! –erantzun zioten morroiak».

1. Bizente Oiarbide, Txilibita, Ereñozu, Ernani.

2. Nagusi-morroien arteko gertaera batzuk, alegia.

PARRANDAN

Fermin Imaz bertsolariak onela esan zion Txirritari bertso batean, alkarrekin asarretu ziranean:

etxean sikerik
ein gabe kasorik,
zuk bezela, ez tet pasa
aste osorik.

Orrenbesteraño ote zan ez dakigu; baiña parrandazale samarra zala bai. Emango ditugu proba batzuk.

San Markos eta Txoritokieta mendien arteko lepoan bazegoan kantina bat.

Jai batean, kantina ontan jokoan aritu zan Txirrita erdaldun batekin, eta Txirritak irabazi.

Andik atera eta etxe aldera alkarrekin zijoazela, erdaldun orrek, Txirritaren uste gabea, *daka!*, labana sartu zion bizkarretik.

Txirritak, kolpea sentitu zuanean, jiratu eta, *zas!*, ostikoz jo eta ankaz gora bota zuan erdaldun ura. Baiña bai bera ere bertan erori.

Kantinarara jaso zuten, ekarri zioten medikua, onek oso gaizki arkitu zuan, eta, ilko zalakoan, ala esan zion:

–Biarko sendatuko zera.

Baiña baita ere Txirritak aren asmoa aguro asko igerrri, eta ala erantzun zion:

–Ez il ere!

Eta orduan medikuak:

–Ori gizonaren barrena, bi orduko bizirik eduki ezta!...

Baiña oker zebillen: bizirik zegoan andik iru bat egunera ere.

Odol galtzeak-edo egarri aundia eman zion, ordea. Bazekian oi azpian ardoa gordeta zegoana; eta, bakarrik zan batean, oietik al zuan bezela jeiki, artu eta asi zan *zanga-zanga* ardoa edaten.

Ortan ari zala, *trak!*, soiñu aundi bat aditu zuan bere barrenean, eta alaxe esan bere artean:

–Oraintxe lertu nak!

Baiña lo aundi bat egin zuan, aren ondoren oso pizkortuta nabaitu bere burua, eta andik asi zan sendatzen.¹

* * *

Gazte denborako gertaera izango da beste au.

Errenteri'ko Etxe-txiki baserrian taberna omen zan garai artan.

Egun batean an zegoan Txirrita. Sei laguneko kuadrilla bat ere ara bildu zan. Oartzuarrak izan bear zuten mutil aiek.

Zertaz ez dakigu, baiña asarretu egin ziran Txirrita eta kuadrilla ori.

Txirritak desafioa egin zien: etortzeko aietako bat, edozein, gizona bazan. Bik nai zuten eta bat prestatu zan.

Joan ziran aldameneko zelai batera, asi ziran burrukan eta Txirrita azpira.

Baiña Txirritak zintzurretik elduta zeukan bestea, eta beatz aundi biak sartu eta lepoa estutu egiten zion, itoaz.

Mutil aietako bat konturatu zan lagunak zurrunga egiten zuala, eta orduan libratu zuten Txirritaren atzaparretatik, baiña gogotik estutua eta kordea galduta. Bere onera ekartzen aritu ziran gero.

An ala bukatu zan. Baiña beste egun batean, Erreterer'tik Oiartzun'a bitarteko Larzabal sagardotegian, gaurko futbol-zelaiaren parean, kuadrilla ori zegoan. Alako batean, Txirrita sartu zan.

Baso bat sagardo edan zuanean, ala esan zuan kuadrillako batek:

–Orain ere orri orrela utzi bear al diogu?

Txirritak beste baso bat sagardo edan zuan, eta abiatzerakoan onela esan zien:

–Nai dezutena egin, mutillak. Baiña bizirik uzten banazute, nik bakarrik arrapatzen dedan arek pagatuko dik.

Eta arekin bukatu zan sesioa.²

* * *

Egun batean, beste askotan bezela, tabernan zegoan, eta ango neskamea berari bertso bat botatzeko eta botatzeko ari ziztaion.

Etzion pakerik ematen, eta azkenean baietz esan zion Txirritak, botako ziola bat, eta geiago eskatzeko gogoia ondotoxo kenduko zion bertso au kantatu zion:

Auxen da dama kopet illuna,
nork etorri bear du zuregana?
Kamixa zarra, zikiña gona,
garbitutzeko falta jabona,
ezta lan ona,
txerritegin dago zure laguna,
urde zikiñen bandera duna.³

* * *

Beste bein, Donosti ondoan argintzan ari zala, andaluz bat zeukan laguntzaille. Taberna batera joatea pentsatu zuten; eta, esan ta egin, joan dira biak eta pasatu dute jai-arratsalde guztia edanean.

Taberna ixteko ordua iritxi zanean, bertako nagusiak ala esan zien:

–Tira! Kanpora, ordua da eta!

Txirrita jeiki da zegoan tokitik, eta joan da ateondora. Baiña andaluz gauza ez altxatzeko... Nagusiak, asarretu eta eldu dio beso ondotik, eta atera du postura txarrean.

Txirritak orduan onela kantatu zion ate ondotik:

Anparatu nai det nere
lagun andaluz,
zerbait bazalakoan
ta azkenean utsa;
orrek ez dik balio
zakurraren putza,
bera eroriko dek eta
ez akiyok bultza.⁴

* * *

Zaartu ondoren, Altza'n arrebaren etxean bizi zala, erriko medikuak –Don Inazio Casares eta Don Leandro Aizpuru omen ziran– Txirrita ostatutik etxera ongi serbituta bialdu bear zutela pentsatu zuten.

Kosta omen zan pixka bat; baiña bai fardel ederra eman ere.

Urrengo goizean, seietako mezetara zijoan jendeari, bertso au kantatu zion Txirritak:

Zabal dagola ikusten badet
nik tabernako atia,

iduritzen zait pekatu dala
an sartu gabe joatia;
gure erriko bi medikuak
pikaro xamarrak tia,⁵
bart arratsean bialdu naute
pipa bezela betia.⁶

* * *

Gertaera au beste onela kontatzen du
Altza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazka-
no'k, bere *Tiro tartean bertsotan* liburuan,
161 orrialdean:

«Altza'n, garai artan, bi mediku ziran,
Don Leandro ta Don Inazio. Bertan bizi
ziran biak.

Larunbatean bi medikuak Martillune-
'ko tabernan tokatu dira, ta asi dira Txi-
rritari eman ardoa ta eman ardoa, ta Txi-
rrita kantatu ta kantatu, ta ikaragarritzko
jornada arrapatu du.

Nunbait ere, an ondoan bizi zan base-
rritar batek zaldi-karroan eramaten zuan
Txirrita etxera bestela ere; ta, jornada
kargatzen zuanean, zer erremedio...

Eraman du ta urrengo egunean lenen-
go mezetara etorri dan jendea segituan
enteratu da:

-Atzo, ola ta ola medikuakin, eta
egundoko jornada eramán omen dik Txir-
ritak.

Ala, Txirrita meza nagusira-edo atera
da etxetik, eta illea artzen asi zaizka bes-
teak. Baita Txirritak aguro jan ere, ta:

Ikusten badet zabal dagola
tabernetako atia,
pekatu dala iruditzen zait
an sartu gabe juatia;
gure erriko bi medikuak
pikaro xamarrak tia,
bart arratsian biali naute
pipa bezela betia.

Besteak nun illea artuko zioten ta be-
rak dana esan. Berak aurrea artu. Orain
ura joan da. Zer esan bear diozu zuk ari?
Ori da bertsolariaren talentua».

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

Gertakizun onen beste kontacra bat, aurrerago
arkituko du irakurleak.

2. Juan Mari Lujanbio, Saiburu, Erretereri, Txi-
rritaren illoba txikia.

3. Gregorio Iraola, Donosti'ko kaia.
Bertso au kantatzeko, Bilintxen Juana Bixenta
Olaberen doinua artu bear da.

4. Bizente Mujika, Ormaiztegi.
Beste era au ez dakit nori jaso nion:

Adoratu dezagun
gure andaluz,
zerbait badala uste ta
bitartean utsa;
berak ez dik baliyo
zakurraren putza,
bera eroriko dek,
ez akiyok bultza.

Inazio Zubizarreta, Erremerteri, Loiola, Azpei-
tia:

Gauza attala benetan
etorri da onuntza,
besteik etzaio ageri
ezur-azal utsa;
esku erasteko ere
nola ez dan gauza,
berez eroriko da ta
etzaiozu bultza.

Itziar'ko Zubeltzu bertsolaria, Jose Antonio So-
rasu Unanue alegia:

Argiñ bat etorri zaigu
andikan onuntza,
bart ipiñi ziguna
olako laguntza;
ona zala uste ta
zakurraren putza,
bera eroriko dek eta
ez akio bultza.

5. tia: dira.

6. Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Do-
nostia.

Pedro Almandotz, Goiatz-erribera, Martutene,
Donostia: 1: Ikusten badet zabal dagola; 2: taberne-
tako atia; 3: pekatu dala iduritzen zait; 5: erri ontako
bi medikuak.

Lino Kalonje, Bentaberri, Donostia: 1: Zabal

-zabalik ikusitzean; 2: tabernetako atia; 3: pekatu dala iduritzen zait; 6: granuja galantak tia.

Lino Kalonje'k csan zidanez, bertso au San Martzialetan kantatu zuan Txirritak, meza nagusitik at-

ratzean. Pedro Almandotz'ck zionez, berriz, Landarbaso'tik Altza'ra ura ekarri zutenean.

BONATXO'N

Txirrita eta bere lagun bat Bonatxo'n omen zeuden ostatuz.

Etxe orri orain Bonatxo esaten bazaio ere, berez Bona-etxea omen du izena. Errenteri'ko partean dago, Zamalbide'ko benta baiño kilometro erdi bat leenago eskubi aldera artuta. Kantina orri Albaiteruena ere esaten zioten. Ama-alabak omen ziran an. Alabak Martina zuan izena.

Txirrita eta bere laguna sagardoa edateko gogoarekin omen zeuden, eta ara zer biurrikeri sortu zuten.

Bat onela esaten asi zan:

–Alako etxetako sagardoa emengoa baiño obea da.

Eta bestea:

–Ez, jauna, ez. Emen bertakoa obea da.

Baietz eta ezetz, ezetz eta baietz, egundoko eztabaida sortu eta azkenean apostu itxura bat egin zuten.

Etxekoandreari txarro bat sagardo atera arazi zioten, etxekoa nolakoa zan probatzeko. Txirritak lagun egin zion etxekoandreari txarroa betetzen, sagardoa nun zegoan ikusteagatik.

Edan zuten etxeko sagardo ori, eta Txirrita txarroa eskuan artu eta kanpora atera zan, beste etxe artara sagardo billa zijoala esanez. Joan itxura egin bai; baiña kanpoan gordeta pixka bat egonda gero, ukuillutik-edo sartu zan berriz ere etxean ixil-ixilik; eta, leengo toki beretik txarroa sagardoz beteta, ostera ere kantinan azaldu.

Edan dute txarro ori ere, milla bat arrazoi atera dute sagardo orren graduak neurtzen, eta azkenean erabaki au eman dute: bigarrengo ori oso ona zala; baiña ala ere etxeko sagardoa zala nagusi.

Ori adituz, ama-alaba oiek pozik gelditu ziran. Baiña Txirrita eta bere laguna are geiago oraindik, sagardo ona oso merke eta ugari edan ondoren.¹

* * *

Bein batean, kantina ortan bertan, beste batzuk festan ari ziran bitartean, Txirrita eta bere lagun ori atarira joan ziran; an zegoan besabea artu, teillatura ixil-ixilik igo, eta aren pertika muturrez beera tximini-zulotik sartu zuten.

Biamamonean, sua piztutzean-edo tximini zuloan zer zegoan konturatu zira-

nean, ama-alaba oiek Txirritarengana joan ziran, mesedez eta faborez ura andik ateratzeko.

Txirritak baietz esan zien, aterako zutela, baiña lanak bere soldata merezi zuela beti...

Igo ziran teillatura, ekin zioten ateratzeko lanari, eta, artan ari zirala, onela zion Txirritak:

-Arrayia!... Arrayia!... Etzeukan lan askorik au emen sartu zuanak!... Etzeukan lan askorik au eman sartu zuanak!...

Eta berak sartua izaki.

Eta, ateratzeagatik, ardoa eman zieten ama-alaba gajo aiek.²

* * *

Beste batean, Bonatxo etxe ortan bertan, artilezko galtzerdiak egin arazi zituan. Alabak egin zizkion. Txirritak, ordea, jantzi bai, baiña pagatu ez.

Ama marmarrean eta erritan ari zan beti:

-Txirrita, noiz pagatu bear dituk galtzerdiak?

Baiña Txirritak kasorik ere ez. Auskalo zenbat denbora onela; denbora asko beintzat.

Azkenean, alaba amaren marmariaz aspertu egin zan; eta, amari ezer esan gabe, Txirritari galtzerdien dirua eman zion, pagatzeko faborez, orrela beintzat etxean pakea izango zutela.

Txirritak dirua jaso eta amari eman zion, esanez:

-Beti onela ari gabetandik, ara galtzerdien dirua.

Amak erantzun zion:

-Bejondaikela, Txirrita! Ez nian uste sekulan pagatuko itukenikan.

Eta alabari:

-Atera akion baso bat ardo, neska, merezi din eta.³

* * *

Arrats batean, jokoan ari ziran Txirrita eta bere laguna, kantina ortan bertan.

Alako batean, logaleak etxeoandrea menderatu eta suaren ondoan lo artu zuan. Lotan ikusi zuanean, biurrikeri galanta bururatu zitzaion Txirritari.

Soka bat artu, laguna teillatura igo, tximini zulutik beera soka-muturra bota, eta arekin poliki-poliki, ez esnatzearren, etxeoandrea anketatik lotu zuan Txirritak. Lotu eta leengo tokian exeri zan beera, ezer ez balitz bezela.

Orduan, teillatuan zegoana sokari tiraka asi zan; eta etxeoandrea, tximinitik ankaz gora zijoala esnatu.

Asi zan gajoa karraxika, eztarria lertu bearrez; eta orduan an azaldu zan Txirrita, ezer ez baleki bezela:

-Zer? *Arriba* neskazarra? Sorgiñak izango dira! Sorgiñak izango dira!

Eta gero, tximini zulutik gora oju egiten asi zan, bere indar guziaz:

-¡*Arria*, bruka! ¡*Arria*, bruja!

Arria ori, Pasaia'n leengo bela-ontzi zaarretako mariñelei ikasitako ojua izango zuan.

Deadar ori egiteaz gaiñera, sokari tira egiten zion. Teillatuko lagunak utzi zion orduan sokari; eta Txirritak, leenago berak lotutako etxeoandrea libratu zuan serio asko.

Onela esaten zion:

–Ai, etxeoandre! Eskapada ederra egin dezuz! Ez banintz ni emen egon, eramango ziñuzten sorgiñak tximinitik gora.

Eta etxeoandreak:

–Bai, Joxe Manuel, bai! Asko zor dizut!

Eta andik aurrera, arrats artan, Txirritak eta bere lagunak etzuten pagatzen lanik izan, nai aña edanagatik.⁴

* * *

Ama-alaba oiek oitura au omen zuten: ama jendeari serbitzen gelditu, amarrak edo amaikak arte. Bitartean, alaba lotan. Eta gero, alaba jeiki eta ama oiera joan.

Onela esan zion amak alabari gau batean:

–Zoaz oiera, gero neri txanda egitera jeiki bearko dezuz eta.

Txirritak onela esan zion orduan alabari:

–Zu oierako eraztean, guk atearen txulotik begiratuko degu.

Eta alabak erantzun zion:

–Nik ez det argirik piztuko, ordea... Nik ez det argirik piztuko...

Etzuan besterik nai Txirritak. Astakumea baitzuten alabaren oian jarrita, anka-besoak lotu eta goxo-goxo tapakipean sartuta.

Alaba gelara abiatu zanean, Txirrita eta bere lagunak atzetik zijoazelako itxura egin zuten, argirik piztu etzezan. Ezta ere arek piztu, aiek ikusiko zuten bildurrez.

Erantzi ta oira sartzean, an nun topatzen duan zerbait bizia badala oian, eta karraxika atera da amarengana, kamisa utsik eta arnas larrian, esanez:

–Ama, ama! Nere oian norbait dago! Nere oian norbait dago!

Amak:

–Bai, zera!

Alabak berriz ere:

–Bai, ama, bai! Norbait dago, gorpuztean ille asko duana gaiñera!

Amak orduan:

–Zer ote da, bada? Aita difuntua etorri ote da?

Baiña Txirritak esan zien:

–Ez estutu! Ez estutu! Sorgiñen bat izango da, baiña bialduko degu ortik. Ekatzute ur bedeinkatua.

Ekarri zioten, eta an jarri ziran danak errenkadan, Txirrita ur bedeinkatuarekin aurretik, urrena bere laguna, eta ama-alabak atzetik.

Txirritak, ur bedeinkatua alde guztietara banatuz, onela zion:

–*Kyrie eleison, Domine Patris!... Kyrie eleison, Domine Patris!*

Sartu dira gisa artan, eta krisailluaren argira or ikusten dute astakumea oian, anka-besoak lotuta eta, «*Uuummm!... Uuummm!*» egiñez zegoala.

Txirritak onela esan zion asarre antzean:

–*Uuummm! Uuummm! Uuummm!* egiten al dek? Ez dek, bada, ire denbora guztian olako oian askotan lo egingo, gizarajo orrek!⁵

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

3. Juan Mari Lujanbio, Saiburu, Errrenteri, Txirritaren illoba txikia.

4. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

5. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

JOKOAN

«Txirritak, tabernarako ezik, jokora ere apizio pixka bat bazuen. Askotan entzun izan nion nola aritzen ziran diru-jokoan, eta zaartuta gero ere buru argia zuen orretarako.

Joko-klase asko zekizkien; baña, berak esaten zuenez, *trukean* edo *zinkomontean* geiena gustatzen zitzaion; bañan musean ere ondo egiten zuen.

Alaz eta guztiz ere, etzuen nai zuen guztian irabazten, eta orretarako arte edo tranpa batzuek ez zitzaizkan faltatzen.

Bein batean, bere moduko lagun batekin musean ari zala, biak naiko lanak zerabilzkiten elkar ezin menderaturik; eta lagunak or jo dio ordago aundira bi erregerekin; baña Txirritak irurekin erantzun zion.

Orduan bere lagun edo, obeto esateko, kontrarioak, bost errege azaldu zirala ikusirik, esan zion Txirritari:

—Ik nundik atera dituk orrenbeste errege, Txirrita?

—Ik bezela nik ere beste karta-parea patrikadan ibillita -erantzun zion Txirritak.

Beste batean, Donosti'tik Tolosa'rako bidean dagoen eta Zapatari deitzen dioten barrio bateko taberna batean, kuadrilla edo lagun-talde bat, guardaren beldurrez goiko salara igo ta diru-jokoan ari ziran, garai artan ere jokoa galerazia baitzegoen.

Guardak arrapatzen bazituen, kastigatu egiten zituen, eta maian ziran diru guzian jabe bera egiten zan. Beragatikan zan oitura bat, guarda ikustean, al zuenak al zuen dirua artu ta itzuli egitea.

Orduan ere, usterik gutxiena zuten garaian, an sartu da guarda tabernan eta goiko salara abiatu da. Ura ikusi zuenean, Txirrita korrika kalera joan zan; ta bere lagun Inaxio Marik, maian zeuden diru guziak artu, bere txapelan sartu ta leiotik edo balkoitik kanpora bota zituen.

Ori guardak ikusi zuenean, joan zan alik azkarrena kanpora, jendea kastigatzea gogoratu gabe ta diru aiek artzeko uste osoan. Bañan ordurako Txirrita, nola lagunarekin jakiñaren gañean jarria baitzegoen, diru danak artu ta itzuli joana zan.

Guardak aldegin eta gauzak paketu ziranean, bildu ziran Txirrita ta bere lagun Inaxio Mari, eta andik Andoain alderagoko taberna batera joan ziran.

Gau guzia an pasa ta urrengo goizean, edo egoarte erdi aldean, an datoz biak ostera Donosti aldera, barrengo otz aundirik gabe, erdi kantari.

Ta or tokatu zaizkate bi emakume arrai-saltzalle, beren arraiak saldu ta xextoak beso-pean dituztela etxe aldera datozela.

Asi dira Txirrita ta bere laguna emakume aiek toriatzen, eta baita arraidunak ere ondo artu; eta atzenerako lauak el-

karri besotik eldu eta kamioan saltoka onoko kanta au kantatuaz etorri ziran:

Por qué, por qué i-

zan ez-ke-ro mer-ke, por

qué por qué ar-tu-ko gen-du-

ke; por qué por qué i-

zan ez-ke-ro mer-ke, por

qué por qué ar-tu-ko gen-du-

ke.

Porque, porque
 izan ezker merke,
porque, porque
 artuko genduke.

Porque, porque
 izan ezker merke,
porque, porque
 artuko genduke».

Nik esango nuke gaur ainbeste automobil etzala ibilliko kamioan. Bestela, aien *porque* etzan *merke* aterako».¹

1. Kontaera, Jose Ramon Erauskin Lujanbio -Gazteluene, Altza-, Txirritaren illobak idatzia.

Doiñua, Txirrita illoba orrek kantatua, magneto-fonoz jasoa, eta Manuel Yaben eta Anbrosio Zata-rain'ek entzun eta solfeoz papereratua.

LANTOKIKO LAGUNEKIN

Jose Etxeberria'k larogei ta lau bat urte zituan 1970'ean, gertaera auek kontatu zizkigunean. Oiartzun'go Larraburu baserrian jaioa zan bera, Larraburu bertsolariaren baserrian alegia, baiña Errenteri'ko Añabitarte'n bizi zan. Bere gazte denboran Txirrita zanarekin lanean jardun izana zan. Ona emen kontatu zizkigunak.

«Txirrita ori, gizagajoa, kantuan egoten zan apupilo. Amabostean bein artzen genituen sosak, bañan kantinarako baño askoz geiago etzuen izango. Egun batean batek galdetu zion:

–Txirrita, nun ago ostatuz?

Eta Txirritak:

–Orroko etxe txiki ortan, irabazi danak gastatuz!

Bein batean esan zidan:

–I, Larraburu!

–Zer?

–Bizarra moztuko al idakek?

–Bai! Zurea baño arpegi txarragorik moztu izandu degu!

–Ekatzak ba labana!

Arpegi bat ederragoa zuen!... Legun askia, bai! Bion artean baxo-erdi bana erango genduen eta martxa etxera.

Batean asarretu egin zitzaidan Txirrita. Euriak eman zuen ta txabola zar batera eldu giñan denak. An geunden da Txirrita orrek:

–Neregatikan aditu izan dezuten ber-

tsorik aldrebesena edo bertso itxusi bat kantatu bear didazute.

Ala esan zuen, eta nik nunbait ere auxe aditu ta ikasia:

Ezagutzen al dezu
Pedro Latze'kua?
Ez gizona altua,
motza ta sendua;
aren semea nazu
onlako trapua,
aitak etxian nai ez ta
bialitakua.

Ura kantatu nion ta asarretu zitzaidan.

–Nunbait ere ikasi uan, ba, ori alu orrek! Alu orrek nunbait ere ikasi uan, ba, ori!

–Dakiguna esateko esan dezu zuk!

Arkiri baserrian sagardo onak egiten ziran. Sagar guziak onak eta sagardo onak. Bazkaltzeko ordu bete izaten genduen, ta denbora gutxi. Arrantxua galtzea zerbait iruditzen. Galduko zuen, bai, arek, dirua izan ezkeru. Baiña etzuen dirurik eta lanean ari bear...

Onela esan zigun:

–Garrapoi bat sagardo ekarri bear zenduteke Arkiti'tik.

–Emendikan Arkiri'ra joan da etorri, eztugu ordu betean buelta egingo.

–Zuen edadean? Demonio! Oraintxe ere egingo nikek, oraintxe ere!

Bai, pizkorra zegoen ta! Orra ba: joan giñan Jose Pagoaundiko difuntua, Santi difuntua eta irurak. Garrapoi aundi bat bete sagardo artu genduen, ta zer balioko zuen? Bi peztakoa geienaz ere. Etorri giñan, ta Txirrita ori lanean asia zan, gu etortzerako. Deitu genion:

–Txirrita!

–Zer?

–Sagardoa ekarri dugu!

Arkaitz-zulo batean utzia genduen.

–Sagardoa ekarri al dezute?

–Bai!

–Bastante egin dezute! Nik ere probatu bear diat biñipin!

Txirrita orri eman genion ta, koñe!, betetzeko berriz. Berriz ere bete genion ta iru edo lau edan zituen, ta andikan istantean betetzeko berriz. Beztu egingo zala ta joateko aguro; edan egin bear genduela! Ustu genduen arte etzan pakerik: beztu egingo zala sagardoa! Beztu egingo zala ta edan egin bear zala! Ba, ustu genduen! Erdia berak edango zuen noski! O, gizagajoa! Arek dirua izan ezkeru...».

* * *

Onako argibide auek, berriz, Ormaiztegi'ko Etxaburu baserriko Bizente Mujika'k kontatu zizkigun:

«Igaz udaran gertatu nintzan Aizarna'ko estankuan bazkaltzen, da an bertako nagusia gizon edadeko bat da, larogei urtetik gorakoa, Martin, kontratista izanda-

koa. Gazte denboran obra askotan ibilli zan.

Bertso kontuan asi ta Txirrita atera genduan platerera, ta berak esan zidan Txirrita berarekin oso ondo portatu zala; etzala txoro oietakoa, batzuek esaten duten bezela; akaso egiñak izango zituala parrandak eta olakoak, bañan ez beintzat konturik artu gabe ta astelenetan. Arekin beintzat etzuala izan.

Batean gertaera au tokatu omen ziztaion: Txirrita andamioan ari zan etxe batean, eta betik ala-moduzko batek ots egin zion:

–Ara Txirrita! Bota bertso bat, motell, bota!

–Bertsoa? Ni ez nago bertsoarako tokian! Bertsoak tabernan izaten dira, tabernan!

Ori esanda utzi zuan. Ta gero onela esan omen zuan:

–Zer uste du orrek, ni zein naizela?

Kontratista onek zion berarekin ondo portatu zala.

Jakiña, lan-orduetatik kanpora zebillela, onela esan omen zion bein batean Martin orri:

–Nik jarriko nizekizuke zuri bertso ederrak. Zuk eskola ere badaukazu ta apuntatuko zenifuzke.

Ta Martin orrek:

–Bai; egingo nuke ori ere.

Bañan ez omen ziran ortara iritxi».

OIARTZUN'GO EUSKAL FESTAK

1897'garren urteko udaran, Txirrita Naparroa'ko mendiren batean ari zan lanean, ur salto baten ur bidea-edo egiten.

Erritik oso urruti omen zegoan lantegi ori; eta, nun gastatua ez izanik, bosteun bat pezeta aurreratuta zeuzkan. Naikoa, garai artarako. Nagusiari eman zion diru guzia, gordetzeko.

Ontan, abisua etorri zaio Oiartzun'en euskal festak zirala eta bertsotara etortzeko.

Joan eta esan dio nagusiari, Oiartzun'a nola deitu duten eta joan bearko duala; baiña diru gabe ezin joango dala.

Nagusiak esan zion:

-Zenbat bear dek? Ogei duro?

Eta Txirritak:

-Um!

Gutxitxo zala, alegia.

Nagusiak orduan:

-Berrogei?

Txirritak berriz ere:

-Um!

Nagusiak:

-Irurogei?

Eta Txirritak:

-Ez al diat obe izango danak artuta joatea?

-Ireak dituk. Nai dekana egin zak.

Ala, danak eman zizkion, eta Txirrita Oiartzun aldera abiatu zan.

Izugarri euskal festa ederrak izan ziran. Uztaillaren 3'an, illunabarrean, asiera eman zitzairen.

Biaramonen, 4'ean, meza nagusia. Obispo jaunak meza eman zuan; eta Aita Vinuesa, jesuita, Donosti'ko seme eta España guztian sermolari famatua zanak sermoia egin, euskeraz.

Eguerdian bazkaria. Txanpaina idikitzean, brindis bana egin zuten Diputazio-ko buru zan Lizarriturry jaunak eta obispo jaunak, euskeraren eta euskal oituren osasunerako.

Arratsaldean, esku-dantza edo dantza-soka. Bi diputaduk egin zuten auresku eta atzesku: Jose Joakin Egaña'koa eta Jose Elozegi'koa; eta soka egiñez beste diputadu asko eta goi-maillako beste jaun batzuk atera ziran.

Urrena, Donosti'ko orfeoiak euskal kanta batzuk kantatu zituan: «Agur, oiartzuarrak», «Ezkonberriak», «*Coros suecos*» euskal itzak Pepe Artola'k jarrita, «Goizeko izarra», «Ume eder bat», «Boga, boga», eta azkenean «Gernika'ko arbola».

Biaramon arratsaldean, udaletxean, euskerazko idazlanen sariak jasotzea izan zan. Itz neurtuetan, Pedro Maria Otaño'ren *Anaitasuna*'k eraman zuan leenengo

saria; eta Domingo Agirre'ren *Ai balekite!* deritzaionak bigarrena. Oiartzun'i buruzko kondaira lanetan, Don Blas Pradere apaiz jauna aurren, eta Migel Antonio Iñarra apaiz jauna bigarren gelditu ziran. Antzerkietan, Baleriano Mokoroa'k eraman zuan saria, bere *Damuba garaiz!* izenekoarekin. Saria jaso eta nor bere lana irakurri egiten zuan. Txomin Agirre etzegoala eta Karmelo Etxegaray jaunak irakurri zuan arena.

Ori bukatu eta bertsolariak izan ziran San Juan kalean. Bertsolari auek kantatu zuten: Pello Errota eta Juan Kruz Elizegi anaiak, asteasuarrak; Esteban Elola, asteasuarra; Txirrita; Juan Jose Lujanbio, Saiburu, Txirritaren lengusua, errenteriarra; Juan Jose Sarasola, *Lexo*, Lezo'koa; *Artzaia*, Altxa'koa; eta Jose Joakin Urbieita, *Kaskazuri*, oiartzuarra.

Asi omen ziran bertsotan eta Txirrita jendearen gustoa egiten ari omen zan, eta jendea parre-algaraz aren bertsoekin. Pello Errota, berriz, euskal festak ziran ezkerero, euskera goratuz ari zan, saria irabaztearren.

Pello Maria Otaño juraduan zegoan, eta Txirritari onela esan omen zion:

–Ederki ari aiz, Txirrita. Ederki ari aiz. Jendearen gustoa egiten ari aiz. Baiña arbola aitatzen ez badek, premioa Pello Errotarengana ziak.

Orduan Txirritak bertso au bota zuan:

Gernika'ko arbola
igartu da orra,
ez daukate jarririk
olako enborra;
ari zañak ebaki
zizkion satorra,
berrogei kana luze
bazuen muturra,

ura etzan izango
euskaldun jatorra.¹

Egun artan botatako beste bertso bat ere gorde izan da:

Ai lenago're Oiartzun'dikan
atera izan da gizona,
gaur ni nagoen parajetikan
urrutikoa etzana,
umilla eta korajetsua,
leiala eta zuzena,
lizar-makilla aundi batekin
Erroma'n bertan izana,
guri eliz au siñaletako
emen eginda il zana.²

Antziñako Lartaun aitatzen da emen. Ernio menditik Erroma'ra erromatarrekin burruka egitera joan ziran euskaldunen buruzagia izan omen zan. Bere lurretan egin omen zan Oiartzun'go eliza.

Bertso-saioa bukatuta, juraduko jaunak Txirrita eta Pello Errota, biak batera, leendabizi gelditzen zirala erabaki zuten; eta urrena, Saiburu.

Festak aurrera jarraitu zuten. Urrengo egunean, mutil koskorren dantza-soka eta txistulari txapelketa izan ziran. Baita illuntzean iru komeri aurkeztu ere: Toribio Alzaga'ren *Aterako gera*, eta Martzelino Soroa'ren *Alkate berriya* eta *Barrenen arra*. Euskalerrian izan dan leenengo teatro taldeak, *Euskaldun Fedea* izena zuanak, antzeztu zituan.

Uztaillaren 7'an bukatu ziran festak. Egun artako ospakizunak: irrintzilariak, idazteko eta irakurtzeko esamiñak aurrentzako, nekazarietzako sariak, tobera-jotzailleak, emakumeen lasterketak urez betetako suilla buruan zutela, zezen suzkoa eta abar.

Euskal festak gutxi aldatzen ziran ba-

tetik bestera, eta erri guztietan berdin samarrak izaten ziran. Festak bukatu eta abiatu da Txirrita atzera ere mendi aldera, bere lantegira. Pausoa, guk uste beintzat, etzuan egingo festetarakoan bezin bizkor.

Aillegatu da, nagusiarekin topo egin du eta onek galdetu dio:

–Etorri al aiz, Joxe Manuel? Eta... sobratuak nun dituk?

Eta Txirritak:

–Sobratuak? A, motell, motell!... Emen aurreratuak gastatu, an irabaziak gastatu, eta ala ere zorretan etorri nauk...

Etzan denbora guztian orfeoari, diputadu dantzari, komerilari, zezen suzkoari eta orrelakoei begira egingo...³

1. Errenteri'ko Pello Zabaleta bertsolariak eman bezela jarri degu emen bertso au.

Beste geienak, Zapiain'ek-edo puntua jarri ziola esaten dute, eta Txirritak segi egin zuala. Ona emen aldaketak:

Inazio Mendizabal, Aurnia'ko errota, Zizurkil:

Gernika'ko arbola
igartu da orra,
berriz noizko asiko da
alako enborra?
Ari zañetik kozka
in zion satorra,
ura etzan izango
euskaldun jatorra.

Errenteri'n, izena artu ez nion bati jaso:

Gure arbola ederra
iyartu da orra,
berriz nundikan sortu
orlako enborra?

Berrogei kana luze
bazuan muturra.
sinale da etzala
euskaldun jatorra.

Migel Zuaznabar, Sasucta, Lasarte:

Gernika'ko arbola
igartu da orra,
ez dauka besterikan:
azala ta egurra;
oni zañiak moztu
dizkion satorra,
ura etzan izango
euskaldun jatorra.

Jose Antonio Loñaz-Otaño apaiz jaunari, As-teasu'n, Pello Errotarena bezela eman zioten:

Gernika'ko arbola
iyartu da orra,
bestetik ez daduka:
egurra ta enborra;
ari zañiak moztu
zizkion satorra,
etzan izango
euskaldun jatorra,
gutxinaz bi kana luze
izango zuen muturra.

Karmel egutegia, 1962: Dundunzar: *Txindurri ta... Txirrita*. Onek bertso au Bilbo'n kantatua dala dio, eta puntu eta neurriaz arlotte samar idazten du. Onela dio:

«Ta ona Diputazioko gizonak Txirritari amaikeran jarri zion puntua:

Zergatik aurkitzen da igartua
Gernika'ko arbola zarra?

Eta Txirritak bereala jarraitu:

Satorrak jan diotelako
azpiko sustarra,
ar eta beste animali txar asko
gaiñeko azala,
orregatik igartu da
Gernika'ko arbola zarra.

2. *Txirrita'ren Testamentua*, *Imprenta Macazaga, Rentería, 1930*.

3. Txirritaren berriak, Errenteri'ko Pello Zabaleta bertsolariari jasoak. Euskal festen berriak, *Euskal-Erria* aldizkarietik artuak.

Txirrita eta garai artako bertsolariak



TXIRRITA ETA XENPELAR

Xenpelar bertsolaria 1869'garren urteko abenduaren 8'an il zan, ogei ta amalau urterekin. Txirritak, 1860'garren urteko abuztuaren 14'ean jaioa izanik, bederatzi urte zituan orduan. Ura ezagutzeko umeegia zala esango luke edozeiñek. Baiña etzan orrela izan.

Gero osorik ezarriko degun bertso batean, onela kantatu omen zuan Txirritak Errenteri'n, 1931'garren urteko uztaillaren 24'ean, egun artan Xenpelar zanari egin zitzaion omenaldian:

Oraintxen dira iruroi bat urte
Xenpelar zana il zala,
bi bider beintzat ikusi nuen
txiki-txikia nintzala...

Bertso bera beste onela jaso genduan beste emale baten aotik:

Irurogei ta bat urte dira
Xenpelar zana il zala,
nik lenbiziko ikusi nuen
gazte-gaztia nintzala...

Xenpelar bertsolaria famaren gaillurrean zegoan garaian il zan. *Bertso Berriak Xenpelarrek jarriak* jendearen aotan esatera bezela zebillen.

Egun batean, edo agian bitan, gizon famatu ura ikusteak egokitu zitzaion Txirritari. Alkar topatze ori nun eta nola izan

zan ez dakigu. Bearbada Ernani'n, naiz Ereñozu'n bertan ere izan zitekean. Ez baita arritzekoa Xenpelar inguru ortara bertso aitzakian joatea, eta kantuz ari zala Txirritak entzutea.

Dana dala, Xenpelar aurrez-aurre ikusi zuanean, begi-belarriak arengana zuzendu zitzaizkion Txirritari. Urteen buruan, berriz, oso zaartu eta gero ere, oroi-pen ori bizi-bizirik gordetzen zuan.

Zer esan nai du onek? Txirritak txiki-txikitandik sentitu zuala bertsoarako deia, eta berezkotasun ori izan zala Errenteri'ko bertsolariaren aurrean adi-adi jarri zuana.

Xenpelar, guztizko sasoiaren bazegoan ere, laister itzali bearra zan. Artean ume koskorra zan Txirritak, berriz, mundualdi luzea arrapatuko zuan, eta dan-dana bertso gintzari eskeiñiko zion. Baiña su ori Xenpelar ikusteak piztu edo ernetu ziola, oker aundirik gabe esan genezakela uste det.

Ondoren, leen ere esan degunez, Latze'tik Txirrita'ra aldatu zan familia. Txirrita baserria eta Xenpelar jaio zana, Senperelarre alegia, biak Errenteri'ko partean daude, eta ez alkarrengandik ain urruti ere. Nola edo ala ikasiko zuan Txirritak, berak ume koskorretan bein edo bitan ikusitako bertsolari famatu ura base-

rri txiki artako semea zala. Ain zuzen, Xenpelarren anai zaarrena bertan bizi izan zan, 1900'garren urtean il zan arte; eta, bearbada, Txirritak ezagutuko zuan.

Txirritak ume-umetandik izan zuan,

beraz, alako zer ikusi edo lotura bat Xenpelarrekin, beronekin bertsotan bein ere egin ez bazuan ere. Eta zaartzaroan, 1931'garren urtean kantatu zuan bertsoa, orren aitorpena dala esan liteke.

TXIRRITA ETA UDARREGI

Udarregi bertsolaria, Juan Jose Alkain alegia, 1895'eko urriaren 2'an il zan, irurogei ta sei urte bete eta biaramonean.

Aren illetan, Usurbil'en noski, elizkizuna bukatu eta amaiketakoa egin ondoren, bertso bana kantatu omen zuten iru bertsolari auck: Gaztelu, Txirrita eta Pello Errota. (Ikus: *Auspoa* 49-50, 64 orrialdean.)

Txirritarena auxe izan omen zan:

Gizajua il zan da
sartu zuen lur-pian,
zañak eta ezurak
alkarren artian;
asko sufritu zuen
bizi zan artian,
orain deskansa deilla
guztizko pakian,
gu ere juango gera
alako batian.

Gazteluk ere, esan bezela, an kantatu omen zuan. Baiña duda egin diteke. Izan ere, amabost urte besterik etzuan orduan. Gaztetxoa, noski, gizon larrien artera

azaldu eta illeta baten ondoren bertsoa kantatzeko.

Baiña Gazteluk osaba ere bertsolaria zuan, Gazteluko Gorri esaten ziotena, eta ura izan diteke.

Batzuek, ordea, Txirritarena dala diote, beste batzuek Gaztelurena dala esaten duten bertsoa.

Auzi ori ortan utzirik, bertsoa onela da:

Juan Jose Udarregi
Usurbil'ko zana,
amaika bertso eder
munduan esana;
bota izan balu ere
kolpeko dozena,
alare etzan gastauko
aren almazena,
gu ez gerade iñor,
ura zan gizona!¹

Bi urte leenago, Azpeiti'ko Premioa ospatu zanean, 1893'garren urtean alegia, Txirritak ogei ta amairu urte zituan. Adi-

ñik onena, noski, bertsotarako eta edo-zertarako.

Ala ere, aren izenik ez da Azpeiti'ko jaialdi artan azaltzen. Orduko bertso-saioa egin zanean, asieran beste bertsolari batzuek ere jardun omen ziran, baiña ez dira izendatzen. Oien artean Txirrita ote zan? Ez dakigu.

Edozein moduz, besteak baztertu eta iru bertsolari gelditu ziran: Jose Bernardo Otaño, Udarregi eta Pello Errota. Oietxek ziran, izan ere, garai artako bertsolaririk onenak eta punta-puntakoak.

Eta Txirrita, Azpeiti'ra agertu bazan edo ez bazan, artean bigarren maillakoa juzkatzen zala esan bear.

Baiña andik bi urtera, 1895^ean, Uda-

rregiren illetan, Pello Errotaren pareko jartzen dala ikusten degu. Pello, Jose Bernardo Otaño eta Udarregi, izan ere, bertsolari-gizaldi baten gaillurrak bezela ditugu. Urrengo gizaldiarena, berriz, Txirrita izango zan. Eta 1895 urte ortan, XIX mendearen bukaera aldera alegia, gizaldi aldaketa asia zala esan genezake.

Eta Udarregik eta Txirritak alkarrekin kantatu ote zuten? Ditekena da ori ere noski. Baiña aiek alkarri kantatutako bertsorik ez degu iñon ere arkitu eta jaso.

1. Gertaera eta bertsoak, Usurbil'en jaió eta 1959 urtean beintzat Zumarraga'n bizi zan apaiz jaun bati jasoak dira.

TXIRRITA ETA OTAÑO'TARRAK

Edozein bertsozalek dakianez, Zizurkil'ko Errekalde'tik bi bertsolari aundi sortu ziran: Jose Bernardo Otaño, osaba, eta Pedro Maria Otaño, illoba.

Otaño'tar oiek *Baria* eta *Baretarrak* zuten izengoitia. Egun batean, bertso au bota zion Txirritak Jose Bernardori:

Ni etxera sui eramateko
balain ba'ituzu idiak,
ortarako utzi bearko'ituzu
etxeko eskubidiak;
ta soroetan zabalduko'itut
zimaurrak eta kariak,

muturra atzian euki bearko'itek
an ibiltze'iran bariak.¹

* * *

Bertso orrek aurretik beste bertso bat omen du, eta gauzak onela gertatu omen ziran:

Zazpi bertsolari Ernani'n bildu omen ziran; eta, beren otordu legea egin ondoren, kantu lanari ekin zioten.

Zizurkil'ko Jose Bernardok izengoitia *Baria* omen zuan, eta Txirritari bertso au bota zion:

Joxe Bernardo ikasia da
atia zeñi iriki,
ta pamiliko buruzbidia
jarri nai luke egoki.
Mutil zintzoa nola zeran zu
nere alabak badaki,
gure etxera juan zaitez ta
biziko zera ederki.

Txirritaren erantzuna au izan omen
zan:

Zure alaba enpleatzeko
artu dituzu idiak,
orretarako biarko ditut
etxeko eskubidiak.
Terrenu oitan zabalduko'itut
zimaurrek eta kariak,
muturra atzera biarko ditek
inguru artan bariak.²

* * *

Beste batean, Txirrita Zizurkil'era
joan eta leenbizi Jose Bernardoren alaba
ikusi omen zuan, zelaian paotxa ebakitzen
ari zala. Galdetu zion:

–Aita non da?

–Or da nonbait ere etxe aldean.

Eta bertsoa bota omen zion Txirritak
Jose Bernardo edo *Baria*'ren alabari:

Gauz bat esango dizut
modu ondraduan,
noski ez naiz asiko
emen endreduan.
Nunbait egongo zera
aldarte beruan,
gaur orla zabiltzanean
udako beruan,
ezta atsegin izango
zure inguruan.

Eta Jose Bernardoren alabak erantzun
au eman zion:

Arrazoi orrek badu
bere parezera,
konprendituko dezu
mutilla bazera.
Udarako beruaz
kejatzen al zera?
Lana ortan badezu
egiten atzera,
praille sartu ziñazke
komentu batera.³

* * *

Beste bertso auek, *Txirrita'ren Testamentua* liburuxkatik artuak ditugu. Ez da-
kigu aotik aora kantatuak ala paperean
jarriak diran. Baiña Txirritak beste garai
artako bertsolariekin izan zituan artu-
-emanak azaltzen ari geran ezkeru, bertso
auek ere ementxe bear zuten.

Pedro Maria Otaño, 1898'garren urte-
ko ilbeltzaren 26'an abiatu zan Amerike-
tara azkeneko aldiz, Pasaia'n ontzia artu-
rik.

Jende asko bildu omen zan ari azken
agurra ematera. Txirrita ere bai, berak
bertso auetan aditzera ematen duanez:

Ilbeltz illaren ogei ta seian
San Polikarpo eguna,
makiña bat jende Antxo aldera
pausua eman deguna,
Amerikara dijualako
gure Pedro Mari ona,
zierto dakin fameliatik
aita faltatzen zaiguna,
zeñek etzuen istimatuko
alako bizi-laguna?

Utzi dituzu leku zabalak,
utzi dituzu mendiyak,
utzi dituzu España'ko
anai ta lagun aundiyak;
zuri begira tristetu zaizkit
alai neuzkiyen begiyak;
oik nola diran bire luzian
korritzen duten zubiyak,
oraindik anbat gerta liteke
juntatutzia gu biyak.

* * *

Pedro Maria Otaño Ameriketetan il zan,
1910'garren urteko maiatzaren 7'an. Or-
dukoak dira Txirritaren beste iru bertso
auek:

Emen zizurkildar bat
genduan gizona,
eskola aundikua ta
euskaldun zuzena;
Ameriketetan urte
askuan izana,
Pedro Mari Otaño
zedukan izena,
amaika bertso polit
jarrita il zana.

Zizurkil'go seme bat,
esan dedan trazan,
euskera predikatzen
emen ibilli zan;
beti konpontzen giñan
adiskide gisan,
ez genduen beñere
asarrerik izan,
irugarren bisitan
Amerikan ill zan.

Zizurkil'go seme bat
ain gizon umilla,

euskaldun jakintsuna,
eskolaz abilla;
zenbait saio egiñak
lege zarren billa,
nik aginduta ezta
Jaungoikuak illa,
zeruaren erdiyan
gertatu dedilla.

Pedro Maria Otaño Arjentina'ra joan
arren, artu-eman guztiak etziran eten edo
bukatu ura eta Txirritaren artean.

Ona zer dion Pablo Zubiarrain'ek, Er-
nani-txikia bertsolariak alegia, bere *Ia
kantatuz bezela* liburuaren itzaurrean:

«Pedro Maria Otaño'k Ameriketatik
bialdutako lendabiziko liburuak, *Alkar*
eta *Zerbait*, Txirritari ta gure aitonari bial-
du zizkien, bere firma ta guzi».

1. Ez nuan idatzi nori jaso nion.
Pablo Zubiarrain, Ernani-txikia bertsolaria, Er-
nani:

Ni Mariakin esposatzeko
al daukazkizu idiak?
Joaten banaiz nik bearko ditut
etxeo eskubidiak;
baita zabaldu ere egingo'itut
zimaurrek eta kariak,
muturra atzian euki biaitek
ni naizen tokian bariak.

Juan Bautista Gosalaga, Zaldubi bertsolaria, Za-
rautz:

Zere alaba sartu azteko
artu ba'ituzu idiak,
ortarako eman bear dituzu
etxeo eskubidiak;
terrenu oiri emango'izkagu
zimaurrek eta kariak,
adarrak atzean euki bearko'itek
bazar abetan bariak.

2. Antonio Salaberria, Pasai San Pedro.
3. Antonio Salaberria, Pasai San Pedro.

TXIRRITA ETA PELLO ERROTA

Jaungoikoak bakarrik daki zenbat al-diz jardun ziran alkarrekin kantu lanean Txirrita eta Pello Errota. Aiek alkarri kantatutako zenbait bertso dijoaz orain emen.

Txirritak onela omen zion egun batean Pello Errotarengatik:

–Pello bezelako bertsolaririk ez da izan, bein gabeko amabiak jo ezker¹.

* * *

Txirritak bertso au bota omen zion bein batean Pellori:

Zenbat platera beteta ekarri
ainbeste ustuta bialdu,
dudarik gabe gizon flakuak
jaten geiago bear du;
matrall-ezurrik gelditu gabe
pasatu dituk bi ordu,
amaika artoa egingo intzan
beti orrela jan bau.²

Karmel aldizkarian, 1962'ko *Egute-gia*'n, *Dundunzar* dalako baten *Txindurri... ta Txirrita* idazlanean, bertso onen gertakizuna ematen zaigu. Onela dio:

«Eibar'en, euskal-pestak izan ziran baten, Untzaga'ko enparantzan batu ziran garai artako zazpi bertsolari onenak. Txindurrik gogoan dituanak auetxek: Prantzesa, Gaztelu, Pello Errota, Txirrita, Joxe Bernardo...

Eguerdirako, an da emen, tabernatan

biñatu zituzten bertsolariak. Txirrita ta Pello Errota Ibargein'enian alkarrekin tokatu ta, aien pozean, bertara Txindurri-ta ere. Txirritak, esan degunez, 140 kilo ba omen zitun aldean. Pellok, berriz, 62 inguru. Ala ere, jate-orduan, Pello txikiak geio egin zion Txirrita aundiari. Txindurri zarrak ez du oraindik aztu gure Txirritak Pellori orduan bota ziona: *Zenbat platera...»*.³

* * *

Pello Errota eta Txirritak alkarri bertso asko bota bazizkioten ere, oso gutxi edo bat ere ez da izango onako auek baiño famatuagorik. Auskalo zenbat aldiz eta zenbat tokitan entzun eta irakurri izan ditugun.

Pellok:

Ari naizela, ari naizela,
or ikusten det Txirrita,
eta zein ez da arrituko gaur
gizon ori ikusita?
Dudarik gabe egiña dio
andregaiari bixita,
oso dotore etorri zaigu
bi alkandora jantzita.

Eta Txirritak:

Auxen da lotsa eman didana
gizon artera sartuta,
edozer gauza esaten degu
edan tantokin poztuta;

bi alkandora ekarri ditut
bat eraztia aztuta,
Pellok bi nola jantziko ditu
bat bererikan ezta-ta?⁴

* * *

Beste batean, euria gogotik ari zuan
bolara omen zan, eta argiñak lanik gabe
zeuden. Ori dala-ta, Pello Errotak Txirritari bertso au kantatu zion:

Alkar menderatzeko ustian,
jaunak, ez gera asiyak,
onetarako lagun briaigu
Jaungoikuaren graz ziyak;
nik bezelaxe esango dute
begira dauden guz ziyak:
mantendutzeko ainbat ez dira
aurtengo argiñen irabaziyak.

Eta Txirritak:

Modu obian itzegin zazu,
lotsik ez dezun trastia,
ola ibillita kunplitzen al da
fami liyako nastia?
Etxian nola ote dauzkazu
aurrak eta emaztia?
Zure errotako laka pizarrak
zurrutako aña ezta.⁵

* * *

Beste egun batean, Oiartzun'en omen
ziran biak, bearbada leen aitaturako eus-
kal festetan; eta arratsaldeko saioari asie-
ra emateko bertso auek kantatu omen zi-
tuzten Pello Errotak eta Txirritak.

Pello Errotak:

Orain joan zaizkidak
eguerdiko azak,
noski geiagok ere
bazeuzkiek trazak;

ikusi dizkiagu
Oiartzun'go plazak,
Txirrita, gusto badek
ik ere kanta zak.

Txirritak:

Janez eta edanez
ase naizenian,
larruak jarri zaizkit
iya etenian;
pultsuak ere ez dauzkat
nik ere lenian,
parte eman berriz ere
nai dezutenian.⁶

* * *

Txirritaren bertso au bera beste ger-
taera batez inguratua ere jaso izan det.

Beste askotan bezela, egun artan ere
Txirrita patrikako gaitzarekin zebillen;
xoxik gabe alegia.

Sagardotegira sartu eta an lagun ba-
tzuk topatu zituan. Lagunak esan zioten:

-Kaixo, Txirrita!

-Kaixo!

Asi ziran izketan; eta, andik pixka ba-
tera, lagunak onela diote:

-Tira, bada: orain merienda zagon,
merienda zagon...

Eta meriendaturakoan, danen artean
pagatu bear zanean, bertso au bota zuan
Txirritak:

Jan eta edan bapo
egin dedanian,
tripan larrua jarri
zait iya etenian;
ni gustora aritzen naiz
alako lanian,

berriz ere abixatu
nai dezutenian.⁷

* * *

Bein batez, Txirritak bertso au bota
omen zion Pello Errotari:

Nere iritzian berdiñak dira
arrobiya ta kantera,
gutxi kostata ez naiz etorri
orain nagan plantera;
erreparuan jarri ezker
burutik eta ankera,
Pello Errota, ematen dizut
gizatxarraren tankera.⁸

* * *

Beste bertso au ez nuan kontuan artu
nori bota zion Txirritak. Baiña Pello Erro-
tari, seguru asko:

Zer dirala uste dek
ardoaren saltsak?
Bart nola ibilli aizen
akordatzen al zak?
Komunera joanda
galdu zaizkik galtzak,
ezkontzeko egindako
oialezko beltzak.⁹

* * *

Bertso auek oso ezagunak dira Euska-
lerrian. Batzuek Andoain'en kantatuak
dirala diote; beste batzuek, berriz, Goi-
zueta'n.

Txirrita goien omen zegoan, balkoian;
eta Pello, berriz, bean, kalean. Eta onela
kantatu zioten alkarri.

Txirritak:

Bertso polit bat kantatuko det
balkoi ontatik kalera,

Pello Errota ikusi eta
nik artzen dedan kolera!
Astiasu'tik etorri eta
erronkan asi al zera?
Laixter uxatuko zaitut nik zu
jetxitzen banaiz or bera.

Pellok:

Arrazoi batez ez dek egundo
ezagutuzten pertsonik,
poliki xamar asi aiz baño
ez dek egingo gauz onik;
sekulan iñork etzidak esan
erronkosua naizenik,
balkoi ortatik ez dek jetxiko
ni uxatzeko gizonik.¹⁰

* * *

«Euskalerrian, batez ere baserrietan,
oitura bat zan eta da, txerria iltzen da-
nean, auzokoari eta aideari esku-erakutsi
edo erregalo odolki bat edo beste ta txer-
ri-puska batzuk ematea. Oieri deitzen
zaie txerrimuniak.

Pello ta Txirrita joan ziran bein batean
Goierriko erri txiki batera festetan kanta-
tzera; eta, festak bukatu ziranean, bieri
erri artako famili on batek eman zizkaten
txerrimuniak.

Badatoz biak trenean etxera, beren
pardeltxoan txerrimuniak dituztela; eta,
Billabona'ra iritxi diranean, jetxi da Pello
trenetik, baña bere pardeltxoa an utzi du
aztuta. Konturatu danean, asi da ejuka:

–Joxe Manuel! Joxe Manuel! Ekaitzik
nere txerrimuniak!

–Itxoin zak pixka bat –erantzun zion
Txirritak.

–Ekaitzik azkar!

–Itxoin zak!



Txirrita, Olegario eta Gaztelu, Arraten, 1915 urtean.

Ta ori esanda, bazijoan Txirrita Pelloren pardeltxoarekin treneko leiora, baña arek eskua luzatu zuenerako, abiatu zan trena, eta esan Pellori:

–Artzik axkar!

Baña ordurako gero ta martxa aundia-goia artzen zuen trenak, eta naiz Pellok alegiña korritu, ezin zuen artu Txirritaren eskutik txerrimuniaren pardela, eta orduan eju egin zion Pellok:

–Bota itzik, Joxe Manuel, bota itzik!

–Min artuko ditek, ordea! –erantzun zion Txirritak.

Ta txerrimuniak miñik ez artzeagatik, etxera eraman zituan Txirritak». ¹¹

* * *

Pello Errota Ameriketean, Arjentina'n, ibili zala gauza jakiña da. Andik etorri eta bertso au bota zion Txirritak:

Lasaitasun gogorra
sartu da Konporta'n, ¹²
ondo biziko dira
Astiasu ortan;
lenago mixeriya
izana frankotan,
asko ekarri bearko
zuen tabakotan,
len besteri kenduak
ordaindutzekotan. ¹³

* * *

Beste egun batean, Txirritak eta Pellok alkarri boteak.

Txirritak:

Iruditzen zai esposatzeko ¹⁴
daukatela sasoi,
nik ere mugitzia
ez al det arrazoi?

Ez det famelirako
askok aña pozoi,
alabak badauzkazu,
artu nazazu sui.

Pellok:

Zu sui eramatia
nere kalterako,
oi pentsatu bear zendun
nei esaterako;
atarramentu onik
eztiu aterako,
bi alper txarrak dituk
etxe baterako. ¹⁵

* * *

Bein batez, Txirrita Asteasu'ko taberna batean zan.

Alako batean, or sartu da Pello Errota, akullua eskuan duala. Txirritak «Pello! Pello!» otsegiten zion. Baiña Pellok, beste lagun batzuekin izketan ari zalako-edo, etzion kasorik egiten.

Orduan Txirritak bertso au kantatu zion:

Itzaiaren trastiak
akullu ta ezten,
Pello, itz bi egiten
ez dirazu uzten;
nerekin errezago
izango da asten,
apustu egingo dizut
ez nazula austen. ¹⁶

* * *

Txirritak, Pello Errotaren emaztea ilzanean, kantatu zion bertsoa:

Pello, zertako zaude
triste eta umil?

Zure andria bizi zan
ez baldin balitz il.
Emendik joana bada
zenbait pertsona abil,
gure amonakin zeruan
pasiatzen dabil.¹⁷

1. Antonio Arrue, Asteasu'n jaio eta Donostia'n bizi izana.

2. Jose Antonio Loinaz-Otaño apaiz jauna, andoaindarra, Asteasu'n jaso.

Beste batzuen antok ere jaso izan det bertso au, baiña aldaketa aundirik gabe.

3. Bertsoa aldaketa auekin: 2: ainbeste utsak bialdu; 4: askoz geiago biar du; 5: matral-ezurrik geratu gabe; 6: pasa dituzu bi ordu; 7: amaika arropa izango ziran; 8: beti orrela jan bazendu.

4. Tolosa'ko Manuel Urreta'k eta Ibarra'ko Bizente Agirre'k bertso biak berdin-berdin eman zizkidaten. Olakorik oso gutxitan gertatzen da. Ziur asko, bertso oiek nunbait ere argitaratuko ziran, eta nere bi adiskide oiek andik kopiatu.

Aldaketa bat sartu degu. Adiskide oien papere-tan *bat besterikan* esaten da bigarren bertsoaren azken lerroan. Txirritak nola esango zuan, orain inork ez daki. Baiña *bererikan* esanda ziria zorrotzagoa dala dudarik ez da, eta orrela idatzi degu, era ortan ere jaso izan degu ta.

Juan Bautista Gesalaga, Zaldubi bertsolaria, Zarautz: 1/3: nola ez gera gu arrituko; 1/4: gaur ori emen ikusita; 1/5: dudarik gabe egingo zion; 1/7: dotore xamar etorri zaigu.

Bigarrena:

Auxen da lotsa artu dedana
lagun artean sartuta,
bi alkandora dauzkatelako
bat eraztea aztuta.
Zerñi zer dio? Nereak dira;
ez beintzat inoi ostuta,
Pellok bi nola edukiko'itu,
bat besterikan ez-ta?

Tolosa'ko Estanislao Urruzola, *Uxola*'k, leenengo bertsoa onela:

Aspaldi ontan ez nuen egin
Donostia'ra bixita,
kantu-lanian asi biar det
txorakeriyak utzita;
petxu guzia auspezturikan
begira dago Txirrita,
lagun artian ez da lotsatzen
bi alkandora jantzita.

Eta bigarrena: 1: Auxen da lotsa artu dedana; 2: ate onetan sartuta; 3: edozer gauza esaten dute; 4:

edan-tanto onek poztuta; 5/ bi alkandora soñian dauzkat.

Egutegi-orri batean, ilbeltzaren 29'an –urterik ez da ageri–, bertso auk onelaxe arkitu ditut:

Pello Errotak:

Bertsoetan ari da
onera etorrita,
bi alkandora dauzka
soñean jantzita,
azpiko ojalekin
gañekoa lotuta,
ajollik ez alare
lotsik ez-ta.

Juan Joxe Ugarte'k:

Lotsa ematen ari da
ezin suprituta,
bi alkandora omen dauzkat
alkarrekin nastuta;
berak bakarra dauka
beti zikinduta,
Pellok bi ezin jantzi
bat besteik ez-ta.

Erriak bertso auk Pello Errota eta Txirritarenak dirala esaten du ao batez; Juan Joxe Ugarte'ren bertso-rik ez dago emen. Eta zortziko aundiak dira; ez zortziko txikiak edo puntu motzekoak. Gaiñera, leenengo *ita* eta gero *uta* bertso bercean, oiek ez dira Pellok bein ere erabiliko zituan puntuak. Dudarik gabe, norbaitek bertso auk erdizka jakin eta aal zuan bezela moldatu egin ditu egutegian jartzeko.

5. Bartolome Ugalde, Lizardi, Urnieta.

Andoain'go Patxi Sueskun bertsolariak bigarrena aurren eta aurren bigarren kantatu zizkidan:

Biar bezela itzezin zazu.
lotsik gabeko trastia,
bai al dakizu nola dauzkazun
aurrak eta emazia?
Ola ibillita ez da konpontzen
famiyako nastia,
zure errotako laka pizarrak
mantentzeko ainbat ez-ta.

Gaurkoan alkar izurratzeko
nola ez geran gu asiyaq,
orretarako laguntzen badit
gure Jaunaren graziyaq;
nik bezelaxe esango dute
aditzen dauden guziyaq,
zurruterako ainbat ez dira
argiñen irabaziyaq.

Azkoiti'ko Demetrio Alberdi'k leenengoa baka-rrik eman zidan:

Gaurko onetan csan baiitut
diran ez-tiran guziyaq,
kantu-lanian laguntzen badit
neri Jainkuan graziyaq;
nere moduan esango dute
aditzen dauden guziyaq,

mantentzeko aña ez dirala gaur
argiñen irabaziyak.

Azpeiti'ko Jose Agirre bertsolariak bigarrena ba-
karrik kantatu zidan:

Goierritikan etorri zaigu
ari gaiztoko trastia,
ni bezela're aundiya cin dezu
argin guztiyak sartzia.
Ez al dakizu nola dauzkazun
aurrak eta emaztia?
Zure errotako laka pizarrak
ardotako aña eztia.

Ereñozu'ko Jose Oiarbide'k onela eman zizkidan
bertso eta gertaera auk:

Bein batez, Pello Errota, Asteasu'rako bidcan,
Fagollaga'tikan barrera zijoan. Txirrita, berriz, an
zagoen apupillo, eguraldi txarrarekin lanik gabe ge-
ratua.

Pelloc au kantatu zion:

Elkar menderatzeko ustian
ez giñaden gaur asiya,
etzait gustatzen egiterikan
iñori menospreziyak;
nik bezelaxe esango dute
begira dauden guziyak:
mantentzeko ainbat ez dira aurtengo
argiñen irabaziyak.

Eta Txirritak onela erantzun zion:

Goierritikan azaldu ziñan
mingain gaiztoko trastia,
geiago cin dezu ni bezelaxe
argin guziak sartzia;
bai al dakizu nola dauzkazun
aurrak eta emaztia?
Zure errotako laka pizarrak
ardotako ainbat eztia.

6. Bietako bat: Manuel Zapirain, Bordaxar,
Errenteri, edo Monika Galarraga, Juan Zabaleta
bertsolariaren alarguna, Errenteri.

7. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba.

8. Ez nuan idatzi nori jaso nion.

9. Micaela Elizegi, Asteasu, Pello Errotaren
alaba.

Tolosa'ko Balceriano Mokoroa'ren gogoanean,
beraren seme Aita Justo Marik bialdu zidanez:

Jakin gabiak dituk
ardoaren saltsak,
bart komunian, Pello,
zerbait galdu zak.
Neskamiak billatu
dizkik ire galtzak,
ezkondu intzaneko
oialezko beltzak.

10. Bertso auen iturri eta aldaketak: *Auspoa*
49-50, 82 orrialdean.

11. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gaztelue-
ne, Altza, Txirritaren illoba. Idatzita bialdua.

12. Konporta, Pelloren errota ondoko etxea.
Gaur biak ere boteak.

13. Migel Zuaznabar, Sasueta, Lasarte.

14. Txirritak etzan neurrian orrenbesteraño lu-
zatuko. Baiña ala eman ziguten eta ala jarri.

15. Migel Zuaznabar, Sasueta, Lasarte.

Juan Bautista Gesalaga, Zaldubi bertsolaria, Za-
rautz:

Txirritak beste bati esan omen zion:

- Suitzat eraman nazak ire etxera.

Eta beste orrek onela erantzun:

Nik au suitzat artzea
nere kalterako,
pentsatu bear zendun
ori esaterako.
Atarramentu onik
ez degu aterako,
bi alper txarrak dira
etxe baterako.

16. Jose Oiarbide, Latze, Ernani.

17. Jose Oiarbide, Latze, Ernani.

TXIRRITA ETA GAZTELU

Azpeiti'ko Loiola'n bertsolariak izaten omen ziran urtero garai batean San Isidro-tan. Jesuiten etxeko leio bana artu eta andik aritzen ziran bertsotan.

Urte batean, onela kantatu zuten Txirritak eta Gazteluk.

Gazteluk:

Kabida ona dago
gure almazenetan,
Jaungoikoak graziya
eman digu ortan;
gizon azkarrak dira
estudiyoetan,
gure kolejiyuak
sagardo-tokietan.

Txirritak:

Laguntza izan banu
abogautzarako,
izketan ez ninduen
iñork arrapako;
zenbat gizon-gai atzera
pobria dalako,
ondo bizi nai ta ezin
bada lana pranko.

Gazteluk:

Gogorik bai al dezu
zuk Loiola'rako?
Etxera juañ baño len
ez al deu probako?

Premiya badegu ta
konfesatutzeko,
biok gerako al gera
bost bat eguneko?

Ejertzizioak egitera, alegia. Eta Txirritak:

Etxera juañ biet
kasikan penetan,
gauza ori egin biar
genduke benetan;
edadia baukagu
formaldutzekotan,
ni geldiko nitzake
morroi artzekotan.

Gazteluk:

Mirabe nai zenduke
etorri bakarrik,
zertan nekatzen zera
izketan alperrik?
Etzaiozu eragin
jendiari parrik,
emen ez dute artzen iru
ankako morroirik.

Zaartutakoan, makulu batekin ibiltzen baitzan Txirrita. Eta onek:

Iru anka makalak,
gorputza sendua,

etxe ontan komeni da
burua sanua;
zuk esan dezun ori
ez da segurua,
artuko nauten edo ez
jakitera nua.

Txirrita au daukagu
dotore jarriya;
orain ein du modako
traje bat berriya,
len zuen onagatik
bazeukan premiya.

Au esan eta barrura sartu zan trago
bat edatera, jende guztia parre algaraz ari
zan bitartean.¹

Guk uste, Gaztelu etzan geldituko
Txirritaren atzetik joan gabe.

* * *

Txirritaren trajea zala-ta, bertso auk
kantatu omen zituzten bein batean berak
eta Gazteluk:

Gazteluk:

Txirritak entzungo'itu
gaur egundokoak,
berak e emango dizkit
arrazoi bapoak;
erropa zarrak dauzka
zikindutakoak,
atarramentu onik ez
pertsone pardoak.

Txirritak:

Etxean bazedukat
traje bat berria,
kolgaduratik bera
zintzilik jarria;
txaleku lasaia ta
gerriko gorria,
ire ederren billa
ez nauk etorria.

Gazteluk:

Adieraziko det
onen jatorriya,

Txirritak:

Etxean bazedukat
erropa bikaiñak,
auk e kosta gabe
ez ditut egiñak;
bazekiat zer diran
ire jardun-miñak:
lanak ematen dizkik
sufritu eziñak.

Gazteluk:

Bere buruarentzat
olako grandeza,
beartsua danikan
aditu nai eza;
etxean eztauka noski
traje aldrebesa,
baña ezta egongo
billatzen erreza.²

* * *

1930'garren urtean, bertsotan ari ziran
Txirrita eta Gaztelu Usurbil'en. Biak mul-
tilzarrak izanik, askotan bezela, ortaz
kantatu zuten: Txirrita Gazteluren arre-
barekin ezkonduko zala, aren etxera bizi
izatera joango zirala eta abar.

Txirritak onela kantatu zuan bertso
bat:

Arronkoso antzian
bizitzen zerade,
baño mudantzak ere
denboraz dirade;

neroni nausi eta
Jose nere alde,
laister in biarko dek
Gaztelu'tik alde.³

Emen aitutzen dan Jose, Gazteluren
anaia zan, etxeko maiorazkoa.

* * *

Azkoiti'ko 1910 urteko euskal feste-
tan. *Alameda*'ko balkoitik bertso auek
kantatu omen zituzten.

Gazteluk:

Tratu askotan saldu oi dira
zatarraguak obetzat,
gusto duena eskojitzia
libre biar du bakoitzak;
ikusi dedan ezkerozkua
desio antza egin zat:
aurreko txanbra gorri dun ori
ona liteke neretzat.

Txirritak:

Artuta baño lagata obe
Gaztelu bezelakua,
orrekin deskuidatzen bazera
erruki zaitut, gajua;
aruntz ta onuntz bueltaka or dabil
bete eziñik zakua,
damatxo orrekin esposatzeko
ori a zer nolakua!

Gazteluk:

Inbiriyetan bizitze ori
preziso gauza tristia,
Txirritak galdu naiko lioke
Gazteluri ezkontzia.
Pentsatze'al dezu bi gezurrekin
ori engañatutzia?
Nai al zenduke neri lagata
zeurekin esposatzia?

Bulla aundia omen zegoan eta urrena
kantatutako bertsoak etziran ondo en-
tzun.

Izan ere, garai artan etzegoan boza al-
txatzeko tresnarik, eta bertsolariak eztarri
utsez artu bear zioten gaina jendearen ar-
gurio eta marmarrari.

Ondoren, Txirritak:

Buruko ille rubiya eta
begirazuna listia,
musu polita, arpegi fiña,
gorputza ederra bestia;
txanbra ta mantal gorriarekin
kortsia zerbait kostia,
apreta txurik, galtzeta beltzak,
au dek ordia neskia!⁴

1. Antonio Zubizarreta, Azkoitia. Bertso auek
berak ere entzun omen zituan, an zegoan eta.

Bertso-papcr batean ere arkitu ditut. Goiko al-
dean, Otaño'ren *Lagundurikan denoi* bertsoak dau-
de; beekoan auek.

Papcrak ez du moldiztegi-izenik. Nik ere ez nuan
idatzi noren eskutik jaso nuan.

Paper ontan bertsoak beste orden ontan daude:
3, 4, 5, 6, 1 eta 2'garrena.

Aldaketak: 1/1: Kabira aundiya dago; 1/3: Jaun-
goikuak grazi au; 1/4: eman zigun ontan; 1/7: gure
kolejjiyua; 2/1: Karrera izan banu; 3/4: ez al degu
proauko?; 3/5: premiya badaukagu ta; 3/7: geldituko
al gera; 4/1: Etxera juan biar; 4/4: genduke sarritan;
4/5: gizon abillak dira; 4/6: estudiantan; 4/7: ni geldi-
tuko nitzake; 5/1: Txirrita, etzazu jardun; 5/2: iz-
ketan alperrik; 5/3: jentiarri etzaiozu; 5/4: eragin pa-
rrarik; 5/5: mirabe nai zenduke; 5/6: etorri bakarrik;
6/1: Iru anka motelak; 6/3: emen komeni dana.

2. Basarri: *La Voz de España*, 1947-III-6.

Lino Kalonje bertsolariak (Bentaberri, Donos-
tia) beste era ontan kantatu zizkigun bertso auek:
1/7: beñere gauz onik ez; 1/8: pertsona flojuak; 2/5:
txalcku moria ta. Irugarrena etzidan esan, eta orren
tokian bostgarrena sartu zuan. 4/3: ura ere etziok;
4/4: kosta gabe egiña; 4/5: ezagutuzten diat; 4/6: ire
jardun-miña; 4/7: eskasa aizelako; 4/8: sufritu eziña;
5/1: Gizonak izatia; 5/5: etxian ez omen du.

Zarautz'ko Juan Bautista Gesalaga, Zaldubi
bertsolariak, lecnengoa eta bigarrena bakarrik kan-

tatu zizkidan, aldaketa auekin: 1/1: Txirritai esan biazkot; 1/2: izugarritzakoak; 1/5: erropa zarrak dauzkazu; 1/6: ajatutakoak; 2/5: galtzak zabalak eta.

Tomas Iturzacta, Gorostieta, Azpeitia, Iturzacta bertsolariaren semea: 1/3: beronek botako'itu; 2/3: galtza lasaiak eta; 2/4: txaleku aundiya; 2/5: aiek estututzeko; 2/7: zure ederren billa; 2/8: ez nauk etorriya. Irugarrena etzidan kantatu, eta orren lekuan bostgarrena sartu zuan onek ere. 4/1: Etxean

badaduzkat; 4/4: ez dira egñiak; 4/5: badakit zergatik diran; 4/6: zure jardun-miñak; 5/1: Ikusiko litzake; 5/3: bere buruarentzat; 5/4: ez dauka bajeza; 5/5: etxian ez omen dauka; 5/7: baña billatzen ez da; 5/8: egongo erreza.

3. Juan Jose Lizarrreta, Aginaga, Usurbil.

4. Antonio Zubizarreta, Azkoitia.

Azken puntu ontaz auxe galdetu genezake: Txirritak *neskia* esango ote zuan?

PELLO ERROTA, GAZTELU ETA TXIRRITA

Txirrita eta Pello Errota Gipuzkoa'ko erri batera bertsotara joatekoak ziran. Pello, garaiz joanda, an zegoan balkoian zai. Jendea ere bilduta. Baiña Txirrita etzan ageri.

Jende artean Gaztelu bertsolaria zegoan. Jendea zai egonez aspertua noski, eta orduan esan zuten, Gaztelu betik eta Pello Errota goitik, zerbait kantatzen asteko.

Onela asi zitzaion Gaztelu Pello Errotari, beetik gora:

Galdera egingo diot
Pello Errotari,
aber egiya ote dan
jakin detan ori:
zure auzoko batek
esan dit bart neri,
nola zor omen dituzun
iru gurdi gari.

Pellok onela erantzun zion goitik:

Batian badalako
ori da bestia,

neronek emango diot
errespuestia;
zarra desonratutzen
asi da gaztia,
orrek merezi luke
bizkarra austia.

Gazteluk betik:

Sekulan eztiot egin
gizon orri gaitzik,
aditu egin detana
esatia baizik;
berak aitortu ezpalu
ez nekien kasik,
geroztik nola dabillen
pagatu nai ezik.

Pellok:

Ik ere artuko al diguk
kontrako bidia?
Bañan auzuan daukak
abillidadia;
iri ere sartu zaik
enfermedadia,

semea're bazeukeat
i baño obia.

Gazteluk:

Ez aita, ez seme,
ain gutxi lagunik,
nere arrastotara
iritxitzen danik;
Asteasu'n etzeok
galtzak jazte'itunik,
opizio onetan
autsiko naunik.

Ontan zeudela azaldu zan Txirrita, eta
Pellok berari eraso zion:

Sekulan iñork eztu ikusi
Txirrita esposatuta,
onen eztaiak artzeko ere
ezin leike egon poztuta;
urteak aurrera dijoazkio
ta ia mutilzartuta,
eztaiak nola emango ditu
andregairikan ezta-ta?

Txirritaren erantzuna:

Esango'izutet nola izan dan
nere mutilzartutzia,
beartu nau ta orain banua
au ere kantatutzia:
Pellok galazi zion alabai
nerekiñ ezkondutzia,
beste kulpik be merezi luke
presiliyuan sartzia.

Pellok:

Gezur aundia esan dezu baño
egiaren koloria,
gauza ori ola esateko
zuk daukazun baloria!
Beiñere etzenduen pretenditu
zuk alaba neuria,
presiliyuan ezin sartu da
gizon kulparik gabia.¹

1. Bertso eta gertaera auek, Zumarraga'ko
Izuzkitza abizeneko bati jasoak.

TXIRRITA ETA TXINTXUA

Txintxua bertsolaria Erreñtereri'koa
zan, Txirrita baserriaren auzoan kaxko-
kaxkoan dagoan Tobar baserrikoa.

Izengoitia aitonagandik omen zuan.
Lanean ari zirala, lagunak amarretakoa-
edo artzera zijoazenean, bere aitona orrek

lanean segi, eta orrela. Orregatik, *Txin-
txua* jarri zioten.

Jai egun batean bertso auek bota ziz-
kieten alkarri Txintxuak eta Txirritak,
Txintxuak asiera emanda:

Amar t'erdiyak dira,
bastante berandu,
meza nausiya ere
onezkero eman du;
ezta nik somatua,
jendiak esan du,
Txirrita ez omen da
mezetan izandu,
euskalduna dala're
sinistiak lan du.

Eta Txirritak:

Ire ofiziyuan
beti sesiyuan,
edo lagunarentzat
or traiziyuan;
obrak azaltzen dira
konparaziyuan:
len kapitan intzana
kongregaziyuan,
orain zertan sartu aiz
gure soziyuan¹

* * *

Txintxua aitarekin asarretua ibilia zan,
eta egun batean onela kantatu zion Txirritak:

Pentsatzen ez nikan
izango zenikan
Europa'n da Amerika'n,
Asia'n da Afrika'n,
ote da semerikan,
bere aita jotzera
joanda denikan,

munduan ez dek
i besterikan.²

Ez da erreza esaten, au bertso osoa ote dan eta zer bertso mota dan.

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba. Osabari entzunda ikasiak bertso auk.

Patxi Labandibar, Larria, Oiartzun: 1/4: iya-iy eman du; 1/5: ez det ikusi baña; 1/7: Txirrita gaur ez dala; 2/1: Mutil, ixilik ago; 2/2: bago juiziyuan; 2/3: ire bizimodua; 2/4: beti traiziyuan; 2/5: pranko arreratzuten; 2/6: ai aiz biziyuan; 2/9: orain zertarako abil.

Estanislao Urruzola, *Uxola*, Tolosa: 1/1: Amaika t'erdikuak; 1/3: meza nausiya iya; 1/5: lerro au falta da; 1/7: Txirrita nola ez dan; 1/9: au euskalduna dala; 2/1: Motel, ago ixilik; 2/2: bago juiziyuan; 2/3: ire ibilliak dituk; 2/4: beti sesiyuan; 2/5-6: bi lerro auk falta dira; 2/9: orain ementxe abil.

Tomas Iturzaeta, Gorostieta, Azpeitia: 1/4: iya iya eman du; 1/5-6: bi lerro auk falta dira; 1/7: Txirrita ez dala gaur; 1/9: euskaldunen artian; 2/1: Zenen errez sartzen dan; 2/2: zenbait sesiyuan; 2/3: eu ere ez abil zuzen; 2/4: eure leziyuan; 2/5-6: bi lerro auk falta dira; 2/7: leno kapitan intzan; 2/9: orain zertako abil.

Jose Agirre bertsolaria, Oanda, Azpeitia, edo Errezil'ko Loidisaletxe baserrian: 1/2: naikua berandu; 1/5: eliz-atarian gaur; 1/7: Txirrita nola ez dan; 1/9: euskalduna dala au.

Bigarrena:

Ez nitek bizi nai
ire opiziyuan,
gizartera etorrita
beti sesiyuan;
merituak jasua aiz
eliz-funtziyuan,
lenago buru intzan
kongregaziyuan,
ta orain zertan sartu aiz
gure soziyuan?

2. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba, eta Juan Mari Lujanbio, Saiburu, Erreterri, Txirritaren illoba txikia.

TXIRRITA ETA ARTZAI TXIKIA

Ona emen Txirrita eta Artzai Txikiak
bein alkarri bota zizkioten bertsoak.

Txirritak:

Artzai Txikiyak eman biaizkit
lau bat arrazoi fuertiak,
ire ardiyak nere soruan
egin dituzten kaltiak!
Punta berriyak moztu zizkatek,
eman zizkatek kortiak,
ire aziendak erretira itzik,
nik itxiko'izkit atiak.

Eta Artzai Txikiak:

Joxe Manuel, emango'izkiat
lau bat arrazoi klaruak,
ziertorikan ez dakit bañan
ala ematen dit goguak;
gauza au emen sinistezkeroz
bearko ditek txoruak,
Artzai Txikiyak ardik bezela
Txirritak dizkik soruak.¹

* * *

Artzai Txikia eta Txirrita beti alkarre-
kin ibiltzen ziran kantuan. Bati eztaietara-
edo kantatzera joateko esaten bazioten,
arek besteari otsegin eta alkarrekin joan-
go ziran. Oitura ala zuten.

Bein, ordea, Artzai Txikiari pregoi-
-apari batera deitu zioten; baiña Txirritari
ezer esan gabe, beste batekin joan zan.

Urrena, Txirrita deitu zuten eztaietara

joateko; eta Artzai-Txikiari ezer esan ga-
be, beste batekin joan zan.

Biamonean, biak Santiago-mendi'ko
Bostieta baserrira deituak izan ziran, eta
bertso auek bota zizkioten alkarri.

Artzai-Txikiak:

Tripa-zakua bete biar du
gaztiak bere bolaran,
besteren bizkar ibillitzia
ai zeñen gauza ona dan!
Neri kasorik egin gabetan
eztakit nolaz joana dan,
jornal ederrak etxeratu'izkik
bart arratseko jorneran?

Ain zuzen, musean jardun eta duro
bat galdua omen zan Txirrita. Orregatik,
«jornal ederrak» esaten dio.

Eta Txirritak:

Olo erria sopra mayian,
ai ura ardozko asia!
Orrelakoa izaten oi da
nobiyuaren klasia.
Ez nuen uste Artzai Txikiyak
ortan punturik artzia,
aizak, aurriak erakusten dik
nola dantzatu atzia.²

* * *

Bertso eta gertaera auek oso beste al-
dera jarriko dira orain. Errenteri'ko Bor-
daxar'ko Joxe Zapirain bertsolariaren se-

me Xalbadorrek, *Ataño* idazleak alegia, idatzi eta bialduak ditugu.

«Iñoiz alkarrekin lanean aritzen ziranak izan bear zuten Txirrita eta Artzai Txikia, argintza-lanean, Txirrita ala bai-zan.

Argiñak ezik, bertsolaririk oneneta-koak ziran, eta iñongo festa, ezta eta bankete, dei asko artzen zituztenak; eta geienetan, beñepein, biak alkarrekin joaten ziran.

Baña komeni zitzaiotenean, bazekiten alkarri tranpi koskorra egiten.

Artzai Txikia bakarrik egokitu zitzaion batean, mutil gazte batek ala esan omen zion:

–Laxter ezkontzeko asmoak ditut, eta olako lekutan, biar illunabarrean, lagunene artean apari-lege bat egin nai genduke, nere mutilletako despeira bezela. Konbidatuta zaude. Etorriko al ziñake?

Etzuan bi bider esan bearrik. Baña au Txirritatzaz oroitu zan eta ala erantzun zion:

–Beti Txirrita ta biok ibiltzen gaituk. Etorri al litekek?

–Utzi akiozu Txirritari; gu pobre xamarrak gera, eta nondik sortu arentzako diña?

Txirritaren ixillean, onek jakingo etzualakoan, joan zan Artzai Txikia bakarrik. Ez alperrik; andik edo emendik, astelen-arratserako jakiñaren gañean zegoen Txirrita.

Ez-jakiña egin zuan; etzuan aitatu ere. Baña berekiko ala zion: «Txerrimuniak ordañetan!». Egokiera on baten zai geratu zan, berak beste ainbeste egiteko asmoan.

Ez dakit noiz, baña egokiera ori etorri

zitzaion Txirritari. Ez edozer moduzkoa gañera. Indiano aberats batek:

–Aizak, Txirrita: diru-puska baten jabe egin gaituk; eta olako lekutan, biar arratsean, apari eder bat zeukagu. Nere lagun-arterik geiena ere an izango dek. I etorriko baintza, jai eder bat egingo genikek.

Eskuak igurtziz eta alde zurretik apari eder ura ausnartuz, baietz, baietz, joango zala.

Eundoko jaia egin zuten. Erregali batzua ere eman zizkioten Txirritari.

Astelenean, ezer pasa ez balitz bezela, lanean jardun zuten biak eta asper-asper egiñak erretiratu ziran txabolara, bakoitzak al zuanetik apaltzera.

Artzai Txikiak sardin zar bat jarri zuan brasa gañean erretzen. Txirrita, berriz, zipotz bat artuta, labanarekin ari mutur zorrotz bat ateratzen ari zan. Artzai Txikia, bere sardin zarra erreaz, bere lekutik Txirritari begira zegon, arriturik.

–Zer? Bareak iltzera al oa ziri orrekin?

Txirritak, irri maltzur bat egiñaz, erantzun zion:

–Laxter ikasiko dek zipotz onen malezia!

Kolkotik edo ez dakit nondik, bi arra luzeko lukainka-muturra atera ta zipotz zorrotz ari sartuz, su gañean jarri zuan, *zar-zar-zar* erretzen, koipea zeriola.

Artzai Txikia, irrikitzen, ari begira zegon. Berekiko:

–Nere ixillean non ibilli ote dek au?

Ura arentzako burla geiegia zan. Ezin, bada, ixilik eramane. Lagunak ziran eta zer esan bear zion?

Bertsolaria izaki eta onoko bertso onekin kontatu zizkion bere kezak:

Andik emendik deia ugari
badu oraingo bolaran,
neri kasorik egin gabe au
ez dakit nora joana dan.
Besteren bizkar bizitze ori
ai zeñen gauza ona dan!
Errenta ederrik aterea da
bart arratseko jornadan.

Txirrita, Artzai Txikia kantari ari zan
arte, lukainka-muturrari eragiñaz, sutara
begira omen zegon; erne asko, ordea, esa-
ten zuana entzunaz.

Bukatu zuan orduko, zigor batekin jo-
ta zaldiak saltatzen duan bezela, bat-ba-
tean zutitu omen zan, bertso onekin eran-
tzunaz:

Ollasko erria nai ezik eta
ura ardozko asia!
Beste gauzetik ere bagendun
nobiyuaren klasia.
Ez nuan uste Artzai txar orrek
ortan kargurik artzia,
aizak, aurreak erakusten dik
nola dantzatu atzia».

* * *

Onako gertaera eta bertso aukerak ere
Salbador Zafirain orrek berak idatzi eta
bialiak dira. Bertsoa, Txirritak Prantzes
Txikiari kantatua ote zan esaten zan *Aus-
poa*'ren 18-19'an, 141 orrialdean. Ez daki-
gu zer izango dan; baiña Salbador onek
beste txetasunik ere ematen du eta ko-
meni da, guk uste, emen ere argitaratzea.
Onela dio:

«Txirrita gaztetxo zala, bertsoetan
asi ta negarrez utzi omen zuan Artzai
Txikiak Txirrita. Baño etzitzaion aztu:
urte batzutara, Txemine'n arrapatuta,

bereak eta bost esanta, zapaldua utzi
zuan Artzai Txikia. Onek ala esan omen
zion:

–Geiago aizela ta ergelkerin!

–I aritu intzan, bada, neri Errenderi'n!

–Esan bear dekana esan akidak izke-
tan!

–Ez, bertso au kantatu gabe:

Saltsa guzitan sartu bear dezun
enbustero ta litxarra,
inpernuetan erre bearra
ori daukazu lan txarra;
lendabiziko illea eta
ondoren berriz bixarra,
burruntzi-puntan bueltak emanaz
geratzen zaizun pixarra.

* * *

Beste argibide au, Jose Ramon Eraus-
kin Lujanbio, Txirritaren illobari zor dio-
gu:

«Jokorako apizio aundia omen zuen
(Artzai Txikiak), baña geienez galduta
egiten omen zuen; eta, zituen diruak gal-
tzen zituenez, «Asko diat!» esan eta gel-
ditzen omen zan.

Bere andrea agin ateratzen aritzen za-
na omen zan; eta, jokoan galduta eta xoxik
gabe gelditzen zanean, askotan esaten
omen zuen:

–Gure Jainkoak emango al zioke bat
edo bati agiñeko miña!

Nonbait, andreak dirua irabazi zai
egoten zan, jokora joateko.

Bestek puntua asi ta osatzen ere oso
azkarra omen zan. Orregatik, bein ba-
tean, jokoan danak galduta zegoen ba-
tean, Txirritak onako puntu au esan zion:

Zakurraren putza edo
ogei milla ezkutu,
zuk zer nai zenituzke
eskuan estutu?

* * *

Eta, asnasia artzeko beta gabe, onela
erantzun zion Artzaiak:

Ekarri itzazu neri
ogei milla ezkutu,
eta zakurraren putza
naizun aña estutu».

* * *

«Batean, Astigarraga'ko guarda zanak
kontatu zidanez, Donostia'n-edo, kuadri-
lla bat ari omen zan:

–Txirrita ohea dek.

–Ez. Artzai Txikia ohea dek.

Ta Astigarraga'ko sagardotegi batean
–Tabla baserrian ain zuzen– egin omen
zuten: bost juez alde batetik eta beste bost
bestetik. Upel banaren gainean jarri si-
llak, eta bertsolariak an exeri. Iruna saio
egin omen zituzten; saio luzeak. Ez bertso
bat edo bi. Ta danak konbentzituta geratu
omen ziran: Artzaia zuzenagoa ta ohea
zala».³

* * *

«Andik denbora-puska batera, Artzai-
-Txikiyak, Asteasura joan da Pello Errota
ta Txirritarekin topo egin omen zuan, ta
bertso au bota omen zien:

Ni oiekin kantuan
jardun izandu naiz,
gaur ez naute tentatzen
lenago bezin maiz;
oiek uzkalte'ituen
mutikua ni naiz,
berriz e pixkat fiya
gogoz asten banaiz».⁴

Artzai Txikia bertsolaria bean pion-
tzan eta Txirrita goien argintzan ari omen
ziran. Eta Txirritak:

Diran bezela esan
biar ditut gauzak,
nola izaten diran
artzaiaren kausak:
eztu ikaratuko
muturreko lotsak,
zer moduz gobernatu
eztaki bildotsak,
aurki negu aldera
ilko dizka otzak.

Eta Artzai-Txikiak erantzuna:

Txirrita, itzezin zak
polleki-polleki,
beirok gero bestela,
demontra polaki!
Bildotsak gobernatzen
artzaiak badaki;
udan esnia eman,
neguan barruti,
nere aziendaren
kezkik ez eduki».⁵

1. Anizeto Kalonje, Oriamendi, Aiete, Donos-
tia.

Jose Maria Salaberria, Aiete, Donostia: 1/4: ei-
ten dituzten kaltiak; 1/5: iru lau aldiz eman zizkatek;
1/6: punta berriyai kortiak; 1/7: ik azind'oiek erretira
itzik; 2/1: Joxe Manuel, emango'izkizut; 2/5: gauza
au emen sinistekotan; 2/6: bearko dute txoruak; 2/8:
diru Txirritak soruak.

Ortiz gainera, lerroak beste era ontara jarriak:
1, 2, 5, 6, 3, 4, 7 eta 8.

2. Ermaña, Santiago-mendi, Astigarraga.

Pablo Zubiarrain, Ernani-txikia bertsolaria, Er-
nani:

Gaztiak beti dibertsiyuan
bakoitza bere bolaran,
neri kasorik ein gabetanik

ez dakit nola joana dan;
besteren bizkar mantendutzia
ori zer gauza ona dan,
errenta ederrak etxeratu'ituk
bart arratseko jornadan?

Ori zer gauza ona litzaken
alkar estimatutzia,
Artzai Txikiyak ez niken uste
ortaz punturik artzia;
ollo erria nai ezik eta
ura ardozko asia,
gauza guzitik izan genduan
nobiyuaren klasia,

aizak, aurriak erakusten dik
nola dantzatu atzia.

Ez nuan kontuan artu beste era au nori jaso nion:
1/2: bakoitzak bere bolaran; 1/7: errenta aundia egin
al zizun; 2/1: ollo erria naikua eta; 2/3: gañera berriz
naikua bazan; 2/4: nobiyazko klasia; 2/7: aurriak
emen erakusten du.

3. Pablo Zubiarrain, Ernani-txikia bertsolaria:
Ia kantatuz bezela, Auspoa 190, 13-14 orrialdeetan.

4. Antonio Zavala: *Alza'ko bertsolari zaurrak,*
Auspoa 76, 136 orrialdean, Pablo Zubiarrain, Erna-
ni-Txikia bertsolariaren aotik jasoa.

5. Jose Oiarbide, Ereñozu, Ernani.

TXIRRITA BASERRIAN LAU BERTSOLARI

Txirrita baserrian merienda zutela-ta,
ara joan ziran emen aitatzen diran ber-
tsolariak. Maiera arrimatu, egon eta
egon, eta etzuten ezer ekartzen. Txirrita-
ren asmakizunen bat izango zala pentsatu
zuten, eta orduan kantuari ekin zioten.

Jose Kruz Oloki'k:

Sartu gera Txirrita'ra,
mokadu bana jatera;
jakiyan partez platera,
ez gera gaizki atera.

Orduan Txirritak eskail-burutik:

Aizu, Jose Kruz Oloki,
itzegin zazu poliki;

zuentzat ainbeste jaki
ekarriko dute aurki.

Telleri-Txiki'k:

Txirrita zegon gordia,
iñork etzekin ordia;
merienda-zai jendia,
kontu oriyek zer dia?

Pello Zabaleta'k:

Ez gera asi ausardiyan,
gu zai gaude aspaldiyan;
Txirrita berriz tranpiyan,
kazuelaren guardiyan.¹

1. Pello Zabaleta bertsolaria, Erreenteri.

TXIRRITA ETA PELLO ZABALETA

Txirrita eta Pello Zabaleta'k bertso
auek kantatu zituzten bein batean, alkarri
puntuak jarritz, sagardotegian:

Pellok:

Txirrita, jarri'igute
txurreri berriya.

Txirritak:

Bañan aditu al dek
oien aberiya?

Pellok:

Besteren terrenuan
daukate jarriya.

Txirritak:

Mutur gozarekin
zegok nagusiya.

Txirritak:

Pello, zer derizkiyok
txurreruagatik?

Pellok:

Kiebra jotzen baute're
bate etzait inportik.

Txirritak:

Ezpaditu bialtzen
nagusiyak ortik...

Pellok:

Oiek beintzat txabola
jarri dute txutik.

Pellok:

Zer egin bear dute
gure txurreruak?

Txirritak:

Nai badituzte saldu
beren katxarruak.

Pellok:

Bajatuko zaizkate
oiei estaduak.

Txirritak:

Len ere ezтик gizendu
nik emandakuak.

Txirritak:

Txurreru oiek badute
milla martingala.

Pellok:

Edozein bazterretan
jartze'ute txabola.

Txirritak:

Jan da lo egiteko
an dute kaiola.

Pelloc:

Bazter guzitatikan
kia dariyola.

Pelloc:

Orain utzi ditzagun
txurreru-kontuak.

Txirritak:

Guk aitortu ditugu
oien pekatuak.

Pelloc:

Iges egin diyote
etxetik katuak.

Txirritak:

Txurruak arrapatzen
ikasitakuak.¹

1. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.

TXIRRITA ETA PRANTZES TXIKIA

Prantzes Txikia ere oso bertsolari ona omen zan. Bein batean bertsoan ari ziran Txirrita eta Prantzes. Baiña Txirrita geitxo edana, eta Prantzes Txikia tente oso, eta bera gaillen.

Biamonean, Prantzes Txikia bere andregai Petrarekin ikusi zuan Txirritak, eta bat-batean bertso au bota zion:

Bartarratsian izandu nuen
kantatutzeko pereza,
beragatikan artuko zidan
eskaxaguak grandeza;
zenbaitek aña modu baneuka
gingo nuke trabesa:

Zinkunegi'ko neska Petrakin
ezetz ezkondu Prantzes.¹

* * *

Beste egun batean, bertsoan ari zira-
la, azken puntua onela zuan bertsoa bota
zion Prantzes Txikiak Txirritari:

azkenerako il biarko du
ospital zarren batian.

Eta Txirritak ordaiña:

Ik ezkondu ta izaten ba'ituk
bi edo iru landare,

egon biarko ditek oriyek
beti naikua jan gabe;
orain ez dakit zerengatikan
deken oinbeste bondade,
i diña gizon izango nak ni
ospitalera juanda're.²

* * *

Beste batean, Oiartzun'en, kantuan ari zirala, itzetan berotu egin ziran Txirrita eta Prantzes Txikia. Ordu erdian jardun eta ezin zuten alkar menderatu, eta inork etzuan amor ematen.

Txirritak bertso bat onela bota omen zion:

Zere denboran izandu zera
tunantia ta litxarra,
infenuetara joan bearra
ori daukazu lan txarra;
lendabiziko erreko zaizka
illia eta bizarra,
burruntziyaren puntan bueltaka
sobratzen zaion pizarra.

Baiña Prantzes Txikiak onela erantzun zion:

Jende guziya nazkatu dezu
zure izketa zikiñez,
kulpik ez duen aingeru ona
trapu gaiztotzat egiñez;
bikariyotza nai zenduke ta
sakristautzako jakiñ ez,
zer nola meza emango dezu
etzakizu-ta latinez?³

* * *

Inazio Irazu'k (Portuburu, Ergoien, Oiartzun) esan zigunez, beste onela erantzun omen zion Prantzes Txikiak Txirritari:

Txirrita onek gezur kontari
ez du jenio bikaña,
kulpa gabiai orain alperrik
nekatu dio mingaña.
Esan eta're nork sinistatu
ori badala ni aña?
Promesa egiten errexago da
Erniyo'ra juaten baña.

* * *

Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia bertsolariak onela esan digu:

«Gu gazte xamarrek giñala, Ernani'ko ganadu-peria egiten zan tokian, frontoiko atzean, kiosko koskor bat bazan da an bertsoan ezagutu nitun Saibururu, Txirrita ta Frantzes Txikiya.

Pikatu xamarra beti kantatzen zuten, da asi ziran: katarrua zeukala Frantxexak, eta berriz ere eukiko zula bota zion Txirritak; San Antoniori kandela aginduta, promesa eginda zeukala, ta joan da etziola jarri kandelik. Ontatik asi ziran.

Azkenean gero Frantzes alleitu zan botatzera. Ni ez naiz bertsoa dana gogoratzen, urte asko dira-ta; bañan Frantxexak, bukaera onela zun bertsoa bota zion Txirritari:

Zuk biar zendun Gipuzkoa'ko
alperren diretoria.

Ta Txirritarena ere, dana ez naiz gogoratzen; erdia bai:

Frantzez Txiki (y) au xapuxtutgian
nei lasaitzen zait barrena,
ez al dakizu sokor austeko
alperra dala onena?

Gero, beintzat, Txirritaren beste bertso bat, dana ez, erdia:

Aspertutzen e asiya nago
zure moduko prendakin,
erle gorriyak eldu badizu
igurtzi zazu mendakin.

Ikaragarriak bota zizkaten alkarri».

* * *

Bein batez, Txirrita Ernani'ko Egaña'eneko tabernan zan, eta ango bi emakumerekin izketan ari zan.

Frantzes Txikia bertsolaria Ernani'ko Asteasune'ko alpargaterian lanean aritua zan, eta emakume oiek onela esan zuten:

–Langille ona zan, ba, ura!

Ta Txirritak bazterretik:

–Bai, bañan ez egiten.⁴

Bearbada, bere buruagatik ere berdin esan zezakean ori Txirritak. Diotenez, oso argin ona baitzan, baiña...

* * *

«Prantzes-Txikiya ori, batean portalean lo egin, bestean eskailleretan goraiño igo eta an, bestean meta ondoan eta edozein tokitan, gizajoa; ola ibiltzen zan.

Saiburu'ko atarian, atearen ondoan, gure aitak duro bat ematen ikusi izandu nuan nik.

Baiña bertsolari ona zan. Gobernurik -ezak galdu zuan ura. Ta alpreta josten ere oso ona izan bear zuan. Ala esaten zuten beintzat.

Bein batez, bertso au kantatu zion Txirritari:

Ezer gutxitik zenbait pertsonak
erreparua artzen du,
eta zu ere saiatzen zera
iñola al baldin bazendu;

zureganako inkurriyoric
ez det beñere izandu,
oker samarra izan bazera
obeko dezu zuzendu,
denan maisua izango ziñan
ondo ikasi bazendu».⁵

* * *

Donosti'ko Loiola'n, San Inazio egun batean, bertsotan ari ziran leiotik leiora Txirrita, Saiburu ta Frantzes Txikia.

Txirrita eta Saiburu Frantzes Txikiaren kontra asi ziran, lanik egiten etzuala eta alper aundi bat zala esanez. Bere txanda iritxi zanean, Frantzes Txikiak bertso au bota zien:

Eskerrik asko lasai xamarra
dadukatela gibela,
ta oiek berriz gaizki esateko
ez dute mingain motela;
publiku ontan itzegin dute
alper xamarra naizela,
ta edozeñek juzka lezake
oiek mantentzen nautela.⁶

* * *

Baiña Txirrita eta Frantzes Txikiaren artu-emanak etziran beti orren txorrotzak izan.

Bein batez, Altza'n, biak ari omen ziran, eta Prantzesaren azken despeira au izan omen zan:

Nik ere emango diyot
nere parezera,
tankera emango iozu
gutxi gora-bera;
zuretzat gelditzen da
kantuzko bandera,
neriak aitu dira ta
ixilduko al gera?

Ta Txirritak bueltan:

Nik ere esango dizut
azken-azkenian,
amor emango dizut
ontâ naizenian;
itzak esan dituzu
bire zuzenian,
ta ixilduko gera
zeuk nai dezunian.⁷

* * *

«Gipuzku'ko erri txiki batean bertso-
lari bi: Txirrita ta Prantzes Txikia.

Saio egokia egin dute meza nagusi on-
doren. Alkate jaunak au erregutzen die
bertsolariei:

–Arratsaldeko saioa bostetan izango
dala kanta bear dezute bertso banatan.

Alaxe egin zuten, goiz parteko ekiñal-
diari azkena emanaz.

Arratsaldeko bostak dira. Txirrita igo
da Aiuntamentuko balkoi nagusira.

An dago alkatea; an daude kontzejal
jaunak.

Jo dute bost eta laurdenak; geroxeago,
bost eta erdiak.

Asarretu da alkate jauna. Era ontan
mintzatzen da:

–Zureztat, Txirrita, ez tet zer esanik.
Ordurako etorri zera, agindu bezela; baña
bestea ezta ageri, Prantzes a ezta azaldu...

–Nola azalduko da ba Prantzes a –eran-
tzun zion Txirritak–, eguardian nik aña
edan du ta?

Amaika arroatik gorako gizona zan
Txirrita; bost arroa eskaxekoa Prantzes a.

Txikiak ez tu ibili bear
aundiarekin ekiñez,

neurri kaskarrak uste baño len
egiten baitute gaiñez.
Jendea plazan egonagatik
Prantzesari itxogiñez,
artasoroan etzanda ura
bapo siesta egiñez».⁸

* * *

Txirritak Prantzes a bertsolariari La-
sarte'n:

Berrogei ta lau urte diozu,
nik irurogei pasiak,
prailien modun beti mutilzar
gure denbora baziak;
gu olakuak geradelako
beste batzuek gosiak,
zikiratzia merezi likek
olako kristau klasiak!⁹

* * *

«Urte batean, San Lorentzoz, Txirrita
ta Prantzes Txikia ziran bertsotan, Beras-
tegi'n.

Eguardiko saioa egin zutenean, ba-
xoerdi batzuk edan nai ta poltsa utsik
Prantzes Txikiak.

Inguratu da Txirritarengana ta ola
mintzatzen zaio:

–Pezeta bat emango al didak, mese-
dez, Joxe Manuel?

–Orrenbeste egingo al diagu beintzat.

Txirritak sartu du eskua patrikan eta
pezeta biko zillarra aterata ola dio:

–To au ta ekatzak pezeta bat bueltan.

–Oraintxe izorratu nauk ederki: peze-
ta euki banu, ez nian iri eskatu bearrik.

–Ba, bi geitxo izango dek iri emateko.

Ta, au esanez, lenean utzi omen zuan.
Orduan ere zakurrak ankutsik oi ziran».¹⁰

1. Mariano Erauskin, Andoain.
2. Juan Maria Lujanbio, Saiburu, Errenteri, Txirritaren iloba txikia.
3. Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze, Ernani. Bertan omen zegoan bertso aukeratu ziranean. Orregatik jarri ditugu berak eman zizkigun bezela. Juan Maria Lujanbio, Saiburu, Errenteri, Txirritaren iloba txikia. Onek leenengoa bakarrik, eta onela:

Alperra eta enbustera,
gezurtia ta litzarra,
ik infernuan erre bear dek,
ori dadukak lan txarra;
lendabiziko illia eta
urrena berriz bizarra,
burruntziyaren puntan bueltaka
eskatzen dan pizarra.

Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Gazteluene, Aitzia, Txirritaren iloba. Onek ere leenengoa bakarrik, eta era ontan:

Frantzes kokkor au azaldu zaigu
bastante gizon litzarra,
inpernuetan sartu bearra

- daduka komeri txarra;
lendabiziko erreko zaizka
illiak eta bizarra,
burruntziyaren puntan bueltaka
sobratutzen dan pizarra.
4. Segundo Kalonje bertsolaria, Oriamendi, Aiete, Donostia.
5. Juan Mari Lujanbio, Saiburu, Errenteri, Saiburu bertsolariaren semea eta Txirritaren iloba txikia.
6. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.
7. Oiartzun'go Jose Luis Lekuona, *Lexoti* bertsolaria. Bertso aukeratu ziran galdetu eta onela erantzun zigan:
– Ergoin'go Krixoxtomo difuntuak esanta dakizkit nik; Uztapideren andrearen aitak.
8. Basarri: *Zeruko Argia*, 1964-VII-19.
9. Antonino Pagola, Ernani.
Izenik artu ez nion batek, bertso au Txirritak Gazteluri botca dala esan zidan. Eta aldaketa aukeratu esan ere: 1: Ik berrogei ta amasei urte; 5: gu oia bizi geran artian; 6: gosiak iltzen bestiak.
10. Basarri: *La Voz de España* egunkarian, 1977-VI-5'ean.

BI BERTSOLARIEN EPAILE

Naparroa'ko erri txiki batean, bi bertsolari jaiero tabernara joaten omen ziran, eta an bertsoak kantatu, alkarri onela esanez:

–Ni nauk bertsolaria.

Eta besteak:

–I bertsolaria? Ni bai, banauk bertsolaria; ez i.

Ala, alkateak pentsatu du erriko festetan Txirrita eramatea, eta onek juzkatu dezala onena nor dan.

Beren saioa egin dute bi bertsolari

oiek; eta ondoren Txirritak, pakeagatik, biak berdin juzkatzen ditu, eta nork bere dirua jaso dezala.

Baiña txarrena keitzen da: ez duala Txirritak epaia ondo eman; batek gelditu bear duala gaillean.

Orduan Txirritak:

Baserritar bi etorri zaizkit
asnaska erdi ituan,
etxe oneko semiak ziran,
ezagutuzten nituan;

neroni juez ipiñi eta
ekin zioten pleituan,
bietan txarrena ere
ez da kontentu kituan,
nik ez dakit ba oien bertsuak
nola ebakiko dituan.¹

asnaska iya ituan,
etxe oneko semiak dira,
len ezagutzen nituan;
txarrena ere ez da kontentu
igualian kituan,
ez dakit oien bertsuak nola
juzkatu biar dituan.

Gertaeraren kontatera, irurak emandako berrie-
kin osatu det.

* * *

1. Era au osoena da eta argatik jarri degu
emen, naizta lerro batean neurria motz samar egon.
Baiña ez nuan kontuan artu nori jaso nion.

Jose Maria Salaberria, Aiete, Donosti:

Bi baserritar etorri dira
asnaska iya ituan,
etxe oneko semiak dira,
len e ezautzen nituan;
eskaxena're ez da konforme
onenarekin kituan,
ez dakit oien bertsuak nola
juzkatu biar dituan.

Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri:

Bi baserritar etorri zaizkit

Bertso au beste onela eman zidan Itziar'ko Zu-
beltzu bertsolariak:

Baserritar bi etorri zaizkit
asnaska iya ituan,
lenago ere gizon oriek
ezagutuzten nituan;
bertsuetako lanagatikan
asi dirade pleituan,
biyetatikan eskasen danak
eztu jarri nai kituan,
orain eztaikit nola arraio
arreglatuko dituan.

TXIRRITA ETA TELLERI-TXIKI

Errenteri'n, Madalenetan, Txirritak
eta Telleri-Txikik alkarri botreak omen di-
ra bertso auk:

Txirritak:

Santa Maria Madalena zan
emakume bat txit fiña,
ermita txiki batian dago
santa onen imajiña;
pekatariya izan zan baño
penitentziyak egiña,

obe genduke ura bezela
gomertituko bagiña.

Telleri-Txikik:

Ai, Jesukristo nola zeguen
gurutze bati josita,
gure munduko pekatu danak
gorputzari iratxita,
Santa Maria Madalen orrek
Jesus ala ikusita,
bide zuzenak artu zituen
okerrekuak utzita.¹

* * *

Onoko gertaera eta bertso auek, Telleri-Txikiren illoba zan eta Errenteri'ko Larzabal-zar baserrian bizi zan Inazio Getaria Berra zanak kontatuak dira.

Txirrita eta Telleri-Txiki juntatu ziran jai arratsalde batean, eta Telleri-Txiki baserrian sagardoa zegoan saltzen, eta:

–Goazemak!

Eta

–Goazen, bai! Kantatuko dizkiagu bertso batzuk!

Ola, joan ziran biak eta an jendea zai egoten.

Bezperan, garia biltzen edo meta zorruek egiten ari zirala, asarretu atso zarra, ta jenio txarra izan bear zun, oso txarra, ta Pontxiori altzarrastaloea sartu, eta Txirritak eta Telleri-Txikik jakin ori.

Joan ta an asi omen ziran. Lenbiziko gure osabak, Telleri-Txikik:

Gure auzoko baserri batek
izena daduka Masti,
okasiyua eta disputa
ez da izaten garesti;
atso sorgiñ au barrendik zerbait
egiten danian busti,
aiton iltzera abiatzen da
altzarrastalo ta guzti.

Ori Telleri-Txikik bota zun. Da jendeak Txirritari:

–Ala, Joxe Manuel! Zuk ere bota, bota emen!

Ta, ala, Txirritak atzetik:

Gure auzoko emakumi au
ez da oso kobardia,
okasiyuan asten danian
jartzen da berde-berdia;

abildadia apenas duen
oso zokuan gordia,
azkenerako Pontxio orri
sartu zioken sardia.

Euntalako farrak eta bulla jendeak, eta bertso asko bota omen zituzten, da sagardoea atera ta sagardoea atera.

Gure ama sagardo saltzen ari zan; ta arek, anaia bertsolaria zun ta bazun ortarako zera, ta aixa ikasten zitun bertsoak; baño besterik ez nion nik ari bertso oietatik aditu. Ta jarri etziran egin bertsoak, eta ortik ezin ezer atera.

* * *

Urrengo gertaera ta bertso au ere, Telleri-Txikiren illoba zan orren aotik; Inazio Getaria Berra zanaren aotik alegia.

Nere ama ta beste bi aizpa, Telleri-Txikiren arrebak, lanetik etxera eta etxetik lanera beti. Ta topo egin zuten Txirritarekin, da bereala asi omen ziran:

–Ara emen Joxe Manuel! Gure mutil zarra emen diñagu! Bota bertsoa, Joxe Manuel!

Ta Txirritak:

–Bertsoa? Botako dizutet bertsoa, bañan urrena ni topo egitean, bertso ori bera osatu ta bota bear didazute danen artean.

Ta orduan jarri ziran:

–Ia, ba, bota!

Ta Txirritak:

Bertso berri polit bat
biar nuke jarri,
neska erdi zartuen
konsolagarri;
bi nabaitu nituen
esanaz alkarri:

«Nobiyorik etzaidan
azaldutzen neri;
nere partez iri
noski bai ugari».
«Gezurra den ori,
bat ezten ageri;
gerok esan bear-ko
koxkor banari».

Asi omen ziran gero, oker edo zuzen,

dana puntuz ornitzen, da nolabait ere osatu omen zuten. Ta, urrena Txirrita ikusi zutenean, kantatu zioten, da Txirritak:

–Bai, bai, neska! Ondo zion! Ola bear-ko din! Nonbait or zion!

1. Pello Zabalcta bertsolaria, Errenteri.

PUNTUAN

Pellok:

Txirrita, ezkontzeko
xoxak bear dia...

sekula bada eta
nago sasoyian.²

* * *

Txirritak:

Ni saiatzen naiz bañan
ezin det ordia;
interesa ez bada
gaztetan gordia,
zartzian joan biar
miserikordia.¹

* * *

Obispo dirudila
dago balkoyian...

Txirritak:

Zu berriz bikariyo
lonbratu nayian;
enpeñatu biar du
batek garayian,

Txirrita automobillean Zaldibar'era zi-
joala, onela galdetu zioten:

Txirrita, zer zabiltzan
nua galdetzera...

Txirritak:³

Beriala emango diot
nik aditutzera;
ezkerreko anka-
z nago erreuma
antzera, Zaldibarrera
nua bañuak artzera.³

* * *

Donosti'ko Zapirain'ek asi eta Txirri-
tak bukatua:

Nai nuke baneukake
zuk dezun ainbat bixt...

Txirritak:

Guk badegu txakur bat
deitzen zaiona *List*.
Atiaren gañetik
iju citian pixt,
azpiko txulotikan
azkar sartzen da txixt.⁴

* * *

Bertso au bera bost puntukoa ere jaso
degu.

Zapirain'ek:

Nai nuke baneukake
zuk dezun ainbat bist...

Eta Txirritak:

Guk badegu txakur bat
deitzen dana *List*.
Anka altxa ta pixa
ark egiten du prist,
atiaren gañetik
deitutuzian pist,
azpiko txulotikan
azkar sartzen da txixt.⁵

* * *

Galdera bat:

Txirrita, ezkontzeko
ez al dek iderik?

Txirritak:

Andregaiarengana
ez dakit biderik;
ez det nererik beyik,

ain gutxi iririk,
alaba agindu dit
amona Piriri'k,
baña ez dit sartuko
alako ziririk.⁶

* * *

Errenteri'ko Juan Zabaleta bertso-
lariaren kuaderno batean bertso au bera
doinu eta guzi arkitu degu:





* * *

Ernani'ko euskal festetan ere Jose Zapirain izan zan bertsolariei gaiak eta puntuak jartzen.

Orra Txirritari jarri zizkion iru puntu, eta onek nola erantzun zion:

Zapirain'ek:

Zuretzat andregayik
ez al dago iñun?

Txirritak:

Bakarrik bizitzeko
amak egin niñun;
nere bizimodua
dago oso illun,
batekin asi nitzan da
laister utzi niñun.

Zapirain'ek:

Zuretzat andregai
billatuzen da gaitz...

Txirritak:

Zerbait egingo al det
saiatuzen banaiz;
mutilzar egonâtik
gogoratzen zait maiz,
akaso erreñakin
esposatuko naiz.

Zapirain'ek:

Erreñakin pasiatzeko
nun dezu lebita?

Txirritak:

Nola izango det nik?
Zuk eman neri ta;
alkar amatutzia
gauza ona baita,
ia arekin ezkon-
dutzen dan Txirrita.⁷

1. Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia.

2. Lino Kalonje bertsolaria, Bentaberri, Donostia.

Pedro Almandoz, Goiatz-erribera, Martutene, Donostia:

Obispo dirudila
zaude balkoyian...

Zu berriz bikariyo
lonbratu nayian;
zernai gauza esan libre
modu lasayian,
egundaño bada ta
nago sasoyian.

Beste batek, ez nuan apuntatu zein, beste era ontan eman zidan: Txirrita komunera joan eta atera zanean, bertan puntua jarri:

Burua azalduta
praillian antzian...

Eta Txirritak:

Zu berriz bikariyo
lonbratu nayian;
nik jango baldin banu
alako mayian...

Azkeneko puntuaz etzan oroitzen.

3. Inazio Zubizarreta, Errementeri, Loiola, Azpeitia.

4. *Txirrita'ren Testamentua, Imp. Macazaga, Rentería, 1930.*

5. Antonio Salaberria, Pasai San Pedro.

6. *Txirrita'ren Testamentua, Imp. Macazaga, Rentería, 1930.*

Errementeri'ko Pello Zabalcta'k esan zidanez, puntu au Ernani'ko Olegario bertsolariak jarri zion.

Donosti'ko Oriamendi baserrian jaio eta Bentaberri auzoan bizi zan Lino Kalonje bertsolariak esan zidanez, amona Piriri ori Ernani'ko garai artako atso bat omen zan, eta arek Txirritari esan:

- Aizak: emango diat alaba.

Eta Txirritak bertso onekin erantzun:

Andregaiarengana
ez dakit biderik,
beñi ere ez det izandu
ezkontzeko iderik;
ez det nererik beyik,

ain gutxi iderik,
alaba agindu dit
amona Piririk,
ez dit neri sartuko
alako ziririk.

7. Jose Oiarbide, Ereñozu, Ernani.

LAU BERTSOLARI ANDOAIN'EN

Bein batean, bertsoan ari ziran Andoain'en Rejino eta Pello Errota, biak ezkonduak, eta Gaztelu eta Txirrita, biak mutilzarrak. Ezkonduak mutilzarrei eta mutilzarrak ezkonduerik izugarriak esan omen zizkieten egun artan. Pello Errotari eman zioten leenengo saria.

Saria eman ondoren, Gazteluk Rejinatori bertsoa bota bear ziola esan zuan alkateak, eta Rejinok Gazteluri erantzun eta kito; urrena, Txirritak Pellori, Pellok Txirritari erantzun eta kito. Orrela bukatu bear zala festa.

Esan bearrik ez dago ezkonduak bentajan zeudela orrela. Azkeneko bertsoak ez baitu ordaiñaren bildurrik. Onelaxe kantatu zuten:

Gazteluk:

Urte batzuk deskuido
diralako joanak,
neri burla egiten
ari zaizkit, jaunak;
mutilzarrak dauzkagu
proporziyo onak,

akaso erregiñakin
esposatuko nak.

Garai artan Maria Cristina erregiña
alargun baitzegoen.

Rejinok:

Beraz, emaztetzako
nai dezu erregiña,
ez dala izango nago
zuretzat egiña;
ola iruritzen zait,
nik ez dakit baiña:
aren neskamia're
bada zure diña.

Esan bezela, urrena Txirrita eta Pello
Errotaren txanda zan.

Txirritak:

Pello ipiñi zaigu
gutzizko graduak,
nai duenak ikusi
orra nun daguan;
ni umil ibiltzen zaiz
orren inguruan,

jeneral baten antza
badauka buruan.

arek dadukan neskamia're
bada zuretzako diña.

* * *

Pello buru-soilla baitzan.

Eta Pello Errotak:

Txirrita, burla egiten
ari zera neri,
illargi aundi xamarra
dalako ageri;
orrela soiltzen bada
zure aundi ori,
argi egingo diyo
mundu guztiyari.¹

* * *

Gaztelu eta Rejinoren bertso oiek,
Txirritak eta Joxe Bernardo Otañok al-
karri boteak bezela eman zizkidan Erna-
ni'ko Pablo Zubiarrain'ek, Ernani-Txikia
bertsolariak alegia, eta beste era ontara:

Txirritak:

Madrid'en daukat nik andregaia
ondo leiala ta fiña,
Maria Cristina deitzen zaiona
eta bera erregiña;
erretratua bialdu zidan,
badirudi Ama Birjiña,
neroni ere iruditzen zait
banaizela aren diña.²

Joxe Bernardok:

Agidanian zere esposa
nai zenduke erregiña,
zuk diyozonez izango da ura
ondo leiala ta fiña;
iruditzen zait ez dala izango
ura zuretzat egiña,

Txirrita eta Pello Errotaren bertsoak
beste onela ere jaso izan ditut: Txirrita
goien omen zegoan, eta Pello bean; eta
Txirritak:

Pellok barkatu dio
mundu guztiyari,
nundik etorri zaio
lasaitasun ori?
Zartuagatik dago
potolo ta lori,
txapela eraztitan
apaiza diruri.³

Eta Pellok erantzuna:

Burla egiten al diok
aitona zarrari,
lotan dagoelako
Pello Errotari?
Nei bezela soiltzen bazaik
buru aundi ori,
argi egingo zio
mundu guztiyari.⁴

1. Ermaña, Santiagomendi, Astigarraga.

2. *Auspoa*'ren 18-19'garrean, *Bai, naizela arren diña* idatzi genduan lerro au. Baiña *banaizela aren diña* bear duala uste degu.

3. Pedro Almandoz, Goiatz-erribera, Martute-
ne, Donostia.

4. Mikela Elizegi, Asteasu, Pello Errotaren ala-
ba.

Pedro Almandoz'k zionez, bertso auek Astiga-
rraga'ko plazan kantatu ziran. Lino Kalonje'ren iri-
tziz, berriz, Donosti'ko teatro batean.

Lino Kalonje'k onela eman zidan azken bertso
au:

Burla ta desairia
badaukak ugari,
bañan inporta gutxi
Pello Errotari;
soildutzen asten bazaik

buru aundi ori,
argi egingo diyo
mundu guztiyari.

Nori jaso nion kontuan artu ez banuan ere, beste
modu ontara ere kantatu izan didate:

Txirrita, zertan ai zera

burla egiten neri,
illargi aundi xamarra
dalakoz ageri?
Orla soildutzen bada
zure aundi ori,
argi egingo diyo
mundu guztiyari.

TXIRRITA ETA ELIO

Garai artan ba omen zan zan Ereñozu aldean mutil zar bat, Elio esaten ziotena, kaskoan aizea besterik etzuan gizarajo bat.

Jaietan tabernara joaten zan; eta, bi trago egin ezkerero, derriorrean bertsotan ari bearra izaten zuan. Baiña izan ditezken bertsorik aldrebesenak botatzen zituan. Erakusbide bat emango degu.

Epele-torre'ko Jose Migel Otxotorena, oso bertsolari polita zana eta artzai ibiltzen zana, Pardiola'ra etortzen zan andregai bisitatzer.

Jakin zuan ori Elio orrek eta egun batean bertso au bota zion:

Erromeriya txarrik
eztago munduan,
Oiartzun'dik asita
Epel-errekara;
Epel-errekatikan
Astigarra'raño,
Astigarraga'tikan
Pardiola'raño,
zer arraiotan abil,
sudur aundi ori?

Oi dan bezela, jendeak parre algara aundiak egiten zituan olakoak entzutean, eta txalo asko jotzen zizkion bertso bakoi-tzari.

Orduan Elio ori arrotu egiten zan, eta ixildu gabe aritzen zan bertsotan.

Egun batez, Txirritak eta Eliok tabernaren batean alkarrekin topo egitea gertatu zan.

Txirritarekin kantatzeko egokiera zuala-ta, pozik asi zan bertsotan Elio ori.

Txirrita, ordea, aguro aspertu zan noski, eta ixil arazteagatik izugarriak bota zizkion.

Bertso bat onela kantatu zion:

Perrak baditu soñean bañan
mantxua degu birian,
basta polit bat jarri bear zaio
gaur orrixe bizkarrian;
latoi orizko krabestu fiñak
ipiniirik muturrian,
aitona kojo begi-bakar bat
trallan duela aurrian,
a zer saltuak maiatza balitz
etxe-buruko larrian!

Baiña Eliok etzion amor ematen; eta,
beste askoren artean, bertso au bota zion
Txirritari:

Txirrita tripa aundiya
birian korritua,
i're juten baldin baiz
izango dek lekua.
Zer zirala uste uken
kastillanuen gonak?
Aixa izurratze'izkiek
i bezelako tontuak

Ain zuzen ere, Elio ori Kastilla aldean
ibilia zan.

Txirritak, orduan, azkeneko puntuak
onela zituan bertsoa bota zion:

Orren lengo lagunak
Santa Ageda'n daude,
urte bete baño len
joango dek au're.¹

1. Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze, Ernani.

TXIRRITA ETA ZUBELTZU

«Bein batez, Txirrita Deba'ko Buruza-
ri-eneko tabernan zala aditu genduan.
Ura ezagutzeko pozean, presaka ara joan
giñan mutil talde bat. Nik ogei bat urte
izango nuan orduan.

Txirrita bazkaltzen ari zan. Aren alde
xamar exeri giñan, ta an geunden. Arek
gonbersazioan esandako gauza bat orain
gogoan daukat:

–Neri orain milla duro eskeñita ere ez
geiago kantatzekotan, ezin artuko nituan;
kantatu gabe ezin egongo nitzan, da ezin
etsiko nuan.

Urrena, etxeoandrea eskuan porru-
perrejillak zituala azaldu zan, da Txirri-
tak bertso au kantatu zion:

Amar eun justuak
izate'itu millak,

bizian esperantzan
asko daure illak;
kunpritu ditugu guk
artutako saillak,
oaiñ emen deskantsatzeko
aulki edo sillak,
zenbat pagatu'ituzu
porru-perrejillak?

Gero, itz-bidea bertso-kontura etorri-
ta, onela esan zuan:

–Azkeneko zerekin bukatu bear duan,
asteko jakin bear du bertsolariak.

Nik orduan galdetu nion:

–Ta bidean aztutzen bazaio?

Ta Txirritak:

–Berria asmatu bear!

Ta segituan onela esan zidan:

–Zerorrek ere badezu afizio pixken bat!...

Ta nik erantzun nion:

–Bai zera! Pixkat jardun bai, baña besterik ez...».

Kontaera eta bertso auk, Zubeltzuk berak esanda jakin genituan. Baiña berak esan etzuana, guk esango degu: Txirritak erdi-erditik asmatu zuala, alegia. Zubeltzu ere bertsolari jator-jatorra izana baitegu. Beraren bertsoak *Auspoa*’ren 93’garren zenbakian argitaratu genituan.

Geroztik bein baiño geiagotan kantatu zuten alkarrekin. Ona emen aldi oietako batean Txirritak kantatu ziona, Zubeltzuk berak esan digunez:

«Bein batean, Txirrita, Prantzes Txikia ta irurok jardun genduan. Ni artean gaztea nintzan. Txirrita ta Prantzes Txikiak alkarri gogor xamar eraso zioten. Prantzesak arpegia markatuta zeukan, da Txirritak esaten zion mozkortu ta erori ta izurratu zuala. Ta alkarrekin ola jardun ondoren ixildu ziranean, Txirritak au kantatu zidan:

Gure Jainkuak mundura eman ziran orrenbeste zentzu, auk esanagatikan arren ez asarretu, Zubeltzu; orrek eztizu besterik ingo: «baldin badezu ekatu»; segi nai b’ezu berakin baña zein dan ezautuko dezu».

TXIRRITA ETA OLEGARIO

Ernani’ko Pablo Zubiarrain bertsolariak onela kontatu digu:

«Olegario Ernani’koa ere bertsolari zaarra, ta Txirrita ta biak beti parrandan.

Bein batez, illobarekin abixua bialdu omen zion: Getaria’n San Antonak zirala ta bertсотara joan bear zutela ta etortzeko Ernani’ra. Olegariok Txirritari abixu ori bialdu.

Ala, etorri omen zan; apaldu ere egin omen dute, ta Txirrita sagardotegira. Ernani’n dana sagardotegi zan ba orduan.

Sagardotegian bertсотan batean da bestean aritu da goizaldera arte.

Galtzerdi puskatuakin joana ura, ta goizean arek berriak jantzi nai.

Alako batean, zaldia ta karrua preparatuta zeudela, ta Olegariok Txirritari:

–Jeiki adi! Jeiki adi!

Ta Txirritak:

–Bai, bereala!

Bañan ez jeikitzen ura oietik; ez jeikitzen oietik eta alaba bialdu omen zion:

–Esaion jeikitzeo aguro, kotxerua preparatuta dagola-ta!

Orduan kotxiakin ibiltzen baitziran.

Alaba joan da, esan ere bai, bañan Txirrita ez jeikitzen. Olegariok ostera bialdu zun alaba:

–Jeikitzeo azkar esaion, aspertu dala kotxerua ta!

Joan da alaba, ta Txirritak:

–Esaiozu aitari ezin detela! Bartarra-tsean emen aldatu nintzala, eta ezin ditutela galtzerdiak billatu! Bat billatzen detela, ta bestea ezin detela billatu!

Igo omen da Olegario, ta:

–Zer pasatzen zaik?

–Nik etzekit ba! Emen aldatu niñuen bartarratsean, da iñuen eztit billatzen orain galtzerdia! Ta anka batean galtzerdia ta bestea ankutsik ezin joango nak ba!

Orduan Olegariok alabari:

–Joan adi dendara! Olako dendatik ekartzin aguro galtzerdiak onentzako!

Joan da ekarri omen zizkion, da etzeukan anka artan jantzi omen zun galtzerdia. Ura propio noski; tipoa izan ura!

Gero beste ankean asi da erazten len-go zarra, ta:

–Ara! Au ere nik egin bear nin! Nola billatuko nin, ba, biak anka batean jantzi-ta zeuzkat eta!

Ta, berriak jantzita, ederki ura Getari-ko San Antonetara».

* * *

Txirrita ta Olegario, beren eginkizun bat zutela-ta, Indiola'ra joan ziran. Olegariok andrea il berria zuan. Andrea il ta andik bi illabetera edo ola zan gertaera au. Begitik malkoa zeriola bertsoa asi zuan:

Nere andre Dominika emazte izandua, ziaro zartu gabe utzi zun mundua; nere pameliaren beko zimendua, estremidade askotan neri lagundua...

Ola gelditu zan, bertsoa bukatu eziñik. Eta Txirritak bukatu zion:

Lenago eman zizunak antxen du kendua.

Gero, andik illabete batzuetara, gure Olegario beste alargun batekin ezkontze-ko asmotan zebillela-edo, Txirritak onako bertso au bota zion:

Aizu, aitona, beirozu gero eltzen badizut lepotik, lenago ona etziñan baño gaiztotu zera gogotik; aspalditxuan zabilta ortxe alargun baten ondotik, zure gustua kunplitu gabe juan biar dezu mundutik.¹

Ernani'ko Ereñozu'ko Jose Oiarbide'k ere jaso nion bertso au. Aitazerik merezi duan aldaketarik gabe jaso ere. Gertaera, berriz, beste onela eman zidan:

«Olegario bertsolaria alargun zegoan, da berriro ezkontzeo asmotan ote zebillen entzun zuan Txirritak. Egia edo gezur, ala aditu omen zuan. Ta urrena alkarrekin topo egin zutenean, bertso au kantatu zion Txirritak...».

1. Antonio Salaberria, Pasai San Pedro.

TXIRRITA ETA ERNANI-TXIKIA

Pablo Zubiarrain Otxotorena dira *Ernani-Txikia* bertsolariaren izen-abizenak. Garai batean asko kantatu zuan euskal plazetan, Uztapide, Txapel, Zepai, Basarri, Mitxelena ta abar kantu-lagunak zituala. Azpeiti'ko plazan ezagutu genduan guk, Santo Tomas egun batean, 1955 urtean.

Ondoren, urteak aurrera eta plazan kantatzeari utzi zionean, bertsoak pape-rean jartzeari ekin zion, eta bertso liburu pare bat argitaratu berria du: *Ia kantatuz bezela* eta *Gaziak eta gozoak*, *Auspoa*'ren 190 eta 194 zenbakietan.

Ia kantatuz bezela liburuaren itzau-rean, bertsoan nola asi zan kontatzen digu. Baita Txirritarekin nola kantatu zuan ere. Ona beraren itzak:

«Gero, badakizu, tabernara edo sagar-dotegira joaten ere asi giñan, ta ari egiten giñan bertsoan-da an.

Ernani'n bazan orduan, Joxe Goiarro esaten zioten guarda bat. Ta arek nunbait ere gu bertsoan aditu ta onela esan zidan:

–Ola ta ola bertsoara joan bear dezute, Ereñozu'ko festetan.

Jose Oiarbide zan bestea; Joxe *Ttan-ttua* esaten diotena. Ori ere pixka bat aritzen zan, ba.

Ura ta biak asi giñan. Txirrita ta Saiburu ekartzen zituzten orduan, ta aiekin kantatu genduen. Ori izan zan nere lenda-biziko asiera plazetan.

Neronek ez nekien zenbat urte nituen orduan, da gero orrek esan zidan, Joxe Oiarbide'k:

–Nik onenbeste urte nizkin, ta diferentzi au diagu, ta ik amazapi urte bear ituken izan.

Orduan asi ta gero bestean ta bestean... Erruz ibilli nintzan bolara batean. Txirritarekin ere bai. Nerekin ondo itze-gin ta ondo aritzen zan, gazteari lagunduz.

Eztarri ona zuen arek. Boza fuertea. Plaza guztian aditzen zan arek kantatzen zuena.

Gero, ordea, gerra etorri zan. Ederki aztu ziran orduan bertsoak. Aztu bear-ko».

Erriz-erri

ERRIZ ERRI

Plazako edo jende aurreko bertsolari-tzari buruz onela dio Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illobak, bere *Aien garaia* liburuan:

«Beste jostaketaren artean, bertsolariak ere oso gustokoak izaten zituen jendeak; eta ez zarrari bakarrik, gazte asko eta askori ere bai, eta nola gizaseme ala emakumeai.

Auek lendabizi botako zituzten bertso batzuek erriko gizonak eta beste jauntxo batzuek famatuaz; gero asiko ziran plazan zegoen jendeari emendik zirika eta andik zirika, eta par eta txalo ederrak jasotzen zituzten.

Txirrita an baldin bazan, berriz, atzeneko bertso batzuek neskatxa gazte bat edo beste famatuaz botatzeko oitura aundia zuen; bada bein baño geiagotan esan oi zuen, orrelako festetan neskatxa bat edo beste pixka bat goratuta, ondorengo egunetan istimazio aundiagoa izaten zutela.

Orrela, plazan bertso-saio bat egin eta gero, auek zein ostatu edo tabernatara joaten ziran, jende-pilla ederra aiei segika.

Al baldin bazuten, jarri-eraziko zituzten berriz ere kantari, eta plazan baño par aundiagoak eragiñaziko zituzten.

Zenbat aldiz esaten zuen Txirritak,

orrela joatean, plazan baño geiago kantatu bear izaten zutela tabernetan!

Ta bereala asten zitzaizkala esanaz:

–Txirrita, gure etxera etorri bear dezu egun bat pasatzera.

–Ia, Txirrita, guregana ere azaldu urrengo egun batean!

–Jose Manuel, gurean ere zai gaude! Ia noiz etortzen zeran!

Orrela, egun ederrak pasa jan eta edan bapo egiñaz, eta propina ederrak ekarri ere bai».

* * *

Altza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazkano'k, berriz, onela dio bere *Tiro tartean bertsoan* liburuan, 160 orri-aldean:

«Garai batean, Txirritak, erri batera joan ta galdetuko zuan:

–Zer da?

Ta:

–Alkatea olako erritatik etorria zana onera bizitzera, olako etxetan ezkondu zan, ta ori daukagu orain erriko buru.

Pixka bat naikoa izaten zuan arek dana gobernatzeko. Ori, berak atera bear dute bertsolariak».

* * *

Azpeiti'ko euskal festetan, bertso au
bota omen zuan Txirritak:

Asko alditan aitu izan det
txit ona dala berori,
naturala ta formala zana
antziñan nion igerri;
Gipuzkoa'ko diputadua
Don Juan Lizarriturri,
festak etziran ondo egingo
jaun au ez balitz etorri¹.

* * *

Leen ere esan degunez, garai batean
urtero izaten ziran bertsolariak Azpeiti'ko
Loiola'n, San Isidroetan: Pello Errota,
Gaztelu, Txirrita... Orduko onenak ekar-
tzen zituzten.

Txirritak bertso au bota zuan urte ba-
tean:

Gazte denboran sartu izan banitz
pralletako nobiziyo,
gure gorputzak ez luke izango
daukan ainbeste biziyo;
elizatikan iges gabiltza
tunanteakin soziyo,
tripa zar onek asko bear dik
baldin ematen bazayo².

Zeleta'k, berriz, *Zeruko Argia* asteka-
rian, 1969-VI-29'an, eta *La Voz de Espa-
ña* egunkarian, 1979-III-21'an, Txirritak
bertso au Lasarte'n kantatu zuala dio, eta
beste onela ematen du:

Praille sartuta ibili banitz
emanaz ainbat mixiyo,
nere gorputzak etzun izango
orain besteko biziyo;
Elizatikan aparte nabil
tunantiekkin soziyo...

Tripa zar onek asko bear du,
baldin ematen bazayo!

* * *

«Bein, zortzi egun parrandan pasata
azaldu zan Txirrita lanera, eta kontratis-
kak ala esan zion:

–Aizak: orrelakorik geiago egiten ba-
dek, ez aut berriz ametituko.

Txirrita isilik gelditu zen, eta andik
illabeterako amar egun pasata etorri
omen zen berriz.

Kontratistak:

–I ez etorri onera; jira adi ortik. Ez dit
ezer jakin nai irekin. Leen ere esan nian.

Baiña Txirritak funtzioa jartzen zien
askotan, eta mutillak pena aundia artu zu-
ten eta zerbait aipatu omen zioten nagu-
siari. Txirritak eun metro-edo pasa zitue-
nean, nagusiak oiua bat egin omen zion:

–Etorri adi onera. Esango al didak,
ba, non ibili aizen?

Eta Txirritak ala esan omen zion:

Bilbao'n izandu naiz
San Franzisko kalian,
pultsuan probatutzen
biatz bakarrian;
doblatuta utzi naute
lenengo gabian,
sendatzen egondu naiz
amar egunian»³.

* * *

Festetara deitutako batean, bertso au
bota zuen Txirritak:

Aruntzean Motriku'n,
onuntzean Deba'n,

ai zer libertsioa
an pasatu dedan!
Lan gutxi egin baño
ondo jan ta edan,
dirurik ez nun bañan
banuen nork eman⁴.

* * *

Errenteri'ko festak ziran. Madalene-
tan, beraz, Uztaillaren 22'an. Bertsola-
riak, txistulariak, dultzaiñeroak eta abar,
danak batera bazkaltzen ari ziran. Txirrita
ere bai, noski.

Alako batean, bandua aditu zuten ka-
lean. Belarria erne jarririk, Leon XIII illa
zala eta arratsalde artako festa guzia ken-
du egiten zala. Leon XIII, 1903'ko Uz-
taillaren 20'an il zan.

Batzuek marmarrean asi ziran, festa
zergatik galdu bear zan eta abar esanez.

Orduan Txirritak, jendea ixil araztea-
gatik, balkoira irten eta bertso au bota
zuen:

Leon trece il zaigu,
gure aiton fiña,
makiña bat mesede
guri egiña;
ark erakutsi digu
zeruko dotriña,
neronek sentitzen det
artu duan miña,
.....
.....
akabo dultzaiña
ta zezen-koziña,
dantza.....⁵
.....

* * *

Urte batean, San Isidroan, Txirrita Az-
koiti'ko Madariaga deritzaion ballaran zan.

Meza nagusi aurrean, tabernan zegoan sal-
da artzen. Ontan, organua jotzen asi da,
baita ere neskamea danai kontua egiten.
Orduan bertso au bota zuen Txirritak:

Elizatik ojuka
asi zaizku ontzak,
ez ditut ikusten bañan
aitzen ditut otsak;
diruik ez dun gizonak
artu biaitun lotsak,
xentimorik ez dauka
Txirritaren poltsak.

Neskamea urreratu eta esan zion:

-Txirrita, zuk ez dezu pagatu bearrik.
Neri nagusiak zuri ez kentzeko esan dit.

Orduan, inguruan ziranak esan zioten:

-Txirrita, amarretakoa debalde eman
dizulako, neskameari beste bat kantatu
bear zenion.

Txirritak:

-Egingo degu orrenbeste, bada.
Ta onela kantatu zuen:

Arrantxo ederra egin det
ementxen jarrita,
diru gabe nintzana
zeuden igarrita;
ezer kentzen ez baidazu
orla ekarrita,
pusk'ateko konbidaua
badezu Txirrita⁶.

* * *

«Pasai'ra jetxi omen zen trenera, par-
del aundi bat bizkarrean zuala; paleta eta
maillua, kordela eta plomada artuta. Ar-
giñak bear izaten dituan erramintak. Gi-
zón plako batek nora zijoan galdetu omen
zion.

Eta Txirritak:

–Iruñe'ra, negura diru egiñera.

Gizon plakoak berrero:

–Berriz ere egongo aiz i gizon bikaiña!

Eta Txirritak:

–Bai i ere jango baukeuk nik aiña»⁷.

* * *

«Garai batean, erropa upela bezalako ontzi batzutan, egosi egiten zen. Errenteria'ko Madalenetan, iru neska erropa jabetzen ari zirela, bertso au bota zien Txirritak:

Astelenian goa egosi
asteartian jotzeko,
asteazkenian eguzkitara
ostegunian biltzeko,
ostiralian plantxatu eta
beren tokian jartzeko,

larunbatian ondo zerate

Errenteri'ra joateko»⁸.

1. Egibar baserriko aitona zana, Loiola, Azpeitia.

2. Inazio Zubizarreta, Erremitteri, Loiola, Aspeitia.

Gabino Huizi, Goizueta: 1/1: Gazte denboran egin banintzan; 1/2; prailea edo misiyo; 1/3: nere gorputzak ez luke izango; 1/5: elizagandik aparte nabil; 1/8: asko ematen bazayo.

3. Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936), 50 urteurrena.*

Duda egiten degu guk, bertso au Txirritarena ote dan. Oso puntu baldarrak baitira emen. Puntu obeak erabiltzen zituan arek.

4. Patxi Labandibar, Larria, Oiartzun.

5. Pako «Balda» zana, Azkoiti. bera dultzaiñeroa izanik, an bertan zan. Zoritxarrez, etzuan bertso osoa gogoratu aal izan.

6. X. Arrieta, Arana baserria, Azkoitia.

7. Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936), 50 urteurrena.*

8. Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936), 50 urteurrena.*

ASTIGARRAGA'N

Urrengo bi bertso auek, Astigarraga'ko plazan kantatuak dira. Ala entzun omen zion osabari Txirritaren illobak. Markes batek –Astigarraga'koa, beraz, batere dudarik gabe– ekar arazi omen zuan bertсотara.

Astigarraga uri kutun bat
mendi baten baztarrian,
gustagarrizko ibai zabalak
dituelarik aurrian;

erdi-erdian Fueruen plaza
Kontzejutikan urrian,
Santiagoren indartza ere
daukagu geren lurrian,
emen jendea bizi nai degu
lengo oitura zarrian.

Astigarraga zer dan juzgatzen
ez da danentzat erreza,
eztakienak ikasitzeko
atentzioa jar beza:

emen jipoiak artuak dira
moruak eta frantzesak,
orain jendeak argatik dauka
indarrarekin grandeza,
biba Ermo'ko don Kandido ta
bere anaia markesa!¹

* * *

Txirrita tokatu omen zen Astigarraga'n egualdi bero batean, ta sagardotegira, bañan sosik ez. Batenbatek deituko zula-edo, polikixeago omen zijoen, bañan iñork deitzen ez; ta bera joan omen zen atal-ondora. Ta nagusiya Juan Mari zen an, ta au kantatu omen zion:

Eskerrak eman bearko zaizka
zeru-lurreko Jaunari,
pekatu aundiyan ez gaitezela
beran aurrera erori;
bero aundiya nola baidagon
arkitutzen naiz egarri,
baso bat sârdo eman kidazu,
errukal zaitez, Juan Mari!

Ta onek buelta:

Estimatzen det, Joxe Manuel,
egin dirazun graziya,
zure bertsuak baso bat sârdo
ez ote du mereziya?

Basua artuta oraintxe nazu
kupel ondora asiya,
barrena sartu zaitia, bada,
zeorrek nai dezun guziya.

Ta baso sagardoa eran omen zun Txirritak, eta eskeko bat an pasaran, *Astotxo* esaten ziotena, ta:

—I, Txirrita, kanta akiok orroko eskeko orri bertso bat! *Astotxo* esaten ziotek!

Ta au kantatu omen zion:

Anketan perrak baditu baño
txit motela da birian,
basta polipat bear litzake
para orren bizkarrian;
latoizko botoi, krabestu beltzak
dituela muturrian,
ta aitona zar bizar-zuri bat
trallan duela aurrian,
Maiatz aldian ai zer saltuak
etxe buruko larrian!²

1. *Txirrita'ren Testamentua*, Imprenta Macazaga, Rentería.

2. Azken bertsoa Lexoti bertsolariari magnetonoz jasoa.

Bertso au leen ere argitaratua degu liburu ontan. Baiña Elio esaten zioten mutil zar bati kantatua zala esan ziguten.

AZKOITI'KO MARTIRIETAN¹

Urte batean, Pazkoa Maiatzekoetan,
-nere andrearen aitak ala kontatu zidan-,
Txirrita ori Azkoiti'ko Santo Martirietara
joan zan bertso kantatzera.

Eta bezperan saio aundia eginda, be-
randu samar atera omen zan leiora, ta ala
kantatu zuan:



Iru errial baño geiago
sartutzen dira pezetan,
ori aspaldi sartua dago
bai nere kazetan;
parranda einda buruko miñak
gero urrengo goizetan,
gaur da Pazkoa irugarrena,
ez naiz izandu mezetan.

Ala, atera omen zan bertso ori kanta-
tuta, eta an azpiko aldean arkaitz aundi
bat zan, baita iturri ederra ere, ur fresko
ederrarekin. Gaur ere an dago.

Aren ondoan omen zegoen, erramu
edo adar-osto batzuekin tapatuta, alako
saltzalle bat, erroskillak eta txutxeriyak
saltzen zituana.

Ta neska gazte batzuk ere an zeuden,
da joan omen zan Txirrita ta ala kantatu
zien neska gazte oiei:

Maria Santisima,
zer da bizitze au?
Lorik ezin det egin
ez egun eta ez gau!

Ezkondutzeko miñak
iya-ya galdu nau,
nik laixter il biar det
iñork artz'ezpanau!

1. Adierazpena eta bertsoak: Patxi Larrañaga, Azkoitia.

Doiñua, Patxi Larrañaga'k kantatua, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun eta paperean ezarria.

AZKOITI'KO MADARIXA'N

Bertso auek, Luis Pedro Peña Santiago'k argitara eman zituan, *El Diario Vasco* egunkarian, bere iganderoko *Cita con Euskalherria* saillean: 1986-IV-27'an, leenengo bertsoa eta gertaera; eta 1986-IV-4'an, gertaera osoago eta bertso guztiak. Orregatik, oni kopiatzen diogu:

«*El domingo pasado, en estas mismas páginas de El Diario Vasco, al hablar de un recorrido por Aran-erreka, hacía referencia a un homenaje que se celebró hace 60 o 65 años en Madarixa. El festejo estaba dedicado a «Txintxua», del caserío «Luaixa» (de Azkarate) y cantaron versos «Txirrita» y «Francés».*

...*De los datos que pude recoger hace sólo unos días, sabemos que «Txintxua» era un pastor del caserío «Luaixa», en el puerto de Azkarate, entre las villas de Azkoitia y Elgoibar. Este hombre tenía en verano su rebaño en el monte Izarraitz y en el otoño descendía con las ovejas hacia la zona de Mutriku. En primavera, hacia mediados de abril, regresaba de nuevo de Mutriku hacia los pastos altos de Izarraitz. Su primera etapa solía ser de Izarraitz a Mendaro y se quedaba a dormir en «Moxua»,*

bar-posada del barrio de Garagarza de Mendaro, y el rebaño quedaba junto a la casa, en una zona que entonces existía con hermosos nogales.

Mi informante me dijo que él fue a ese homenaje a «Txintxua» con unos diez años, marchando con su padre por caminos de monte y llevando la comida en una caja de zapatos. En ese día llegaron al barrio de Madarixa a pie gentes de todos los contornos: de Azkoitia, Azpeitia, Elgoibar, Mendaro, Lastur, Endoya e Itziar. «Txintxua» llegó acompañado por sus hijos, nietos y bisnietos. Fue después de la misa cuando cantaron los bersolaris.

Y estos son los versos que recogí y que todavía se recuerdan de aquel día. Son versos que se atribuyen a «Txirrita», aunque en esa fecha actuó también «Francés»:

Ikaraturik arkitutzen naiz
mundu ontako gauzekin,
aitona zarrak plaza aldera
nola etorri bazekin.
Lenago ere dotorea zan
lege zarreko galtzekin,

trapu txuriak ongi jantzita,
abarkak soka beltzekin.

Gizonarentzat mundu onetan
gauzik onena osasuna,
interesa eta pake ederra,
au zelako ondasuna!
Oiek guziak ala dirade,
zuek ondo dakizuena¹,
zerua zer dan ez dakit baiña
auxen da edertasuna!

Dakidan bati galde ezker
jakingo luke nor dian,
auxen da bada edertasuna
emen plazaren erdian:
familia bat txit apaindua
eseri eta burdian,

aitona zarra akulluakin
aziendaren guardian».

Bertso auek, *El Diario Vasco*'n, eus-
kera batura itzuliak daude. Txirritaren aotik
etziran orrela aterako; ezta bertso emalearen
aotik ere. Orregatik, beren jartortasunera
ekartzen alegindu gera.

Bi itz utzi ditugu, Txirritak esango
etzituan bezela: *zelako* eta *burdian*. Txirritak
nolako eta *gurdian* kantatuko zituan. Baiña
bertso emaleak, Madarixa aldekoa izanik,
biak orrela esango zituan eta orrela utzi
bearrak ziran noski.

1. *El Diario Vasco*'n: gauzarik onen osasuna,
hau zelako ondasun, zuek ondo dakizuen.

SAASTIEN¹

«Txirritaren gazte-denboran bazan Pagollaga edo Ereñozu ballaran gizon edo mutil bat Sebastian izena zuena, bañan bere etxeoak, eta baita auzokoak ere, Saastien esaten zioten, errexago zalako edo izen euskaldunagoa iduritzen zitzaio-telako; eta guk ere, beraz, Saastien deituko diogu.

Oso mutil ona zan. Etzuen txarrera-
korik ezer, bañan buru ariñ xamarra edo lotua zuen, eta orregatik gauza xe-
lebre asko esaten eta egiten zituan. Beragatik jende-
ari par asko egiñ erazten zion, ta argatik inguru-
ko lagunak oso maite zuten.

Al zuan guzian Txirritarengana ingur-
ratzen zan, bada oso maitea zuen au.

Nola Saastien au, batera eta bestera
asko ibiltzen baitzan, bein batean joan
zan Pagollaga inguruko mendi batera, eta
an arkitu du ikazkiñak zeukaten txabola
bat.

Sartu da zer ikusi barrenera, eta an
ikusten du ikazkiñak jarrita zeukaten
arrantxoa: baba, taloak eta ardoa. Aren
poza! Artu danetik, jan eta edan egin du
bapo, eta martxa.

Etorri dira ikazkiñak beren bazkaria
egiteko asmotan, bañan an ezer gutxi ar-
kitu zuten, geienak Saastianek jan baitziz-

katen. Asi dira andik eta emendik ezeren arrastorik ateratzen duten, bañan danak alperrik.

Andik egun mordoska batera joan da, bada, Saastien. Berriz ere jan ditu arrapatu dituen guziak, eta alde. Bañan ikazkiñak, ikusirik orrela ez dagoela gauza onik, erabaki dute bat edo beste beren txabolatik bistan aritzea lanean, onela iñor etortzen bada ikusiko dutela-ta.

Len bezelaxe, andik egun batzutara etorri da gure Saastien, jan-edan bat egiteko asmotan, bañan baita ikusi ere ikazkiñak.

Joan da korrika bere lagunari esatera nola gizon bat sartu dan beren txabolan. Etorri dira biak al duten azkarrena, eta an arrapatu dute gure Saastien, aien bazkaria jaten ari dala.

Oso gaizki ibilli bearko zuen onek, baldin beste bat izan bazan. Bañan ain zan ezaguna Saastien ori inguru oietan, eta or gelditu dira biak zer egin ez dakitela. Bañan pentsatu dute susto bat ematea pixka bat eskarmentatzeko.

Orretarako egin dute su aundi bat. Jarrri dute pala berotzen, eta oraintxe pixka bat goritzen asi danean, eldu dio batek Saastieni, eta besteak jarri dio pala bero ori atzeko exer-lekuan; eta dexente berotu diotenean, utzi diote.

Or abiatu da gizagajoa korrika mendian bera, eta ez da gelditu errira jetxi arte, eta izerdi-patsetan sartu da taberna batera.

An zegoen Txirrita bere bertso eta kantakin jendez inguratua, eta galdetu zion:

–Zer zabilta, Saastien, zer zabilta, olako korri eta izerdirekin?

–Zer nabillen? Mendian izan naiz ikaz-

kiñak bixitatzen, eta mialleak eldu eta egilleak jarri; batek segi eta besteak korri, bai uso milla demonio etorri!

Egillea, arrantxeroari esaten zion, eta miallea, txondar egilleari.

Baso bat ardo eman zion Txirritak, pixka bat kalmatu zan, eta orduan erakutsi zion ikazkiñak pala jarri zioten lekua; eta esan oi zuen mendiko txabolan arrapatu ta jan zituen baño baba geiago eta aundiagoak zeuzkala.

Munduan beste askori bezela, gauza askoren jabe izatea gustatzen zitzaion, batez ere abere edo ganaduak, eta oietan mendietako beorrak aitatzen zituen maiz, garai artan baserri asko baitziran, mendian ardi, bei edo beor batzuek zituztenak; eta arek uste izaten zuen, edo esaten zuen beintzat, bereak zirala.

Jai batean etorri zan Ereñozu'ko elizara meza entzutera, eta an zegoen beste auzoko gizonekin batean mezaren zai, eta apaiza edo erretorea ere bai, danak «bai, jauna» eta «beorri» esaten ziotena, ta bera ere mendian beorrak zituena.

Alako batean asi da Saastien ori onela esaten, inguruko mendi guzien izenak esanaz:

–Alako menditan beorrak badituk eta nereak dituk! Beste olakotan ere badituk eta nereak dituk! Beste artan ere badituk eta nereak dituk! Eta olako ta alakota-koak ere nereak dituk!

Esan bezela, apaiza ere an zebillen, bere esku-liburua letuaz ara joan eta onera etorri; eta ori aditu zuenean, gelditu eta esan zion:

–Aizak, Saastien: ik danak ireak dituk?

Ori aditu zuenean, jarri zan apaizari begira eta esan zion Saastienek:

–Bai! Eta ireak ere nereak dituk!

Danak asi ziran parrez eta an joan zan apaiza lotsaturik elizara.

Beste jai batean etorri da Saastien au mezetara, agoa edo aurpegia pañuelo batekin lotua zuela, agiñetako miña balu bezela, eta galdetu zion apaizak:

–Zer dezu, Saastien, agoan?

–Ortzak eta agiñak! –erantzun zion Saastienek.

Beste batean erle-seme bat billatu zuan Saastienek mendiko aritz zar batean. Pozez beterik joan zan etxera eta esan zuen.

Joan ziran etxeakoak ikustera, bañan lenagotik besteren batek billatua zan, bada an zeukan señailea, gurutze bat arbolari egiña, adieraziaz lenago beste batek billatu zuala ta, beraz, arena zala.

Esan zioten Saastieni gurutzea zeukala, eta gurutzea lenbizi jartzen zionarena izaten zala, eta oso triste gelditu zan.

Ondorengo egun batean or gogoratu zaio auzoko errota txiki bati gurutzea jartzea, eta bai jarri ere. Egin du egurrezko gurutze bat, josi dio atean errota txiki orri, bere artean esanaz:

–Emen ezta iñor sartuko! Au nerea da!

Eta an gelditu zan nagusia etorri zai. Alako batean etorri da errota orren jabea eta esan zion Saastienek:

–Adiskidea, emen etzera sartuko! Au nerea da!

–Au zurea dala? –esan zion jabeak.

–Bai; erlea gurutzea egin dionarena baldin bada, au nerea da. Ara or gurutzea.

Andik etzegoela kontu garbirik atera-

tzerik ikusita, joan zan Saastien etxera eta esan zioten zer gertatzen zan.

Orduan etorri zan bere aita, ta esan zion kentzeko ari gurutze ura eta joateko etxera, arek bere jabea bazuela-ta; eta erritan eman zion Saastieni.

Bañan onek etzuen kendu nai izan, eta aita ta biak asarretu ziran gogotik; eta aitak, eskuan zuen aizkora txikia tira zion semeari.

Orduan Saastienek, esku batekin lepotik eta bestearekin galtza-ipurditik elduta, aldamenean zegoen presa edo putzu batera bota zuen. Aita orduan igari beste aldera atera eta etxera joan zan.

Saastien etorri zanean, etxeakoak erritan eman zioten, esanaz ori gauza gaiztoa zala, eta pekatu aundia egin zuala.

Andik denbora askora etorri da pazkoazkoa egiteko denbora, eta bialdu dute Saastien konpesatzera, orretarako apaiza jakiñaren gañean jarririk.

An zegoen gure gizon au konpesonaio-tik urruti, an zer pasatzen zan ikusiaz; eta beste danak konpesatu diranean, esaten dio apaizak:

–Orain zure txanda, Saastien; orain zure txanda! Atoz onera, atoz!

Altxa da bere jar-lekutik eta badijoa poliki-poliki apaizaren aldera, erdi parrez esanaz:

–Je, je! Je, je!

Eta ia allegatu dan garaian, esaten dio:

–Aita galtza-ipurditik artu ta putzura bota nuen, jauna; pekatu egin ote nuen?

–Ixo, Saastien, ixo! Atoz onera! –esaten zion apaizak.

–Je, je! Je, je! Aizkora txikia tira zidan, da nik ere zerbait egin bear nuen!

–Bueno, Saastien, bueno! Ondo zau-

de! Zoaz etxera! –esan eta bialdu zuen etxera.

Beste batean, egoaldi txar batek eman eta Txirrita eta bere lagunak lanean ari ziran tokitik kantina batera erretiratu ziran. Ta orduan ere, ala bear edo, Saastien ori an gertatu zan.

Tximista eta trumoia ari zuen gogotik; eta alako batean, *zart!*, sartu da tximista bat arbola batean beera, ta dana zuritu ta kiskalita utzi du, lurrean zulo aundi bat egiñaz.

Erasoa pasa danean, atera dira danak ikustera, ta aien artean Saastien ere bai. Danak ari ziran batek bat eta besteak beste esaten, eta ala dio Txirritak:

–Aizu, Saastien: tximista ori or egongo da oraindik; ia ateratzen dezun!

–Or egongo ote da bada?

–Bai, bai! Or dago eta uste det pixka bat agiri dala; eta ateratzen badezu, litro bat ardo emango dizut!

Joan da Saastien atxurraren billa, ta badator laixter atxur batekin. Ta bi eskuari txistu eman da asi da jo ta jo, zulo egiten arbolaren ondoan. Eta esaten zion Txirritak:

–Eman, Saastien, eman, zurea da ta!

Ori adituta animatu da gizon ori eta egin du ia gerrirañoko zuloa, eta jarri da izerdi-patsetan.

Orduan Txirritak esan zion:

–Utzi akiozu, Saastien, utzi akiozu! Onezkero oztu da, eta aterata ere ez dik ezertarako ere serbitzen!

Eta ori esanaz ekarri zion litro ardoa, ta orduan utzi zion Saastienek tximista ateratzeari».

1. Jose Ramón Erauskin Lujanbio, Txirritaren illobak idatzia.

PERMIÑ ITXUA

Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illobak, onela kontatzen du bere *Aien garaia* liburuan:

«Txirritari ere askotan entzun izandu nion zer gertatu zitzaion itxu batekin.

Garai artan, Txirrita bizi zan inguruan, bazan itxu bat, Fermin izena zuena, baña Permiñ deitzen ziotena. Oso bertozalea zan, eta, jakiña, Txirritaren lagun aundia. Iñoiz entzuten baldin bazuen

orrelako edo alako taberna edo sagardotegitan zegoela au, an joango zan Permiñ, aren bertsoak eta ateraldi xebreak asko gustatzen baitzitzaizkan.

Orrela, egun batean, bildu zan Permiñ Txirritaren ingurura; eta, bere bertso eta bromak entzun ondoren, agindu zion tabernariari sagardoa ekarri zezala, eta baita ekarri ere.

Pagatzen asi zanean, eskua patrikara

sartu eta, beste diru edo txanponakin batera, ontzako urre bat atera zuen eskuan, eta orduan esan zion Txirritak:

–Gorde ezazu ontzako ori, Permiñ, nereakin nastu gabe!

–Ez da inporta nastuta ere! Nik nereazagutuko det, bai! –erantzun zion itxuak.

–Zer bada? Markatua ibiltzen al dezu?

–Ez; ez det markatu bearrik, nik nere ontzakoa ezagutzeko.

–Bada, zuk ez dezu ikusten; eta, ez badauka ezeren markarik, ez dezu ezagutuko!

–Bai, ta errex ala ere! –esan zion Permiñek.

–Aber: erakutsi zazu mesedez! –esan zion Txirritak, eta baita erakutsi ere.

Artu zuen Txirritak ontzako urre ori; bere eskuetan buelta eta buelta ibilliaz, ondo begiratu zion, eta etzion ikusten ezereen arrasto berexirik. Erakutsi zioten bere lagunai, eta iñork etzion billatu bere irudi edo letrak baizik. Orduan esan zion Txirritak:

–Munduan ez da itxurik, besteren tartean jarri eta ontzako au ezagutuko duenik!

–Egin zazu apustu eta ikusiko dezu ezagutzen dedan edo ez! –erantzun zion itxuak.

Baita konformatu ere Txirrita. Egin dute apustu ori, urrengo egunean jokatzeke. Orretarako ekarriko dituztela Txirrita eta bere lagunak ontzako urre batzuek, eta emango dizkatela itxuari bana-ka, eta aien tartean berea ere bai, ea nola ezagutzen duen. Artan gelditu ziran.

Urrengo egunean bildu ziran berriz bai itxua eta baita Txirrita ere bere lagunakin;

eta apustu ori ikusi nai zuten beste asko ere bai.

Asi dira apustu ori egiten. Orretarako jarri dituzte maiaren gañean iru edo lau ontzako urre, billatu dituzten berrienak eta osoenak, eta aien ondoan itxuarena ere bai.

Orduan, aietako bat Txirritak artu eta eman dio bere lagun Permiñ itxuari.

Onek artu du, eta, bere beatzetan bueltaka-bueltaka ibilli ondoren, *Aitaren* bat egin zuen, danak dakizuten bezela, *Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean amen* esanaz. *Amen* esaterakoan, aora edo ezpañetara eraman eta muñ edo muxu bat eman zion. Beste pixka bat ibilli zuen beatz tartean, eta esan zuen:

–Ez da au!

Orduan eman diote beste bat; eta, lenago bezela *Aitaren* eta beste miaketak egin ondoren, berriz ere esan zuen:

–Ez da au!

Orrela ibilli dute bat eman eta bestea eman, eta arek lengo lan ber-berak egin eta ezezkoa esaten zuen.

Alako batean eman diote berak patrikaratik atera zuen ontzako ori; eta, ari ere bere miaketak egin ondoren, onela esan zuen itxuak:

–Auxe da!

Danak arrituta gelditu ziran. Esaten zuten *txiripa* batez asmatu zuela, eta galdetu zioten:

–Berriz ere asmatuko al zenduke?

–Baita amar bider eginda ere! –erantzun zuen itxuak.

Segituan beste prueba bat egin zuten; baña lenagoko lan berak egin eta len bezelaxe ezagutu zuen itxuak bere ontzakoa.



Txirrita Billaron.

An gelditu zan Txirrita, ustez seguru irabazia zeukan apustua galduta, eta an adierazi zuen Permiñek begiak itxuak zituela, baña burua argia.

Iñor etzan konturatu nola ezagutzen zuen itxuak bere ontzakoa; baña denbora

rekin jakindu zuten Permiñek bere ontzako ori piper miñarekin ondo igurtzia ibiltzen zuela, eta *Aitaren* bukatzeko *amen* esaterakoan, mingañarekin ikuitzean erretzen ziolako ezagutzen zuela».

KUARTA TENPORAK

Beste gertaera au ere, Jose Ramon Erauskin Txirritaren illobaren *Aien garaia* liburutik artzen degu:

«Danak dakigu Elizak urteko bere jaiak lau alditan jarriak dauzkala, eta auei *kuarta tenporak* esaten zaiotela.

Itz edo izen au da latinetik datorrena; bada euskeraz esan bear balitz, lau denborak esan bear ko litzaioteke.

Auek izaten dira: Austerre egunetik, Pazkoa Maiatzeko edo Pentekostetik, Santa Kruzetatik eta Santa Luzia egunetik urrengo asteazken, ostegun eta larunbat.

Modu ontan dauzka partituak Elizak bere jaiak; baña, len esan dedan bezela, asko dira esaten dutenak: zer egualdi edo zein aldetako aizea gelditzen dan tenporetan, alako egualdia egiten duela ondorengo beste iru illabeteetan; eta beste batzuek, berriz, batere orrelako gauzetan sinisten ez dutenak.

Au dala-ta, eztabaida izugarriak entzun izandu ditugu. Zeñek duen arrazoi?

Au beren esku utziko degu, segitu dezatela bakoitza bere sinismenarekin.

Gure etxean bertan ere sumatu izandu ditut gure gurasoak kontu orrekin. Tenporateko irugarren eguneko gaba zan; eta, apaltzen ari giñala, atera zan kontu ori eta esan zuen nere osaba zan Txirritak:

–Gaurkoan aterako gera, bada, dudatik! Ni jeikiko naiz amabietan, eta erreparatuko det zein aldetatik dan aizea.

Artan gelditu ziran eta joan giñan danak oiera.

Denbora artan izandu zan bolara bat, esaten zutena kontrabandista asko ibiltzen zala gure etxe inguruan, eta iñoizka-iñoizka inguruko zakur guziak zaunkaz aritzen ziran, eta gau artan ere alaxe tokatu zan.

Eta Txirrita oietik jeiki ta jarri da leiotik begira, lañoa zein aldetara joaten dan edo aizea zein aldetatik ote dan ezagutzeko; eta or somatu ditu inguru artako zakur geienak zaunkaz ari dirala.

Pixka bat egon da; eta, aspertu danean, joan da oiera.

Urrengo egunean, bazkaltzerakoan, galdetu dio bere koñaduaren anaiak, au da, beste nere osabak, Gaxtelu esaten ziotenak:

–Adi zazu, Txirrita: jeiki al ziñan atzo amabietan?

–Bai!

–Zer egualdi egingo du edo zertan gelditu ziran kuarta tenporak?

–Bada... oraingo kuarta tenporak zakur-zaunkatik geldituak dira; eta, beraz, zakur-zaunka asko izango da datorren iru illabetean. Sekulan ez det sumatu gau batean orrenbeste zaunka!

–Izango dira, bada, zu baño gutxiago gabaz kanpoan ibilliak ere! –erantzun zion Gaxteluk».

«IL DA CANOVAS...»

Antonio Cánovas del Castillo jauna, España'ko gobernuaren buru zan lau probitzietao fueroak galdu ziranean, 1876'garren urtean alegia.

Jaun ori tiroz il zuan Angiolillo'k Mondragoi'ko Santa Ageda'n, 1897'ko abuztuaren 8'an.

Politiko orri buruz bi bertso ditu Txirritak.

Leenengo aldiz, Ernani'ko Antonino Pagola zanari jaso nizkion. Orri batean idatzita bialdu zizkigun. Ona emen beraren itzak:

«Egun batian, kasinuan, orain Donosti'ko Ayuntamientoua dagon orren terrazan, omen zegon Cánovas'en señora. Ta an pasa omen zan Txirrita beste batekin, da esan omen zion:

–Aizu, Txirrita: orixe da Cánovas'en señora.

Ta Txirritak onoko bi bertso oiek kantatu omen zizkion:

Il da Cánovas, juan da Cánovas,
pikaro gaizki aziya!
Galdu zituen ifar garbiyak,
jarri du trumoi nasiya,
galdu zituen fueruak eta
Jaungoikuaren graziya,
galdu zituen bere lagunak,
galdu du bere biziya!

Iru relejo, iruna kate,
iru mallakin bakoitza,
buruan berriz iru korona,
petxuan iru orratza,
iru doblako amoriyua
tximista bezin zorrotza,
iru tirotan utzi zizuten
zuri senarra ill-otza,
iru ezpatak zulatzen dute,
señora, zure biotza».

Damurik, leendabiziko bertsoa erren dago; bi lerro falta dituala alegia.

Oiartzun'go Ergoin'go Portuburu baserriko Inazio Irazu izan zan bertso aukeratuaren onela esan zigun:

«Iyeru'ko Manuelen amaren anaia izango zen. Izena enaz ongi akordatzen. Jose Manuel edo ola izango zuen izena. Aren aita, Manuel beintzat.

Zaartua zen oi nik ezagutu nuen denboran, ta bakarrik bizitzen zen baserri artan; ta, oraingo modara, bizar aundiakin eta ille aundiakin eta ola. Ez baitzen errira ere bajatzen; oso gutxitan.

Ta orduan, nik ikusi nuen garaian, or Arditurri'ko minetan taberna bat, *Ur-so-roeta* deitzen zioten, orain botia da baño bazen. Antxen ikusi nuen.

Ara etorri ezkerok, iru bat egun edo olako egun-pasak izaten omen zituen.

Ni arditara joan ta an zerbait galdetzerara joanta-edo, an zagoen ederki-ederki jarrira, epel-epel egiña.

Ta kanta zarrak kantatzen ari zen; kanta asko omen zekien. Ta kantatu zituen Cánovas'enak.

Nik bi bertso artu nizkan gogoan. Ez dakit nik kantatzea egoki izango den edo libre izango den orain. Puntuak badakizkit nik, baño ez dakit bat bestearen segirana ola ziran edo ez.

Ola kantatu zuen, lenengoa Cánovas'eri eta bigarrena beraren alargunari:

Il da Cánovas, fuera Cánovas,
pikaro gaizki eziya,
galdu zituen gari-zelaiak,
gallendu zaio sasiya;

galdu zituen ipar garbiyak,
gallendu trumoi nasiya,
galdu zituen fueruak eta
Jaungoikuaren graziya,
galdu zituen bizi-lekuak,
galdu du bere biziya.

Iru reloju, iruna kate,
iru mallakin bakoitza,
buruan iru korona eta
petxuan iru orratza;
amoriyua iru dobletan
tximixta bezin zorrotza,
iru tirokin utzi zizuten
zuri senarra illotza,
iru ezpatak zulatzen dute,
señora, zure biotza.

* * *

Beste bertso bat ere badu Txirritak, Cánovas orri buruz kantatua. *El Día* egunerokoan arkitu degu, 1936-VI-24'eko zenbakian, Ernani'ko berri emale zan eta *Aitz-zorrotz* firmatzen zuan batek bialdua. Onela dio:

«...Orain urte batzuek dirala Gernika'n abestu zun (Txirritak alegia), ta askon artian bat au abestu zun:

Iru gizon pikarok
gu saltzen zebiltzan,
aiekgatikan gaude
orain gauden gixan;
geroztik etzuten bik
osasunik izan,
irugarrena berriz
Santa Ageda'n il zan».

Lenago esan degunez, Santa Ageda'n il zan ori, edo obeto esateko il zuten ori, Cánovas izan zan. Baiña beste biak zein diran, ori ez dakigu.

TXIRRITAREN DESKALABRUA¹

«Askok usteko dezute Txirrita beti ondo eta gustora bizi izan zala, bere bertso eta ateraldiakin; dirua zuenean jai egin eta etzuenean lan pixka bat egiñaz, beti gauza guziak ondo atera izan zitzaizkala.

Baña ez; izaten zituen arek ere bere bizi-moduan gora-berak, eta etzitzaizkan gauza danak ondo atera.

Orregatik esango dizutet zer edo nola esan edo kontatu zion, orain au idazten ari dan bere illoba bati, jai-illunabar eder batean, freskura artzen geundela geron etxe-atarian.

Danak edo geienak dakizuten bezela, Txirrita argiña zan, eta beragatik leku askotan allegatu bear izaten zuen lanean.

Oietako batean, Arranbide deitzen zaion presa edo ur-lekuak egiten ari ziran. Baña ez dakit seguru-seguru Arranbide edo Añarbe esan zidan.

Etxera etortzeko urruti egiten baitzitzaion, inguruko baserri batean jarri zan apopillo, beste bere argin lagun batzuekin.

Egun batean, etorri ziran Txirrita eta bere lagunak baserri ortara bazkaltzera, eta an ari zan bertako etxeko andrea presaka eta estuka, bazkaria ezin antolaturik.

Su ondoan zeukan –orduak su bajuak izaten ziran– eltzea edo tupia babarekin, eta, bera nastuzeko makurtu zanean, libre ez dan edo berak nai etzuen leku batean ikutu zuen Txirritak.

Orduak etxeko andreak tira zion egundoko derrebes bat, eta, eskuan zuen babakutsuko burruntzaliarekin, jo du Txirrita bi begien erdian, eta or gelditu da nere osaba ori ezer ikusten ez duela. Ainbestekoa izan zan arek eman zion muturrekoa.

Eta esaten zuen Txirritak, etzekiela zeñek eman zion miñik aundiena: etxeko andreak burruntzali-kolpeak edo aldamenekoak egin zitzioten parrak».

1. Onoko atal au, Txirritaren illoba dan Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k idatzia.

ARAGOI ALDETIK

Ernani'ko Pablo Zubiarrain bertsolariak onela kontatu digu:

«Txirrita Frantzia'n ere ibilli zan puska batean lanean, da Bilbao aldean ere bai, eta Aragon aldean ere bai.

Astigarraga'n bazan orduan pelotari bat oso ona, *tipo* izugarria izandua. Ura ere Txirritaren laguna.

Zaragoza'n puntaz jokutzen zun orrek, eta nunbait ere jakin du Txirrita angoko erriren batean ari dala lanean, da:

–Eraman bear det nik ba ura emendik Gipuzkoa aldera! Eraman bear det ba!

Nunbaitetik billatu omen zun, Txirrita Aragon'en lanean ari zan erria. Ta, Txirritak batere etzakiela, an azaldu zaio *Menoskojo* esaten zioten pelotari ori, ta:

–Zer abil emen?

–Ire billa etorri nak! Ez al dek Ernani'ra joan bear edo beti emen ari bear al dek lanean?

–Joango niñukek pozik, nundik joan baneki!

–Nundik joan? Nik eramango aut!

Ala, arek ekarri omen zun.

Onera etorri ta orduan gure Txirrita bolara batean *fuego!* bertsotan, erri-mordoska batera eramanda.

Erri askotara deitu omen zuten bertsotara, ta bost duro pagatzen omen zioten ba orduan ere, ta ogei duro osatu zitun Txirrita onek.

Ta sagardotegira zeatu omen zitun bere lagunak, eta an kazuela ikaragarri aundi bat, eta Txirritak:

–I! Ik ere gombidatu izandu nak eta exeri adi emen!

Ta beste bati:

–Ik ere gonbidatu izandu nak eta etorri i ere!

Ta ik ere bai ta ik ere bai, bildu omen zun kuadrilla aundi bat, eta danak Txirritaren kontura.

Txirritak esaten zien:

–Gaur badit dirua eta jan gogotik!

Ta naikoa jan danak. Gero zenbat zan kontua ta amabi pezeta kazuelkada dana...

* * *

Txirritaren Aragoi aldeko egonaldi onetzaz galdetu diogu beraren illoba Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ri, eta onela erantzun digu:

«Txirritak esaten zuen, nola beste lagun batzuekin denbora prankoan Zaragoza'n lanean aritu izandu zan, eta zer otxak pasatzen zituan an. Emengo egoaizeak bezelako indarra izaten zuela angoko iparraizeak, eta asko sufritu zutela otxarekin.

Gero, lanak bukatzera egin zutenean, angoko argin lagunak onera bialdu nai zituztela euskaldunak, eta aukeratu nai ez; eta iltzeko desapioa egin ziotela aiek, eta

orduán bildurtu ta nola etorri ziran onera Txirrita ta bere lagunak.

Ta orduán omen zan Kuba'ko reser-

bistak Españi'ra etorri ziran garaia, ta aien trenean etorri omen ziran Donosti'ra, bai Txirrita ta bai bere lagunak».

ATAUN (1915)

Ataun'go errian ere egin omen zuan Txirritak denbora puskaren bat. Orra nola gertatu ziran gauzak, bertako Kreszentzio Imaz'ek kontatu zigunez:

«Emengo Jose Antonio tabernariak ekarri zuan Txirrita ori onera. Arekin etorri zan beintzat, eta aren tabernan egon zan.

Taberna orri *Anbune* esaten zitzaion. Orain tabernarik ez dago, bañan olaxe du gaur ere etxe orrek izena. *Aranburuene* garai batean izango zan. Ta Jose Antonio ori zan orko nagusia. Ori etzan bera Aranburu; ori bera Arruebarrena zan.

Alperrak egiten aritu zan emen Txirrita; arrizko soro-alperrak alegia. Arrata-te'ko kanterea edo arrobia bada emen, eta orko arriarekin egiten zituan.

Garai aietan, asko izaten ziran alperrak baserrietan, eta Txirritak egindakoak toki askotan artu zituzten.

Batean, emen zegoala, Olegario bertsolaria ekarri zuan Txirritak; onen bitartez etorri zan beintzat:

–Nik nere lagun bat ekarriko det, ber-

tsolaria. Oso gizon jatorra da ta gastua ere egingo du.

Olegario famatzen aritu zitzaion tabernariari. Etorri zan eta *Anbune*'ko taberna ortan bertsotan aritu ziran Txirrita, Olegario ori eta emengo beste bat; Inazio zuan izena, zapatero bat.

Inazio zapatero xar orrek etzekin bertsotan, bañan aritu egiten zan. Ura zegoan pixka bat berotuta, eta aiekin batera an aritu zan.

Gogoan daukat arek esandakoa. Neri arek egin zidan grazia; ni motikoa, ta aditzen nengoan. Ta Olegariori onela esan zion Inazio zapatero xar orrek:

–Zuk ez dezu balio, Olegario, neretzako ta Txirritarentzako bertsotan!

Txirritarekin konparatzen zuan arek bere burua.


Oso kontulari ona izan bear zuan Txirrita ori; izlari ederra, oso ederra. Oso euskera garbiz eta grazi askorekin kontuak esaten zituana. Jende asko cgoten zan aren txisteak aditzen.

Ez dakit Oiartzun'en edo Errenteria'n zan; bañan asto txiki bati anka-besoak lo-

tu ta oiean nola sartu zuten eta zer juerga pasa zuten ere esaten zuan. Nik ez nion ori aditu; anaiari kontatu zion.

Emen zala, beste erri batetik gizon bat etorri zitzaion Txirritari: beraren alabari mutil batzuek bertsoak jarri zizkiotela eta bertso oien ordañak ea jarriko zituan.

Tratua bederatzi duroan egin zuten, eta Txirritak jarri zituan bertsoak. Nik ikasi nituan; orain danak ez, bañan bana-ka batzuek gogoan dauzkat¹:



Milla bederatzireun eta amabostgarren urtean, eskandalo bat izandu degu Gipuzkoa'ko partean,

.....

Zortzi mutillek neskatxa bati jarri dizkate bertsoak, oietatikan deskuidatuak egongo dira batzuek; danen Jabia or dago beira zabaldurikan besuak, komeni bada barka ditzala Jaungoiko amorosuak.

Intxixu batek esan omen du neregatikan sorgiña, ez naiz munduan zenbait bezela pikardi asko egiña; zuk erosiko ninduzun pozik merkiak izan bagiña, juiziorikan eztezun txoro arlote buru ariña.

Lotsa gutxiko kopetarekin neri konduta galtzera, dantza-kontua nola izan zan gogoratutzen al zera? Pauso bat aurrera egiten zendun eta bestia atzera, mutil bizkorra etorri ziñan sorgiña arrapatzera.

.....

Iru urte t'erdi pasatu ditut
 Eibarren bertan serbitzen,
 orduko ere ondo nekien
 belarrondoa garbitzen.

Arrazoi gabe mintzatutzea
 emen alfer-alferri'ta,²
 motibo gabe nabilkizute
 munduen autan jarrita;
 Gaztelu orrek bai omen daki
 kaso orien berri-ta,
 oien ordañak juango zaizka
 bizirik bada Txirrita,

Gaztelu zan ba neskari bertsoak jarri
 zizkion bertsolaria. Orregatik esaten zion
 ori Txirritak.

Ta azkenekoa:

Oiek’ri bertsoak eta
’k ordañak emendik³,
 errespuestik atera gabe
 ez negokien infundik;
 ixilik ezin egon nitzan da
 miña nedukan barrendik,
 geiago bear badira ere
 sobratu zaizkit oraindik.

Txirritak eskribitzen jakin ez eta nere
 anaiak kopiatu zizkion bertsoak. Ondo-
 ren, onela esan zion Txirritak anaiari:

–Bederatzi duro kobratu bear dezute!

Ta nere anaiak erantzun zion:

–Bederatzi duro asko da!

–Asko da; bañan badakizu: zuk ere
 bearko dezu ta...

–Neri etzait inportik ezer ere.

–Ez, ez, ez! Lana egin dezu ta asko
 gañera, ta pagatu bearra dago.

Ta pagatu ere bai. Ez dakit nik zenbat
 eman zion, bañan zerbait eman ziola ba-
 dakit nik.

Beste bertso batzuek ere jarri zituan,
 bañan oiek etziran zabaldu.

Emengo neska bat, goitik bera edo be-
 tik gora zijoala, askotan pasatzen zan Txi-
 rrita lanean alperrak egiten ari zan toki-
 tik; ta beti burla egin bear. Ez dakit nik
 zer esango zion, bañan:

–Zerorri añeko alperra ez dezu egin-
 go, ez!

Olako zearen bat, desaideren bat egin
 bear beti. Ta Txirritari etzion grazirik
 egingo. Inñori ez digu egiten, eta ari ere ez.
 Broma pixka bat gustatuko zitzaion, ba-
 ñan ainbestekoa ez.

Ta orduan bertsoak arek jarri neska-
 txia orri. Bañan erretorea enteratu zan,
 Don Jose Goikoetxeandia, Tolosa ondo-
 ko Ibarre’koa berez, eta sartu ta nolabait
 ere moztu zuan ori. Bertsoak jaso edo
 zerbait ere egin eta etziran zabaldu.

Bañan bukatu zitzaizkion neskatxa
 orri Txirritari burla egiteko gogoak...

Gero Txirrita joan zan emendik, eta
 alper batzuk or egon ziran, *Anbune*’ko
 ateetan, kamioaren ondoan, saldu gabe
 puska batean, ura alde egin da gero ere.
 Bañan gero izkutatu ziran oiek ere.

Ez dakit Txirritari emango zioten diru-
 rik edo etzioten. Bañan baleike Joxe An-
 toniok berak saltzea. Seguru asko, danak
 etzizkan Txirritak pagatuko-ta. Nundik
 pagatuko zizkion ba gizajoak? Beretzako
 ere asko bear zuan da...».

* * *

Beste gertaera au ere Ataun’go Kres-
 zentzio Imaz orrek berak kontatua:

San Gregorio batzutan, –San Grego-

riotan izaten dira festak goiko barrio ortan-, bertsotara ekarri zuten Txirrita ori, festa jartzeagatik.

Garai artan, inguru onetan ibiltzen zan eskean emakume aundi bat. Esaten zioten *Mokolegorra*. Ardo asko edaten zuan eta arrapatzen zituan aundiak. Eta ura an zegoan ikulluan, edanda, lotan. Eskean ibiltzen zana, bañan festa aprobetxatuko zuan, da an baztarrean botata zeukaten; norabait bota bear bistatik-eta.

Taberna artako nausia zan errementaria, eta Txirritari esan dio errementari orrek:

–Txirrita, nerekin etorri bear dezu.

Eraman zuan ikullura andre orren ondora, ta esan zion:

–Ara emen zuretzako andregai!
Ta Txirritak erantzun zion:

Adiskidea, egin dirazu
zuk pretensio ederrik,
aldamenetik ez det olako
toreadore bearrik;
Moko-legorrak bustiko du⁴
billatzen badu patarrik,
bizio ortan trebe badago
bizi dedilla bakarrik.

1. Doiñua, guk magnetofonoz jaso eta Manuel Yaben ta Anbrosio Zatarain'ek solfeoz papereratua.
2. Alfer-alferrik da.
3. Neskaren izena.
4. Neurria motx dago emen; bearbada, *digu*, *dizu* edo olako zerbait esango zuan Txirritak.

GALIZIA'KO ARGINAK

Plazentzia'n ere izan zan Txirrita denbora puska batean. Ango trenbideko lanetan aritu omen zan, eta, itxurak diranez, gallego mordo bat ere an zebillen, aiek ere argintzara etorriak.

Iru bertso auk ordukoak omen dira. Mondragoi'ko Santa Ageda'ko *Cuatro Vientos*'ko Juan Jose Zabala'ren aotik jasoa ditugu. Guk esan bear bagendu, paperetan zabaltzeko paratuak izango dira; ez aotik aora kantatuak. Bañan inprentatu ote ziran ez dakigu. Onelaxe dira:

Galizia'tik datoz
onera arginak,

egingo'ituztelako
pareta berdiñak;
oien oñetakuak
zapata botiñak,
gaztañ ipurdiak
apropos egiñak.

Trozora jua eta
pipa bete sarri,
ez dula autsiko orrek
katillu bete arri;
beso makalak eta
agiñak zorrotzak,
euskeraz ikasteko
belarriak motzak.

Orain Plazentzia'ko
emakumiari
ejenplu txiki bana
nai nioke jarri:
... datorrenian¹
azkar atiak itxi,
gallego jende orrekin
konfiantza gutxi.

* * *

Bertso auei buruz, bi gauza esango genituzke. Bata, bigarren eta irugarren bertsoak puntuak desberdin dituztela; binaka alegia. Txirritak etzuan inola ere olakorik jarriko. Oietako bakoitza, bi bertsoekin osatua egongo da.

Eta bigarrena, Xenpelarrek frantzesei jarritakoekin antza dutela. Ain zuzen, Xenpelarrek onela dio bertso batean:

gero altxa, txutik jarri,
pipa bana lurrez jarri,
egunian ezin ausi
katillo bana arri.

Dagoan bezela, *jarri* bi aldiz punturako alegia, poto da; ta Xenpelarrek, guk uste, etzuan ola jarriko. Bañan ori ez da gaurko auzia. Gaurkoa da, bertso erdi ori eta Txirritaren bertso auetako bigarren-goaren lenengo erdia, berdintsuak dirala.

Txirritak, konturatu gabe, Xenpelarren puntu oiek sartu ote zituan? Edo, bestela, bertso auek eman zizkigunak, Txirrita eta Xenpelarren saillak alkarrekin nastu ote zituan? Ez dakigu zer izango dan.

1. Ezin irakurri izan det, emen zer idatzi nuan. Orra presakako lanak zer diran.

ARNOATE'KO SENDAGILLEA

Elgoibar'en bada Arnoate deritzaion baserria. Erritik oso urruti dago, Bizkaia ta Gipuzkoa'ko mugan.

Garai artan oso sonatua zan baserri ori, orduko «kurandero» edo sendagillerik onenetako bat angoa zalako. Euskalerrri guzitik joaten zitzaion jendea. Aren ondorengoak dira Elgoibar'ko Arrillaga mediku famatuak.

Batean, Txirritak anka autsi omen zuan, eta bera ere Arnoate orrengana etorri zan.

Sendagille ori egin bear ziranak egiteko prestatu zanean, onela esan omen zion Txirritak:

–Asi baiño leen, bertso bat bota nai nuke.

–Bota zazu, bada.

Ta, gutxi gora-beera, onelako bertsoa kantatu zuen:

Atzo Donosti'n nenguan eta
gaur Elgoibar'era ekarrita,
sillan ipiñi naute
bertan exerita,
gaur bañon gustorago egon dek
bost aldiz Txirrita.

Gabonzar egunarekin feria izaten da Elgoibar'en; eta, sendatu ondoren, urte batean, Txirrita ere an zan feria ikusten.

Ferian zebilela, alako batean, Arnoate'ko sendagille ori plazara zetorrela ikusi zuan.

Orduan, idi apustuetako arri beltzaren gaiñera igo zan, eta besoak zabaldu eta ixiltzeko ojua egin zion jendeari.

Jendea, Txirrita gisa artan ikustean, elizan bezin ixilik gelditu zan.

Eta Txirritak bertso au bota zuen:

Orain dator gizon bat
zorionekua,
izenez da Julian
Arnoate'kua,
amaika ezur autsi
konpondutakua,
nik ori dala uste det
munduko jainkua.

* * *

Au kontatu diguna, Bergara'ko base-
rri batean jaio eta orain Tolosa'n bizi dan Bizente Mujika da. Bera ere gaztetan bertsoan pixka bat egiten zuana.

Azkoiti'ko euskal festetan, ganaduen sariketa zala-ta, artean amalau urte besterik ez bazituan ere, etxetik Azkoiti'raiño bialdu zuten, milla kilo baiño geiagoko zezen batekin.

Nola edo ala jakin zuan Txirritak mutiko ura bertsoan pixka bat egiten zuala, eta puntu au jarri zion:

Amalau urte ez ta
mutilla bikaña...

Ta Mujika'k:

Tamañua artze'idazu
nai dezun tamaña;
ikastia nai nuke
zuk dakizun aña,
lan zalla izango det
maixu ona zera baña¹.

1. Bizente Mujika, Tolosa.

SAN JUAN BEZPERAN

Beste tokietan Santa Ageda bezperan bezela, Ernani aldean San Juan bezperan ibiltzen dira etxez-etxe kantari eta eskean. Txirrita, berriz, koplaria izaten zan.

Bikario eta alkatearen etxeetatik asten omen ziran; gero kontzejalak, beste apai-zak, medikua, beterinarioa...

Danen berri ondo zekien bat Txirritaren ondoan joaten zan, bakoitzari zer esan bear zitzaion salatuz.

Guk bildu eta emen jarri ditugunak, ez dira danak urte berean boteak izango; baiña ondo aditzera emango dute urtero gau artan nola ibiltzen ziran kopla eta bertsoan.

Iru okin-morroi Txirritari entzuteagatik atean zeudelako:

Baratxuri ta Galdeano ta
Buztintxulo da bestia,
oik bezelako iru mutiko
erri guztian eztia.

Ia, mutillak, zintzoro asko
segi zazute lanian,
bestela ez dek atsein izango
Pello etortzen danian.

Zaragueta'renean, urte batean duro bat eman zieten. Urrengoan, berriz, bi pezta. Eta, irugarrenean, Txirritak onela kantatu zuen:

Aurten bi urte durua zan da
joan dan urtean bi pezta,
deskuidatutzen ez baldin banaiz
aurten xentimorik ezta.

Adarraga'renean gizon lodi bat bizi omen zan; eta, balkoira azaldu zalako, kopla au bota zion Txirritak:

Gure bertsoak aitzeagatik
etorri al da berori?
Balkoia ximple egon bear du ta
kontu beraño erori.

Gaberdian, serenoak ixiltzeko esatean:

Kapa-petikan atera digu
urka añako ezpata,
errespetua jarri nai luke.
iru arrua ez da-ta¹.

Urte batean, irurogei ta zazpi urteko gizon bat, ogei ta bi urteko neska batekin ezkondu zan. Neska ori, *Enporru* esaten ziotenaren alaba zan. Kopla au bota zion gizonari:

Zuk egindako tratuarekin
arritzen dago erriya:
traje zarrari erantsi diye
aurten *enporru* berriya².

Ernani'ko apaiz bati:

Aurten berorren sermoiarekin
konbertitu da jendia,

astoa ostuta bizi ziranak
entregatuak badia.

Koplatzen ari zirala, neskata bat leia-
tillatik begira zegoan. Txirritak somatu
eta au bota zion:

Ez du uste baña nik ikusten det
nola dagoan txut-txutik
kamis utsikan, guri begira,
leiatillaren txulutik.

–Ez, ba! Ez nago kamisa utsik! –esan
omen zuen neskataxak asarretuta³.

Don Migel Mendikute, garai artako
Ernani'ko bikario zanari, etxeko bal-
koian, plazan, bere ama eta anai apaizare-
kin zegoala:

Emakume bat obeagorik
ez da izango munduan,
Bikariua ondo bizi da
ama Petraren onduan.

Don Migel Jauna jakin nai nuke
noiz izango dan etxian,
konfesio on bat egin nai nuke
urrena egokitian.⁴

Meza eman da sermoiak egin
ama zarraren onduan,
berori bezin gizon formalik
bizi ote da munduan?

Erri guztiak maitatutzen du
eginagatik zartzera,
biyar goizean berorregana
joan biet konfesatzera.

Biiyarko zertan utziko ditut?
Esango dizkat bertatik:
ollar aundi bat ostu nuen bein
Astigarra'ko bentatik.

Bikariyua eta apaiza,
jesuita da bestia,
etxe batean iru olako
nun-nai billatzen ezta⁵.

Konfesio dana egin omen zion, bar-
kazioa eskatu eta guzti.

* * *

Ona emen mutil aietako batek, Erna-
ni'ko Egañaene'ko Fernando Iturralde'k,
kuadrillan Txirritarekin zebilela, gogoan
artu eta esan zizkigunak:

Don Migel Mendikute erriko bikario
zanari:

Amaika anima zeruban bada
Don Migel dala meriyo,
zerbaitengatik jarriya dute
Ernani'ko bikariyo.

Don Migelen aitonagatik:

Bedorren modun aitonak ere
Don Migel zuben izena,
amaika ijito eta eskale
mantendutako gizona.

Aldamenean, Ameriketean izandutako
Don Juan Maria apaiza bizi zan. Oni one-
la kantatu zion:

Aspaldi ontan zer moduz dabil
Don Juan amerikanua?
Emengo lanak bukatu ditut,
bedorregana banua.

Pena artzen det, esan dirate
reuma daukala ankian;
ez ikaratu, kenduko diyo
Asuero'na juatian.

Biamonean meza berria eman bear
zuan eta aita ta amaren erdian balkoian
zegoan Don Pedro apaizari:

Aita ta ama kristau ondraduk,
semia sazerdotia,
gogua emate'it berarengana
konfesatzera juatia.

Gerora beida egon betandik
astera nua bertatik:
ollo aundi bat ostu izan det
Astigarra'ko bentatik⁶.

Atxukarro apaiza zanari:

Apellidua Atxukarro du,
Don Jerbasio izena,
amaika anima purgatoiotik
ateratako gizona.

Meza-emale azkarra eta
konfesoarea jatorra,
goatze'al zaizu noiz saldu nizun
zazpi urteko zekorra?⁷

Uste eztan kasua pranko
arkitutzen da gureztat,
arakiñentzat eztaukat bañan
orañ e badet zureztat.

Kamiñero-kabo izandutako batek du-
roa eman zien; orduan Txirritak:

Duro eder bat bialdu digu
zimelduba ta onduba,
kamiñero zebillen arte
norbaiti muntan kenduba.

Adarraga'nean sagardoa ta txokola-
tea saltzen baitzuten, onela kantatu zuan:

Negun sagardo ederra badu,
udaran txokolatia,
oiek badute jendia gober-
natzeko borondatia.

Goiz jeiki eta pasatze'ituzte
mendiak eta basuak,
urrutitik ekartzen dituzte
meriendatzeko usuak⁸.

Beste toki batean, kopla bota eta bota
ari zan, baña limosnarekin etzan iñor
ageri; geiago kanta arazi nai zioten nun-
bait. Ori ikusirik, Txirritak:

Edozein gauza sortutzen dute
kristau eskandalosuak,
eskian gabiltzala igual
esango dute batzua.

Orduan neskamea azaldu zan diruare-
kin, eta Txirritak:

Nik bi andregai izandu ditut
panplonesa ta bilbaña,
emandakua artu îten det
eskian ez nabil baña.

Amerikano bati:

Okela suelto izan ezker
etzait gustatzen arrayik,
zure etxera etorriko naiz
falta badezu morroyik.

Neri gustatutzen zaitena da
beatzik arte oyian,
bañan amabik ingururako
an izango naiz mayian.

Beste indiano bati:

Agidanian ikusiya da
Amerika'ko kortia,
ango urriak pillan dauzka ta
nik e nai nuke partia.

Amerika'tik diru askokin
gizon ederra etorri,

nik ere laister juan biar det
danak ezpaituzu ekarri.

Indiano onen koñata jostuna zan, eta
galtzak josteko kantatu zion aurretik, eta
gero:

Ze estatura-modua dedan
bialduko'izut tarjeta,
oso aundiyak biarko ditut
baldar-baldarra naiz eta.

Etxe bateko alaba, neskazarra bera,
Madrident neskame egoten zan, baiña San
Juanak, erriko festak, pasatzera etorria
zan, eta ari:

Madrill aldetik ze ideatan
etorri zerade, Rita?
Ernani'n ondo saia zaitia,
soltero dago Txirrita!

Ernani'n bizi zan Goierriko mutiltzar
bati kantatua:

Etxe onetan izan biar du
goiarriarra morroia,
mutiltzartuta egiña dauka
anka-zañetan erdoia⁹.

Era onetan, etxero kantatuaz, erri gu-
ziari jira ematen zioten. Lagunak sasoiko
gazteak eta bera gizon zarra, ordea, eta
azkenerako neke-neke eginda gelditzen
zan Txirrita.

Batek, ala ikusita, onela esan zion bur-
laz:

–Karruan ar zazue, karruan!
Ta Txirritak:
–Baita i tiraka jarri!

* * *

Urrengo zortzi bertso auk, San Juan

bezperan kantatu zizkion Txirritak Don
Pako Sagastiberri jaunari. Don Pako jaun
ori Ernani'ko beterinario zaarra zan, eta
larogei ta bost urte zituan, bertso auk
gure eskuetan jarri zituanean.

Garai artan ba omen zan entzun eta
besterik gabe bertsoak buruz ikasten zi-
tuan baserritar bat. Oni Don Benantzio
Rekalde Donosti'ko beterinario zanak ja-
so zizkion; Don Benantziok Don Pakori
bialdu; eta Don Pakok guri eman. 1918
urte inguruan kantatuak omen dira.

Beterinaio jaun onek dauka
Don Pako bere izena,
makiña bat bei, txekor ta idi
sendatzen duan gizona;
guztiz langille ona da eta
bere obretan zuzena,
jendea gustoz bizitutzeko
emen bear genduena.

Osasun ona sasoiarekin,
lanerako beti gazte,
estu ta larri ibili asko
eragiñazten dizute;
inbusteriyan ai naizenikan,
Don Pako, etzazu uste,
emen ezikan geiotan ere
asko famatzen zaituzte.

Animaliyak gaixotutzian
Don Pako orreri deitu,
bisitarako leizken guztiyak
azkar sendatuzten ditu;
gizontxo bati lengo batian
neronek diot aditu:
«Illa piztuzten ez daki baño
gañerakoak baditu».

Goizueta'n ere gaixotutzian
bei, idi edo abere,
guztiya galdu baño lenago
beraren bear dirare;

joateko deia artu orduko
laister dijua ara're,
gizon au ezta beñere izan
bere buruan kupire.

Amaika aldiz iyoa dago
azkar Arano mendira,
bizikletan da anka ariñakin
au bear zuten tokira;
au gaxotua zegoen batian
erri artan zan kupira,
emakume ta jendia pranko
negar egiañak badira.

Itz ona pranko esanta nago
ta oso merezituak,
entzun ditzazu bada gustora
nik jarritako bertsuak;
aurrera ere segitu beti
orain arteko pausuak,
osasun ona urte askotan
eman deizula Jainkuak.

Propina artu eta ondorenean, despei-
ran kantatuak:

Propinarekin etorri dira
Xixili eta Jexuxa,
oiek ez dute dirua ematen
zenbaitek aña eskusa;
nere sakela ez dago bada
len zegoen bezin utsa,
ezkerrik asko, gaur urte bete
etorriko naiz onuntza.

Neskatxa oiek etorri dira
nagusiaren partetik,
agindu du-ta: «Eman dirua,
deika daude-ta atetik».
Kontentu nua gaurko onetan
etxia onen aurretik,
urte askuan, gure Don Pako,
egon zaitia bizirik.

1. Leenengo lau koplak oiek ez dakit zein en aotik jaso nituan. Bosgarrena, Ernani'ko Antonio Pagola'k eman zidan.

Lino Kalonje bertsolaria, Bentaberri, Donosti:

Kapa-petikan atera digu
urka añako ezpata,
kuadrilla dana ikaratu du
iru arrua ez da-ta.

Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936) 50 urteurrena* liburuxka:

Kapepetikan atera digu
eun da alako ezpata,
jende guztia ikaratu du
iru arrua ez da-ta.

2. Lino Kalonje zana, Bentaberri, Donosti.

3. Bi koplak auk: Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

4. Bi koplak auk, Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936) 50 urteurrena* liburuxka.

5. Lau koplak auk: Pablo Zubiarrain, «Ernani-Txikia» bertsolaria, Ernani.

6. Koplak au, piska bat aldatuta, or goien arki dezake irakurleak; Don Migeli kantatutzat jotzen da.

7. Ernani'n jaio ta gaztetandik Donibane-Lohizun'en bizi dan Eduardo Egaña'k (84 urte), beste onela eman zidan koplak au:

Predikatzaile ederra eta
konfeszatzaile jatorra,
gogoan daukat noiz saldu nion
iru urteko txekorra.

8. Juanjo Uria: *Txirrita (1860-1936)* liburuxka.

9. Eduardo Egaña, Donibane-Lohizune.

SAN JUAN FESTETAN

«Jendetza aundia biltzen zuan Txirritak, bertsoak kantatzera norabait joaten zanean; eta ez gutxiago Ernani'n kantatu bear zuean, bertako semea baitzan, naiz gaur desegiña dagoan Urumea ibaia-
ren ertzean zegoan Latze izeneko base-
rrian sortua.

Ernani'ko San Juan festetan bertsotara deitzen ziotenean, zintzo joaten omen zan, eta portatu ere bai, erriko jendeari naiko parra egin eraziz bere bertso eta ateraldi arrigarriekin.

Amabost bat egun pasatzen omen zitu-
en, festetara zetorren bakoitzean, pla-
zan, tabernetan eta sagardotegietan ber-
tso-saio galantak egiñez.

Amaita algara gozo egiten omen zu-
ten bertako gazteak; eta triste zeuden za-
rren biotzak ere bai omen zekien ark nola
alaitu.

Errian ate guztiak zabalik zeuden be-
rarentzat. Ain maitea edo gogozkoa bai-
tzuten danak.

Baña geienean Egaña izeneko ostatura
biltzen zan. Emen antolatzen zioten gela
bat lotarako, eta gela orri Egaña'nekoak
Txirritaren gela edo kuartoa deitzen omen
zioten beti.

Orain dator emen ixtori xelebrea, os-
tatu ortan Txirritari gertatua.

Ostatu ontan len komona bajoa omen

zuten, eta, Txirrita gizon aundia zala iku-
sirik, bertako etxeoandreak festetarako
komona berria jartzea pentsatu omen
zuan, gorputzetik egin bearrak jendeak
exeri ta lasai egin zitzan.

Beartu omen zan, bada, Txirrita ere
eta sartu omen zan. Baita exeri ta lasai
jarri ere. Baña ipurdia beera sartu omen
zitaion eta iñola ere ezin atera; eta, larri-
turik, jendeari deika asi omen zan.

Joan omen ziran ez dakit zenbat gizon
berari laguntzera. Danak tiraka atzapa-
rrak eten bearrean, eta ala ere ezin atera
Txirrita komon berri ortatik. Eta ala, tira-
ka ta bultzaka zebiltzala, or puskatu dute
komona.

Pena ederra izan bear zuan Egaña'ne-
ko etxeoandreak. Izan ere, ez da gutxia-
gotarako: festetarako komon berria jarri
eta bereala puskatu.

Baña Txirritak esan omen zion:

–Barkatu, etxeoandre. Marka ederra
egin degu. Baña etzaita aserretu. Badaki-
zu ofizioz argiña naizela, eta neronek
gingo dizut karaitz arriarekin berria sen-
do-sendo»¹.

1. Sebastian Salaberria, Aiete, Donostia. Ida-
tzita 1979-VI-12-an bialdua.

ZENBAIT ATERALDI¹

Donostia'n, Parte Zaarrean zijoala,
norbaitek galdetzen dio:

-Zer ordu da?

-Amarrak amar gutxi.

-Orduan baterez².

* * *

Bein batean onela galdetu zioten:

-Txirrita, zer pentsatzen ago edo zer
duk?

-Negar egiteko gogoia.

-Egin zak, ba.

-Etzekiat, ordea³.

* * *

Zigarroa erretzen ari zan batean, la-
gun bat alderatu ta esaten dio:

-Kaixo, Txirrita! Ekatzak zigarro bat.

-Utzi nioken.

-Erretzen ari aiz, bada...

-Bai; baiña emateari⁴.

* * *

Etxe batera joan eta zakurra miñez
dagoala ikusten du. Galdetzen du:

-Zer du zakur onek?

-Tripako miña.

-Nik badet, bada, erremeio bat ori
sendatzeko.

-Bai?

-Bai; ta eman ere egingo dizut: Kyrie
eleisonak eta Pater Nosterrak nastu-nastu
egin ta eman⁵.

* * *

Beste egun batean, etxe batera joan
eta zakurra zaunkaz ateratzen zaio. Jo-
tzen du makillarekin, eta badijoa zakurra
itzuli karraxika.

Etxe artako gizonak irten ta esaten
dio:

-Oi! Zer zan ori, Txirrita?

Eta onek:

-Zakur bat erritan,
kolpe bat eman diot gerritan,
apenas geiago aren berririk dan.

* * *

Zaartutakoan, ibilpidea asko torpetu
zitzaion Txirritari; eta, batean, onela gal-
detzen dio anka moztutako kastillano ba-
tek:

-¿Cuánto camino hay de aquí a Pasa-
jes?

Ta Txirritak:

-I ta ni berdin egongo gaituk pausa-
jez⁶.

* * *

Norabait ere bertsotara joan bear

omen zuan; baiña lantegiko nagusiak ez omen zion uzten.

Lanaren *baja* artzea pentsatu zuan orduan. Medikua ekar arazi zuan, eta onek galdetzen dio:

–Zer dezu, bada?

–Ara, jauna: iztarra auditua.

Altxa ditu Txirritak galtzak eta erakutsi dio bere iztar puska. Etzion bat besterik erakutsi, noski, bestea berdiña zala ikusi etzezan.

–Ta nola auditu zaizu?

–Ez dakit, bada, jauna.

Medikua ikusten ta ikuitzen jardun zaio, alako ta alako botikak artzeko agindu dio, *baja* eman ere bai, eta an joan zan serio-serio, nolako *petardoa* eman zioten iñondik ere somatu gabe. Baita Txirrita ere bertsotara lasai asko⁷.

* * *

Ondarrabi'n ostatur zegoala, egun batean, illunabarrean, goiz erretiratu omen zan etxera. Baiña orduantxe komeriantek errira sartu, soifua joz.

Txirrita oiera zijoan, ta erazten ere asia zan. Baiña aiek somatu zituenean, alpagata bat eskuan eta bestea ankean zituala, kalera abiatu zan, erdi oiñutsik.

Etxekoandreak ikusi eta onela esan zion:

–Baiña, Txirrita! Nora zoaz postura ortan?

Eta Txirritak:

–Ama zanak askotan esaten zidan, ez banintzan zintzotzen, zartzera komeri ederrak ikusi bearko nituela; ta oraintxe ikustera noa⁸.

* * *

Egun batean, norbaitekin topo egin eta onek:

–Kaixo, Txirrita! Zer modu aspaldi ontan? Ori arpegi gaztea dezuna!

Ta Txirritak?

–Arpegi gaztea? Au da, bada, dedan zaarrena...⁹.

* * *

Beste batean, Txirrita Martutene eta Astigarraga bitarteko Zapirain arrobian zegoan, lanean ari ziranei begira, etxera zijoala gelditua.

Langille batek:

–Zer degu, Txirrita? Arrobia erosteko asmoan?

Eta Txirritak:

–Irakin batekin eta birekin ez da be-reala erosiko au...¹⁰

Bietan *erosi* idatzi degu, izketan orrela esaten dalako eta emen ala bear dualako. Baiña berez, gramatikaz alegia, leenengoan *erosi* eta bigarrengoan *egosi* bearko luke.

* * *

Ondo ezik zegoan batean, medikua-rengana joan zan.

Medikuak, oi dan bezela, ondo ikusi ta galderak egin da gero, bere erremedioak eman zizkion.

Eta orduan Txirritak:

–Zenbat urte geiago pasako ditut, oiek eginda?

–Lau edo bost urte geiago bai beintzat.

–Lau edo bost urte gaizki pasatzea baiño, bat ondo pasatzea obe izango da, eta nik leengoan segituko det.

Eta ala partitu zan¹¹.

* * *

«Gau batean, Txirrita oiera joan eta bere lagunak jokoan gelditu ziran, eta aietako bat, diruak aitu eta Txirrita oiean zegoan tokira joan zan eskatzera, eta esan zion:

–Joxe Manuel, ekatzak duro bat!

Onek etzion kasorik egin, eta berriz ere esan zion:

–Joxe Manuel, duro bat ekatzak, biar bueltatuko diat eta!

Txirritak ezta kasorik ere, eta irugarren aldiz esan zion:

–Motell, ekatzak duro bat, lo ez baago beintzat!

–Lo niok! –erantzun zion Txirritak, eta durorik eman gabe bialdu zuan¹².

* * *

Pasaian etxe bat egiten ari ziran. Langilleetako bat Txirrita zan.

Etortzen omen zan arkitetua, baiña ez omen zion bein ere ez egun on ta ez arratsaldeon inori esaten, eta Txirrita oso sentitua zegoan.

Egun batean, ikaragarri bero omen zegoan; arkitetua, berriz, egarri zan, eta onela esan omen zuan:

–Edateko moduko urik bai al dago emen aldian?

Eta Txirritak:

–Nai deken aiña edan zak! Ortxe zio baldian!¹³

* * *

Irun'go Elgorriaga'renean labeak egiten ari ziran. Arotzak, argiñak bukatu zai omen zeuden, lanean asteko.

Txirrita, larunbatean jornala kobratuta, ez omen zan lanera berriro joan urren-go asteazkena bitarte. Nagusiak, orduan, arentzako lanik etzegoala esan zion.

Txirrita, bere erremintak artu eta ba omen zijoan, eta bidean arotz-nagusia topatu zuan. Onek ala galdetu zion:

–Txirrita, bukatu al dituzute labiak?

Eta Txirritak:

–Ala esan dit jabiak!

Baiña artean lan asko zegoan; Txirrita bakarrik zan despatxatua¹⁴.

* * *

Txirrita eta bere lagun Jerman Zubeldia Goizueta'n ziran. Biak mozkortu eta lotara joan ziran. Lo aldia egindakoan, itz auek izan zituzten alkarrekin, Txirritak asita:

–Zer moduz zaude, Jerman?

–Gaizki! Andre aur egin berria bezela!

–Ni gaizkiago! Egin ezin duena bezela!¹⁵

* * *

Egun batean, jornada aundi xamarra-rekin Pasai'tik Altza'ra omen zijoan Txirrita, eta bide ondoko sagar arbol baten azpian etzin omen zan.

Ala zegoalarik, Altza'ko bi gizon bide artatik gertatu omen ziran. Aietako bat, oso plakoa omen zan, eta onek ala esan omen zion lagunari, Txirrita lo zegoalako ustean:

–Aizak: ikusten al dek orroko zerri ori?

Ta Txirritak:

–Oni bezela lepoa loritzezkero, aspaldian baiño otordu obeak egin bearko dituk!¹⁶

* * *

Txirritak, konfesatzera zijoan batean, itxi auek egin zituan bere lagun batekin:

–Nora oa, Joxe Manuel?

–Konfesatzera,

pauso bat aurrera baiño naiago nitek bi egin atzera!

–Orduan zekorrek ere azitze'ituk?

–Bai; amalau urtean nerekin zebillek, eta urruxa edo idixkoa dan etzekiat!

–Orduan eztiok jaten asko eman!

–Bein ere mokarurik ez, ta beti azi ta azi ari dek!

–Olako zekor bat artuko nitek nik ere!

–Onekin eztek, ba, probetxurik izango; au beste bati eman bear zioat¹⁷.

* * *

Errenteri'ko elizako eskaillerak berri-tzen ari ziran. Langilleetako bat, argiña izaki, Txirrita zan.

Azentzio biaramona zan, eta Don Gregorio Lekuona apaiza zanak onela galdetu zion:

–Txirrita, atzo berrogei kredo esan al zenituan?¹⁸

Eta Txirritak:

–Ez, jauna; bat berrogei aldiz!¹⁹

* * *

Bolara artan, Txirrita Zubieta'ko Iruiñ'en ari zan lanean argintzan.

Bein batez, Iruiñ aldera dijoala, or ikusi du Aizpurua'ko nagusia, sasiak azpian artutako sagar baten ondoan dagoa-la.

Txirritak onela esan zion:

–Nola leike sagarra ola egotea, larrak eta zikiñak artuta?

Eta Aizpurua'ko nagusiak:

–Bai, zearo alperra da ta!

Eta Txirritak ostera:

–Berak ere zerbait esango luke!

Andik puska batera konturatu zan Aizpurua'ko nagusia Txirritak zer esan nai zion, eta onela esan omen zuan bere artean:

–Orrek neri esan dit alperra!

Baiña ezer esaterik ez, Txirrita ordu-rako andik aldegiña zan eta²⁰.

* * *

Fermin Imaz bertsolaria goizean arraia eta arratsaldean abillanak saltzen jarduten omen zan.

Bein batez, ola zebillela, Txirritarekin topo egin zuan. Onek galdetu zion:

–Zer saltzen dek?

Imaz'ek:

–Abillanak.

Eta orduan Txirritak:

–Ez dik lotsik asko ola dabillanak!²¹

* * *

Egun batez onela esan zion Txirritak Saibururi:

–Sekula baño fuerteago nago, primo!

–Zer ba?

–Gaur ere etxeko belazera joan paotxa ebakitzeza, eta eun ta berrogei kilo lurretik altxatu ditut.

–Bai zera! Nola?

–Nola? El al dakizu an nola dagoan sagar bat?

–Bai...

–Ba, andik txintxilika jarri naiz!²²

* * *

Beste batean, fameli aundia zuan gizon batekin bertsotan ari zala, onek mutil zarra zalako burla egin zion.

Orduan Txirritak bertsoa bota zion, esanez:

–Zuk amar aur badituzu, baiña erdiak besterenak.

Orduan asarretu egin zan bestea; baiña Txirritak esan zion ez asarretzeko; ea uste al zuan bereak bakarrik zirala; ea andreak ere ez al zuan arek ainbat parte aurrekin²³.

* * *

«Eun da berrogei kilotik gora zan Txirrita.

Gerri-buelta izugarria bear pixu oiek artzeko, oso altua etzala jakiñik.

Txixa-larritu da egun batean, eta an ari da errekatxoia egiten.

Mutil koskor bat begira, arreta biziz.

–Ezer ikusi al duk mutiko?

–Bai, jauna...

–Eskumuiñak emazkiok, nik amar urte ontan ez diat ikusi-ta»²⁴.

* * *

Bein batez, Ernani'n, gure auzoko aiton bat, Praixku izena, Amezqueta'koa berez, mezatara joan eta gero sagardotegira sartu zan; eta Txirrita ere an.

Aiton orrek esan zuan:

–Emengo sagardo eta pitarrak baño, naiago det nik Amezqueta'ko ura.

Eta Txirritak:

–Bai nik ere, besteri emateko»²⁵.

* * *

«Zerriai azpiak ateratzen aritu ta aitarien aize preskoa artzen omen zegoan bein batean Txirrita ori.

Ta lenago oitura ala zan: galtzak gora jasota azpiak atera. Guk ere ala ikasi genduan: alpargata zarrakin, ankutsik igual.

Txirrismaruz beltz-beltz eginda euki-ko zituan Txirritak, eta kaballero bat andik pasatzea egokitu. Esan zion:

–Kaixo, Joxe Manuel.

–Kaixo. Arratsalde on.

–Zer? Preskuran?

–Bai, jauna. Lan pixka bat egin ta deskantsuan.

–O! Galtzerdi dotoreak dituzu.

Txirritak orduan bere artean:

–Burla egiteko al ago?

Ta gero kaballeroari:

–Nola esan du?

–Galtzerdi dotoreak dituzula.

–Ala iduritzen al zaio?

–Bai, bai. Austen zallak izango dira gañera oiek.

–Ori ere bai?

–Bai. Ez diezu oiei zulorik egingo.

Ta aurrera bazijoan ta Txirritak:

–Adi beza.

–Zer?

–Zer esan du? Ez dietela zulorik egingo?

–Ez.

–Gantzontzilloak klase bera dauzkat, ba, bañan badaukate atzean»²⁶.

1. «Ateraldiak» esan bearrean, «Txirritaren sakeak» ere entzun izan degu. Ez dago gaizki esana. Erresto gaitzeko sakeak, alajaiña.

2. Pello Zabaleta, Errenteri. Gertaera au agertu izan da leen ere paperetan.

3. Pello Zabaleta, Errenteri.

4. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

5. Id.

6. Bizente Mujika, Etxaburu, Ormaiztegi.

7. Lorentzioenea baserria, Donosti.

8. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba, eta Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.

9. Lorentzioenea baserria, Donosti.

10. Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donosti.

11. Lorentzioenea baserria, Donosti.

12. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illobak idatzia.

13. Antonio Pagola, Ernani.

14. Antonino Pagola, Ernani.

15. Antonino Pagola, Ernani.

16. Antonino Pagola, Ernani.

17. Fernando Iturralde, Egañaenea, Ernani.

18. Oitura alaxe baitzan.

19. Jose Goñi, Errenteri.

20. Antonio Pello Aranburu, Usurbil.

21. Migel Arozamena, bertsolaria; aiton zar bati entzuna.

22. Matias Otermin, Atallo; Saibururen semea-ri entzun omen zion.

23. Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Alza.

24. Basarri: Nere bordatxotik, Zeruko Argia, 419 zenbakian, 1971-III-14'an.

25. Anizeto Kalonje, Oriamendi baserria, Aiete, Donosti.

26. Santos Leunda, Etxetxiki, Iñurritza, Zaurutz. Manetofonoz jaso.

ZENBAIT GERTAERA

Ernani'ko presa egiten, Ubarretxena-ren presa egiten aritu ziranean, Txirrita ori astelen batean joan da, bera zeratu xamarra, igandean parranda-puskaren bat eginda.

Gero, nagusiarekin izan du sekulako diskusioa eta erritan egin dute saioa. Nagusiak lenbizitik ikaragarriak esan da ixilik Txirrita; ta gero Txirritak ere eraso dio erritan da ixilik nagusia.

Bukatu omen zuten errita-saioa ta nagusiak esan omen zion, Ubarretxena zarrak:

–Begira, Txirrita: gauz bat esango di-zut!

–Zer esan bear dezu?

–Neri ola kolera etortzen zaitenean, pakean utzi bear zait!

–Ta biai batean etortzen bazaigu, orduan zer egin bear degu?!

* * *

Ernani inguru ortan argintzan ari zalarik, gau bat osoa parrandan pasa eta urrengo goizean lanera joan omen zan Txirrita, batere lorik egin gabe.

An ari omen zan arri bateri jo eta jo, iñola ere exkiña ezin egiñikan. Arria boroildu egiten da gaizki jotzen danean, da onela esan omen zion enkargatuak:

–Joxe Manuel, zer ari zera ola?

Ta Txirritak:

–Ementxe, egingo ote degun bola!

Nik ezin diot exkiñikan atera ta bertan dagola!

Bere artan utzi maillua eta arria, ta berriz sagardotegira alde egin omen zuan².

* * *

Juan Joxe Andola, orain il berria da; ura eta Txirrita alkarrekin lanean bolara batean.

Txirrita ori parrandan askotan. San Martzial batzuetan parranda ikaragarria eginda, urrengo goizean berandu lanera; ordu bete geroago.

Joan omen da lanera eta an omen zegoan; trapu zar bat odolez betea Irun'go mataderan artua, eta an omen zegoan kontuak esaten eta lanean asi eziñik.

Andola'k esan omen zion:

–Baiña, Txirrita, asi adi lanean! Nagusia emen da eta asi adi lanean!

–Esaiok miñ artu detela!

–Nola?

–Trapuaekin beatza lotuko det nik, eta ik esaiok miñ artu detela!

Eta odolez beteta zegoan trapu arekin an ari omen zan beatza lotzen eta lotzen; nagusia etorri omen zitzaion eta:

–Zer pasatzen da, Txirrita? Kolperen bat artu?

Eta:

–Bai, aundi xamarra gañera!

–Zer? Arriren batekin?

–Ez, birekin; erdian arrapatu didate-eta!³

* * *

Ni mutikoa orduan, eta perratokira joana nintzan beia perratzeraz. Zinkuneko tabernaren parean pasatzean, an ikusi nuan Txirrita ori, tabernatik poliki-poliki ateratzen. Bi makillakin izango zan ura, seguru asko. Eta an zai zeukan kotxe batean sartu zan.

Sartu zanean, okertu ederra egin zion kotxeari bere aldera. Ura okertua! Nik ez det sekulan ikusi, persona batek kotxe bati olako okerturik egiten⁴.

* * *

«Bein batean, Lasarte'n festak ziran, eta beste jaialdi batzuen artean bertsolariak ere bai. Txirrita ere an zan, kantatzeraz etorria.

Beste asko bezelaxe, Leremboire mediku ospetsua ere an zan. Medikuri, Bidasoa'z arunzko aldekoa zan berez, bañan Donostia'n zuan klinika.

Egun aietan, Txirritak ezpañean ubeldu edo mantxa txiki bat zeukan.

Medikuak, biaramonean, abixua etxera bialdu zion Txirritari, esanaz aren klinikara joateko.

Joan zan Txirrita, ta medikuak dana miatu ere bai. Ondoren onela esan zion:

–Errena kendu nai nizun, bañan ori kentzerik ez dago.

Gero onela jarraitu zuan esaten:

–Asko gustatzen zaizkit zure bertsoak, eta ni saiatuko naiz zuretzako bertsoetarako plazarik iñon billatzen dedan.

Bañan ori aitzeki bat zan; gero ikasi genduan zergatik eramanez arazi zuen bere etxera.

Erriko bikarioak esan zigun, nola Le-

remboure'k esan zion, Txirritak ezpañean zuan mantxa ura, zerbait ere gaitz txarren bat izango zan bildurra zuela; bañan etzala olakorik ezer.

Ubeldu ori andik puska batera berez joan zitzaion, eta Txirritak asko estimatu zuen medikuaren borondatea, orrenbeste maite zuela ikusita»⁵.

* * *

«Arruebarrena zarrari aditzen nion: tranbeko lana uzteko desiatzen egoten omen ziran, korrika sagardotegira joateko, Txirritaren txisteak aditzeagatik.

Berak egiten omen zitun txisteak, eta danak jarri lertzen parrez, ta antxe sagardoa edan ta txistea esan. Zortzi egunean igual antxe.

Batean, iru egun-pasa egin Olegario eta biak Mendiola esaten dioten baserri batean, da urrengo egunean Olegario etxera joan ta aldatu ta ostera Txirritagana.

Olegariok esan zion:

–Biar Txandrene'ra joan bear diagu, an sagardo ederra asi omen dek-eta!

Ta laugarren eguna pasa ta ba omen dijoaz Mendiola'tik atera ta Astigarraga'ko kalean barrena *taka-taka-taka* Txandrene aldera, ta Olegariok esan omen zion alako batean Txirritari:

–I! Ire arreba ta koñadua emen zatoztik!

–Eztek egia izango!

Txirrita an asi omen zan, bruxa zimurtua ta bruxari tiraka ta tiraka.

Etorri omen ziran da Txirritak:

–Arratsalde on Jaungoikoak!

Ta arrebak esan omen zion:

–Arratsalde on esaten dek, arratsalde

on? Ez al dek etxera joan bear? Lotsagarri zerria, ez besterik, zerria!

Ta Txirritak:

–Ni zerria banaiz, i ere ala izango aiz, ama baten umeak gaitun-eta! Aio!»⁶

* * *

Bein batez, Txirrita ta bere lengusu Saiburu bertsolariak alkarrekin topo egin zuten tabernaren batean.

Saiburuk onela esan zion:

–Triste ago, Joxe Manuel!

Ta Txirritak:

–Bai! Triste egoteko aña motibo ere badit!

–Zer dek ba?

–Zer dedan? Bi golpe txar artu dizkit!

–Bi golpe txar nun artu dituk ba?

–Nun artu ditudan? Bat, lan-tokitik despatxatu niotek; eta bestea, apupillo nengoen tokitik. Bi golpe oiek ez al dituk triste egoteko aña?⁷

* * *

Bein batean, Txirritak, Astigarraga'ko sagardotegi batera zijoalarik, Lizardi inguru ortan bere lagun batekin topo egin ta onela esan zion:

–Goazen sagardo edatera!

Ta besteak:

–Bañan etzeukat dirurik!

Ta Txirritak:

–Etzaio ajolik! Nik badit erronda bantentzat!

Ala, joan ziran sagardotegira ta upelaren ondoan exeri biak. Ta Txirritak bere lagunari:

–I ez mugitu emendikan, upelaren ondotikan!



Txirrita eta Saiburu.

Lenbiziko erronda Txirritak pagatu zuan, ta andik aurrera, sartzen zan guziari, Txirritak bertsoa botzen zion, eta aiek sagardotarako gonbidatu.

Ala, gaueko amabietan, geiago sosik gastatu gabe eta sagardoz bete-bete egin-da, biak etxera...⁸

* * *

Bein batez, Txirrita sagardotegian zala, gurasoren batzuk etorri ta esplikatu zioten nola il zitzaien semea, nola ito zitzaien, eta nai lutekela bertso batzuk jarzea; ichtori guzia kontatu omen zioten.

Ta Txirritak: ea eskribitzen bazekiten.

Ta baietz.

Ekartzeko ba papera ta tinta.

Ta Txirritak danak kantatu, aotik aora bezela; eta, bukatu zituenean, ea ondo al zeuden da baietz.

Ala jarri omen zituen. Ez dakit gezurra izango dan ala egia dan⁹.

Bertso auek, bearbada, Txirritak *Reina Regente* baporeari jarritakoak dira. Itxas-ontzi ori, lareun lagun berekin zituala, urpera joan baitzan .

* * *

Latze Txirritaren jaiotetxetik goraxea-go Iturralde baserria dago, ta San Antonio batzuetan, eguerdi aldera, ara joan zan Txirrita. Atean egin zuan:

–Eup!

Ta etxeoak:

–Oi, Txirrita! Pasa, pasa!

Ala, barrena sartu ta andik laixter maiera. Etxekoak alkarri galdetzen zioten:

–Ik gonbidatu al dek?

Ta:

–Nik ez!

–Nik ere ez!

Ala, maian exeri eta etxeko nagusia falta zala bazkaltzen asteko, ta Txirritak:

–Ez apuratu: jenez itxogingo diogu!

Alako batean, etxeko seme batek:

–Norbaitek gonbidatua etorri al zera, Txirrita?

Eta Txirritak:

–Ez, ez nau inork gonbidatu; bañan ez etortzeko ere ez dit inork esan eta etorri egin naiz bazkaltzera!

Danak parra egin zuten eta festa ederra pasa ere bai gero, Txirritaren bertso eta ateraldiakin¹⁰.

* * *

Naparroa'ko Ezkurra'n festaren bat edo zerbait ere jarri omen zuten, eta Olegario ta Txirrita oñez Ezkurra'raño.

Olegarioren semea jetxi da ta karrozerian –karrozeria zuten ba– aita falta.

Garai artan Goizueta'tik mandoakin-eta etortzen ziran, da Pello esaten zioten bat orduan allegatu Goizueta'tik.

Olegarioren semeak:

–I!

–Zer da?

–Ez itun ba bide ortan nunbait ere ikusiko gure aita ta Txirrita?

–Bai! Pagoaga'ko ortan ziaztiken!

–Pagoaga'ko ortan? Oik dituk, oik! Elurra goien-bean ari zula-ta, nora zijoa-zen?

–Biak alkarrekin an joan dituk!

Goizueta'ra iritxi dira; bi etapetan Ezkurra'raño, urruti baitago ura. An alpargata berriak erosi ta aiek kolkoan sartu.

Gaua pasatzera, *Juan-Aundienea* esaten zioten ostatuan gelditu omen ziran.

Illuntzean, afaldu ondoan-edo, atera da Txirrita kanpora pixa egiteko asmoarekin, eta, etxearen atzean artan ari zala, beste aldeko kale-ixkiñatik neska gazte bat korrika eta bera ia jotzeraño etorri kantoian. Ikaratu da ta:

–Ai! –esan da atzera egin zun.

Ta Txirritak orduan:

–Ez ikaratu, gazte, ez ikaratu! Ez dizu kozkik elduko, lepo-lepotik artuta daukat-eta!¹¹

* * *

Txirrita egun batean Ernani'n zegoala, an ikusi zuan bere ezagun batek eta esaten dio:

–Kaixo, Txirrita! Zer moduz?

–Ondo esan bearko –esan zion Txirritak.

–Aspaldian etzaitut ikusi!

–Gutxi ateratzen naiz-ta...

–Lengoan pasa nintzan zuen etxe-atarian barrena, eta ez nuan inor ikusi, zakur aundi bat katean besterik.

–A...! Biak soldata iguala zeukagu! –esan da utzi zuan¹².

* * *

«Diru gutxi zan garai artan eta pezetak bazuen bere itzala.

Astelen goiz batez, Txirrita zana aldarmio gaiñean ari omen zan argintzan.

Patrikan eskua sartu zuen batean, duro aundia billatu etzuen ba?

–Ederra izango ukek onenbeste diruen jabe izanik, or beera erori ta lepoa autsiko banu! Ez, ez nauk orren tontoa!

Ta, dana bertan bera utzita, sagardotegira joan omen zan ura gastatzera.

Gaur ez luke asko luzituko duro batekin».¹³

* * *

«Arrantxo aundia egin zuten igande eguardi artan.

Ainbeste ardo edan ondoren, *vermuta* gaiñetik.

Errukituta bezela, inguratu zaio bat Txirritari, ta onela dio:

–Orrenbeste ardo beltzen ondoren oso *peligrosoa* duzu edari ori, Txirrita.

–Ez dago kuidadorik, preso sartu dut eta».¹⁴

* * *

Lengo erretorea joan eta erretore berria etorri omen zan.

Ala, oitura dan bezela, amarretan edo amaiketari omen zuten meza nagusia igandean.

Ta Txirrita ori ere, ordurako zaartu xamarra, mezetarako asmoan zimitorio-bazterrean omen zegoan, bere bruxarekin.

Erretore berri orrek jendea ezagutu nai, bada, ta sankristaua ere an omen zegoan ta:

–Arako ura zein dek?

–Olako kaballeroa.

–Ta beste ura?

–Alako.

–Ta an bazterrean bruxarekin dagoan aiton xar potolo ura?

–Ura? Ura ez etorrita ere ez du inporta aundirikan. Arek sekula ez du xen-

timorik botatzen. Bandejarekin noanean, ola jartzen da buruz bera eta begiak itxita lo-tankeran. Txirrita esaten diote, bertsolaria-edo.

–A, bai. Aditzera badet. Oiek sagar-dotegirako ere asko bear izaten ditek berak. Bai al dakik zer egin bear dioken? Lo-tankeran zeratzen danean, pasatzean bandejarekin saietsean jo fuerte *daka!* Orduan eman bearko dik orrek ere.

Gogoan artu sankristau orrek. Ala, badijoa bandejarekin eskea egiñez, eta, arri-matu danean, betiko martxa Txirritak: buruz bera. Ta *daka!*

Orduan Txirritak:

–Zer dek?

–San Agustiñen argiarentzako.

–Nola esan dek?

–San Agustiñen argiarentzako.

–Zein dek, bada, santu ori?

–Arako ura, gizona.

–Zein? Aldarearen eskubitan makillarekin eta aurrera begira dagoan ori?

–Bai. Orixe.

–Bada, esaiok egun argiz erten eta illundu baño len erretiratzeko, eta ez dua-la argi bearrik izango. Egunez ez dik argi-faltarik izaten, eta gabez egin dezala lo, besteak egiten degun bezela»¹⁵.

1. Pablo Zubiarrain, Ernani-Txikia bertsolaria, Ernani.

2. Migel Arozamena bertsolaria, Ernani.

3. Pablo Zubiarrain bertsolaria, Ernani.

Txirritaren ateraldi au beste tokiren batean ere argitara emana degu; bañan emen diferente xamar kontatzen da.

4. Jose Jenua, Marrakane, Ernani.

5. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illoba, Gazteluene, Altza.

6. Pablo Zubiarrain bertsolaria, Ernani.

7. Segundo Kalonje, Oriamendi baserria, Aiete, Donosti.

8. Migel Arozamena bertsolaria, Ernani.

9. Pablo Zubiarrain bertsolaria, Ernani.

10. Migel Arozamena bertsolaria, Ernani.

11. Pablo Zubiarrain eta Migel Arozamena bertsolariak, Ernani.

12. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illoba, Gazteluene, Altza.

13. Basarri: *Mi atalaya montañera, La Voz de España*, 1973.X.11.

14. Basarri: *Mi atalaya montañera, La Voz de España*, 1971.III.7.

15. Santos Leunda, Etxetxiki, Iñurritza, Zarautz. Magnetofonoz jasoa.

TXIRRITAREN PIXUA

Uztapide zanak, bere *Lengo egunak gogoan* liburuan, onela kontatzen digu:

«Bein Txirritak, Goizuetan, eun da berrogei ta amairu kilo ta erdi pisatu omen

zitan. Saiburu bere lengusua ta biak bertso-tara joanda omen zeuden an, da bi mutil gazte sartu omen ziran aiek gosaltzen ari ziran tokira. Ta onela mintzatu omen ziran bi mutil gazte aiek:

–Txirrita ere gizon aundia dek, baña bere lengusua ere ez dek asko txikiago!

Saibururen erantzuna orduan:

–Ori, ni baña bost arrua geiago ortxe nunbait ibilliko da!

–Bai zera! Bost arrua geiago! Ez da orrelako Txirritarik!

Bost arrua irurogei ta bi kilo ta erdi da, ta ez sinisten aiek orrenbeste izango zanik. Saiburuk esan omen zien orduan:

–Zuek biok ere mutil gazte ederrak zaudete, baña zuek biok aña ere izango da au!

–Ezetz egingo genduke apustu txiki bat!

Pitxar bat ardo jokatu omen zuten, da bi mutil aiek jarri omen ziran baskularen gañean da eun da berrogei ta amar kilo pisatu omen zuten. Eta jarri omen da Txirrita eta *danga!* jo-azi omen zion goia.

Eta, inporta ez bazion, ikusi egin nai omen zuten zenbat kilo zan. Etziola, ba, inportik; ala, pisatu omen zan da eun da berrogei ta amairu kilo ta erdi omen zan. Gabonak aldean orren pisuko bat ez litzake gaizki etorriko zenbait pamelitan...».

TXIRRITAREN POLTSA

Uztapide zanak, bere *Lengo egunak gogoan* liburuan, *Lengo bertsolari zarren ateraldiak* izeneko atala ere badu. Atal ortan, Txirritaren beste gertaera au ere kontatzen digu:

«...Txirrita, berriz, joan omen zan Billabonara batean bertsotara bere lagun batekin.

Ura, gizarajoa, ibilpide txarrarekin ezagutu genduan guk, baña ona ere izan omen zuan arek, salto motxean amar oin egiten zituanean. Saiburu bere lengusuak esan izan zuan, bazuala sasoi amar oin errez egiten zituana; baña betiko ez izan sasoi ere, eta, guk ezagutu genduan, oso galdua zuan.

Billabonan *Iskiña* bada taberna bat,

eta antxe lo egitera joateko. Piska bat laguntzen ibilli omen zitzaion beste bertsolari laguna.

Eta, goizean esnatu zanean, poltsa palta. Kejatu omen zan gure Txirrita ori, ta esan omen zion bere pasadizoa Iskiña-ko mutillari, eta:

–Atzo oiera joan ziñanean, zurekin al zendun?

–Bai; oiera abitu nintzanean beintzat bai!

–Orduan zuri bertsolari lagunak kendu dizun juzkua edukiko dezu, poltsa?

–Nik bai!

–Or ez da besterik iñor izan, zuek lo egin dezuten kuartuan! Ba, arek eraman

badu, nik ekarriko det poltsa! –esan omen zion Iskiñako mutillak.

Eta artu omen zuan bizikleta eta joan omen zan ura egoten zan lekura, eta antxe:

–Jaungoikoak dizula egun on!

Da:

–Bai zuri ere! –erantzun omen zion bertsolariak.

–Txirritaren poltsarik ikusi al dezu?

Ta:

–Nik ez det ikusi! Non ikusiko nuan, ba, nik Txirritaren poltsa?

–Egia esan! Bestela gaizki ibilliko zera! –esan omen zion Iskiñako mutillak, oso serio jarrita.

Ta berealaxe bildurto omen zan ber-

tsolari ori, ta baietz, arek zeukala, baña eskallaretan billatu zuala esan omen zion; arek etziola Txirritari kendu.

–Ekatzu neri ta nik entregatuko diot berari! –esan omen zion Iskiñako mutillak.

Orduan atera ta eman omen zion. Pañuelo baten muturrean korapillo eginda, an omen zeuzkan Billabonan irabaziak eta etxetik eramán zituanak. Eta ala esan omen zion:

–Diruak arenak baldin badira, pañueloa ere arena izango da!

Artu bere poltsa ta Txirritari entregatu omen zion. Arek bai poz ederra noski. Arek korrika ibiltzeko etzuan balio, ta uragatik libre zan».

ZENBAIT BERTSO

Batean, bidean zijoala, bi gizon ikusi zituan Txirritak, arri kozkor bana eskuan artu eta txillar mordo bati erne-erne begira zeudela.

–Zer egiten dezute emen?

Aietako batek erantzun zion:

–Txepetxa sartu zaigu emen, eta ura arrapatu naian gaude.

Eta besteak:

–Merezi luke, ba, bertsoa botzea, Txirrita.

–Botako diat, bada.

Eta onelaxe bota zuen:

Orain esango ditut
nik kontu berriyak,
ametitutzen banau
Altxa'ko erriyak;
emen ikusten ditut
bi gizon larriyak,
txepetx baten guardian
arturik arriyak,
txillar mordo batera
begira jarriyak¹.

* * *

Bazkalondo batean, Txirrita baserri
baten aurretik pasatzen da, eta txakur ille-
-luze itxusi bat ateratzen zaio, *rau rau rau*
egiñez; eta ara zer bertso kantatu zion:

Txakurra, zer eiten dek
bidian erdiyan?
Oitura dan bezela,
atari-goardiyan.
Ez al ditek jatenik
eman eguardiyan?
Berriz e aziko zaik
illea ipurdiyan².

* * *

Beste era au, Azpeiti'ko Loiola aldeko
etxeren batean jaso da; andikan onela
idatzita bialdua:

Txakurra, zertan ago
atian erdiyan?
Usarioa galdu ez daien
etxian guardian.
Jateko gutxi emango
ziaten eguardiyan,
berriz e bizerra erten-
go dik ipurdiyan.

Eta bertso orren segidan, beste bi ber-
tso auk:

Txakurrak aurrian da
eiztariak atzetik,
eztek errez libratu
oietxen tartetik;
zazpi tiro tira ta
ala ere zutik,
ortxe gora mendira
ankak jaso zetik.

Ordu t'erdi badauzkak
ortik etxeraño,

azkarrago joat'ezpaiz
onuzkoan baño;
emen euriye eiten dik,
mendiyetan laño,
lokatzetan sartuko al aiz
izterreteraño³.

* * *

Odolkiak jateko gogoia zuan batean,
bertso au bota zion Txirritak errezildar
adiskide bati:

Gure etxetik onera
makiña bat pauso,
oñez etorri naiz da
nekatu naiz oso;
Zizerio arakiña
bazenduke auzo,
odolkia emango
lizuke akaso⁴.

* * *

Egun batean, Ernani'ko bikarioa ka-
lean arkitu eta bertso au bota zion:

Don Jose Maria Berasategi
emengo apaizen burua,
aspalditxuan letu gabe
nedukan ondo librua;
beori dalako amaika animak
irabazi du zerua,
limosnatxo bat egin nai badit,
badauka naiko dirua.

Apaizak onela esan zion:

–Orain ere ola al abil?
Ta duro bat eman zion⁵.

* * *

Beste batean, bere denboran naiko
bertso eder botea zala esan zioten, eta
bertso txar bat botatzeko.

Auxe kantatu zuan:

Bartarratsean Pamplona'n
 giñaden feriyen,
 Etumeta'ko artzaiak
 sermoia debalde,
 ernari jarri omen dek
 Aizarna'n idiya,
 ai zer esne eratea
 batere ez balu,
 nere txapela tellatuan,
 ala Jaungoikoa⁶.

Beste bat ere bota omen zuan; baiña
 ez det arkitu bigarrego ori dakienik.

* * *

Praille bat ikusi zuen batean, bertso au
 bota omen zuen:

Gaztea dala agindu eta
 ez da izaten gauz utsik,
 engañatuta komentuetan
 sartzen dituzte ain pozik;
 gero eskera biali berriz
 goseak eta ankutsik,
 santa sekulan etzazula egin
 fraile joateko ametsik⁷.

* * *

Egun batez, Txirrita deitu zuten *doge-
 ra* jotzera. *Dogera* edo *tobera*, antziñako
 oitura bati deitzen zaio: ezkontza-egu-
 nean, batzuek txalaparta jo eta besteak
 ezkonberriei kantatu.

Gorriya deitzen zioten mutil bat ez-
 kontzera zijoan. *Gorriya* ori, leenagotik
 okerra eginda zegoen. Baiña alkarrekin
 ezkondu eta okerra erremeditu zuten.

Bat edo batek eman zion Txirritari
 gertaeraren berri; eta onek bertso au bota
 omen zuen:

Enkargatu gaituzte
 dogera jotzera,
 portatu nai genduke
 prestuen antzera;
 ari mutur *gorriya*
 bildu da etxera,
 egin zuen okerra
 erremeditzera.

Bertso ori entzutean, altxa omen zan
 maietik nobioaren aita zaarra, eta egun-
 doko besarkada eman omen zion Txirrita-
 ri, ura zala bertsoa, ura, esanez; bere den-
 boran etzuela alako bertsorik entzun⁸.

* * *

Latze baiño goraxeago, ordu laurden
 baten bidean edo or nunbait, arkaitz bat
 dago, gaur egunean ere «Aurra galdu zan
 arriya» esaten zaiona. Orra nundik dator-
 kion izen ori:

Iturralde baserriko etxekoandre berria
 larrera joan omen zan auntzak mudatze-
 ra.

Aurra -artean bere aur bakarra ain
 zuzen- xextuan zeraman; ta, auntzena
 egin bitartean, xextua aurrarekin arkaitz
 orren gaiñean utzi zuan.

Arranoak ikusi, ordea, eta jetxi eta
 aurra eraman egin zuan. Aurraren azta-
 rrenik ere etzuten arkitu.

Txirritaren urrengo bertso onek ger-
 taera dana kontatzen du. Ez dakigu nun
 eta nola bota edo kantatu zuan. Onela
 dio:

Ezkonberri bat mixerablia
 auntz-kontura etorriya,
 aur txikitxo bat xexto batian
 xatar tartian jarriya;
 Urdaburu'tik tranpiyan sartu
 zaio arrano gorriya,

oartu gabe eraman dio,
ura amaren larriya!,
orain argatik deitzen diogu:
«aurra galdu zan arriya»⁹.

* * *

Urrengo iru bertso auk, *Txirrita'ren Testamentua* deritzaion liburuxkatik artuak dira. Bein emen esatea naikoa izango da irurentzako.

Txirritaren illobari galdetu genion, baiña etzekien aotik aora boteak ala pape-rean jarriak diran. Gure iritzirako, boteak izateko itxura geiago dute, eta uste ortan jartzen ditugu emen.

Ernio mendiari:

Gure Gipuzkoa'ko
mendi itxusiya,
leku askotatikan
zaitut ikusiya;
geienean bistatik
negarrez utziya,
zuk onratutzen dezu
gure probintziya.


* * *

Au, berriz, negu gordin bat izan zala-ko:

Milla zortzireunean
izan zan kortia,
emen ikusi zana
negu bat fuertia;
orma beltzak egiñaz
luzaro nortia,
berrogei egunean
gero elurtia,
ijituak amona
jan zuten urtia.

Errenteri'ko Juanito Zabaleta bertso-

lariaren kuaderno batean, bertso au bere doiñuarekin arkitu degu:



* * *

Irun'go bi aitonari:

Aitona batek besteai galde egiten zion lenguan:
eguzkitikan illargiraño zenbatxo bide dagan.
Erantzun zion: «Txit gertu dituk, kasik alkarren onduan, amaika edo amabi metro, orain ez daukat goguan».

Obe litzake pilluagorik
gaur ezpalego munduan.

* * *

Urrengo beste bertso au, etxean kantari ari zala osabari aditu eta ikasia du Txirritaren illobak. Ez jakin, ordea, Txirritarena ala beste batena dan. Gure iritzirako, antziñako bertso edo kanta zaar bat izateko itxura geiago du; eta ez bertso edo kanta osoa ere.

Azpeitia'n dirade
jokatzekoak aurtan
zazpi torero eta
bost napar zezen;
danbolin, esku-dantza,
musika ta jolasa,
adoratzeko plaza
denbora pasa,
neska-mutillak berriz
aruntz jun, onuntz jira,
an ibilliko dira,
ta gu begira⁹.

* * *

Artazuriketa omen zuten. Ari ziran lanean, neskak eta denak, txurikiña kendu eta burua biltzen, eta Txirrita ere kuadrilla artan. Alako batean, mutillen batek egin zuen nes karen bat ikutu, eta beste neska batek egin zion joan eta buruko orkilla sartu. Orduan Txirritak:

Txirrita ibiltzen da
inozente billa,
nik enkargatzen diot
mudatu dedilla;
gustagarriya zegon
orko kuadrilla,
eskutik sartu dio
Joxepak orkilla¹⁰.

* * *

Garai aietan, Oiartzun'go Zuloaga'ko Errotan, billera egiten zan. Jai batean, billerara etorri neskak eta mutillik ez artean. Baiña Txirrita ere an gertatu Jose Errotaren tabernan, eta bertso au bota:

Erri txiki batian
orrenbeste gona,
berriz e izango dik
Oiartzun'ek sona;
bakarra ikusten det
sasoietik jona,
Telleri-Txiki'koa
Joxepa Ramona¹¹.

* * *

Txirrita bein batean Goizueta'ra bertso tara joan eta taberna batcan merienda tu. Etxera abiatzerakoan, tabernariak:

–Txirrita, bota zaidazu bertso bat!

Ta Txirritak:

Zurekin emen egotia're
litzake gusto aundiya,
eguna luze xamarra dago,
illunabartu du iya;
nere lagunak egin zaizkit
etxe aldera abiya,
orain banua, beste bat arte,
adios, tabernariya¹².

* * *

Bein batez, alkarrekin topo eginda, Billabona'ko *Mankua* pelotariak Txirritari esan amar duro emango zizkala, bertsoa kantatzen bazuan bera ondratuaz.

Eta Txirritak:

–Ondratzekeroz, lagunen izenak bearko ditut.

Mankuak eman pelotari batzuen izenak, eta orduan Txirritak:

Euskalerrian pelotariak dira lau:
Bixigume, San Juan,
Txikia eta Brau;
ondo dakien batek
ni enteratu nau,
orain guzien buru
Billabona'ko au.

Ta ogei duro eman omen zizkion¹³.

* * *

Onoko bertso au, 1936-VI-24'eko *El Día* egunerokoan arkitu degu, Ernani'ko berri emale zan *Aitz-Zorrotz*'ek bialdua. Onela dio:

«Txirrita zanen guztiz lagun maite Goñi'tar Joseba Andoni bitartez beste au jakin det.

Egun batez sagardotegi baten bi mutill talde arkitzen omen ziran, ta izugarritzko ez-baia izan omen zuten beren artian siñismen gañian, Jaungoikua bazala ta etzala. Gure Txirrita an omen zegon bazter baten ixil-ixilik, ta erabaki omen zuten, ori jakintsua zala ta orri galdetzia. Itzik esan gabe ez alde batekuari ez bestekuari, olerki au abestu omen zun:

Jaungoikuaren Semia baño
aundiagoko gizonik
mundu onetan ez det siñisten
zanik eta izango danik;
gurutze batez bere odola
guregatikan ixuli¹⁴,
kruzifikatu ez bazan ua
salbatzen etzan personik;
kristau fielak, ez siñistatu
jende gaiztuen esanik».

* * *

Zein erritan zan ez dakit, bañan jai-

-arratsalde batean beintzat, bazkalondoan edo geroxeago, tabernaren kanpoko aiekan omen zegon Txirrita exerita, eta bezperetatikan atera jendea, neskazarrak-eta.

«Emakume ezkongai edadetuak» esan bear omen da. Neri ala esplikatu zidan batek. Bañan aguroago esateagatik-edo, ori guk ikasi deguna ta ola esaten da.

Jende zar ori dena atera, ta Txirrita ikusi ta an asi omen ziran:

–Bertsoa kantatu bear dezu, Txirrita: Kantatu bear dezu!

Bai kantatu ere arek:

Erri koskor batian
eun errekus:
cuarenta arrak eta
sesenta urruz;
zartuta daude erruz,
iñolako moduz
ezin konponduz;
dana betia dago
Mari ta Peruz¹⁵.

* * *

Bertso au bera beste modu batera:

Erri txiki batian
eun errekus,
cuarenta arrak eta
sesenta urruz,
zartuak erruz,
beren denbora juanak
ezin konponduz,
or daude moruz,
baztar danak betiak
Mari ta Peruz¹⁶.

* * *

Amezketako Juan Joxe Artola'k onela esan digu:

Txirrita askotan etorri oi zan Amez-keta'ra bertso tara, San Bartolometan, erriko festetan. Bere lengusu Saibururekin izaten zan; Prantzes-Txikiarekin ere baita; Fermin Imaz'ekin ere joan izandu zala aditu izan det.

—Ta bein baño geiagotan gure etxera lo egitera. Erretoretxe-zar edo Garagartzaz-enea gure etxearen izena.

Gazta mindua esaten zion, gaztaman-teka. Gazta txikituta egiten da, ta ura jan bear izaten omen zuan beti. Ura jan da ardo-puska bat edan.

Gure aitona zanari ere bazuan kantatua. Aren besoetakoa naiz ni. Auskalo zeren gainean ariko ziran. Nik ez dakit orain bertso dana, baño onela bukatu zuala bai:

ori gezurra edo egia dan
Juan Joxe artzaia galdetu.

* * *

Batean, Amezketa'n festak pasa ta bueltan zetorrela, zaldi-kotxean sartu ta danak bertsoa kantatzeko ta kantatzeko, ta auxe kantatzen asi omen zan:

Kotxerua, jo itzik
zaldi oiek fuerte,
gelditu ere gabe
Tolosa'ra arte.

Baña orduan emakume batek, altxa ta onela otsegin omen zion:

—Ez, ez, ori ez! Nik Olarrañ'en jetxi bear det!

Ta arek moztu ta ortxe bukatu omen zan Txirritaren bertsoa.

* * *

«Juan Domingo izena zun gizon bat bazan Ernani'ko Larrañ baserrian, eta arek alaba batzuk. Aietako bat mai serbitzen San Antonio batzutan Irubideta'ko tabernan, Epeleko-Etxeberri baño lentreago. Mai serbitzen neska ori ta Txirrita antxe tabernan, eta kafea ta pattarrarekin etorri ta ari bota zion:

Aspaldi ontan ementxe negon
zuri begira jarrita,
Juan Domingoren alaba zera,
deitzen dizutena Rita,
pattarrarekin etorri zera
gonbidatzera Txirrita.

Puntuua falta du; ni ez naiz gogoratzen besterik»¹⁷.

* * *

Emendik, urte pranko Ernani'tik palta Txirrita. Ta batean etorri ta Ezio baserriko Manuelekin asi bertsoan. Manuel ura ezagutu nun; poliki egiten zun.

Txirritak bertso bat onela kantatu zun:

Zu Ezio'ko Manuel zera,
ni jaio nitzan Latxian,
garai batian barriyu ontan
neskatx ederrak bazian;
gazte denboran ibiltzen giñan
pandangan da baltsian,
gure orduko aixkire zarrak
danak ezkondu al zian?¹⁸

* * *

Ernani'n, San Juanetako fiesta batzutan, Paulo Txikia zapaterua baten or bertsolaria, ta ura, Saiburu ta Txirrita, irurak atera ziran plazara. Paulo zapatero orrek Txirritari bota zion bertsoa, arentzako aña lan ia ez al zen emen, urrutira joan

gabe; Frantzian barrena ibillia zen ba ura,
Txirrita, argintzan. Eta Txirritak.

Aldian lanik ez nualako
juan nitzan urrutietâ,
amaika bider nere bizkarrin¹⁹
ibillia naiz maleta;
oraiñ etxian alperrik dauzkat
mallua eta paleta,
gusto badezu emango'izkizut
ni ez naiz aien zale-ta²⁰.

* * *

Bein batean, pareta egiten ari zala,
Txirritak bota zuan bertsoa:

Bein batean paretatxo bat
egiten nitzala ari,
kontratistak oju bat egiñez
auxe esan zidan neri:
«Aizak, Txirrita, pareta orrek
or bazeduzkak zulo bi!»
Erantzun nion: «Seiak bitarte
ez deilla beintzat erori!»²¹.

* * *

Gure bigara gaztia
gogo txarretik dijua,
anka batetik errena eta
bestetik berriz kojua,
ori dabillen tokian
beti joera plojua,
karga aundirik ez degu baño
alperrentzat naikua²².

* * *

Moja joan bear zuala esaten ari zan
neskatxa bati, onela kantatu zion Txirri-
tak:

Moja joan biar duela
or dabil kontatuz,

nunbait ez da konforme
len daukan konbentuz;
suzeditzen bazaio
bere tokamentuz,
praile batentzako ai zer
*Corazón de Jesús!*²³

* * *

Pultsoan jarduten zan gizon batek,
Saiburu bertsolaria bekañean jo omen
zuan bein batez sagardotegian, ixtiluren
bat sortuta. Ori orrela gelditu zan.

Urrena, ordea, pultsolari ori Txirrita-
rekin suertatu zan sagardotegian. Bertso
bat botatzeko eskatu zion. Ta onela kan-
tatu zion Txirritak:

Naiago nitek baldin baneuzka
urte ainbeste ontzako,
gauza polipat banikek iri²⁴
jeniyo txar oi kentzeko;
orain munduan ikusten dīgu
amaika ire antzeko,
ik zer motibo izandu uken
nere primua jotzeko?

Ixil-ixilik lotsaturik gelditu zan gizon
ura²⁵.

* * *

Txirritak onela kantatu zion bein batez
aberats bati:

Aberats famatua,
zuregana nator,
orrenbeste eztu biltzen
dabillanak jator;
pobriai odola txupatuaz
dabiltzanak dator,
infernu gorri ori
oientzako dator²⁶.

* * *

Txirritak bein batez gizon bati kanta-
tutako bertsoa:

Gizon bateri eman biaiot
oso arrazoi kruela,
diferentiak izaten dira
barrika eta kupela;
egiya esanda uste dedanez
ukatuko eztirakela:
egiya al dek bete dekela
.....'ko Mikela?²⁷

Gizon orri berari beste bertso au ere
kantatu omen zion:

Gizon bateri eman biaiot
orañ aditzera,
zazpi pauso aurrera eta
beste zazpi atzera,
egiya esanez al ua nere
arrazoia ukatzera?
Txanblazo ederren jabe ago
deskuidatutzen bazera²⁸.

* * *

Azkoitia'n-edo Txirritak kantatutako
bertso baten puska:

..... emen dijua
Txirrita argiña,
nai duenak ikusi
mutilzar bikaña²⁹.

* * *

Bertso au Pedro Zubillaga, Alegi'ko
igeltseroak, Txirritari Billapranka'n en-
tzunda, Jose Mari Agirre Alegi'ko pana-
deroari kantatu zion. Ta onek guri Igara-
tza'n 1969'ngo Maiatzaren 11'n:

Bertso polit bat bota bear diot
Marzial Berroeta'ri:
bere denboran saldu izandu du
erari goxo ugari;
kararik kara begiratuta
esan bear diot berari:
bere okotzeko bizar zurikin
San Jose dala diruri³⁰.

* * *

Bein batez, Txirrita Naparroa'ko Ez-
kurrara'ra eraman zuten bertsoara, eta
kantatu ondoren, despidan, bertso au
bota zuan:

Nik uste nuan Ezkurre'ko erri au
Paris aundi bat bazala,
abisatuta ekarri naute,
nik ez nekien bestela;
ez nezake esan erri onetan
jende noblia ezta,
mendi tartean ementxen dago
ardi-borda bat bezela³¹.

* * *

Txirrita Orio'n zan batean, Obispo
Jauna etorri zan, eta sermoia egin zuan,
esanaz gizona obretan ezagutzen dala,
obretan. Andik irtenda, egun artan ber-
tan, Txirritak gizon bat mozkortuta ikusi
zuan kalean. Eta orduan bukaera onela
zuan bertsoa kantatu zion:

Neroni ere gertatu izan naiz
askotan edo sobretan,
Obispo Jaunak esan du gizona
ezautzen dala obretan³².

* * *

Bertso au Gaztelurena bezela jaso
nuan orain urte batzuk. Ikusi: *Auspoa*,
61, 47'gn. orri-aldean.

Orain, berriz, Txirritarena dala esan didate; Loiola'n, San Isidrotan, Azpeiti'ko alkateari kantatua omen da:

Oraintxe azaldu da
alkate guria,
laguntzalle dubela
emazte beria;
aundia ta ederra,
oso dotoria,
esan liteke dala
*Reina Victoria*³³.

* * *

Gipuzkoa'ko erri batean festak ziran. Bertsolariak ere ekarri zituzten. Oietako bat Txirrita zan. Ta plazan bertsotan ari zirala, an azaldu zan Lafitte diputadua bere andrearekin. Onek, lumaz apaindutako buruko bat zekarren.

Ori ikusirik, azkeneko bi puntuak onela zituan bertsoa kantatu zion Txirritak:

Modu ortako emakumia
Jaunak konserba dezala,
burua lumaz betia dauka
uxakumiak bezela³⁴.

* * *

Txirritak Fermin Imaz bertsolaria astotzat tratatu omen zuan, eta Ferminëk Txirritari mandoa zala esan omen zion. Eta egun batez, Txirrita ostatu batean zegoala, or sartzen da Fermin, eta bertso au kantatu omen zion Txirritak:

Soñean jantzirikan
iru elastiko,
tabernara sartu da
atsalde guztiko;
manduak jotzen badu
astua ostiko,

ez dik geigo muturrik
ardotan bustiko!³⁵

* * *

Txirritak onela kantatu omen zion, Lezo'n, bertsotan ari zirala, Asteasu'ko Aranburu-berri bertsolariari:



Urrutitik kontuak
nik ditut ikasi,
lengo egun batian
oi nola zan asi:

auzoko atso batek
ezpalu ikusi,
takiatuko ziyon³⁶
kamisa ta guzi³⁷.

* * *

Egun batean Aranburu-berri au bete
xamarra ibillia omen zan. Urrengo ba-
tean, bukaera onela zuan bertsoa kantatu
zion Txirritak:

Batek anketik eldutzen zion
eta bestiak besotik,
modu orretan ekarri zuten
gure pelege auzotik³⁸.

* * *

Arrats batean bazijoazen. Olegario
eta Txirrita etxera, ondo serbituak. Txir-
rrita estrapozo eginda erori egin zan, eta
Olegariok lagundu zion altxatzen.

Urrengo egunean, Txirrita Arbelaitze-
neko sagardotegira joan zan, ta Periko
Montero'k onela kantatu zion:

Aizu, Txirrita, goatze'al zera
atzo nola ibilli ziñan?
Ontzi aundiya ekarri arren
ederki berdindu ziñan;
etxe aldera abiatuta
gertaturikan eziñan,
tranbe-birian estrapozo einda
lurrera erori ziñan,
aiton zar batek laundu ez bazizun
altxako ere etziñan.

Txirritak bertsotan eraso zion Monte-
ro'ri, eta onek andik alde egin bearra izan
zuan.

Periko Montero au, bertsolaria edo
afizio aundia zuana zan³⁹.

* * *

Beste egun batez –au ere ostaturen ba-
tean gertatua – an ari omen zan Txirrita
bertso kantatzen. Jende asko zegoan be-
rari entzuten, eta norbaitek esan omen
zion:

–Txirrita, bertso bat kantatuko al zen-
duke azkar?

–Zer, ba? Presaka al zerate?

–Ez; presaka ez gera, bañan zuk azkar
kantatutako bertso bat entzun nai gendu-
ke.

Orduan onoko au kantatu omen zuan:

Alper-alperrik daukat
nere garrotia,
armetan pasa zuan
lengo gerratia;
amak berriz sekatua
zeukan errapia,
gizonik jatorrenak
multizarrak tia⁴⁰.

* * *

Egun batez, euskal festa batzutan,
bertsotan ari ziran Ernani'ko plazan Txir-
rrita eta Saiburu, Gaztelu eta Pello Ero-
taren kontra. Ona emen Txirrita eta Gaz-
teluk, Pello Errotagatik kantatu zuten bi
bertsoren erdia. Erdiaz baizik etzan oroi-
tzen au eman diguna, Ereñozu'ko Akola
baserriko Gregorio Santa Kruz.

Txirritak

Erare aundiya eduki arren
oraindikan e gait'ona,
amaika arto ostutzen duen
Astiasu'ko aitona.

Gazteluk

Xentimorikan ez du gastatzen
Tolosa'n da Donostiya'n,

urre-pillán bat edukiko du
errotarriyen azpiyan.

* * *

Lendabiziko bertso erdia onela eman
zidan Ernani'ko Oianeder baserriko J.
Iraola'k:

Nere eskola izandu ziran
kartilla eta katona,
amaika arto ostua zaude,
Astiasu'ko aitona.

* * *

Eltzekondo, Ernani'ko pultsolari edo
arri-jasotzaille bat izan zan. Ikaragarrizko
indarrak omen zituan. Arentzat ere kan-
tatu zuan Txirritak bertsoa. Baiña erdia
baizik ez degu bildu al izan. Oianeder'ko
J. Iraola'ri jasoa degu:

Bere galtzak betetzen ditu
ipurdiyetan txit ondo,
indar askoko potajia da
Ernani'ko *eltzekondo*.

* * *

Donosti'ko Loiola'n, Txirrita, Pran-
tzes-Txikia ta Oloki izaten ziran bertso-
tan.

Bein batean, bertsoa bota ta bota ari
zirala, onako au kantatu zuan Txirritak:

Oaingo gaztiak sartu nai naute
zulora baño berago,
berrogei urte mundun mutilzar
ditugulako igaro.
Oriek danak adituta're
ni pazientzian nago:
Jesukristo're mutilzarra zan,
neria ezta milagro⁴¹.

* * *

Gizon bat ba omen zijoan idi ta gur-
diarekin, baiña gurdiaren gainean beste
pirril sueltoak zeramazkiala. Kurpillak
esaten dute beste zenbait tokitan.

Ta Txirritak ikusi ta:

Pirrilak azpian da
pirrillak gañian,
uste diat juatia
alare i añian.
Nunbait or ibiltze'aiz
toki berdiñian,
maldara allegatzian
beti eziñian⁴².

* * *

Urrengo bertso au, beste batzuek Pe-
dro Mari Otaño'rena dala esaten dute.
Bañan Zarautz'en, Txirritaren aotik sor-
tua dala esan zidaten:

«Txirrita argintzan emen, Zarautz'en,
Iru-erreketa'n, eta or nunbait ere parran-
da egiña ta goiz aldera artean erretiratu
gabe.

Egarri antzean omen zegoan. Ala
egongo zan noski dudarik gabe Txirrita
ori.

Ala bear-ta, ordu berean baserritik
emakume bat marmita esnearekin kale al-
dera. Bañan zerbait aztu ta marmita laga
Txirritaren aurrean, ta emakume ori joan
da atzera baserrira eta bueltan badator.

Baita bestea, marmita begiratu ta es-
nez ikusi zuanean, egarriak baitzegoan,
artu ta edaten asi dala arrapatu andreak.

Erritan, noski, ikaragarri gogor egin
zion. Ta, ixildu zanean, Txirritak:

Eduki izan bazendu
nere katarrua,

etzenduan egingo
olako orrua.
Zeure bentajarako
esatera nua:
ontzia izan baziña
ai zer kankarrua!»⁴³.

* * *

Apaizen kontrako bertso oni, oso neu-
rri traketsa arkituko dio irakurleak.
Etzuan Txirritak orrela kantatuko. Baiña
gure eginkizuna gauzak jaso bezela ager-
tzea baita, ona emen ezeren ikuturik ga-
be:

Apaizak bela beltzak
eta zaku ikatzak,
dauzkate mutur leunak
ta kontzientzi latzak.
Ur bedeinkatueta sartuta
eskubiko beatzak,
ederki izurratzen gaituzte
pobre ta aberatsak⁴⁴.

1. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

2. Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia.

3. Beste batzuk «ipur-zuloraño» esaten omen dute.

4. Loidisaletxe baserrian jaso, Errezil.

5. Ernani'n jaso; baiña ez nuen apuntatu zeñi.

6. Balentin Zamora, Leku-eder, Igeldo, Donosti.

7. Patxi Lazkano, Otsoki, Altza.

8. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

9. Gertaera eta bertsoa: Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze, Ernani. «Aurra galdu zan arriya», Akola ondoan dago.

Txirrita'ren Testamentua liburuxkak (Imp. Macazaga, Erreterri, 1930) bertsoa onela dakar:

Andre gazte bat mixerablea
auntz-kontura etorriya,
bere semea xextuan zeukan

zarpa tartean jarriya;
Urdaburu'tik sartu zitzaion
tranpan arrano gorriya,
arrapatuta eraman zion
ai ura aren larriya!
Orain argatik deitzen diogu
aurra galdu zan arriya.

9. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

10. Martina Makulegi, Oiartzun'go Bekoetxea baserrikoa, gaur Donosti'n.

11. Ines Berasategi, Oiartzun'go Berinberri baserrikoa eta Inazio Irazu, Portuburu, Ergoien, Oiartzun.

12. Martina Makulegi, Oiartzun'go Bekoetxea baserrikoa, gaur Donosti'n.

13. Manuel Zapirain, Bordaxar, Erreterri.

14. Puntu au olaxe dago *El Dia* ortan. Itxuririk gabe alegia. Guk uste, *ixuri zun guregaik* cdo olako zerbait kantatuko zuan Txirritak.

15. Juan Mari Lujanbio, Saiburu bertsolariaren semea, Erreterri.

16. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illoba, Gazteluene, Altza.

17. Ernani'ko Pablo Zubiarrain bertsolaria.

18. Pablo Zubiarrain bertsolaria, Ernani.

19. Oiartzun'go izkeraz *bizkarrin*; Txirritak etzuan olakorik esango.

20. Koxme Mitxelena, Lekungarai, Altzibar, Oiartzun.

21. Fermin Muñoa bertsolaria, Berrobi.

22. Juan Jose Lizarreta, Aginaga, ta Bartolome Atxega, Mutiozabal baserria, Aginaga.

Bertsoa, irakurlea konturatuko zanez, neurritz motz xamar dago bi tokitan, lenengo ta bostgarren errenkadan. Etzuan Txirritak orrela kantatuko, baiña ala eman zidaten.

23. Juana Lujanbio, Pasaia, Txirritaren illoba txikia.

24. polipat: polit bat.

25. Juan Mari Lujanbio, Saibururen seme eta Txirritaren illoba, Erreterria.

26. Maria Muguruza, Txiskucne, Donostia.

27. Baserriaren izena.

28. Jose Usabiaga, «Zamalbide», Erreterria.

Bigarren bertso au neurritz gaizki dago; baiña ala jaso genduan.

29. Jose Inazio Etxeberría, Otalastegi, Urrestilla.

30. Adierazpena ta bertsoa: Periko Elozegi, Tolosa.

31. Bartolome Ugalde, Lizardi, Urnieta.

32. Ez nuan kontuan artu nork kantatu zidan.

33. Ez nuan aputantu zeñi artu nion.

34. Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illoba, Gazteluene, Alza.

35. Adierazpena eta bertsoa: Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donostia.

36. Garai bateko eskopetak, kargatzeko, muturretik tukiatu egiten ziran.

37. Jose Maria Lujanbio, Saiburu bertsolariaren semea. Pasaia.

Doñua. Jose Mari onek berak kantatua, ta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun ta paperean ezarria.

38. Ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

39. Adierazpena eta bertsoa: Antonino Pagola, Ernani.

40. Adierazpena eta bertsoa: Sebastian Salaberria, Aiete, Donostia.

41. Jose Maria Lasa, Aldetxo baserria, Ibaeta, Donostia, 82 urte, 1977-XII-6'an jaso.

42. Jose Maria Lasa, Aldetxo baserria, Ibaeta, Donostia, 82 urte, 1977-XII-6'an jaso.

43. Santos Leunda, Etxetxiki, Iñurritza, Zarautz. Magnetofonoz jaso.

44. Manolo Garate, Mondragoi.

ZELEBREKERIAK

Mutil gazte bati onela galdetu zion bein batean Txirritak:

-Aizak, gazte: Erretereria'n nun zegok sagardo ona?

-Kupelian.

-Ori bazekiat nere motelian¹.

* * *

Donostia'n, Amara aldeko taberna batean, onela dio Txirritak ango etxe koandreak:

-Etxekoandrea, zenbat da kontua?

-Ogei ta bat errial.

-Tori bost pezta ta erriala zuretzat².

* * *

Arrats batean, Donostia'n, sagardotegi batetik irten, pareta batera arrimatu ta pixa egiten asi zan.

Serenua atzetik etorri zitzaion eta:

-Txirrita, pezta bat multa!

-Zergatik?

-Emen ori egiten ari zeralako.

-Erdia bakarrik egin det, ordea, eta tori bi errial³.

* * *

Barrikotea, barrika koxkor bat sagardo lagunaren artean aparria egiñez edateari esaten zaio.

Barrikotean gau pasa eginda, bazetorren jai goiz batean etxe aldera-edo; eta, alako batean, topo egiten du presaka bide artatik zetorren emakume batekin.

Emakumeak galdetzen dio:

-Txirrita, meza pasa al da?

Ta Txirritak:

-Ez dakit, bada! Beste bidetik pasa ez bada beintzat, bide ontatik ez da pasa⁴.

* * *

Jai arratsalde batean, Altza'ko Pele-

grīnena baserrian txotx berria-edo zala-ta, ara joan zan Pello Zabaleta bertsolaria. Pello gizon txiki, medar ta bizi bat zan.

Pelegriñe'ra aillegatu eta Txirrita arkitu zuen atarian, trankil-trankil exerita zegoela.

Pellok esan zion:

–Lasai, Joxe Manuel, lasai!

Ta Txirritak:

–Bai i ere, nere galtzetan sartzen baaiz!

Izan ere, Txirrita eun ta berrogei eta amar kiloko gizona zan.

Gertaera kontatzen bukatzean, onela esaten zuan Pellok:

–Bai; nere gerria baiño geiago ziran aren iztar bakoitza ta...⁵

* * *

Bere azken urteetan, Altza'ko Gazteluene'n, arrebaren etxean bizi zala, litro erdi bat ardo izaten zuan egunero.

Baiña Santa Luzia egun batean onela esan zion arrebari:

–Ekarri zan beste litro erdi bat ardo, nik ere gaur jai egin bear diñat eta.

Arrebak:

–Gaur jai? I ere jostuna al aiz, bada?

–Ez; ez naun jostuna. Baiña bein batean galtzai botoiak jartzen aritu izan nindunan.

Ta, aitzeki orrekin, litro erdi bat geiago edanez zelebratu zuan Santa Luzia eguna⁶.

* * *

Ondarrabi'ko sagardotegi batean zeuden. Alako batean, bi bare ikusi zituzten,

bata txuria eta beltza bestea. Bereala apustua egin zuten sagardo erronda, zein bare leenago aillegatu alako tokitara. Txirritak bare beltzaren alde egin zuan apustua; lagunak zuriaren alde.

Asi dira eta Txirritak ur tantoak botatzen zizkion aurretik bare beltxari, aguroago irrixtatu zedin, eta onek irabazi zuan.

Ala zion Txirritak:

–Baiña ez al zenekiten bare txuria baiño motelagorik ez dala?⁷

* * *

«Egun batean, etorri zan gure etxera kuadrilla bat sagardoa enbotillatzera; eta, jan eta eran ari zirala, kontentu jarri ziran, eta esan zion batek besteari:

–Astoa galanta i, lau anka baitutek!

Eta besteak erantzun zion:

–Lau ankeko astorik ez dek izaten; aiek ere bi beso izaten dizkitek, besteak bezelaxe.

–Bai; izaten dek.

–Ez; ez dek izaten.

Orduan, aietako bat joan zan Txirritarengana, an baitzegoen beste aldean exerita, eta esan edo galdetu dio:

–Zuk lau ankeko astorik ikusi al dezu, Txirrita?

–Bai –esan zion onek.

–Noiz?

–Ume egiteko dagoenean –erantzun zion Txirritak.

An ziran txaloak eta bullak ta sagardo-erateak, arrazoi orren onran»⁸.

1. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.

2. Id.
3. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren iloba.

Lorentzo Zulaika, Elgoibar'en jaiο ta Zarautz'en bizia. Onek beste onela kontatu zidan:

-Txirrita, bi pezta multa.

-To lau, oraindik erdia besterik ez dit egin eta.

Karmel Egutegia, 1962: Dundunzar: «Txindurri ta... Txirrita»: Onek pasadizoa Tolosa'n gertatu zala esaten du; amar errealeko multa jarri ta Kontzejura bialdu zuela aguazillak paper batekin; Kontzejuan bertso bat kantatu arazi ziotela ta au kantatu zuela:

Sagardoteitik irten det
txixa egitera,
aguazilla etorri jata
multia ezartzera,
papelaz bialdu nau
ura pagatzera.

Eta onela bukatu zuela:

Orrenbeste sonbrero,

tintero ta silla,
erri txiki bateako
au dek lapur-pilla.

Baiña bi lerro auek, Udarregiren bertso batenak dira.

4. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren iloba.

Basarrik pixka bat aldatuta kontatu izan du gertaera au. Alegia, Txirrita zubi baten ertzean exerita zegoala, ta zubi azpian burni-bidea zala, ta Txirritak onela erantzun ziola emakume orri:

-Or beko burnibide ortatik pasa ez bada, emen kamiotik ez da pasa.

5. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.

6. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren iloba.

7. Juan Maria Lujanbio, Errenteri, Txirritaren iloba txikia.

8. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren iloba. Itzez-itiz jaun onek bialdutako eskutitz batetik aldatua.

ARRAZOI ZORROTZAK

Txirrita Ernani'ko sagardotegi batean zala, sartu da gizon luze bat, aberatsen etxeetara neskak eramaten aritzen zana.

Orduan Txirritak:

Ara Joxe Ramon,
gizon prudentia,
eskolarik gabeko
estudiantia;
zartuagatik dago
oso dezentia,
Urumea'ko nesken
komertziantia¹.

* * *

Ezkerra, San Markos mendiaren atzeko aldeko baserritar bat omen zan.

Auntzarekin ari zala, ernegatu eta maldizioa bota omen zuan. Guardiak entzun eta bi duro multa jarri zioten. Orduan Ezkerrak guardiei gogor egin edo lotsagabekeriren bat esan. Eta guardiak beste duro bat geiago.

Txirritak pasadizoa jakin eta bertso au bota zion:

Ezkerrak pagatu du
multa auntzarekin,
maldiziyua botata
kara beltzarekin;

iru duro kenduta
odolak irakin,
umill ibilli balitz
libre zan birekin,
lanik asko bazeukak
andriak irekin².

* * *

Txirrita danak toriatzen zuten, ikusi
ezkero:

–I, kanta zak bertso bat.

Tak! kantatzen baitzien arek, aguro
gañera, danai.

Ta, nunbait ere, neskaren batek toria-
tu du, eta orduan Txirritak bertso au kan-
tatu:

Goizeko bostak aldiandian neuzkan
maindire danak altxian,
naiago nuen zure blankua
eduki banu etxian;
lendabiziko tirua beintzat
sartuko nizun beltxian,
bigarrenua utseginda're
ajola aundirik etzian.

Orain denbora asko ez dala, adiskide
bati kantatu nion. Ta afizioa izan baitu
orrek gogorra gauzak eskribitzeko ta era-
mateko, ateratzen du lapitza patrikatik,
eta papera, eta:

–Kanta zazu faborez berriz ere.

Kantatu nion eta apuntatuta eraman
zuan. Onela esan zuan:

–Bai; bertso berdea. Bañan, bertso be-
zela, ona.

Bai, ba. Iñor famatu bear baldin ba-
zan, bazuan abildadea arek. Ta gaizki esa-
teko ere bai. Bañan bertso bikaña beti³.

* * *

Egun batez, bertsoa botatzeko ta ber-
tsoa botatzeko ari omen zitzaion bat Txi-
rritari. Ixildu ere etzan egiten eta au bota
zion:

Diferentiak izaten dira
udare eta muxika,
edozer gauza esanda ere
zuri etzaizu inportika.
Fumatzaillia nola ez naizen
ez det ekarri toxika,
zuk zuria ematen badirazu
artuko nuke pozika⁴.

* * *

Egun batean, gizon bat tabernan ari
zan Jaungoikorik etzala eta etzala esaten.

Txirrita ere an zan, ixil-ixilik ordea.
Baña aren esanak entzuten aspertu za-
nean, bertso au kantatu zion:

Mundu guziaz agintzen digu
gure Jaungoiko bakarrak,
ark egin zitun zeru eta lur,
oroiak eta izarrak,
lur utsetikan gorputz ta anima,
kristauen mami-egurak,
entendimentu edo juijiyo,
memoriya ta indarrak;
zuri zer pena ematen dizun
aren mende egon biarrak!

Ixildu omen zan aguro!⁵

* * *

Bertso au bere osabari aditu eta ikasi
zion Txirritaren illoba Jose Ramon Eraus-
kin'ek. Zaartutakoan kantatzen omen
zuan. Baña ez daki osabak botea dan ala ez.

Judasen lagun egiten dana
portero zar bat Baiona'n,

aren tranpiya ez da pagatzen
ez emen ta ez Erroma'n;
gau eta egun beti or dabil
maleziyan da arraman,
iltzen danean ez da faltako
nork infernura eraman⁶.

* * *

«Fagollaga'n ari zan batean, bertako
emakume bati bi bertso auk jarri zizkion:

Joxepa Xapo orri biayot
notizia bat bialdu,
gaiztakerian munduan inork
ezin lezake igualdu;
arrazoi kontra izketan asi,
isildu gabe bi ordu,
ni engañatzen ez baldin banaiz
sorgiña izan bear du.

Konfesatzera joaten da baiño
ez ditu esaten egiak,
apaizai ere sartutzen dizka
izugarrizko ziriak;
oi baiño atso gaiztuagorik
ez du mantentzen ogiak.
besterenean ibiltzen ditu
ahuntzak eta zerriak»⁷.

* * *

Emakume batek Txirritari:

–Kaixo, Joxe Manuel!

–Kaixo!

–Aspaldi xamar etzaitut ikusi. Orain-
dik gazte-arpegia dezu. Zenbat urte ditu-
zu?

–Irurogei.

–Ez dezu, ba, arpegian ematen.

–Auxe det, ba, dedan zaarrena⁸.

* * *

Gizon batek, umore onez egongo zan
eta onela esan omen zuan bein sagardote-
gi batean:

–Munduan dan naziorik onena, Espa-
ña; España'n dan probintzirik onena, Gi-
puzkoa; Gipuzkoa'n dan erririk onena,
Altza; Altza'n dan baserririk onena, Ola-
ko; ta ni bertako nagusia.

Txirrita ere an zan ordea, eta onela
erantzun zion albotik:

–Bai. Baiña zu goizeko bostetan jeiki-
tzen zera eta ni amarretan⁹.

1. Lino Kalonje bertsolaria, Bentaberri, Do-
nosti.

Pasadizoa: Jose Ramon Erauskin, Gazteluene,
Altza, Txirritaren illoba.

2. *Txirrita'ren Testamentua, Imp. Macazaga,
Renteria, 1930.*

Pasadizoa: Jose Ramon Erauskin, Gazteluene,
Altza, Txirritaren illoba.

3. Patxi Lazkano, Otxoki baserria, Altza.

Juanjo Uri: *Txirrita (1860-1936) 50 urteurrena*
liburuxkan, bertso au ere badator, aldaketa aukin:
1: Atzo goizian, labak aldian, 5: lendabiziko tirua
xuxen; 7: biarrengak kale eginda ere.

4. Ramon Mujika, Katalintxo, Ugaldetxo,
Oiartzun.

5. Gregorio Santa Kruz, Akola, Latze, Ernani.

6. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza,
Txirritaren illoba.

7. Juanjo Uri: *Txirrita (1860-1936), 50 urteu-
rrena.*

8. Noren aotik jaso nuan kontuan artu gabea.

9. Altza'ko baten aotik. Ez nion izen-abizenik
artu.

«ZUK IL ZENDUEN ARTZAIA»

Liberalen eta karlisten artean Bergara'ko Besarkada egin zanean (1839-VIII-31), konforme etziran karlistak Frantzi'ra alde egin zuten; eta gainera-koak, armak entregatu eta norbere etxera joan ziran. Orrela bukatu zan Euskalerrrian karlisten lenengo gerratea (1833-1839).

Uxategieta edo Urepel izeneko mendietan soldadu mordoxka bat gelditu zan. Toki ori Urumea eta Leizaran ibaien artean dago, Gipuzkoa eta Nafarroa'ko mugan.

Zer egin etzekitela zeuden, eta beretako bati onela esan zioten:

–Joan adi i Tolosa'ra, eta gero bueltan esaiguk nola tratatu auten.

Joan zan eta fusilla kendu, duro bat zillar eta bazkaria eman eta libre utzi zuten.

Pirala kondairalariak dionez, Bergara'n, leen esandako Besarkada ori egin zanean, karlisten buruzagiei beren soldatak eman zizkieten; soldadu bakoitzari, berriz, duro bana. Seguru asko, beste errietan ere duro bana emango zioten arma entregatutako soldadu bakoitzari, eta ori izango da emen aitatzen dan duro zillar ori.

Bueltatu zan esan degun mutil ori lanunengana, eta onela esan zien:

–Motellek, ez natxiotek gaizki tratatu.

Duro bat zillar eta bazkaria eman zizkidatek beintzat.

Orduan Tolosa'ra joan ziran bat ez beste danak.

Joan gabe gelditu zan ori, Antonio Diostegi zeritzan. Ijitoa omen zan.

Bakarrik gelditu eta zenbait egunetan an bertan egon zan. Baiña jatekoak aitu zitzaizkionean, abiatu zan ura ere bere fusilla ta guzti, baiña bera jaiotako txokora, Ernani'ko Fagollaga'ra, joateko asmoz.

Artzai bat arkitu zuan eta onela esan zion:

–Egidazu mesede Fagollaga'ko bidea erakustea.

Agidanean, artzaia bildurtu egin zan gizon armatu ura ikusita, eta onela esan zion:

–Eguraldi txarra dator eta aziendak bildu bear ditut, ordea.

–Aziendak beren gisa utzi eta atoz nere aurretik bidea erakusten.

Ez dago gizon armatu baten esanetara jarriko ez danik, eta abiatu ziran artzaia aurretik eta Diostegi ori fusillarekin atzetik.

Bide puska bat ibili ta gero, onela esan zion artzaiaik:

–Adiskidea, neretzat diferentzi aundia dago zurekin joan edo aziendak bildu. Igo zaite or aurreko gain ortara (Mandoegi mendiko tontorrera), ta segi gero gainez-

-gaiñ. Onyi mendia ikusiko dezu; eta, ara irixtean, jetxi besterik ez daukazu, Fagollaga'ra joateko.

Baiña Diostegi'k onela erantzun zion:

-Bi urte auetan makiña bat buelta eman izan det mendi auetan; baiña beti toki ontara atera naiz, bidea ezin asmatu-rik. Segi, bada, gelditu gabe.

Jarraitu zuten, beraz, aurrera, artzaia aurretik eta Diostegi fusillarekin atzetik.

Gaiñez-gaiñ zijoazen, ezker-eskubi Leizaran eta Urumea ibaiak zituztela, mendi-tarte sakon eta estuan biak ere.

Bide luzea ibilita, iritxi ziran Lepa-
txiki'ra. Andik Fagollaga ikusten da.

Artzaiak esan zion:

-Ara: orixe dezu Fagollaga.

Eta Diostegik:

-Bai; ortxe da nere jaiotetxea.

Baiña gero, segituan, onela esan zion:

-Fusil ontako kargazoiak gizona nola iltzen duan ikusi bear det orain.

Eta tiroa tira eta artzaia il zuan. Gero, etxera abiatu zan.

Urte asko igaro ziran. Diostegi ori oso zaartua zegoan: gorputza makurtua, eta ibili ere bi makulurekin egiten zan, anka ankari ezin aurreraturik. Larogei bat urte zituan. Bakarrik bizi zan. Eskean-da ibil-tzen zan. Iñork etzuan maite. Aurra-
k ere aren bildurrez egoten ziran. Zearo gaiz-
totua zegoan.

Mundu ontako gauzak jakin egiten di-
ra eta, nola edo ala, jendeak bazekian
Diostegi zala artzaia il zuana.

Egun batean, Txirrita Fagollaga'ko ta-
bernan zegoan. Izbidea ola etorrita, Dios-
tegi ortaz ari ziran izketan. Bazekiten
nunbait ara etorriko zana eta onela esan
zuan Txirritak:

-Batere biotzik baldin badu, jo gabe
ere jarriko det nik ura marruz.

-Naiko lan! Zearo gogortua zio-
k ori.

-Bai. Jo gabe jarriko det nik ura ma-
rruz, sartu bezin laister. Gogoratuko zaio
oraindik ere.

Alako batean, sartu zan Diostegi ori
eta esan zuan:

-Egun on!

Baiña inork etzion ez «baita zuri ere»
esan, ezta ere kasorik egin. Jendea ixil-
ixilik zegoen, Txirritak zer esango zion
zai.

Diostegi'k baso aundi bat ardo artu
zuan, eta maiera alderatu zan, basoa es-
kuan zuala.

Orduan, bat-batean, bertso au bota
zion Txirritak:

Larogei urte pasatu ditu
dirudiyela etsaya,
orain bi anak arrastaka ta
burua soiltzen asiya;
gizarajuak badu beregan
makiña bat desgraziya,
ez dago garai batian bezin
arrua eta lasaya,
beste munduan ikusiko du
emen il zuen artzaya.

Diostegi'k onela esan zuan orduan:

-Zergatikan etzidan bidea erakutsi
bear neri?

Baiña oraingoan ere etzion iñork eran-
tzunik eman. Danak ixil-ixilik eta begira
zeuden. Taberna guztian etzan txintik ere
aditzen.

Eta Txirritak beste bertso au bota
zion:

Kulparik gabe bota zenion
fusillako kargazoia,
gizon gaxuak aserretzia
ez al zuen arrazoia?
Diabru zarrak aditzen dute
zure animan usaia,
eriotzaren etor-bildurrak
estututzen du lasaia,
zu baño gizon formalago zan
zuk il zenduen artzaia.

Orduan Diostegi'k, *dak!*, maiean ba-
soa kolpean utzi ta alde egin omen zuen.
Andik egun asko gabe il omen zan¹.

* * *

Bertsoak berdin, baiña gertaera guztiz
beste aldera ere jaso degu. Onela esan
digu Amezqueta'ko Garaikoetxe'ko Jose
Etxeberria'k:

«Gure aita zana-ta, gure aitona-ta, ar-
tzaiak ziran. Ni ere artzai ibilli nintzan
gaztetan.

Udaran, Aralar-mendi'n izaten giñan,
Pardeluts'en. Pardeluts goien dago; iru
txabola daude an; ta beraxeago iturri ede-
rra, Pardeluts'ko iturria.

Bañan neguero Ernani'ra jeixten gi-
ñan. Negua an pasa ta mendira ardiekin
abitzen giñanean, Ernani'tik onuntza etxe
bat bada gain batean Aitzola esaten diote-
na, ta Aitzola'ko gain ortara etortzen gi-
ñanean, ikaragarrizko irrintzia, irrintzi
aundi bat egiten zuan gure aita zanak,
mendirako pozarekin:

–Ieeufiii!!!

Alegia:

–Negua bukatu diagu!

Ta inguru artako jendeak, baserrita-
rrak-eta, irrintzi ori entzun eta onela esa-
ten zuten:

–Ara! Artzaia badijoa!

Ta nik beti, nere aita zanari-ta, orixe
aditu izandu nien: aitonaren aita, gure ai-
ta zanaren aitona, soldadu batek il zuala
Ernani'ko Santa Barbara'n.

Ardiak faltatzen zitzaizkiola, ta baten-
batek esan ziola:

–Olakok il ditu! Zure ardiak iltzen di-
tuana, olako soldadu da!

Ta egunen batean soldadua orrekin ar-
kitu zala eta nunbait fuerte xamar-edo asi
zitzaiola, ta soldaduak tiroa eman da il
zuala.

Gurutzea an dago, edo an zegoan, Ma-
rrakane baserriko ixkiña-ixkiñan. Burniz-
ko gurutze koxkor bat da, Santa Barbara-
'ren goiko aldetik Galarreta aldera; atze-
ko aldetik Marrakane baserria, ta baserri-
tik beraxeago olako bide-gurutze bat, eta
antxe, paretaren gañean, gurutze txiki
bat, bañan letrarik ez.

Aita zanak neri beti erakutsi izandu
zidan:

–Au gure aitonaren gurutzea dek, sol-
daduak ildako aitonarena!

Ta errezatzen aritu izandu giñan biok,
bein baño geiagotan, gurutzearen au-
rrean.

Inguru artako zarrak ere esan izandu
ziguten guri:

–Zuen aitonaren gurutzea dek au!
Zuen aitona soldaduak il zien! Soldaduak
ardiak jaten, eta arpegi eman zielako, ti-
roz bota zien, eta gero Txirritak bi bertso
bota zizkion.

Ta Txirritaren bertso oiek, gu beti ai-
tonarenak ziralakoan egoten giñan; ale-
gia, gure aitona il zuanari kantatuak».

Ta Jose Etxeberria orren osaba batek,
Amezqueta'ko Domingoene edo Letradue-

ne'ko Jose Inazio Etxeberria'k, onela esan digu:

«Orduan gerrarik ez eta Santa Barbara'ko fuerte ori ustuta zegoan; soldadu pare bat-edo kontu egiteko; besterik ez.

Ta gure aitona ere inguru artan ibiltzen zan ardiekin; eta artzaia libre izaten da askotan, eta soldadu oiekin pelotan-da ibiltzen ziran alkarrekin.

Alako batean, ardiak faltatzen asi, ta ezin iñondik antzeman nola faltatzen ziran.

Bañan batenbatek ikusi soldadu oiek ardien tripak sasian gordetzen, eta gure aitonari esan.

Joan da gure aitona soldadu oiengana, ta kargu artzen asi:

–Zer egin didazute?

Gure aitona ori ez agertzen. Billa asi dira, ta, dabiltzala-dabiltzala, or billatu zuten gorputza Marrakane baserriaren azpian, esi-ondo batean.

Gure aiton orri, Ernani'n lur eman zioten, lengo kanposantu zarrean.

Ta soldadu oiei, beste toki batera bialdu edo ez dakit zer egin zieten.

Ta bertso oiek, andik urteetara, gure aitona il zuanari Txirritak botatakoak dira».

* * *

Amezketako artzai orren eriotz-agiria Ernani'ko eliz-artxiboan azaldu da, 7'garren eriotz-liburuan, 107 orrian. Onela dio:

En la Villa de Hernani, Provincia de Guipúzcoa, Diocesis de Vitoria á siete de Febrero de mil ochocientos ochenta y cinco, yo el infrascrito cura de la Parroquial de San Juan Bautista de la misma, dispuse dar sepultura eccia en el

dia de la fha al cadaber de Jose Ignacio Echeberria, marido en primeras nupcias de Agustina Odriozola, é hijo legitimo de Ignacio Echeberria y Josefa Antonia Larrañaga, naturales los cuatro de Amezqueta. Falleció de muerte violenta y a los cincuenta años de edad. No se le administraron los Santos Sacramentos por habersele encontrado muerto...

Abizenetan bi oker ageri dira: andearena, Oriozabala da; ez Odriozola; ta amarena Larreta; ez Larrañaga.

Gaiñontzean, oso batera dator ildakoaren ondorengoak kontatu dituztene-kin.

* * *

Eguna jakiñik, periodikoetan ere aztertu degu. Onela dio 1885-II-7'ko *El Eco de San Sebastián*'ek:

«Ha llegado á nuestras noticias que ayer se encontró asesinado un pastor en lo alto de Santa Bárbara, jurisdicción de Hernani, habiendo sido producida su muerte por arma de fuego. La causa parece ser el haber querido defenderse de los que intentaron quitarle una oveja.

Los tribunales entienden en el asunto, por lo que nos abstenemos de dar más detalles de que no podemos salir garantes».

Ta egun bereko *El Urumea*'k:

«El pacífico vecindario de Hernani se halla afectado con un crimen cometido en las intermediaciones del fuerte de Santa Bárbara.

Parece que había desaparecido un pastor que cuidaba de un rebaño de ovejas y que después de varias pesquisas se halló anteayer el cadáver de aquel.

Dos individuos han sido presos por sospechosos.

Creese que el crimen es consecuencia de una venganza personal.

El juzgado se personó ayer mañana en el monte de Santa Bárbara a practicar las primeras diligencias».

La Voz de Guipúzcoa'k ere ematen du eriotz orren berri, baiña laburrago eta txe-etasun berririk gabe.

Andik aurrera, periodikoak ez dute eriotz orren aitamenik ere egiten. Obeto esateko, olakorik ez degu arkitu, azterka ibiliarren.

Baiña auzia edo olako zerbait egingo zan noski, eta orduko paperak or egongo dira nunbait ere.

* * *

Beraz, bertso pare bat eta bi kontaera ditugu emen; auek, oso ezberdiñak.

Kontaera oiek ez dira bearbada txe-etasun guzietan egiazkoak izango; baiña sustraiez bai noski.

Eriotz bana aitutzen dutela esan nai degu, ta biak gertatua.

Txirritak, noski, iltzaille oietako bati kantatuko zizkion bertsoak; baiña gero, denborarekin, bertso oiek bi eriotzei erantsiko zizkien jendeak.

Ori da gure iritzia.

* * *

Amezketako artzai ori il zuten tokia ezagutzearen, Ernani'ko Marrakane baxerrira joan giñan arratsalde batean.

Ara iritxi eta Jose Jenua bertako etxe-kojaunarekin topo egin genduan.

Galdetu genion eta baietz, antxe artzai bat il zutela esan zigun; bere aurrekoei orrela aditu izan ziela.

Urrengo gure galdera, gurutzerik-edo ba ote zan. Onela erantzun zigun:

—Arria ortxe dago bide kurutze orretan. Gurutzea len bazan; orain ez dakit eraman duten edo zer egin duan.

Biok jetxi giñan bide kurutzeraño. Arria antxe zegoan; arri landua, ederra. Eta gurutzearen puska batzuk ere bai, oraindik ere arriari itsatsita.

Arriaren inguru guzia belarrak eta sasiak artua zegoan. Makil bat eskuratu eta an asi giñan belar eta sasi oiek badaezpada ere astintzen, eta antxe agertu zan gurutzea. Burnizko gurutze txiki polit bat, erdoiak erdi jana.

Marrakane'ko Jose Jenua'ren baime-narekin, Amezketako'ra eraman genduan eta artzaiaren ondorengoei eman.

1. Gertaera: Bizente Oiarbide. Txilibita base-rria, Ereñozu, Ernani. Aitari entzun zion. Ama Txirritaren lengusua zuan. Txirrita urtero izaten zuten etxean bazkaltzen San Antonioetan.

Bertsoak: *Txirritaren Testamentua, Imp. Macazaga, Renteria, 1930.*

Gregorio Santa Cruz, Akola, Latze, Ernani: 1/1: Larogei urte pasa dituzu; 1/2: dirudizula etsaia; 2/7: eriotzaren etor-buruak.

Juan Bautista Gesalaga, Zaldubi bertsolaria, Zaurautz:

Larogei urte igaro'ituzu dirudizula etsaia, zere denbora ez dezu pasa zeuk uste bezin lasaia; demoniñuak aditzen daude zure animan usaia, zu bañon gizon obeago zan zuk il zenduan artzaia.

Txapelketak eta omenaldiak

XENPELARREN OMENALDIAN

Errenteria'n, 1931'garren urteko uzta-
ren 24'ean, omenaldi eder bat egin zi-
tzaion Xenpelarri. Bertso saioa ere izan
zan. Saio artakoa da Txirritaren bertso
au:

Oraintxe dira iruoi bat urte
Xenpelar zana il zala,
bi bider beintzat ikusi nuen
txiki-txikia nitzala;
gure Jainkuari deika nago
obispo zar bat bezela:
purgatoiuan baldin badago
zerura eraman dezala!¹

Xenpelar 1869'garren urtean il zan;
Txirrita, berriz, 1860'garrean jaiou. Eza-
gutu zezakean, beraz.

Bertso ori bera beste era batean ere
jaso degu:

Irurogei ta bat urte dira
Xenpelar zana il zala,
nik lenbiziko ikusi nuen
gazte-gaztia nitzala;
Jaungoikuari eskaka ari naiz
obispo zar bat bezela:
nere partetik Beran onduan
zeruan izan dezala².

Bertso au saioaren asierakoa izan
omen zan.

Gero, Txirrita ta Mattin alkarrekin

jardun omen ziran. Mattin ori Bidasoa'z
beste aldekoa zan, baiña ez Ahetze'koa,
danok ezagutu genduana, beste bat bai-
zik. Mattin onek au kantatu zion Txirrita-
ri:

Gaztetan bazenuela
neskatxez aukera,
berakin irtetzen ziñan
gora eta bera;
zu bezela mutilzar, danak
gelditzen bagera,
mundukuak lafite³
bukatuko dira.

Eta Txirritak erantzun zion:

Disparate aundi bat
nua esatera,
zuk e zer esan dezun
kontuak atera:
mutilzarra izan zan
Jesuskristo bera,
gu're aren ordenetan
errenditzen gera⁴.

* * *

Bertso erdi au, emezortzi bat urte le-
nagogkoa da; baiña Txirritak Mattin oni
kantatua dan ezkerou, emen jartzen degu.

1913'garren urtean, Sara'n, Santa Kruzetan, bertsolari-saio edo sariketaren bat egin zuten. Txirritak irabazi zuan saria.

Mattin guardasolarekin zan; Txirrita, berriz, kapotearekin. Ta onek, bukaera onela zuan bertsoa kantatu zion:

Mattin, esango dizut
nik zuri egiya:
kapotia gerizatzen ditu
aizia ta ebiya⁵.

1. Fernando Iturralde, Egaña-enea, Ernani.
2. Jose Luis Lekuona, Lexoti bertsolaria, Oiar-tzun.
3. lafite; laister.
4. Jose Luis Lekuona, Lexoti bertsolaria, Oiar-tzun.
5. Eduardo Egaña, Ernani'n jaiotako ta Donibane-Lohitzun'en bizitza.

BERTSOLARI-EGUNA

(1935'ngo Iibeltzaren 20'an)

1935 eta 1936 urtean bi bertsolari-txapelketa ospatu ziran Donostia'n. Bietara azaldu zan Txirrita.

Baiña urte eta pixu geiegiz oso baldartuta zegoan. Ibili, nekez eta bi makulurrekin egiten zan. Gurdiz-eta eramaten zuten batetik bestera. Zartzaroko aje guztiak gainean zituan. Bere onenak emandako bertsolaria zan.

1935 urteko Bertsolari-Egunean, bertsolari auek bildu ziran: Basarri, Zarautz; Zepai, Errezil; Txirrita, Altza; Txapel, Azpeiti; Lujanbio, Saiburu alegia, Erren-terri; Abarrategi, Bizkaia; Telleri-txiki, Erren-terri; Nekazabal, Zarautz; Sarasola, Lexo alegia, Antigua, Donosti; Mintegi, Ordizia; Erauskin, Ordizia; Kortatxo, Itziar; Zabaleta Pello, Erren-terri; Zabaleta Juan, Erren-terri; Sorozabal, Aiete, Do-

nosti; Etxeberria, Aiete, Donosti; eta Uriarte, Bermeo.

Basarrik irabazi zuan leenengo saria, eta berak emango digu txapelketa aren berri:

«1935'garren urtera goazemakizu, irakurle. Kursaal antzoki edo teatroan le-nengo bertsolari-eguna ospatzen da.

Ordua baño ondotoxo lenagotik, areto apain ura jendez gañeztua dago.

Epai-maia ezarri dute, Juraduko jaun serioak artu dituzte beren aulkiak.

Beren abilitadeak neurtzera joandako ogei bertsolariak ere exeri dira bakoitza bere tokian.

Asi da bertso-gudua.

Iruna kantatuaz agurtu dute bertsolariak aurrekaldeko entzule-talde ugaria.

Ezin da egokiago asi da jai-aldia, ta ondo asten dana sarritan ondo bukatzen da, orduan gertatu zan bezela.

Bigarren asi-aldirako Juraduak izen-datu bear du gaia. Beren izkuntza goral-tzea agindu zitzaien, eta al zuenak al zuen ondoen ortara saiatu ziran.

Gure Txirritaren txanda eldu zanean, bere eun ta berrogeitaka kilorekin, kabitu ezin zan eserleku artatik era ontan abestu zuan:

Larogei urte gaiñean ditut,
nago anketako miñez,
Donostia'ra etorria naiz
erren aundia egiñez;
bi bastoiekin txit larri nabil
pausorik eman eziñez,
euskera ia aztu zait eta
erderaritan jakiñ ez,
maixu batekin eskolan laxter
asi bear det latiñez»¹.

Bertsolari guduak 1935-1936 liburuxkak eta *Yakintza* aldizkaria izango dira bertso au lenengo aldiz agertu zutenak. Orregatik, oietan dagoen bezela jarri degu emen.

Oar bat egin bearko litzake: Txirritak etzituen orduan larogei urte, ia irurogei ta amabost baizik. Ain zuzen, an bertan zan Txapel bertsolariak, beste onela eman zidan bertso au:

Irurogei ta amabost urte
munduan bizi eziñez,
anka erreumak artuta daukat,
nago iztarreko miñez;
bi makilla zar esku banatan
pausorik ezin egiñez,
euskeraz iya aztu zait eta
erderaz berriz jakiñ ez,
Vaticano'ko maixu batekin
ikasi biet latiñez.

Urrengo saioa, puntua jartzekoa izan zan. Txirritari puntu auek jarri zizkioten eta onela erantzun zuan:

–Jarraiozu zeorrek
orren esanari...

–Errespuesta emango'iot
orain gizonari.
Apenas dago bertan
eskas eta larri;
ez da ala moduan
jolasean ari.

–Ez dezazute esan
berritsuk gerala...

–Errespuesta emango
diot bereala.
Galanki zapaltzen det
anketako sala;
baiño jasotzen gaitu
nola edo ala.

–Zer dala-ta zabilta
bertsoen lanetan?...

–Zartu xamar naiz eta
bizi naiz penetan.
Egiak aitortutzen
dizkitzut benetan:
ez dago arrunka aundirik
alderdi onetan².

* * *

1935'ko bertsolari-txapelketa ontaz, berri auek ematen dizkigu Sebastian Sala-berria'k, bere *Neronek tirako nizkin* liburuan:

«Nik amazpi urte nituala, Donosti'ko Kursaal'ean egin zan bertsolari-txapelketa bat. Artako lendabizi Donosti inguruko errietan aukeratzen zituzten ber-

tsolaririk onentxuenak, beren bertso-saioak egin ondoren. Txapelketa artako zuzendariak egun batez Aiete'ko ballarara etorri ziran, eta, emengo bertsolari zarrak eta gazteak bildu eta alkar probatu ondoren, Kursaal'era joateko gelditu giñan: zarretatik Aranburu'ko Martin Etxeberria ta Berabera'ko Nikolas Sorozabal, eta gazteetatik Oriamendi'ko Jose Leon eta ni.

Esan bezela, txapelketa-egun artan bildu giñan Kursaal'era, eta ango zuzendariak esan zidan, Jose Leon etortzen bazan, guk biok kantatu bear genduala lendabizi, baña, ez bazan etortzen, ezin kantatuko nuala bakarrik. Eta nola etzan azaldu, ez nuan kantatu.

Bañan esan zidaten, txapelketa bukatzen zanean, joateko beste bertsolariekin batera bazkaltzera, eta an joan giñan agintari, zuzendari eta bertsolari danak ostatu eder batera; an agindu zidaten neri ere kantatzeko, eta beste bertsolariak bezela eman zidaten saria; eta, egun zoragarrri bat pasatu ondoren, eman zitzaion bukaera egun artako bertsolari-festari. Egun artan Basarri gelditu zan txapeldun.

Garai artako bertsolari zarrak bazuten Donostia'n txoko polit bat, oso maite izaten zutena: kale Easo'n –gaur Víctor Pradera³– Bar Manolo. Donosti aldera etortzen ziran bertsolariak, ostatu ontara biltzen ziran; Txirrita baitzan onera maiz xamar etortzen zana eta nik uste det danak aren arrastuan ibiltzen zirala. Gañera, bertako nagusia Manuel ere bertso-zale purrukatua baitzan.

Egun artan, guk bazkaldu genduan ostatuan, bertsolariak irten da gero, inguratu zitzaidan nere lagun bat, Patxi Lazkano, Altza'ko Otxoki baserrikoa, eta bera ere bertsolaria, ni baño gatzexegoa.

Etzekian nunbait ongi Donosti'ko berri eta neri galdetu zidan:

–Aizak: ik bai al dakik bertsolariak nun egiten duten billera?

–Jakingo ez diat, ba? Ia, etorri adi nerekin. Bereala erakutsiko diat.

Ala, etorri giñan Manuelen ostatura, eta an zeuden bertsolari geienak, Txirrita beren maixu aundiarekin, batzuek maiean exerita ta beste batzuek zutik. Gu sartu giñanean, etzan iñor ari bertsoan; danak ixilik zeuden.

Txirrita, berriz, bakar-bakarrik mai txiki batean meriendatzen ari zan, kaxuelkada bat tripaki eta botilla bat ardo bere aurean zituala. Eta nola ortzik etzeukan eta tripakiak ere zail xamarrek zeuden, aoan ibilli ta mai-pera botatzen zituan. An bazebillen txakur txuri txiki bat eta arenztat etzetozten gaizki.

Ontan nere lagun Patxik esan zidan:

–Bertso bat botako niokek ba orain-txen Txirritari!

–Bota akiok ba, motel!

–Lotsatu egiten nak!

–I lotsatu egiten baldin baaiz, neronek botako zioat ba!

Alaxen, aulki bat artuta, jarri nintzan Txirritaren mai artan, eta esan nion:

–Jainkoak gabon dizula, Txirrita. On egin dizula!

–Igualmente, gazte; eskerrik asko.

Eta ontan kantatu nion nik bertso bat; ez naiz artaz ondo oroitzen, bañan olako zerbait zan:

Ederki kosta zaizu, Txirrita,
kaxuelka ori jatia,
tripaki-puxka pranko badezu
mai-pe ontara botia,

txakur onek gaur zure kontura
egin duan banketia!
Onentzat ez da gaizki etorri
zuk ortzik ez izatia.

Ori aditu zuanean, bultza zion Txirri-
tak kaxuelari, –ordurako geiena ustuta
zeukan–, trago bat edan da bereala ber-
tsotan asi zan, olako zerbait kantatuaz:

Txakur txar onek antzeman dit
nik ortzik ez daukatena,
berialaxen billatutzen du
neri sobratzen zaitena;
kaxuelka bat tripaki banun
ta berak jan dit geiena,
gero kontua pagatzeko ni,
orrek ematen dit pena.

Orduan ekin zion beste bertsolari ba-
tek, esanaz parrandan gastatzen zituan di-
ruekin etzeukala ortza berriak jarri ezi-
ñik, eta orduan errezago jango zituala tri-
pakiak txakurrari eman gabe.

Kursaal'ean ederrak kantatu ziran, ba-
ñan an kantatu ziranak etziran batere txar-
rragoak. Gu gaubean, amarrak aldean,
atera giñan etxe aldera, eta artean ere an
gelditu ziran danak, zeñek baño zeñek
bertso ederragoak kantatuaz. Zeru txiki
baten antza ematen nion nik Manuelen
ostatuari egun artan. Bazirudian aingeru-
-talde bat ari zala kantari, triste zeudenak
alaitu naiean. Izan ere, orrelako egunak
gogoangarriak izaten baitira Euskale-
rrian, batez ere euskal oitura onak maite
ditugunentzat».

* * *

Or goien aitaturako Patxi Lazkano'k

ere utzi du gai oni buruz bere testigantza.
Onela dio bere *Tiro tartean bertsotan* libu-
ruan, 153 orri-aldean:

«Txirritarekin ere aritu izan naiz, 1935
urtean.

Txapelketa izan zan Donosti'n, ta ura,
Donosti'ra etortzen zanean, Kale Easo'ra
joaten zan, *Bar Manolo*'ra.

Ta Xebastian Salaberria lagun aundia
nuan. *Ankamotxa* esaten diogu guk. Al-
karrekin asko ibiltzen giñan, arek baze-
kian ta esan zidan:

–Goazemak ara.

Joan ta Xebastianek kantatu zuan len-
bizi, ta nik gero. Txirritak ere bai, Baita
Xegundo Kalonje'ren osaba Linok ere».

1. Aurreko aiderazpena: Basarri: *Aranzazu* al-
dizkaria, 1946. Bertsoa aldaketa auekin: 1: Larogei
urte gañean dauzkat; 5: bi makulakin txit larri nabil;
9: sasi eskolen batean laister.

Bertsoa, *Bertsolari-guduak*, 1935-1936 liburux-
kak dakarren bezela idatzi degu guk.

Liburuxka onek oar au eransten dio bertso oni:
«Bertso onek algara ederrak egin-azi zituan. Izan
ere bukaeran buru-eskuakin Ariztimuño apaiza era-
kutsiaz, maixutzat bera aukeratua zeukala adieraz-
ten zuan».

Yakintza aldizkariak ere berdin ematen du bertso
ori, bere 14'gn zenbakian, 1935'eko Epaill-Jorrailean.

Bertsolari guduak liburuxkak, *Donosti'ra etorria*
naiz idazten du irugarren lerroan. Baiña neurrirako
Donosti'ra bear du eta orrela ezarri degu guk.

2. *Bertsolari guduak 1935-1936* liburuxka eta
Yakintza aldizkaria, 14'gn zenbakian, 1935, Epailla-
-Jorrailla.

Aldaketa bat egin degu. Liburuxka eta aldizkari
oiek onela idazten dute: *yakin, yarraiozu, yolasean*
ta *yasotzen*. Txirritak, noski, *yakin, jarraiozu, jola-
sean* ta *jasotzen* esango zuan eta orrela idatzi degu.

3. Ala zan 1964 urtean, Salaberria'k bere libu-
rua idatzi zuanean. Gaur, ostera ere *Easo* du izena
kale orrek.

TOLOSA'KO TXAPELKETA

Donostia'n, 1936'ko ilbeltzaren 19'an ospatu zan Bertsolari-eguna edo Txapelketaren aurretik, iru kanporaketa edo eliminatoria egin ziran Tolosa'n, Azpeiti'n eta Elizondo'n. Txirritak Tolosa'koan kantatu zuan.

Oso berri emale berezia agertu zan andik urteetara, bertso festa ura zer izan zan adieraziko zuana: Uztapide zana, bere *Lengo egunak gogoan* liburuan. Atal osoa eskeintzen digu, *Tolosako txapelketa* izenarekin. Onako auek atal ortatik artuak ditugu:

«Milla bederatzireun da ogei ta amabostean zan Tolosan bertsolarien konkurso edo eliminatoria bat izan zana. Ni ere apuntatuta nengoan Azpeitira joateko, eta nere kezka banituan nik ere; eta joan bear nuala pentsatu nuan Tolosara, ta baita joan ere.

Abenduan izango zan ta igandea¹. Etxean bazkaldu ta jetxi nintzan Zestueira; an Urolako trena artu ta Azpeitira joan nintzan.

An, Tolosara pelota-partidora joan bear zutenak bazeuden korredore batzuek, eta, ola, aiek tokia bazeukatela taxisean da piska batean itxogiteko.

Aiek preparatu bitartean kape dat artu nuan, eta noizbaiten azaldu ziran aiek ere. Abitu giñan da baita iritxi ere Tolosara.

Aiek «Goazen prontoira!» esan zidaten neri korredore aiek, baña etzegoan

orduan Tolosako prontoian ni eramateko partidirik. Nik bertsolariak ikusi bear nituan derrior, da baita joan ere.


Bertsolariak batzokian ziran. Sarrera nunbaitetik lortu nuan da sartu nintzan batzoki ortara; eta alako batean bildu ziran bertsolariak ere.

Ala, lenengo, ongi-etorria edo agur bana berak nai zuten bezela kantatzea libre zuten. Bina izango zan. Aiek etxean pentsatuta eraman zitezkean. Danak illaran ederki kantatu zuten.

Bederatzi bertsolari ziran: Txirrita ta Saiburu, Txirritaren lengusua; Ibarrako Ezeiza, Irurako Moxua ta Andoaingo Etxeberria; oiek bost eta lau Asteasu-koak: Ondartza Bautista, Pantxo zarra, Ugartemendia eta Txapartegi.

Gero gaia obligatua zan, da Gabon edo Olentzeroetako oiturak esan bear zituzten. Aurreko urtean, Donostian, euskera edo euskal gaia eman izan bear zuten, da batzuek ura gogoan eta etxean pentsatutako bertsoren batzuek igual eramango zituzten.

Irurako Moxua, beintzat, nabarmendu zan. Arek etzuan Gabonik eta Olentzero-rik aitatu; Sabino Arana Goiri'rekin asi zan eta ortan bukatu zan aren saioa. Baña arek ainbat txalo irabazi zuanik, egun artan etzan izan besterik; arek ainbat parra eragin zuanik ere ez. Arek baño obekiago gaia erabilli zutenak izango ziran, baña uraxe grazian erori zana an.



Tolosako txapelketa, 1935-XII-29.

Ezkerretik: Txirrita, Saiburu, Ugartemendia, Ezeiza, Moxo, Etxeberria, Txapartegi, Pantxo eta Ondartza.

Beste batzuek baziran: Lujanbio bat, konparazio baterako. Onela kantatu zuan:

Gabonetako oitura zer dan emango det aditzera;
ni ez nijua sentitzen dedan gauzarikan ixiltzera,
al baldin bada jarri diraten gaiari zuzen eltzera.
Basarrietan zer egin oi dan gogoratutzen al zera?
Kapoi-paria nausiteira ta bakallagua etxera.

Beste bertsorik egun artakorik ez det gogoan ola esateko.

Gero opizioak emanda eta puntuak edo asierak bestek emanda ere bai. Gero atzenean agurra, eta ala bukatu zan egun artako bertso-saioa.

Orduan etziran ondo probatzen bertsolariak, nere ustez. Momentuan bertsoa kantatzen oso ona etzanak ere, asieran bi bertso eta akaberan beste bat edo bi etxean pentsatutakoak kantatu zitzaizkean; beste dozen erdi bat bertso izaten ziran danak ere, eta etzan orain aña prueba egiten orduan bertsolariakin.

Juradukoak, don Manuel Lekuona, Ariztimuño apaiza, Joseba Zubimendi, Olaizola, Txomin Olano ta Basarri edo olako batzuek izango ziran; jeneralean oiek ibiltzen ziran orduan.

Danen gustora etzan juzkatuko an ere, baña lenengoa Txirrita zarrari eman zioten; bigarrena ta irugarrena berdin, Lujanbio

Txirritaren lengusua eta Andoaingo Etxeberriari; laugarrena, berriz, Ibarrako Ezeizari. Orrelaxen banatu ziran ango sariak.

Asteasutarrak premiorik gabe gelditu ziran. Batzuek jardun ziran zerbait esaten, baña alperrik; juradua ortarako jartzzen da eta etzuan balio izan jendearen jardunak.

Premiorik etzutenari eman zioten zerbait gastuak egiteko; amar pezeta edo iru duro edo orrelako uskeriren bat izango zan orduan. Lenbiziko premioa ere geienaz eun pezetako bat, da ortik pentsatu atzenekoak zenbat izango zuan. Orduan etzan dirua orain bezela izaten.

Dana dala, nik aparti ederra egin nuan, eta bertsolariak zer moduz egin zuten, esamiña sarri egiten nuan. Nik uste baño obeak ziran bertsolariak. Artean ez nituan ezagutzen; bat bakarrik Batixta Kortajarena zan nik ikusitakoa; beste zortzirak egun artan ezagutu nituan.

Tolosan ere lenbiziko aldiz orduantxe iritxi nintzan. Ortik pentsatu mundua dextente korritua nengoala ni ordurako ere... Guk bertsoan egitea etzan arritzekoa ere ainbeste ikusi ta gero ere...

...Iru bat egun edo orrela egongo ziran Azpeitiko konkurso edo eliminatoria ortara², ta neri naikoa zer pentsatua jarri zidaten Tolosako bertsolariak».

1. 1935-XII-29.

2. Azpeitikoa, 1936'ko Urteberri-egunean ospatu zan.

BERTSOLARI-EGUNA

(1936'ngo Ilbeltzaren 19'an)

Bertsolari auek ziran alkar probatze-koak, Donosti'ko *Victoria Eugenia* antzokian: Zepai, Errezil; Dargaitz, Otsondo; Etxeberria, Andoain; Harriet, Aldude; Uztapide, Zestoa; Lujanbio, Saiburu alegia, Errenteri; Mutuberri, Eltzaburu; Txapel, Azpeiti; Iriarte, Irurita; eta Txirrita, Altza.

Basarri, jai-aldiaren gidaria izan zan.

Leenengo saria Txirritak irabazi zuen.

* * *

Leenengo saioan, agur egiterakoan, bertso auek bota zituan Txirritak:

Agur eder bat egiten diet
ementxen dauden danari,
ta batez ere gu juzgatzer
etorri diran jaunari;
oiek ipintzen duten guzian
elduko diot gaiari,
Jainkoak zerbait emango dio
beian saiatzen danari.

Zuberoa'n ditugu adar bi,
Laburdi irugarrena,
Bizkai, arabar, gipuzkoarrak
osatzan degula dana.
Ori munduan jakiña dago,
ez beza iñork artu pena,
nik oiek emen ikusi eta
asko poztu zait barrena.

* * *

Bigarren saiorako, gai au ipiñi zan:
«Gerra zitalen ondoren txarrak».

Orduan bota zuan Txirritak txapelketa ontako bertsorik famatuena, Euskalerriguzia korritu zuan bertsoa. Aldi ontan ere Basarriri utziko diogu itza:

«Aurreko urtean bezela, agurketako bertsoen ondoren, epai maiekoak ezarri dute gaia.

Artean «atomikaren» aztarnik etzan arren, esan ziteken gizon aiek etorkizuna ikusten zutela. Gerra, guda, ipiñi zuten mintza-gai.

«Pakerik txarrena obe da gerrarik onena baño» dio lenengo bertsolariak. Pake-denboran sardiña zarrak naiago litukela gerra-denboran txuleta sendoak baño, esan digu beste batek. Mutillak sasoi onenera ekarri, gurasoen laguntza ta itxaropena diran garaian gerrara joan eta geiago ez etxeratze orrek sendietan ekartzen ditun negarrak gogoratzen dizkigu beste batek. Danak an ari dira zein baño zein iaioago ta bizkorrago gerra nundik azpiratuko ta nork geiago gorrotatuko.

Azken aulkian Txirrita dago; amargarren bertsolaria da bera. Zerbait somatu bearrean da, baño gauza berria somatu nai luke. Ainbeste tristuren artean parre-argara sendoak aterazteko zerbait.

Bai sortu ere, arranetan! Begira nola:

Zenbat errezo egin izan det
nere denboran elizan,
ta pozik nago ikusirikan
pakian nola gabiltzan;
ni naizen bezin kobarderikan
iñor ezin leike izan,
semeak gerrâ ez joateatik
mutil zar gelditu nitzan».¹

Saio ontan beste bi bertso auek ere
bota zituen Txirritak:

Asko dirade nai lutekenak
mundu danian nagusi,
pakian bizi diran kristauak
bere soldadu ta guzi.
Orlakuari tira atzetik
joan dedilla igesi,
gerra nai duan gizonak ez du
salbaziorik merezi.

Okasiua ara, jendiak,
nola gerta litekian,
obea degu gerratan baiño
bizi umore onian.
Zenbait bezela ez naiz izaten
fondetan eta kafian,
gerran gosiak baiño naigo det
naikua janez pakian.

* * *

Irugarren saioan, puntuak jarri zizkie-
ten bertsolariei. Basarri zan puntuak ematen
zituena.

Onako auek dira Txirritari jarriak eta
beraren erantzunak:

–Zer egiten dezu or,
lagun zar Txirrita?

–Lasai ementxen gaude
deskantsun jarrita.
Len ere badakigu
alkarren berri ta
ez det deusen bildurrik
onea etorrita.

–Gaur badaukagu emen
ai zer umoria...

–Sekulan ez det izan
orlako zoria.
Or zabiltza zu nere
kupira gabia,
zeiñek billa lezaken
beste bat obia.

–Gustatutzen al zaizu
zuri bixigua?

–Bai, ta jan egiteko
badet desiua.
Ori da neretzako
mokaru goxua,
gero zurrut eginda
a zer pasuia².

–Ikusi nai zinduket
asmatu eziñik.

–Entzun dezu amaika
bertso eder ta fiñik;
bestela ez genduke
emen gauza onik,
ez uste oraindikan
nekatu naizenik.

–Onekin bukatzen da
oraingo saia.

–Naiz bertsoetarako
apropos jaiua.

Atia itxi zaigu
baita're leiua,
par eizu, zertan zaude
orren seriuu?

* * *

Laugarren saioan, ofizioak eman ziz-
kieten bertsolariei.

Zepai eta Txirrita alkarrekin jardun
ziran. Zepai, uztargille zan; Txirrita, itzai.
Onela kantatu zuten:

Zepai:

Jose Manuel, nola naguen
zuri begira jarria,
tratu onetan konpontzekotan
onera zera etorria.
Nik aditzera banun ziñala
itzai ikaragarria,
neri noiz paatu bear dirazu
egin nizun uztarria?

Txirrita:

Gu biok emen ikusi eta
jendiak poza artzen du,
antziñetako adiskideak
alkar biogu lagundu.
Oker zabilta, gizarajoa,
bear zenduke zuzendu;
beste uztarri bat emen daukat
baldin egingo bazendu.

Zepai:

Gose-bolaran bildurrik gabe
esan daiogun alkarri,
ofizial ona naizela azkar
egin didazu igarri.
Lengo uztarriakin zure idiak
etziraden gaizki jarri,

beste bat ere egingo dizut,
nai dezunian etorri.

Txirrita:

Nere idiak ibiltzen dira
oso joera puertian,
ez dute gaitzik ere izandu.
joan dan urte betian.
Pama puska bat badezu baiña
jakinduria apartian;
suerte onikan ez dezu izango
bat ona egin artian.

Zepai:

Neri zertako desairatzeko
orrenbesteko enpeñu?
Ziria sartuko zeniguke
guk sinistuko bagiñu.
Zure idiak gose-plakian
badute amaika kariñu;
uztarria baño obe zenduke
ondo goberna baziñu.

Txirrita:

Nere idiari komeni zaie
izateko anparua,
zuk euki dezun kontua baiño
pixkat obexiagua.
Intxaurrearekin tratua egin da
bialdu ziran pagua,
nai dezunari saldu zaiozu,
an geldituko da ua.

Zepai:

Aizu, Txirrita, esango'izkitzut
segiturikan egiak:
zure idiak ez ditu galdu
uztarri onen premiak.
Disimuluak gezurra izanda
dauzka bere alderdiak:

uztarri onik ez du beñere
gosiak dauden idiak.

lengo uztarria pagatu arte
besteik ez dezu eramango.

Txirrita:

Mundu onetan pizkorragorik
gezur esaten zu baiño
izango dira, baiña nik orain
egia dizut esango.
Alde ortatik bildu liteke
zerbaiteren aginaldo:
gose-egarririk ez daukate,
gobernatzan ditut ondo.

Txirrita:

Estututziak ez du balio,
lasai ibilli zaitia,
bertsua orain botako dizut,
nere amigo maitia.
Gerta ez bada uztarri on bat
alde ontara joatia,
kostako zaizu nere atetik
dirurik eramatia³.

Zepai:

Beren denboran pasatu dute
amaika otz eta bero,
aundi xamarrak daukazu baiña
ez da izango luzaro.
Onen idiak karga aundian
bizitzen ez daude giro,
itzai berriz engañatzen da
zurruta izan ezkeru.

Leenengo saria Txirritak irabazi zuan:
150 pezeta. Bigarrena Uztapidek: 100 pe-
zeta. Irugarrena Zepaik: 75 pezeta. Lau-
garrena Dargaitz'ek: 50 pezeta. Ta bos-
garrena Iriarte'k: 25 pezeta.

Murua jaunak bertsolari zarrenaren-
tzat emanda, beste ogei ta bost pezeta
Txirritak jaso zituen. Iriarte'k, berriz,
beste ogei ta bost pezeta, gazteenarentzat
emanak.

Txirrita:

Nere idiak osatzen dira;
baiña zu, diruzalia,
idi oietxek mendera nairik
badaukazu zuk premia.
Oju aundia egiten dezu
dirudizula praillia;
idiak gosez ilko lirake
baldin zuriak balia.

Sari gabeko beste bertsolari guziei ere
ogei ta bosna pezeta eman zitzaizkien.

* * *

Zepai:

Komeni ez dan arrazoirikan
zuri ez dizut esango,
ta nik emendik agertu arte
ez al zera ortik joango.
Zu baiño itzai zatarragorik
munduan ez da izango,

Donosti'ko Txapelketa ontaz ere, Uz-
tapide zanak atal osoa idazten du bere-
Lengo egunak gogoan liburuan. Gauzak bi
bider ez esatearren, atal ori ez degu onera
osorik aldatuko; bai, ordea, zerbait berri
ematen diguten pasarteak:

«...Amarrak alderako euzko etxera
juntatzekoak giñan, eta ara arrimatu gi-
ñan. Bertsolariak, geienak ara bildu izan-
go ziran, eta andik *Victoria Eugenia*'ra
joan giñan...

...Juradua edo epai-maikoak ere bai.
Tolosan da Azpeitin ziranak berak ziran
Donostian ere: Ariztimuño ta Lekuona



Donostiko txapelketa, 1936-I-19.

Bea, ezkerretik: Dargaitz, Harriet, Txirrita, Iriarte eta Etxeberria. Goien: Txapel, Saiburu, Zepai, eta Uztapide.

apaizak, Olaizola, Zubimendi Joseba, Txomin Olano ta Basarri edo olakoxe baztuz.

Asi giñan, ba, kantari, beti bezela lenbiziko agurra egiten.

Erdi-erdian nengoan; bostgarren edo orrelaxe. Bertsoan asterako, esan zuten txalorik ez jotzeko, bestela luzatu egingo zala txapelketa; ta lenbizitik jendeak ixiltasuna gorde zuan, baña nere txanda etorri zan da egundoko txalo-zaparrada izan zan.

Ni nintzanik ere etzekiten an zegoan jendeak, eta lanik zaillena egin nuan: publikoa nereganatu. Andik aurrerakoa erraza izan zan. Berria nintzan eta, esaten dan bezela, nobedadea.

Etzan besteak nik baño gutxiago egin zutelako, baizik jendea nere alde jarri zan, da ni baño geiago ziran an entzuten zeudenak. Nerekin bakarrik ez det ikusi nik ori; geiagorekin ere gertatu izan da orrenbeste...

...Danak egin zuten an bakoitzak berea. Batek egun obexegoa izango zuan, besteak baño. Baña bertsoan tajuz egin etzuanikan, iñor ere ez.

Len esan dedana, muga arunzkoakin jende asko erdi konprendituan gelditzen giñan; baña ori etzan aien kulpa, guk ez ulertzea.

Agur egiteko bertso bana edo bina botu genduan, da ortan bukatu zan gure txapelketa.

Bazkal ondoan emango zutela klasipikazioaren berri, ta fotografiak atera giñuzen *Victoria Eugenia*'ko atarian: leenengo danak batean, eta gero neri bakarrik; eta nik, ederra nintzalako ote zan neri bakarrik erretratua ateratzea. Erretratistak etzuan ezer esan da ortan pasa zan.

Andikan euzko etxera joan giñan bazkaltzera, ta bai bazkaldu ere lasai. Estuasuna goizean pasa ta ederki geunden orduan bazkaltzeko ere.

Erdi bazkaldu zaneke, asi ziran mugaz arunzko oiek, batean beren artean da bestean Txirritari, ta jaten etzutela utziko...

Gero kapea artu genduan da irunaka jarri giñuzen bertsoan, batzokiaren iru eskiñatan: Elizondokoak eskiña batean, Tolosakoak bestean eta Azpeitikoak bestean. Guk laugarrena ere an genduan: Bidaniko Muñoa.

Gu an bertsoan ari giñala, beste aldean epai-maikoak klasipikazioa egiten ariki, ta Txortxiko Santik esan zidan nik bigarren premioa nuela.

Nik, ura entzun nuanean, berealaxe utzi nion bertsoan egiteari, eta jarri nintzan pentsatzen:

Nik ez diat irabazi premioa! Neri goizean txaloak jo dizkidaten aiek dituk irabazi dutenak!

Lenbizi ez nuan sinistu ere egin, baña gero zorionak ematen-da asi ziran da ia etzegoan dudarik. Nik nere denboran izan dedan pozik audienea bertsoakin, orduantxe izan nuan.

Gero juraduko batek esan zidan ia kontentu gelditu al nintzan premioarekin. Baietz esan nion. Kontentu geldituko ez nintzan, ba, bigarren premioarekin?

–Ba, lenbizikoa irabazi dezu –esan zidan–. Baña Txirrita gizarajoa zarra dago, ta urrengo urtean etortzeko ere zuk itxura geiago daukazu. Ori urte askoan ezin liteke etorri, ta aurren orri ematea pentsatu degu.

–Ni ondo naiz! Ez nuan pentsatzen premioan sartzerik ere!

Bost premio zeuden da ni gabe partitu-

ko zirala uste nuan. Bigarrena eman zidaten da zoratuta gelditu nintzan.

...Esan bezela, nik neronek ere bigarren premia eun pezeta nituan, eta ortik pentsatu zazu zenbat diru zegoan orduan bertsoetatik. Guri orduan etzigun ajola diruagatik; etzitzaigun guri akordatzan dirurik.

Bazkal ondoko saioa egin genduan, da arratsaldean Kursalean kantatzeko eskatu ziguten mesedez premioak jaso giñuzenak, eta jaso etzutenak ere bai, nai baldin bazuten, gero.

Danak joan giñan. Bederatzi bertsolarik an kantatu genduan arratsaldean berriz Kursalean. Ango bertso-saioa egin genduan, despeditu giñan mugaz arunzkoakin; Tolosakoakin ere bai...».

* * *

1935 ta 1936'ko Bertsolari-jaialdi auei buruz, onela dio Errenteri'ko Bordaxar baserriko Xalbador Zapirain'ek, *Ataño* idazleak alegia, Txomin Garmendia'k bere idazlan batean jasotzen duanez⁴:

«Txirrita zanaren auzokoa danez, Joxe Manuelen kontuak oparo datozkio. Zer moduzko bertsolaria zan Txirrita galdetu nionean, au zion:

–Sagardotegi batean eta erri-pesta batean kantatzeko oso ona. Edozein tokitatik erten zitzaion bertsoa ta ateraldi zorrotza.

1935'eko bertsolari-txapelketa artan entzule omen zan Xalbador. Txirritak ez omen zun ezer egin. Irurogei ta amalau urte omen zeuzkan, da sekulan txapelketa batean kantatu gabea izango zala zion gu-re praileak. (Gaurko bertsolariak beste aukera batzuk dauzkagu). Sagardotegiko

modura jardun omen zan, da an beste zuzentasun batzuk bear.

Basarrik errez irabazi omen zun txapelketa ura, mugaz arunzko Matxin bigarren gelditzen zalarik. Bertsolari ona omen zan au ere, ta Xenpelarren illoba. Beraz, enborretik ezpala.

1936'an izan zan bigarren bertsolari-txapelketa. Txirrita jabetu edo jabetu-arazi omen zuten, nola kantatu bear zan ta gaiari nola eldu bear zitzaion da abar esanez. Bai txapela irabazi ere. Bigarren saria Uztapiderentzat izan zan...».

* * *

Lau bertso auek, *El Día* egunkarian agertu ziran, *Txirrita zarra* izenburuarekin, Txirritak txapela irabazi ta andik amargarren egunera; 1936-I-29'an, alegia. Emen argitaratzea merezi dutela uste degu.

Tamalez, egilleak *Bertsolari zar* firmatzen du, ta izenorde ori noren estalgarri dan orain ezin jakin.

Orra bertsoak:

Adierazi bear dizutet bertso batzuek jarrita, nola saririk aundizkiena eman zioten orri-ta. Dudarik gabe egingo zuten arrazoi denak neurrita, irurogei ta amasei urte bizkarrera ezarrita, zartuagatik oraindik ere baliyo dezu, Txirrita.

Guziyak ondo dakizutena Txirrita da buruzagi, zartuagatik oraindik ere baliyo dezu kantari.

Esan bezela ekin ziyoten
bertsoetako lanari,
oik ikustera jendia joan zan
Donostiya'ra ugari,
beste bi ere ez daude txarrak:
Uztapide ta Zepari!

Kantatzalleak beti badira
alde edo apartian,
onexkuenak izango dira
Gipuzkoa'ko partian.
Beti bakar bat azaldutzen da
beste guzienen tartian,
noski, ez dute aguantatuko
Txirritak ainbat urtian,
bertsolaririk ez da paltako
euskalduna dan artian.

Jakinduri oi berezkua du,
ez du besteri ostuta,
gazte denbora igaro zuen
bertsoarekin poztuta.
Bakardadian gelditua da
ezkontzia txit aztuta,
orain denbora pasia dauka,
dago odolak oztuta,
Txirritagatik bukatuko da
ondorengorik eztu-ta.

* * *

Bertsolari Berri izenordearekin izenpetzen zuan batek, berriz, beste amar bertso auek eskeñi zizkion Txirritari, *Txirrita*, *zorionak* izenburuarekin, *El Día* egunkarian, 1936-I-31'an. Egillearen egitazko izena zein dan somatzeko bidea arkitu degu, zorionez: Salvador Zapiain da bera, *Ataño* idazle ezaguna alegia, garai artan bere bertso-lanak *Bertsolari Berri* izenordearekin argitaratzen zituana.

1/ Pozaren pozez bertsoak itzul
zugana doaz, Txirrita,

garaipenaren lore ederrez
apaindua ikusita.
Amaika bertso kantatu dezu
txikitandikan asita,
mutil zaarra zerade baño⁵
bertsolari askoren aita.

2/ Danok ez gaitu berdiñak egin
gure Jaungoiko altsuak,
batzuek dira indar-lanetan
gizon pizkor ta altsuak,
garaipen billa nekatzen ditu
zenbaitek bere besuak;
zuk ez, Txirrita, zure besuak
izandu dira bertsuak.

3/ Amalau urte zenitunian
asi ziñaden kantari,
irurogei ta amasei bete
eta oraindik kontari.
Ikustalde on asko dizkatzu
eman Euskadi danari,
zu txalotua izan etzeran
erririk ez da nabari.

4/ Zure biotzak maitatutzen du
jaio ziñaden erriya,
zuretzat zarra ona zala ta
etzenduan nai berriya.
Abesti-gaia izandu dezu
Jainkoa ta aberriya,
puska maiteok kantatzen ez da
aspertu zure eztarriya.

5/ Euskal mendi ta ibar zabalak,
ibai, sasi eta basuak,
agur egiten dizute alai
goruntz jasorik besuak,
zure kantetan ezpaituzu
zokuan utzi aztuak,
urteak urte biziko dira
jarri dituzun bertsuak.

6/ Abes dituzu al dezunetan
gure gudate larriyak,
zure bertsotan iraul dituzu
gure negar mingarriyak.
Asaba zarren aintzak abestu
ditu zure ezarriyak,
maite dezu ta maiteko zaitu
beti euzko aberriyak.

7/ Jaungoikoaren izen goxua
idatzi dezu goguan,
aberriaren izen polita
abestu zure bertsuan.
Zartu zera ta lasai ibilli,
begiyak jarri zeruan,
arren maitasun onak poztuko
zaitulako zartzaruan.

8/ Zuk uste gabe beti kantari
igaro dira urteak,
naigabe miña ematen dizu
betiko lan au uzteak.
Entzun dituzu eusko deadar
ta bere negar tristeak,
galduko ote dan bildur ez izan
badatoz-eta besteak.

9/ Urte askoren azpiyan egon
arren, orra garaipena;
gorputza motel daukazu bañan
erne dago adimena...
Iñork merezi badu omenik
merezi dezu omena,
bere erriyak goratu dezan
Txirrita zarran izena.

10/ Urte askuan bizi zaitia,
ene Txirrita jatorra,

noizbait bear ta ordain dizute
aspaldi zizuten zorra.
Biotz-biotzez artu ezazu
nere zorion maitakorra,
zartzaro ona igaro zazu,
Alta'ko uretxindorra.

1. Adierazpena: Basarri: *Aranzazu* aldizkaria, Abendua, 1946.

Bertsoa: *Bertsolari guduak*, 1935-1936 liburuxka eta *Yakintza* aldizkaria, 10'gn zenbakia, 1936'ko Epaila-Jorrailla.

Basarrik onela dakar bertsoa:

Jaungoikoari erreztatzen
diot sarritan elizan,
ikusirikan aspalditxoan
pakean nola gabiltzan;
ni baño ume kobardegorik
ezta mundu ontan izan,
semerik gerran ez galtzarren
mutil zar gelditu nitzan.

2. Bertso au, ez dakit zeñi, baiña onela ere jaso izan det:

Txirrita, gustatze' al zaizu
zuri bixigua?

–Jan on bat egiteko
baukat desiu,
bota ta pagatzen dek
bere preziua,
ardoa zarra cran da
gero pasiu.

3. Atal ontako bertsoak iturri auctatik artuak dira: *Bertsolari guduak*, 1935-1936 liburuxkatik eta *Yakintza* aldizkaritik, 20'gn zenbakia, 1936'ko Epaila-Jorrailla.

Biak, «j» letra guztiak (*joera, jakinduria...*) «y» biurtzen dituzte (*yoera, yakinduria...*). Guk «j» letraz idatzi degu.

4. Txomin Garmendia: «Prailc zaar batekin izketan», *El Diario Vasco*, 1985-VI-16.

5. *El Día* egunkarian: *zarra*. Neurria osatzea-rran, *zarra* idatzi degu.

TXIRRITAREN OMENALDIA

(1936-III-22)

1936 urteko San Sebastian bezperan Donostia'n II Bertsolari-Eguna ospatu zan ondoren, erreteriarrek Txirritari omenaldi bat prestatu asmotan asi ziran. Leenengo egin zutena, berarengana joan eta jakiñaren gaiñean jarri. Txirritarekin egin zuten izketaldia, onelatsu izan omen zan:

«...Txirrita bertsolari ospetsuari omen bat egingo ote genion alegia erreteriarrok, Errenderi'n jaioa ez izan arren, bere bizi guztia Errenderi'n igaroa bai dizu. Gañera, Txirrita ez-izena ere nundik datorkio Errenderi'ko Txirrita baseritik ez bada?

Ori dala-ta, igarotako igandean erreteriar Batzoki eta *Euskaltzaleak* bazkune-ko ordezkari bi bere etxean izanak dituzu.

–Kaxo, Txirrita!

–Zer gabilta, erritarrak?

–Ementxe, gizona, zu zorientzera etorriak.

–Eskerrik asko, jaunak, eskerrik asko.

–Asmo bat ere badakarkigu bada.

–Zuek esango dezute.

–Zuk Errenderi asko maite dezuz, ezta ala?

–Bai orixe; angoa naizela kontu.

–Bada guk, euskaltzale eta abertzaleok, zuri omen bat egitea erabaki degu. Zer deritzaizu?

–Bañan agure zar oni omen bat?

–Zergatik ez?

Eta emen adierazi zioten omen jai eta beste zertzeladak; guk urrengo egun batean oen berri emango degu.

Errenderiarren itzak entzundakoan, malakoak irten omen zitzaizkion Txirrita bertsolari txapeldunari... Berak ainbat maite duen Errenderi'n omena, noski...»¹.

Txirritari eskeiñitako omenaldi ori, 1936-III-22'an egin zan.

Egun artako berri, *Luzear*'ek eman zuan andik bi egunera *El Día* egunero-koan. Idazlan luzea baita, ezin jarriko degu emen dana, baiña zati batzuk bai. Txirrita baldartua eta automobillean ekarri zuten. Onela dio *Luzear*'ek:

«Eliz-eskalleratara bateratsu eldu giñan Txirrita ta gu. Gu oñez, ura automobillean. Ta, automobil inguruan jende-pilla polita zuala, ingeles ministroak bezelaxe arkitu gengan gure Txirrita zarra.

Txirrita ikusi baño len, bi emakumezko izketan nabaitu genituan.

–Zer da or? –galdetu zion batak.

–Pralleren bat omen da paisano jantzian –erantzun zion besteak.

Txirrita pralle egin zuten aiek»².

Errenderi'ko elizak ar-malla edo eska-

llera asko ditu. Ain zuzen, leen esan degu-
nez, 1895 urtean berriro ziranean, Txirrita
ere antxe jardun zan lanean.

Bere lengusu Nikolas Lujanbio'k one-
la esango zion gero, Arjentina'tik bialdu-
takø bertso batean:

Eskallarak ark egiñak daude
Erretereri'ko elizan,
jarri zituen amona xarrak
aixa igotzeko gisan...³

Baña, bere bi makuluren laguntzaga-
tik ere, oso nekez igo zituan orain Txi-
rritak.

Meza, meza nagusia, ildako bertsola-
rien animengatik eskeñi zan. Erriko erre-
toreak egin zuan sermoia.

Meza ondorenean, zenbait euskal erri-
tan oi zan antzera, txistulariak euskal doi-
ñu batzuk jo zituzten kontzejupean.

Amabiak laurden gutxiagotan, teatro-
ra. Ager-tokian, erdi-erdian jarrita, bere
patriarka zaar itxurarekin, Txirrita.

Bere inguruan zenbait bertsolari: Lu-
janbio edo Saiburu; Telleri-Txiki, Alkain
aita-sumeak, Uztapide, Lexo, Basarri ta
Txapel. Baita euskaltzale-mordoska bat
ere.

Aurrena, Jose Ariztimuño apaiz jau-
nak, *Aitzol*'ek alegia, itzaldi bat egin
zuan:

Txirrita, bertsolarien erori-aldian, an-
tzu-aldian, guzien eusle, buru, biotz eta
maixu izana zala, eta bertsolari guziak ai-
tortzen ziotela maixutasun ori; bertsola-
riak diran bitartean gure erria ez dala ilko.

Beste orrelako gauza asko esan zituan,
Txirrita eta bertsolari guziak goratuz.

Urrena, Bitor Idiazabal'ek, Erredereri-
'ko *Euskaltzaleak* alkartearen lendaka-
riak, makil eder bat eskeñi zion Txirrita-
ri.

Makillaren esku-lekuaren inguruan
onela zion: *Erretereriko Euskaltzaleak Txi-
rritari, 1936'g. Epailla'k 22.*

Ondoren, bertsolari guziak bertso pa-
re bana bota zioten, aren bertsotarako
trebetasuna goratuz eta leenagoko bi ma-
killen gaiñetik irugarrena zertarako ote
zuan galdetuz.

Jende tartetik ere izan omen zan beste
bertsolari baten erantzuna.

Txirritak bi bertso kantatu zituan, be-
re makil berri ura gai artuta.

Emen geienak bazenekiten
ni noña neguen eri,
orregatikan bastoi eder au
eman dirazute neri;
au ikusi nai duenak orain
ondo beiratu berari,
erromatarrak bentzitutako
lizar makilla diruri.

Irurogei ta amasei urte,
garaia det umiltzeko,
bultza bearrik ez nadukake
goitik bera amiltzeko;
bi makil oiek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko,
irugarrena andregaiari
arkakosuak iltzeko⁴.

* * *

Ona emen bertso auen doiñua, Oiar-
tzun'go Jose Luis Lekuona, Lexoti bertsola-
riak, kantatu zigunez:



Andik atera eta bazkaria. Eta, bazkaldondoan, bertsolari guziak kantu-lanari ekin zioten. *Luzear*'ek onela dio:

«Ango bertsoak jaso izatera, gaurko izperringi osoa txikia genuke guzientzat. Kilometroka neurtzekoa zan atzoko etorria».

Uztapidek Txirritari esan ziona; zankoz nagi egon ez baziña, etzizuten makillik erregalatuko.

Eta Basarrik esan ziona: makilla zu baño lenago puskatuko al da.

Baiña etzuan asmatu; Txirrita andik bi illabete eta amar egunera il baitzan.

Ondoren, txistulariak, dantzariak eta pelotariak izan ziran. Urrena, bertso-saioa berriz ere. Eta, azkenik, euskal erromeria.

Egun artan eskeiñitako makilla, oraindik ere gordetzen dute Txirritaren illobak, osabaren oroipengarritzat.

* * *

Uztapide zanak, bere *Lengo egunak gogoan* liburuan, omenaldi onen berri ere ematen du. Egun artako bertso jaialdiaz onela dio:

«Txirrita ixilik zala, beste bertsolariak jardun genduan bertsoan. Urrietako Alkain aita-semeak alkarri bertsoak botatzen jarri zituzten. Saio polita egin zuten oso. Guk ere egiñalak egin giñuzen Txirrita zarra poztutzen, bakoitzak al zuan eran.

Guk ez genduan uste orduan Txirritaren urteak olain urrean zeudenik. Ari zarra orduan esaten genionak, orain geok aren edadea edo adiña gañean, eta orain dira emen kontuak.

Orduan an ziran bertsolarietatik, bi bakarrik bizi gera: Basarri ta ni. Besterik ez da iñor ere bizi. Alkain semea gure aldean gaztea zan, baiña ura ere joan zan mundu onetatik. Zeruan gerta dedilla. Jaungoikoari eskerrak eman geniozke, onenbestean geranean ere.

Txirritak artean ere umore ona zuan. Erretereriko eusko gaztediak egiten zion omenaje ori, ta omenajeko señailea makilla eder bat zan. Guk bertso-saioa egin ondoren, makilla ori eman zioten Txirrita-



Txirritaren omenaldia, Errenterin, 1936-III-12.

Zutik, ezkeretik: Ernardorena, Saiburu, Garmendia, Telleri-txiki, Bitor Idiazabal, Joxe Zubimendi, Gillermo Lizaso, Klaudio Gaztelumendi, Iñaki Olaizola eta Uztapide.

Eskertatik: Alkain zarra, Lexo, Jose Ariztimuño «Aitzol», Txirrita, Basarri, Alkain gaztea eta Txapel.

ri eskura euzko gaztedikoak, eta esan zioten makilla ari bi bertso botatzeko, eta baita bota ere:

Eskerrik asko, gazte maiteak,
makilla ederra da ori,
gizon bat zegon errenka eta
zuek eskeiñi berari;
begiratu bat egin orduko
ni naiz kontura erori:
erromatarrak apurtutako
lizar-makilla diruri.

Irurogei ta amasei urte,
garaia det umiltzeko,
gauza aundiren bearrik ez det
goitik bera amiltzeko;
bi bastoi abek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko,
irugarren au andregaiari
arkakusuak iltzeko⁵.

Txirrita bi bastoiekin ibiltzen zan beti, ta orduan ere ala etorri zan. Reumak oso menderatuta zeukan, eta orregatik bota zuan bertsoa:

bi bastoi abek aski nitun nik
munduz mundu ibiltzeko.

Azkoitiko Aldazabal tabernaria ere ortxe zan Errenterin, eta a zer pareja egi ten zuten Txirrita eta biak! Alkarren ondoan jarri ziran, eta oraindik ez det bi gizon aundiagorik alkarren ondoan ikusi...

...Txirrita txamarra beltzarekin eta Aldazabal, berriz, bruxa urdiñarekin jantzita zeuden.

Azkoitian lanean ibillita-edo, noizbaiten orren tabernan apopilo egongo zan Txirrita. Kontu asko zuten biak alkarrekin.

Bazkal ondoan beste saio bat egin gen-

duan bertsoan. Gozatu genduan Txirrita ta beste an ziran jendea. Onela jardun genduan Txirritak eta biok:

Uztapidek:

Zure bertsua beti izaten da
garbia eta klarua,
estimatzeko modukua da
zuk daukazu zartzarua;
zu bezelako aita batekin
gaztientzat anparua,
ankak piska bat makaldu arren
argi daukazu burua.

Txirritak:

Nere arteko pasadizua
esaten biet abitu,
zuri ez dizu kalte egingo
eta mesedez aditu:
reuma gaiztuak arrapatuta
elbarri nintzan gelditu,
neri gaitz ori eman ziranak
zuret zat ere baditu.

Orrelakoxe saioa egin genduan ta gustora gelditu zan gure Txirrita.

Arratsaldean pelota-partidua bertan jokatu zan, Errenteriko batzokian. Pesta guzia antxe egin zan, da bazkaria ere bai. Toki zoragarria zan ura. Partidua, pasaitarrak alde batetik eta bestetik ez naiz akordatzen zein ziran. Soñu-jotzalle ederra ere bazan, da egun ederra pasa genduan...».

1. *El Día*, 1936-II-8; *Andoni*'k firmatzen du.
2. *El Día*, 1936-III-24.
3. *Auspoa* 73, 105 orri-aldean.
4. Bertso auek modu askotara kantatzen dira.

Leenengoa, Oiartzun'go Lekungarai'ko Kosme Mitxelena'ri entzun bezela dijoa emen; eta bigarrena, erri bereko Lexoti bertsolariak kantatu bezela.

5. Bi bertso auck leen ere azaldu ditugu liburu ontan. Baiña emen naiko aldatuta arkituko ditu irakurleak, leenengoa batez ere.

Beste onela, berriz, Berrobi'ko Fermin Muñoa bertsolariari jaso nion:

Irurogci ta amabost urte,
amasei kunplitzeko,
ezer askoren paltik ez daukat
maldan bera amiltzeko;
lenago bi bastoi badaduzkat
neronekin ibiltzeko,
irugarren au andregaiantzat
arkakosuak iltzeko.

Gazteluene'n

TXIRRITAREN KEZKA¹

Txirrita bere arrebarengana Gaztelue-
ne'ra etorri baño len, Altza'ko Arriaga'n
bizitzen zan bere anai Juan Marirekin.

Irurogei bat urte zituen garaian, erre-
na asi zitzaion, eta lanerako gutxi balio
zuen.

Len gazte denboran nai zuen tokian
ibilli baitzan, berak jakingo zuen zer ix-
timazio zeukan etxean, eta egun batean
ala esan zion bere anai Juan Mariri:

–Aizak, Juan Mari: joango al aiz Erna-
ni'ra eta galdetuko al diotek ia bai ote
daukaten edaderik edo artuko ote nauten
Mixerikordian?

–Ikusiko diagu –erantzun zion Juan
Marik.

Ala, joan zan Ernani'ra, eta esan zio-
ten bere anaia etzala gauza lanerako, eta
zer edade zeukan ere bai, ta Mixerikordi-
ra joan nai zuela ta ia artuko ote zuten.

Baietz erantzun zioten: bertako semea
zala ta edadea bazeukala, eta, lanerako ez
bazan gauza, joan zedilla nai zuenean.

Etxera etorri ta esan zion Txirritari:

–Esan zidatek, lanerako ez baaiz gau-
za, edadea badaukakela eta joateko nai
dekenean.

Eta orduan Txirritak onela erantzun
zion:

–Uste al dek ni Mixerikordira noala?

–Zertarako esan didak bada orduan?
–erantzun zion anaiak.

–Jendearen borondatea ikusteagatik!
–esanda utzi zuen Txirritak.

1. Atal au, Jose Ramon Erauskin Lujanbio,
Txirritaren illobak idatzia.

OROIPENAK¹

Ezagerara sartu ordurako ezagutu nuan Txirrita; bi baserriak ere –Gazteluene ta Bordaxar– alkarrengandik urbil xamar daudenak dira-ta.

Gure sortetxearen ondoan zeukaten barruti koxkor bat; guk *Alorra* izenarekin ezagutzen gendun.

Aien baserritik urruti xamar nola bai-zegon, ango ia urteroko uzta artoa ta babarruna izaten zan. Jakiña, gure oitura xarra zanez, arto artean ereiten genitun ere arbi ta paotxa nastuan, eta orrela urteko lau uzta biltzen ziran.

Berrogei ta amar bat urte inguru badi-ra noski. Goizean amarrak aldera azalduko zan gure Txirrita, geldi-geldi, bere iritaria eskuan eta zurezko sega-poto txiki bat bizkarretik zekarrela.

Lantokira ordurako, amaika itxogin-aldi egingo zitun, alderdi guzietara begira; etzan presakako langille oietakoa.

Noizbait iritxiko zan alor txikira. Iritariari sega-arriarekin pasara bat edo bi emango zizkion muturretik atzera, eta, eskuari txistu emanaz, erasoko zion bere lanari, lenengo pikotxean.

Baño laxter aspertuko zan. Postura nekosoia zan ura arentzat, ordurako loditua ta astun xamarra baizegon.

Gero, belaun bat lurean zuala, asper-tu arte. Laxter aspertzen zan. Saioxka txikiak baño ugari egiten zitun. Egoarte guzia bere mende zeukan ortarako.

Amabiak inguru orretan azalduko zan gure etxean. Etxe aurreko arrizko petri-llan exeriko zan eta lenbizi ikusten zuan-ari aginduko zion:

–Aizak, txikito: ekatzak meserez txar-rokara bat pitar!

Txarro pitarrak, gutxienera jota ere ortxe-ortxe litro ta erdi kabituko zitun; patxaran uraxe ustu arte an ariko zan, gizon batekin bezela guretako umeren batekin izketan.

Ustutzen zuanean, «Eskerrik asko, txikito!» esanta, lasai-lasai joango zan berriz lengo lanera, paotxa ebakitzera, alik-eta etxeokak gurdiarekin billa etorri arte.

Bein kukuari bertsotan ari zala somatu gendun. Bost edo sei bertso kantatu zizkion, eta, kukuak andik aldegin zuanean, bera ere ixildu zan.

Andik laxter gure etxera etorri zuanean, ala galdetu genion:

–Zeñekin aritu zera ainbeste denboran bertsotan?

–Kukuarekin –erantzun zigun.

–Eta zein zan geiena?

–Izutu ta lenengo arek aldegin du beñepin-ta, ni onena esan bearko.

Aita presa aundirik gabe atarian arrapatzen bazuan, asiko ziran biak izketan eta aztutzen zitzaizkion paotxak eta etxeokak, eta ura *Alorra*'ra berriz joaterako, arek ebakia ta geiagorekin aldegiñak izaten ziran andik.



Gazteluenc baserria.

Beti oso lagun maiteak izan ziran nere aita ta Txirrita. Onek eta Fermin Imaz jaunak beren zaputz-aldia izan zutenean, nere aita zanak bederatzi puntuko bertsoak jarri ta biali zizkion Txirritari. Neronnek kopiatu nizkion. Aiek bukatu zuten ta bertsoak galdu egin ziran.

Jaietan ere, askotan guk arekin topo egiten gendun bidean: gu mezatatik etxera ta ura mezatara. Igande ta jairik etzuan uts egingo.

Askotan, Peregriniñene'ko ondoan, bidearen goiko kroxkan egoten zan exerita, gu etxerakoan.

Bereala ume-salla inguratzen zitzaion, eta, apaiza umeei dotriña erakusten bezela, an ariko zan pazientzi osoan umeen galdeerai erantzuten:

–Bai, iru etapetan joaten nauk elizaraño: au dit lenbiziko etapa, bigarrena Martillun, irugarrena berriz Dendaberri.

Aitak-edo esan ta jakiten gendun, olako lekutan bertso bikañen batzuak kantatuak bazituala; eta, guk berriz kantatzeko eskatzen genionean, bereala kantatuko zizkigun bi edo iru. Bertan asmatuak izango ziran noski, baño gu kontentu geratzen giñan.

Errezatzen al zuan galdetu genion bein.

–Errezatu? Txirrita fede gabea dala uste al dezute zuek? Bai, bai; nik egunero-egunero errezatzen det, eta egunero purgatorioko anima gaixo bat biali zerura.

–Nola dakizu zuk ori?

–Bai, umeak, bai; errex da ori jakiten. Aita gure baten paltan dagon animarentzat errezatzen baidet goizero; goizero aita gure bat.

Bere itxogin-alditxoa egiten zuanean,

zutituko zan ta *tapa-tapa*, geldi-geldi, jarraituko zion bere bideari.

Altza'n, erriko jaietan, etzan garai aietan bertsolaririk paltatzen, eta, Txirrita bertan bizitzen zan ezkerero, ura jakiña izaten zan bat. Geienetan, bere lengusu Saiburuk lagunduko zion.

An ere, ain atsegiña ta goxoa zan Txirrita umeekin, beren saioxka bukatu ordurako an giñan gu bere inguruan. Irripan eroritako erroskill-mordoska izaten gendun beti eskuan.

–Aizu, Txirrita: erroskill bat jango al zenduke?

–Ekatzu, ekatzu maite orrek! Etzait gaizki etorriko!

Baño etzan beñere batekin konformatuko. Bigarrena eskatuko zigun bere andrearentzat; beste irugarren bat ere bai, ura semearentzat.

Guk ondo genekin mutilzarra zala eta par egiten gendun. Ajola zion ari! Guk bertan jatea nai izaten gendun, baño ez nuan beñere bat bakarrik ere jaten ikusi. Bere blusa beltz aundi aren patrikak, besteren bizkar erroskillez beteak eramaten zitun etxeko bere illobentzat noski.

Bein, Ernani'n, etxez-etxe kantari diru biltzen zebillela, indiano aberats bat etorri zala esan zioten; baita txuxen asko ara joan ere.

Bertso batzuek kantatu ondoren, leiora aterata, *zapla!*, duro zillarra bota omen zuan indianoak bidera.

Urrengo urtean ere bada, duro zillarra etzala ain errex irabazten ta joan zan berriro ere, eta indianoak bi pezeta bota omen zizkion. Ordurako etzan sari txarra.

Irugarrenean ere joan zan Txirrita indiano oparo arengana, eta beti bezela jar-

dun zuan kantatu eta kantatu, baño an etzan indianorik agertu.

Aspertu zanean, ala kantatu omen zion Txirritak:

Orain bi urte durua zan ta
joan dan urtean bi pezta,
ni deskuidatzen ez banaiz, aurten
xentimorik ere ezta².

Olegario bertsolaria oso laguna omen zuan Txirritak, eta, il zala ikasi zuanean, joan omen zan ikustera.

Kajatxo beltz batean sartua omen zegoen, lau kandelen erdian; gurutze txiki bat eskuetan eta lore batzuek ere bai ondoan.

Amaika bider bertsotan jardunak izango ziran biak alkarrekin, eta nola agurtuko zuan Txirritak bere laguna? Oitu bezela, bertso batekin.

Baño, beti bezela etzion Olegariok bertsorik trukatu. Nola? Illa zegoen gaxoa-ta. Txirritak ala erantzun omen zion orduan:

—Oraintxe sinisten dit benetan il aize-la! Ez intzan bestela erantzun gabe gertuko!

Ernani aldeko erreka-zuloren batean argintzan aritzen omen zan Txirrita, beste lagunaren batzuekin.

Egun batean, arrats guzia oskarbi egon ondoren, egundoko jela egin omen zuan, eta goiz aldera arrasta-laño itxi-itxia sartu.

Joan omen ziran Txirrita eta lagunak lanera. Etzuten nagusirik an eta inork agindu gabe asi ziran lanean. Baño otzarekin etzutela burutuko, kopet illuna omen zeukaten danak, eta ez argiena noski Txirritak.

Etorri omen zan noizbait nagusia eta ala esan omen zion:

—Goizkiro biurri onekin nola asi zerate lanean?

—Asi egin gaituk; geratzeko etziguk esaten inork! —erantzun zion Txirritak.

—Jainkoagatik gaurkoz utzi akiozute lanari, eta iri, Txirrita, goizkiro oni dago-kion bertso bat kantatzen badidak, ordainduko dit egun guziko!

Etzuan bi bider esan bearrik; laxter kantatu zion, eta onelatsu:

Jela gaiztoa egin digu gaur,
au da goizkiro preskua!
Egun guzian euzki beroak
ukuitzen ez dun lekua.
Belarriyak beltz, sudurra ubel,
zatar batekin lepua,
bestetan ezin berotu eta
bragetan daukat eskua³.

1. Atal au, Bordaxar baserriko Jose Zapirain bertsolaria zanaren seme dan Salvador Zapirain'ek, Ataño idazleak alegia, idatzia.

2. Kopla au, leen ere argitaratu degu; baiña emen zeatzago kontatzen da gertaera.

3. Bertso eta gertaera auek, leen ere eman ditugu; baiña oso beste aldera biak ere.

BIKARIO JAUNAREKIN

Egun batean, Errenteria'n, txarteletara joan eta:

–Jaungoikoak egun on.

–Baita zuri ere. Zer zabilta, Txirrita?

–Txartela billa, jauna.

–Ederki! Dotriña jakingo dezu?

–Ez dakit, bada, zer galdetuko didan...

–Ea, bada: zer da Jaungoikoa?

–Ori da arrazoi motza eman didana!

–Zer nai zenduen, bada: beiñere bukatzen ez dana?

–Ori da, bada, Jaungoikoa.

–Tori txartela!

–Gabe joango nintzan bestela¹.

* * *

Alta'ra bikario berria etorria omen zan. Paseatzera atera eta, bein baiño geiagotan, Txirrita lanean ari zan ingurutik igarotzen omen zan.

Ezagutu ere ez, eta etzion Txirritari kasorik egiten. Txirrita, ordea, kaso egitea gustatzen zitzaiona, eta orrela pentsatu zuan egun batean:

–Urrena emendik pasatzean, entzun bearko didazu orratik.

Eta, urrena andik pasatzean, onela esan zion Txirritak:

–Agur, Don Migel!

–Agur! Ezagutzen al nazuz?

–Ez; baiña kaso egiñez egiten dira ezaupideak².

* * *

Pazkoakoa egiteko garaian, bere illo-ba neska koxkor bat bialdu zuen Txirritak bikario jaunarengana txartelaren billa. Bikario jaunak onela esan zion nexkari:

–Zertara etorri zera?

–Osaba Joxe Manuelek bialdu nau txartelaren billa, Pazkoakoa egiteko.

–Ba, esaiozu etortzeko bera onera; arekin itzegin nai detala.

Bueltatu zan nexka etxera eta onela esan zion osabari:

–Osaba, bikario jaunak esan dit berori joateko sakristira.

–Zer din, bada?

–Ez dakit, bada. Neri ori bakarrik esan dit.

–Joango gaitun, bada.

Baiña itxura danez, gogo txarrez joan zan.

Txirrita dotriña oso ondo zekiana omen zan, eta maldiziorik gabeko gizona gaiñera. «Arrayia!... Arrayia!...» zan bere aundiarena.

Sakristira sartzean, onela esan zion bikario jaunak:

–Zer degu, Txirrita?

–Joxe Manuel esanda berdin entendi-



Txirrita, bere iloba batzuekin, arto aletzen, Gazteluene baserrian.

tzen det, jauna. Ez dakit, bada: illoba bialdu det onera txartelaren billa, eta neronek etorri bear omen nuen. Orain berorek esango du zer nai duan.

–Ba, dotriñari urtean bein pasadatxo bat ematea komeni izaten da eta ortarako-xe deitu dizut.

–Egin bitza, bada, nai dituen galderak.

–Ea, bada: nor dira mantsuak?

–Irurogei urtetikan larogeira dijoazen agure ta atsuak³.

–Zu beti onela... Ara beste galdera bat: zer da Eleiza?

–Berori ta berori bezelako alper asko mantentzen dituen tximinirik gabeko etxea.

Apaizak orduan:

–Tori, tori txartela, ta joan emendikan.

Andik egun batzutara, Altza'ko iru apaiz zebiltzan pasiatzen. Txirrita, berriz, etxe aldera zetorren, min artu ta beatz bat lotuta zuala.

Bikario jaunak onela esan zien beste bi apaizei:

–Kontuz, e? Oni Joxe Manuel esan bear zaio. Txirrita esanda gaizki artzen du.

Parera allegatu ziranean, onela esan zioten:

–Arratsalde on, Joxe Manuel.

–Baita beoi ere.

–Zer pasa zaizu?

–Beatzean min artu.

–Arriren batekin?

–Ez, jauna, ez. Birekin, bata gainean ta bestea azpin⁵.

* * *

Naparroa'ko *Príncipe de Viana* aldizkarian, 1969-X'eko zenbakian, A. Astiz Arregi'ren *¡Ardoa ikaragarri gustatzen zait!* idatz-lanean, onela esaten da:

«...ara emen, apez zar batek eta txartela bille juan zitzaion athunak –biek bertsolariak– izan zuten sesioa:

–Zu ere onea, Martijoxe?

–Etorri bearko, bestin gixe...

–Nor dire mantsuak?

–Lauetan ogei urteko atsoak...

–Ankak ezin mugitu, ezta ere besoak?

–Marmariz paasten thute goiz-atsalde osoak...

–Ez dizute prestatzen txitxi puska goxoak?

–Gordifne jango dute aarik eta otsoak...!

–Torizu, torizu txartela, gorde plazarako bertsoak!».

* * *

Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illobak, bere *Aien garaia* liburuan, onela kontatzen digu Txirrita txartelaren billa joan zaneke gertaera:

«Nere osaba Txirrita ere joan zan bein batean txarteletara, eta, berak esaten zue-nez, ala galdetu zion bikarioak:

–Ola, Txirrita! Zer zabilta?

–Txartel billa etorri naiz, jauna.

–Ederki, ederki! Ia nola erantzuten dezun, bada: Nor dira mantsuak?

–Larogei urteko agure ta atsoak!

–Bejondaizula, Txirrita! Ori da arrazoia, ori! Tori txartela –eta eman zion».

1. Pello Zabaleta bertsolaria, Errenteri.

2. Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donosti.

3. Gertaera luze au dana: Sebastian Salaberria, Oriamendi, Aiete, Donosti.

Erantzuera au beste bi jaun auei ere jaso diet:

Jose Antonio Loinaz-Otaño: «Larogei urtetik aurrerako agure ta atsuak». Onek Andoain'en jaso

zuan Txirritaren ateraldi au, eta bertan gertatua zala zion.

Jose Goñi, Erreenteri: «Irurogei urtetik larogeira bitarteko atsuak».

5. Erantzuera au Txirritaren illobak ere kontatu zidan; baiña ankean min artu zuala zion.

SUBEAREN ERREZOA

Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illobak, bere *Aien garaia* liburuan, Euskalerriko sinismenari buruzko atalean, siniskerietaz ere itzegiten du; eta, artan ari dala, onela esaten du:

«Orrelako gauzetan gure osaba zan Txirritak ere bazuen bere sinismena edo artea. Esaten zuen bere aitari ikasia zuela eta subeak kozkatakooa sendatzeko erre-medioa zala, eta esaten zion *subearen errezoa*.

Ez dakit seguru dana nola egiten zuen; baiña dakitena da, aita gure eta kredo asko errezatzen zituela, eta atzekoaz aurrera kontatu.

Esate baterako, berrogei esan bear baldin bazituen, lendabizi berrogeigarrena; urrena ogei ta emeretzigarrena; gero ogei ta emezortzi ta orrela, atzenerako lendabizikooa kontatuaz; eta zazpitik zaz-pira ziñatu edo aitaren egin.

Beste orrelako moduko gauza batzuek ere bazituen, naiz-ta nik orain gogoan ez eduki.

Iñoizka-iñoizka etorri izandu zitzaizkan subeak kozkatakooak, eta gogoratzen naiz nola aritzen zan len esan dedan erre-zo ori egiten.

Ez dakigu balio zuen edo etzuen; baiña bai arrek errezoa egin ziotenetatik iñor etzala subearen kozkatik il.

Esan izandu zitzaion, bai mediku eta bai apaiz bati, nola Txirritak egin oi zuen subearen errezoa, eta erantzun zuen medikuak: lur auetan etzala subeak kozka egin ta iñor iltzen.

Eta apaizak, berriz, par-irri pixka bat egiñaz, esan zuen:

–Segi dezala, segi dezala! Ez badu aita gure eta kredo batzuek errezatzea baiño gauza txarragorik egiten, ez da oker aundirik etorriko!».

BI BERTSO-SALTZAILLE

Atal ontako bertso guztiak ez ditut, zoritxarrez, osorik bildu. Altza'ko Irazue-
ne-goï baserriko Manuel Sarriegi'ri zor
dizkiot. Bera an bertan omen zan, kantatu
ziranean.

Altza'ko errian, egun batean, bi lagun
agertu omen ziran bertso-paperak saltzen:
Ernani'ko Olegario bertsolaria eta Altza-
'ko Amueder baserriko Patxiko Arzak,
bertsolaria au ere.

Ona emen kantatzen zuten bertso bat:

Elizan gutxi ikusten naute,
ez naiz sartutzen botikan,
gizonak oso beneno gutxi
artu biar du autikan.
Ni naizen arte ez dedilla izan
umoriaren faltikan,
amasei bertso artu litezke
amar xentimogantikan.

Entzun du Txirritak aien kantua eta
ezin geratu saltsan sartu gabe.

Patxiko Amuederri, onela bukatzen
zuen bertsoa kantatu omen zion:

probatu dituzu
kale ta baserriyak,
karramarrua diruri
zure ezarriyak.

Patxikok erantzun zion, eta orrela jar-
dun omen ziran denbora-puska batean:
Txirrita beste bien kontra, alegia.

Txirritaren bertso baten bukaera:

orain bezela baldin badauzkat
boza eta etorriya,
probatzeko ainbat ez ditut biyak:
Patxiko eta Gorriya¹.

Patxiko Amueder orrek bertso onekin
erantzun omen zion:

Zenbait gizonek kanpai aundiyak,
soka luzia eskutik;
kararik kara esango diyot,
ez naiz ariko atzetik.
Berak ez du ta lotsa aundiyak
Txirritak ematen zetik,
obe litzake informe oiek
zabalduzia auzotik.

Amueder'eko Patxiko Arzak ori, Liza-
rriturri'ren lantegian sei errialeko erreti-
roa artu berria zan; eta, ari-ari zirala, Txi-
rritak bertso au bota zion:

Beraz sei errialekin
erretirutzen bazera,
gazte denboran ainbeste gose
ez da pasako zartzera;
atxur bat artu t'etorri zaitez
alaba dagon etxera,
aren esanak txintxo egiñaz
gaizki biziko etzera.

1. Bertso crdi au: Jose Ramon Erauskin, Gaz-
teluenc, Altza, Txirritaren illoba.

TXIRRITA ETA SAIBURU

Txirrita eta Saiburu¹ lengusuak ziran; aitak anaiak. Onela kantatu zioten bein batean alkarri, Txirrita Frantzi'tik etorri zanean:

Saiburuk:

Beraz, Frantziya'n izandu zera
españitarrak utzita,
ostera bueltan etorri zera
an ere ezin etsita;
nere biotzak poza artzen du
zu emen ikusita,
markes-moduan etorri zera
bota oriyak jantzita.

Eta Txirritak:

Bota-kontu ori nola
esan dizut klaruan:
aiskire batek urrikalduta
eman zizkiran lenguan;
trajia ere mudatutzia
txapela zarra buruan,
Rotxildarrekin esposatzeko
ai zer markesa nagan!².

* * *

Urrengo gertaera, Saibururen seme
batek, Sebastianek, kontatua degu:

«San Martzial irugarrena zan.
Gaucan, etxerakoan, joan giñan Altza'ra.
Ta aita ta Txirrita, biak, etorri ziran Irun-
'dik.

Ta trumoia ta tximixta, ekarri zun den-

borale bat...! Ala, sartu giñan Martillune-
'ko tabernan, da, zurruta-puska bat egi-
ñez, lasai egon giñan. Bai egon bear ere.
Puska batean etzegoan andik ateratzerik.
Bañan, bearbada, atertuta ere igual egon-
go giñan gu, toki ona gendun-eta.

Pixka bat atertu zunean, goizeko iru
t'erdia baziran, da ari laguntzeko iñor ez
al zan, Txirrita ori, Gazteluene'ra joate-
ko. Karrua ekarriko zutela.

Ala, Txirrita ta biak etorri giñan ka-
rruan Irazune'ko atariraño. Antxe karru-
tik jetxi ta orduan ba laguna bear.
Bide-puska batean joan giñan da:

–Illoba, itxogin pixka bat! Nere lenda-
biziko estazioa auxe da!

Elementak egiñak zitun; baño elemen-
tak! Ala ere, Txirrita ori *panpa!* putzura.
Bueno, lurrean exeri zan pendizaren kon-
tra. Ura gogoratzen zaitan bakoitzean,
parrez egoten naiz. *Plasta!* Ainbesteko gi-
zona putzura! Etzun bustitzeko bildur
aundirik eraman. Ederki bustita joan zan.
Ni ere alatsu etorriko nintzan, baño ajola
aundirik ez.

An egon giñan ba pixka bat. Andikan
altxa ta berriz beste bide-puska batean
joan giñan, bide erdia edo ola, ta berriz
ere:

–Auxe da nere bigarren estazioa!

Ta *panpa!* berriz ere. Len esan deda-
na, kantadadia zegon euria egiña; kantida-
dia! Gero altxa giñan da:

–Oraingotikan joango gera ba! Joango gera ba!

Bide ortan goazela, onela esaten dit:

–Zuk ni osaba txikia izango nazu ba? Osaba txikia izango nazu?

–Ala esaten dute.

–Aundiagorik ba al dezu ba? Aundiagorik?

–Ez det uste.

–Bai, berriz ere lanak izango dituzu ba aundiagorik izaten!

Joan giñan etxeraño ta bastoiarekin atea jo zun. Atera zan Xaturdino, bere koñaduaren anaia, ta:

–Sagardoa ekar zazu!

Sagardoa edaten biak aritu giñan, da ordurako beñepein lauak aldean izango ziran; ez baziran ere, alde xamarrean.

Despeira egin gendun, da ni *tapa-tapa-tapa*. An etzegoan urari iges egiterik. *Plisti-plasta plisti-plasta*, ortikan San Mar-ko'n barrena etxera.

Ordurako beintzat lau t'erdiak edo geiago baziran, etxera etorri nintzanerako, ederki preskatua».

* * *

Amalau edo amabost bat egun igaro omen zituan bein batez Txirritak Saiburu baserrian.

Saiburu baserri ori, Errenteri'ko partean dago, Zamabilde ondoan, gain batean.

Bertako nagusia, Juan Jose Lujanbio, Saiburu bertsolaria alegia, lengusua zuan Txirritak, len ere esan degunez; ta bertsoatarako laguna ere bai. Askotan joaten ziran alkarrekin kantu lanera.

Saiburu bertsolariaren bi seme, Juan

Mari ta Sebastian, izan dira, ain zuzen, egon aldi orren berri eman digutenak. Beren esanak, danak batera jarriko ditugu, zeñiek zer esan digun berexi gabe:

«Amalau edo amabost egun uste det egin zitula gure etxean.

Egunean bi edo iru aldiz sagardoz bete-bete egiten zan. Goizean, amarrak aldean edo al zanean jeiki, ta bakallo errea jarri-azi, bakallo errea piper mordoska batekin. Orduan auskalo zenbat baso edango zitun. Ondoren lo-kuluxka egin da arratsaldean berriz, ta illunabarrean beste jornara.

Sagardoa edan ta bertsoak kantatu. Jende-puska bat ere biltzen zan da:

–Ea, Txirrita, bota bertsoa! Bertsoa bota, Joxe Manuel!

Ta asi bertsoan da ixildu ere ez. Gure aita ere an izaten zan, Telleri-Txiki ere baita, ta lagun geiago ere izaten ziran, ola pixka bat jarduten ziranak, eta aiekin denakin ura bersotan.

Bi litroko txarroak ekartzen zituzten, gutxiagotan billa joateagatik, arrebak-eta. Bañan alare, sagardoa ona zanean, ez ondatzen. Ondatu baño len edan egiten zan, eta gure arrebak-eta nai baño geiagotan joan bear billa.



Astigarraga'ko *Begi-Txikiya*, segan jokatuta ura, ta arek orduan bertsoak jartzeko zitun, da bertso aiek jartzeko neroni (Sebastian) bialdu niñuten billa. Onera etorri ta egun berean joana etzan beintzat³.

Diferentzi aundiko bertsolaria zan Txirrita ura. Onena ere, nik usteko, noski ura izango zan; bañan edanarekin etzuan balio. Edanarekin gaiztotu xamartua zegonean, gaizki esaten zekiena izango zan ura.



Saiburu edo Sareaburu baserria, Errenteri.

Onen-onenean zegonean, tankera onean alegia, iñor gabe baldin bazegon edo bestela beste norbaiti asi-azteagatik, onela kantatzen zun askotan⁴.



Greziyako Rotxillek
bêr du galdu munduie,
oain atera kontuie;
kontra duk Espâniye,
baita ere Frantziye,
Austria ta Alemaniye,
kasik mundu guziye.

Ori, Saiburu'n ere kantatu zuan, bañan bestetan ere bai. Bein baño geiagotan aditu nion ori kantatzen.

Bañan gaiztotu xamartua edo ola zegon garaian, geienetan tabernariari kantatzen zion. Beste bertso ori ez daukat dena gogoan, bañan bukaera bai:

Zu ikustean gôratzen zaizkit
gordeko puxka guziak.

Militarrak ere, tenientea ta kapitana-

-ta, egoten ziran orduan San Marko'n. Txirritak itzik ere etzekien ia esateko kastillanoz; bañan tenientea Irun'goa zan, Telletxea apellidua zun bat, eta onek euskeraz entenitzen zun bastante, ta arek esandakoa kapitanari esan, da aiek sagardo eman da antxe.

Bertso bat euki nun denbora prankoan gogoan, da orain aztua daukat. Bukaera badakit ordea:

Biba tenientia
eta kapitana.

Ta kapitanak bostekoa eman-eta, Irun'go arek esaten zizkanakin.

Auzokoak-eta, jende asko etortzen zan sagardo edatera. Batean, baserritar bat denbora asko egiña Saiburu'n eta ondo esanean artu zuan lagun batek:

–Etxera joan bear dezu gurekin batean! Azienda gaixoak ere onezkero gaizki egongo dira-ta!

Ta arek crantzuna:

–Zuen etxean ere eztira ba premioetarako modukoak egoten!

Goiz batean, alpretak eta galtzerdiak, artillezko galtzerdi zuri-zuriak, eskuan artu denak eta an zetorren Txirrita eskalleretan goitik bera.

Guk gosaldu egin nai elizara joateko, emengo ermitara joateko, ta ama sardin zarrarekin-da tortilla egiten-edo, ta Txirritak orduan onela kantatu zuan:

Zuek usteko dezute bañan
enago oso lasaia,
Zalduniote eguna gaur ta
sardin zarraren usaia;
animarentzat mesederik ez,
gorputzarentzat etsaia,



Saiburu bertsolaria.

eztek, ez, ola bizitu izana
Izuela'ko artzaia.

Bertso ori, galtzerdiak jantzi baño le-
nagotikan kanta.

Beste batean, onela entzun nion esa-
ten:

–Toki prankotarako izango ditugu
deiak aurtan. Kontatzen aritu gera, ta
zuen aitak bosteun bat pezeta ekarriko
ditu; ta nik ekarriko ditut beste nunbaite-
tikan ere, iñora joaten banaiz beintzat,
eta ederki dago.

Bost duro izaten baitzuten. Bost duro,
ortara allegatu zanean. Ura Gazteluene'ra
joan da geroago asiko ziran bost duro ko-
bratzen.

Arratsalde batean, Txirrita eta gurea
eta Xaturdino eta denak ziran. Makiña
bat bertso kantatu zuten!

Xaturdino ori, Txirritaren koñaduaren
anaia zan; Erauskin. Gazteluene'n jaiotako
bertan bizi zana.

Oso ondo kantatzen zuna zan. Plazan-
-da, gutxi ibilli egiten zan; edo batere ez.
Bañan Bordaxar'ko Joxe ta biak, gustora
xamar sagardotegian-edo asten ziranean,
etzuten orduan iruna bertso ta ola kanta-
tzen...

Arratsa zan da berandu. Egualdi illun-
-illuna zegon. Xaturdino nerekin an zegon
kanpoan, da:

–Joan egin bearko det ba nik!

Ta joaterako kantatu zun. Ez daukat
orain gogoan nola kantatu zion; bañan
beintzat illuna zegola ta joan egin bearko
zula, ta arrebak zeozer galdetzen bazion
zer esan bear zion-da galdetu zizkion arek
Txirritari.

Ta onek erantzun zion:

Illargirikan eztagola ta
kanpua oso itzala,
eskerrik asko, nere laguna,
ona eta serbitzala;
urte askuan gure Jainkuak
olaxen arki zaitzala,
arrebak galde eiten badizu
lenago iñoiz bezela,
esan zaiozu izebarekin
morroi gelditu naizela.

Egun batez, an auzoko bat, sagardote-
gira askotan joaten zana. Ni baño kinta
bat zarragoa zan, da mutilla langillea.
Naiz baserrian da naiz mendian da mue-
llean ere, estimatua zan edozeñekin ura.

Ta arek, ola atzetik jarri sillan zegon
tokian da onela esan zion Txirritari:

–Zu olako gizon lixtua zerala ta nik
esango dizut gauz bat, eta ez dezula asma-
tzen zuk ori! Ezetz esan gure etxean az-
keneko astakumea noiz jaiotako dan!

Ta Txirritak:

–Baietz!

Ta ezetz ta baietz, zorrotz aski asi zi-
ran da egin zuten txarro bat sagardo apus-
tu. Ordurako kafeak artuak zituzten segu-
ru aski.

Mutil arek:

–Noiz jaiotako zan gure etxean azkeneko
astakumea?

Ta Txirritak:

–Zuen etxean azkeneko asto-emea
umatu zanean!

Ta mutillak:

–*Nos ha j...!* Ori edozeñek jakingo
zun! Ori ez da asmatzea!

Aik parrak! Jende asko zan da aik pa-
rrak

Azkenean, gurdian eraman zuten Txi-

rrita etxera, Gazteluene'ra. Orduan ere bazitun berebiziko istoriak.

Orain ez jakin nik zer bertso kantatu zun, bañan gurdi gañetik ere kantatu omen zun ola partieran.

Ala, etxe aldera gurdi gañean, zijoala, ez dakit zein zun etorria. Arropak, kanbiatzeko, ekarri ere bai, egin zizkaten. Ta bidean topo egin-edo, ta or ere bazuten beste txistia. Bidean gurdian eramaki, ta orduan, illoba-edo ikusi zunean, kantari asi edo bazuan zerbait ere. Orrela eraman zuten».

1. Saiburu bertsolari ori, Juan Jose Lujanbio Zabaleta zeritzan (1874-1954). Ikus: *Auspoa*, 73.

2. *Txirrita-ren Testamentua, Imp. Macazaga, Rentería*. Baiña gerra ondoan argitaratua da liburuxka au; ez da 1930 urtekoa.

Lerro batzuk silabetan motx dituzte bertso auk: 1/6, 2/1 eta 2/2. Bearbada, beste onelaxe bearko luteke lerro oiek: 1/6: zu gaur emen ikusita: 2/1: Bota-kontua ori nola dan; 2/2: esango dizut klaruan.

Beste batean, 2/5'ean, *mudatuxia* edo *ajatuxia* bearko luke, seguru asko.

Ez nuen kontuan artu beste era au nori jaso nion: 1/1: Prantzi aldian izandu zera; 1/3: berriz etorriko etziñala're; 1/4: egondu gera etsita; 2/1: Bota orien pasadizua 2/3: amigo batek urrikalduta: 2/5: trajia pranko mudatua da.

Estanislao Urruzola, «Uxola», Tolosa. Onek beste onelaxe bigarren bertsoa:

Zapata oien pasadizua
 esplikatze kasuan,
 lagun batek errukituta
 eman zizkidan lenguan,
 trajia ere ajatu zaigu,
 txapela zarra buruan,
 ni bezelaxe beste asko're
 ikusten ditut munduan,
 Rotxildarrakin esposatzeko
 ai zer markesa nagan.

3. *Begi-Txikiya*'ren bertsoak eta zenbait berri: aurrerago orrialdeetan arkituko du arakurleak.

Begi-Txikiya ta *Ondartza*'ren sega-apustua, 1930-X-1'an jokatu zan. Beste aldetik, berriz, sagardo edateko garaia udaberriaren-edo izaten da. Orregatik, bertso auk 1931 urtekoak izango dira; eta ordukoa, baita ere, Txirritaren Saiburu'ko egonaldi ori.

4. Doiñua, guk magnetofonoz jaso ta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek solfcoz paparera-tua.

BIZARTEGIAN

Beste gertaera au, Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k korreoz bialdu zigun, 1982'eko Ilbeltzaren 22'an. Aurretik, oar jakingarri au egiten zigun:

«Ori gertatu zitzaion barberoa, nere lagunik aundienetako bat da, eta gaur gaxo dago, bi anak moztuta.

Eguberri-egunean joan nintzan ikus-

taldi bat ematera eta orduan esan zidan zer gertatu zitzaion bein batean Txirritarekin, eta segituan gogoratu zitzaidan berorri bialtzea.

Eskribitu edo idatzi nuanean, erakutsi nion berari, eta esan zidan oso ondo zegoela.

Orain or bialtzen diot, nai duena egiteko eskubide guztiarekin».

Eta urrena, beste orri batean idatzita, gertaera:

«Jose Manuel Lujanbio «Txirrita» Al-tza'n bizi zala, erri ontako parrokiaren ondoan bazan barberi edo bizartegi txiki bat, eta gertatu zan egun batean Txirrita joa-tea; eta, bizar-moztallea agurtu ondoren, esan zion:

–Bizarra eta illea moztera nator.

–Ederki. Exeri zaite silla orretan –esan zion barberoak.

Aurreratu zan Txirrita eta esku batekin sillari eldu eta an zegoen aurreko ixpiluari begira.

Orduan etziran orain bezelako sillak izaten, baizik lau ankeko silla edo aulki batzuek, azpian eta atzean sare edo *rejilla* batzuekin, eta bi aldeetan beso edo baranda batzuekin.

–Kabituko ote zera? –esan zion barberoak.

–Orain artekoetan kabitua naiz, eta emen ere laister egingo degu proba –erantzun zion Txirritak.

Jarri zan atzeaz sillarengana, bi eskua-kin barandari eldu eta *rau!*, egin zuen kolpe bat eta an sartu zan sillaren bi beso edo adarren tartean estu-estu.

–Ederki nago. Ez nau aizeak eramango –esan zuen.

–Zure arpegi eta buru au pasatzen, egun erdi bateko lana badaukat –esan zion barberoak.

–Ez apuratu. Ez daukat etxerako presik –erantzun zion Txirritak.

Noizbait ere moztu dizka bizar eta ille oiek. Asi da Joxe Manuel silla artatik ateratzen, eta ain estu sartu zan, inolako moduz atera ezin.

Asi ziran onera tira eta ara bultza, baña atera ezin. Aurrera indarririk egin ezin ankakin lurtean; eta pixka bat mugitzen bazan, beti silla ipurdian zuala.

Lendabizitik broma bat bezela artu zuten; baña atzenerako naiko serio jarri ziran gauzak, bada bildurtu ziran silla autsi bearko ote zuten.

Orrela zebiltzala, gertatu zan barberoaren aita etortzea, ala bearrez Txirritaren lagun aundia gaztetan izandua, eta askotan alkarrekin argintzan arituak.

Orduan, alderdi geienetara probak egin eta ezer etzutela aurreratzen ikusirik, asi ziran, aitak Txirritari eldu alderdi batetik eta aurrera tira, semeak sillari atzera tiratzen zion bitartean, eta orrela pixka bat mugitu zuten.

Orduan beste aldera pasa eta andik ere berdin: aitak Txirritari aurrera eta semeak sillari atzera.

Modu orretan, pixkanaka-pixkanaka, noizbait ere atera zuten.

Orduan Txirritak oso bertso polita botatu zuen, eta, pagatzen edo ordaintzen asi zanean, aitak esan zion semeari:

–Motell, utzi akiok! Orren bizarra mozteak baño, puntzio orrek geiago balio ziken eta.

Eta an joan zan Txirrita etxera, illea eta bizarra debalde moztuta».

ESKALEA

Txirritaren beste gertaera au ere bere illoba Joxe Ramon Erauskin Lujanbio'k idatzia da:

«Txirrita etzan beti bertsoan ibiltzen; iñoizka-iñoizka baserrian lan egiten ere bazekien. Askotan aritzen zan arto, aza edo beste barazki asko jorratzen, eta itaiarekin ganaduarentzat janari ebakitzten ere bai. Esango dizutet bein batean zer gertatu zitzaion.

Garai artan, beren denbora morroi pasatako eta aberastu gabeko eskale batzuek ibiltzen ziran eskean eta non illundu an ostatu egiñaz. Oietako bat etorri zan, arratsalde batean, Txirrita bizi zan etxera.

Asi dira biak izketan, eta esan dio oni bere denboran morroi izan dala, ta makiña bat lan egiña dala, makiña bat janari ebakia dala, bai segarekin eta bai itaiarekin.

–Nik biar ere artara joan bearko det –esan zion Txirritak.

–Zu itaiera? Ez daukazu tipo txarra itaian makurtzeko! –esan zion eskaleak.

–Makurtuta edo makurtu gabe, zuk ainbeste ebakiko det bai!

–Etzait iduritzen orixe!

–Nai al dezu jokatu biar egoartean zeñek geiago ebaki litro ba ardo?

–Bai, nai badezu!

Ala, egin zuten apustu litro bat ardo, eta urrengo goizean, oitu bezela goiz-goiz, bederatzia aldean, jeiki da Txirrita, gosald du, eta an dijoaz eskalea ta biak itai banarekin janari ebakitzera.

Asi dira biak zeñek baño zeñek geiago ebaki eta ebaki, eta denbora puska batean aritu dira; eta aspertu zanean, ebaki dituan janari guziak sorta batean artu eta etorri da eskalea etxera, ta an ari zan Txirritaren arrebak eman zion bazkaria jaten.

Andik laixter etorri da Txirrita eta esan dio eskaleari:

–Irabazi dizut, adiskidea, litro ardoa; zuk baño belar geiago ebaki det nik.

–Bai, baño zuk ebaki bakarrik egin dezu, ta nik ebaki eta ekarri, biak egin ditut; eta lana asteak ezta balio, ez bukatzekotan.

–Bueno, bueno! Arratsaldean egingo degu beste saio bat! –esan zion Txirritak.

–Ez, ez! Lana egitezkeroz, len ere bannen non egiña!

Ta bazkaldu zuenean, bere zakua bizkarrean artu ta an joan zan berriz ere eskera».




KANTA ZAR BAT

Txirritak bertso zarretan asko zekian.

Aren illobak orduan ari ikasi ta orain guri esan dizkigunak, ondo jaso ta gordeta dauzkagu noski. Ta argitaratu ere egingo ditugu, bakoitzari bere txanda ta egokiera datorkionean.

Baiña zelebrezko kanta zar au, orain publikatu nai genduke. Txirritak kontentu eta pozik zegoan aldietan kantatzen omen zuan.

Doiñua, illobak kantatua, ta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun eta paperean ezarria.



Nere andreak badirudi zaku gaizki josiya; beretzako gordetzen du gauzik onen guziya, astelenetan neretzako sardin begi gorriya; alaken alaken, alaken eta txunbailen, *erresponde la Mikela Txunba, Jesús, María y José.*

Nere andreak badirudi zaku gaizki josiya, nere andreak badirudi zaku gaizki josiya; aragi gordiña badauka, eltzian egosirik ez; alaken, alaken, alaken eta txunbailen, *erresponde la Mikela Txunba, Jesús, María y José.*

GAIZKIÑAK¹

«Guziak dakigu izaten dirala emakume zar batzuek auzoetako gezurrak bildu ta beste aldera eraman, angoak onera ekarri eta famili askoren artean okasioa ta saltsa jarri, nobio asko asarretu-erazi, ezkontzak galdu eta bearbada eriotzak egin-erazi ere bai, ta batez ere gauzez berandu bide-gurutzetara eta sasi-baztarretara atera eta jendea ikaratzen ibiltzen diranak; edozein gauza txar egiteko beti prest daudenak, baña on egiteko beñere denbora edo astirik ez dutenak.

Auei sorgiñak esaten zaiote, eta beste orrelako lanetan ibiltzen diran gizonai, berriz, *intxixuak*².

Baña badira beste batzuek ez emakumeak eta ez gizonetzkoak ez diranak, baik zik xomorro txiki-txiki batzuek, asko mila alkarrekin bizitzen diranak. Auei *gaizkiñak* esaten diete.

Gaizkiñ abek jendeari lan askotan laguntzen diote, batez ere bestela egin ezin diran lanetan, jokuan irabazten eta abar; baña berak ere lan oien truke zerbait eskatzen dute, geroago ikusiko degun bezela.

Berak ez dute asko balio; ollo baten diruarekin erosi zeizkian, eta orratz-toki (*alfiletero*) txiki batean kabitzen ziran; baña, andik ateratzen ziranean, zerbait lan beti bear izaten zuten, bestela jabeari erasotzen zioten.

Bein batean, Nikolas Iribarren *Xar-*

dia, Naparroa'ko Goizueta'koa, Txirritarengana bertsoak jartzeko esatera etorri zan, eta, izketan-izketan ari zirala, onela esan zion Xardiak Txirritari:

–Gaxo nebillék!

–Zer dek, bada? –galdetu zion onek.

–Gaizkiñak dizkiat! –erantzun zion Xardiak.

–Gaizkiñak?

–Bai! –erantzun zion berriz ere.

Gogoratzen naiz Txirritari entzun izan niola, nola aren gazte-denboran Ernani'n bazala zubi zar-zar bat, sorgin-zubia esaten ziotena.

Zubi ura egiteko artu zuen kontratistak, ezin zuen bukatu esandako egunera-ko eta esan zion bere lagun batek:

–Gaizkiñak ekarri itzazu, eta aiek egingo dizute zubia, zuk nai dezun egunerako. Frantzia'n badaude eta ollo baten diruarekin erosi-ko dituzu.

Frantzia'ra joan da erosi zituen, eta saldu zizkionak esan zion:

–Zuk nai dezun gau batean egingo dizute zubia, baña kondizio onetan: urrengo goizean ollarrak kukurruku jotzerako zubia egiña badago, zure anima nerretzat, eta bestela berriz ezer ez.

Eta ala egin zuten tratua.

Egin zan gizon ori gaizkiñen jabe, ba-

ña ez zegoen trankil. Zubia egitea gauza ona zerizkion. Pentsatu zuan ollar bat artu, egin bear zan zubiaren ondoan jarri ta ia bukatu zan garaian kukurruku bat jorraztea. Ala, zubia bukatu gabe geldituko zala, falta zan pixka berak bukatuko zuala, eta nola aiek ez baitzuten zubirik bukatzen, anima eman bearrik etzeukala.

Berak derizkion gau batean, joan da egiten asitako zubiaren ondora, saskitxo batean ollarra ta xorro edo poltxa batean gaizkiñak dituala. Exeri da ollarra zegoen saskitxoaren gañean, idiki du gaizkiñen xorroa eta an dijoaz dan-danak beren lanera.

Eskuz-esku ekartzen zuten arria, Frantzia-ko mugan dagoen Naparroa'ko mendi batetik, batek besteari esanaz:

–Aiba, Nikolas! Benga, Nikolas! Bota, Nikolas! Artu, Nikolas! Eldu, Nikolas! Jarri, Nikolas!

Egundoko martxa zeraman zubi orrek egiten, eta orduan entzun zion kontratista arrek nola elkarri esaten zioten:

–Ez gerala, ez gerala esaten dute, bañan amalau milla Nikolas emen gaituk orratik!

Eta ordu gutxian zubia ia bukatu zuten; baña besteak, pentsatua zeukan bezela, atera du saskitik ollarra, ta, ego azpian axkure egiñaz, esnaratu du, ta, bi egoakin

pla-pla-pla egiñaz, or jo dio kukurruku aundi bat.

Orduan, zegoana zegoan bezela utzita, alde egin dute danak, eta urrengo egunean asi zan kontratista ori zubiak falta zuana bukatzen, bañan onek egunez egiten zuana, gabaz erori egiten zan, eta zubi ura etzan beñere bukatu.

Andik egun batzuetara billatu zuten Frantzia'ko mugan len etzan arrobi aundi bat, eta Sorgin-arrobia deitu zioten.

Urte askoan egon zan zubi ura bere artan, eta, azkenik, karlisten gerra-denboran puskatu zuten.

Irakurle oietako batek pentsatuko baluke, gezurra dala edo ez, neri kargu artzea, errex billatuko nau. Badakite non bizi naizen. Bañan pentsa dezala ezer gutxi irabaziko duela, neronek ere erositako prezioan saltzen ditut eta.

1. Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin'ek idatzia. Ipui au bere osabari entzun zion.

2. Intxixuak, Txirritak bertso batean onela aita-tzen ditu:

intxixu batek aña malezi
bazuben Fernando zanak...

Eta beste batean:

Intxixu batek esan omen du
neregatikan sorgiña.

TXIRRITAREN KOÑADUA

Txirritaren koñadua oso gizon atsegi-ña ta bromosoa omen zan. Ona emen aren gertaera bat, bere seme Jose Ramon Erauskin'ek idatzia:

«Txirritaren koñadu Joxe Manueli *Gaztelu* deitzen zioten, *Gazteluene*'koa zalako, eta bein batean tokatu zan *Gaztelu* au peri batean lagun batekin; ta lagun au, nola asto bat erosteko asmotan zebillen, galdetu zion:

–Aizu, *Gaxtelu*: astorik bai al dago saltzeko zuen alde oietan?

–Astoa falta al dezu?

–Bai; artuko nuke bat.

–Nik badaukat ba saltzeko.

–Zer moduzkoa dezu?

–Nai dezun bezelakoa: nai badezu zarrara, nai badezu gaztea; nai badezu aundia, nai badezu txikia; nai badezu arra, nai badezu emea; nai badezu ama, ta nai badezu umea.

–Orrenbeste asto bai al dauzkazu?

–Bai; eta nai dezuna salduko dizut.

–Joango naiz urrengo egun batean –esan zion.

Andik egun batzutara an dijoa gizon ori *Gaxteluren* etxera astoak ikustera, eta, lagunak ziranez, lendabizi sagardoa edan zuten, eta atera ditu astoak: asto ama bere ume arrarekin. Eta esan dio:

–Ara emen astoak!

–Non dira besteak? –galdetu zion erostunak.

–Ez det besterik.

–Etzenidan, bada, esan zarra ta gaztea, arra ta emea, ta aukera guztia zenukala?

–Bai!

Eta an erakutsi zizkan beatzarekin zarrara ta gaztea, arra ta emea, ama ta umea, aundia eta txikia. Aietan bat zarra baitzan, aundia baitzan, emea baitzan; eta bestea gaztea baitzan, txikia baitzan, arra baitzan eta umea baitzan.

Naiko parra egin, sagardoa edan eta an joan zan gizona astorik erosi gabe».

OSABA XATURDINO

Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k, bere *Aien garaia* liburuan, «Nere gurasoak eta osabak» izeneko atala eskeintzen digu. Atal ortatik pasarte auek artzen ditugu:

«Liburu oni ez nioke bukaerarik eman nai, nere gurasoentzat oroimenezko agur xamur bat gabe; aien bidez adituak eta ikasiak baititut liburu ontako gertaera eta kontu zar asko, bai aitagandik eta bai amagandik.

Baña, batez ere, nere bi osabakgandik ditut; aiek oitura aundia baitzuten gertaera zarrak esateko.

Bi osaba auek ziran: bat, Jose Manuel Lujanbio, *Txirrita*, amaren anaia; eta bestea, Saturnino Erauskin, *Gaztelu*, au aitaren anaia.

Jendeak esaten zuenez, biak oso bertsolari azkarrak eta lagun artean txit mai-teak. Orregatik jartzen ditut beren izenak...

...Biak ezkongaiak ziran, baña biak oso oitura eta biziera ezberdiñak eramaten zituztenak.

Xaturdino, bere denbora guztian, bere anaiarekin eta bere jaiotetxean bizitu zan; oso gizon zintzo eta langillea.

Joxe Manuel, berriz, oso gaztetatik asi zan kanpora, bateko argintza eta besteko bere bertsoekin, beti ez bada ere, geieanean etxetik urruti ibilliaz.

Gazte-gaztea nintzala, entzuten nuen

bazala gure osaba bat, batean eta bestean ibiltzen zana eta bertsotan egiten zuena. Baña ez nuen ezagutzen, alik-eta zartu eta lanerako gauza etzanean gure etxera etorri zan arte, geroztik beste amasei bat urtean alkarrekin bizituaz.

Denbora aietan oitura izaten zan, liburu onetan lenago ere esaten degun bezela, bai apal-ondoan eta bai jai-illunabarrean, alkarrekin tertuli eta izketa-aldiak egiteko.

Orduan etzan, baserri askotan gaur diran bezela, radio eta telebisorik. Baña, alaz guziz ere, orduko izketa-aldi aiek, gaurko aurrerapen auek baño, asko alditan beintzat, atsegingarriagoak izaten ziran.

Bi osaba oiek, len esan degun bezela, oso biziera ezberdiñekoak baitziran, kontu edo gertaera asko aitatzen zituzten.

Batek lan eta bizimoduko kontuak ibiltzen zituen, askotan beintzat; eta besteak, bertso, jai eta lagun-arteako gertaerak.

Batez ere udarako egualdi ederretako jai-illunabarretan, apari-merienda egin eta errosarioa esan ondoren, ateadoko petrillean edo atariko arbola azpian exerita, eta baita ere aldameneko munto edo belar-soroan etzan da erri aldera begira jarrita, pozik asko egoten giñan, bai karlista gerrakoak, kontrabadistenak, lapurrenak, sorgiñenak, ijitoenak eta orrelako pasadizoak entzuten...



Txirrita eta Xaturdino Erasquin, Gazteluene baserrian.

...Beste illunabar batean, igual gertatuko zan etxe ondoko arboldian ontza bat, marru eta bulla zeriola; eta, urrengoan, gau-bele edo zataren bat, ura ere bere marru edo txistua joaz; eta zenbat aldiz aritzen giñan, aiek bezelako marru edo txistua ezin aterarik, berak gure ingurura ekartzearren. Askotan etorri-arazi ere bai.

Aiek marru eta guk marru, aiek txistu eta guk txistu, pixkabana-pixkabana guk gerok azpian geunden arbolaren gañera etorri arte.

Ontza etzan ainbesteraño inguratzen; baña zata edo gau-txoriak, bert-bertara etorri araziaz, an ariko ziran txistuka, alik-eta gu geldi-geldi egoten giñan artean. Pixka bat mugitzen bagiñan, aguro aldegingo zuten.

Urrengo batean, illunabar edo gau-gi-ro argi xamarra zegoen batean, igual asiko ziran goien ageri ziran izarrak kontaktzen eta aien izenak esaten.

Geien-geiena ezagutzen zutena izaten zuten Santiago-bidea edo Santiago-kamino.

Gero asiko ziran bateko norteko izarra; besteko zazpi izarrak; bost olloak; eta beste aiek iru erregeak; beste aruntzago-ko ura artizarra, eta orrela, izar askoren izenak esanaz.

Baita illargiarengatik ere aritzen ziran; bada Xaturdinok, Gaxteluk, bazuen edo obeto esateko bazekien kontakduri bat *Epacta* deitzen ziona, eta onen bidez ateratzen zuen kontua illargia noiz aituko zan edo noiz berria azalduko zan.

Guri ere erakutsi izandu zigun, naiz orain ez bear bezela gogoratu.

Bein baño geiagotan esaten zuen berrari begira jarrita:

–Emendik onenbeste egunerako, illargi berria izango da!

Askotan guk kontra igual egingo genion, eta orduan asiko zan kontuak ateratzen, esanaz:

–*Epacta*'k onenbeste –bada urtetik urtera aldatzen zan *Epacta* ori–, Martxo bat, Apirilla bi...

Illabeteak kontaktzen zituen, baña beti Martxotik asten zan; beñere ez Ilbeltzetik.

Kontatuko zituen Martxotik ordu arte joan ziran illabeteak eta orduan geunden illari joan zitzaizkan egunak, eta denak elkarri erantsi; eta, amabostetik pasatzen bazan, amabost kendu; eta, ogei ta amarretetik pasatzen bazan, ogei ta amar kendu; eta gelditzen ziranak, egunak; amabost, ogei ta amar edo berrogei ta bostera irixteko falta ziranak, orduak; eta gero, ez dakit zer, minutuak.

Orrela ariko zan eta esango zuen:

–Orrelako egunetan, orrelako ordutan eta ainbeste minututan, illargi betea!

Guk askotan ez genion sinisten; eta etxera joan eta, naiz egutegiari naiz pronostikoari begiratuta, xuxen-xuxen ateratzen zan.

Eta, ordukoa bezela, andikan sei edo zortzi illabetekoa, urtebetekoa eta geiagokoa ere bai; eta, illargia bezela, marea gora edo betea noiz izango zan ere bai.

Askotan guk galdetzen genion:

–Onelako illetan eta onelako egunetan noiz izango da marea betea?

Eta ark erantzuten zuena, xuxen aterako zan.

Orain gogoratzen gera zenbateraño lastima dan jakinduri oiek ain errex galzera uztea.

Orrelako edo orrelako moduko elkar-



Ezkerretik: Joxe Manuel Erauskin, Txirrita eta Xaturdino Erauskin, Gazteluene baserrian.

te eta tertuliak egiten genituen jai-illunabar askotan; eta, aspertzen ziranean eta erri aldetik entzuten zan jendearen bulla adituta, esaten zuen:

–Amaika txoro badabil garai ontan kanpoan, baña gu goazen oiera!

Eta, askotan beintzat, bertso politen bat kantatu edo lengo zarren bat esan eta joaten giñan.

Bada, askotan, bi osaba aiek, elkarri zerbait esan bear ziotenean, bertso batekin, adierazten zioten. Lastima da orain ez gerala gogoratzen; baña bat bada ere esango det...

Jai-egoarte batean, osaba Xaturdino ori atarian ari zan, bezpera-goizean billatu zuen triku bat larruten; eta Txirrita, berderatziak edo amarrak alde ortan jeiki.

Bere botilla ardoarekin bapo gosaldu ondoren, atarira atera, petrillan exerita jarri eta esan zion:

–Zer ari zera or, Xaturdino?

Eta onek bertso onekin erantzun zion:

Atzo goizean bostak aldean,
 etxe azpiko lintzuran,
 zakurra zaunkaz ari zan eta
 juan nitzan aber zein zuan;
 triku trixte bat zeukan mendian,
 gixaraxuak min zuan;
 txapelan artu, etxera ekarri,
 ta gero zer egin zuan?
 Tapaki txarra jarri nion da
 gabian otzak il zuan.

Orrelaxe bizitu ziran gure gurasoak eta gure osaba aiek. Baña joan ziran, beren ondorengoen biotzetan beñere beteko ez dan utsune bat utzita.

Orduan zan aien garaia, eta orregatik

pasa zitzaieten, geroago besteai pasa bear zaiguna.

Beraz, bijoakiote nere agurrik biotze-koena beren oroimenerako».

* * *

Auspoa'ren 76'garrenean, *Alza'ko bertsolari zarrak* izeneko liburuan alegia, atal bat Jose Ramon Erauskin'ek bere osaba Xaturdino oni buruz idatzia da. Onela dio:

«Xaturdino, 1874'ngo Maiatzaren 21'an Alza'ko Gazteluene'n jaio zan. Orregatik, Gaxtelu deitzen zioten, bere anaiari bezela.

Entzun izan dedanez, Pasai San Juan'en bataiatua omen zan¹. Bere denboran oso gizon ona ta zuzena izandu zan. Pasai'ko portuan ibiltzen zan arotz-lanean, osasunak lagundu zion artean.

Etzan ezkondu, bañan bere illoba eta illoba etziran askoren aita-jauna izan zan. Oso maitea eta ixtimatua izan zan beti bere illoba guziakgandik.

Bertsotarako apizio aundia izan zuan, eta oso ederki egiten zuan, bada jendea oso gustora edukitzen zekien, bertsotan ari zanean.

Urte askoan Txirrita eta biak elkarrekin bizitu ziran, eta askotan aritzen ziran kantari; eta, len jakin ez balu ere, arek geiago erakutsiko ziola uste degu.

Oraindik gogoratzen dira bere illobak Eguberri-jai batzuetan zer saio ederra egin zuten. Lenbizi Txirrita aspertu zan, eta ala ere Xaturdinok kantatzen segitzen zion; eta Txirritak, oiera zijoala, eskallderetatik jira ta onela bukatzen zan bertso au kantatu zion:

auxen da lana, au:
neronek erakutsi ta
menderatuko nau.

Etzan ibiltzen erriz-erri festetan kanta-
tzen, baña ala ere bein edo bein Txirrita-
rekin jua izan zan, onek eraman-azita;
bañan naiago izaten zuen bere lanean ja-
rraitu, bertsoetako ibilliari utzita.

Bertsoak jartzen etzan aritzen, bañan
ez etzekielako. Txirritarengana bertso jar-
tzera etortzen zanari, bazekien tartean
politik jartzen, naiz gero Txirritak jarriak
bezela eraman.

Onela, bein batean, Errenteri'ko gi-
zon bat obran erori ta min artu zuen; eta
etzutela ondo sendatu eta bertsoak jar-
tzera etorri zan; eta aietako bi bertso, gu-
txienez, Xaturdinok jarriak dira. Auek di-
ra:

Frontala altxatzen ari giñala
aldamiyotik jausita,
penagarriya gelditu nitzan
espalda-ezurra autsita;
mediku bati egin dizkiyot
makiñatxo bat bisita,
ez ote naizen ondo jarriko
geldituba naiz etsita.

Baten biotza lertu liteke
ez baldin bada arriya,
itzegin nai ta itzegin ezin,
auxe da nere larriya!
Espalda autsi ta aldrebes daukat
mediku batek jarriya,
orain osteria egin biarra
operaziyo berriya,
oiek danak nik sufritu biar,
au mundu penagarriya!

Fermin Imaz ta Txirritak, asarretu ta
elkarri bertsoak jarri zizkiotenean ere,

Imaz'i jarri zionetako politenetako bat ere
Xaturdinok jarria zan:

Errenteriya'n ziñan
kantari azaldu,
nere kontra paperak
ziñuen saldu;
beste batzuek berriz
mozkortuta galdu,
aldrebestasunian
oi zeñek igualdu?
Memoriya auldu,
izketa moteldu,
neri artzen kargu,
lotsarik bai al du?
Motibuak badauka
nundikan eldu!

Etxean sagardoa zegoen batean, Erna-
ni'ko Olegario bertsolaria etorri zan beste
gabe Xaturdino ta Txirritarekin bertsotan
aritzearren. Illunabar guzia kantari pasa
eta oeratu ziran.

Urrengo goizean, aiek lo zeudela, la-
nera joan bear izan zuen Xaturdinok, eta
eguardian bazkariarekin joan zan illoba,
eta berarekin bertso au bialdu zioten goi-
zean lotan utzi zituen bertsolariai; lenda-
bizi illobari erakutsi, gero illobak aitari
erakutsi, eta onek Olegario ta Txirritari
kantatzeko:

Lanera etorri naiz
erdi negarran,
lagunak lo utzita
patxara ederran;
Txirrita ta Olegario
daude indarrian,
allegatuko dira
leku biarran,
nik konponduko ditut
illunabarrian!

...Beraz bertso gutxi dakizkigu berak kantatu eta jarriak, baña sagardotegira edo lagun-artera juaten zanean, bertso polit asko ta asko kantatzen zituen. Argatik jendea ainbeste saiatzan zan bera kantari jarri-erazten.

Oraindik zaartu baño len, gaitz triste eta luze batek arrapatu zuen, eta lanera joateari utzi egin bear izan zion, eta andik aurrera etxean baserri-lanean aritu zan, bere gaitza pazientzi aundi batekin eramanaz; eta bere umore ona ala ere etzuen galdu.

Gero, azken aldera, zaartu zanean, askotan egon izan zan miñez, eta bi edo iru aldiz elizakoak egin zituen, oso elizkoia eta fedetsua baitzan.

Atzeneko artu zituenean, apaizak, extremantzioa eta beste otoitzak egin ondoren, onela esan zion gaxoari:

–Xaturdino, zerura joaten zeranean, neretzat erregutu!

Ta Xaturdinok onela erantzun zion:

–Al baldin badet, bai!

Eta apaiza andik atera eta irureun bat metro bidean joan zanerako, bere anima Jaungoikoaren eskuetan utzi zuen, 1950'garreneko Agoztuaren 28'an, arra-

tsaldeko lau ta erdietan, irurogei ta amasei urte zituala, Altza'ko Gazteluene'n, Txirrita il zan etxe berean»².

* * *

San Inazio egun batean, topo egin omen zuten alkarrekin, Altza'ko Irazuene-goï baserriaren atarian, Xaturdino ta Saiburu bertsolariak. Lenengo onek kantatu omen zuen bertsoa, ta Xaturdinok onela erantzun omen zion:

Irurogei ta amasei urte
ni jaio nitzala,
geroztikan egin det
munduan itzala;
banekien betiko
etorri ez nitzala,
Aingeru Guardakuak
guardatu gaitzala!

1. Ez Altza'n beintzat. Erri ontako bataio-liburuak dionez, gerragatik eliza gobernuak bere soldaduentzat artua zegoen, eta 1873'gn urtetik 1876'gn urteraino etzan Altza'ko parrokiaren bataiorik izan. Aurra auzoko errietara eramango zituzten.

2. Oneraino Jose Ramon Erauskin. Txirritaren eta Xaturdinoren illobak idatzitakoa. Ondoren jarri degun bertsoa, Irazuene-goï baserriko Manuel Sarriegi'ri jasoa.

SANTA ISABEL EGUNeko MEZA

Santa Isabel egunean, Altza'n erriko festen bukaera izan oi zan, meza nagusia eman ez eta jai-aldi batzuek egiñez.

Errepublikaren urte batean, Udalak etzuan meza ori pagatu. Jendeak, orregatik ere izango zala uste zuan; baiña etzan meza nagusirik izan.

Arratsaldean, Txirrita eta bere lengusu Lujanbio, *Saiburu* bertsolaria alegia, bertotan jardun ziran plazan.

Txirrita oso zaartua, lodia eta baldartua zegoan; etxea ere urruti xamar zeukan eta etzan mezatara jaiero joaten. Joaten zanean ere, Martillune tabernan bazkaltzen zuan; eta arratsaldean, Juanaene'ko gizonak, Ebaristok, zalgurdi batean eramaten zuan etxera.

Saiburuk, bertso batean, aspaldian etzala mezatan izan esan zion.

Txirritak, bertso onekin erantzun zion:

Meza entzutia gustatuzen zait kristau formalaren gisan, baiña nai arren beti neretzat ezta oso errez izan; esan dirazu aspalditxuan ez naizela izan elizan, meza nausiyá eman balute gaur entzutekotan nitzan.

Jendeak txalo asko jo zizkion; baiña bikarioari etzitzaion batere gustatu.

Orregatik, urrena konfesatzera joandakoan, meza entzun, Jauna artu eta kanpora atera zanean, zimitorioan petrillean exerita zegoala, etorri eta onela esan zion bikarioak:

–Meza entzun al dezu, Txirrita?

–Bai, jauna.

–Santa Isabel eguneko partez izango zan?

–Bai, jauna; orduan ez nuan beintzat entzun da...

Gero, erritan ekin zion bikarioak:

–Zu, bai: or zabiltza emakumeai berdekeriak-eta kantatzen...

Etxera joandakoan, kontatu zuan ori dana Txirritak, eta illobak onela galdetu zion:

–Eta ez al dio erantzunik eman?

–Bai; andik ordu betera nengoan beze-la, ondo gosaldú eta litro bat ardo edanda egon izan banintz, emango nion, bai, ederra. Baiña baraurik nengoan-da...

Urrengo urtean ere Udala leengoan zegoan, eta jendeak pagatu zuan meza nagusi ori. Baiña Txirrita Garagarrillaren 3'an illa zan, eta Santa Isabel eguneko meza ori, Uztailaren 2'an alegia, Txirritaren animaren alde izatea eskatu zuan jendeak, eta alaxe izan zan¹.

1. Jose Ramon Erauskin, Gazteluene, Altza, Txirritaren illoba.

GAZTELUENE'N

Leen ere esan degunez, zaartutakoan arreba gazteenaren etxera, Gazteluene'ra, erretiratu zan Txirrita. Gazteluene Altza'ko baserri zuri bat da. Malda legun batean dago. Ainbeste euskaldun baserrik bezela, tellatuaren egal bat bestea baiño luzeagoa du, txapela jantzi oi dan bezela.

Alde-aldetik, urak sakondutako bide bat dijoa. Aste egunetan, bide ortan goitik beera jeixten ziran, Pasai'ra lanera zijoazen baserri-trak; eta jaiean beetik gora igotzen ziran kaletarrak egurastera. Auek, Txirrita atarian exerita ikustean, askotan gelditzen ziran arekin itz aspertu bat egitera.

Amabost bat urte egin zituan Txirritak Gazteluene'n. Liburu ontan eskeiñi ditugu zenbait gertaera eta bertso, Gazteluene'n bizi zaneakoak dira.

Baserri ontan, bere arreba, koñadu eta illobekin bizi zan. Ez omen zuan enbarazu aundirik egiten. Etxetik kanpora, bertsotara-edo, joatean, bueltakoan beti ekartzen zituan *paxientxiak* edo beste olako galleta edo goxoren batzuk illobentzako. Eta beti ere umore onez zegoan.

Urte asko zituan; baiña alare lan pixka bat egiten zuan.

Egun batean, karro¹ bat barrena sartzera zijoazen Saturnino, Txirritaren koñaduaren anaia, eta Txirrita.

Saturninok esan zion:

–Mugituko ote degu, Joxe Manuel?

Eta Txirritak:

–Nik eltzen badiot, mugitu bearko du, karroak aurrera edo munduak atzera.

Bertso kantatzera ara edo onera joango ote zan eskatzera ez-ezik, alako edo olako ixtilu edo kontua gertatua zala eta bertsoaren batzuk jarriko ote zituan galdeztera ere maiz etortzen zitzaizkion. Olako bertsoak, bertso-paperetan argitaratutako bertsoak alegia, gero azalduko ditugu. Orain au esan dezagun, ordea: oso bertsolari gutxi dala, Txirritak ainbeste bertso jarri eta argitaratu duanik.

Eta ori, berak idazten etzekiala. Testamentua egitean ere, etzan bere firma jartzeko gauza izan, firmatzen ere etzekialako. Ala dio notarioak.

Egun batean, paperen bat egitera zijoala, onela esan zioten:

–Paper ontan firmatu bear dezu. Eskolik bai aldezu?

Eta Txirritak:

–Eskola? Gure etxeko azpiko aldean bai galanta!

Irakurtzen ba omen zekian, moldeko letrak bakarrik ordea; ez eskuz egindakoak. Baiña oso gutxitan saiutzen omen zan.

Gazteluene'n bizi zalarik, bere illoba Jose Ramon artzen zuan kopiatzailletzat edo sekretariotzat. Onek eman dizkigu atal ontako argibideak.

1. Euskeraz, «gurdia» ta «karroa» gauza desberdiñak omen dira. Gurdia, ardatzak kurpillekin

batera bueltak ematen dituana da; karroa, berriz, ardatzak bueltarik ematen ez duana.

TXIRRITAREN AITAMENAK

Bere azken urte oietan, maiz esaten omen zuan:

–Bai. Ni aurki joango naiz; baiña nere oroipena ez da piska batean joango.

Edo bestela:

–Beste kristau klaseak il orduko, ez da aietaz iñor ere oroitzen. Txirritaz ez da jendea bereala aztuko.

Batek baiño geiagok kontatu digu olako zerbait esaten nola entzun zioten.

Bein batean, auzoko gizon bat meta bat egiten ari zan. Txirrita ere an aldameanean zegoan, bazter batean exerita.

Gizon ori Txirrita toriatzen asi zan:

–Zaartu zera, Txirrita, zaartu...

–Bai; ala nago. Il ere aurki egingo naiz. Baiña nere bertsoak kantatuko dira bazterretan, ni il da gero ere. Eta nere aitamenak ere izango dira periodikoetan eta paperetan.

Il baiño bost urte leenago, irurogei ta amar urte zituala jarritako bertso batzuetan, onako au agertzen da:

Gazte-gazterik asi nitzan da
oraindaño bitartian,
zenbait umore eder jarri det
Kantabria'ko partian;
pixka batian ez naiz aztuko
sartuagatik lurpian,
nere aitamenak izango dira
beste larogei urtian¹.

Liburu onek ez du bertso ori egiztatu besterik egiten.

Baiña bertso ontan ez da arrokeri arrastorik ere. Bertso onek, Txirritak bere bizia zer izana zan ondo zekiala ta damutan etzegoala erakusten du. Txirrita bezelako gizonak, izan ere, kalte baiño mesede geiago egiten diote mundu triste oni.

1. *Txirrita'ren Testamentua, Imp. Macazaga, Rentería, 1930.*

ERIoTZA

Bere azken bolara ontan, beintzat, asko errezatzen zuan. Errosarioa eta beste etxeko otoitzak ez-ezik, jeikitzerakoan eta oierakoan, «mesa-notxean» kandela bat jarri eta piztu, bera baularen gainean exeri, eta an aritzen zan denbora luzean bere errezuak egiten.

Mezatarara joateko gauza etzanean ere, meza denbora gisa ortan errezatzen pasatzen zuan.

Leen esan degunez, testamentua ere egin zuan. Bere illetak egiteko eta bere animaren alde mezak ateratzeko, bosteun pezeta utzi zituan; beste zerbait diru pobreentzako, eta illobentzat gainera.

* * *

Orrela, 1936 urteko maiatzaren azkenean, Goizueta'n zerbait festa bazala-ta, Txirrita deitu zuten, bere lengusu Saibururekin bertotara joateko. Goizeko berderatziatan automobil bat etxeraño billa etorriko zitzaiola.

Txirrita garaiz prestatu eta zai jarri zan etxeko atarian. Goizueta'ra aillegatu eta amaiketakoan gazta miña jan bear zuala esaten zuan. Gazta miña, gazta zaarra desegin eta eltzean gordetzen dana izaten da, izugarri janari sendoa.

Atarian egon da egon, denbora aurrera eta automobilik etzan agertzen.

Koñaduren anaia, Saturnino Eraus-

kin, bertsolaria bera ere, atarian zebillen eta onela esan zion:

–Bazaude, baiña etzaizu gaur automobilik etorriko.

Txirritak bertso batez erantzun zion. Zoritxarrez, illobak ez dira bukaeraz baikorritzen:

zu aixa ari zerade emen
ijua eta marrua,
baña ez apuratu, Saturnino,
etorriko da karrua.

Goizueta'n, tabernan-edo, besterik kantatu ez bazuan, au izan zan Txirritaren azken bertsoa.

Noizbait bear eta azaldu zan automobililla.

Txirrita, exerita zegoan tokitik altxa eta asi zan poliki-poliki automobilera joaten.

Txoferrak esan zion:

–A, Txirrita! Zer ote da zaartzea!

Eta Txirritak:

–Bizi bazera probatuko dezu.

–Ez probatzea obe.

–Amaika bada orratik pena duala gazterik illa.

Ori esan, automobillean sartu eta Goizueta aldera abiatu ziran.

Goizueta'ra aillegatu eta amaiketakoan, Loiartere'nean ain zuzen ere, gazta miña eskatu zuan. Bai gustora jan ere.

Jan da gero, maitik altxatzean, onela esan zuan:

–Nere eun da berrogei ta amar kiloak bapo jarri dituk orratik oraintxe.

Bearbada, oiek izan ziran bere azken itzak.

Ori esan eta kanpora abiatu ziran danak, bertso-saioa asteko. Loiarte etxetik irten eta plazara zijoazela, Txirrita bide bazterrean zegoan arrizko aulki batean exeri zan. Orduan konturatu ziran lagunak zerbait bazuala. Atakearen asiera zan.

Orrela kontatu zidaten Goizueta'n, an bertan zeudenak. Txirritaren illobak bestela kontatu zidan. Leen aitaturako itz oiek esatean, tabernan bertan zeudela, erortzera zijoala ikusi omen zuten lagunak, eta eldu egin zioten, bestela lurrera baitzijoan.

Don Pedro Diez de Ulzurrun jauna garai artan Goizueta'n apaiz zegoan, eta alako batean bat edo bat korrika etorri zitzaion, etortzeko eta etortzeko esanez, bertsolari bat gaizkitu zala eta etortzeko aguro.

Joan omen zan, bada. Txirrita silla batean omen zegoan. Itxura txarra artu zion. Lagundu zuan eta, ain gaizki ikusita, azken untzioa ere eman zion.

Goizueta'tik telefonoz abixua bota zuten Altza'ko Martillun deritzaion tabernara. Emengoak, berriz, mutil bat bialdu zuten Gazteluene'ra.

Gazteluene'koak bazkaltzen ari ziran lasai asko, eta alako batean mutil ori presaka etorri zitzaion, Goizueta'tik abixua etorria zala osabari zerbait egin zitzaiola eta etxera zetorrela esanez; baiña ez bildurtzeko.

Andik ordu betera edo, goizean osa-

baren billa etorritako automobil ura bera etorri zan. An zetorren Txirrita gizarajoa; baita mediku bat ere ari lagunduz.

Automobilla gelditu eta atea idikitzean, Txirritak alegin pixka bat egin zuan andik ateratzen, baiña ezin. Artu eta aidean eraman zuten oiera.

Automobillak segituan alde egin zuan andik. Telleri-txiki bertsolaria Txirritaren ordeztu artu eta Goizueta'ra berriz ere, emengo bertso festa galdu etzedin.

Medikuak, Txirritak «*hemorragia cerebral*» zuala esan zien, eta iru bat egunean biziko zala. Eta ala gertatu zan.

Etxekoak apaiza deitu zuten. Don Jose Maria Mujika etorri zan. Denbora-puxka bat egin zuan gaixoarekin bakarrik, konfesatu al zitekean-edo.

Itxura danez, Goizueta'koak etzuten ezer esan, eta etxean bigarren aldiz eman zioten azken untzioa. Au ematean eta Jauna artzean, malko lodi batzuk ixurtzen zitzaizkan Txirritari begietatik.

Etzuan itzegiten, baiña ezaguera ona zeukala ematen zuan.

Orrela, aitzen-aitzen joan zan, eta poliki-poliki il zan, 1936 urteko Garagarri-llaren 3'an, asteazkenez, arratsaldeko laurretan¹.

1. Jose Ramon Erauskin, Altza, Gazteluene, Txirritaren illoba.

* * *

Egunkariak-eta eman zuten Txirritaren gaitzaren eta eriotzaren berri.

Onela zion *El Día* egunkariak, 1936'ko garagarri-llaren 2'an, asteartearekin:

A CONSECUENCIA DE UN ATAQUE EN GOIZUETA «TXIRRITA» MORIBUNDO.

El teléfono nos trae la fatal noticia del ataque sufrido en Goizueta el domingo por el célebre bertsolari «Txirrita», a quien últimamente se le tributó un

homenaje en Rentería como vencedor que fue en el II Día del Bertsolari.

Con motivo del «Día de la Patria» y solicitada su colaboración por el Batzoki, acudió a Goizueta en unión de Zainburu, sintiéndose indispuerto y dándole después un ataque, paralizándole medio lado.

Trasladado a Alza hacia las dos y media de la tarde del domingo a su caserío en grave estado, ayer, lunes, al atardecer, recibió con extremado fervor los Santos Sacramentos.

Hacemos fervientes votos por la salud del popular bardo euskérico «Txirrita».

* * *

Andik bi egunera, garagarillaren 4'ean, onela zion El Día orrek berak:

«TXIRRITA HA MUERTO.

El ataque que días pasados, según dábamos cuenta a los lectores, sufrió en las fiestas de Goizueta el popular bertsolari «Txirrita», culminó ayer tarde en el último suspiro que con admirable resignación cristiana exhaló nuestro vate.

Es de suponer el general sentimiento que en Euzkadi entera causará hoy tan triste nueva de la muerte del «txapeldun» del II Día del Bertsolari, que expiró a los 76 años de edad.

*Hoy, jueves, a las ocho y media de la mañana, se verificará la conducción de su cadáver desde el case-
río «Gazteluene» a la iglesia de San Marcial, en cuyo templo se celebrarán a las nueve solemnes funerales en sufragio de su alma.*

¡Descanse en paz el inolvidable bardo euskérico cuya memoria perennemente guardará el pueblo vasco!».

* * *

Ondorengo egunetan, *Iñ-Ol*, Basarri eta abarrek idatzi zuten Txirritaren eriotzaz.

Argia astekariak, berriz, onela zion garagarillaren 7'an:

«TXIRRITA IL DA.

Osteguneko izperringiak ekarri ziguten berri onek ez giñun batere arritu. Arritu ez giñun arren, mingarri izan zitzaigun ordea. Eta ez giñan batere arritu oso gaizki zegoala genekilako.

Igandean Goizueta'ra joan zan aidanean bere lengusu Lujanbio'rekin bertsotan aritzera. An perlesiak-edo jo ta ondoezik gelditu zan ta bereala ekarri bear izan zuten etxera, Altza'ra.

Sendatzeko alegiñak egin badizkiote ere ezin ordea sendatu ta il egin da. Bere bertsoetan ain maitakiro maiz-maiz aitatzen zuan Jainkoak bere altzo gozoan eukiko al du.

Txirrita ezagutzen ez duen euskaldunik ez al da izango. Ain zan ezaguna. Euskalerrria batetik bestera bein baño gciagotan igaro izan du, an da emen bere bertsoak entzun nai izaten ziralako. Bertsolari batzaldian lenengo saria beretzat izan zan.

Txirrita bezelako bertsolariak gustatzen zaizkate gure baserritarrei: zirikalariak. Eta zirikalarietan bazan ba bat gure Txirrita ospatsua. Irakurle, Aita gure bat Txirrita'ren gogo aldez».

JARRITAKO BERTSOAK

Bertso-paperetako bertsoak

ITZAURREA

Bigarren zati ontan, Txirritak papere-tan jarri eta zabaldutako bertsoak bildu ditugu. Ez aotik aora kantatuak, alegia; oiek leenengo zatian agertu ditugu eta.

Bigarren zati onek, iru zati izango ditu berak ere. Leenengo zatian, bertso-pape-retako bertsoak; bigarrenengan, *Txirrita-ren Testamentua* izeneko liburuxkan argia ikusi zutenak; eta irugarrengoan, *Bertso-lariya* astekarian argitaratu ziranak.

Bigarren eta irugarrengo zati oien-tzako itzaurretxo bana egingo degu, eta esan bear guztiak antxe arkituko ditu irakurleak. Leenengo zatiarenak, berriz, ementxe ezartzen ditugu.

Txirritak bertso-gai asko eta asko erabili zituan bere paperetan: neska-mutillan kontuak, estropadak, apustuak, erlijioaren egiak, fueroak, santu bizitzak, eta abar.

Jarri-aldi auen gaiak, batzuetan berari bururatuak izaten ziran; beste batzuetan, beste batek enkargatuak.

Enkargatzera nola etortzen zitzaizkion, bertsoak zeinek kopiatzen zizkion, zenbat kobratzen zuan eta abar eta abar, Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin Lujanbio'k esango digu txee-tasun guzietan, «Txirritaren bertso-jartzea» izena duan atalean, urrengo orri-aldeetan.

Egillearen izena ez da beti paperetan

ageri. Baiña orra nola ezagutu degun Txirritarenak zeintzuk diran:

Txirritak etzekian idazten, eta azkeneko urteetan illoba orrek egiten zion sekretariotza. Osabak bertsoak esan eta illobak paperean ezarri.

Bein baiño geiagotan, egillearen izenik gabeko bertso-paper-mordo bat artu eta illoba onen etxera joan izan giñan, Altxa'ko Gazteluene'ra alegia. Eta an paper bakoitzetik iruna bat bertso irakurtzen genituan. Geienetan ezetzkoa ematen zigun illobak; baiña batzuetan baietzkoa:

—Ori bai, ori nik eskribitua da!

Eta ori esan ondoren bertso bat edo beste ere buruz gogoratu eta esaten zuan. Orduan olako paperak berezi egiten genituan liburu ontarako.

Izenik gabeko paper guziak orrela pasa ondoren, beste eginkizun bat artu bear izan genduan. Leen esan bezela, Txirritaren bertso-rik asko enkarguz jarria da, eta olakoetan, bestek nai dutena esan bear baita, arrazoi mikatzak merke ta ugari izaten dira. Orregatik erriz-erri ibili bear izan genduan, nere konfiantzako lagun batzuegan joan, bertsoak irakurri eta orain berriro argitaratzea komeni dan ala ez galdetzera.

Toki batzuetan ezetzkoa eman zigu-

ten: bertsoak jarri zizkiotena bizi dala, edo-ta seme-alabak bizi dirala, ta arren ta arren ez publikatzeko.

Ala egin degu. Badaki, beraz, irakurleak baditugula Txirritaren beste kantapaper batzuk emen argitaratzen ez diranak.

Beste batzuetan, berriz, baietzkoa jaso genduan: bertsoetan aitaturakorik inor ez dala gaur bizi eta eragozpenik ez dala; edo-ta erri izenak eta inoren izen deiturak kendu ezkerer argitaratu ditezke.

Txirritak amasei bat urte egin zituan arrebarren etxean, Altza'ko Gazteluene baserrian, leen aitaturako eta ainbeste bider aitaturako degun illoba orren etxean.

Baiña etxe ontara baiña leen ere, bertso asko ta asko izango zituan enkarguz jarriak eta izenik gabe argitaratuak. Oietako batzuk gure karpitetan egongo dira, eta, len esan bezela, iruna bertso ere irakurriko genizkion Txirritaren illobari. Baiña onek, berak kopiatuak ez baitira,

ezin ezagutu bere osabarenak ote diran ala ez.

Onekin zera esan nai degu: liburu ontatik kanpora Txirritaren bertso pilla aundi bat gelditua izango dala, batzuk gure karpitetan daudenak, eta beste batzuk gure eskuetara iritxi ez diranak.

An eta emen zenbait doñu arkituko ditu irakurleak. Bi iturri izan ditugu:

Bata, erria. Aurrena erriaren aotik magnetofonoz jaso genduan; eta andik entzun eta paperean ezartzeko lana, Manuel Yaben eta Anbrosio Zatarain jaunak egin dute. Milla esker.

Bigarren iturria, Errenteri'ko Juan Zabaleta bertsolaria zana. Onen paperean bertsolari doiñuz betetako kuaderno bat azaldu zan.

Ez dakigu doiñu oiek solfeotan nork ipiñi zituan, baiña bai lan ederra egin zuala.

TXIRRITAREN BERTSO-JARTZEA¹

«Txirrita, irurogei bat urte zituala etorri zan bere arreba eta koñaduaren etxera; beraz, amasei bat urte pasa zituan etxe ontan.

Berealaxen jakin zuen jendeak nun zegoen, eta asi zitzaizkan batetik eta bestetik bertsoetara deitzen. Askotan edo geienean erri bateko edo besteko festetara eramaten zuten, an kantatzeko. Leku askotara joaten zan.

Joan-aldi bakoitzeko amar duro, bideko eta ostatuko kastuak izaten zuen jorrala, eta noiznai egun bat edo bi pasatzen zituen.

Etzerakoan etzitzaion aztuzen illobentzat galleta batzuk edo zerbait erregalo ekartzea. Geienean urrengo eguna deskantsatzen pasatzen zuen, siesta ederra egiñaz.

Laister asi zan jendea bertsoak jartzeko enkarguak ematen ere. Nundik edo andik, usterik gutxiena zuenean etortzen zitzaion andregaiarekin asarretutako nobioren bat, edo mutillak utzitako neskatxaren bat bere anaia edo aitarekin; eta an kontatzen zizkaten beren naigabeak, eta zenbait kontu xeble ere bai.

Berak nola ez baitzekien eskribitzen, illobari deitzen zion. Onek apuntean artzen zituen nola batek itz eman da gero ukatu egin zion; besteak berriz ia ezkontzeko garaia etorri eta nola beste andregai egin zuen; besteak, berriz, zergatik ez dakiela, despeira eman ziola, eta abar eta abar.

Ainbeste gauza, gertaera eta kontu esaten zioten, arek danak aditu eta illobak apuntatu egiten zituen.

Egun bat izendatzen zuen; geienean zortzi-aldi bat edo aste beteko denbora artzen zuen, aiek esandako pasadizo aiek bertsoan jartzeko.

Aueri ere amar duro kobratzen zioten, eta aietatik bat illobari eman eskribitzeagatik. Duro oiei *idi-begia* esaten zioten. Orregatik bein baño geiagotan, orrelako enkargu bat etortzean, esaten zuen:

–Orain ere badegu, bada, idi-begia!

Enkargua artzen zuenean, bereala asiko zan bertsoak pentsatzen eta sumatzen. Kaso edo motibo bakoitzari bi edo iru bertso jarriko zizkion, ta gogoan eduki ere bai illobak apuntatu arte; gero beste bi edo iru. Ta orrela osatzen zituen amabi, amalau edo amasei bertso.

Gero, esan bezela enkargatu zituena billa etortzean, danak banaka-banaka letu, ezer baldin bazegoen ondo etzegoenik, zuzendu, eta eramaten zituen.

Izaten ziran batzuek inprentatzea ere

Txirritaren kontu uzten zutenak, onela berak ezertan ere endreatu gabe.

Etziran danak neska-mutillen kontuak izaten, baizik gazte kuadrilla bat asarretu zalako, deskalabroren bat pasa zalako, edo gertaera arrigarri bat pasa zalako ere etortzen ziran; bañan geienak emakumeren bat edo beste izaten zuten tartean.

Askok etzuten nai izaten zeñek jarri zituen iñork jakitea. Orregatik bein baño geiagotan gertatu izan zan, batek bertsoak jarri ta zein bertsoarik jarri zituen jakin ez iñork; eta bertsoak jarrierazi zituenari ordañak edo bueltak jartzeko bestea ere Txirritarengana etortzea. Ta bein batean onoko kaso polit au gertatu zan.

Etorri zan mutil gazte bat bere lagun –orduan kontrario– batzueri bertsoak jartzeko. Orduan ere bazuten neskatxa bat edo beste tartean. Bañan etzuen nai iñork jakitea, eta orregatik inprentatu ere Txirritak egin erazi zituan.

Esandako garaian etorri zan billa, esanaz beste egun batean etorriko zala danak pagatzera; ta ala eraman zituen, bañan pagatzera etzan azaldu. Bertso aiek kallean zabalduak izan ziran gauaz, ta ori dala-ta sesio eta burruka asko izan ziran.

Esan degun bezela, Txirrita an gelditu zan bertsoak jartzea kobratu ez, bañan illobari idi-begia eman eta inprenta pagatuta; eta etzegoen lasai.

Etzekien nungoa zan, eta izena nola zuen bertsoak jarri erazi zizkionak; bañan bai zeñi jarri zizkan, jarri eraztera etorri zanak, naiz bere izenik ez esan, bestearena esan baitzuen. Txirrita asi zan onen billa, eta bereala jakin zuen erri artan bertsoak zeñi jarri zizkieten.

Abisatu dio etortzeko, ta baita etorri ere gazte kuadrilla bat; ta nola baitzekiten

gutxi gora-bera zer gertatzen zan, berak errezeloa zuten lagun askoren erretratoak ekarri zituzten, ia an ote zan bertsoak jarri erazi zituena. Baita aguro ezagutu ere illobak. Orduan agindu zioten jartzeko berari, eta artan gelditu zan.

Andik oso egun gutxira, emen dator lendabizi bertsoak jarri erazi eta pagatu etzituen ura, jakindu baitzuen zer pasatzen zan; eta esan zion:

–Nik nere bertsoak pagatuko dizkizut, eta beste oienak ere bai, ez jartzeagatik. Orrela, lanik egin gabe irabaziko dezu.

–Ez! –esan zion Txirritak–. Nik jarriko nizkiola agindu nion, eta emandako itza bete egingo det, beste askok baño obeto.

Len jarri erazi zizkionak pagatu zituen eta joan zan. Ta orduan Txirritak esan zuen:

–Orrek bai merezi lukela ez jartzeagatik dirua artu eta ala ere jartzea!

Bañan etzion kobratu, eta besteak, esan bezela, jarri egin zizkan².

Etziran danak enkargatuak izaten. Bere buruz ere askotan jartzen zituen; esate baterako, gerrate bati, gertaera aundi bati, deskalabro bati, gizon ospetsu bati, eta abar eta abar.

Denbora asko xamar pasatzen bazan iñondik bertsotarako deirik edo jartzeko enkargurik gabe, ala esaten zuen:

–Gure Jainkoak ez ote ditu neska-mutilen batzuek asarretuko, nundik edo andik *idi-begi* batzuek irabazteko?».

1. Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin'ek idatzia.

2. Bi bertso-paper publikatu ziran, beraz,aldi ontan. Biak ere etxean ditugu. Baiña, itzaurrean esan degunez, galdezka ibili gera bertso oiek orain berriro argitaratzea komeni dan ala ez, eta auentzako ezetzkoa jaso degu. Orregatik, penaz bada ere, karpetatik atera gabe utzi ditugu.

(1886)

BERTSO BERRIAK TXIRRITAK JARRIAK

Txirrita 1860'garren urtean jaio zan. Bertso auk, berriz, 1886'garren urtekoak dira; arek ogei ta sei urte zituala jarriak.

Gaztetandik sortu zitzaion, beraz, bertso-paperak jartzeko griña. Agian jarri aldi au baiño lenagokorik ere izango du, baiña guk ez degu ezagutzen.

Bertso auk, Billabona'ko *Mankua* pelotari sonatua goraltzeko jarriak dira. Beste zenbait pelotari ere izendatzen dira.

Garai artako pelotariei buruz zerbait geiago jakin nai duanak, Antonio Peña y Goñi'ren «*La pelota y los pelotaris*» deritzan liburu ederra irakurtzea dauka.

Bertso sail au, Tolosa'ko Timoteo Adurriaga zanaren esku-letrazko bertso bilduman arkitu genduan.

1/ Milla zortzireun larogei eta gaude seigarren urtian, bertso berriyak jartzera nua euskara eder batian; pelea aundiyak egin dituzte pelotariyen artian, Pedro Yarza guzien buru probintziyako partian.

2/ Indaleziok dauzkan bentajak nua kantuz esatera: probintziyako plaza denetan jarri aukera¹; partida firme zerratu zuten iskribiturik papera, Billabona'ko Mankubarekin ez dira ondo atera.

3/ Indalezio eibartarra, Bizente Elizegi bestia, Pedro Yarza pensatu zuten orien kontra astia; nekatu gabe zerizkioten partida irabazia, dituzten sosak galdu artian eskarmentatu ezta.

4/ Suerte txarrak jo zualako beso bat dauka moztua, bañan bestia sano duala obra da manifestua; begiyak ernai, memori ona, anka ibildun listua, Billabona'n da probintziyako pelotariyen maixua.

- 5/ Bizente Elizegi pelotarekin
ez da mutil aldrebesa,
ori bigarren jarriko nuke
ni baldin banitz jueza²;
kuidado gabe egin liteke
orren anparo trabesa,
oiek ez dira tontuak baño
Billabona'n da *cabeza*.
- 6/ Premiatuak izandu ziran
Amerika'ko partian,
estimatuta ibilli zuten
kaballeruen artian;
ankaz listo ta begiyak erne,
beti koraje fuertian,
orrelakorik ez da atera
juan da larogei urtian.
- 7/ Plazan pelotan asten danian
ez du ematen itxusi³,
baliyo zuen saiatutziak,
etzuan gaizki ikasi;
beso-motxa da aziyu ortan
Españiya'ko nagusi,
ez det gizon bat bizkorragorik
sekulan inon ikusi.
- 8/ Urriko illak amar zituban
Bizkaia'n da probintziyan,
kontrariyoric gabe zebiltzan
pelotariyak Frantziya'n;
beste lan gabe ibillitubak
bere denbora guztiyan,
Billabona'ko beso-motz batek
laster konpondu zizkiyan.
- 9/ Llarrondo eta Zapaterua,
Txillarra zuten bestia,
oien moduko jokalariryak
Frantziya'n asko eztia;
Españi ontan pensatu zuten
desapiyoka astia,
bi enbaliyok portunatu da⁴
oieri irabazia.
- 10/ Batek begiya itxuba zuben,
besua motxa bestiak,
malezi asko dutelarikan
oraindik dira gaztiak;
onra aundiya eman diyote
partiduba irabaztiak,
oien anparo egin dutenak
ez daude gizon tristiak.
- 11/ Erreboteko lanian ere
badaki ankak dantzaten,
ikutu gabe pelotarikan
plazan etzaio pasatzen;
bola bezela beti badabil
ala ere ez da nekatzen,
orrelakorik munduban zanik
inork etzuben pensatzen.
- 12/ Pelotariyak duten bentaja
nua kontuz esatera:
noiznai deitu ta daramazkite
Amerika'ko partera;
inork jokatu nai badiyote
ipintzen dute aukera,
erri batetik lau olakorik
sekulan eztira atera.
- 13/ Jende guztiya ikarutzen du
plazako bibotasunak,
nekatu arren laguntzen diyo
gorputzeko osasunak;
adelantatzen dijuazkiyo
diru eta ontasunak,
iru erreino bildurak dauzka
beso batekin gizonak.
- 14/ Pedro Yarza ikasiya da
pelotarekin lanian,
joka-biriak egiten ditu
idiamentu onian;
Urriko illak ogei zituban
emendik irten zanian,
obiaguak jarriko dizkat⁵
andik etortzen danian.

15/ Pedro nagusi atera zaie
pelotariyen artian,
emengo lanak eginda dabil
Amerika'ko partian;
ankak listo ta besua zorrotz,
beti koraje fuertian,
jeniyo orrek eutsiko diyo
biziya duben artian.

16/ Jose Emeterio Agirre
apelidua eta izena,
Billabona'ko pontian bertan
bataiatu zan gizona;
Pedro Yarza, egin ezazu⁶
Lujanbio'ren esana,
ori da zure bertsuak jartzen
asko enpeñatu dana.

1. Ezin irakurri degu Adurriaga'ren kuadernoak emen zer dion.
2. Adurriaga'ren kuadernoan: *ni baldin jueza*.
3. Adurriaga'ren kuadernoan: *itxuski*.
4. Adurriaga'ren kuadernoan: *portunatu ta*.
5. Adurriaga'ren kuadernoan: *jarri dizkat*.
6. Adurriaga'ren kuadernoan: *egindazazu*.

(1893)

BERTSO BERRIYAK

Bertso auetan ez da egillearen izenik ageri, baiña Txirritarenak dirala, bere illobak esanda jakin degu. Beste zenbait argibide ere eman digu.

Neskatxa bat aur egiña omen zan, eta Irun'go mutil baten kulpa egin nai zuten. Bertsoak onela diote:

besteren batek oker egin da
neri nai ziran erantsi.

Orduan mutilla Txirritagana joan zan,
eta bertso auk jarri arazi zizkion.

Bertsoak inprentatu ziran, eta Txirrita
bera izan zan saltzaillea, jai goiz batean
paper-mordoa besapean artu eta Irun'go
kale kantoi batean kantari asita.

Alako batez, erriko erretorea azaldu
zan, eta onela galdetu zion:

–Zer ari aiz?

Eta Txirritak:

–Emen bertso saltzen, pagatu egin di-
date ta...

Eta erretoreak:

–Nik erosiko dizkiak danak!

Ala, danak erosi zituan, baiña Txirri-
tak ostera inprenta arazi zituan, eta urren-
go jai goizean an zan berriro, lengo kan-
toian, bertso saltzen...

Doiñua, Juan Zabaleta bertsolaria za-

naren kuadernotik artu degu, bertan dau-
kan letrarekin.





Txirrita bertsolaria.

o- so- a par- ti- an
 i- yai- tu- an or i- bi- lli
 nau- te i- ru a- tso- ren
 ar- ti- an.

1/ Apellidua Olazabal det
 eta Felix da izena,
 irundarra naiz Bidasoa'ko
 Elorri'n bizi naizena;
 bertso birekin egin nai nuke
 esplikaziyo zuzena,
 kulparik gabe bada amaika
 nigatik gaizki esana.

2/ Milla zortzireun larogei eta
 amairugarren urtian,
 landaretxo bat jaio da Irun'go
 Bidasoa'ko partian;
 ni bizi naizen palaziyotik
 ezta leku apartian,
 ia itoan ibilli naute
 iru atsoren artian.

3/ Urriko illaren ogei ta zazpin
 uste det izango zala,
 gure etxera atso bat juan zan,
 etzeukan mea azala¹;
 aren marrixka zepuan dago
 basakatuak bezela,
 aurren bat nunbait jaio dala ta
 aren aita ni naizala.

4/ Atso zar orri au esan nion:
 «Zer modu, adiskidea?²
 Kulpa gabia kastigatzeko
 al dabilkizu idea?
 Nork erakutsi dizu nundik dan
 gure etxera bidea?
 Alper-alperrik etorri zera,
 aur ori ez da nereaa».

5/ Atso zar orrek ez tul aundi bi
 egin zituen lenbizi,
 gero pauso bat atzera eta
 ezpañ biurrika asi;
 besteren batek oker egin da
 neri nai ziran erantsi,
 esaten zuen: «Ez al du aur orrek
 aitormentikan merezi?».

6/ Modu txarrian itzegitea
 kristauarentzat kalte da,
 anima asko da argatik juana
 etsai gaiztoen tartera;
 eta beñ ara sartzen danikan
 geiago ezin atera;
 zuretzat ere orixe dator
 konparazio batera.

7/ Abertzentziyan ipiñi dute
 Irun'go erretoria,
 bitarteko bat bialdurikan
 izugarri dotoria,
 al baldin bada billa dezala
 aien aurraren jabia;
 ark ere aisa asolbitu nau
 pekaturikan gabia.

8/ Aingeru orrek izan bear du
 iturri asko nastua,
 eta tragorik gozoen ura
 nun eran zuen aztua;
 nun kargatu dan ez dakiela,
 da azkenian ustua,
 ni ote naizen pekataria
 atso gaiztoen juzkua.

- 9/ Aur gaiso ori or agertu da
urrikaltzeko moduan,
estimazio aundirik gabe
bere amaren onduan;
arentzat ere ez dira izan
gusto guziak munduan,
enpeño batez biartuta ere
ez daki aita nor duan³.
- 10/ Alabaren bat egin dezula
aditu degu, maitia,
al dan lenena sendatutzeko
ongi goberna zaitia;
zeñena dezun ez dakizula
lotsa dezu esatia,
beragatikan sortu dezute
ni naizala kulpantia.
- 11/ Tropesi batek arrapatuta⁴
orduko orren pobrezta,
baño lagunak izandu zuten
aiudatzeko nobleza:
oiñuts gorrian Lezo'ra juanda⁵
kunplitua da promesa,
fabrikan bertan dirua bildu
an ateratzeko meza.
- 12/ Beñ tropesiak konkortu zuen,
ezta bereala zuzendu,
«Suerte txarra dauka gaisoak!»
makiña batek esan du;
ai, pekatuan erortzen danak
larrutik pagatutzen du,
obe zenduen zure lorea
ongi guardatu bazendu.
- 13/ Kaballero ta bigote-dunak
gustatzen zaizka aldean,
aiek lajatu duten orduan
asi da nere galdean;
musika-soñu ederra franko
aditua da Katean⁶,
plaza betean ibiltzen ziñan
amaikak arte bailean.
- 14/ Zerbait bazala bazeizkion
orrek bere buruari,
pretendiente balienteak
izandu ditu ugari;
eta txaskoak gertatzen zaizka
orrela dabillenari,
ontaz aurrera pakean utzi
kulparik ez duenari.
- 15/ Zeru ta lurren bikarioa,
erregien alkatia,
zuk ere noski jakingo dezu
ez naizala kulpantia;
bestela banaiz ejemplo onez
ero doaiatz betia,
motibo ortaz ez dit itxiko⁷
zeruetako atia.
- 16/ Alde batera kantak jartzia
ezta ederki egiña,
Jesus bezela pazientziaz
konpleto egon bagaña;
bertso oietan ezta gezurrik,
dena izketa berdiña,
lotsa ederra eman dit baño
artu dezala ordaña⁸.

1. Txirritaren illobak esan diguncz, bere osabak onela kantatzen zuan puntu au: *etzeukan mingaiñ argala*.

2. Puntu au onela esaten omen zuan Txirritak: *Aizazu, adiskidea*.

3. Bertso-paperik zarrenak: munduan. Besteak: *nor duan*.

4. tropesi: *hidropesia*.

5. Bertso paperik zarrenak: *serora juanda*; besteak: *Lezora juanda*. Guk uste, onela bear du.

6. Irun'go Katea.

7. Bertso-paperak: *orzaz*.

8. Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Alzo'ko Inazio Zabala'ren eskutik jasoa.

Bertso-papera, «Imp. de Echenagusia, María Muñoz, 8 - Bilbao», Ajangiz'ko Balendin Aurre'ren eskutik jasoa. Paper onen ortografia geroagokoa da. Bi bertso falta ditu: 14 ta 16'garrena. Eta besteak orden ontan dakarzki: 2, 1, 3, 4, 5, 8, 7, 13, 12, 11, 9, 10, 6 ta 15'garrena.

Aldaketak: 1/7: kulparik gabe amaika bada; 2/2: amalaugarren urtian; 2/6: ezta oso apartian; 3/1: Urri illaren amalabian; 4/1: Atso zar orri erantzun niyon; 4/6: etxe ontara bidia; 5/3: gero pausa bat atzera emanda; 5/6: neri nai ziran eratxi; 5/7: esaten zuben ez al du aur onek; 5/8: aitomenarik merezi; 6/1: Gisa txarrian itz egitia; 6/2: personarentzat kalte da; 6/3: anima asko argatik joan da; 6/6: ezin litezke atera; 7/7: ark ere errez asolbitu nau; 8/3: eta tragorik goxuena ura; 8/4: non egin zuben aztua; 9/1: Aur gaxu ori or gelditu da; 9/5: arrentzat ere gusto guztiyak; 9/6: ez dira izandu munduan; 10/1: Kriatura bat izan dezula; 10/2: entzuna nago, maitia; 10/3: iya lenbailen sendatutzeko; 10/5:

norena dezun aitortutzia; 10/7: orregatikan sortu dirazu; 11/1: Tropesi batek konkortu eta; 11/2: orduko aren pobreza; 11/3: lagunak ere izandu dute; 11/4: aparatzeko nobleza; 12/1: Tropesi batek konkortu zuben; 12/3: suerte txarra dauka tristiak; 12/7: obe zenuen zere loria; 12/8: ondo guardatu bazendu; 13/1: Kaballero ta lebita-dunak; 13/3: aiek atzendu zaizkan garaian; 13/6: aditua da kalia; 13/7: amaikak arte ibiltzen zifian; 13/8: plaza betian bailian; 15/3: zuk ere ongi badakizu ni; 15/5: bestela banaiz graziyaz edo; 15/6: doai ederrez betia; 15/7: gauz orregatik ez dit itxiko.

AZPEITI'KO PREMIYUENGATIK

Edozein bertsozalek dakianez, Azpeiti'ko premia zala-ta, alkarrekin asarretu egin ziran Udarregi eta Pello Errota bertsolariak.

Artatik asita, lau bertso-sail paratu zituan Udarregik Pello Errotaren aurka. Pellok, berriz, bakarra jarri zuan, Ameriketara joan baitzan, etxetik kanpo amar bat illabete egiñez.

Baiña aren utsunea beraren seme Miel Antonek eta anai Juan Krutzek bete zuten, bertso sail bana jarritz.

Beste bertsolari batzuek ere naspil artan parte artu zuten: Jose Bernardo Otaño, Joxe Agustin «Errikotxia», Antiguar bat, Patxiko Arzak eta beste bat.

Beste ori, *Azpeitiko Premiyoaren bertsoak (1893-1895)* izeneko liburua argitara eman genduan, artean ez genekian nor zan, baiña Gazteluren errezeloa egiten genduan.

Guk, izan ere, norbaiten eskutik jasota, liburuxka bat genduan, beste zenbaitekin bertso sail ori zuana. Baiña liburuxka orrek aurreko orriak falta zituan, eta egilearen aztarrenik etzuan.

Denborarekin, ordea, gure iritzia aldatu eta egillea Txirrita izango ote zan pentsatzen asi giñan. Onela genion *Txirritaren bertsoak (I)* izeneko liburuaren itzaurrean:

«Txirritaren beste bertso-paper bat, Auspoa'ren 27'garren zenbakian, 94'garren orri-aldean, argitaratu zan. Orduan, seguru ez bañan Gaztelurena ote zan jotzen genduan. Orain Txirritarena dala-koan gaude...».

Ondoren, ordea, liburuxka orren beste ale bat eskuetaratu genduan. Onek ere orri batzuk falta zituan. Baiña azkenak. Eta aurrenekoan onela dio:

«Txirrita'ren Testamentua / 216 bertso bere denboran jarri dituan onenak / 2º idaztia / Makazagaren irarkolan, Biteri, 32, Errenderi».

Txirrita izan, beraz, bertso oien egillea.

Udarregi eta Pelloren asarrea 1893 urtean asi eta 1895 urtean bukatu bazan, eta Txirrita 1860 urtean jaioa izanik, bere sa-soirik onenean zegoan ura garai artan, ogei ta amalau bat urterekin. Orren aztarrena badago bertsoetan. Orregatik esango baitu noski: «obiak bagaude gaur zenbait gazte».

Gure iritziz, liburuxka ori gutxi zabalduko zan. Zergatik ote? Guk beintzat ezin erantzungo diogu galdera orri. Baiña baditeke gerra sortu zalako-edo izatea.

Edozein moduz, ona emen bertsoak:

- 1/ Dozenatxo bat bertso
bear ditut bota,
jendiak jakin dezan
nik daukan nota.
Obeak asko dira,
ez naiz orren kontra,
baño itzegin nai det
sasoian nago ta.
Or dabil marroka,
al dana zurrupa,
iya jo du arroka,
ori da erropa,
alabatzero nua
Pello Errota.
- 2/ Pello, gaizki zabiltzala
aditu det oso,
enteratua nago
au dala kaso.
Zuek agure zar bat
egiteko falso,
zeok aundiyaguak
zerate akaso.
Premiyua jaso,
polsan sartu preso,
partitzeko manso,
denak bertan gazo¹,
gizonak ez dik bear
pantasioso.
- 3/ Juan Josek testigua
du erretoria²,
izketako lanian
zer dotoria!
Iñon pare gabeko
predikadoria,
konfesiyan ere
badu podoria.
Bajatzen ari da,
juan zaio edadia,
iya erori da
zeruko glorira;
Azpeiti³ko apaizen
diretoria.
- 4/ Beti keñuka zaude
loruaren gisa,
esanaz nagusitzen
zerala aixa.
Ori da jaiotzetik
eldu zaizun gaitza,
nere lañuak dakar
zuretzat ekaitza.
Zuk dezula giltza
erronkaz zabilta,
nai badezu mintza
orain da agintza;
ez nago ukatzeko
ni nere itza³.
- 5/ Zu ziñala onena
Donostiya'n uste,
amaika duro eder
eman dituzte.
Ez daukazu arturik
beste orrenbeste,
alperrik juango zera
berriz ara eske.
Or zabilta triste,
erronka ta naste,
tabernan jai t'aste
ikusten zaituzte;
obiak bagaude gaur
zenbait gazte.
- 6/ Pello, jokatu dezu
amaika apostu,
kulpa zeorrek eta
zertan zapuztu?
Bertsoetako lanak
badu franko kostu,
ontan ezin liteke
iñor aberastu.
Zabiltzate justu,
ez iñori ostu,
partitzia aztu,
lotsa asko eztu,
gizon gezurtiyari
mingaña moztu.

7/ Bera baño oberik
ez dala iñun jaio,
tabernaren batian
ixuri zaio.

Izan ere egin du
amaika ensaio,
beste bi goierriar
arturik soziyo.
Gogotik da piyo,
gora nai du iyo,
au dala meriyo
jendia seriyo,
orgullo geiegiyak
ez du baliyo.

8/ Zuk badakizu joaten
besteren etxera,
pakian daudenak
endreatzera.
Norbaitek ordaintzeko
beldurtzen etzera,
Juan Jose isillik
diruba artzera.
Gizona zartzera
tristura sortzera,
odolak aultzera,
franko bajatzera,
zedorrek len bezela⁴
kapaz al zera?

9/ Pello bertsolariya
oso dotoria,
Juan Jose Ugarte berriz
askoz obia.
Bein batian Tolosa'n
oien umoria!
Konportaren gañetik
pasa zan baria.
Deus ezta guria,
aik dute ploria,
naiz juan edaria
biba aguria!
Errekalden daukate
diretoria⁵.

10/ Dibersiyo polit bat
obe degu pasa,
ala ematen diyot
nik nere traza.
Taberna-zokuetan
or zabiltsa lasa,
guregatik esanz
ez gerala gauza.
Kulpa banu utsa,
ze ote da kausa?
Giza-lege motza,
ez gera orren lotsa:
eskojitu lezake
nai duen plaza.

11/ Pello bertsolariya
gutzizko pijua,
ez dauka semia're
nolanaikua.
Gaztia dalarika
soma aundikua⁶,
aitak berriz diruri
kasik Jaungoikua.
Gizona bapua,
eztago plakua,
izdun galakua,
pare gabekua;
orain Amerika'ra
omen dijua⁷.

12/ Pello bertsu oriyek
zuretzako dira,
probintziyan egingo
dutenak jira.
Gustoz egon ditezke
batzuek begira,
orain sendatuko da
zarraren erida.
Jar zazu segira,
artuaz medira,
egin eskojira
nai dezun tokira,
etzaitzela izan
nere kupira.

1. Zer ote da gazo au? Bearbada gozo, edo gaizo... Baiña ziur esateko ez dakigu.

2. Bertso-paperak: *Juan Jose testigua du erroteria*. Lenengo, *Juan Josek* bear duela dudarik ez da. Bigarren, *errotaria* ez, baiña *erretoria* bear du noski. Bertso guztia irakurrita, gauza garbia baita apaiz bat goraltzen ari dala bertsolaria. Zein apaiz ote? Garai artan Azpeiti'ko erretorea zana, Agustín Jauregi jauna alegia.

3. Bertso-paperak: *nik*. Baiña *ni* bear duela us-te degu.

4. Guk uste, *zerori* bearko luke emen.

5. Bertso onek argibide batzuk bear ditu. Juan Jose Ugarte Zizurkil'ko bertsolari bat zan.

Konporta, Pelloren errotarengatik esana da. Aren gaiñetik *baria* pasa da. *Baria* baitzan Zizurkil'ko Otaño'tarren izengoitia. Otaño'tarren batek, beraz, Joxe Bernardok seguru asko, edo Pedro Marik bes-tela, Pellori gaiña artu dio. Orregatik, *Errekalden daukate direktoria*. Errekalde, Otaño'tarren etxea baitzan.

6. Pelloren semeak ere –Miel Anton izenez–, bertsoak jarri zituan aitaren alde, Azpeiti'ko Premioaren eztabaida ura zala-ta. Ikus: *Auspoa* 27, 72 orri-aldean.

7. Pello Argentina'ra joan zan 1895 urtean, an bizi ziran euskaldun batzuek eramanda. Amar illabete egin zituan etxetik kanpora. Ikus: *Auspoa* 32, 132 orri-aldean.

(1904)

BERTSO BERRIAK

AITA SAN MARTIN DE LOINAZ BEASAIN'GOAREN BIZITZARI JARRIAK

Bertso auek, Aita Donosti zanaren paperetan arkitu ditugu. *Imp. J. Díaz. - Irún-* 'en inprentatutako bertso-paper bat da.

Paperean ez da Txirritaren izena ageri; baiña, Aita Donosti'ren letraz idatzirik, itz auek daude: *Compuestos por Txirrita.*

Eta Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin Lujanbio'ri galdetuta, bere osabak San Martin Loinaz'i jarriak ere bazi-tuala erantzun zigun, eta bai azken bertsoaren erdia esan ere.

Bi testigantza auekin, ez dago zer du-da egin bertso auek zeinena diran.

Onela esaten da 13'garrean:

irureun da zazpi urte dira
Aita San Martin il zala...

Ta 1597'garren urtean il baitzan, edo obeto esateko il baitzuten, kontua eginda 1904'garrena degu, Txirritak bertso auek jarri zituana.

Txirritak Beasain'gotzat jotzen du Aita San Martin. Ez det uste bergararrak asko poztuko diran ori irakurriz. Esan bearrrik ez dago gu ez gerala auzi orretan sartzen...

- 1/ Bertso berriak jartzera nua
Aita San Martin Loinaz'i,
relijioso egiazkoak
ondo letuta ikasi;
zenbait bezela etzan ibiltzen
enemiguen igasi,
sinisten zuan Jesus degula
zeru ta lurren nagusi.
- 2/ Milla bost egun irurogei ta
geunden seigarren urtean,
Aita San Martin jaio zanean
Beasain'go partean,
Amonabarro deitzen zioten
baserri eder batean;
fede santua maitatu zuan
bizirik zegon artean.
- 3/ Jaio ta amar urte baño len,
bere lagunak utzita,
Ama Birjiña Loinaz'koari
egiten zion bisita;
asko bezela etzan ibiltzen
lujoz ta galaz jantzita,
arriak negar egin lezake
orren planta ikusita.

- 4/ Guraso fiñak beren semia
maite zuten gogotikan,
eskola ona eman zioten
pobre biziagatikan;
entendimentu argia zeukan
errespetozko praktikan,
artaz gañera ikasi zuan
latiñezko gramatikan.
- 5/ Len baño askoz argiago zan
gramatika ikasita;
Beasain'dik Alcalá'raño
zuan lenengo bisita;
mundu ontako gusto guziak
zeuzkan alde bat utzita,
kontentu zegoen besterik gabe
zerua irabazita.
- 6/ Amazazpi urte zituanian
zan emendikan atera,
España'ko Alcalá deitzen
zaion paraje batera;
bere garaian allegatu zan
gero meza ematera;
ark etzuan nai iñor joaterik
deabruaren katera.
- 7/ Jesusentzako zuan Martiñek
aiñ amorio zorrotza,
jakiñik nola artu biagun
sententzia bat garratza;
ogei eta bost urte inguru
zelebratu zuan meza,
San Franziskoren istoriua
ezta ikasten erreza.
- 8/ Milla bostegun larogei eta
amaseigarren urtean,
San Franzisko ta San Martin sartu
ziran Japon'go partean,
bere lagunak anparatzea
gutzizko borondatean;
oju aundiak egin zituzten
salbaje zarren artean.
- 9/ Desiaturik allegatu zan
Japon'en Aita San Martin,
ango lastimaz urrikalduta
predikatzen ziyon ekin;
bi akolito gazte-gazteak
gertu zituan berekin,
azkenerako esan bear det
zer gertatu zan aiekin.
- 10/ Arrapatuta belarriritan
puska bana kendu aurrena,
bire luzean oñez joateko
eman zioten ordena,
ta gero berriz bi lantza sartu
saietsetatik barrena;
au da geiena padezitua
Jesukristoren urrena.
- 11/ Aita San Martin mundu onetan
martirio asko pasea,
sekulan iñork ikusi duan
leialenaren klasea;
alde batera etzuen penik
bi lantzak ala sartzea,
askoz geiago sentitu zuan
Japon'en enterratzea.
- 12/ Aita San Martin Loinaz'koa zan
predikadore abilla,
España'tik Japon'a joana
anima galduen billa;
tormentu gutxi sufritu eta
etzan gurutzean illa,
merezi du ta opa diogu
zeruan goza dedilla.
- 13/ Irureun da zazpi urte dira
Aita San Martin il zala,
oraindik emen sumatzen degu
ark utzi zuan itzala;
beasaindarrak suplikan gaude
nai gendukenak bezela,
aizken piñean gure kontua
arren eduki dezala.

- 14/ Txit errespetoz pasa zituan
Mejiko eta Manilla,
gero Japon'en ikusi zuten
predikadore abilla;
Taikosama'ren ordenarekin
an da Nagasaki'n illa,
errezo asko egiten diot
guzaz akorda dedilla.
- 15/ Pena gogorak pasa zituan
San Martin gizagaixoak,
azkenerako bi lantzazo aiek
etziran goxo-goxoak;
nuan denporan laztanduko nau
zabaldurikan besoak,
esanaz: «Onek jarri zizkiran
Beasain'en bertsoak!»

Berto-papera, «*Beasain'en A. Zunzunegiren mol-
diztegia*», Gregorio Mujika zanaren bilduman.

Aldaketak: 1/2: Loinaztar Martin Deunari; 6/5:
bere garaian iritxi zan; 7/5: ogei eta bost urte ingu-
run: 8/8: salbaje zarren tartean: 9/1: Desiatirik iritxi
zan.

Eskuz idatzita, berriz, onela dio: «*1927an Eraus-
kin Errotarik*».

Patxi Erauskin Errotaria bertsolariaren bizitza
eta bertsoak argitaratuak ditu *Auspoa*'k, bere 130,
131 ta 132 zenbakietan.

Bertsolari onek bertso auek ere salduko zituan
erriz-erri, eta bearbada Gregorio Mujika jaunak be-
rari erosiko zizkion, 1927 urte ortan-edo.

BERTSO BERRIAK («ZERUKO AITA, MARKA ITZAZU...»)

Jarri-aldi onek Gernika'ko arbola goraltzen du; eta, arekin batera, gure fuero zaarrak ere bai.

Txirritarenak dirala ez da bertso-papertan esaten. Makazaga'k esan zuan ori leenengo aldiz, bere *Bertsolariya* aldizkarian eta *Euskal-Erriko kanta zarrak* liburuxoan.

Baña berak kopiatuak ez badira ere, bere osabarenak dirala esan zigun Txirritaren illobak; ori bera diote ao batez Gipuzkoa'ko berso-zale guziak; eta bertsoetan ere Txirritaren joskera ikusten da bete-betean. Ez degu, beraz, zer dudarik egin.

Argitaraldi batzuetan ez dator 10'garraren bertsoa. Nork dakarren eta nork ez, oarretan esango degu, argitaraldiak bi sailletan banatuz.

* * *

Txirritaren illobak argibide auek eman zizkigun, bertso auek nun eta nola jarriak diran:

Arranbide'ko presa egiten ari ziran. Arranbide Napparoa'n dago, Urumea ibaiaren ertzean, Arano'ko partean eta Goizueta'ko kamioan.

Txirrita ere an zan lanean. Eta an jarri

zitian bertso auek. Agian berari gogortuko zitzaion jartzea; bearbada besteren batek eskatuko zion.

Berarekin lanean ari zan mutil gazte batek kopiatu zizkion. Oso pozik artu omen zuan, Txirritak bertsoak kopiatzeagatik eman zion profiña.

Egun batez, galtzak urratu zitzaizkion mutil orri, eta sasira joan eta konpontzen aritu zan. Eta lan orretan ari zala, bere errabiyen madarikazio au esaten zuan:

–Jaungoikoa zerutik eroriko al dek zatika-zatika!





Urteen buruan, gazte ori diputazioko enpleatu eta *sobrestante* egin zuten, eta arrezkeroztik etzion Txirritari kasorik ere egiten.

Bertso auek diputazioko eskaill-buru batean egon omen ziran, kuadro batean jarrita. Txirritak ala esaten zuan.

* * *

Leenengo doiñua, Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin'ek kantatua, eta Manuel Yaben eta Anbrosio Zatarain'ek paperean ezarria.

Bigarrena, Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuadernotik artua.



- 1/ Zeruko Aita, marka itzatzu¹
pekatarien pausuak,
Kantabria'ko deskalbroak
dirade lastimosuak;
arbola eder bat dala mediyo
jartzera nua bertsuak,
milla urtean mantendu gaitu
lau probintzia osuak.
- 2/ Gutxienaz izan bear du
milla urte pasatua,
arbola aundi bat bada Gernika'n
aitona batek sartua;
aren azpian egin omen zan
fueroen juramentua,
orain argati deitzen diogu
arbola bedeinkatua.
- 3/ Biba arbola maitagarria!
Biba kantabriatarrak!
Biba Bizkaia, Gipuzkoa'kin,
Alaba eta Naparrak!
Biba kortean gure fabore
dauden ministro bakarrak!
Beste gauzarik ez degu eskatzen:
biba lengo fuero zarrak!
- 4/ Arbola maite zoragarriya,
etzaude gutxi kostia,
igartu arren ateratzera
atrebitutzen eztia;
zarra oraindik zutik daguala
aldatu dute bestia,
izugarrizko furiya dakar
izanagatik gaztia².
- 5/ Arbola dago igartua ta
euskaldunak gaude triste,
ez det pentsatzen pasatu danik
munduan beste onenbeste;
orain gertatu zitekeanik
ere ez nuen nik uste,
milla urtean segitu duten
fueroak kendu dituzte.
- 6/ Konbenioa egin zanean
arbola aldatu zuana,
motiborikan asko badu ta
aserre dago gugana;
ez da enkargu gutxi emanda
mundu ontatik juana,
defenditzera saia liteke
sentimenturik duana.
- 7/ Arbola orren zain prinzipala³
zan Bergara'ko partean,
arri sillarez inguratua
burnizko kaja batean;
milla zortzireun irurogei ta
amalaugarren urtean
satorrak fuerte ibilli ziran
ura ebaki artean.
- 8/ Milla zortzireun irurogei ta
zortzigarrego urtean
izar eder bat estali zuten
oroï askoren tartean;⁴
lañoak fuerte korritu zuten
ura tapatu artean,
geroztik ez da egualdi onik
Kantabria'ko partean.
- 9/ Ara izar au tapatu eta
zer egin zuten lenbizi:
fraileak eta monjak bidaltzen
konbentuetatik asi;
jesuitak eta misionistak
saltatu ziran igesi⁵,
esaten zuten: «Gu gaituk orain
España'ko nagusi!»⁶
- 10/ Memorial bat eskribitu du
tunante batek Paris'a,
ango puerkoak firmatu eta
atzera bueltan Cádiz'a;
masoiak eta protestanteak
alkar arturik dabiltza,
erregerentzat egin nai dute⁷
lege gaiztoko eliza.

11/ Lendabiziko fueroen kontra firmatu zuen gizona, eskeleto bat bezela eginda ez dago oso gizona; dudarik gabe gogoratzen zaio etzuela egin gauza ona, kastigatzera bildur ezpanitz esango nuke izena.

12/ Fueroak kendu zituen ori izenez ez det esango, iltzen danean ez da orrentzat salbaziorik izango; gusto guztiyak kunplitu eta ezta mundutik juango, deseo diyot bizi dedilla urte askoan ta ondo⁸.

1. Berto-paperak *marka* diote; ez *barka*.

2. Paperik geienak onela dakarzkite bertso ontako puntuak: *kostea*, ez *dira*, *bestea* ta *gaztea*. Edozein bertsozalek badaki ola ez, jarri degun bezela baizik, bear dutela.

3. Berto onetan lau oker zuzendu ditugu: Leningoa: bertso-paperak *in prinzipala* diote; nabarmen dago *zain* bear duala. Bigarren lerroan *Bergara*'ko artean diote; dudarik ez da *partean* bear duala. Eta irugarren lerroan *arri sillarrez ingrataua*; *arri sillarez inguratu*a jarri degu noski.

4. 1868'garren urtean Isabel II kendu zuten. Ori izango da, beraz, odeiak estali zuten izar ederra...

5. Isabel II 1868/IX/30'ean kendu zuten. Gobernua berria andik zortzi egunera osatu zan, urriaren 8'an, eta andik lau egunera, 12'an, jesuitak erbestera bialdu zituan.

6. Berto-paper guziak «*Gugatik orain Española'ko nagusi*!» diote. Baiña Txirritaren illobak esan zigun, gaizki dagoala orrela, eta «*Gu gaituk orain...*» bear duala. Askoz ere itxura geiago du era ontan. Ain zuzen, «Bertsolariya» aldizkarian eta «Euskal-Erriko kanta zarrak» liburuxoan orrela dago. Guk ere orrela jarri degu.

7. Bearbada, emen *erejientzat* bearko luke.

8. Amaika bertso dakarzkitenak, 10'garrena alegia falta dutenak:

Berto-papera, «Imprenta y Librería de F. Elosu. - Durango», Bodleyan Librería, Oxford.

Berto-papera, «Imp. de B. Valverde. - Irún», Jertudis Arrieta zana, Errenteria: aldaketa bakarra: 5/7: milla urtean mantendu gaitu.

Berto-papera, «Imp. de Vda. de B. Valverde. - Irún», Antonio Arrillaga mediku zana, Elgoibar. 5/7: milla urtean mantendu gaitu.

Berto-papera, «Imp. Valverde. - Rentería», X. Etxeberria, Larraburu baserria, Oiartzun. 5/7: milla urtean mantendu gaitu.

Berto-papera, «Guernica. - Imp. de Angel de Goitia», Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bertso-bilduman.

Berto-papera, «Guernica - Imp. de Angel Goitia», Eujenio Bidea Agirre, Zabale baserria, Leioa, Bizkaia. 2/5: egon emen zan; 3: *biba* guziak kendu ta beste ainbeste *gora*; 5/7: milla urtean mantendu gaitu; 9/5: jesuitak ta misionerak.

Berto-papera, «Imp. Lib. y Enc. de Antonio Egurrola. - Guernica», Juan Garaialde, Orendain.

* * *

Amabi bertso dakarzkitenak:

Berto-papera, «Imp. de S. de Diego. - Eibar», Antonino Lakunza zana, Tolosa, 2/5: egon emen zan; 3: *biba* esan bearrean, *gora*; 5/7: milla urtean mantendu gaitu; 9/4: konbentutik asi; 9/5: jesuitak ta misionerak.

Berto-papera, «Imp. de S. de Diego. - Eibar», Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduma. 2/5: egon emen zan; 3: *biba* esan bearrean, *gora*; 5/7: milla urtean mantendu gaitu; 9/4: konbentutik asi; 9/5: jesuita ta misionerak.

Berto-papera, «Guernica. - Imp. Artística Goitia y Hormaechea», Alzalegi Baserria, Berriatua. 2/5: egon emen zan; 3: *biba* esan bearrean, *gora*; 5/7: mantendu gaitu; 9/4: konbentutik asi; 9/5: jesuitak ta misionerak.

«Bertsolariya» aldizkaria, 9'gn. zenb., 1931/XI/15: 1/1: Zeruko Aita barka ditzazu; 5/5: orain gertatu zitekiala; 5/7: milla urtean izan ditugun; 10/7: erejientzat egin nai dute.

Txirrita'ren Testamentua, 2.^o idaztia, *Makazaga'ren irarkolan*, *Biteri*, 32. *Errenderi*. Aurrekoa bezelaxe.

«Euskal-Erriko kanta zarrak», *Tomo II*, *Imp. Macazaga*, *Rentería*: Aurrekoa bezelaxe.

(Ez luzatzearren, ez degu aldaketa bezela jarri; baiña, leen esan deguez, badaki irakurleak «Bertsolariya» aldizkariak eta «Euskal-Erriko kanta zarrak» liburuxoak izan ezik, beste argitaraldi guziak «*Gugatik orain...*» diotela 9/7'an).

* * *

Beste bi argitaraldiren berri aparte emango degu: «Argia» aldizkaria, ez dakigu zein egunetakoa: Onek bederatzita bertso ditu, orden ontan: 1, 2, 3, 5, 4, 7, 8, 9 ta 6. Aldaketak: 2/1: Gutxienaz esan bear da; 2/4: aitona batek sortuba; 4/4: atrebitutuz etzera; 4/5: zarra oraindik zutik dago-ta; 5/4: munduan beste ainbeste: 5/6: aren ez nuben nik uste; 5/7: milla urtean segitu degu; 6/2: arbola aldatutasuna; 6/3: notizirikin asko badute; 6/5: ez du enkargu gutxi eman da; 6/8: sentimenturik daukana; 7/1: Arbola

orren prinzipala; 8/6: ura pasatu artian; 9/1: Ara izarrak tapatu eta; 9/4: komentutik ziran asi; 9/7: esaten zuten gu gera orain.

«Euzkadi» egunerokoa, 1932/XI/2: Onek amaika bertso ditu; amargarrena falta du. Aldaketak: 2/2: milla urte pasatuak; 2/5: aren azpian egiten ziran; 2/6: fueruen juramentuak; 2/7: orain agaitik deitzen deitsagu; 3: *biba* esan bearrean, *gora*; 4/2: ezagoz

gitxi kostaua; 4/7: izugarrizko indarra dakar; 5/2: euskaldunak gagoz triste; 5/3: ez dot pentsatzen; 5/5: orain gertatuko zanikan; 5/7: milla urtian mantenidu gaitzuz; 5/8: fueruak kendu gaituzte; 7/1: Arbola orren prinzipala; 7/2: zan Bergara'ko errian; 7/4: kaxa; 7/8: ebagi; 8/4: odei; 8/5: lañuak gogor korridu eben; 9/1: Arbaixarra tapatu eta; 9/7: esaten eben gu gaituk orain; 12/7: deseo deitsat.

BERTSO BERRIYAK

Neska-mutil bi erromeri batera joan omen ziran, eta erretira garai onean egin zuten. Baiña neskazar bat aien kontra gaizki esaka asi zan. Orduan mutillak bertso auek jarri arazi zizkion Txirritari.

Ala esan zigun Ernani'ko Antonino Pagola zanak. Berak bertso-saltzaille bati erosi zion papera, eta onek Txirritak jarriak zirala esan zion.

Agian beste batenak izango ziran, baiña garai artan bertsolaririk onena edo onentxoena Txirrita zan ezker, errezero saltzeagatik arenak zirala esatea ere izan ditekena da.

Txirritaren illobari ere galdetu genion, baita bertsoak irakurri ere. Eta berak osabari kopiatuak ez dirala, baiña bete-betean bere osabaren itxura artzen ziela erantzun zigun.

Orregatik, duda pixka batekin bada ere, bertso auek Txirritaren bertso liburu ontan sartzen ditugu.

Azkeneko bertsoan onela esaten da:

beragatikan amabi bertso
ara Manuelek jarri.

Txirrita Jose Manuel zeritzan. Ontatik ere gauzak ez dira osoro argitzen; duda antzean gelditzen dira.

1/ Bertso berriak jartzera nua oraiñ neska zar batentzat, nigandik ondo irabaziak dauzkala iruritzen zat, zergatik ori ibillia da kastigu billa guretzat, gau eta egun isildu gabe gaizki esaka neretzat; asko pentsatzen etzuben baiña orra ordañak beretzat.

2/ Gezurrarekiñ engañatuta jarri zituben auzuak, eta gañera esaten ditu testimonio falsuak; oraiñ jendiak jakindu dezan jartzera nua bertsoak; tragatu nairik ibilli naute lau neskazar da atsuak, kopeta zimur iduki arren ez daude oso mantsuak.

3/ Neskazar orri esan biayot belarriaren ertzera nai dubenian azaldutzeko arrazoi oni eltzera: guri konduta galtziagatik apropos ari al zera? Zedorri ere azitarako prenda eder bat etzera, lotsik ez dezun gezurtia ta mingaiñ gaiztoko saltsera.

- 4/ Bi illabete kunplitu dira
broma bat pasatu zala,
eta geroztik aditzen nuan
kontrario bat bazala,
non jakiñ detan neska zar ori
besterik iñor etzala;
mendian dagon otsuak baño
beltzago daka azala;
ori andretzat suertatzia
Jainkoak gorde nazala¹.
- 5/ Batetik beltza ta itsusia,
gustagarria da ori,
buruko zimak falta ditu ta
bizarra dauka ugari;
begiak triste, sudurra luze,
ortzak erdiak erori;
bati ta biri bezela igual
aditzen diyot iruri:
anima salbo, ikatz-kajatik
sourtutakua diruri.
- 6/ Askok bezela berrogei urte
mundu onetan korritu,
aspaldi onetan larru-azalik
etzaio asko guritu;
azkenerako lizundurikan
zimurtu eta oritu,
ortzak galantak, buruba berriz
ille guztiya zuritu...
Mundu ontako desgrazi danak
neskazar orrek baditu!
- 7/ Aspaldi ontan arkitzen zera
nitzaz gaizki itzegiña,
konderatu ondo oraiñ zuk
nola zauden utsegiña;
neregatikan dantzatu dezu
gaizki esaka mingaña,
eta pena det kulparik gabe
desprezio au egiña,
bazar guztiak desonratutzen
zabiltzan buru-ariña.
- 8/ Andik bostetan atera giñan,
etzan berandu artian,
seietarako gure etxetik
ez giñan txit apartian;
gero denbora pasatu gendun
kontu kontari atian,
gauza batzuek esplikatubaz
umorez eta pakian,
ez zuk esaten dezun bezela
itxura gaizto batian.
- 9/ Beste gauza bat kontatutzen du
ero-aldiyak jotzian:
«Nai bezelako mutil gaztiak
aukeran dauzkat atzian;
gañera berriz bazter ederra
sagastiakin ertzian,
denda polita, ardo ta guzti,
ezer falta ez etxian;
nere senarrak zer suertia
ni emaztetzat artzian!»
- 10/ Berak dituben gauza guztiak
orgulloz kontatzen daki,
ta ori bera nolakua dan²
mundu guztiak badaki;
etxian berriz bei zar batekin
ollo batzuek eduki,
asto koskor bat eta zakurra,
taberna berriz edoki,
oiek guztiak izanagatik
iñork etzaitu erruki.
- 11/ Baldin suertez ikusten bada
prenda ori ezkondata,
lastima baña artu biar du
andre gaztien konduta;
artzen dubenak esan lezake
trapu zar bat konpondata,
lengo jenio txarrak utzita
ezpada jartzen onduta,
gizona laster bigalduko du
soñeko galtzak kenduta.

12/ Nork esplikatu kantetan ondo
zer saltsa duben ekarri?
Eta sekula gauza txarrikan
ez diot egiñ nik orri;
bere kaltian berotu ditu
alperrik zenbait belarri,
arrazoi gabe jarri ninduen
trantze estuban txit larri,
beragatikan amabi bertso
ara Manuelek jarri³.

1. Bertso-paperetan: *Jaungoikoak gorde nazala* eta *Jaunak gorde nazala*.

2. Bertso-paperak: *eta balera*. Orrela ez du zer esan-nairik. Orregatik *ta ori bera* jarri degu, olako zerbait bear dualakoan.

3. Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. - Irún», Juan Iturralde, «Juanito Kojua», Donostia.

Bertso-papera, «Imp. de S. De Diego. - Eibar», Josefa Aizarna, Aizarna.

Bertso-papera, «Guernica - Imp. Angel de Goitia», Ormaiztegi'ko baserri batetik.

Bertso-papera, Isaak Lopez-Mendizabal, Buenos Aires; papera puskatuta dago ta ez dakigu moldiz-tegi-izenik zuan ala ez.

Bertso-papera, «Imp. de Fernández y Diego. - Eibar», Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso-bilduman.

Bost bertso-paper auek ez daukate beren artean, emen jartzeko diña dan aldaketarik.

Argia, 697^{gn}. zenb., 1934/VIII/12: 1/10: ara ordañak beretzat; 2/3: eta gañera egiten ditu; 2/4: testimonio gaiztuak; 2/7: trabatu nayik ibili naute; 4/1: bi illabete kunplitu ziran; 4/3: ta geroztik nun jakin detan; 4/7: mendiyau dauden otsuak baño; 4/10: Jau-nak guarda nazala; 5/3: buruan tximak palta ditu-ta; 5/6: ortzen erdiyak erori; 5/8: aditzen zaic iruri; 5/9: anima salbo igeltz sakutik; 6/1: askoi bezela berrogei urte; 6/7: buruban; 6/8: guziak; 7/3: konsideratu zu orain ondo; 7/5: neregatikan gaizki esaka; 7/6: dantzatu dezu mingaña; 8/5: eta denbora pasa genduan; 8/8: amarez; 9/2: ero-aldiyak eltzian; 9/4: dauzka; 9/5: eta gañera baztat atzian; 9/6: sagastiyaren ertzian; 9/8: ezen paltik ez etxian; 10/3: eta bera nolakua dan; 10/6: ollo batzuek arruki; 11/4: guztien; 11/9: bialiko du; 12/3: sekulan beriz gauza txarrikan; 12/4: eztiyot nik egin orri; 12/5: aspaldi ontan berotu ditu; 12/7: sentimentuban jarri ninduen; 12/10: orra Manuelek jarri.

(1909)

BERTSO BERRIAK

Amasei bertso auk ere neskazar bati jarriak dira.

Bertso-paperean ez da egillearen ize-nik ageri. Baiña emengo 8 ta 15'garren bertsoak eta lengo saillaren 5 ta 9'garrena, berdiñak dira.

Bitatik bat beraz: edo bertsolari batek beste bati kopiatu dizkio, edo-ta bi jarri aldiak bertsolari batenak dira. Eta bate-nak badira, Txirritarena ote da au ere?

Ditekena da, eta orregatikan jarri de-gu liburu ontan. Baiña berriro ere zalan-tzan gera.

Bertso-papera, «Tolosan: E. Lopez-en echean» argitaratu zan.

Errenteri'ko Joakin Ganborena Zaba-la'ren eskutik jaso genduan.

1/ Bertso berriak jartzera nua
ejemplo eder batian
gazte jendia dibertitzeko,
ezta iñoren kaltian;
atentziyua jarri zazute
paper au letu artian,
milla gañera bederatzireun
beatzigarren urtian¹,
esan dezadan zer pasatu dan
Gipuzkoa'ko partian.

2/ *Doble vía* bat egiten ari
dira Legazpi aldian,
ala biarrez ni ere antxen
asi nintzaden lanian;
goi xamarrian jarri ninduten
lenbiziko egunian;
katapazaren kaseta aldera
inguratu nintzarian,
neskazar batek geldituzkeo
ots egin ziran parian.

3/ Arren esanak aditzen jarri
nintzan beraren onduan,
biyotza tranpan zebillelarik
mingañez maite ninduan.
«Zu baño gizongai oberikan
ezta neretzat munduan;
Baranbiyo'ra biyok jua biagu»
zerorrek esan zenduan;
askoz obe da nik ez nekien
zuk zer egingo zenduan.

4/ Neskazar ori nola deitzen dan
publikatzeko izenez
libertaderik ez omen dago
orain, esaten dutenez;
diru-piska bat bazubela ta
zentimorikan izan ez,
ni ere berriz aspertuba naiz
neskazar-musu lizunez,
edertasunak engañatuta
ez da aseko gizeoz.

- 5/ Trozorik-trozo ibiltzen ere
asperturikan nenguan,
ezkondutzeko pensamentuak
artu nituen buruan;
diru-piska bat bazedukala
juntu alkarren onduan,
orren partez bai beste batzuek
Donostiya'ko Bankuan,
inozentia izan banitza
engañatuko ninduan.
- 6/ Lendabiziko bitartekua
gizon txiki bat genduan,
neskazar arren kontu guziak
orrek ekartzen zituan;
ni ere ori zetorrenian
egoten nintzan kontuan,
bere kartetan esaten ziran
nai ninduela onduan,
fiyatu banitz zeñen ederki
farra egingo zenduan!
- 7/ Asi ezkerona dana guzia
publikatutzera nua:
kutxillotxo bat neskazar orren
lenengo erregalua;
noizik beñean arrautzatxo bi,
oiekin urdai-trontxua,
gauza oiekin engañatzeko
atera zuen planua
Jaun Zerukuak eman deidala
entendimendu sanua!
- 8/ Besteri prenda artzeko bera
gustagarriya da ori:
buruko zimak falta ditu ta
bizarra dauka ugari,
begiyak triste, sudurra luze,
ortzen erdiak erori;
bati ta biri bezela igual
aditzen zaio iruri:
ijituari bizkarretikan
galdutakua diruri.
- 9/ Neskazar ori dala diyote
bi aldiz moja izana,
komentutikan atera eta
artu nai zuen gizona;
Baranbiyo'tik etorriya da,
ezta alaja zuzena;
bere buruben etsaia ezta,
gorputzetikan gizona;
kastigatzera bildur ezpanitz
esango nuke izena.
- 10/ Arren da nere kontu guziak
tratatzeko asmuhan,
jai-egun batez biajetxo bat
disponitua genduan;
Deskarga'tikan laister dagoen
pagotxo baten onduan,
«Neretzat galai ederra zera!»
esan zenidan orduan,
oraingo partez zeñen ederki
begiratutzen zenduan!
- 11/ Andikan zortzi egun baño len
asi zan kartak biraltzen:
bera etxean bisitatzer
enitzadela azaltzen;
beste batzuek esan ziyoten
ote nebillen tentatzen,
berialatik asi zitzaidan
inbusteroka tratatzen,
aliak oso dituenari
ori etzaio tokatzen.
- 12/ Erlojutxo bat aspalditxuan
banebilkien nerekin,
egun batian gelditurikan
zeguen matxurarekin;
neskazar orrek au esan ziran:
«Ekarri zazu zerekin,
konpondutzer biralduko det
etzeko mutillarekin».
Erlojuba ta katia biyak
eraman ditu berekin.

13/ Neskazar orren kontubak orra
gusto dubenak aditu,
pozik esango nitukeanak
geiago ere baditu;
konpondu gabe nere alajak
berekin eraman ditu,
oiegatikan ez du gajuak
poltsarik asko loditu,
deseo diyot izan dezala
lenago ainbat kreditu.

14/ Azkenekotzat biraldu ziran
guzizko karta ederra,
askoren gisa mingañetikan
dezente dauka indarra:
«lotsik gabia eta granuja»
ez da arrazoi ederra,
bañan geiago sentitu nuen
paltsua esan biarra;
beste bi orla bai omen ditu,
enitzaden ni bakarra.

15/ Beste gauza bat kontatuzten du
ero-aldiak jotzian:
«Bueltatuta mutil gaztiak
begira dauzkat atzian;
neroni berriz neskatz ederra
ta gauza pranko etxian,
obeto bizi danikan ez da
Araba'ko probintzian,
nere senarrak zer suertia
ni emaztetzat artzian!»

16/ Zure kontuak nola diraden
jendiak ditu jakiñak,
biar dan baño gauza geiago
esan du zure mingañak;
formalarentzat ez dira oiek
oso arrazoi bikañak,
neregatikan gaizki esanka
gutxi nekatu ezpañak,
ez dan gauzarik baldin badago
atera oien ordañak.

1. Bertso-paperak: *bederatzigarren*.

(1910)

BERTSO BERRIYAK

.....'K¹

BERE ANDREGAIARI JARRIAK

Bertso auek ez dute inon egillearen izenik esaten. Mutillaren izen-deiturak bai, ageri dira; bañan badakigu bertso jarzaillea beste bat izaten zala.

Txirritarenak dirala bere illobak esanda jakin degu. Obeto esateko, ez daki seguru bere osabarenak diran, bañan errezeloa ala du.

Orregatik, duda antzean bada ere, liburu ontan ezartzea erabaki degu.

Oi degun bezela, mutillaren izen-deiturak kendu egin ditugu; baita erri ta baillara izenak ere. Ez gabilta inoren leengo lotsak berritzeko asmotan.

Bertso-papera, «Guernica: A. de Goitia y Compañía»-n argitaratu zan. Atzeko aldean Bilintxen *Izazu nitzaz kupira* bertso sailla dator; baita ere «Eperrak kantatzen du» asten dan kanta zaarra ere. Paper ori Tolosa'n Amaro'ko Jose Goikoe'txea'ren eskutik, jaso nuan.

1/ Geuden milla ta bederatzi eun amargarrengo urtian, tratamentu bat asi genduen or'ko partian²;'ko ermitatikan³ ez da oso apartian, neskatxa bati itz egiñ niyon baña neretzat kaltian.

2/det⁴ nik dadukadan graziya,'arra eziñ ukatu⁵ bertan jαιο ta aziya;'ko neskatxa orrekiñ⁶ nitzan tratatzen asiya, ez da posible esplikatzia merezi duen guziya⁷.

3/ Agoztubaren amazapiyan zortzi ta erdiyak aldian neskatxa ori topo egin det Donostiya'ko kalian; iya nerekin konforme zegon asi nazaion galdian, baietz ta baietz erantzun ziran izketa eder batian.

4/ Itzak elkarri orla emanda andikan illabetera esan dit: «Biyak pasiatzera biar genduke atera; zuen etxera juan nai nuke urruti samar ote da». Erantzun niyon: «Aldian dago⁸, laister iritxiko gera».

- 5/ 'n bizi gera gu⁹,
ez oso eskas ta urri,
iru akuri Guarda-Plata'tik
aitak zituen ekarri;
ill da larrua kendu ziyoten,
amak kazuelan jarri,
merendatuaz kontu politak
esan genizkan elkarri.
- 6/ Merendatuta au esan ziran:
«Ai,neria!¹⁰
Geren sallari segitutzeko
libre daukagu biria:
biyotz oneko emakumia
nola dan ama guria,
nai degunian esposatzeko
eman du libertadia».
- 7/ Merenda ori egin genduen
elkartasun ederrian,
errespotoko itzak esanaz
guraso zarren aurrian;
sentimentubak deklaratzeko
ez gaunden gaita txarrian;
etxera zintzo lagundu niyon
gero illunabarrian.
- 8/ Iñoiz bisitak egiten nizkan
guztizko borondatian,
persona fiñak fiyatzen gera
anbat geretzat kaltian;
neskatxa orrek serbitutzen du
juandaneko bi urtian
Donostiya'ko Juzgado ondoko
ostatu eder batian.
- 9/ Donostiya'ra juntatu giñan
bere aizparen etxera,
len agindua nola baizegon,
amari itza kentzera;
esan dit: «Nere alabarekin
esosatutzen bazera,
mundu onetan egun ederrik
pasako dezu zartzera».
- 10/ Egun ori da bisita egin
gendiyona Santa Kruz'i,
al zan guztiya erreztatuaz
ez genduen arras utzi¹¹;
zer desiotan etorri ziran
orduan nuen ikasi:
amak eta aizpak gure etxia
biar zutela ikusi.
- 11/ Esan bezela pentsatu degu
Lezo aldera juatia,
elizan pozik sartu giñaden,
zabalik zegon atia;
Santa Kruz'eri eskatu dizka
osasuna ta pakia;
fiñ zebillela uste nuen da
guztiya tranpez betia.
- 12/ Gure etxera etorri eta
beidaka ziraden asi,
zelai, okullo, zerri ta beiak,
denak zituzten ikusi;
zezen-tokiya non egiñ ere
dama orrek zuen berezi;
guk ez genduen despreziyu au¹²
zuregandikan merezi.
- 13/ Ama Birjiña egun batian,
mezetara guazela,
izketa ori berritu degu
lenago iñoiz bezela;
beira jarri zat, au esan ziran
mudatu gabe azala:
«Gure amak diyo esposatzeko
gaztiegiya naizela».
- 14/ Despatxu ori artu ta laister
atso batek esan ziran:
«Zuk biar dezun aingeru ori
dabil aldrebek antzian;
itzak ederrak ditu mingañez,
kariño fiña atzian,
disgustoren bat emango dizu
sartzen badezu etxian».

15/ Motibo gabe ez naiz asiya
dama orrentzat kantari,
mundu guztiyak autan artuta
begira gure plantari;
ezkontzen dala ibilliya da
auzo denetan kontari,
kuidado ez dan abisatua
Amerika'ko aitari.

16/ Mundu ontara jaio giñaden
gauza asko ikusteko,
maestra ederra billatu zaitut
eskola erakusteko;
ogei urteko neskatxa batek
orla bazterrak nasteko,
uste deanez obia zaude
artzeko baño uzteko.

1. Mutillaren izena ta deitura.
2. Erriaren izena.
3. Baillararen izena.
4. Mutillaren izen-deiturak.
5. Mutilla nundarra dan esaten da emen.
6. Baillararen izena.
7. Bertso-paperak: *guztiya*.
8. Bertso-paperak: *niyen*.
9. Mutilla bizi zan erria ta etxea.
10. Mutillaren izena.
11. Bertso-paperak: *ez guenden arras uzti*.
12. Bertso-paperak: *despreziyua an*.

(1912)

KANTABRIA'KO ITXAS-GIZONAI

OROIPEN BAT

- 1/ Nere biyotz gaixua
eskaka ari zat
bertso bi ipintzeko,
baldin baderitzat.
Abuztuben amabian
sortu zan ekaitzak,
egiñ dizkigu oso
deskalabru gaitzak,
makiña bat persona
ondatu du beintzat.
- 2/ Penak esplikatzer
orain naiz abian,
motibua dan gisan
mintzatu nadiyan.
Milla bedetzireun
eta amabian,
gañera Abuztuko
illaren erdiyan,
desgrazi (y) au pasa da
Kosta Kantabriyan.
- 3/ Kulpa gabeko franko
badu eramana,
bakoitzai erreztatu
aita gure bana.
Ain da negargarriya
egin digun lana,
anparo gabe utzi
ainbeste aur ta ama,
sinisten ere gaitz da
aurten pasa dana.
- 4/ Abuztuko illaren
amairugarrena,
guretzat argitu dan
egunik txarrena.
Izan zagon kupira
denak alkarrena,
gogoratu utsarekin
lertzen zait barrena,
au da paraderua
kantabritarrena.
- 5/ Eun da amaseikua
Bermeo bakarra,
aurten ez dute izan
suerte ederra.
Erri txiki batentzat
ai ori negarra!
Aurrak aita falta du
ta amak senarra,
badaukate anparo
on baten bearra.
- 6/ Itxasua zitzaigun
asarretzen asi,
bendabal aldetik zan
aizia nagusi.
Nork bere puestuari¹
ezin ziyon eutsi,
danak zatitu ditu,
iñor ez du utzi,
Gipuzkua'n bertatik
ez da falta gutxi.

- 7/ Eun da berrogei ta iru
omen dira danak,
arrantzalietatik
ondata diranak,
gure Jangoikuari
kontuba emanak.
Guk egin biar degu,
bizirik geranak,
aietzaz erregutu
biyotza dubenak.
- 8/ «Aita San Inaziyo»
belako barkuba
amairu gizonekin
urpian sartuba.
Beraren imajiña
an zuben santuba,
Habana'ko partian
dago kostatuba,
tenpestade gaixtuak
jo ta puskatuba.
- 9/ Egur biren gañian
gizon bat jarriya,
ai, zer ote zan aren
orduko larriya!
Lagunak bera jun ta
estadu urriya,
ez da Donostiya'ra
errez etorriya,
ikusi du birian
ixtillu gorriya.
- 10/ Señale ibilli dala
arraixku aundiyetan,
arraix txarra besterik
ez dan tokiyetan.
Illaren amabostan,
goizeko seietan,
baporiak artu zun
beraren deietan,
naikua sufritu du
paraje oietan.
- 11/ Izena Daniel du,
nombria Eskurtza,
jeniyo bizikua,
espiritu utsa,
ta baliatu zaio
Jaunaren laguntza.
Oso maltratatuba²
sartu zan ununtza,
berriz egon liteke
juan gabe aruntza.
- 12/ Iñork galdetzen badu:
«Gauz ori nola da?»,
nik erantzungo diyot:
«Egiyaz onla da».
Iñor dudan badago
betor eskolara,
anuntziyatu zuben
orduko bolara,
graziyak milla bider,
Aita Orkolaga.
- 13/ Ai, gure biyotzeko
Aita Orkolaga,
beraren eskutikan
ez gaitzala laga.
Orain bezela zaitu
eguna ta gaba,
berriz itxasu ortan
ez gaitezen traba,
bedorren talentuba
gauza biarra da.
- 14/ Jainkua portatzen da
danentzat ondradu,
gaiztuarentzat igual,
ain biyotz ona du,
emanaz irabazten
degun ainbat gradu.
Itxaso sagraduba
ur guziyen buru,
ark ere gurutzia
errespetatu du.

15/ Jesus maitiak eman
dezala argiya,
oraingo bolara ontan
badago premiya.
Euskaldunen artian³
au da pikardiya:
Bermeo'tik galdu da
jendien erdiya,
lutoz jantziya dago
Kosta Kantabriya.

16/ Ango itxas-kolpiak
ta urro borroyak
tragatu nai zituen
mendi ta erriyak.
Pasa dira desgrazi
ikaragarriyak.
Orra amasei bertso
oraingo berriyak,
Fermin Imaz'ek eta
Txirritak jarriyak.

* * *

Bertso auk, *Imp. Baroja - San Sebastian* moldiztegitik ateratako bertso-paper batetik ditugu. Paper ori, jaun-andre auen eskutik jaso genduen: Jertrudis Arrieta, Erreenteri; ta Inazio Zabala, Altzo-azpi.

Erreenteri'ko *Bertsolariya* asterokoan ere argitaratu ziran, 50^ogarren zenbakian, 1932-VIII-28^oan.

Aldaketak: 1/10: ondatu beintzat; 4/4: egun txarena; 7/9: aietzat erregutu; 8/6: an zuben sortuba; 10/8: borondate onetan; 11/5: ta baliatu zaion.

Eskuz idatzita, Ernani'ko Antonino Pagola'ren eskutik jaso nituan. Aldaketak: 1/7: egin zizkigun oso; 1/10: ondatu da beintzat; 7/9: aientzat erregutu; 12/7: anuntziatua zego; 13/7: itxaso ortan berriz.

Agur astekarian ere agertu ziran, 5^ogarren zenbakian, 1970-IX-30^oan. Berak nundik artu dituen adierazteko, onela esaten du:

«Orain dirala zazpi urte, Donibane-ko

arrantzaliენტzat egindako liburu batetik artu doguz: Jeiki Jeiki aldizkaritik».

Aldaketak: 1/2: eskaka ari yat; 2/10: Kantabriku Kostan; 3/1: Kulpa gabeko asko; 3/3: bakoitzari erreza; 3/6: egin deuskun lana; 3/9: sinisten be gaitz da; 4/5: izan daigun kupira; 4/8: lertzen yat barrena; 5/7: aurrak aita falta dau; 5/9: badauke bai, anparo; 6/1: Itxaso ein yakun; 6/6: ezin eutson eutsi; 6/8: iñor ez dau utzi; 7/2: urren dira danak; 7/7: guk egin bear dogu; 7/8: bizirik garanak; 7/10: biotza dauanak; 8/6: an eban santua; 9/3: ai zer ete zan aren; 9/9: ikusi dau bidean; 10/9: naikoa supritu dau; 11/5: ta baliatu yak; 11/7: oso txarto tratatua; 11/8: sartu zan onantza; 11/9: barriz itxaso ortan; 11/10: joan gaba arantza; 12/1: iñork galdetzen badau; 12/2: gauz ori zelan da; 12/3: nik erantzungo dautsot; 12/4: egia olan da; 12/7: anuntziatu eban; 13/5: orain bezela jagon; 13/7: barriz itxaso ortan; 13/8: ez gaitzean traba; 14/6: dogun ainbat gradu; 14/7: itxaso sagratua; 14/9: arek be gurutzia; 15/1: Jesus maitiak emon; 15/2: daijala argia; 15/3: oraingo aldi onetan; 15/4: badago premiña; 16/3: iruntzi nai ebazan; 16/8: oraingo barriak.

Aldaketa geien-geienak euskera bizkaieratzearren egin dira, beraz. Bertsoen azpian onela esaten da: «Oar: Itz eta aditz banaka bat, aldatu egin doguz, argitasun eta batasunerako». Ta firma bezela: «Erreenteri'tar Joseba Andonik».

* * *

Bertso auk obeto ulertu ditezen, on izango da argibide batzuk ematea.

Aldi ontan ere, 1909^oko galernarekin bezela, garaiz abixatu zuan Orkolaga jaunak ekaitza zetorrela.

Juan Migel Orkolaga apaiz jauna, ernaniarra zan jaiotzez. Eguraldien gorabeherak aurretik igertzeko doai berezi bat izanik, arrantzale askoren bizitza salbatu zuan. Orregatik, Bizkaiko ta Gipuzkoako diputazioak Igeldo'ko *observatorioa* jarri zioten, bere lan eder ori obeto egin zezan.

Gipuzkoa'ko mariñelak fede aundia zioten eta, geienak beintzat, itxasora gabe gelditu ziran. Orregatik, gizon gutxi galdu ziran Gipuzkoa'tik.

Bizkaia'n, ordea, beste konturik gerta-



Txirrita bertsolaria. Donostiko txapelketan, 1936-I-19.

tu zan. Egun artan bertan, goizean, Bermeo'ko txalupa guztiak itxasora irten ziran, iru egun barru San Roke zala eta festetara etorriko zirala esanez. Orkolaga'ren telegrama iritxi zanerako, itxasoan ziran.

Ondarroa'n, Santa Klara eguna zalako, arrantzale asko gelditu ziran errian. Bestela, izugarritzko gizon galera gertatu-ko zan emen ere. Gaiñontzeko kosta errietatik ere, txalupa asko itxasoratu ziran.

Abuztuaren 12'garren egun ori ere, oso eguraldi ozkarbi ederra egin zuan. Astelena zan. Ilunabarrean, bat-batean, iñoiz ikusi dan galernarik amorratuena sortu zan. Donosti'ko Zurriola'ko arkaitzetan, olatuak jo, lertu eta ogei bat metroraiño saltatzen ziran.

Mariñelak, legorretik berrogei eta amar edo irurogei bat milla urrutiratuta zeuden, galernak arrapatu zituanean. Jo zuten kosta aldera, baiña bidean asko ta asko galdu ziran.

Bertso auek mariñel bat aitatzen dute, eta orregatik aren pasadizoaren berri emango degu.

Ostegun-goizean, *Mamelena-12* zeri-tzaion baporea, Donostia'n sartu zan, atzetik egurrezko gurutze bat eta barruan gurutze orri elduta arkitutako arrantzale bat zekarzkiela.

Mariñel ori, Juan Daniel Eskurza zeri-tzan, eta *San Nicolas* txaluparen patroia zan, Lekeitio'koa, ogei ta emeretzti urte-koa ta iru seme eta bi alabaren aita.

Zortzi lagun ziran txalupan. Galerna sortu eta aizeak tantaia puskatu zien. Orduan, arekin eta beste egur batekin, gurutzea egin zuten, bi enborrak alkarri lotuta.

Gaberdian, itxasoak txalupa irauli ta ipurdiz gora jarri zuan. Baiña zortzi lagu-

nak azaldu ziran ur-gaiñera, eta gurutzeari eldu zioten.

Andik piska batera, aizeak eta olatuak txalupa ostera zutik jarri zuten. Ori ikusirik, zortzi lagun aietako lau txaluparuntz igeri asi ziran. Baiña ariñegi zeraman aizeak txalupa; eta, ura ezin arrapaturik, atzera jo zuten, gurutzeari berriz ere eldu naian. Berandu, ordea. Urrutitxo zeuden. Orrela galdu ziran lau gizon oiek.

Urrena, tantaiaren sokak beste lagun bat trabatu eta galdu zan au ere.

Zortzietatik iru bakarrik gelditu ziran, beraz: Juan Daniel ori, Felix Laka, emeretzti urtekoa, eta Fidel Bengoetxea, ogei urtekoa.

Denbora aurrera eta Felix eta Fidel argaltzen zijoazen. Juan Danielek onela esaten zien:

–Eutsi, motellak, eutsi!... Azalduko dek bapore bat!... Azalduko dek bapore bat!...

Amabi ordu pasa zituzten orrela. Astearte eguerdia zan. Errezatu zuten, alkarri barkazioa eskatu ere bai... Alkarri betiko agurra egin zioten, beren buruaz etsita. Ez, ordea, Juan Daniel. Onek esaten zien:

–Eutsi, motellak, eutsi!.. Azalduko dek bapore bat!...

Baiña Felix Laka'k ezin zion geiago eutsi. Utzi eta ondora joan zan.

Andik bi ordura, Fidel Bengoetxea'k ere egurrari utzi zion, indarraren faltaz.

An gelditu zan Juan Daniel, bakar-bakarrik, itxasoaren erdian, gurutzeari elduta. Indarra bazuan oraindik ere, baiña egarriak eta logaleak oso penatzen zuten.

Orduan, bere txamarrarekin aoa estali zuan, itxasoko ur gazia ez irinstearren.

Eta tantaiaren polea bat kokotzaren azpian jarri zuan. Logaleak menderatzen zuanean, polea ori jo eta miñak esnatzen zuan.

Asteartea illundu, gau beltz luzea igaro ere bai, eta noizbait bear eta zabaldu zuan urrengo eguna, asteazkena.

Egun ontan, bapore batzuk ikusi zituan Eskurza'k. Galdutako mariñelen bila atereak ziran. Oju eta deadar egin zien egiñalean, baiña beti alperrik. Baporeak alderatu eta iges egiten zioten gizarajoari, ikusi gabe.

Eldu zan berriz ere gau beltza. Igaro zan ura ere noizbait.

Ostegun goizean, bazebillen *Mamele-na* bapore ori, zeñi laguntza emango zion. Alako batean, mariñel bati nunbaitetik oju egiten zutela iruditu zitzaion. Arretaz jarri eta iruditu bezela izan ere.

An ikusi zuten gizon bat itxasoan, gurutze bati eldurik, eta eskuak eta burua mugitzen zituala. Txalupa bat uretara jexti eta jaso zuten.

Eriotzarekin berrogei eta amasei or-

duan burruka gogorrean ari izana zan, itxasoaren mendean.

Donostia'ko mariñel jende guzia oso arritu zan Juan Danielen sendotasunez eta gurutzea ain gogor eta ederki lotu izanaz.

Ori izan zan 1912'garrengo abuztuaren galerna, seguru asko euskal mariñelak iñoiz ezagutu duten egunik beltzenetako bat.

Azken bertsoak dionez, Fermin Imaz eta Txirrita dira bertso auen egilleak. Jarri ez-ezik, erriz-erri saltzen ere ibili ziran, Euskalerrri guziko negarra beren aoz kantatzen.

Errenteri'ko Jose Goñi jauna zanak esan zidanez, berak gogoan omen zeukan bi bertsolari auek Errenteri'ko eliz-atarian nola ikusi zituan, igande goiz batean, bertso auek kantatzen eta saltzen.

-
1. Bertso-paperak: nor bere puestuari.
 2. Bertso-paperak: oso maltratuba.
 3. Bertso-paperak: eskualdunen artian.

(1913)

BERTSO BERRIAK TXIRRITAK JARRIAK

1913'garren urtean izugarrizko ujoldea izan zan Baztan'en. Ango zenbait erri, Erratzu, Elizondo eta abar, porrokatuta utzi zituan. Ujolde ori da Txirritaren bertso auetako gaia.

Ujolde orretzaz *Euskal-Erria* aldizkaria ere mintzatzen da, iñork irakurri nai badu¹.

Txirritak onela esaten du zortzigarren bertsoan:

negoni bistan enitzen baño
ala jakindu nituan.

Berak bere begiz ezbear oiek ikusi ez bazituan, Baztan'dik bat edo bat etorriko zitzaion, ujoldearen berri eman ez eta bertso batzuk eskatuz.

Bertsoak, nappar usaia dariote izkeran, aditzak batez ere. Bertso eske etorri ziran oiek berak emango zioten usai ori, inprentara eraman baiño len, an eta emen ikutu batzuk egiñez.

Ain zuzen, Baztan'en bertan inprentatu ziran bertso auk: «Imp. G. Quintana. - Elizondo». Txetasun onek ere, enkar-guz jarritako bertsoak dirala pentsa arazten digu.

Bertso-paper au, Lekarotz'en, Aita

Donosti zanaren bertso-bilduman arkitu genduan. Beeko aldean, esku-letraz idatzita, itz auk irakurtzen dira: *La estrofa 14 era dedicada al Párroco: pero como no le dio propina, la cambió hablando de Opoka...*

1/ Deklaratzera nua kaso bat Valle Baztan'en pasia, egun arretan bistan giñenak akordatzeko klasia; elizan zauden santuak urak eraman ditu sasia,² mundu untako gaiztakeriaz Jainkua dago asia, azken juiziyo gañian degu, desafioka asi'a³.

2/ Au zan milla ta bederatzi egun amairugarren urtian, desgrazi ori gertatu zaiku Valle Baztan'go partian; mendi, elizak eta etxiak bota zituen golpian, len bistan zauden terreno asko tapatu ziran ur-pian, erakutsi du nai balin badu zer egingo ligokian.

- 3/ Tenpestadi au Auza'tikan⁴
olako modu torpian,
oraindik ere miñ artzen degu
ark eman zigun golpian;
elizari're erdia kendu,
bestia ia botian;
zubi zar asko, tente zaudenak
juan dan zenbait urtian,
egun orretan gelditu ziran
porrokatuta ur-pian.
- 4/ Au juzgatzeko eztire asko
gure abilidadiak,
zergatik geran estudiatzen
iñon ibili gabiak;
mendi, elizak eta basuak,
denak zituen berriak,
urka añeko arbolak presan
ipurdiz gora pariak;
azken juiziyo eguna zala
pensatu zuben jendiak.
- 5/ Biar bezala guztiak zuzen
ezin nitzake kontatu,
baño kasuak alde-aldea
nai nituke apuntatu;
Valle Baztan'go zubi geienak
jota zituen botatu,
Jesukristoren imagina're
etzuen errespetatu;
orrenbestian geradenian
izan gintezke kontentu.
- 6/ Ama Birjiña ur golpi arek
leio batian utziya,
Santa Barbara mine-zuluan,
ura ango desgraziya!
San Pedro berriz arkaitz gañian
zegovon beso bat autsiya⁵,
gañera ala trastornatua
zeru ta lurren artzaya;
erri ortako bikarioa
etzen egongo lasaya.
- 7/ Egun orretan gertatu giñan
franko estadu flakuan,
lenago elizan ziren santuak
gelditu ziren kanpuan;
jendia billa enpeñatu zan
urak bajatutakuan,
Jesukristori sube aundi bat
bildu zitzaion lepuan;
gauza guziak tristiak dira
desgrazia den lekuan.
- 8/ Mangera onek begira nola
amenazatu gaituan,
gauza guziak beretako nai,
etzan kontentu kituan;
egun orretan iru andre're
urak eraman zituan,
aur bat ere an atera zuten⁶
gaixua ia ituan;
negoni bistan enitzen baño
ala jakindu nituan.
- 9/ Besotik aurra urak eraman,
ikaragarritzko lanak,
zer naigabia artuko zuten
aren aitak eta amak!
Merezi duen persona bati
eman bear dizkat famak;
gurutzetxo bat merezi luke
ura salbatu zuanak;
itua zala uste genduen,
oso triste geunden danak.
- 10/ Urrutitikan beiratuta're
ematen zuben itsusi,
ganadu asko zeraman urak
bere ganbela ta guzi;
etxiak eta murallak berriz
porrokatu eta autsi,
jende guziak erreztuaz
mendiak gora iasi,
mundua galdu zidanezgero
ezta olakorik ikusi.

11/ Marin bera're gaizki ibilli da
goitikan bera jatxita,
nora abiatu etzakiala
bide guziak itxita;
semia urak kanpora bota,
aita barrenan etsita,
pikatxoien bat arrapatu du
zerbaiten billa asita,
bere biziya an salbatu du
zielo rasua autsita.

12/ Egun guzia uretan pasa,
allegatu zen arratsa,
Elizondo'ko jendientzako
tristia eta garratza;
almazenetan zauden barririkak
kalietan bera pasa,
gauza egiten ezta izaten
ondatzen bezein erreza,
garai onetan etzeuden lasai
Jabier eta Galarza.

13/ Ur golpi orrek zerra-fabrikan
egin duan pikardiya,
zenbatan ezin juzka litake⁷,
ain zan ikaragarriya;
amar minuto baño lenago
eraman zion erdiya,
beren biziya ezin salbatuz
jendiak ura larriya!
Felix Opoka'k ongi gostata
egiña dauka berriya.

14/ Ainbeste egur urak eraman,
fabrika geiena bota,
baporía ta majineriak
etzuten gutxi inporta;
diran bezala esango ditut
enteratua nago-ta,
ongi dakiyen gizon prestu bat
neri jardun zait ojuka:
geien-geiena kastigatua
dala Don Felix Opoka.

-
1. *Euskal-Erria*, 68, 1913, 525 ta 564 orri-aldeetan.
 2. Bertso-paperak: *sasira*.
 3. Bertso-paperak: *asi da*.
 4. Auza, Erratzu'ko mendi bat da.
 5. Bertso-paperak: *zegoan*.
 6. Bertso-paperak: *au*.
 7. zenbatan: zenbat dan.

(1914)

AITA ZAPIRAIN'I

Jose Zapirain, *Txapillo* izengoitiz eta donostiarra jaiotzez, 1914'garren urteko Abuztuaren 27'an il zan.

Garai artan, etzan Donostia'n bertso -saiorik izango, bera bertsolarien gidari ez bazan.

Il zanean, *Euskal-Erria* aldizkarian, bertso eta artikulu mordoxka bat eskeiñi zioten orduko euskaltzaleak. Baita Txirritak ere urrengo bertso pare au:

Gure aita Zapirain,
euskaldun abilla,
arrokeri gabeko
zintzo ta umilla;
zan ibiltzen etzana
erriyeta billa,
gañera gizon ona
prestu ta ixilla,
zeruaren erdiyan
gaur arki dedilla.

Beti idukiko det
biyotzez goguan,
ta bere iduriya
al banu kolkuan;
bazekiyen zer nola
ibili munduan,
argatik ipintzen det
aundiyan graduan,
noski Pello Mari'kin¹
gaur dago zeruan.

Jose Manuel Lujambio (Txirrita)

1. Pedro Mari Otaño alegia.

(1916)

BERTSO BERRIYAK
MISIOLARI PASIONISTAI
JOXE MANUEL TXIRRITAK JARRIAK

Onako bertso sail au, Goizueta'ko 1916 urteko mixioaren oroipengarri da.

Agian Goizueta aldean lanean arituko zan bolara artan Txirrita; agian, berriz, etxeraiño etorriko zitzaizkan goizueta-rrak, mixioaren berri eman ez eta bertso batzuk jartzeko eskatuz.

Zein inprentatan argitaratua dan, paperaren bukaeran esaten zaigu: *Imprenta «La Económica», Arroca, B, bajo (Amarra)*.

Paper ori, Manuel Lekuona apaiz jaunaren bertso bilduman arkitu genduan.

Inprentaren utsegitez-edo, toki batzuetan neurria zearo galduta dago. Baiña oker oiek zuzentzea lan erreza izan da; paperean nola zegoan, oarretan arkituko du irakurleak.

1/ Gaude milla ta bederatzieun amaseigarren urtian,
oso ez gera iristen baño ez gabiltza apartian;
misionistak izandu dira Goizueta'ko partian,
oien bisitaz oroituko naiz bizirik nagoen artian.

2/ Misio oiek bazetozela genduenean aditu,
eserzetako lanak utzita (*sic*) agudo giñan mugitu;
Madalena'ko zabaltokian iñor ezin zan kabitu,
ankarik jaso zezakeanik¹ etxean etzan gelditu.

3/ Alkatia ta bikarioak eman zizkaten eskuak,
oien barrindik irteten ziran asnase larri estuak;
alde batera uzteko diye mundu ontako gustuak,
garai arretan etzauden lasai emengo maiorezkuak.

4/ Apirillaren zortziyan ziran predikatutzen asiyak,
parrokiara sartu giñaden juntatu giñan guziyak²;
oiek dirade Jaungoikoaren bildur aundiyan aziyak,
argatik eman biar zaizkate³ eskerrak eta guziyak.

- 5/ Makario zan lendabiziko predikatutzen asiya, asko gustatu zitzaidan aren itzegiteko graziya; gu salbatzeko asman dabil sotana beltza jantziya, bildurrik gabe juateko diyo bada ba gomenentziya.
- 6/ Ura gizonen kuraji eta itzegiteko graziya! Arriturikan gelditu giñan bisteko jende guziya; Makario zan lendabiziko predikatutzen asiya, pekatariyak gonbertitzeko jarri zan gomenentziya⁴.
- 7/ Mutil gaztiangatikan ere⁵ zerbait esan du fraileak, uzteko diyo garai txarreko zurrutak eta baileak; nola dakarren ondoren txarra gazte farranda-zaleak, oiera juanda errezatzeko ezpagaude loaleak.
- 8/ Eju in zuten guraso zarrak atentziyoan jartzeko, bakoitzak bere familiari ondo erreparatzeko⁶; misio santu ontako itzak ondo goguan artzeko, munduan ongi portatu eta gero zeruan sartzeko.
- 9/ Beren bisita egiten dute bost urtetik bost urtera, esanaz: «Emen lenago lotsaz gelditurikan ote da?». Gonbertitzeko asmorik bada jarri digute aukera, gero okerrik izan ez dedin orain kontuak atera.
- 10/ Emakumiak ere gaixuak ez daude denak justuak, ez tul batzuak aditu ditut nearrarekiñ nastuak, malkuak bera deizkiotela gurutzeturik eskuak; ez ikaratu, barkatuko du gure Jaungoiko prestuak.
- 11/ Oinbesteraño nekatutzeko⁷ inork ez ditu biartu, esaten zuten: «Atozte lasai, etzaitzela bildurtu!». Olaxe ere jaun oietara inor ezin zan limurtu, lenago etsai bizi giñanak orañ aingeru biurtu.
- 12/ Ministro oiek izandu dira predikadore sotillak, lendabiziko gizonengatik izugarrizko batallak; gero aboan artu dituzte neskatak eta mutillak, azkenerako astindu ziran atsuen patar-botillak.
- 13/ Elizarako ate onduan dago gurutze santua, zeñengatikan ipiña dan ongi atera kontua; mundu triste au salbatzegatik ez da gutxi nekatua, gora Jaungoiko egiazkoa eta bera pekatua!
- 14/ Bertso oriek ez dira izan⁸ goizuetarran kaltian, len aña anima ez dago orain diabruaren katian; Aita San Pedrok sartu gaitzala zeruetako atian, denak jostatzen an ibiltzeko aingeruakin batian.

1. Bertso-paperak: *anka*; bañan eskuz erantsita: *rik*, *ankarik* beraz. Eta ala bear du neurrirako.
2. Bertso-paperak: *Apillaren*, *predikatzen* eta *giñaden*.
3. Bertso-paperak: *argatikan*.
4. Bertso-paperak: *jarrian*.
5. Bertso-paperak: *gaztiangatik*.
6. Bertso-paperak: *odo*.
7. Bertso-paperak: *Oinbesteño*.
8. Bertso-paperak: *oiek*.

(1916)

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

Bertso auek estropada baten ondoren jarriak dira. Ez da urterik esaten, baiña gure ustetan 1916'garren urtekoak dira.

Seigarren bertsoan onela esaten da:

Illabetian iru batalla
zituztenak irabazi,
emen ezikan Baiona'n ere
Getariya zan nagusi...

Baiña Donostia'ko estropada etzuan Getaria'k irabazi. Zazpi treñeruk jokatu zuten: Orio, Donostia, Getari'ko *Elkano*, Zarautz, Pasai San Pedro, Getari'ko *Golondrina*, eta Pasai San Juan. Orden orretan gelditu ziran.

Estropada oni buruz sei bertso-paper jaso ditut. Oriotarrak iru jarri zituzten; donostiarrak bi; eta getariarrak bat, onako au alegia.

Oriotarrak asi ziran lantegi orretan. Aien bertsoak irakurtzean, min artu zuten getariarrak.

Ordaiñak jarri bear zirala pentsatu zuten, eta jartzaillearen billa etzuten urrutira joan bear izan, bolara artan Txirrita Getaria'n baitzan, kaiaren gaiñeko aldean egiten ari ziran etxe baten argin lanetara etorria.

Txirritak onako bertso auek jarri zituan. Bein baiño geiagotan begi-okere bat aitatzen du. Dirudianez, oriotarrak estropada oni ateratako bertso-paper bat, begi-okere orrek jarri zuan; gero Zarautz'a etorri zan saltzera, baiña emen etzuten ondo artu.

Begi-okere ori nor ote zan ez dakigu; eta, len esan bezela, oriotarrak iru jarrialdi baitzituzten, begi-okere orrena zein dan ez genduke esango.

Bertsoak inprentatu ondoren, Txirrita bera ibili zan Getaria'n kalerik-kale paperak saltzen, bertsoak kantari eta eskuak bruxaren poltxikuetan zituala.

Aldamenean mutil kozkor bat zijoan, paperak jendeari emanaz eta txanponak jasoz.

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua euskera eder batian, kulpa gabeko jende umillak lotu gaituzte katian. Gu askok autan ibilli gaitu tabernetan da kopian, tximillu txar bat asi da artza artu nairik anka-pian, baztar guztiyak nastuko ditu uzten bazaio pakian.

- 2/ Liburutikan letuta dakit
Getari zerbait bazala,
zenbait tokitan presentatua
mudatu gabe azala,
biotz oneko jende ondradu
prestua ta serbitzala,
lareun urtian eman diona
Kantabria'ri itzala;
zuek Oriyo'n zeñ dezute guk
emen Elkano bezela?
- 3/ Asarratzeko ainbat badegu
zerbait inporta zaganak,
kopeta illun jarriko degu
sentimenturik degunak;
gu mendeaturik egin dituzte
esplikaziyo legunak,
gaizki esaka ixildu gabe
arratsak eta egunak,
eskerrik asko, begi-okerra
eta dituzun lagunak.
- 4/ Indartsua ta korajetsua
beti izan da Oriyo,
nik ez det iñor bera jetxi nai,
al dan guziya gora iyo;
bertsuak jarri dituztelako
gaude pixka bat seriyo,
bi erri autan artu gaituzte
txanboi bat dala meriyo,
obrak begiyen bistan or daude,
gezurrak ez du baliyo.
- 5/ Aita Elkano'n seme maitiak
gure erriko personak,
España'n da Frantziya'n ere
guztiyen buru izanak;
garai arretan umill ziraden
orañ arro dabiltzanak,
oraindik danak ez dira illak
denbor'artako gizonak,
mundu guziya bildurtu zuben
Getariya'ren izenak.
- 6/ Amalau gizon arraunlariyak
beren txalupa ta guzi,
ez det kuadrilla bizkorragorik
itxas gañian ikusi;
illabetian iru batalla
zituztenak irabazi,
emen ezikan Baiona'n ere
Getariya zan nagusi;
orañ bertsuak orla jartzia
guk ez genduben merezi.
- 7/ Kulparik gabe jarri dizkigu
begi-okerrak bertsuak,
inposible da lau zientziak
ote dituen osuak;
orren kontuak getariarrak
ongi dauzkagu jasuak,
beti gureztat azaltzen dira
endredadore batzuak,
indar gutxiko bularra zuben
ura azi zun atsuak.
- 8/ Zelebria da kulparik gabe
jarri diguzun disputa,
ze adelantu espero dezu
okasiyua piztuta?
Zure kontuak getariarrak
ez daukazkigu aztuta,
guri bertsuak jarri ta saltzen
sos batzuekin poztuta;
zernai orlako erdi txoruak,
juiziyorik ezta-ta.
- 9/ Jai-goiz batian ikusi nuben
Zarautz'era etorriya,
pranko altutik mintzatutzen zan,
ona zeukan eztarriya;
arrazoi gabe desonratu du
pakian daguen erriya,
toki onian allegatu da,
artuko zaio neurriya,
gogotsua da kantatzen baña
jakinduriyaz urriya.

- 10/ Guri bertsua jartzia orrek
egin du pranko itxusi,
iñoren ere lizentzi gabe
gero kantatzen zan asi;
Zarautz'en nola portunatu zan
neronek nuan ikusi:
bi aguazillak kargu artuta
bere papera ta guzi,
preso sartuko ez baldin bazan
larri juan zan igesi.
- 11/ Tokatzen ez dan gauza txar asko
guregatikan esan du,
aurten atzetik etorri arren
ezkera txarrak izandu;
kulparik gabe kantak jartzia
jendiak damu artzen du,
guztien buru balitz bezela
erri guziya sartzen du,
ez nuen penik zerbait azaña
zerozer egin bazendu.
- 12/ Oriyo ere gelditu izan da
aurten gu gauden moduan,
Getariya'tik etzan bertso-rik
aientzat izan orduan;
gorroto txarrik ez degu baño
lengo kontuak goguan,
eskuetako arraunak ere
jokatzeko eman ginduan,
ongi egiñak gaizki askotan
pagatzen dira munduan.
- 13/ Kontrariyoric gabe egondu
giñan amabi urtian,
emen da Bilbo'n, ta Baiona'tik
San Juan de Luz bitartian;
gure atzetik segitu eziñik
asko zebiltzen nekian,
desafiyuak izaten dira
projimuaren kaltian,
errespetua guardatu zuben
Zirilo zebillen artian.
- 14/ Bertsuen bidez emen jendiak
pena pixka bat artzen du,
eskarmentuba ikustiak bat
juiziyuan sartzen du;
bera aldrebes dabillen batek
martxa guztiya galtzen du,
au aditu ta Zirilo zarrak
bere koleran esan du:
«Oriyotarra paore baizik
«eztiyet egin izandu!»
- 15/ Etsai gaiztua saiaturten da
justuba tentatutzeko,
motiborikan asko izan da
gu eskarmentatutzeko;
aiek etzuten eskubiderik
gure konduta galtzeko,
ordena nuben bertso oriyek
paperan plantatutzeko,
Santana zarrak eta Zirilok
jaietan kantatutzeko¹.

1. Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea; ez nuan kontuan artu nori jaso nion.

Guk bertso auek *Auspoa*'ren 101-102 zenbakian, 1971 urtean, agertu ondoren, Agustin Zubikarai'k ere argitaratu ditu bere *Treñneru estropadak* liburuan, 1987 urtean. Bertsoak nundik artu dituan ez du esaten, baiña bertso guziak *Auspoa*'k bezelaxe ditu, aitatzerik merezi duan aldaketarik gabe.

(1918)

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

Bertso auek 1914-1918^{ko} gerrari buruz jarri zituan Txirritak. Amaikagarren bertsoan onela esaten du:

Gerra gaizto au eman zutela
au da bostgarren urtia...

Gerraren azken urtean jarriak dira,
beraz.

Iru argitaraldi eskuratu ditugu; oien
berri oarretan emango degu.

Txirrita *guka* ari da bertso auetan; bera frantzes balitz bezela alegia. Zergatik ote?

Beste sail bateko bertso batean onela dio Txirritak:

España ontan bizi izan naiz
iñoizka juanaz Frantzia...

Joan-aldi oietan ain frantzes-zale biurtu ote zan, beraz? Ala Bidasoa^z beste aldeko euskaldunen batek jarri arazi zizkion bertso auek? Ez dakigu zer erantzun, eta galdera oiek bere ortan utzi bearko ditugu.

Baiña aleman-zalerik ere bazan bertsolarien artean, eta bertso auek ordaiñak izan zituzten. Erretereri^{ko} Jose Ramon Taberna bertsolariak amairu bertso atera zituan; emengo Txirritaren esanei oso go-

gor erasotzen die, irakurleak ikusiko duenez.

1/ Zori gaiztoan fundatutako Alemaniya^{ko} gerra, aixa nai zuten eskuperatu gure erreino ederra; oraindik ere bada Frantziyaⁿ diruba eta indarra, len zan bezela ipiñitzeko¹ izango degu biarra.

2/ Belgika^{tikan} galdetu zuten lendabiziko pasua, jakiñik nola zeguen Paris^a andik bide erosua; aitatik ere artubak dira uste etzan erasua, porrakatu ta puskatu zuten naziyo txiki gaxua.

3/ Ogei ta amar milla milloiko asi zitzaigun eskaka, otso gaizto bat zirudillela artaldiari eskaka; jeneral Foch^{ek} bialduba da Holanda aldera eskapa, orain lau urte ainbat erronka garai onetan ez dauka.

- 4/ Amorratubak ziruditela
etorri ziran Frantzia,
orain esaten errezago da
orduko gure trantzia;
jenerak Foch'ek eman diyote
uste etzuten partxia,
mereziko du diamantezko
estatua bat jartzia.
- 5/ Beren joera Paris aldera
egin ziguten aurrena;
ango etsiyak artu zituzten,
Verdun'a berriz urrena;
sei illabete sutan pasa ta
etzian sartu barrena,
ezta andikan gustora juana
Kaiser'en seme zarrena.
- 6/ Ernegatuta jarri giñuzten
zerbait egin biarran,
zergatik gerra eman ziguten
arrazoi-bide txarrian;
jeneral Foch'ek artu zituben
danak guziyak aurrian,
gaur iru urte ainbat aleman
ez da Frantzi'ko lurrian.
- 7/ Lenbizi oiek pentsatzen zuten
ilko giñala guziyak,
bañan oraïndik gure kuadrillan
bagera gizon biziya;
indar aundiko armak dauzkagu
soñian ondo jantziyak,
Alemani'ko buru arruak
bajatu ditu Frantziya'k.
- 8/ Aleman batek neri esana,
biyok geudela kafian:
«Kaiser agintzen ikusiko da
laister Paris'ko kortian».
Zepelinakin aidetik eta
sumarinuak ur-pian,
disgusto asko eman digute
jun daneko lau urtian.
- 9/ Zepelin zarrak bonbaz betiak
goiko oroian tartian,
millaka minak itxasoan da
sumarinoak ur-pian;
oiek sumatzen ibilli dira
berrogei ta lau urtian,
Kaiser Paris'en ez da sartuko
Wilson bizi dan artian.
- 10/ Orrek etzuben errespetatzen
legorrik eta urika;
sententzi txarra emango zaio,
ortan ez dago dudika;
orrek nai zuben amenazatu
Frantzi'ko errepublika,
berriz Paris'en ez du egingo
len bezelako burlika.
- 11/ Gerra gaizto au eman zutela
au da bostgarren urtia,
oiek besteren interesakin
artu nai zuten partia;
inglesa eta amerikano²
gu bezin jende fuertia,
alemanaidi eman diyote
izugarrizko golpia.
- 12/ Laguntzalliak nundik dituben
ezagutu du Frantziya'k;
geren setari eutsi diyogu,
ez giñan dudan asiya;
biba gerra ontan gure fabore
ibilli diran guziyak,
nere partetik ematen ditzet
eskerrak eta graziyak³.

1. Bertso-paperak: *ipintzeko*.

2. Lenengo ta bigarren argitaldian: *ingles ta amerikano*; irugarrengoa: *inglesa ta amerikano*.

3. Bertso auen iru argitaraldi eskuratu ditugu, asieran esan degun bezela.

Leenengo argitaraldia: «Imprenta Bermejillo. - Pasajes», Errenteri'ko Enrike Elizetxea zanaren bertso-bilduman.

Bigarren argitaraldia: «Tipografía de V. Fernán-

dez, Barrencalle 22. - Eibar». Ondarroa'ko Jose Mari Etxaburu'ren bitartez, Berriatua'ko Altzalegi baserritik etorri zitzaigun.

Irugarrena: «Reimpreso. - Imp. La Económica. San Sebastián». Bilbao'ko Alfonso Irigoyen'en bi-

tartez Leioa'ko Zabale baserriko Eulojio Bidea Agirre'rengandik eskuratu genduan.

Iru argitaraldi auek ez dute beren artean aldaketarik.

BERTSO BERRIYAK

I. R. T'EK JARRIYAK

Txirritak Frantziaren alde jarritako bertso oiei, Jose Ramon Taberna Mitxele-na'k erantzuna eman zien, Alemania'ren aldeko beste bertso auekin.

Bertsolari au Oiartzun'en jaio zan 1886-VII-31'an; eta Errenteria'n il, 1942-XI-25'e an. Beraren bizitzaren argibideak eta bildu ditugun bertsoak, *Auspoa*'ren 74-74'garrenean argitaratu genituan.

Jose Ramon Taberna'ren bertsoak ere paperetan azaldu ziran, *Tip. Diario Vasco* moldiztegian inprentatuta. Ale bat, Erren-ter'i'ko Erdiko-etxe'ko Jose Antonio Be-rondo'ren eskutik jaso genduan; eta beste bat, bertako Makazaga moldiztegian arkitu.

1/ Bertso berriyen errespuestak bertatik nai ditut kanta, jendia ondo entera dediñ. egiyak garbi esanta, oiek aditu nituenian oso arritu nitzan-ta; auzuetatik zertan eraman etxian indarra izanta?

2/ Diyozutenez, Belgika ori izanik orren txikiya, aundiyaguari onez-onian zertan ez utzi tokiya? Gañera berak tiroka ekiñ, erantzuera propiya, istoriyetan azalduko da galtza oien arabakiya.

3/ Ogei ta amar milla milloiko omen zituzten eskatu, frantzesak esan omen ziyoten etzutela nai prestatu. Jeneral Foch'ek ezpatarekiñ Kaiser omen du sustatu, jartzen dituzten gezurrarekiñ batek biar du nazkatu.

4/ Neronek ere aditu diyot esaten asko gizoni: lau urti ontan biziya kendu zaiola zenbat personi. Jeneral Foch'ek Kaiser bentzutu, bibaka ari Wilson'i, egiya garbi ateratzeko erreparatu itz oni.

5/ *Rompecabezas* jarko dizutet nai dezutenak pentsatu: zeñek soñua jo duen eta zein nola diran dantzatu. Prusianuan ejerzitua ez dute arman bentzutu, Alemani'ko sozialistak diruz dituzte gaintzutu.

- 6/ Lendabiziko langillietan
sortua zuten naspilla,
Amerika'ko diruarekiñ
egiñ ziyoten koskilla;
muniziyorik egiñ nai ezik
kargatutzeko fusilla,
orrela gerra irabazitzen
ez da izango fazilla.
- 7/ Bariantien itxura egiten
orain zertako dabilta?
Ez al dakite non artu zuten
lendabiziko paliza?
Ruso, belga ta franko, inglesak
baizik izan ez balitza,
oiengatikan bi urti ontan
sartuak ziran Paris'a.
- 8/ Ogei naziyok gutxiyenan
laun kontra artu partia;
Wilson'ek, gerran sartu baño len,
egiñ nai zuen pakia.
Bañan natural etzan ibilli,
itxurak ala baitia,
nonbait mudatzen erraza izan
orren barrango trajia.
- 9/ Frantzes oriek pentsatu zuten¹
Berlin'araño joatia,
Alemani'ko fronteran laster
jarri ziyoten topia.
Nei gizon batek esan diranez²
larri ibiliyak tia³,
Burdeos'era Paris'tik azkar
eraman zuten kortia.
- 10/ Inposible da, frantzes a ezta
burutik oso sanua,
yankia bere alde artua
etorko zaio damua.
Legorrian ta itxasuetan
botia dauka amua,
Burdeos'tikan Hendaia'ra arte
laister amerikanua.
- 11/ Gauzak natural esan nai ditut,
ez naiz ariko atzetik,
diferentziya egonagatik⁴
irabazira galtzetik.
Amerikanua ateratzeko
frantzesak beren etxetik,
malko ederrik bota biar du
bostek begiyan ertzetik.
- 12/ Nondikan nora sortu ote da⁵
gerra orren arrastua?
Orregatikan gaur arkitzen da
mundu guztiya nastua.
Baldiñ luzatzen asitzen bada
Jaungoikuaren eskua,
kulpa duenak ikusiko du
oraindik ordu estua.
- 13/ Bertsu onekiñ bukatzen ditut
desiatua nago-ta,
franko inglesak Alemaniya
lurpera nai dute bota.
Berak eziñ ta yankiak diruz
egiñ diyote burruka,
oiek amerikanuen mendian
jarri digute Europa.

1. Bertso-paperak: *Frantzes oyek pentzatu suten.*

2. Bertso-paperak: *Neri gizon batek esan diranes.*

3. Bertso-paperak: *larri ibiliyak dira.* Emen, punturako, *tia* bear du, naiz-ta gramatikaz *dira* izan.

4. Bertso-paperak: *diferentziya egonak gatik.*

5. Bertso-paperak: *Nondika nora sortu oteda.*

BERTSO BERRIAK (EUROPA'KO GERRA, 1914-1918)

Onako amabi bertso auek, Errenteri-ko Enrike Elizetxea zanaren bertso-bilduman agertu dan bertso-paper batetik ditugu.

Bertso-paper orrek moldiztegi-izenik ez du, eta *Bertso Berriak* beste izenbururik ere ez. Bigarrena, kako tartekoa, geok erantsia da, bertsoen gaia ori baita.

Egillea nor dan ere, ez du paperak esaten. Ala ere, Txirritak jarritako bertsoak dirala dudarik ez da, gure iritzirako beintzat. Ara nola etorri geran iritzi orretara:

Txirritak, gerra orri berari jarriak, baditu beste amabi bertso; aurreko orrialdeetan eskeñi ditugunak alegia. Oien antzekoak iduritu zitzaizkigun bertso auek, eskuratu eta irakurri bezin laister.

Orregatik, alkarrengana bildu giñan batean, bertso auek berak bere osabari kopiatuak ote ziran galdetu genion Txirritaren illobari. Ezetz erantzun zigun; osaba beren etxera bildu baiño leenagoko bertsoak zirala. Ortik ez genduan, beraz, ezeren argitasunik atera.

Orduan, bi bertso-sail auek bata bestearen ondoan jarri eta alkarrekin berdintasunik edo antzik ba ote zuten azterka asi giñan. Ona emen zer atera genduan:

Bi sailletako ardatza, erderazko *sinop-*

sis alegia, berdin-berdiña da: alemanen Belgika'tik pasa naia, Paris, Verdun, Kaiserren seme zarrena, Kaiser bera, batean jeneral Foch eta bestean Petain, alemanen armak.

Bi sailletako bigarren bertsoak, alemanak Belgika'tik barrena bidea nola eskatu zuten aitazten dutenak alegia, oso alkarren antzekoak dira. Puntuak ere, *rimak* alegia, bat ez beste danak berdiñak: *pasua*, *erosua*, *erasua*.

Aurreko sailaren bostgarren bertsoa eta sail ontako seigarrena ere, oso alkarren antzekoak dira. Puntuak ere, danak berdiñak.

Aurreko sailaren bederatzigarren bertsoan, alemanen armak aitazten dira: zepelin zarrak, «millaka minak itxasoan», sumarinoak; sail ontako amaikagarrenak ere, oiek berak izendatzen ditu: «millaka minak itxasuan», urpeko ontziak, zepelinak; eta beste bat geiago: «markaz fuera-ko kañoi aundiyak».

Aurreko saillean Txirrita *guka* ari da, bera ere frantsesa balitz bezela alegia. Ori zergatik izango ote zan adierazten genduan: Txirrita denbora-aldi bat Frantzian egiña zan, eta antxe frantzes-zaletu zalako, edo-ta ango batenbatek bertso auek enkargatu zizkiolako.

Izketa-modu ori ere badu sail onek.

Bederatzigarren bertsoak onela esaten du:

Berdun'en etzan kanpotar asko,
prantzesak giñan guziyak;
onenbestian kontentu gera
Jaungoikuari graziyak.

Oiek guziak kontuan artuta, bertso auek ere Txiritarenak dirala, ez degu guk beintzat dudarik egiten. Eta orregatik argitaratzen ditugu liburu onetan.

Leengo sailla, gerraren bostgarren urtean jarria da; gerraren azken urtean alegia. Onoko au, berriz, gerra bukatu ondorengoa izango da; leenengo bertsoan onela esaten baita:

nola gerra bat izugarriya
Europa'n izan genduan.

Aurreko sail ori, au baiño ezagunagoa da. Aren aitamenak bein baiño geiagotan entzun ditugu bertso-zaleen aotik; sail ontaz, berriz, inortxori ere ez diogu sekulan bazanik ere entzun.

1/ Bertso berriak jartzera nua tokatzen dian moruan:
pentsamentuan aspalditxuan pasia naukan buruan,
nola gerra bat izugarriya
Europa'n izan genduan;
orain artian orlakorikan ez da ikusi munduan.

2/ Au da Kaiser'ek lendabiziko eman zuan erasua:
Beljika'tikan zala arentzat guztiz bide erosua;
pasa bezela itzegingo det aien orduko kasua:
armarik gabe jua nai bazuten agindu ziyon pasua.

3/ «Austria'tarrak anparatzera egin biagu bisita,
an ez genduke ongi emango armak etxian utzita;
birian libre biarko degu,
egon zaitezte etsita,
bestela fuerzan pasako gera zuen fuertiak autsita».

4/ Beren armakin etorri ziran ainbesteko jende-pilla,
asi ta iru egun baño len nunai bazan gizon illa;
txasko polita pasa zitzaion izanagatik abilla:
alanbre batek galdu zituan gutxienaz ogei milla.

5/ Galduak galdu pasa ziran da urbildu ziran Paris'a,
kañoiak onak zeuzkatela ta artuko zutela aisa;
baño bueltatzen etzan erreza ango zarrallaren giltza¹,
arrunka pranko bazuten baño orain bajuau dabilta.

6/ An ezer ezin egiñ zuan da Berdun'en berriz urrena:
«Gero Paris'a juango gera,
au artu zagu aurrena!»
Jeneral Petaiñ sartu zanian ango fuertian barrena,
etzuen asko errespetatu Kaiserren seme zarrena.

7/ Jeneral Petaiñ nola baizuan presidentiak laguna,
idea aundiko gerra-gizona eta izketan leguna,
Rusia'tikan abisatuta ekarri zuten Berdun'a;
alemanentzat etzan ederra ura sartu zan eguna.

- 8/ Zepelin asko bonbak botiez,
nonai kañoia-paria,
aiek guziyak sostenditzeko
bazan abillidadia;
jeneral Petaiñ genduen buru,
arrek zeukan poderia,
oraiñ argatik deitzen diyogu
Berdun'en salbadoria.
- 9/ Orduko salsak izandu ziran
Kaiserrentzako gaziyak:
milloi erdi bat gizon baditu
gure lurrian utziyak;
Berdun'en etzan kanpotar asko,
prantzesak giñan guziyak;
onenbestian kontentu gera
Jaungoikuari graziyak.
- 10/ Aleman oiek larri zebiltzan
jo goia eta jo bia,
lan ortan asi izan ez balitz
guziyentzako obia;
geren etxian agindu naia,
jakiña dago guria;
aziyuetan ezagutzen da
non dan abillidadia.
- 11/ Millaka minak itxasuan da
ainbeste urpeko untzi,
markaz fuerako kañoi aundiyak,
beren zepelin da guzi;
Kaiser jaun orrek jarri nai zuen
mundu guziko nagusi,
geienak bertan utzita jun zan
Olanda aldera igesi.
- 12/ Berdun'en ezik Melilla'n ere
egin du orrek beria:
ango moruak bialdu ditu
auntzak bezela mendia;
iñoiz umillak asarretzian
arruak bajatzen dia,
eskarrik asko, jeneral Petaiñ
eta Praintzi'ko jendia.

1. Bertso-paperak: *zarrollaren*.

(1919)

BERTSO BERRIAK

«1919'garren urtean *huelga* edo oporketa bat izan zan Pasai'ko portuan.

Denbora artan orain ainbat jende etzan ibiltzen lanean, eta aietatik asko oiartzuarrak izaten ziran.

Huelga egin zutelako-edo, orduko kontratistak, bertsoak dioten bezela euskaldun garbi eta goierriarra zanak, gorrotoa artu ziotela zidurien; eta, *huelga* bukatu zanean, kanpotik jende berria artu ta oiartzuar asko kanpoan gelditu ziran, naiz batzuek erregalo eta zurikeriaren bitartez lanean sartu.

Kanpoan edo lanik gabe gelditutako bat, Trajinos beltza zan, bi Trajinos, bat osaba ta bestea illoba, baitziran Oiartzun'en.

Kontratista edo nagusiaren alde geiena nabarmendu ziranak, bi kapataz ziran: bata, altzatar bat, beti euskeraren alde bulla ta zalaparta ibilli bear izaten zuana; eta bestea San Juandar bat.

Orregatik esaten dio altzatar orri zertarako beti euskera goratu ta kastillanauk ekartzen zituan lanerako. San Juandararak, berriz, erregalua pranko artua izan bear zuen.

Gauz oiek ikusita bertsoak jartzea gogoratu zitzaion Trajinosi, ta etorri zan Txirritarengana, baita onek jarri ere ondoren irakurriko dituzutenak.

Beste gauz askoren artean, San Estebanetan festak pasatzera gonbidatzen ditu kontratista ta bere lagunak, baña ez det uste oietakorik inor Oiartzuna azalduko zanik; bestela inguru artako ezur-konponzalle edo petrekilluak izango zuten naiko lana urrengo egunetan...».

Adierazpen au, Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illobak idatzia da.

Bertso-papera Pasaia'n inprentatu zan: «*Bermejillo y Cia. - Pasajes*»; Errenteri'ko Luis Mitxelena jaunaren bitartez eskuratu genduan.

Paper onek ez du inun ere agiri Txirritaren izena. Baiña onek jarriak dirala, bere illobak esanda dakigu. Berak kopiatu zizkion bertsoak.

1/ Milla bederatzi eun kunplitu eta emeratzigarren urtian,
huelga baten bidez okertu gera Antxo'ko partian;
buruzariya bailitz bezela oiartzuarren tartian,
guri bengantzan asi zerate oso gorroto fuertian;
beti goguan izango degu bizirik geran artian.

- 2/ Bertso berriyak jartzera nua,
nai dituanak ikasi,
asuntu ori onratu gabe
ezin nezake nik utzi¹;
oiartzuarrak Antxo aldian
ez gaituzte nai ikusi,
txori batzuek joan diralako
kaiolatikan igesi,
langilliarri burla egiñaz
alperrek daude nagusi.
- 3/ *Huelga* ortan eskatu ziran
lau kondiziyo berriyak,
bañan etziran orko maisuak
Oiartzun'dik etorriyak;
iduritzen zat ote gauden gu
libru berdian jarriyak,
lenago alde genituanak
kontra ditugu erdiyak,
artzaï gaiztuak diran tokiyan
pagatutzen du ardiyak.
- 4/ Portu artako kontratista bat
gizona balientia,
Goiarri'tikan etorriya da
euskaldun korrientia;
urte batzuek baditu baña
gorputza dauka tentia;
oiartzuarrak badadukagu
orrenzat borondatia,
San Estebanez fiesta da eta
naïko genduke joatia.
- 5/ Oiartzuarrak ez diyote egin
jaun orri ustez gaitzikan,
zentruak esan digun legera
errenditzia baizikan;
beraren kontra ez degu esan
tokatzen ez dan itzikan,
pasa diranak esplikatzeko
ez dadukagu lotsikan,
begiyak balak baldin balitu
tirako luke pozikan.
- 6/ Mualla ortako kapataz batek
propina asko artzen du,
berari zerbait eman ezker
lanian azkar sartzen du;
neonek ez det ikusi baño
jendia prankok esan du,
erregaliyak izugarriyak
nola dituen izandu;
badauka zeñek gobernatua
nai balin badu gizendu.
- 7/ Inbusteruak ez izatia
degu guretzat kaltian,
gizona zail da ezagututzen
pruebak ikusi artian;
«Tori ollua!» –esanaz jua zan²
aurreko egun batian–;
ardo-puska bat ez da paltako
orren iztarrak jatian».
Lana aguro agindu ziyon
sartu zanian atian.
- 8/ Iñoiz suertez jartzen bazaizkit
gizon oriyek aurrian,
alde artara begiratzen det
triste ta gogo txarrian;
zenbait naigabe sufritzen degun
bizi geranak lurrian,
ardi gaiztuak paotxa jaten,
onak gosiak larrian,
gauz ori bera pasa zitzaigun
Karlosen gerra zarrian.
- 9/ Leku askotan ikasi dute
Antxo'ko jornalari berri,
ta berak ere adierazten³
or dabilta erriz erri;
Irun'dik eta Ondarrabi'tik
jende asko da etorri,
beste batzuek abisatuta
Goiarri'tika ekarri;
emen dagona ez da besterik:
bengatu naia elkarri.

- 10/ Zelebria da gizon batzuak
egin duten ajustia,
lantegi (y) orren segurantziya
ez dute gutxi kostia;
gero're oiek ez da komeni
edozein modu uztia,
olluarekin etorri zan bat,
solomuakin bestia;
nik ere pozik jango nituke,
jenero txarrak eztia.
- 11/ Nola presari eragiñ eta⁴
pasatzen dan ugaldia,
ala berian kanpotarrakin
bete da Antxo aldia;
gu lanik gabe onla uzteko
oiek zeukaten zalia,
au da batere asarre gabe
egiten degun galdia:
oiartzuarrak bestiak baño
eskasaguak al dia?
- 12/ Misერიარik ez dadukagu
edanian ta janian,
gure gorputzak argatik daude
onen estadu onian;
estimatuak izaten giñan
besterikan etzarian,
orduan bañan eskasaguak
orain ez gaude lanian;
edozein burla egiten dute
komententziya danian.
- 13/ Usteko zuen orren kontuak
ez ditugula jakindu,
bestiak baño aldrebesago
utsa ikusi bagindu;
gure kuadrilla asarre dago,
askok biotzian min du;
zarrak etxian geldi daudela
besteri lana agindu,
Pasai San Joan'go ollo-jaliak
aziyo txarra egin du.
- 14/ Altza gañeko beste gizon bat
dabil Antxo inguruan,
gu bajatzia beste gauzarik
ez dabilkana buruan,
eskirolakin unitu eta
altubeneko graduan;
gizonez gizon jarri zaitezte
oiartzuarran onduan,
zein dan langille balientia
ikusiko da orduan.
- 15/ Orren idea zer izango zan
aguro niyon igarri,
bere galoiak gora altxatzen
enpeñatua da larri;
atzo gizon bi izketan zeuden,
atenditutzen naiz jarri,
sujeto orrek zer egin duban
esan ziyoten elkarri:
«Biba euskera!» maiz oju egin,
kastillanuak ekarri.
- 16/ Oraingu ontan izandu dira
asunto izugarriyak,
bañan gugatik ez du merezi
desonratzia erriyak;
gusto duanak ikasi bitza
amasei bertso berriyak⁵,
muallan lanik etzeukan eta
Trajinós Beltzak jarriyak;
aditu nai ezantuan bada
itxi bitza belarriyak.
- * * *
- Trajinós Beltzari buruz zerbait geiago
esan genezake.
- Ergoin'goa zan. Trajinós Beltza, kolo-
rez beltz samarra zalako esaten zioten.
- Poto egiñez bada ere, bera ere taber-
nan edo lagun artean bertsotan pixka bat
egiten zuana zan.
- Ta karta-jokoan ere gustatzen zi-
tzaion; trukean batez ere.

Berez pobrea, eta ortaz gaiñera jokozalea, diru-sobretan ibiliko etzala esan bearrik ez dago.

Bein batez onela esan zion bere lagun batek:

–I, Trajinos! An zeuzkak Gasparrek apuntian ik ardotan egindako zorrak!

Eta Trajinos'ek:

–Apuntian al dauzka?

–Bai!

–Disparatzeko esaiok ba!

Ala esan digu oiartzuar batek: «Errepin gaitzak zituan gizona zan Trajinos ori!».

Eta Trajinosen semeari buruz beste gertaera au kontatu didate.

Gerra ondoan, 1946 urte-inguruan, Oiartzun'go kuadrilla bat Frantzi'ra jendea pasatzen zebillen. Aien artean, Trajinos Beltzaren semea.

Guardiazibilletako sarjentoak erreze-loa bazuan zein ziran eta nola zebiltzan, baiña seguru ez jakin.

Sarjento orrek urte asko zeramazkian

Oiartzun'en, eta bere semeak euskera bertakoak bezin ongi ikasia zuan.

Sarjentoak, bere semea kupela edo kaja batean sartu zuan. Eta, urrena, bere errezeloko bost edo sei lagun detenitu eta kupela edo kaja ori zegoan gelan sartu zituan. Baita an eduki ere denbora-puska batean.


Lagun oiek, gela utsik zegoalakoan, izketari eman zioten, beren arteko kontu guziak barra-barra esanez; eta bitartean semea an, dana entzuten... Eta gero semeak aitari salatu, eta ala galdu ziran; soka dana galdu zan.

Aitor-arazteagatik, guardiak joka erabili omen zituzten. Trajinosen semearen karraxiak plazatik entzuten ziran. Alare ukatu egiten arek. Baiña sarjentoak dandana jakin... Denbora luzean desterratuta-edo egon omen ziran.

1. Bertso-paperak: *lezake*.
2. Bertso-paperak: *esana*.
3. Bertso-paperak: *adirazten*.
4. Bertso-paperak: *prisari*.
5. Bertso-paperak: *amas*.

«SALSAMENDI'KO BILLERA ORRETAN...»

Bertso bakarra degu oraingoan. Bi tokitatik jaso det: Leenengo, Juanito Zabalera bertsolaria zanaren kuaderno batetik. Onela dio:



Salsamendi'ko billera ortan
badago lege ederrik:
bi dama oiek zuzentzen dute
pasatzen bada okerrik;
kontari daude eztaukatela¹
mutill txikiyan bearrik,
ortan señaile ez dituztela
fandangorako bakarrik.

Urrena, Errenteri'n Juan Mari Lujanbio'ren aotik jaso nuan. Juan Mari au Saiburu bertsolariaren semea da, eta Txirritaren illoba txikia.

Onak esan zidanez, etzan bertso bakarra, lagunak ere bazituan, eta beren egillea Txirrita zan. Baiña agian inprentatu

gabe geldituko ziran. Eta bertso bakar ori
onela eman zidan:

1. Kuadernoan: *kontari daude gañera ez dutela.*

Salsamendi'ko billera orretan
badago lege ederrik:
bi dama gaztek zuzentzen dute
pasatzen bada okerrik;
kontari daude ez daukatela
mutil txikien bildurrik,
señalea da ez daudela
fandangorako bakarrik.

«DAMA GAZTE BAT ADORATZEKO...»

Egun batez, alkarrekin ari giñala, onako bertso au gogoratu zitzaion Txirritaren illobari:

Zure graziya¹
neria²,
kaso txiki bat dala meriyo
izandu degu mudantza;
kaballeruengandikan zuen
diruaren esperantza,
ni ondorian postizutako
tontua izan banintza.

Seguru esateko etzekiala esan zidan,
baiña bere osabarena ote zan errezelua
zuala.

Eta Urdazubi'ko Juan Agirre'ren kua-
dernoetan bertso ori bera arkitu degu,
beste bostekin batera. Onela diote:

1/ Dama gazte bat adoratzeko
artutzen dut enpeñua,
gusto duenak ikasi betza,³
bertsuak jartzera nua;
ustez seguro iduki eta
eman det desengañua,
toki onean enpleatu dut
lenbiziko kariñua!

2/ Oren batean uste ez nuela
begietara sortu zen,
fortuna on bat datorrelakotz
nere bihotza poztu zen⁴;
aren orduko arrazoinekin
sekulan etzait anztutzen:
«Txit gustatua nago ni zutaz,
etzera konformatutzen?»

3/ Gañera berriz bertze gauza bat:
eskojitzeko oihala,
esposatzeko trajia ere
berak egingo zidala⁵;
ofizioa zigarrerian
leihorrean zeraukala,
ni langillia izanez geroz
aise biziko giñala.

4/ Errespuesta eman nioen
berak merezi bezala:
zer gisetako galaiia nitzen
len ere bazakiela;
lana egiten kostunbratua
ttiki ta gazte nitzela,
ez mundu huntan zenbeit bezala⁶
tunantea ta alferra.

5/ Kasu ttiki bat dela medio izandu degu mudantza⁷, tranpa aundiko sarearekin egin nai zuen arrantza; kaballero aundi orienganik dirua zuen esperantza, ni ondotikan postizutako tontua izan banintza.

6/ Azkenerako errematia nobiuaeren despedira⁸, mundu guzian zabaldu ditene orai inprimatu dira; Bilbao'tikan etorria zen Donostia'ko hirira, jendiak farra egingo luke jarriz geroztik begira, borts zentimotan nai tuenak hartu komedia politikak dira.

* * *

Mugaz beste aldeko *Eskualdun Kantaria* liburuan ere, sei bertso auk arkitu ditugu.

Baiña bai Urdazubi'ko kuadernoan eta bai *Eskualdun Kantaria* liburuan, oso nabarmen dago bertso auk ez dirala mugaz ipar aldean jaiok, Gipuzkoa'n baizik.

Gaiñetik lapurtar itxura pixka bat eman diete, baiña euskera Gipuzkoa'koa da. Ortaz gañera, Bilbao eta Donostia aitatzen dira azkeneko bertsoan; eta irugarrean esaten dan zigarrerria, Donostia'koa izango da seguru asko.

Bertso geiago ere izango zuan jarrialdi onek. Guk uste, bertso-paperetan zabalduko zan. Baiña oietatik ale bakar bat ere ez da gure eskuetaraino etorri. Sei bertso oiek, bat edo batek buruz ikasi eta Bidasoa'z beste aldera eramango zituan.

Urdazubi'ko kuadernoak *Eskualdun*

Kantaria liburuari kopiatu dizkiola esango du norbaitek. Baditeke, baiña aldaketa batzuk ere badira, eta Urdazubi'koan bertsoak obeto daude, guk uste.

Aita Donosti zanaren paperetan ere azaldu dira sei bertso auk, baiña onek *Eskualdun Kantaria* liburuari kopiatu dizkio, batere dudarik gabe⁹.

* * *

Bi doiñu eskuratu ditugu bertso auk kantatzeko. Bata, Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illobaren aotik jasota. Bigarrena, berriz ez dakigu mundik:



Da- ma gaz- te bat a- do-ra-



tze- ko ar- tu- tzen dut



em- pe- ñu- a, gus- to du-



e- nak i- ka- si be- tza



ber- tsu- ak jar- tze- ra nu- a;



us- tez se- gu- ro i- du- ki



e- ta e- man det de- sen- ga- ñu-



a, to- ki o- ne- an em-




ple- a- tu dut len- bi- zi-



ko ka- ri- ñu- a.

* * *



1. Neskatxaren izen-deiturak.
2. Mutillaren izen-deiturak.
3. Urdazubi'ko kuadernoak: *gustoa duenak*.
4. Urdazubi'ko kuadernoak: *sortu zan eta poz- tu zan*; dudarik ez da *zen* bear duala.
5. Urdazubi'ko kuadernoak: *ziuzala*.
6. Urdazubi'ko kuadernoak: *ez munduan zen- beiti bezala*.
7. Urdazubi'ko kuadernoak: *izan degu mudan- tza*; *izandu jarri degu*, Txiritaren illobak esan beze- la.
8. Urdazubi'ko kuadernoak: *despegida*.
9. «Eskualdun Kantaria» liburuaren aldaketak: 1/3: gusturat denak; 1/8: lehenbiziko kariñua; 2/6: ahantzutzen; 3/8: ongi biziko giñela; 4/4: lehen; 4/5: kostumatua; 6/6: Donostiako herrirat; 6/9: bortz zentimetan nahi dituenak hartu.

«KALIPORNIYA'N ZER PASATU DAN...»

Bi bertso auek Azpeiti'ko Loiola'n Egibar baserriko aitonari jaso nizkion.

Kalifornia aldeko su-mendi bat lertu eta kalte aundiak egiña omen zan. Txirritak bertsoak jarri zituan.

Guk uste, bertso oiek paperetan zabalduko ziran, baiña ale bakar bat ere ez degu iñon arkitu.

Kaliporniyen zer pasatu dan
nai al dezute aditu?
Oraindik nere memoriyak ez
du orrenbeste talentu;
su ta autsa nasiko elementuak
gizona pranko il ditu,
zazpi leguan kuadrutan ez da
iñor bizirik gelditu.

Gala arturik juaten dira
gazte peligrosuak,
naiz etxean negarrez utzi
senide ta gurasuak,
paraje oiek diradelako
biziro peligrosuak;
eunetatik amar biaitu
gutxiyenez itxasuak.

Bertsoak neurria gaizki dute. Eta bigarrenak poto egiten du, puntuan *peligrosuak* bi aldiz esanda. Txirritak etzituan, noski, orrela jarriko. Baiña orain orrela jaso ditugu. Azalduko al da nonbait ere bertso-papera!

Dalako su-mendi ori, Lassen deritzaiona izango da. Kalifornia'n dago eta 3.186 metro ditu. 1914 eta 1921 urte bitartean irureun bider lertu zan. Ordukoak izango dira, beraz, bertso auek.

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

Bertso auek Euskalerriko egoerari buruz jarriak dira, eta erromatarren eta euskaldunen arteko gerra aitatzten dute asiera-asieratik.

Gerra ori Ernio mendian gertatu omen zan. Euskaldunak gaillurretan; erromatarrak beean, mendia inguratuz. Euskaldunen buruzagiak Lekobide ta Osobal ziran.

Euskaldunak jatekoa urri zeukaten. Orduan zaarrak beren buruak amiltegi batetik beera bota zituzten, gazte jendearentzat jatekorik geiago izan zedin.

Azkenean, eun euskaldunek, Lartaun oiartzuarra buru zutela, eun erromatarren kontra iru burruka egitera prestatu ziran. Iruetatik bi irabazten zituztenak, gerra irabazten zuten. Emen euskaldunak nagusitu ziran; baita Erroma'n ere. Orregatik, etzan irugarren burrukarik izan.

Gauza auek jakitea bearrezkoa zan, bertso auek ondo uler ditezen. Txeetasun geiago jakin nai duanak, Arakistain'en *Tradiciones vasco-cántabras* liburua irakurtzea dauka. Iztueta'k ere bertso-sail ederra du gai ontaz.

Baiña gaurko kondairagilleak diotenez, gerra ori, erromatarren eta kantabritarrena alegia, etzan Euskalerrian gertatu, Santander eta Asturias aldean baizik¹.

Ernio'ko kontu auek *leyenda* utsa izango dira, beraz.

Txirritaren bertso auek askotan argitaratu dira, oarretan azalduko degunez. Xenpelar da bertsolari guzietan txapel-dun, argitaraldi kontu onetan. Baiña Txirritaren jarri-aldi au, aren argitaraldien bidetik zijoan. Aien neurrira iritxi ez bada, geroagokoa dalako izan da.

Bertso-paperik zaarrenak beeko aldean, firma bezela, bi izen dituzte: *El bersolari: Jose Lujambio*; ta *El Escritor: Pedro Gorriti*. Leenengoa Txirrita dala esan bearrik ez dago; bigarrena, kopiaztaillea alegia, nor dan, ez dakigu; Txirritaren illobak ere ez daki.

Baiña onek esan nai duana zera da: bertsoak Txirrita Gazteluene'ra baiño leenagokoak dirala.

- 1/ Orain bi milla urte inguru bezela ziran asiyak erromatarrak berendu nairik gure zazpi probintziyak; garaia artako abarkadunak ziran jeniyo z biziya, baziran penaz amildu eta beren ezurrak autsiyak, lastimosuak izango ziran aien orduko antsiyak!

- 2/ Denbora artako gerrero zarrak
ziran gizon onraduak:
aziyuetan irabazita
jazten zituzten graduak;
irurogei ta lau urtekuak
babeziltzan soldaduak,
orain bezela etzuen iñor
engañatutzen diruak,
Lekobide ta Osobal ziran
Kantabria'ko buruak.
- 3/ Aitona oiek zer pensatu zuten
azkeneko eriyotzian
ez genduela jakiñ izango
pena daukat biyotzian;
arrats guziyak otzak guardiyan,
egunaz erdi gosian,
zenbat naigabe sufritu zuten
Erniyo'ko gurutzian,
aien orduko oraziyuak
ederrak izango zian!
- 4/ Gure izeben amen amonen
osaben aiten aitonak,
emen fueruak defenditutzen
ibillitako gizonak;
bertan batalla irabazita
gero Erroma'ra joanak,
Octaviano'k galdu zituen
bereziziko lagunak;
aundi gaiztuak diran tokiyan
pagatzen du txiki onak.
- 5/ Arrosa baño zabalagoko
gure zazpi probintziyak,
baratza eder bat bezela zauden
guziyak lorez jantziyak;
lau España'ya'n morroi gaudenak,
iru an ditu Frantziya'k,
gizon gaizto bat dala mediyo
ondatu giñan guziyak,
beste munduan ikusten badet
eman biazkat graziyak!²
- 6/ Persegituak izandu gera
juan da zenbat urtian,
asko zebiltzan agindu nairik
Kantabria'ko partian,
mantxa gabeko lora ederrak
estalirikan lurpian;
errespetua guardatzen zuten
Lartaun emen zan artian,
oraindik ere denbora dago
berriro saia gaitian.
- 7/ Geren sallari segi zaiogun,
ez bestetara mugitu,
motiborikan asko badaukatu
ongi esango nai banitu:
ni engañatzen ez baldin banaiz
Euskal-Erriyak baditu
Kantabria'ren izenik ere
nai ez dutenak aditu;
zazpi senide aita batenak
ezin gerade unitu.
- 8/ Zazpi senide aita batenak
danak euskaldun garbiyak,
Tubal zarraren artaldetikan
banatutako ardiyak,
aitan aitona nungua zuten
ez dakitenak erdiyak;
utzi ditzagun bide illunak,
billa ditzagun argiyak,
beti-betiko bere izena
izan dezan Kantabriya'k.
- 9/ Beren idea beste gauzarik
ez daukatenak buruan,
gaurko egunian alako asko
baditugu inguruan;
esaten zaie Kantabria onek
bere jabia nor duan,
kontra egiten asten zaizkigu
setosuaren moduan,
geren anaiak ez ditugula
esan gentzake orduan.

10/ Baldiñ egiyaz egiña bada
 aurreko zarren papera,
 zazpi probintzi euskerazkuak
 Kantabriatarrak gera;
 nere biyotzak daukan asmua
 beti dioa pakera,
 bide askotatik martxa zuzenik
 ezin gentzake atera,
 onena zein dan ongi neurtuta
 bildu gaitezen batera.

11/ Zazpi senide aita batenak
 egotia emen triste
 fortunatu da desgrazi batez,
 bañan ez genduan uste;
 maitatzen dute etorri dana
 besteren gauzaren eske,
 egunen batez aserre samar
 ikusi biar gaituzte,
 jakin dezaten bagerala gu
 izena degun ainbeste.

12/ Mundu onetan ezin bizita
 ez degu joan nai bestera,
 gezurra esanda ez dago andik
 etorritzerik osteria;
 arrazoi gabe eman ziguten
 lege kontrako jazkera,
 gañera berriz kontari daude
 galduko dala euskera,
 gogor egiten ezpazaiote
 oientzat aña ez gera.

13/ Kolka txarraren azpiyan dauden
 txito urrikalgarriyak,
 amarretatik bost iltzen dira³,
 beste bostak elbarriyak:
 pizti gaiztuen bildurrez beti
 gora begira jarriyak,
 indar gutxiko gorputzak eta
 suspiriyuak berriyak;
 kastigu onen mendian bizi
 gera gaur euskal erriyak⁴.

1. Ikus: Adolf Schulten: «*Los cántabros y astures y su guerra con Roma*».

2. Txirritak berak esaten zuanez, emen On Fermin Lasala, Duque de Mandas jaunarengatik ari da.

3. Paper geienetan, danetan ez: *amarretatik bost iltzen dira ta*.

4. Bertso-papera, «Tip. F. Muguerza e hijos - Tolosa», Loita-azpikoa baserria, Errezil. Onek, moldiztegiaren utsegitez noski, azkeneko puntua (13/10) onela du: gera gaur erriyak.

Bertso-papera, «Imprenta Bermejillo - Pasajes», Juan Maria Arbelaz, Intxaurrondo, Oiartzun.

Bertso-papera, «Imp. J. Díaz. - Irún», Garro baserria, Getaria.

Bertso-papera, «Imp. de J. Echenagusia. - Bilbao», Lazkao'ko Aita Isidoro Baztarrika'ren bitartez eskurata.

Bertso-papera, «Imp. «La Económica». - S. S.», Jose Antonio Berrondo, Erdiko-etxe, Errenteria: 1/1: Orain bi milla urte igaru; 1/9: lastimosuak izandu ziran, 3/3: ez genuela jakin izandu; 3/5: guztiyan; 3/7: zenbait; 4/8: bere erriko lagunak; 6/2: zenbait; 8/5: diran aitona nungua zuten; 11/2: egotia onen triste.

«Bertsolariya» aldizkaria, n.º 2, 1031/IX/27, Aurrekoa bezelaxe.

Txirrita'ren Testamentua, 2.º idaztia, Makazagaren irarkolan, Biteri, 32, Errenteri. Aurrekoa bezelaxe.

«Euskal-Erriko kanta zarrak», Tomo I, Imp. Macazaga, Renteria: Aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. - Renteria», Adelina Sarasola, Lexo bertsolariaren alaba, Antigua, Donostia: Aurrekoa bezelaxe, eta 1/5: garai artako abarka zanak.

«Euskal Kantak» liburua, Donostia, 1959: Aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errotaberri baserria, Igara, Donostia; 3/1: Aitona oiek zer pentsatuzten; 3/3: ez genduela jakin izandu; 3/5: guztiyan; 4/8: bere erriko lagunak; 5/5: lau España'n daduzkagunak; 6/2: zenbait; 6/7: errespetua gordetzen zuten; 7/2: ez besterena mugitu; 8/5: beren aitona nungua zuten; 9/garrena falta du paper onek; 11/2: egotia onen triste; 11/3: fortunatu dana desgrazi batez; 13/9: modu orretan bizi ziraden; 13/10 orduko gure erriyak.

Bertso-papera, moldiztegi izenik gabea, Inazio Zabala, Olazabal-berri, Altzo-azpi. Aurrekoa bezelaxe.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Arrasku baserria, Karrika, Oiartzun: 3/5: guztiyan; 3/7: zenbait; 5/5: lau España'k dauzkagunak; 6/2: zenbait; 6/7: errespetua gordetzen zuten; 6/8: Lartaun bizi zan artian; 7/2: ez besterena mugitu; 7/3. badauzkat; 8/5: beren aitona nungua zuten; 9/4: ikusten dira munduban; 9/5: esaten dute Kantabri onek; 11/garrena falta du paper onek; 13/9: modu orretan bizi ziraden; 13/10: gure orduko erriyak.

«Euskal-Kantak» liburutxoa, Bilbao, 1960: 2/2: ziran gizon seriyuak; 3/5: guziyan; 3/7: zenbait; 5/5: lau Españiak dauzkagunak; 6/2: zenbait; 6/7: errespetua gordetzen zuten; 7/2: ez besterena mugitu; 7/3: badauzkat; 8/5: beren aitona nungua zuten; 9/4: ikusten dira munduan; 11'garrena falta du paper

onek; 13/9: modu orretan bizi ziraden; 13/10: gure orduko erriyak.

«Argja» asterokoan eta «Euzkadi» egunerokoan ere argitaratu ziran bertso auk bein baño gciagotan, egunak esaten ez badakigu ere; baiña ez ditugu aztertut aldaketarik ba ote duten.

FERMIN IMAZ ETA TXIRRITAREN SESIOA

Fermin Imaz eta Txirrita adiskide izan ziran; baiña azkenerako sesio gordin bat izan zuten alkarrekin.

Zertaz ta nola asarretu ziran, alkarri jarri zizkioten bertsoak aditzera ematen dute.

Baiña zerbait geiago jakin nairik, Txirritaren illobari galdetu eta ara ia itzez-itzer erantzun zuan:

«Garai artan, Txirritaren kontu zegoen San Tomasetan Teatroko bertsolariari deitzea; ari enkargatzen zioten.

Beti, edo askotan beintzat, Fermini deitzen zion, beste batzuekin batera.

Urte batean, ordea, garaiz azaldu etzalako-edo, etzion deitu.

Imaz'ek, ordea, bazuen deituko ziolako ustea, ta traje berria egiña zuen ango jornalarekin pagatzeko asmotan, ta ezin pagaturik gelditu zan.

Easo kaleko *Bar Manuel* ortan, txaketa berria artu ta bere asarrean arrika bota zuen esanez:

–Zerekin pagatu bear det nik orain au?

Ta bertsoak jarri zizkan gure osabari.

Jai-goiz batean Errenteria'n azaldu zan, bertso-paper oiek saltzen.

Baita ere gure osabak ordaiñak jarri. Beti bezela, neronek kopiatu nizkan. Etzan bera saltzen ibilli. Besamotzari ta asteasuar bati emen zizkien saltzeko»¹.

Fermin Imaz'ek eta Txirritak alkarri jarritako bertso oiek, urrengo orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak.

1. Jose Ramon Erauskin Lujanbio, Txirritaren illoba, Gazteluene, Altza.

BERTSO BERRIYAK (FERMIN IMAZ'EK TXIRRITARI)

- 1/ Bertsuak jarri ditut
merezi bezela,
zer izan deran jendiak
jakin dezala.
Uste nuban Txirrita
gizon fin bat zala,
bi ontza bada orren
arpegiko azala;
danen kabezala
portatzia ala,
dakit gaizki dala
artu duban gala;
uste det ori ainbat
gizon gerala.
- 2/ Arrazoi aundiyakin
egiten naiz mintza,
nere entendimentubak
ala deritza.
Teatrora juateko
eman ziran itza,
bera ori nola dan
bertsolarin giltza;
nik biar nun agintza
nor izan banitza,
egin diran gaitza
aziyo murrirtza;
lagunak engañatzen
zertan zabiltza?
- 3/ Nor da ni ez emateko¹
esan duban ori?
Nere aurrekaldera
etorri bedi.
Errespuestak aguro
emango'izkat ari²,
gertatzen ezpagera
burutikan eri;
despreziyo ugari
egin dire neri,
kulpik eztunari,
beren lagunari;
naitasun aundirikan
ezta agiri.
- 4/ Santo Tomas bezperan
egindako lana
ezta dirubarekin
pagatzen dana.
Alakuak juntatu
ziran alkargana,
alare neri eman
zabarraren fama;
ez negon erana,
gustatzen zairana,
orrek neregana
ezin eramana;
ondo goguan artu
esan derana.

- 5/ Jateko egon banitz
orren esperantzán,
nere bizimoduba
aspaldi juañ zan.
Motibo aundi gabe
sartu naute salsan,
aziyo ori egitia
prezisua al zan?
Pazientzi artzan, (*sic*)
bera dabil dantzán
teatro ta plazán
ustez konfiantzan;
obeto emango zun
portatu bazan.
- 6/ Ez nuban lasai pasa
San Tomas eguna,
ori da aziyua
egin ziguna.
Damu det nik orrekin
izketan jarduna,
diru pixkat sikiera
artu biar nuna;
zenbaiten barruna:
mingaña leguna,
biyotz gogorduna,
probatu deguna³;
bajubak altxatzeko
ai zer laguna!
- 7/ Ori bera dalarik
guziyon buruba,
laguna tratatzeko
ezta moduba.
Teatrorako eman
ziran enkarguba,
etorritzen zanian
biar zan orduba;
orduko tratuba
ala nun artuba,
berak biartuba,
gauza ziertuba,
gristaba izatia orren
atrebituba!
- 8/ Orduban ez nebillen
modu ederrian:
goizian bezin gaizki
illunarrían.
Orrek baztarrera utzi
laundu biarrían,
orra gure okerra
nundik etorri'an;
eztakit txarrian
zertako jarri'an,
eztauka urrian
lotsik muturrian;
ojala egiñ ezpalit⁴
itz bat aurrian!
- 9/ Jornal-bide ederra
etzitzairan irten,
gauba arek ai zer pena
ematen ditén!
Personik estimatzen
apenas dakiten,
barren guziyak jarri⁵
ziran irakiten;
ai naz itzegiten,
oik zer dabilkiten
zalla da jakiten;
lagunari etzaio
ori egiten.
- 10/ Enpeñatu gaitezen
arrazoi garbira,
illunpetatik nai det
irten argira.
Gustora egingo nun
teatrorá jira,
len ere juañ izán naiz
alako tokira;
etziran kupira
pixka bat sikira⁶,
nerekin gaizkira
portatubak dira;
toki onian negon
orren begira!

11/ Uste nuban Txirritak
niñula maitia,
ezagutzen det orren
borondatia.
Ezta basta izaten
itzak ematia,
ori portatu balitz
banuban partia;
ni penaz betia,
ez naiz kulpantia,
ara ez juatia
neretzat kaltia;
orrela galdutzen da
lagun-artia.

12/ Len ere sobra daki
zer gizon dan Fermin,
beñere aziyo txarrik
eztiyot egin:
berak ordun bezela
utzita aldegiñ,
len baño okerrago
ni gelditu nadin.
Orrek eman dit miñ,
nai baldin ba'u jakiñ,
zer zuban nerekin⁷,
gogor diyot ekiñ⁸,
orla portatzen al da
lagunarekiñ?

13/ Beste astiasuar bat
etzana soziyo,
arek eztu umiak
ainbat juiziyo.
Teatruan erdiyan
or plantatu zayo,
sillan eseri eta
jarriya seriyo;
ustez zegon piyo
asteko propiyo,
berakin bat geyo⁹,
teloyik ez iyo;
bestela bertsuetan
ekiten diyo.

14/ Orra amalau bertso
beatzi puntuban,
batzubak jarri naia
nauzkan kontuban.
Ori portatu bazan
biar zan moduban,
bertsuak jartzen lanik
izango ezkenduban;
bera zan karguban¹⁰,
bertsolari-tratuban,
ni beintzat galduban
gelditu orduban;
aber Fermin Imaz'ek
arrazoi duban.

* * *

Bertso auek, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batetik ditugu. Bertso-paper ori esku auetatik jaso degu: Jose Anjel Sarasola, Olalde, Altzibar, Oiartzun; Mikel Zuaznabar, Sasueta-aundi, Lasarte; eta Isabel Zuaznabar, Basoaundia, Lasarte.

Eskuz idatzita ere jaso ditugu bertso auek, Altza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazkano'ren kuaderno batean.

1. Emateko: e(ra)mateko. Bertso-paperak: Norda ni es-mateco.
2. Bertso-paperak: eman-goizgat-ari.
3. Bertso-paperak: protu deguna.
4. Bertso-paperak: ojala egiñ espalatit.
5. Bertso-paperak: barren guciyak-farri.
6. Bertso-paperak: pishkabat-sikiera.
7. Bertso-paperak: zertuban nerekin.
8. Bertso-paperak: gogor diyok-ekiñ.
9. Bertso-paperak: *barakin bat geyo. Txirita-ren Testamentua 2.º idaztia* liburuxkak: *berakin bat geyo*. Orrela idatzi degu, zuzena bera dalakoan.
10. Bertso-paperak: bera-san garguban.

BERTSO BERRIAK

TXIRRITAK JARRIAK

- 1/ Fermin Imaz deitzen dan¹
binoteru orri
lengo bertsuen bueltak
biaizkat jarri.
Nai bazenduen jakiñ
teatroko berri,
zertan etziñan garaiz
nigana etorri?
Orain erriz erri
or zabiltza larri,
nai dubenak neurri
kulpante zegorri,
afana franko eta
talentuz urri.
- 2/ Ernani'n jaiua naiz,
an bertan aziya,
Jose Lujanbio da
nere graziya.
Amabost urterako
lan ontan asiya,
oraiñ Fermin Imaz'ek
eman dit auziya.
Badakat sasoya,
gorputza lasaya,
billatutzen saya
nun dan arrazoya;
sekulan enaiz izan
zure etsaya.
- 3/ San Tomasez esan du
mozkorra etzala,
nik erantzungo diyot
bai ala zala.
Izan liteke ona
eta serbitzala,
bañan egiten diyot
arduak itzala.
Nere kontra ala
oju eta gala,
gaiztua nitzala,
gaizki gabiltzala;
obia da pasa zan
juan zan bezela.
- 4/ Txarraguak esango
nizkioke, baña
kupitu egiten naiz²
ni alajaña.
Uste al du dagoala
kantari bikaña,
egingo lukiela
esanaz nik aña?³
Badaduka griña⁴,
intentziño piña,
zuk daukazun miña:
supritu ezña;
deituko ziñuzteke
kapaz baziña.

- 5/ Neri lotsagabia
zuk dirazu esan,
inozente dagonak
sinista dezan.
Iñoiz jardunak gera
zu eta ni plazan,
beti gelditzen ziñan
bajuaren trazan.
Zuk nai zendun ditxan
ni arkitzen nitzan,
ez arrua izan
esponjaren gisan;
zegorrek pentsa zazu
nola zabiltzan.
- 6/ Bera bañan oberik
eztala iñon jayo,
mozkor-aldin batian
itzul'in zayo.
Gradu altuetara
nai du orrek iyo,
allegatuko dala
enitzake piyo.
Itzegin du yayo,
erantzungo zayo,
muturra seriyo
gezurra dariyo;
salda gatzik gabiak
eztu baliyo.
- 7/ Bertsuakin nai luke
orrek aberastu,
bai ezpalizkiyote
paperak ostu.
Kanpuan ibilliyak
badu milla gastu,
ezpaldin bazabiltza
kompasian justu.
Eran arte estu,
berak aldrebestu,
egon zaitez prestu⁵,
ez kopetik beztu;
muatzen dan monedik
iñork nai eztu.
- 8/ Goiz tabernan sartuta
atera berandu⁶,
premi aundirik gabe
zenbait eran du.
Nekatu gabetandik
nai luke mantendu,
andriak egiñetik
ogiya jaten du.
Bost aldiz esan du,
entzun nai bazendu,
zurrutak sutzen du,
ark eziñ zuzendu;
gaxuak larrutikan
pagatutzen du.
- 9/ Errenteriya'n ziñan
kantari azaldu,
nere kontra paperak
ziñuen saldu.
Beste batzuek berriz
mozkortuta galdu,
aldrebestasunian
oi zeñek igualdu?
Memoriya auldu,
izketa moteldu,
neri artzen kargu
lotsarik bai aldu?
Motibuak badauka
nundikan eldu.
- 10/ Gazte-denboran ziñan
zu nere laguna,
errespetokua ta
iztun leguna.
Orain elkarrri esaten
goatzen zaguna,
au da jolas-bidia
ipiñi deguna!
Zu zerala ona
zabaldtu da sona,
zedorrek esana,
ongi dakizuna;
amar aur azitzeko
ai zer gizona!

11/ Nik eztiyot emango
juezari parte,
berriz ere jarrita
kantatu fuerte.
Bertsuen almazena
ez daukat aparte,
bueltak emango ditut
kapaz naizen arte.
Makiña bat kolpe
eman dezu torpe,
arrazoi baluke
aitortuko nuke;
nigana noiz bildu zan
esango dute.

12/ Anakak zabaldu eta
balantzaka asi,
kopeta illunduta
begiyak itxi.
Aurrian zein daguen
ezin du ikusi,
txandarikan eztiyo
iñori nai utzi.
Oju eta irrintzi
iñork ezetz autsi,
orrek nai du bizi
guziyen nagusi;
iñon ametitzerik
eztu merezi.

* * *

Bertso auek, moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batetik kopiatuak ditugu. Bertso-paper ori esku auetatik jasoa degu: Isabel Zuaznabar, Basoaundia, Lasarte; eta Juan Iturralde, «Juanito Kojua» alegia, Donostia.

Eskuz idatzita ere arkitu ditugu, Alza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazkano'ren kuaderno batean.

Txirrita'ren Testamentua, 2.^o idaztia liburuxkak ere (*Makazagaren irarkolan, Biteri, 32, Errenderi*) argitaratu zituan bertso auek. Aitatzetik merezi duan aldatarik gabe, ordea.

1. Bertso-paperak: Fermin Imas deitzenda.
2. Bertso-paperak: cupitu eguitenas.
3. Bertso-paperak: esanas nik nik aña.
4. Bertso-paperak: badauca griña.
5. Bertso-paperak: eron saites prestu.
6. Bertso-paperak: etera berandu.

BERTSO BERRIYAK

(FERMIN IMAZ'EK TXIRRITARI)

- 1/ Desprezio bat egin
diraten meriyo,
bi bertsolari gabiltz
oso seriyo.
Len lagunak giñanak
oraiñ kontrariyo,
egitan ari danai
luzituko diyo.
Onrai amoriyo,
gora nai det iyo,
gero ta egokiyo,
ortan izan piyo;
bestela arrazoiak
eztu baliyo.
- 2/ Zuzen eraman nai det
asi dan ariya,
Txirrita, badaukazu
orren premiya.
Andriak eginda jaten
derala ogiya,
gaizto ta inbustero,
gezur-kontariya.
Zure memoriya
ezta ugariya,
talentu eriya,
korputza nagiya,
errespeto gutxiko
bertsolariya.
- 3/ Ni sano asko nitzan
San Tomas bezperan;
zurekin kantatzeko
deran euskeran.
Ordun e ez nun egin
zuk ainbat jan da eran,
gertatzen nitzalako
alako tankeran.
Zuk jarri paperan
gezurak aukeran,
arrazoirik deran
etzaude ezagueran;
denak dakite nola
portatu zeran.
- 4/ Zenbateraño naizen
nai dezu probatu,
menderatu nai baña
eziñ logratu.
Zuk gaizki egin eta
nik nola barkatu?
Urrengoan gizona
obeto tratatu.
Eztizut faltatu,
ain gutxi markatu,
etziñan portatu,
esanak ukatu;
nik orduko jornala
nai det kobratu.

- 5/ Ondo errepasatu det
nik zure dotriña,
neretzat billatu det
oso zikiña.
Badaukat motibua
sentitzeko diña,
oraindik jua etzaizu
gaztetako griña.
Zaude utsegiña.
gaizki itzegiña,
txarrakin jakiña,
ai buru ariña!
Zu ari zera jaten
bestek egiña.
- 6/ Fameliyan sartzia
ai zeñen gaizki'an!¹
Zer ikusiya daukazu
nere emaztian?
Arro zere buruba
lasai ikustian,
bestela ibilli biar
zenduna eskian
bata ta bestian,
jai eta astian,
estadu tristian;
ni nere ustian²
nunai azalduko naiz
zu ainbestian.
- 7/ Arrazoi ederrikan
nago ni entzuna,
bire txarretan jua
biar etzuna.
Ori da onrabidia
jarri dirazuna,
sekulan e lotsikan
izan eztezuna.
Deran ontasuna
galdu nai nazuna,
ai zer naitasuna
zuk dadukazuna!
Nere andriakin a! dezu
eginkizuna?
- 8/ Galduta ibilliya
naizela bertsuak,
Errenteriya'n saldu
nitun batzuak,
gertatu egin litezke
alako kasuak.
Zuk jarritako oiek
eztaude gozuak,
oso penosuak,
badaki auzuak,
daukaizkit jasuak,
gezurtiosuak;
nai dana esan libre
kristau falsuak.
- 9/ Nere gisa zu ere
tabernan sartuta,
ikusi izan zaituzte
txit zabartuta:
patrikaran dituzun
dirubak galduta,
maldiziyoka gogor³
eziñ billatuta,
iya erotuta,
tximak arrotuta,
eziñ burututa,
kopetai elduta;
far eiten det askotan
gogoratuta.
- 10/ Etixerako ezterala
izaten presarik,
orri ez gustatzen nunbait
ardo gozorik:
nik basoka bezela
litroak osorik,
gero ezin emanikan
aurrera pausorik.
Ezta bertsolairik
oi beziñ lasairik;
etxian sikerik
eiñ gabe kasorik,
zuk bezela, ez det pasa
aste osorik.

11/ Itzak legunak eta
biyotza bestera,
gu orren mingañian
ezer ezкера.

Ia nola ibiliya
ote dagon bera:
zapartuta erorita
espalda atera.
Orren ezaguera
juna dago bera,
ez etorri onera
lotsak ematera;
zu baño zintzoguak
izandu gera.

12/ Uste al dezu nagola
arrazoi gabia?

Itzak emanda nazu
gaizki lajia.
Ikusi ezpanizu
neretzat obia,
ori ondo dakiten
gizonak badia.
Ukatzen trebia,
ai, Fermin ordia,
naiz izan pobria,
da gizon noblia;
zu berriz alper danen
diretoria.

13/ Motibo gabe ez naiz
lan ontan asiya;
nun dezu orduko nere
irabaziya?

Argatik eman dizu
Ferminëk auziya,
lotsagabia esatia
dezu mereziya.
Zuk dezu guziya
ezin ikusiya,
eta maleziya
danen nagusiya,
ajolarik etzaizun
gaizki eziya.

14/ Nola peontzan eta
alatsu argintzan⁴,
lanian gogotsuba
etzera izan.

Beti zarpa zarrakin
ijituan gisan;
dakitenak baira ni
gaztetan zer nitzan.
Nai badute esan,
lana egin noblezan,
naiz bizi pobrezan,
erremeioik etzan;
saiatuta galanki
irabazten zan.

15/ Parte emango eztezula,
ai, juezetara,
arrazoyik b'al dezu
zuk ezertara?

Nai dezunian biyok
juango gera ara,
orrekkin eztirazu
sartuko ikara:
kararikan kara,
ondo errepara
zure kanterara
nola'ituzun para,
aber erortzen zeran
arrazoitara.

* * *

Bertso auek ere, moldiztegi izenik ga-
beko bertso-paper batetik ditugu. Bertso-
paper ori esku auetatik jasoa degu: Isabel
Zuaznabar, Basoandia, Lasarte; Arras-
ku-larre baserria, Oiartzun; Jose Anjel
Sarasola, Olalde, Altzibar, Oiartzun; Mo-
nika Galarraga, Juanito Zabaleta bertso-
lariaren alarguna, Erretereri.

Txirrita'ren Testamentua, 2.^o idaztia li-
buruxkan ere (*Makazagaren irarkolan*,
Biteri, 32, *Erredereri*) agertu ziran bertso
auek, eta aldaketarik gabe agertu ere.

Bertso-papera, «*Imp. Barrio Eguía, 6*» moldiztegian argitara emana, Usurbil'ko Egiluze-txiki baserrian arkitua.

Eskuz idatzita ere arkitu ditugu, Al-tza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazkano-ren kuaderno batean.

-
1. gaizki'an; gaizki dan.
 2. Bertso-paperak: nik nere ustian. Baiña *ni* bear duela uste degu, *azalduko naiz* aditzarekin baitijoa.
 3. Bertso-paperak: maldicika yo gogor.
 4. Bertso-paperak: alatzu arkitzan.

BERTSO BERRIAK

TXIRRITAK JARRIAK

- 1/ Bigarren txandan Fermiñek kantak
ni mendratzeko pozian,
arrazoi-bide aundirik gabe
dabill tankera motzian.
orren kontuak bostetatik lau
gezurrak izango zian,
orain ordañak artu ditzala
ijituaren bozian.
- 2/ Ori tabernan sartu ezkerro
beti aingeru-jazkeran,
arriturikan dago jendia
nola itotzen etzeran.
Buru guztiya nastua dauka,
faltatutzen du euskeran,
zeuk esan dezun funtziyu ori
etzan San Tomas bezperan.
- 3/ San Tomasetan seiak aldian
zertan etziñan juntatu?
Komenentziya jarriko nizun
nai bazenduen kantatu.
Nik orduantxe zein juango ziran
biar nuben apuntatu,
ipurdiyari atzegiozu
ez bazerade kontentu.
- 4/ Elkarrri artu biar dizkagun
kargu-klasiak ok tia?¹
Kojuenera zertan ez bildu,
juan dan urteko tokia?
Nekatu gabe gustatzen zaizu
mokadu onak jatia²,
kalerik kale nai al zenduen
ni zure billa juatia?
- 5/ Ernegatuta bezela nago
zu bezelako gizonex,
baldarragorik ez det billatu
ni akordatzen naizenez.
Isildu gabe beti or zaude
ona zerala esanez,
juango ziñake gustora baño
iñondik deyik izan ez.
- 6/ Geienak gera zaliak baño
kontu izan eranian,
ez al dakizu zer pasatzen dan
deskuiratzen geranian?
Nundik-nai deia izango dezu
trebe bazaude lanian,
zenbaitek danak paltsuak ditu
bera mozkortzen danian.

- 7/ Andriagandik apartatuta
iñoiz ibilli da ori,
erdi mozkorra zegon batian
berak esan ziran neri.
Arduarekin adiskide da,
gorroto gutxi lanari,
agindutzia ez du baliyo
berez alperra danari.
- 8/ Geren barrengo sentimentuak
esan ditugu itz biñan,
gaita txarrian egon bagiñan
orrenzat ainbat ez giñan.
Zenbait naigabe pasatu dezu
kaieko Portal-izkiñan,
orañ e noski etzera egongo
Hotel Maria Cristiñan.
- 9/ Gutxiyenko bost ofiziyo
badituzu len pasiak,
ongi saiatu izan baziñan
baliyo zuten klasiak.
Berriz andikan ez dezu deyik,
gelditu ziran asiak,
argintzan bizi biar badezu
galduko zaitu gosiak.
- 10/ Lenago ere ibilli zera
oso tankera txarretan:
egunak pasa parrandan eta
lotan ukullu zarretan.
Ez dakit nola utzi dituzun
pagatuta edo zorretan,
nik baño obeto jakingo dute
Antigualde orretan.
- 11/ Gañera burlaz jarri dirazu
autsi derala besua,
asko dakiyen batek jartzeko
ai zer nolako bertsoa!
Gizon txarrari edozein gauza
esanda're igualtsua,
ni ez naiz izan zu zeran bezin
alperra eta paltsua.

12/ Maiatza da-ta arrantz aundiyak
egiten ditu larrian,
atzian biar luken puska bat
lastimaz dauka aurrian.
Nere erdiya ez daki eta
ez da konforme parrian,
tontor aundiyak bajatutzeko
ez dabill leku txarrian.

13/ Jendia franko juntatu izan da
bertsolariyen sonara,
diru pixka bat irabazteko
franko paraje ona da.
Ez al zaizkitzu akordatutzen
lenagoko bi jornada?
Berrizko deyik nai duenikan
ez mozkortuta jun ara.

* * *

Bertso auek, «*Imp. «Aurrerá» Herrera*» moldiztegian argitara emandako kanta-paper batetik ditugu. Paper ori, jaun auen eskuetatik jaso degu: Joakin Ganborenea Zabala, Errenteri; eta Anizeto Kalonje, Oriamendi baserria, Aiete, Donosti.

Eskuz idatzita ere arkitu ditugu bertso auek, Altza'ko Otxoki baserriko Patxi Lazkano'ren kuaderno batean.

Txirrita'ren Testamentua, 2.º idaztia liburuxkak ere (*Makazagaren irarkolan, Biteri, 32, Errenderi*) baditu bertso auek. Baiña aldaketarik gabe.

* * *

Bertso-sail bat iñoren buruan nola gordetzen dan ikusi aal izateko, on izango da adibide bat ematea; Oíartzun'go Ugaldetxo auzoko Larria baserriko Frantzisko Labandibar zanaren aotik bertso auek nola jaso nituan agertzea, alegia.

Amaika bertso eman zizkidan: 1, 2, 3, 5, 6, 7, 9, 10, 11, 12 eta 13'garrena. Bi bertso falta, beraz: 4 eta 8'garrena.

Aldaketak: 2/5: buru guziya nastuta dauka; 5/3: baldarragorik ez det billatzen; 5/5: ixildu gabe beti or zabiltz; 5/7: gustora joango zifake bañan; 6/5: nunaitik deia izango dezu; 7/7: agindutziak ez du balio; 9/5: berriz ez dezu aitatik deyk; 9/7: argintzan bear baldin badezu; 10/1: Gañera berriz ibilli zera; 10/2: oso tankera motxetan; 11/1: Gañera berriz jarri dirazu; 11/5: zenbait pertsonai zernai gauza; 12/3: atzian bear lukien puska; 12/7: tontor aundi (y) oi bajatutzeko; 12/8: etzaude leku txarrian; 13/1: Amaika aldiz ibillia da; 13/4: oso lagun ona da; 13/7: berrizko deia nai duana.

-
1. ok tia: ok dira.
 2. Bertso-paperak: mokau onak jatia.

BERTSO BERRIYAK

FERMIN IMAZ'EZ TXIRRITAI JARRIYAK

- 1/ Txirrita, eztezu eskola ederra
oso ikasi gazterik,
arrazoi gabe ari danari
ezta inola uzterik.
Jarri dituzun bertso oriyek
eztute eman gustorik,
zeregatikan eztadukazun
miñgaiñ gaiztua besterik.
- 2/ Gaztetan txarra izan zera ta
okerragua zartzera,
zu baño gizon jatorraguai
zatoz konduta galtzera.
Gezurrak brokal aurrera bota,
egiyak utzi atzera,
emakumia izan baziña
miñgain gaiztoko saltsera.
- 3/ Naiz oso zentzu garbiyan egon
eta igual da erana,
mundo guziyak badaki ondo
gristau gaiztua zerana.
Ibilli zeran toki danetan
petardo txarrak emana,
artzekorikan baldin banazu
etorri zaitetz nigana.
- 4/ Esaten nazu andriagandik
nagola apartatuta,
erreparua ar zazu ondo
zere etxeko kargutâ.
Sasoi onenak jua da gero
al zaude akordatuta,
alper aundi bat zeran meriyo
iñork etzaitu artu-ta?
- 5/ Biyok gertatu izan geranez
teatruan da plazetan,
nere aurrian ikusi etzaitut
gaizki esaten bestetan.
Amaika bider sartu zerade
fameliyako gauzetan,
orlako lanak ekartzen ditu
gaizki eziyak gaztetan.
- 6/ Norberak mantxak eduki eta
besteren gauzak neurtutzen,
alakuakin zall izaten da
pazientziya artutzen.
Pakian dagon fameliyari
okasiyua sortutzen,
kontzientzizko kargari asko
eztiyo begiratutzen.

- 7/ Baztar guzitan nazka eman du
zabaldu dezun dotriñak,
zu ta ni biyok arrazoietan
ezkera berdiñ-berdiñak.
Biziyatuba zaude zurrutak,
gañera joku zikiñak,
tripan dauzkatzun marka oriyek
nola dituzu egiñak?
- 8/ San Tomasetan ni bildu nitzan
esan zenduban tokira,
gezurrak eta saltsak jartzeko
eztezu izan kupira.
Eta ori're ondo dakiten
testigubak e badira,
oso aztuta al dadukazu
arrats artako partira?
- 9/ Aurrekaldian dadukatena
biar derala atzian,
Jainkuak daki zenbateraño
faltatutzen dun itzian.
Juntaera bat izandu nuban
orrekiñ zori gaitzian,
begiyen bistan ikusi ez banu
penik emango etzian.
- 10/ Ajolgabe bat zerala oso
aspaldi nago igarrita,
juiziyorikan eztunarekin
aritzia alperri-ta¹.
Astotzako're tratatzen nazu,
Jose Manuel Txirrita,
aundiyenak zein ote giñake
anketan perrak jarrita?
- 11/ Lotsa aundi gabe esaten nazu,
oso naitasun zikiñan,
zenbat naigabe pasatu deran
Portal aurreko izkiñan.
Beste geio're gertatzen dira
munduban bizi eziñan,
zuk e obeto biar zenduban
zintzua izan baziñan.
- 12/ Utsa litzake bertsuak jartzen
ari baziña egitan,
ez len da orain etzera iristen
bertsolariyen neurritan.
Mundu onetan zu zerade bat
zikiñ guziyen kapitan,
nik ukullutan lo egin badet
zuk berriz zerri-tokitan.
- 13/ Despreziyua egin, gezurrak jarri,
gero gañetikan burla,
uste al dezu jendiak ori
gaur ontzat artuko dula?
Jakiñian nago irurogei ta
zazpi urte dituzula²,
arritutzen naiz ez lotsatzia
edade ori dezula.
- 14/ Oraindik ezta iñork zabaldu
modu ortako dotriñik,
ez nun siñisten Txirritakuak
ainbesteraño zekiñik.
Eztet proatu nolakua dan
Hotel Maria Cristiñik,
bañan apenas ametitzen den
zu bezelako zikiñik.
- 15/ Oiera juañ biar badu're
bere erropa ta guzi,
zabarragorik nere aurrian
beste bat eztet ikusi.
Ostatun igual tripa bete ta
pagatu gabe igasi,
errespetua nolakua dan
oraindik ezta ikasi.
- 16/ Jose Manuel Txirritakua,
zer zabiltzaden gogora,
oraiñ gaiztua baldin bazera
ondu zindezke gerora.
Pazkuakuak egiteko're
badatorkigu denbora,
esamiña ondo eginda juañ
konfesorian ondora.

17/ Nik bezelaxe zure esana
askok daduka jasua,
aprobatuko dizut zerala
nun-nai gezurti osua.
Zedorrek kulpak eduki eta
besteri jarri lazua,
nai eztezula ein aziko'zut
tribunalera pausua.

* * *

Bertso auek, *Imp. «Aurrerá» Herrera* moldiztegian argitara emandako bertso-paper batetik ditugu. Bertso-paper ori jaun-andre auen eskutik jaso genduan: Errenteri'ko Makazaga moldiztegian, bertako nagusi zaarra; eta Errenteri'ko Monika Galarraga, Juan Zabaleta bertsolariaren alarguna.

Bertso-paper onekin ixildu zala uste degu asarre-aldi ura. Guk dakigularik beintzat, etzion Txirritak bertso-sail oni erantzunik eman. Ezta Fermin Imaz'ek bertso geiago Txirritari jarri ere.

Azken bertsoan, auzitara eramango duala esaten dio Fermin Imaz'ek Txirritari. Bere itz ori bete ote zuan ez dakigu.

1. alperri-ta; alperrik da.

2. Emen eskeintzen zaigu Txirrita eta Fermin Imaz'en asarre-aldia zein urtetakoa dan somatzeko bidea: Txirritak orduan irurogei ta zazpi urte baldin bazituan, eta 1860'an jaioa baitzan, 1927 urtea degu.

BERTSO BERRIYAK

Txirritaren illobak esan zigunez, bertso auek bere osabarenak dira. Seguru asko, berak kopiatuak. Eta puntu bat edo beste ere bururatu zitzaizkion.

Neskatxa batek mutil bati jarritako bertsoak dira. Obeto esateko, Txirritari eskatu zizkionak. Mutillak despeira eman baitzion, alkarrekin bost urtean tratatu ondoren.

Baiña beste bi jarri-aldi ere atera zizkioten alkarri. Bertso auetako bigarrenak onela baitio:

Lenago're nik jarri nituben
galai orrentzat bertsoak...

Eta irugarrenak:

Nere bertsuen buelta kantatzen
dabil kopeta beztuta...

Bertso jartzeari neskatxak ekin zion, beraz; eta mutillak jarraitu. Bi jarri-aldi auek galduta daude; ez ditugu inon arkitu.

Urrena, berriz, neskatxak onako jarri-aldi au atera zuan. Eta mutillak berriro erantzun ote zion ez dakigu.

Ala komeni dala iritzita, erri-izenak eta neskatxaren izen-deiturak kendu egin ditugu.

Bertso auek iru argitaraldi izan dituzte bertso-paperetan. Oien berri oarretan emango degu.

1/ au da¹
nik dadukadan graziya,
..... 'ko naturala naiz²
..... 'n bertan aziya³;
auzoko galai batekin nitzan
ustez tratatzen asiya,
ori dan arte ezta faltako
gezurra ta maliziya.

2/ Lenago're nik jarri nituben
galai orrentzat bertsoak,
arrazoi gabe ari naizela⁴
omen diyote batzuak;
inposible da lau zientziyak
daukazkiyela osuak,
edo zin gauza eragiten du
kristau eskandalosuak.

3/ Nere bertsuen buelta kantatzen
dabil kopeta beztuta,
bere buruba garbitu nairik
bazar guztiyak nastuta,
egin dizkian despreziyuak
dauzkadalako aztuta⁵,
lotsa gaiztua gal dakiyola
lenago asko ezta-ta.

4/ Bost urte dira pasatuxiak
adiskidetu giñala,
personak ezta muatu biar
asi ezkeru bein ala;
inozentiak engañatutzen
egin dezu egiñala,
garai arretan ez nuben uste
orren paltsua ziñala.

- 5/ Soldaduskara juañ ziañanian
zeorrek esan zenduban
ni baño neskatx maiteagorik
etzendubala munduban;
aski gustora egoten giñan
biyok alkarren onduban,
geroztik orla muatu zea
tela txarraren moduban.
- 6/ Pruebak neronek ikusi ditut,
ez det auzotik jakaña;
mundo guziyak ezagutu du
eztala persona piña;
berak nai zuben ainbat pikardi
ezta nerekin egiña,
komentziak jartzen zituben
artako egon bagiña.
- 7/ Auzotar batek enteratu nau
guztiz modu egokiyen:
nobiyuak zer martxa dabilkan
aber bai al nerokiyen;
itzak ederrak, begiyak alai
eta biyotza tranpiyan,
gusto onikan eman biar du
allegatzen dan tokiyen.
- 8/ Zuk neri egin dizkiatzunak⁶
esatekuak ezta:
neri despeida eman baño len
billatu dezu bestia;
ongi zekiten toki batetik
jakin nuben albistia;
zuk emazterik artzen badezu
urrikari det tristia.
- 9/ Ezagaturik nola zebillkan
iñor engañatu-naia,
etorritzeko abisatuaz
bialdu niyon anaia;
gizon justu bat balitz bezela
presentatu zan galaia,
egunsentiko izarra bezin
argiya eta alaia.
- 10/ Ta esan niyon: «Nere biyotzak
au da sentitzen duana:
neri despeida eman baño len
besterengana juana».
Erantzun ziran: «Albisti ori
iritxi bada zugana,
inbusteron bat etorriko zan
ezin supritu zubana».
- 11/ Ta galai orrek itzezin zian
guztiz izketa gozuan:
«Elkarri beira egondu gera
juan dan bost urte osuan,
geren lanari segi zaiogun
beñ asi giñan kasuan,
guregatican iñork gaizkirik⁷
esan ez dezan auzuan».
- 12/ Ola esanaz abiatu zan
ni triste asko utzita:
«Bizirik banaiz denbora labur
egingo dizut bisita».
Martxa onikan etzendubala
orduko negon etsita,
orrelakua ezta pagatzen
bizkar-egurra autsita.
- 13/ Despeirarekin etorri ziañan
urrengo arrats batian,
karta sotora bota zendian,
etziñan sartu atian;
aziyo ortaz oroituko naiz⁸
bizirik naizen artian⁹,
amaika gezur sartu dirazu
juan daneko bost urtian.
- 14/ Kontari dabil peno dubela
nik modu ontan uzta,
beraren kartak deklaritzen du
nola darukan bestia;
bost urte pasa alkarrekin da
ai au despeira tristia!
..... 'ko neskatxa danak¹⁰
orrentzat ainbat ezta.

15/ Zentzu gabeko arrazoi asko
atera dezu autikan:
eskolarikan ez daukatala
diozu neregatikan;
eskribiante ederra zera,
ongi dakizu pratikan,
alaxen ere serbiziuan
etziñan egin kapitan.

16/ Jendia franko engañatu du
bateko eta besteko,
zuk etzendukan arrazoirikan¹¹
bueltak ematen asteko;
buru arin bat bada naikua
baztar guziyak nasteko,
uste deanez obia zaude
artzeko bañan uzteko¹².

1. Neskatxaren izen-deiturak.
2. Neskatxaren erria.
3. Neskatxaren baillara.
4. Bertso-paperak: *ai*.
5. Bertso-paperetan: *dauzcat dalaco aztuta*.
6. Bertso-paperak: *nei*.
7. Bertso-paperak: *ñor*.
8. Bertso-paperak: *orta oraituco*.
9. Bertso-paperak: *nayen*.
10. Neskatxaren erria.
11. Bertso-paperak: *suc etzenduecan errasoycan*.
12. Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errenteri'ko Makazaga'renean.
Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Orendain'go Juan Garayalde'ren eskutik jasoa.
Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Errenteri'ko Joakin Ganborena Zabala'ren eskutik jasoa.
Iru bertso-paper auek ez dute beren artean aita-tzeko diña dan aldaketarik.

(1923 edo 1924)

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

Pernando Amezketarrari bi alditan jarri zizkion bertsoak Txirritak. Bata onoko au, eta bestea onen urrengoa.

Leenengo saillaren azkeneko bertsoan onela dio:

Gure Fernando Bengoetxea
egun urte da il zala...

Eta Pernando 1823'garren urtean il zan ezkeru, bertso auk 1923'garrenean jarriak dira.

Bañan baditeke 1924'garren urtekoak izatea. Ontan egin baitziran Pernando il zaneke eungarren urteko ospakizunak.

Doiñua, Oiartzun'go Inazio Pikabea'k kantatua, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek paperean ezarria.



1/ Lagun on batek enkargatu nau
bertso berriyak jartzeko,
neonek ere badet gogua
arren itza mantentzeko;
obek izango dira Fernando
Amezketarrarentzako,
festa-denboran kanta ditzagun
tristura danak kentzeko.

- 2/ Tolos'aldera maiz bajatzen zan
deus gutxiren aitzakian,
ostatu zarrak bisitatuaz,
ango berri baizekian;
usai gozua zegon tokitik
nekez jungo zan plakian,
bertso ederrik kantatzen zuben
allegatzen zan tokiyan.
- 3/ Neonek ez det ikusi baño
dakizkit bestek esanak,
intzizu batek aña malezi¹
bazuben Fernando zanak;
barruti gutxi erosi eta²
beti ardiyak gizenak,
arrazoia da saiatutzia
premiyan dagon gizonak.
- 4/ Bederatzi seme-alabarekin
bere emazte ta guzi,
ezta euskaldun abillagorik
sekulan iñon ikusi;
ardi batzuek baituagatik³
nekez juango zan igasi,
juezetara deituta ere
askotan bera nagusi.
- 5/ Beñ juez batek otsegin zion:
«Atoz, amigo maitia;
zurekin itz bi egin biaitut,
sillan eseri zaitia;
kostako zaizu oraingo teman
irabazi ta juatia».
Erantzun ziyon: «Bai bedorri're
eztan tokitik jatia».
- 6/ Juezak, pranko aturditurik⁴,
beiratu zuan atzera,
bañan Fernando seriyo zegon
obispo baten antzera:
«Apatxo-borda'n bizitzen zeran
bertsolariya al zera?
Ez det zurekin ezer ere nai,
bazijuazke etxera».
- 7/ Aberats askok maitatzen zuen
pobria izanagatik,
grazi aparta zedukalako
bertsotik eta kantatik;
arrazoia ongi neurtzen zakiyen
ondotik eta puntatik,
makiña bati gusto emanda
juana da mundu ontatik.
- 8/ Oroipen asko ditu Fernandok
ain zan gizon zelebria,
interes asko etzuen bañan
alaia ta alegria;
astian bitan bajatutzen zan
Tolosa ta Alegria,
garai arretan Laskabonian⁵
zuben ostatu libria.
- 9/ Andriarekin alkar artuta
bein atera zan etxetik,
atsua aurrian eta Fernando
makillarekin atzetik;
isil kontuak ola esanez
maite zuben biyotzetik:
«Gaur oraindikan jan biar dïgu
bikariyuen eltzetik!».
- 10/ Eriyosuar andre gaisua
sartu zan apaiz-etxera,
bikariyuak uju egin ziyon:
«Gizona, erotu al zera?
Beraz, Fernando, makillarekin
zere emaztia jotzera?
Ikuitzen ere baldin badezu
gaizki ibilliko zera!».
- 11/ Bañan Fernandok egiten zuan
beti asarre-papera:
«Gaur eltzerikan eztit egosi,
ortik okertuak gera».
Erantzun ziyon: «Gurian bada,
iyo zaitezte jaterra,
baño andria jotzen badezu
zere kontuak ateral!».

- 12/ Bazkari jaten ari zirala
bikariyuak galdetu:
«Emazteari zer îngo ziñon
bazenduen arrapatu?».
«Plater oneri bezelaxe nik
azkar lepua biortu!».
Ezurrak apaizari emanta
Fernandok mamiak artu.
- 13/ Fernando zanak arrats batian
ardo-puska bat eran du,
orma galanta ari zubela
etxera juan zan berandu;
ordu ta erdiyan atal onduan
etzan gustora egondu;
parragarrizko kontuak dira
ondo esango bagendu.
- 14/ Emazteari uju egin ziyon:
«Ez al zerade kupitzen?
Gizonik ezta atal onduan
modu ontan edukitzen!
Nere burua galtzera nua
ezpanazu irikitzen!».
Oiek guziyak adituta ere
andria etzan jaikitzen.
- 15/ Fernandok, bere koleran juanda,⁶
altxatu zuben arriya,
putzura bota ta egin zuben
soñu bat izugarriya;
kamis utsian atsua juan zan,
aren orduko larriya!
Aizkenerako ikusi zuben
berak istillu gorriya.
- 16/ Putzura arriya botatzeakin
emaztia engañatu,
epel samarra bazegon ere
ederki ziyon freskatu;
parajerikan onena nun zan
gizonak zuan billatu:
andre gaxua kanpoan utzita
Fernando barrenan sartu.

- 17/ Sesiyo gutxi izaten zuben⁷
ain zan gizona bapua,
zenbait aberats eta pobreri
parra eragindakua;
aita jaiotzaz adunatarra,
bera Amezketa'kua,
parroki (y) artan bataiatua,
Ispillazâl etxekua.
- 18/ Gure Fernando Bengoetxea
egun urte da il zala,
denbora askuan sentitzen degu
ark utzi zuben itzala;
Jaungoikuari eskatzen diyot
nai lukienak bezela:
komeni bada arren anima
zeruan izan dezala⁸.

1. Parte gaiztoko emakumezkoari sorgiña esaten zaion bezela, gizezkoari *intzizu* edo *intxizu* esaten zaio Oiarzun aldean. Baserria ere bada Oiarzun'en *Intzizu-enea* deritzaiona. Agian *hechizo* edo *hechicero*'tik etorriko da. (D. Manuel Lekuona'ren argibidea).

2. Bertso-paperak: *barrote*.

3. Bertso-paperak: *banatuagatik*. Baiña Txirritaren illobak *baituagatik* dala esan digu, eta dudarik gabe ola obeto dago.

4. Bertso-paperak: *Jueza*.

5. Lazkaotarrak esaten zioten taberna izango da. Tolosa'ko Plazuelan zegoan. Ardo txuria, oso ona izaten omen zuten, Gaztela'tik ekarria. (Antonio Labayen jaunaren argibidea).

6. Bertso-paperak: *Fernando*.

7. Bertso-paperak: *seriyo*. Txirritaren illobak dionez, *sesiyo*. Eta obeto dagoalakoan, onela jarri degu.

8. Bertso-papera, «Imp. de J. Díaz. - Irún», Usurbil'ko Egiluze-txiki baserrian jasoa.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Oiarzun'go Karrika baillaran, Arrasku baserrian jasoa. Aldaketa bakarra du: 4/1: Bederatzi zeñere ta alabarekin. Ta 12 ta 16'garren bertsoak falta ditu.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea au ere, Altzo'ko Inazio Zabala'ren eskutik jasoa. Aurrekoa bezelaxe.

BERTSO BERRIAK
TXIRRITAK JARRIAK
PERNANDO AMEZKETARRARI

- 1/ Ijiniero baten etxera
juan zan egun batian:
urre-barra bat aundi samarrak
zenbat balio lukian.
Erantzun zion: «Etorri gero,
esango dizut jatian,
bazkal-onduan gero kontuak
egingo dira kafian».
- 2/ «Urre barr'ori nun dezu bada,
nere baserritar ona?»
«*Por si acaso* billatzen badet
galde egin diyot, jauna».
«Danak debalde uzten dizkitzut
gaurko erana ta jana,
naiago nuke etxe ontatik
baldin bazeudeke joana!».
- 3/ Neskamiari uju egin ziyon:
«Zabaldu zaitzu atiak!».
Erantzun ziyon: «Pena ematen dit
asarretuta joatiak!».
Berari parra eragin ziyon
Pernandoren esatiak:
«Bein elkarrekin bazkalduko ta
artu ditzagun kafiak».
- 4/ Neskamiari bigarren txandan:
«Bultza, Maria, atia;
lastima dala diyo jaun onek
asarretuta joatia;
ontâ ezkerro igualtsu da ta
eman zaiozu kafia,
arraio onei kostako zaiio
berriz gurekin jatia».
- 5/ Bein praile zar bat etorri zan da
zorrotz artu ziyon kargu:
«Errot-arriyak zerutik bera
zenbat denbora biar du?»
Pernando zanak erantzun ziyon:
«Jauna, ez noski bi ordu».
Arro etorri zitzaion baño
laister aurretik bialdu.
- 6/ «Zenbat denbora biar lukian
orain nua esatera,
errot-arria prailia balitz
konparaziyo batera:
gaur amaiketari bota bazuen
Jainkuak zerutik bera,
amabitako etorriko zan
bikariyuen atera».

- 7/ Fernando etzan olakuetan
isillik egon-zalia,
asko pentsatzen etzan aldetik
ematen zuen dalia;
arentzat ere sumatu zuben
uste etzuen alia,
orduko zopa mayian zan da
barrena sartu zan prailia.
- 8/ Orduko oien pasadizua
iñork nai badu ikasi,
bikariyua balkoian zegon,
andik zituben ikusi:
«Prailiak asko dakite baño
gaur artzaia da nagusi;
atoz, Fernando, bazkaldutzero¹
zere makilla ta guzi».
- 9/ Egun batian astuarekin
abiyatu zan etxetik,
lepo gañian palakatuaz,
maite zuen biyotzetik,
ipurdi-pian zatarrarekin
ez ebakitziagatik;
bazijuan ta apaiz jaun batek
arrapatu du atzetik.
- 10/ Burla egiten asi zitzaion
gure sazerdote jauna:
«Jesus, Fernando, au da lujua
zure astuak daukana!
Tela oberik iñun billatzen
izango da naiko lana,
nik ere pozik artuko nuke,
zenbatian dago kana?».
- 11/ Sazerdotiak itz ori esan,
Pernandok buelta urrena;
eskuarekin asto-zipotza
altxatu ziyon aurrena,
esanaz: «Jauna, or dago denda
tela-jeneru orrena;
bertan ederki ikasiko du,
sartu liteke barrena».
- 12/ Dendako ate itxusi ura
zuben denboran ikusi,
sazerdotia ikaratu ta
abiyatu zan igesi.
Uju egin ziyon: «Jauna, etzuben
gutxiagorik merezi;
ordañaik entzun nai ezpaditu
neri burlaka ez asi!».
- 13/ Fernando nola bizitzen baizan
bikariyuen auzuan,
egun batian abisatu ta
etxea ekarri zuan;
biyak izketan egondu zian
ordu bete bat osuan
txerriya il da partiziyua
nola guardatuko zuan.
- 14/ Ta esan ziyon: «Pernando, laster
il biar degu txerriya,
bañan badago nere barrenen
kezka bat izugarriya:
igez nundik-nai etorri zaigu
odolkiya ta urdaya,
orain ordañaik partitzekotan
besterezentzat det erdiya».
- 15/ Erantzun ziyon: «Il beza, jauna,
neri esan diran gisan;
bañan odolki gutxi partitu,
ez bedi tontua izan;
gero balkoian jarri biar du
jendiak ikusi dezan,
gaberd aldian barrena sartuta
ostu diyotela esan».
- 16/ Kriara laster bialdu zuen
arakiñaren galdian,
ilda balkoian ipiñi zuten
ta odolkiyak baldian;
Pernandok berak eraman ziyon
gabeko amarrak aldian,
apenas asko partitu zuben
Amezketako² kalia».

1. Bertso-papera: *bazkaltzera*.

2. Bertso-papera, «La Editorial Guipuzcoana. - Tolosa», Juan Garayalde, Orendain. Onek 11/4'garrena onela du: altxatu ziyon orrela.

Bertso-papera, «Imp. Echenagusía. - Bilbao», Inazio Zabala, Altzo. Paper onek aldaketa bakarra du: 1/5: erantzun zion: «Etorri gora.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. - Rentería», Juan Ormaetxe, Meñaka. Bizkaia. Aldaketak: 1/5: erantzun zion: «Gurian bada; 1/6: esango diot; 2/4: egingo diot; 2/7: naiago nuke baldin bazeude; 2/8: etxe ontatik joana; 3/1: oju; 3/2: zabaldu itzazu atiak; 3/3: baña pena bat ematen dit nei; 4/7: demon-tre oni kostako zaio; 5/1: Egun batian praile zar batek; 5/3: errotariak zerutik bera; 6/3: errotaria prailia balitz; 7/3: asko pentsatzen eztan aldetik; 7/4: botatzen zuben dalía; 7/5: arentzat ere asmatu zuen; 7/7: orduko sopa maiian zeon da; 7/8: barren sartu zan praillia; 8/1: Orra orduko pasadizua; 8/2: nola

dan adierazi; 8/8: zeure makilla ta guzi; 9, 10, 11 ta 12'garren bertsoak falta ditu; 13/3: egun batian gon-biratuta; 13/5: kontu kontari egondu ziran; 14/1: Erantzun zion Fernando laster; 14/5: iñoiz nundik-nai etorri zaio; 14/6: txorizo edo urdaya; 14/7: orain partitzen asi ezkeru; 14/8: besterentzat da erdiya; 15/7: gabe erdi aldian ezkutatuta; 16/1: Kriada laster bialdu zuten; 16/3: ill da balkoian jarri zituan.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabe, baña ziur asko Makazaga'renean inprentatua. Itziar'ko Prudentzio Egiguren zanak eman zidan. Aurrekoa-rekin berdin-berdiñak aldaketa guziak. Baña 5/3 eta 6/3'an: errotarria.

Bertso-papera, «Tip. Elustondo. - Zarauz», Gregoria Ibarгойen zanaren eskutik jaso. Makazaga'rena bezelaxe, auck izan ezik: 7/4: ematen zuan dalía; 7/7: orduko sopa mayian zan da; 14/5: iñoiz nundinai etorri zaigu.

KORRIKA-APUSTUA

Bi mutil gaztek korrika-apustua egiña zuten: bata Motriku'koa zan, Belietegi baserrikoa; bestea, Deba'koa, Labaka, igeltseroa.

Jendeak, Motriku'koak irabaziko zuala uste zuan, baiña Deba'koa gertatu zan garaile.

Bolara artan Txirrita Deba'n zan lanean, eta bertsoak jarri zituan apustu orretzaz.

Bertso-papera ez degu iñon ere arkitu al izan. Onako bertso auek Zubeltzu bertsolariak eman zizkigun; baita argibide auek ere.

Prazuelako pondan
Paxiren etxian,
Martxuaren amaikan
kontuak an zian.

.....
.....
.....
.....
.....
.....

Zure anaiak Deba'n
esan ditu itz bi,
ura gezur-kontari
etzebillen noski:
bi milla arrautza jan,
ainbeste egazti,
nai dan eraritikan
eztarriya busti...
Orla bizi bazera
etzabiltza gaizki!

Nik lanian jardun det
betiko moduan,
traba asko eman gabe
taberna inguruan;
maleziya aundirik
ez naukan buruan;
orrenbeste arrautza
jan izan banuan,
oraindik geiago're
korrituko nuan.

ERRATXU'REN TXERRIA

Txirrita Plazentzi'ra ere airitxi llegatu zan bere lanetan, ango kanalen bat egitera-edo, eta an denbora-aldi bat egin zuan; baita bertso batzuk jarri ere.

Orra nola dion Juan San Martin'ek bere *Zirikadak* liburuan:

«Txirrita Plazentzia'n bizi izan zan artian, gertaera bat zala-ta naikua astrapala¹ sortu zan, eta a ze aukeria izan eban Txirritak bertso berriak ataratzeko.

Erratxu zanak erosi ei zetsezen pasadizuan zoiazen motxallaren batzuri txerrikumeren batzuek; diñuenez, kasta uletsuak ei ziran, baña ez orratiok asko gizontxequak. Txerrikumok merke artziakin gangaren bat ei ebalakuan, artiak artu ezin-da² ibilli ei zan Erratxu. Baña gero izan ei ziran kontuak, aspuakin be ez ei zeuan arek loditzerik. Azkenian, ez gizenak euazelako, baña bai zarrak ziralako, txerriok il biarrera eldu zan Erratxu, ta nola oitura zan auzo ta senidieri³ txerrikia erregalatzia, naikua larritasun izan ei eban Erratxu'k zer partidurik ez eukalako.

Plaentxiatarrak asmau ei zituen sekulako ipoñak, txerriak zirala-ta. Pope aurrenengo zala, an jua ei ziran burdiakin urdei billa, eta Txirritak orduan ataratako bertsuak gaur be oindiok agoz-ago erabiltzen dira Plaentzia'n. Ara bere atal batzuek:

Goiko Jaun ona, eman zadazu kantatutzeko grazia,
txerria dala mediante naiz bertsuak jartzen asia;
Plazentzia'ko Don Antonio zapateriak azia,
barbero baten ate aurrean utzi omen du bizia⁴.

Txerri orrekin izandu dira bi familia partian,
erregaluak izan dituzte senide danen artian.

Lau arruara ezta iritxi lendabiziko txerria,
da bigarrena gutxi geiago baña bai gustagarria;
ia lau ontza lodi zedukan koipia ere jarria,
aurten goseak ezin legoke Plazentzia'ko erria».

* * *

Juan San Martin onek berak, liburua argitaratu ondoren, Plazentzia'ko txerri oni buruzko beste orri bat bialdu zidan. Orri au ez dago beraren eskuz idatzia. Onela dio:

*El zapatero y el barbero
frente a frente*

Lau arruako txerria il dute
bi familiak partian,
marru aundiak egin zituan,
ikaratu zan erria⁵.

Plazentzia'ko Don Antonio
zapateruak azia,
barbero baten ate aurrian
utzi omen du bizia.

Arluziaga'k artu nai zion
konpondu balitz urdeia,
asmo orretan bialdu zuan
bi mutillekin burdiya.

Erantzun zion: «Ez da posible
nik urdeia ematea;
ori guztia ez da nereia,
Anbrosiok du partea».

Andrea albora bialdu zuan
txerria il da bereala,
etxian zeukan solomorikan
onena eman zezala.

Poperi ura eraman dio
arrena balitz bezela.

Arluziaga'k maneatzera
kafera bialdu zuan,
jakiteâtik nola il zuten⁶
txerri aundia auzuan.

Adios orain, zapatero ta
nere barbero maitia,
Pope gaztiak bertso oriek⁷
zueri jarriak-tia⁸.

Jaungoikuak eman dizula
osasuna jateko.

El escenario del drama fue la calle Santa Ana. El café donde se comió el lomo entre varios jatorras de la villa de Placencia, fue la casa de Otola, situada donde hoy es droguería de Marcial. El viejo Otola habría repetido su frase favorita, muy habitual para él: Poñeta!

1. zalaparta (San Martin'en oarra).

2. artiak artu ezin-da, *inconteniblemente* (*úsase bien para gozo, dolor o pena; indiferentemente*). (San Martin'en oarra).

3. Eibar'en eta Plaentxia'n aideeri senide deitzen zaie eta beste toki batzuetako senideeri, famili. (San Martin'en oarra).

4. Bertso ontako bostgarren ta seigarren le-roak ez ditu San Martin'ek bere liburuan jartzen. Bañan berak bialdu zizkigun guri.

5. Nabarmen dago bi puntu auek ez dirala bertso batekoak.

6. Orriak: *jakiteagatik*.

7. Orriak: *oiek*.

8. Orriak onela ditu puntu auek: *maitea ta dira*. Edozein bertsozalek badaki *maitia* ta *tia* bear dutela emen.

«ANDIK URRENGO JAI-ARRATS BATEZ...»

Bi bertso auk Zubeltzu bertsolariak emanak ditugu. Bere gazte denborakoak omen dira. Txirritarenak dirala aditu zuan. Bertso-paperera ez degu inon arkitu.

Andik urrengo jai-arrats batez
San Sebastian gabian,
iñoiz egon naiz orduan baño
pazientziya obian;
beste mutil bat etorri zitzaion
beatzi t'erdiyak aldian,
ordu t'erdi bat pasa zituzten
argi gabe sukaldian.

Pentsatu nuen damatxo orri
arrazoi au ematia:
«Bartarratseko ibillera oiek
oso aldrebesak tia!»
Erantzun zidan: «Ez ikaratu,
Bitoriano maitia,
zuretzat ere izango da ta
ixilik egon zaitia!».

(1926)

**BERTSO BERRIYAK
UZKUDUN'ERI TXIRRITAK
JARRIYAK**

- 1/ Gaude milla ta bederatzi eun da
ogei eta sei urtian,
bertso berriak jartzera nua
euskera eder batian,
zurrut egiñaz kanta ditzagun
kantabritarren tartian:
euskaldun batek zer egin duben
Barzelona'ko partian.
- 2/ Gipuzkoa'ko Errezill'ena,
Gurutze'n jaio ta aziya¹,
obekiyago jakitiatik,
Paulino Uzkudun graziya;
oraiñ iru urte San Juanetan
zan boziuan asiya,
garai onetan bere mendian
dauka Europa guziya.
- 3/ Toki txarrera ote zijuan
esaten zuten batzuak,
bañon koajez eman zituen
alde artara pausuak;
indarrarekin gelditu ditu
kanpeonaren besuak,
Donostia'tik sumatzen ziran
aien ukabilkazuak.
- 4/ Batalla ori jokatu zuten
jende askoren aurrian,
uste deanez eun bat milla
izango ziran urrian;
bi ero iru golpe tiraagatik
tranpan idea txarrian,
lengo kanpeon famatu ori
an gelditu zan lurrian.
- 5/ Alimentua komeni zaigu
piska bat ardo zarretik²,
baño Paulinok ezto eraten
markaz fuerako zurrutik;
indar aundiko gorputza dauka,
korajetsua barrutik,
orren aurrian jarri diranak
pagatu dute larrutik.
- 6/ Orren antzeko gizon asko zan
lengo gerrero zarretan,
errespetua ipiñi zuten
aiek erromatarretan;
desapiyua pagatzen zuten
gelditu gabe zorretan,
indar aundiko belarrak dira
Ernio-mendi orretan.

- 7/ Gora Paulino, nere partetik
eskerrak eta graziyak,
zure golpiak izandu dira
garratzak edo gaziyak;
Europa'tikan asko ziraden
lanteri (y) ontan asiyak,
zure txapelak tapatu ditu
oraindañoko guziyak.
- 8/ Jende guziya arritu zuben
bozeuan zebiltzala,
etzuten uste Euskal-erriyan
orlakorikan bazala;
Ernio-mendik egiten diyo
Italiya'ri itzala,
orain Uzkudun dago kanpeon,
lenago Spalla bezela.
- 9/ Ondra aundiyak irabazita
etorri da Donostia,
nere barrenak eztit laguntzen
aitortu gabe uztia;
len bi batalla galdu zituen
ta orain berriz bestia,
italitarrak euskaldunakiñ
ondo konpontzen ezitia.
- 10/ Kontrariyuak izanagatik
garratzak edo torpiak,
aiek guziyak bentzitu ditu,
Paulino, zure golpiak;
zazpi arrua ta erdi pisua,
ogei ta zazpi urtiak,
indar asko ta gerriyak biguñ,
esku-muturrak fuertiak.
- 11/ Maietz illaren emezortziya
oientzako zan garratza,
piska batian ezitia aztuko
egun ura ta arratsa;
par-irudiyen bostekua eman
baño beiratu zorrotza,
oien batalla akabatutzen
ezta izandu erreza.
- 12/ Etorri ziñan bukaturikan
kanpeonaren karrera,
ikusgarriya izan zan zure
Donostiya'ko sarrera:
musika juaz automobillan
Justoren aldamera,
Kujuenea deitutzen zaion
lengo ostatu zarrera.
- 13/ Aita illa du gizarajuak,
Jose Inazio izena,
paregabeko gorputza zuen,
altua eta gizena;
errespetua guardatzen zuen
indar aundiko gizona,
jendia frankok maite zuena,
erriyan juez izana.
- 14/ Bisitatzera juan zanian
etxeko parientiak,
kaburik ero neurririk eztu
aik zuten borondatiak;
amak negarrez esaten ziyon,
ain dira alkar maitiak:
«Nai dezunian, atoz, semia,
zabalik daude atiak!».
- 15/ Agur, Paulino, gizon piñaren
kalidariak otia³,
etxia asko biartu gabe
sobratu dezu dotia;
garai onetan neskatxa askok
izango zaitu maitia,
eder-eder bat eskojituta
txit ondo bizi zaitia.
- 16/ Gora Paulino erreziltarra,
gu zure fabore gera,
orain artian bezela nai det
segitutzia aurrera;
kontrariyorik emen ez eta
zuaz Amerik'aldera,
kanpeon zaude Europa'n eta
ekatzu angò bandera⁴.

1. Gurutze: Uzkudun jaio zan baserria.
2. Bertso-paperak: *sorretik*.
3. otia; ok dira.
4. Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea,
Jose Angel Sarasola, Olalde, Altzibar, Oiartzun.

Bertso-papera, «*Etxenagusia'ren Irarkola'n. -
Maria Muñoz, 8. - Bilbao'n*» argitara emana eta
Igantzi'ko Juan Sein'en eskutik jaso.

JOSE LIZARAZU BERTSOLARIA

Orain urte batzuk, oso entzuna izan zan Jose Lizarazu'ren izena. Askok zekiten Urtain aurrera ateratzen alegindu zan gizona zala; oso gutxik, ordea, Lizarazu ori bera bertsolari zala.

Ona emen, berari jasota, an eta emen kantatu izan dituan zenbait bertso.

Leenengo au, Ordizia'n Urtain'ek leenengo burruka jokatu eta irabazi ondoren, apalondoan, *Hostal Castillo*'n, Uzkudun'i -an baitzan- kantatua:

Paulino Uzkudun, poz artutzen det
zu onuntza etorriya,
nere biotza saltoka dabil,
esaten dizut egiya;
leio ortatik ikusten dira
zu sortu ziñan mendiyak,
oraindik ere mutil bizkorak
badauzka Euskalerriyak.

* * *

Onako auek, berriz, Urtain'ek Europa'ko txapela irabazi ondoren, Donostia'n egin zitzaion omenaldian, apalondoan kantatuak. Bertso geiago ere bota omen zuan, baiña orain Lizarazu'ri gogoratu zaizkionak iru auek izan dira:

Amaika aldiz ibilliya det
artuta nere ertzian,
nere semia balitz bezela,
kanpuan eta etxian;
arrokeriyan zabiltzan danak
utzi dituzu atzian,
Jose Manuel, ola ikustia
poza daukat biotzian.

Beste bat ere bota bear det
badaukat-eta astiya,
afari ederra eman digute
eta etzan garestiya;
Joxe Manuel, zuri begira
daukazu erri guztiya...
Gipuzkuarrak aurrera beti!
Gora gure Donostiya!

Joxe Manuel, goguan artu
nere oraingo bertsua,
gauza gutxikin arrotu eta
jartzen gerade batzua(k);
zure andria onduan dezu,
gañera ama gaxua,
nere partetik, merezi du-ta,
eman zaiozu musua.

* * *

Beste egun batez, bazkalondo batean, izketan ari-ari zirala, sagardoa etorri zan itz-bidera. Orduan bertso auek kantatu zituan Lizarazu'k:

Alde guzitan igartu eta
daude gure sagardiyak,
belar gaixtuak menderatu ta
ikusten ditut erdiyak;
lengo zar oiek atera eta
ezpada sartzen berriya,
bire ortatik sagardoik gabe
laixter dek Euskalerriya.

Asturias'tik ekarri-ttuzte
onera sagardo-pillak,
aitzaki ortan etorri eta
txikitu'ituzte botillak.
Arrokeriyan zertan ibilli?
Izan gaitezen umillak!
Asturias'ek onak ttik baño
guriai eutsi, mutillak!

Oaingo gaztiak eztu gogorik
baserriyako lanantzat,
esaten dute bizi-modurik
eztagoela danantzat;
bire ortatik leku txarrera
guazela iruritzen zat,
gure aitonak oi ein balute
etzan sagardoik guretzat.

* * *

Baiña bertsoarako griña eta zaletasun
oiek ez ditu goizekoak.

Jendearen aurrean amabost urterekin
kantatu zuan leenengo aldiz, Pasai San
Juan'en, Prantzes-Txikiya bertsolariare-
kin.

Andik pixka batera Donostia'ko tea-
troan kantatu zuan, Prantzes-Txikiya,
Txirrita eta Fermin Imaz'ekin.

Amabost-amasei bat urte zituala, ber-
tso-paper bat ere atera zuan. Lizarazu'k
paper bat atera, eta Txirritak erantzun.
Orra esan zergatikan egin ditugun Lizara-
zu'ren aitamenak liburu ontan. Lizarazu
eta Txirritaren bertsoak urrengo orri-
aldeetan arkituko ditu irakurleak, gertae-
raren berri aurretik ematen dala.

Gazterik ekin zion kantu-lanari, baiña
etzion jarraitu. Onela pentsatu zuan:
«Bertsoak irabazbide eskasa dute. Ortaz
gaiñera, zurrutean eta parrandan ibilli
bearra dago, eta nik ez det orretarako
balio, eta gustatzen ere ez. Bertsoetatik
etorkizunik ez dago, beraz. Obeko det
beste bide bat artu».

Eta ala egin zuan.

Jose Lizarazu Oiartzun'go Altzibar
baillaran jaio zan.

BERTSO BERRIYAK

Benantzio eta Pako Garayar, Ernani'n jaio eta Oiartzun'go Altzibar baillaran bizi ziran bi anai ziran. Joxe Anton eta Xebero Zapirain, berriz, Oiartzun'go Iturriotz baillaran jaio eta bertan bizi ziran beste bi anai.

Bein batez, Benantzio Garayar eta Joxe Anton Zapirain'ek bizikleta karrera batean korritu zuten.

Asi aurretik, alkar artu eta onela erabaki zuten: bide guzian biak batera ibiliko ziran, eta azkeneko *espriñean* Benantziok Joxe Antoni irabazten utziko zion.

Uste orretan, Joxe Anton ori lasai ibili zan; baiña azkenean Benantziok aurrea artu eta irabazi egin zion.

Joxe Antonek asko sentitu zuan Benantzioren azio ori. Ala, urrengo egun batez, Iturriotz'tik Altzibar'era mutil-kuadrilla bat joan eta makilka eta mutur-joka ibili ziran Benantzioren kuadrillarekin.

Garai artan besterik ez baitzuten, olako libertsioak antolatzen zituzten gazteak...

Orduan bertso aukeratu jarri zituan Jose Lizarazu'k. Bere izena, firma bezela, paperaren azpiko aldean ipiñi zuan. Leen esan bezela, amabost-amasei bat urte izango zituan orduan.

Bertso-paperetan agertu ziran, baiña

oldiztegi-izenik gabe. Altzibar'ko Olalde baserriko Jose Angel Sarasola'ren eskutik jaso genduan paper oietako bat.

Bertso auen txeeatasun guziak etziran ondo ulertzen, eta Lizarazu'ri berari galdetu diogu. Eman dizkigun argibide guziak, oarretan arkituko ditu irakurleak.

Eta liburu ontan argitaratu baiña len, an eta emen ikutu batzuk egin dizkie Lizarazu'k bertso auei, moldiztegiaren utsegiteak kentzearen eta neurria osatzearen.

Baiña Joxe Anton Zapirain eta bere kuadrillakoak etziran ixilik geratu. Txirritarengana joan eta bertsoak jarri-arazi zizkioten ordainetan. Bertso aukeratu ere, urrengo orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak.

Bertso-paper au ere, Jose Anjel Sarasola orren eskutik jaso genduan. Moldiztegi-izena onela jartzen du: *Imp. «Aurre-rá»*. Erri-izenik gabe alegia.

Bertso-paper ontan ez da Txirritaren izena ageri. Baiña Lizarazu'k aren bertsoak dirala esan digu. Ori bera entzun genion Pello Zabaleta bertsolaria zanari eta Txirritaren illoba txikia dan Juan Mari Lujanbio'ri.

Eta au ere esan nai genduke: bertso jartzea ere orduko gazteen libertsioa zala...

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua euskera eder batian:
Altzibar ortan zer pasatu dan
lau mutikoren artian;
makillarekin preparatuta
jarriya zegon atian,
bañan apenas lurrera juan zan
ark emandako golpian.
- 2/ Anaiarekin elkar artuta,
ateria zan etxetik,
makillarekin golpia tira
lendabiziko itzetik;
dudarik gabe asiko ziran
derrepentian iltzetik,
bañan oraindik bizi omen da
egun ortako gaitzetik.
- 3/ Sesiyuaren asiyerako
pasadizuak oik dia:
tabernatikan atera eta
makillarekin golpia;
mesede-ustez asi zan eta
etorri zaio kaltia,
intentziyua badauka baña
abillidade-paltia.
- 4/ Erri guziyak famatutzen du:
«Oso mutiko ona da!»
Zoraturikan jarriya dago
orrek dadukan sonara;
makilla artu eskuan eta
egin du zenbait jorrara,
intentziyuak eztu baliyo
abillidadeik ezpada.
- 5/ Tabernatikan atera eta
makillarekin zan asi,
anaiak ere okabillakin
bazuen naiko pantasi;
Otarres ere baztarretikan¹
nola zabiltzan ikusi,
golpia tira muturrera ta
laster juan zan igesi.
- 6/ Etxe batetik izan biar zun
kasikan famili dana,
gauzen guardiyan gelditu ziran
arriba gaztia ta ama;
Oiartzun ontan lengo denboran
arrikariyak izana,
lastima orain artu biar degu
makilkariyaren pama.
- 7/ Etxi ortatik bai omen ziran
gutxinez sei kontrariyo,
graduak ola irabaziyaz
altura nai zuten iyo;
beren buruak azaldutzera
juanak ziran propiyo,
danak batera salduta ere
duro bat eztue baliyo.
- 8/ Sudur aundi bat izan biar du
partitzen ibilli zana²,
ipurdiz oso bajua da ta
bizkarra're eztu zuzena.
Erri batian buru jartzeko
ai zer nolako gizona!
Kargu artzeko beldur ezpanitz
esango nuke izena.
- 9/ Kuarteletan ta Kontzejuetan
egon biaute soziyo³,
negonek ez det ikusi baña
jendiak orrela diyo;
kapitanakin itz egitera
juanak ziran propiyo,
saiatu-faltik etzuten baña
kukuak oker jo diyo⁴.
- 10/ Aieka obetan sortutzen dira
olako gizon-klasiak,
oraindik ere aitatzen dute
apenas dauden asiak;
zortzin bat egun izan biau
kuartel-iskiñan pasiak,
oiek gezurrak dirala neri
alperrik esango ziak.

11/ Preparatuta etorri ziran
izugarritzko kuadrilla,
bertan naikuak izaki ez ta
ausiliyuaren billa;
Otarres orren etxian dago
orren orduko makilla⁵,
kargua artu nai duenik bada
nigana etorri dedilla.

12/ Oiartzun ontan sortu dirade
lau basa-gizon berriyak,
berenak aski ez dituztela
ze kalte duen erriyak!
Makilletako moztu dituzte
mendietako elorriyak,
Aldura zarra kejatzen bada⁶
aientzat daude gorriyak.

13/ Amalau bertso euskerazkuak
nai dituenak kantatu,
papera obetan ala ez danik
iñork ez du apuntatu;
sesiyorikan nai ez duenak
gezurrikan ez kontatu,
berak ordañak atera bear
ezpadirade kontentu.

14/ Aieka obetan nai badituzte
gauza oriek ikasi,
eskolarikan duenik bada
papera oiek ikusi;
bertso berriyak atera ditut
nai dituztenak erosi,
laster saldutzen asiko dira
beren Otarre ta guzi.

1. Otarres Benantzioren lagun bat zan; Otarres izengoitia zuan.

2. Pakea egitera sartu zan bat.

3. Guardiazibilletara ta Erriko-Etxera jo omen zuten.

4. Etzieten kasorik egin.

5. Otarres'ek kontrario bati makilla kendu eta etxera eraman zuan.

6. Aldura, Aldura baserrikoa, mendi-guarda zan, eta Lizarazu'ren aitona, ain zuzen.

(1927)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Gipuzkoa'ko Oiartzun deitzen
diogun erri batian,
aditzera bat eman nai nuke
jende prestuen artian;
ernaniar bik nastu gaituzte
bizi giñanak pakian,
gure ausentua bertsorik gabe
disimula zitekian.
- 2/ Zure okerrak tapatu nairik
eman dituzu pausuak,
ze engaño egin dirazun
jakintsun daude auzuak;
palta guziyak zuek izanda
guretzat jarri bertsoak,
zernai eginda libre dirala
pentsatzen dute batzuak.
- 3/ Milla urte ta bederatzi egun
ogei ta seigarrenian
bizikletaren karrera zan da
ekin gendiyon lanian;
ongi zekiyen an ziradenak
nik nituela mendian,
bentaja aundirik ez artutzeko
zeorrek esan zendian.
- 4/ Zure kupiraz izan zan mantso
orduko nere sarrera,
beti esanaz: «Zaude polliki,
gero konponduko gera!».
Iya arraira allegatuan
tsis pasa ziñan aurrera,
modu orretan nastu zenduben
bizikletaren karrera.
- 5/ Sentimentu bat sartu zitzaidan,
betia negon neurriyan,
zergatikan zuk utzi ninduzun
estadu penagarriyan;
zitalkeriyan bi kolpe jota
pasatu ziñan arrayan,
zer pasatu zan berialaxe
jakindu zuten erriyan.
- 6/ Eskandaluak eragiten du
munduan zenbait pekatu,
jendiak franko itzegiten du,
oraindik ez da bukatu;
erriyak zerbait eman nai zigun,
ezin gantzake ukatu,
seireun errial jarri zituzten
nai bagenduen jokatu.

- 7/ Seireun errial ez dira gutxi ordu batetik bestera, pobre bat pozik baliyuake ainbeste irabaztera; ernaniarra arro zan baño bajatu zaigu ostera: bakarrarentzat izatekotan etzijuala astera.
- 8/ Milla urteta bederatzireun ogei ta zazpiyan gera, aurten Zapirain txikiyak dauka karrer'ortako bandera; juan dan urteko txikanerua oraiñ etzaigu atera, berriz alperrik etorriko da nere platetik jatera.
- 9/ Aurten anaia ekarri digu, bere gisako arropa, arekiñ ere ibilli dute talentu ainbat arrunka; bire luzian ez du korritu, laster jo zuan arroka, ortan etzuan baliyo eta gero ekin dit borroka.
- 10/ Oien lagun bat atzerrikua zebillen pizkor-antzian, baño Zapirain txikiyak¹ lajatu zuan atzian; iyez bezela etzaizkit pasa arraira allegatzian, oiek aurretik sartu balira propinak ere bazian.
- 11/ Oiartzun'dikan Panplona'ra juan, andikan bueltan etorri, ni bakarrikan aterako naiz, zuek bi anaiak jarri; ortan konforme ezpazerate barka zaiogun alkarri, gerra luziak ondoren onik sekulan ez du ekarri.
- 12/ Kanpora deitu, okabillaz jo, ez al da gaizki egiña? Ori etzuen iñork jakingo isillik egon bagiña; gero nik zuri makillazo bat, biyentzat jornal berdiña, ontzako-urria eman bazendu naiko zenduen ordaña.
- 13/ Borrokariya arro zebillen iñork eziñ geldituan, odol guziyak berotu eta asnaska iya ituan; kintziak bana jarrita ere etzan kontentu kituan, tiro-soñu bat izan zan eta anak dantzatu zituan.
- 14/ Otarrek ere despreziatu nai luke gure kuadrilla, kontari dabill nola etxian dadukan nere makilla; nola eztuan asko baliyo enaiz etorriko billa, anak okerrak dituzu eta zuretzat izan dedilla.
- 15/ Bere auzoko lagun batekin okasiyuan zan asi, arriyarekin petxuan jota alare etzuan jauzi; gallentzen asi zitzaionian larri juana da igesi, kontentu dago ank'oker oiek etzizkiyonian autsi.
- 16/ Bertsolariya txit ondo dabill juan dan aspaldi guziyan, estranjeriyan ibilliya da luzaro irabazian²; oraindik ere orren galdia egiten dute Frantziya'n, lengo jorbaran izan biar du zerbait propina utziy'an³.

1. Nabarmen dago, moldiztegiaren utsegitez-
-edo, emen itzen bat falta dala.

2. Lizarazu igeltsero-lanetan Frantzia'n ibillia
zan.

3. utziy'an: utziya an.

(1927)

**BERTSO BERRIAK
TXIRRITAK JARRIAK**

- 1/ Siglo berriyan gaude ogei ta
zazpigarrengo urtian,
estopara bat izandu degu
Kantabria'ko partian,
Gipuzkoa'ko Donosti deitzen
dan zitudade batian,
guziyak alkar istimatuz
bizi gaitezen pakian.
- 2/ Estopara ortan San Pedrotarrak
etorri dira aurrena,
ogei eta bat segundoz gero¹
San Juanguak urrena;
amalau mutill sasoiekuak,
patroia zuten zarrena,
berrogei eta zazpi urtetan
bera ez dago txarrena.
- 3/ Graziak eman biar diozkat
Manuel Arrillaga orri,
iru seme ta illobatxo bi
ditu triñerora ekarri;
ta bera patroia atzian tente
arraunarekin zan jarri,
txoriya beziñ alegre giñan
danen aurretik etorri.
- 4/ Biba Manuel, patroia leiala,
San Pedrotarren burua,
aurten zurruta lasai egizu,
badadukazu morua;
zenbaitek aña sesiyo gabe
dijua zure mundua,
zere denboran amaika txanpon
itxasuari kendua.
- 5/ Gero illaren emezortziyan
banderan jokatu zian,
danak elkarri agur egiñez
gizon formalen klasian;
alkarrentzako gorroto txarrik
etzeukaten biyotzian,
ta berriz ere len bezelaxe
San Juandararak atzian.
- 6/ Donostiya'ri ematen dizkat
eskerrak eta graziyak,
amabi milla pezeta ditu
San Pedro'k irabaziyak,
zazpi milla ta bosteun berriz
San Juandarrentzat utziyak;
emen eztago miseriyarik,
kontentu gaude guziyak.

- 7/ Irugarrengo zein etorri zan
orañ nua esatera,
baldin egiaz egiña bada
nik letu dedan papera;
Pasai San Juan da Fuenterrabiya
zian kasikan batera,
segundo baten bi kinto ziyon
diferentziya atera.
- 8/ Pasai San Juan da Fuenterrabiya
ziran alkargandik gertu,
beira jarrita aurrena zein zan
ezin gendituen neurtu;
nik adituak kontatzen ditut,
ez iñork punturik artu,
deskuidoren bat izan zan eta
irugarren ziran sartu.
- 9/ Bizkaia'tik bat Zierbana zan,
eta Santurze bestia,
juan daneko bi illabetian
ez noski gutxi kostia;
donostiarrak atzea xamar,
nola zan jende gaztia,
oraindik zerbait egingo dute,
mutill eskasak ezta.
- 10/ Denbora asko ezta oraindik
neri esan diratela:
enbarkaziyoz aukera dauka
bapore eta batela;
bere kuadrilla gobernatzeko
ezta izandu motela,
iru bandera sartu dituzte
Manuel patroï dutela.
- 11/ Amazazpi urte zitueneko
estroparetan asiya,
alperkeriya ez ta²
aprobetxatu du sasoiā;
indar aundiko gizon pizkorra
eta petxua lasaia,
zori onian patroï jarri zan,
diruz bete du Pasaia.
- 12/ Urtian beingo dibersiyua,
ezta gauza alrebesa,
San Pedrotarrak aurretik ezetz
askok egin du trabesa;
irabaztunak kontentu dira,
galdu dutenak bajeza,
biba San Pedro, alkate jauna,
Andonegi ta Markesa!³

1. Bertso-paperak: *ogei ta bat*.

2. Lerro ontan, inprentaren utsegitez edo, zerbait falta da noski.

3. Bertso-paperera, moldiztegiaren izenik gabea, Jose Anjel Sarasola, Olalde baserria, Alzibar, Oiarzun.

Bertso auek *Auspoa*'ren 101-102 zenbakian argitaratu genituan. Ondoren, Agustin Zubikarai'k agertu ditu, bere *Treñneru estropadak* liburuan, nundik artu dituan esan gabe. Baiña bertso guziak *Auspoa*'k bezale ditu, ustegabeko okerren bat eta onako auek izan ezik: 4/7: denporan; 8/4: ezin genduen neurtu; 11/3: alperkeriya ezta arentzat. Esan bezela, guk degun bertso-paperak *alperkeriya ezta* esaten du lerro ontan, *arentzat* gabe.

BERTSO BERRIAK

Jarri-aldi au bi bider argitaratu da: leenengoz, bertso-paperetan: «*Imprenta Macazaga - Rentería*»; bigarrenkoz, *Bertsolariya* aldizkarian, 47^{gn.} zenbakian, 1932-VIII-7^{an.} Aldaketarik ez dute beren artean.

Bertso auetan, Bidasoa'z beste aldeko Leon Dongaitz pelotariak, desafioa egiten dio Atano irugarrenari. Baiña bertsoen egillea nor ote zan?

12^{garrenean} onela esaten da:

Ikasi nai badezu
jar zaite begira,
Xardiaren indarrak
onenbeste dira...

Eta *Bertsolariya* aldizkarian argitaratu ziranean, izenburua onela zetorren: *Bertso Berriak lengo urtian Xardiak jarriak.*

Xardia ori jaiotzez ernaniarra zan, baiña Goizueta'n bizi zan. Erdiko beatzak falta zituan, eta aren eskua sardea zidurrian. Ortik zetorkion izengoitia.

Bertsotan pixka bat zekiana zan. Aren bertso bat: *Auspoa 66*, 125^{garren} orri-aldean.

Baiña jarri-aldi oso bat paperetan paratzeko, Txirritarengana joaten zan.

Onekin ere errezelotan giñan, naiz-ta Xardiaren izenean jarria izan, Txirritarena izango ote zan.

Eta onen illobak erabaki du auzia. Bertsoak ikusi orduko, onela esan zuan:

–Bertso oiek osabarenak dira, eta neronek kopiatuak gaiñera.

Gero, onela jarraitu zuan:

–Bai; Xardia ori askotan etortzen zan gure etxera. Osaba eta biak lagun aundiak ziran.

Atano irugarrenarengana ere joan gera galdezka, bertso auk bere eskuetara iritxi ote ziran, desafioaren berri jakin ote zuan alegia.

Ezetz erantzun digu; guk erakutsi artean ez omen du jakin bertso auk ziranik ere.

Eta Leon Dongaitz pelotari orretzaz onela esan digu:

–Dongaitz orrek *manorik-mano* jokatzeke etzuan balio, baiñan binaka jokatzeke bai; aurrelari ona zan. Partidu bakarra jokatu det nik orren kontra. Kanpeonatua irabazi baño len eta Donostia'n soldadu nengoala, bertako *Jai-Alai* frontoian, neñe anai Luxiano eta biok beste aldeko iru pelotariren kontra jokatu genduan: Artze, Leon Dongaitz eta onen illoba bat. Pelota frantzesarekin jokatu gaiñera. Errez irabazi genduan: 22-5 bukatu genduan. Nere anai Martzelinok bai, onek askotan jokatu du Dongaitz orrekin. Arengana joaten bazera kontu asko esango dizkizu. Ganau gogorra omen zan.

Galtzen zijoan batean, ari ziran pelota arentzat komeni ez eta labana batekin jo eta autsi egin zuan. Oraindik ere bizi da Dongaitz ori. Azkenekoz Baiona'n ikusi nuan, pelotari zarren billera egin genduan. Larogei urtetik gora izango du, baiña ondo dabil. Nere ondoan bazkaldu zuan. An aritu zitzaigun kontu kontari.

1/ Frantzes euskaldun batek
esan ziran atzo
parako al dituan
dozena bat bertso;
ez du arrokeririk,
umilla da oso;
deliberatuko naiz
ori dala kaso.

2/ Leon Dongaitz daduka
ark bere graziya,
Frantziya'n jaiua da,
an bertan aziya;
trinketian jokutzen
ez da itxusiya;
errespetokua ta
asko ikusiya.

3/ Juan daneko ogei ta
zortzi bat urtian,
amazazpitan jarri
ta orañ artian,
jokatu diratenak
berentzat kaltian;
ni izandu naiz buru
Frantzi'ko partian.

4/ Atano deitzen zaion
azkoitiar orri
proportziyo polit bat
biar diyot jarri:
baldin Done Juanera (*sic*)
nai badu etorri,
gustora jokatu
nizuke zeorri.

5/ Anbat gerta niteke
partida galtzera,
zergatik egin dedan
pixka bat zartzera;
nere pelotarekiñ
konforme bazera,
nai dezun garayian
atoz jokatzera.

6/ Begiyen bistan dago
nere desgraziya:
edadiak pixka bat
bajutzen asiya;
ogei ta lau urtetan
banuen sasoia,
errespetokua ta
mutilla lasaia.

7/ Berrogei ta bost urte,
egin det zartzera;
piska bat asi zaizkit
indarrak atzera;
esan dedan bezela
konforme bazera,
noiznai partidu ori
atoz zerratzera.

8/ Edadekorik bada
nere kontra atera,
trinkete ta pelotaz
berari aukera;
lenbizi zer jokatu
eginiñk papera,
ark nai duan tokiyan
probatuko gera.

9/ Klaro itzegingo det
gertatu dan gisan,
nere pasadizuak
askok jakin ditzan:
orañ ogei bat urte
sasoyian nitzan,
trinketista oberik
etzan iñor izan.

10/ Nere pasadizuak
ari naiz esaten,
ni gazetetan zer nitzan
ikasi dezaten;
ziran onenen kontra
banekiyen juaten,
besagaña kenduta
jokatzen ziraten.

11/ Petxu sanua eta
bi besuak fuerte,
lanak ematen nitun
sasoi nuan arte;
kanpeon pasa ditut
oi ta zortzi urte,
ontaz aurrera noski
bentzutuko naute.

12/ Ikasi nai badezu
jar zaitte begira,
Xardiaren indarrak
onenbeste dira;
amabi bertsorekiñ
orra despedira,
nai ez duenak utzi,
onak ezpadira.

BERTSO BERRIAK TXIRRITAK JARRIAK

Bertso auek ere Txirritaren illobari erakutsi genizkion, eta berak kopiatuak dirala esan zigun. Inork eskatu gabe, osabari berari sortuak omen dira.

Zortzigarren bertsoan, orduko Aita Santua Pio XI zala esaten zaigu. Aita Santu au 1922 urtean izendatu zuten, eta 1939'an il zan. Txirrita, berriz, 1936'an. Orregatik, bertso auek 1922'tik 1936'ra bitartean jarriak izango dira.

1/ Denbora, leku, zeru ta lurrak,
izar da illargi, eguzkiyak,
kristaba, aizia, animaliyak,
ur gezak eta gaziyak,
Aita Eternuak sei egunian
egin zituan guziyak;
merezi du ta eman zaizkagun
eskerrak eta graziyak.

2/ Aita Eternuak Adan ta Eba
egin zituan aurrena,
lendabiziko gizasemia,
emakumia urrena;
baratza frutaz bete-betian
sartu zituan barrena,
bañan etzuten ondo kunplitu
eman ziyoten ordena.

3/ Demonioak ziyon Ebari:
«Fruta artatik jan zazu,
Aita Eternuak dakien ainbat
orduak jakingo dezu;
Berak ori nai eztubelako
zuri debekatu dizu,
orra esan nik egiya eta
orain naizuna egizu».

4/ Allegatu zan Adan ta Ebari
fruta ortatik jatia,
etzan posible mundu ontatik
inor zerura juatia;
oiek kunplitu etzutelako
Jaunaren borondatia,
itxi ziguten guziyentzako
zabalik zegon atia.

5/ Adan da Ebaren Kain da Abel
igualak izan ezta,
inbiriaren gorrotu gaiztoz
il zuen batek bestia,
arrazoiazen biderik gabe
anaia zarrak gaztia;
alakuari kostako zaio
zeruba irabaztia.

- 6/ Lau milla urtian egondu ziran zeruko atiak itxita, zenbait anima triste bazegon linbo beltzera jetxita, betiko ala biarko zala beren artian etsita; zori onian egin zioten Salbadoriak bisita.
- 7/ Al dan maizena erreza zagus «Nere Jesukristo Jauna», jakiñik dala Jaungoiko eta gizon egiazko ona, gurutze pisu baten azpiyan ain gogoz iltzera juana, guri atiak zabaldu eta orain zeruan dagona.
- 8/ Kristau guziyak sinista zagus Eskriturak dakarrena; zeru ta lurren agintariya Jesukristo da aurrena; eskubiriak arrek emanda Aita Santua urrena, Vaticano'ko artzai umilla, Pio amaikagarrena.
- 9/ Kristoren bidez Apostoluak zabaldu zuten klerua, aien autikan ateria da lendabiziko Kredua, mandamentu ta artikulua dotrinan dauden modua; oiek sinisten eztituenik ezta sartuko zerua.
- 10/ Aita Santua Erroma'n dago, oso gizon seriyua, abisatzen du gañian dala¹ guziyentzat eriyua; gaiztuenari barkatutzeko badu erremeriyua, orrengatikan deitzen diyogu Kristoren Bikariyua.
- 11/ Amaika bider letu izan det lengo dotriña zarretik: gezurra esanda ez gera libre pekatuaren zorretik; bi bidetara partitu biegu Jesukristoren aurretik, ezkerretatik juaten danak pagatuko du larrutik.
- 12/ Kondenatuben azken fiñeko penagarrizko pausuak, bi itz bakarrak esango dizka gure Jaun amorosuak: «Orain ez dago barkaziyorik, kunplitu dira plazuak, zere pagua emango dizu serbitu dezun maisuak»².

1. Bertso-paper batzuek: *abisatzen du gañian dala*; beste batzuek: *abisatzen gañian dala*.

2. Bertso-papera, «Imp. Macazaga. –Viteri, 32.– Renteria», Tolosa'ko Antonino Lakunza zanak emana. Onek 7/8'an «orain zerua dagona» dio. Beste paper batzutan «zeruan» dago; ta ala jarri degu, obeto dalakoan.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Aizarna'ko Josefa Aizarna'k emana. Aldaketak: 3/7: orra esan nik egiya bat; 3/8: gusto desuna isasu; 5/4: il zuten batek bestia; 7/8: orain zerua dagona; 11/7: ezkerre juaten danak ko aldetik (*sic*).

Bertso-papera, «Imp. Echenagusía. –Bilbao», Lasarte'ko Basoandi baserriko Isabel Zuaznabar'ek emana. Aldaketarik ez du.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Azpeitia'ko Segundo Agirrezabalaga'ren eskutik jasoa. Aldaketak: 3/7: orra nik esan egi aundi bat; 3/8: gusto dezuna izazu; 4/5: aiek konplitu etzutelako; 4/8: zeruetako atia; 5/1: Adanen seme Kain da Abel; 5/3: inbiriaren gorroto biziz; 5/4: il zuten batak bestia; 6/3: anima triste asko an zeuden; 9/5: mandamenduko artikulua.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Andoain'go Jose Manuel Ugalde'k emana. Aurrekoa bezelaxe. «Euskal-Kantak» liburutxoa, Bilbao, 1960. Aurrekoa bezelaxe.

«Argia» asterokoan, ezta kigu zein egunetakoa. Onek Bilbao'ko Etxenegusia'k argitaratuari kopiatu dio.

«Argia» asterokoan, beste argitaraldi bat, ez daki gu zein egunetakoa, *Arantza* firmatzen duen batek bialdua. Aldaketa: 4/1: Allegatu zan Adan da Eba'k; 5/2: igualak izan etziran; 10/4: guzientzat erigua.

BERTSO BERRIAK
..... **'K ANDREGAIARI**
JARRIAK

Onako bertso auek Tolosa'ko Estanis Urruzola'ren kuaderno batetik artuak ditugu.

Eta, Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illobak esan digunez, berak bere osabari kopiatuak dira.

Illoba onek berak zenbait zuzenketa ere egin digu, oarretan gaztiatuko degunez.

3/ Alkarrengana biltzen giñaden al gendezaken maizena, nere denboran etzait aztuko bein batez orren esana:
«Zintzua zera irabazian, gobernatzen dakizuna, mundu onetan legerik balitz zu nai zinduzket gizona!».

1/ Bertso berriak jartzera nua, gusto duenak aditu, nere barrenan dauzkaten penak ezin nezake kabitu; demoniñuak ainbeste arte *hembra* gaiztuak baditu, parregarritzko kontuak dira ondo esango banitu.

4/ Erantzun nion: «Ni konforme naiz zerorri ala bazera, bein asitako tratamenturik ez uziatik galtzera». Beste gauza bat ikusi gabe gertatu banintz artzera, familiyan zer okasiyuak izango ziran zartzera!

2/ Dama batekin abiatu naiz esposatzeko idian, uste ez nuen estropozuak izandu ditut bidian; aski gustora ibiltzen giñan biek alkarren parian, itzak ederrak mingañañ baño beti buruak aidian.

5/ Gorputz ederra, arpegi fiña, errespetuko jantziya, bañan orduko nastu zituen España eta Frantziya; zeukan fallorik agertu nai ez, ortik zan diferentziya; zartzera ezer sobratzen badu badauka zeñi utziya.

6/ Ni bezelako beste bat zuen
parrez zegona ondotik,
kulpa gabia despreziatzen
saiatu zera gogotik;
neska gaizto bat lagun arturik
gaizki esaka nigatik,
beste majua zai zedukan da
despeira ematiâtik.

7/ Nere amaren aldamenian
bizi nintzana pakian,
iya juduak Kristo bezela
lotu ninduten katian;
tranposagorik ez da beste bat
España'ko partian,
zenbait disgustu eman dirazu
juan diran iru urtian.

8/ Majo batekin kalera eta
bestiarekin mendira,
parra ederrik egiten zuten
jendiak orri begira;
aizkenerako nazkatu eta
eman nion despedira,
tribunalera deitu nazazu
oiek gezurrak badira.

9/ Nere kontrako ixpi gaiztua,
pikara gaizki eziya,
..... 'n bataiatu ta¹
..... 'n aziya;²
..... 'n dago esposatuta³,
buru zuritzen asiya,
desio diot osasuna ta
urte askoko biziya.

10/ Izena det.....⁴
ori da nere graziya.
..... 'n bertan bataiatua⁵,
..... ballean aziya⁶;
napar batekin esposatzeko
pensamentuan asiya,
pena guztiyak lajatu ditut,
artu det orren etsiya.

11/ Eskerrik asko, pareja ona,
egin dituzuten lanaz,
..... guztiya nastu dezute⁷
gezur galantak esanaz;
laixter sorgintzan asiko dira
atzo aditu dedanaz,
ensaiatutzen omen dabilta
patar gorriya edanaz.

12/ Biotz oneko nobiya nuben,
onrada eta noblia,
izandu du nork begiratua,
ez da izandu sobria;
orgullo puskat badauka baño
nere moduko pobria,
artzen duenak a zer fortuna,
utzi duenak obia!⁸

1. Gipuzkoa'ko erri baten izena.

2. Napparroa'ko erri baten izena.

3. Gipuzkoa'ko erri baten izena.

4. Mutillaren izen-deiturak.

5. Gipuzkoa'ko erri baten izena.

6. Baillara baten izena.

7. Gipuzkoa'ko erri baten izena.

8. Len esan degun bezela, bertsoetan zuzen-
keta batzuk sartu ditugu, Txirritaren illobak esan
dipun bezela jartzeko. Ona emen zuzendutako oiek
Urruzola'ren kuadernoan nola zeuden: 1/5: demo-
niyuak ainbeste arte; 1/6: neska gaztiak baditu; 3/8:
zu nai zenuzke gizona; 4/8: etorriko ziran zartzera;
6/2 parrez daudela ondotik; 7/8: juan dan iru urtian;
10/2: orain da nere graziya.

**«SENARRARENTZAT NAI
ZITUENAK...»**

Bein batez, andre bat Txirritagana etorri zan, bere senarrarentzat bertsoak jarri bear zituala esanez. Baiña Txirritak berari jarri zizkion.

Bertso-papera ez degu iñun arkitu. Puntu auetaz Txirritaren illoba oroitu da. Eta bera da, noski, gertaera onen berri ere eman diguna.

Senarrarentzat nai zituenak berari dizkat parako.

.....
.....
gizonarekin zer bizi-modu txarra dadukan esan du; antzeman nion zurrutera bat etzala txarra izandu, nigandik jua da bost minutuko txopin bat ardo eran du.

(1930)

BERTSO BERRIYAK BEGI-TXIKIYAK ESAN DA TXIRRITAK JARRIYAK

1930 urtean, Aia'ko Iturriotz'en, sega apustu bat jokatu zuten Begi-Txikiya eta Juanito Kortajarenak. Oni, Asteasu'ko Ondartza baserrian jaio eta bizi zalako, Ondartza deitzen zioten. Pello Errotaren billoba zan: aren alaba Mikelaren semea¹.

Bere anai Batistak argibide auek eman dizkigu:

«Begi-Txikiya Ernani'ko semea zan. Izengoiti ori zuan, begi bat txiki xamarra ta erdi itxua zualako.

Berrogei ta bost bat urte zituala, Iturriotz'en segan gure anaiaren kontra jokatu zuan, gurearen erdia ebaki baietz. Bi orduko lana egin zuten. Trabesa eun amarrera gurearen alde zegoan, bañan, juxtu-juxtu bada ere, Begi-Txikiyak irabazi zuan.

Salla ere doblea bear zuan gure anaiak, bañan berdiñean partitu zuten.

Gero, Begi-Txikiyak bertsoak atera-arazi zizkan Txirritari gure anaiaren kontra.

Orduan onek bueltan Aranburu-berri Astiasuko bertsolariari jarri-arazi zizkan».

1/ Milla urte ta bederatzieun ogei ta amargarrena, eguna zein dan jakiteagatik urriko illaren aurrena, bertso berriyak jartzera nua deskansatzeko barrena; gorroto gabe bizi biagu mundu ontan alkarrena.

2/ Aditzera bat eman biar det euskalduntarren tartian, sega-apostu bat nola genduban Gipuzkoa'ko partian, Iturrioz'ko sorua deitzen diogun toki batian; deskansurikan ez degu izan alkar probatu artian.

3/ Prezisamente zu mendratzeko ez ditut jartzen bertsoak, aldamenetik izandu ziran endredatzalle batzuak; neska zar batek esaten zuen zabaldurikan besuak: «Allegatzea naikua egin du aitona gixagaxuak».

- 4/ Jendia pranko Astiasu'tik
juan zan Aia'ko partera,
Kortajarena kapitan zala
gizon erdiya jatera;
nere doblia ebaki baietz
egiña zeukan papera,
oraingo ortan ez dituzute
kontuak ongi atera.
- 5/ Aitortzen dizut, Kortajarena,
gizon pizkorra zera zu,
gure Jainkuak eman zizun da
indarra pranko badezu;
au da lastima izugarriya:
governatzen ez dakizu;
Astiarrâ'ko Begi-Txikiyak
ederki neurtu dizkizu.
- 6/ Askok esan du neregatikan:
«Juiziorik bai al du?»;
ni trankil negon inork ez balu
desafiyorik bialdu;
indarrak ondo enpeñatuaz
pasa ditugu bi ordu,
nere doblia ebakitzeko
zu baña obia biar du.
- 7/ Siñali ori ez balitz egon
biar bezela botia,
sekula ez nuan pensatuko nik
mendi ortara juatia;
gorputz aundiya ez daukat baño
bai zimela ta fuertia,
neonei asko gustatutzen zait
bestek egiña jatia.
- 8/ Astiasu'ko bi mutill gazte
galdezka omen zebiltzan,
mixerikorditik ateratako
aitonen bat ote nitzan;
toki ederra omen da baño
ni ez naiz biartu izan,
denborarekiñ ikusiko da
aurrera nola gabiltzan.
- 9/ Oitako batek neri esan ziran
Iturrioz'ko larrian:
«Zu bezelako gizon bat bazan
miserikordi zarrian».
Baju-bajutik erantzun niyon
pazientzi ederrian:
«Nungua naizen esango dizut,
atoz illunabarrian!»
- 10/ Askok esan du apustu ori
ez dala izango piña,
ez giñan oinbeste enpeñatuko
tranpan ibilli bagiña;
bakoitzak bere aieगतिकan²
egiñ degu alegiña,
jokua eiten errezago da
gero irabazten baña.
- 11/ Itxu-aurreko ona nuela
mundu guziak badaki,
esaten ziran: «Ibilli lasai,
ez kuidadurik eduki».
Lokate zarrak sega zorroztu,
Begi-Txikiyak ebaki,
bi aguriak alkar artuta
moldatau gera eroki³.
- 12/ Partiera ona egin genduen,
ez daukagu zer esanik,
okasiyuak ondorenian
ez du ekartzen gauz onik;
irabazi det jokua baño
klaro aitortzen dizut nik:
lan-klasi ortan ez det ikusi
zu bezelako gizonik.
- 13/ Neronek ez det ikusi baña
bestek esanda det jakiñ,
nola diruba jokatu duten
bonbiyo aundiyarekiñ;
aitona batek kendu dizkate
berrogei duro birekiñ,
negu guziko ardotako ainbat
eraman zuben berekiñ.

14/ Gusto dubenak letu dezala
zabalduko det gazeta,
oien kontuak jakiten ditut
aldian bizi naiz eta;
oraiñ aitona alegre dabill
ederki ardoz aseta,
zazpi illabeteko iristen zaio
egunik ainbat pezeta.

15/ Oraingo ortan pasa zaiote
txiripa kuriyosua,
piska bateko onra badauka
Begi-Txikiyak jasua;
artzai tontuak dian mendian
ondo bizi da otsua,
gizon erdiyen billa juan zan da
neronek jan det osua.

16/ Jaiotakuak pasa biar du
munduan zenbat otz-bero,
zeñek gerenak altxa ditugu,
zor artzekorik ez dago;
nik onenbeste lan egiterik
oiek etzuten espero,
aundi-txikiyak berdintzen dira
bentaja eman ezker⁴.

1. Juanito onetzaz berri geiago ikasi nai duan-
nak, irakur dezala *Auspoa*'ren 49-50' garren alea,
233' garren orri-aldean.

2. aiegatikan: aiekatikan, aldetikan.

3. eroki: egoki.

4. Bertso-papera, «Imprenta Macazaga. –Vite-
ri, 32», Jose Anjel Sarasola, Olalde, Altzibar, Oiar-
tzun.

(1931)
BERTSO BERRIYAK
ASTIASU'KO
JUANITO KORTAJARENA'K JARRIYAK

Juanito Kortajarena'ren anai Batistak esanda dakigunez, bertso auk Asteasu'ko Aranburu-berri bertsolariari jarri-ara-zi zizkion bere anaiak.

Sail ontarako ere argibiderik asko eman digu Batistak. Baiña, ala komeni dala iritzita, oarretan jarri ditugu, bertsoen atzetik.

Bertso-papera Erreenteri'n argitaratu zan: «Imprenta Macazaga. - Viteri, 32»; Oiartzun'en jaso nuan, Altzibar'ko Olalde baserriko Jose Anjel Sarasola'ren eskutik.

1/ Siglo berriyan gauden ogei ta amaika urtetan gera,
Begi-Txikiyen kantan bueltak
oraintxen nua jartzera;
bertso berriyak berak e ditu
panparroi samar atera,
giza erdiya ote zeran da
ortãño arrotu al zera?

2/ Zer uste dezu egun ura nik
eztaukatela goguan?
Gu deskuidatuik txiripa batez
zuk irabazi zenduan;
bigarren orduen aurrenian
nik ori jakin banuan,
joku ura gabe Iturrioz'tik
jetxi biarko zenduan¹.

3/ Berriz jokatzeko jardun nitzan
desapiyuak bialtzen,
errespuesta baiezkorikan
etzan neana etortzen;
erdiya baño geio zerala
kantetan dirazu jartzen,
egun artan bestetan zeranikan
nei etzat iruritutzen.

4/ Iturrioz'ko barrutiyetan
artian bazan belarra,
guk ezkerore jokatu dute
beintzat apustu ederra;
nik an jokatzeko abisatu nun,
zuek zenduten bildurra,
noiznai geiago zeran moduban
kantetan jarri gezurra.

5/ Erdiyan baño geyo zerala
jarri dirazu kantetan,
arrazoi orren errespuesta
berriz or dezu atetan;
geio jokatu nai etzendun ordun,
zer zabiltzade kopletan?
Isil-isillik egon baziñan
egokigo zan gauz ortan.

- 6/ Ni baño obia biar duela
zure doble ebakitzeko,
ez Berastegi badet zorrozteko²,
Joxe Anjel erakusteko³,
da Florentino berriz aurrian⁴
kolpia markatutzeko;
kondiziyu oitan jabe nago ni
iru ordun jokatzeko.
- 7/ Lokate zarrak zorroztu eta⁵
Begi Txikiyak ebaki,
aridanian bi aguriak
moldatu dira egoki;
zenbait personek egi-paperan
gezurra esate'u galanki,
astiasuarrak lagundu ezpaliyo⁶
galdu biarra zan noski.
- 8/ Lokate ere Iturriotz'en
nere bertsuak saldutzen,
nunbait eroso txanponen batzuk
irabazia gustatzen;
jokatzen ziñan denboran zertan
etziñun zeriak jartzen?
Zein ona ziñan: nere arraietan⁷
beñ etziñan allegatzen⁸.
- 9/ Giza erdi baño geio zerala,
Begi-Txiki, uste badezu,
pultsuban eta karga jasotzen
igual jokatuko zazu;
iru amar minutukotan ezetz
nere erdiya altxatu,
panparroi samar balin bazaude
orra dotore markatu.
- 10/ Abajatzeko modukua ezta
Juanito Kortajarena,
segan da pultsun lau probintzitan
iya dauanik onena;
oberik bada illebeta barru
azaldu deilla nerana,
beste joku bat jokatzen degun
Arteondoren urrena⁹.
- 11/ Galtza-dunikan balin bada iñun
neri segan jokatzeke,
guk eztaukagu bate bildurrik
berriz ere ateratzeko;
motibo gabe ez gebiltzan
gauza ori publikatzeko,
zuetan ba al da orrelakorik
neri bertsuak jartzeko?
- 12/ Prezisamente ni mendratzeko
ez dituzu kantak jartzen,
kulpik geiena zuk dezula ere
bate etzat iruditzen¹⁰;
besten batzuek dabilzade or
bazzarrak toriatutzen,
gutxiyô danak gaizki ematen du
geiago dana tentatzen.
- 13/ Begi-Txikiyak desafiyua
bi orduban egin dezu,
ta nik iruban jokatuko'izut
gauza baldin bazera zu,
amar milla pezta Iturriotz'en
Urriyan nai baldin badezu,
indar asko ta zalla bazaude
aukera ederra daukazu.
- 14/ Begi-Txikiya eta Lokate
pensatzen det aitatzia,
bat ordu betez atea dedilla
eta bestian bestia;
biyai bakarrik jokatuko'iet
segan, konforme badia,
ainbeste ezpadira ni tentatzeko oik
ze aitona txotxo paria!
- 15/ Batzuk bertsuak jarri dizkire
eta bestiak saltzera¹¹,
argatik alako errespuestak
aditze'itute atzera;
are geiago merezi zuten
konparaziyo batera,
beste batian asitzerako
kontuak obeto atera.

1. Alegia, jakin izan bazuan ain aldean zebillela, geixeago ebaki eta irabaziko ziola.
2. Zizurkil'ko Miel Mari, Berastegi deritzaion etxekoa, sega-arrailtzaillea.
3. Erakuslea Joxe Anjel izeneko bat zan; Astearu'ko semea, baiña Alkiza'n bizi zana.
4. Florentino Mayoz, lenago segan Juanito Kortajarena'ren kontra jokatu eta aldi ontan alde zana.
5. Lokate au Aia'koa zan berez, Lokate deritzaion etxekoa, baiña Ernani'n bizi zana. Segalaria zan. Berrogei eta amalau bat urterekin. Iturriotz'en Prantzesari jokatu zion, baita irabazi ere. Prantzesa

- ori Bidasoa'z beste aldean jaiola zan, eta ortik zetorkion izengoitia; baiña Irun'en edo or nunbait bizi zan. Onek berrogei ta sei bat urte izango zituan.
6. Astiasuar batzuk, leen Juanitoren sozio ibiliak, aldi artan kontra ziran; ta leen kontra ziranak, orduan alde. Apustueta komeriak!
 7. Alegia, Juanitoren arraietara, lanetara, marketara, allegatzen etzala.
 8. Bertso-paperak: *allegatutzen*.
 9. Juanito Kortajarena'k Arteondoren kontra jokatu zuan pulsuan Zarautz'en, baita irabazi ere.
 10. Bertso-paperak: *kulpai geiena ta bat etzat*.
 11. Bertso-paperak: *ta bestiak saltzea*.

«OIEN KONTUAK...»

Begi-Txikiyak beste jarri-aldi bat ere paratu-arazi zion Txirritari. Baiña bertso-paper ori ez degu iñon ere arkitu. Txirritaren illoba, bertsoak kopiatu zituana alegia, bertso pare onetzaz oroitu da:

Oien kontuak oraindik ere ez ditut esan guziyak,
politaguak badadukazkit
atzenerako utziyak;
ni bakarrikan ez nitzan beira,
asko dira ikusiyak:
belar gañera pixa egin zuben
Iturrioz'ko nausiyak.

Parragarrizko kontuak dira ondo esango banitu,
ixilik egon niteke baño
barrenak ezin kabitu;
bigarren txandan pisatuta're
len beziñ eskax gelditu,
Iturrioz'ko Beltzaren pixak
etzuen asko serbitu.

BERTSO BERRIAK KORTAJARENA'K ESAN DA ASTEASU'KO ARANBURU-BERRI'K JARRIYAK

Baiña Juanito Kortajarena etzan ixilik geratu. Berrero ere ordaiñak jarri-arazi zituan. Aldi ontako bertsoak, lengoak baño mikatzagoak dira.

1/ Milla gañera bederatzireun oi ta amargarren urtian¹,
sega-apustu bat izan genduen
Iturrioz'ko partian:
Astigarrâ'ko Begi-Txikiya,
Kortajarena bestia,
segetan bapo jokatu ziran
mutill zarra ta gaztia.

2/ Begi-Txikiyak bigarren txandan ditu bertsuak atera.
Ze motibokiñ ipiñi ditu?
Oso txoratu ote da?
Nere erdiya izan zala bein konparaziyo batera;
gizon onaren tamañarikan beñere iritxi al zera?

3/ Lengo txandako bertso berritan publikatua dirazu:
«Indarra franko badezu baña gobernatzen ez dakizu».
Kaso egin gabe onelakua nauala uste al dezu?
«Astigarrâ'ko Begi-Txikiyak neurtu zaitu» esan'ezu.

4/ Ni neurtuko naun Begi-Txikirik ez da Astigarraga'n jayo, nere erdiya eiten ere orri ederki kostatzen zayo;
gizon erdiyai mantenuba're erdiya tokatzen zayo,
artara orri gona-dunak e laister irabaziko diyo.

5/ Apustu txar bat irabazi ta galani asko daukazu, emakumiak jokatuko dizu urrengua nai badezu;
goiko maldan neskatxa kontra segan ikusten badezu,
azpikaldeko txakonetik zuk begiratuko diyo.

6/ Neskatxa batek zuri segetan jokatuko'izula esan du, arentxen kontra ertengo al zera potenzirikan badezu;
plazan erantzi ta ikusitzian asko gustatuko zaizu,
begitxo txiki erdi itxub'oi antxen zabalduko dezu.

- 7/ Gizonezkua kontra uste ta emakumia prestatu, apusturako baldin bazaude orra biria txuxendu; lenbizi segan jokatu eta nai badu berakin ezkondu, obe zenduke oraindik ere orixe egingo bazendu.
- 8/ Ezkontzen bazera egongo naiz ni txoko batetik begira, ez dezu noski preparatuko famelirako segira; emakumiak eder xamarrak etxe aldian badira, auzotatik e laguntzalliak batzutan etortzen dira.
- 9/ Gipuzkoa'tik neska gazte bat segan jokatu nayian, artan bezela berdin egiten du atxurrian da layian, baita gañera kuziñan eta jan da eran eta oyian; erozein gauza ondo etortzen da orrelako sasoyian.
- 10/ Astigarrâ'ko Begi-Txikiya dala-eta segariya, dama gazte bat kontra (y) atera, ori da izugarriya; zu galtzakin da ura gonakin izango da komeriya, galtzen badezu deituko'izute Astigarrâ'ko kapoya.
- 11/ Begi-Txikiyai aparte samar sallah jartzen ezpazaizkiyo, neskaxa orri korrika joan da igual elduko diyo; eta ark berriz aker zarraren usaia aditzen badiyo, segan puntakin leio bakar oi igual aterako diyo.
- 12/ Begi-Txikiya, gezurrak dirala ez gero oiek pensatu, kapaz bazera illabete barru Kortajarena'na azaldu; bost milla pezta neskax orrekin nai badituzu jokatu, uda-atzenian Iturriotz'en izatekotan prestatu.
- 13/ Lokateri ta Begi-Txikiyai nik esan niyen egoki: ordu banatan nik aña belar oik biyak ezetz ebaki; bertotan baietz kontestatu ta portatu dira ederki, nere lan erdira eitera oiek joango omen dira noski.
- 14/ Oiek dauzkate bertsuak lasai, pulamentubak atzera, erozein moduz metitzen dira baztarrak enredatzera; zenbait aitona erdi txoratu egiten dira zartzera; agure zarrak erronka gutxi, arrantxua egin da etxera!
- 15/ Zeñek pensatu Gipuzkoa'tik olako damik bazala: apustuetan jokatu nayik gizonezkuak bezela? Mutill zar baten kontra gañera, Jaunak bedeinka dezala! Segalanian, neska-mutillak, gure aldian da txapela!²

1. Bertso-paperak: *ogei*.

Kortajarena'ren leenengo txandako bertsoetan 1931 esaten da; eta orain, bigarren txandakoetan, 1930...

2. Bertso-papera, «Imprenta Macazaga. - Rentería», Inozentzio Urkia, Portuene, Altzibar, Oiarzun.

Bertso auek beste argitaraldi bat ere izan zuten

toki berean: «Imprenta Macazaga. - Viteri, 32, Rentería», Mikaela Labayen, Astaitzaga, Leitza. Aldaketak: 1/1: Millaz gañera bederatzireun; 1/7: jendia franko bazan ikusten; 1/8: langille txarrak ez dira; 2/8: beñere izandu al zera?; 6/7: begitxo txiki erdi

kiskur oi; 8/1: Ezkontzen bazera eongo nitzake; 8/5: emakumiak tajuzkoantzak; 8/8: batzutan izaten dira; 14/3: erozein moduz mintzatzen dira; 15/8: guk daduzkagu txapela.

BEGI-TXIKIYAREN BEI, GURDI, ASTO TA IDIAK

Ernani'ko Begi-Txikiya segalariak bei-parea eta gurdia utzi zizkion basora-ko beste baserritar bati, onek ala eskatu-ta.

Urrena, berriz, astoa eskatu zion.

Auek ondatu zizkionean, idi-parea eskatu zion. Idiak artu eta Frantzi'rako asmotan igesi abiatu zan baserritar ori, baiña garaiz arrapatu zuten.

Orduan Txirritagana etorri zan Begi-Txikiya, pasadizo oni buruz bertsoak jartzeko eskatuz. Bai jarri ere.

Inprentatu omen ziran, baiña saldu ez. Guk ez degu paperarik iñon billatu. Onako auek, Txirritaren illoba txikia eta Sai-buru bertsolariaren semea dan Jose Maria Lujanbio'k emanak ditugu:

2/ Lanak artuta anparo billa zan neregana etorriya, lendabiziko prestatu nizkan bei-paria ta gurdiya; aitatik ere eztet kobratu baliyo zuten erdiya, asto bat ere il ziran eta ara naiko pikardiya.

3/ Astua il da gurdiya ausi, egun tristiak orduan; beiak lanian purrukatuak urrikaltzeko moduan; gaiztuak milla karkulaziyo ibiltzen ditu buruan, sujeto ori ezagutu det denbora jua da onduan.

1/ Bertso berriyak jartzera nua euskera eder batian, gizon batekin piatu nitzan anbat neretzat kaltian; etsai gaiztuak Kristo bezela lotu niñuten katian, ixtillu txarrak ikusi ditut andik libratu artian.

4/ Oiek orrela ondatu eta eskatu dizkit iriyak, eder askuak prestatu nizkan bastante tirakariyak, espalda-ezurrak eta kostillak etzauzkitenak eriyak; aiekiñ ere izan ginduzen zelebrezko komeriyak.

5/ Nere iriyak Frantziya'rako
gogo txikiya daukate,
bire erditik bueltatu ditut
nola baitagon aparte;
governatuko luke erriya
ori balego alkate,
zernai pikardi berak eginda
beti besterik kulpante.

6/ Jose Maria Mujika daukat
apellidu ta izena,
pena gogorak sufritzen ditut,
ez nago oso gizona;
nere denboran etzat aztuko
lagun zar batek esana:
badago zeñek zurrupatua
deskuiratzen dan gizona.

7/ Zerbait eskaka asi dan arte
prestua eta umilla,
bañan beria egiñ ezker
arrotutzen dan mutilla;
iñor iñondik etortzen bada
orren informian billa,
Santiyo-mendi'n bizi naiz eta
nigana etorri dedilla.

(1931)

BERTSO BERRIYAK

Bertso auk Txirritarenak dirala, ona nola dakigun:

Azkeneko bertsoan «Batista Yarzak jarriyak» esaten da. Yarza au, oiartzuarra jaiotzez, etzan bertsolari.

Paperak zabaltzeko bertso saltzaille-ren bat bear zuan noski, eta Errenteri'ko Pello Zabaleta bertsolaria zanarengana etorri zan, salduko ote zituan galdetzer. Pellok etzuan nai izan.

Izketan ari zirala, Txirritak jarriak zirala esan zion Yarza'k Pellori; baita ere onek guri.

Bertso-papera, «Imprenta Macazaga. - Rentería»-n: argitaratua, Oiartzun'go Al-tzibar'en, Olalde'ko Jose Anjel Sarasola-ren eskutik jaso nuan.

2/ Gaztetan ill nai ez genduen da bildurak gaude zartzeko, ausuntu orrek obligatu nau bertso berriyak jartzeko; atenziyuan egon zaitezte ongi goguan artzeko, len oien berri ez dakiyena eskarmentuan sartzeko.

3/ Anai batekin okasiyua izandu nuan lenbizi, buruan neuzkan illiak tente zizkidan jarri-erazi; asi ta ere ongi zekiyen etzala izango nagusi, ni koleratu niñuanian etxera juan zan igesi.

1/ Milla urte ta bederatzireun ogei ta amaikagarrena, bertso berriyak jartzera nua deskansatzeko barrena; egiyak garbi esplikatzia ez da gauzarik txarrena, orain iru urte okasiyo bat izan genduen aurrena.

4/ Igesi juan zan sujetu orrek beste anai bat bazuan, indartsuaren fama zeukana etxian eta auzuan; neri jipoia eman nayian zebillen asmo osuan, egun batian asi zan eta kukuak oker jo zuan.

- 5/ Ugaldetxo'ko zubi gañian
ura izketa torpia!
Uju ein ziran: «Ustel zerriya,
ator ni nagon tokia!»
Botillarekin tiratu ziran
izugarrizko kolpia,
ni izan nitzan lendabiziko
berak azpira botia.
- 6/ Apartatutzen asi ziran da
arren lagunak uzteko,
bata bestia probatu arte
ez inork galerazteko;
berriz gañera bueltatutzerik
nonbait etzuten usteko,
denbora gutxi asko izan det
arri muturrak austeko.
- 7/ Odolak azkar berotzen zaizka,
ez dago mutill sotilla,
neri burura kolpe tira ta
puskatu zuan botilla;
bestiak lotan egon balira
ondo zebillen mutilla,
orrek merezi zuben moduan
bukatu degu batalla.
- 8/ Medikuaeren etxera juan da
juezari eman parte,
kulparik gabe jo nuela ta
kastigatzeko ni fuerte;
orrek guardiya bialdu ziran
bere arma eta kate,
kalabozuan egondu nitzan
urrengo amaikak arte.
- 9/ Kalabozotik tribunalera,
ura zan larritasuna!
Au da lenengo arrazoi bat an
juezak neri esana:
«Bartarratsian purrukatuta
kolpatu dezu gizona,
jakiña dago zerbait kastigu
eman biarko zazuna».
- 10/ «Errespetatzen zaitut, jueza,
zeren daukazun gradua,
orañ artian izandu zera
leiala ta onradua;
baño gizona kastigatzeko
au ezta gero modua,
botillarekin kolpe tira ta
iya autsi ziran burua».
- 11/ Au adituta juez prestua
begira zitzaidan jarri,
esanaz: «Orañ ausuntu ori
bukatuko degu sarri;
lendabiziko kolpia zeñek
tiratu ziyon elkarri?
Orretarako zuk bi testigu
biar dituzu ekarri».
- 12/ Amar testigu etorri ziran,
pareja bat zan deitua,
guri begira egondu zana
an bueltan ibillitua;
ausuntu ori erabaki zan,
ezta dudan gelditua;
kastuetatik libratu nitzan,
irabazi det pleitua.
- 13/ Mundu guziyak jakiñ dezala
zabalduko det gazeta,
gezurrez eta testimoniyoz
ondo naukazu aseta;
kulparik gabe juezetara
deitutzen nazu maiz eta,
nik matsa nola ebakiko det
ardo-zalia naiz eta?
- 14/ Oraindik lengo gorroto zarrak
etzaude oso aitua,
ezagutzen da nola zauden zu
arrokeriyan oitua;
ni naiz matsikan ebaki gabe
juztiziyara deitua,
alare oso kontentu nago,
irabazi det pleitua.

15/ Bigarren txandan matsa moztuta
juezari eman parte,
pazientziya asko det baño
koleratu nitzan fuerte;
jeniyo fiña ibilliko da
orrengandikan aparte,
gríña gaxtuak tiratuko du
bizirik dagoen arte.

16/ Gezurrarekin eman dituzu
ausuntu izugarriyak,
orrengatikan arrazoi gabe
utzi zinduen erriyak;
gusto duenak kanta ditzala
amasei bertso berriyak,
merezi duen sujeto bati
Batista Yartzak jarriyak.

(1931)

BERTSO BERRIAK
ANTXO'KO EUSKAL FESTARI
JOSE MIGELEK JARRIAK

Bertso auei buruz, adierazpen au idatzian Txirritaren iloba zan Jose Ramon Erauskin'ek:

«Joxe Migel Iñarra zan Altza'ko base-ri batekoa, eta bertotarako eta festarako beti prest zegoena, naiz etxean lan batzuek egiteko utzi.

Bere bertsoak dioten bezela, garai artan Pasai Antxo'ko gazte alai batzuek euskal festa bat antolatu zuten; eta, beste ikus-gai polit askoren artean, bi karroza atera zituzten.

Aietan bat, *Loretso* izena zuana, arbolak ederrez eta neskatxa politez apaindua, eta, jakiña, orrenbeste apaingarri eta neskatxekin karga aundia osatu zitzaion, eta jira-era batean ardatza autsi eta erori edo oso okertu zitzaioten.

Orain zerorrek pentsa zazu, irakurle, zer algara, karraxi eta kurrixkak aterako zituzten orduan gañean zijoazen *loretso* aiek, onela uste gabeko ikuskizun bat geiago festari emanaz.

Ikasi zuen len esan degun Jose Migel orrek gertaera ori, eta etorri zan Txirritagana, esanaz:

–Bertsoak jarriko al dituzu? Baña neronek jarri banitu bezela jartzea nai det gero, e?

–Bai, bai! –erantzun zion Txirritak, eta ala atera zituan ondorengo bertso auek».

- 1/ Milla urte ta bederatzi eun ogei ta amaikagarrena, urriko illaren emeretzian¹ bildu giñan alkarrena; desgrazi batek Antxo'n askori bueltatu zion barrena, dozenatxo bat bertso jartzeko eman dirate ordena.
- 2/ Nongua naizen aitortuko det, Jose Migel det izena, Altza'n jaiio ta bataiatua, bertan bizitzen naizena, len ere zenbait olako festa ikusitako gizona; saiatuko naiz egiten dedan nere lagunen esana.
- 3/ Jose Juakiñek zituan beiak, Txipres'ko Pedrok iriyak, karro ta guzi preparatuta presentatu dira biyak; kantuz nai ditut adierazi pasa diran komeriyak, emen ez dia noiznai ikusten olako erromeriyak.

- 4/ Jose Juakiñen baserri orrek
Loretxo zuan izena,
egun orretan ara juan zan
len Matxikarren izana,
azienda ta karruen berri
ondo dakiyen gizona,
edozein moduz engañatzeko
ez dago trapu zuzena.
- 5/ Loretxo ori etxe polita
apainduriyaz jantziya,
buelta guziyan adornatua
dana arbolaz josiya;
Jose Juakiñek an bizitzeko
omen du komenentziya,
Otaegi'tarrak lagun baditu
aterako du biiziya.
- 6/ Iri-jabiak ango lanari
etziyon ondo iritzi,
itzaiak «Aida!» esaten zuen
eta gurdiyak irrintzi;
kurban bueltatzen asi zanian
ardatza zitzaion autsi,
adios gure karroza ederra
bere neskatxa ta guzi!
- 7/ Zintzarri-soñu, gurdi-irrintzi,
aiek ango komeriyak!
Gazte txoruak poztutzen ditu
olako erromeriyak;
beste ainbeste jarrita ere
tirako zuten iriyak,
ardatza autsita bukatu ziran
oien zelebkeriyak.
- 8/ Emezortzi bat neska ta mutil
jarriagatik gañian,
iriyak aisa tiratzen zuten,
ondo zebiltzan lanian;
sinistamenik etzuten izan
mutua'ren esanian²,
alkarri elduta gelditu ziran
ardatza autsi zanian.
- 9/ Itzaiak ziyon bere koleran:
«Emen badago naiko lan!
Indarrrik gabe gelditu gera,
kargak zeuzkiyen arbolan».
Anjel Otaegi'k: «Sartu zazute
Inazioren txaoan,
fiesta aitzian konponduko da
da bitartian dagol'an»³.
- 10/ Kalerik kale bazijuazten
irrintzi eta marrua,
karga geiegi bota ezkeron
bajaturzen da arrua⁴;
arren gañian izango ziran
berreunen bat arrua,
ez ikaratu, Julimas'tarrak⁵,
konponduko da karrua.
- 11/ Jendia franko bazegon parrez
arri begira jarriya,
alde batera desgraziya zan,
bestera parragarriya;
iruritzen zait orren arlote
ez dagoela erriya,
fundiziyuan egingo dute
orrentzat ardatz berriya.
- 12/ Antxo'tarrentzat zer esanikan
ez dadukagu batere,
ango karrozak eta txismiak
jarri zituzten dotore;
askoz oberik ezin liteke
ederrenera jota're,
arkitetuen biarririk etzen,
mutua zan direttore⁶.

1. Bertso-paperak: *urteko illaren*; Txirritaren illobak dionez: *urriko illaren*.

2. Mutua arotza zan. Ezin itzegin, bañan keñuka ta abar, bear dana adierazten zekiana.

3. Bertso-paperak: *dagola an*.

4. Bertso-paperak: *bajaturzen arrua*; da ori Txirritaren illobak esanda erantsi degu. Ncurrirako beintzat ala bear du.

5. Julimas, Errera'ko baserri bat. Ango gurdia
zan. Bertso-paperak *ez ikatu* dio.

6. Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea,
Oartzun'go sakristauak emana.

«Bertsolariya» aldizkaria, Errenteria, 40'gn.
zenb., 1932/VI/19.

IGANDETAKO EUSKAL ORRIARAKO

Lau bertso auek, or goiko izenburu eta beeko firmarekin, periodiko puska batean arkitu ditugu. Ez dakigu zein egunetan argitaratu ziran. Lasarte'ko Basoaundi baserriko Isabel Zuaznabar'ek emana dugu periodiko puska ori.

1/ Ontzat artu det *Pueblo Vasco*'an
irakurri detan itza,
saiatuko naiz orren esanak
egin al baldin banitza;
denak alkarri lagun zaiogun
kristau fedetsuen gisa,
gora euskera eta klerua,
Jaungoikoa ta Eliza!

2/ Aita Eternua zeru ta lurren
jabia ta gurasua,
gauza guziak egin zituen
Jaungoiko amorosua;
asko pentsatzen ez dan garaian
emango digu mazua:
ez dakigu noiz bajatuko dan,
or dago gora jasua!

3/ Kristau onentzat dago zerua,
gaixtuak ez du parterik,
giltzarik gabe ez da zabaltzen
itxita dagon aterik;
beñ ill ezkeru ez dauka iñork
mokadurikan jaterik,
ara ez dago kapoiakin ta
arkumiakin joaterik.

4/ Gau eta egun nere buruan
buelbaka dabilta euskera,
jaio ta iru urte baño len
ikasi nuen izkera;
altxa gogotik, kuido gabe,
gu zure kontra ez gera,
lenago maite izan zaitugu
ta oraiñ ez guaz uztera.

(1935)

BERTSO BERRIYAK

Jarri-aldi ontako leenengo bertsoak onela dio bigarren puntuan:

bertsuak jarri dituzte zerbait aurreratzeko ustian...

Eta azkeneko puntuan:

oraiñ jendiak miñ izango du bueltak kantatzen astian.

Eta bigarren bertsoaren asieran onela esaten da:

Zazpi mutill da lau neskatx dira guri bertsuak jarriyak...

Bertso auek, leenagoko jarri-aldi bati emandako erantzuna dira, beraz. Leenengo jarri-aldi ori ez degu inñun arkitu.

Bigarrenengo au Txirritak jarria da. Agustiña eta bere osaba *Potoko* etorri ziran bertso-eske. Aia'ko Arrian goi xamarean bizi ziran.

Txirritaren illobak, gauza auek kontatu dizkigunak, oraindik gogoan dauka nola etorri ziran Altza'ra, Gazteluene'ra, jai-arratsalde batean.

Arratsalde osoa kontu-kontari pasa zuten. Amaika parre eragin omen zieten bertakoei.

Nasketa asko zan orduan Oiartzun al-

dean: Oiartzun'go baserri batera neska-me bat ekarri zuten Fraisoro'tik. Neska-koxkorretan ekarri eta bertan azia. Gero, okerren bat gertatuta, ostera Fraisoro'ra bialdu zuten aurra uztera.

Agustiña eta Potoko joan ziran atzera etxera. Txirritak bertsoak jarri zituan, eta Errenteri'ko Makazaga'renean inprentatu ziran. Paper oietako bat Txirritaren illobak berak eman zidan.

Baiña besteak ere etziran lo egon: beste bertsolari batengana joan ziran, eta bertsoak ordaiñetan jarri-arazi zizkioten. Ez dakigu nor izan zan bertsolari ori.

Bertso auek ere Errenteri'ko Makazaga'renean inprentatu ziran, eta Oiartzun'go Garmendi-Txiki baserriko Tiburzia Etxebeste'ren eskutik jaso genduan papera.

- 1/ Milla urte ta bederatzia eun ogei ta amabostian bertsuak jarri dituzte zerbait aurreratzeko ustian; Agustiña ta «Potoko» nola oikiñ kontentu ez-tian, oraiñ jendiak miñ izango du bueltak kantatzen astian.

- 2/ Zazpi mutill da lau neskatx dira
guri bertsuak jarriyak,
arrazoiaren biderik gabe
gezur ikaragarriyak;
berak merezi duten moduan
artuko zaizte neurriyak,
oiek dirade orgullosoak
eta talentuz urriyak.
- 3/ Etxe batian pasatu nuen
serbitzen zerbait denbora,
lendabiziko sortu ziraten
gezurra au izango da:
despatxatuta an negoela
juan nai ezik iñora,
nere kopria bota zutela
gero leiotik kanpora.
- 4/ Filarmonika koxkor batekin
Mariano munduz-mundu,
boda aberats askotatikan
ez dezu deiyk izandu;
ankak garbitzen ez dakidala
neregatikan esan du,
obe zenduen soñua jotzen
onla ikasi bazendu.
- 5/ Zakur guziyak zaunkaz jarriyaz
or dabill jai-arratsian,
bañan obiak azaltzen zaizku
kalera etorritzian;
orrek soñua jotzekoz iñork
konprenditzeko klasian,
iru bat urte pasa biaitu
maisú on baten etxian.
- 6/ Kuadrilla ortako iru mutillak
lengo jai-arrats batian
pentsamentu bat atera dute
anbat beretzat kaltian:
«Bakarrik ziók neska zarra ta
bordara juan gaitian,
gezur batekiñ engañatu ta
sartuko gaituk atian».
- 7/ Bi Inazio ta Juakin ziran
asaltoko soldaduak,
patar da guzi neskatxagana,
oso mutill onraruak;
orduko zurrut asko egiñak
berotutxiak buruak,
bañan apenas egiñak diran
berak nai zuten moruak.
- 8/ Modu txarrian tratatu zuten,
errira eman du parte;
kartzela, multa ta amenazo
kastigatu dira fuerte;
kristau gaiztuak geitxo eranda
badu makiña bat arte,
orrelakuak izango dira
mundua mundu dan arte.
- 9/ Ai, Mariano, jakintsun nago
zer estadutan zabiltzan:
paotxa janaz anima salbo
ari konkorraren gisan;
osaba zarra bere denboran
ez da orlakua izan,
biar badezu nik bezelaxe
juan da artzazu elizan.
- 10/ Pasadizua itz egingo det
auzuak jakiñ dezaten,
aziyo txarrik ez dizut egiñ
ez iyez eta ez aurten;
osabagatik ari zerade
zernai pikardi esaten,
zere denboran kostako zaizu
ni aña gizon izaten.
- 11/ Fortunatu da oien etxetik
dama gazte bat juatia,
Billabona'ra bialdu dute
bera jaio zan tokia;
beretzat ezer gelditu gabe
entregatu du dotia:
alabaren bat eder askua
izan biar du botia.

- 12/ Neskaxa orri jarri zitzaion
bastante gorputz torpia,
orañ atzera tajatu dute,
eman diyote kortia;
errikumia izanagatik
opa diyote dotia,
soldatarekiñ bialdu dute
ekarri zuten tokia.
- 13/ Ori orrela gertatu arren
ez ikaratu, gaztia,
zugatik norbait oroituko da,
lasai ibilli zaitia;
nekez bada're azalduko du¹
len zuen borondatia,
jaiotexian deskargatu da
ez dakit zeñek betia.
- 14/ Orañ artian gaitz aundirikan
ez dizut egiñ izandu,
zuretik zerbait arrapatuta
ez naiz onela gizendu;
xentimo baten kulparik gabe
osaba autan artzen du,
obe zenduen zere etxera
erreparatu bazendu.
- 15/ Gabeko amarrak inguru ortan²
tabernatikan atera,
ta juaten dira Aularre deitzen
diyoten toki batera,
etxe artako fameliyari
alabantzak ematera,
eta jabiak uzten badiye
paotxa lasai jatera.
- 16/ Billera dago Aularre deitzen
diyoten etxe batian,
asi gabeko amarretan da
ordu bata bitartian;
zazpi mutil da lau neskax gazte
danak dirade partian,
itz-bire ederrak jarri dituzte
aurten da juan dan urtian.
- 17/ Etxe ortako etxeoandretza
ama zarraren gradua,
urtiak pranko baditu eta
urdindu zaio burua;
zigarrua nai al zuen eta
erantzuteko modua:
paperezkorik etzuela nai
izatekotan purua.
- 18/ Etxe orretan mutillarekin
gertatu diran kasuak,
danak guziyak ez noski baño³
ikasi ditut batzuak;
garai txarreko dibersiyuak
dirade peligrosuak,
alare oiek ipiñi biar
bestereगतik bertsuak.
- 19/ Andres ta Jose eta Batista,
Alejandro zan bestia,
inozentiak leziyatzeko
maisu gaiztuak ezitia;
larru gorriyan gertatu da maiz
oitako bat ikustia,
jeniyo txarrak artuba dago,
kostako zaio uztia.
- 20/ Jaun oiek baldiñ gertatzen bada
gure etxera juatia,
denbora labor azalduko da
daukagun borondatia:
alper-alperrik joko dituzte
leiuak eta atia,
kostako zaie Agustiñaren⁴
paotxetikan jatia.
- 21/ Etxian morroi eduki degu
mutill bat formal askiya,
oitara juan da kontatzen zuen
aditzen zuen guziya;
gure kontuak ikasitzeko
Luertza zuten ispiya⁵;
orra pagatu ordañarekin
egin dezuten gaizkiya.

1. Bertso-paperak: *azalduko da*. Txirritaren illobak dionez, *azalduko du* bear du emen.

2. Bertso-paperak: *inguratu ortan*. Au ere, Txirritaren illobak esan bezela zuzendu degu.

3. Bertso-paperak: *guziyak ez noski baño*. Neurrian motx dago beraz. Txirritaren illobak mol-

diztegiaren utsegiña dala esan digu, ta *danak* aurretik erantsi bear zaiola.

4. Bertso-paperak: *zaiio*.

5. Luertza, oiartzuar baten izengoitia.

(1935)

BERTSO BERRIYAK

- 1/ Milla beatzireun eta ogei ta
amabostgarren urtia,
kausa txiki bat berritu degu
zazpi mutillen artia(n);
gure arteko dibersiyotik
etortzen bada kaltia,
ez da posible gazte denbora
bear bezela joatia.
- 2/ Mariano eta Andres ta Jose,
Inazio eta Joakin,
Alejandro ta Bautista ere
partian dira gurekin;
entenditu detela uste det
mutillan izenarekin,
emakumiak nonbratu gabe
zein diran liteke jakin.
- 3/ Prueba txarrik ez degu eman
guk Oiartzun'go partetik,
ta batez ere etxe ortako
billera dagon ortatik;
esan biarrak aundiyak dira
zenbaiten mingañetatik,
eskerrik asko libre gerala
lujuriyaren katetik.
- 4/ Iru kulpante gure kontrako
salsa eta enbusteri,
ezkondutako gizona da bat,
emakumiak gazte bi;
berak dituzten tatxa guztiyak
bota nayian besteri,
kulparik gabe pena aundiyak
eman dizkate askori.
- 5/ Publiko dantza egiten dala
goizeko ordu batian,
lotsik ez duen batek esan du
au Oiartzun'go partian,
galerazteko pentsamentuan¹
gure atari maitian;
orain jendia konturatu da
gezurrak nola baitian.
- 6/ Lau neskatxa ta mutillak zazpi
ezin gerala atzendu,
baliatuaz bizi gerala
Azeigorri'ko Agustinak esan du;
etxe ortako alabaetatik
okerrik ez da izandu,
obe zenduen zure burua
esamiñatu bazendu.

- 7/ Alkarren lagun giñan mutillak
jarri gaituzte seriyo,
zuri etzaizu ajolik baño
askori inporta zayo,
orrenbeste itz eragitia
salsera baten mediyo,
idea ortatik izango dezu
alde aña kontrariyo.
- 8/ Ordu batian jua giñala
ari al zera ejuka?
Orren berandu pitarrarekin
nola genduen epoka,
orduan ondo preskatu giñan,
ez giñan jon kojoka;
zu oira baño lenagotik zan
ollarra kukurrukuka.
- 9/ Garai onian bukatzen dira
gure billerako dantzak,
gero pitarra eranez nun-nai
pasatzen dira arratsak;
testimoniyo zarri dituzu
familiako salsak,
mingaiñ zikiña dezun mediyo zar
badira naiko mudantzak.
- 10/ Gazte zerala ikasi dezu
murmuraziyoko martxa,
zure esana sinistekotan²
geienak badegu tatxa;
gezur aundiyak naspillatuta
egiyak geroko altxa³,
lagun guztiyak ondatzeko da
modu ortako neskatxa.
- 11/ Soñua jotzen ez omen zuen
Marianok ikasiko,
zure bototik aprendiz nago
nere denbora guziko;
bañon zedorrek anak garbitzen
jakin zazu lenbiziko,
apiziy³ori ez dubenari
etzaio egin aziko.
- 12/ Etxe ortako billera ortara
juntatzen geran gaztiak,
zuk dezun aña edukaziyo
izango degu bestiak;
bentaja duela uste al dezu
soñua galeraztiak?
Bere burua guardatzen du
bildurra duen tristiak.
- 13/ Gure kontrako pekatariya
izenakin det esaten,
neskame ere serbitua da
obeto jakin dezaten;
bere arropak etxe batian
preparatuak zauzkatzen,
bestela ezin bialdu eta
leiotik bota zizkatzen.
- 14/ Oso mudatzen ez baldin bada
jeniyo oien kuziña,
leku askotan izango dezu
begiramentu muziña;
auzo guziyak enredatu eta
geiago egin eziña,
ojala zure kopetetikan
santiguatzen baziña.
- 15/ Pizti gaixtuen igesi juana
arbol azpira usua,
eiztariaren bire-gurutzera
lenengo pasaizua;
ori tentatzen duenak berriz
konzienziya pisua,
inozentiak eskolatzeko
ai zer nolako maisua!
- 16/ Mariano eta Andres Naparra
dira alkarren lagunak,
Inazio eta Jose ta Joakin
adiskide ezagunak;
Alejandro eta Batista ere
juiziyua degunak,
sasoi degula garbitasuna
guardatu dezakegunak.

17/ Oiek esaten duten bezela
gu ez gabiltza nesketan,
billeratikan atera eta
pitarra eraten bestetan;
gabez tabernan ez gaudelako
ote gabiltza espetan?
Potokok berak ez ote daki
nolakua zan gaztetan?

18/ Gazte ezkontzak zerratzen ere
iaiua zaude, Potoko,
kariñuakin fruto obiak⁴
ez al dituzte botako?⁵
Besterentzako esan biarrak
alare etzaizu faltako,
errespetua jartzeko baño
obia zera ortako⁶.

19/ Aunditsu ori purgatuko da
zabaldutzian egiyak,
ez geralako paotxetara
usatutako ariyak;
alperraguak mantentzen ditu
artuak edo ogiyak,
baserritarran gaztetasuna
badaki bertsolariyak.

20/ Desordenarik aundiyena da
ez diran gauzak sortzia⁷,
makiñatxo bat ama gaxori
estutzen zaio kortsia;
bat edo batek pensatzen badu
oien ordañak jartzia,
kostako zaio pasaizua
bear bezela neurtzia⁸.

-
1. Bertso-paperak: *galazteko*.
 2. Bertso-paperak: *sinistetakotan*.
 3. Bertso-paperak: *egiyak gerako atxa*.
 4. Bertso-paperak: *kariñuak*.
 5. Bertso-paperak: *ez alduzte botako*.
 6. Bertso-paperak: *ortuko*.
 7. Bertso-paperak: *diraden*.
 8. Bertso-papera: «Imp. Macazaga. -Rente-
ría», Tiburzia Étxebeste, Garmendi-txiki, Oiartzun.

BERTSO BERRIYAK («ARBOL IZUGARRI BAT»)

Amasei bertso auek, Errenteri'ko Makazaga'renean inprentatu eta Oiartzun'go Alzibar'ko Olalde baserriko Jose Anjel Sarasola'ren eskuetatik jaso genduan bertso-paper batetik ditugu.

Oi danez, bertso-paper orrek ez du *Bertso Berriyak* beste izenbururik. Bigarrena, kako tartekoa alegia, gerok ipiñia da, leenengo bertsoaren zazpigarren letrorik artuta.

Izan ere, orixe dute gaia bertso auek: arbol izugarri bat, aritz bat, eta ura karreatzearen Oiartzun'go itzaiak artu ziztuzten nekeak eta lanak.

Zortzigarren bertsoak dionez, aritz ori emezortzi metro zan luzean. Etzan, beraz, txantxetako puska. Beste zenbait argibide ere ematen dira.

Oiartzun'go Iturriotz'ko Robustiano Urkia'k onela esan digu:

«Barku baten killa egiteko, azpiko zera egiteko nai zuten. Oso-osorik eraman bear ba. Ondarrabi'ra eraman bear, eta an preparatu, gero barkua egiteko».

Ondoren, bertso auen doiñua kantatu zigun. Magnetofonoz jaso genion, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain jaunak izan dira solfeoz papereratu dutenak. Ona emen:

Baiña artean, bertsoak nork jarriak ziran ikasi gabe geunden. Argitasun ori eman diguna, Oiartzun'go Aranburu baserriko Antonio Lekuona Mitxelena izan da. Onela esan zigun:

«*Eute* ta nere osaba, Burkondo edo Naparra bertsolaria alegia¹, joan ziran bertso aukeratzera Txirritagana, esplikazioak emanaz.

Txirritak esan zien:

–Olako egunean etorri zaitezte! Prestatuko ditut!

Ala, esandako egunean joan ziran eta Txirritak galdetu:

–Ez al dezute inor bertso oietan aitatu bearrik?

–A, bai! Kate polearekin Karrika'ko errotaria lagundu zigun eta ura.

Orduan, segituan, berak an zeudela, Txirritak beste bertso bat asmatu eta esan zuen, eta illobak apuntatu:

Puska ezin jasorik
giñadela ari,
zeñek lagun egiña
izandu zan guri;
kate polearekin
zitzaigun etorri,
eskerrak Karrika'ko
errotariyari.

Auek danak, nere osabari entzunda dakizkit».

Etxera bezin laixter, gure bertso-artxiboan azterka asi giñan, eta egillearen izenik gabekoetan an azaldu zitzaigun bertso ori zuen papera.

Ala ere, urrena ikusi genduan batean eta segurantzi geiago izatearren, bertso aukeratzeko jarriak ziran ba ote zekian galdetu genion, bertso-papera eman zigunari: Olalde'ko Jose Anjel Sarasola'ri;

eta, berak uste zuenez, Txirritak jarriak izango zirala erantzun zigun.

Bein baño geiagotan aitatzen dan *Eute* ori, Sebastian Lekuona zeritzan, eta Oiartzun'go itzairik onena omen zan; boza izugarri ona zuana.

Amargarren bertsoan, *Eute*'ren aiudantia aitatzen da, Egieder'koa. Baserri ori Errenteri'ko partean omen da. Nikolas Portugal zeritzan itzai ori.

Martin izeneko bat irutan-edo aitatzen da. Ori txoferra zan; Errenteri'ko Malen'ekoa.

Leen esan bezela, azken bertsoa Karrika'ko errotariaren ondragarri jarria da. Asteasuinzarra zeritzan.

Urmendi izeneko mendia zazpigarren bertsoan aitatzen da. Zaldin'dik Artikutza'ra bitartean omen da; Marimotzeko mendia ere esaten omen zaio.

1/ Siglo berriyan oi ta² amabost bat urte, ez gera iritxi baño ez dira aparte; bertsuak paratzeko enkargatu naute, arbola izugarri bat dala mediante.

2/ Oiartzun'go itzaiak kontentu dabilta, kunplitu dutenian emandako itza; kostata jetxi degu Karrika'ra aitza, txoferra're ez da juan uste bezin aixa.

- 3/ Bost pare iyo giñan
karro eta guzi,
probarik egin gabe
ez genduan utzi;
pertika puskatu ta
bi uztarri autsi,
eltzen geniyon baño
mogimentu gutxi³.
- 4/ Txoferrak esan zuan
aditutakuan:
«Oien iriyak daude
gobernu flakuan;
gaxuak indar gutxi
daukate lepuan,
ez dute ekarriko
berialakuan».
- 5/ Zazpi pare juañ giñan
ondoko egunian,
asko beldurtu gabe
koraje onian;
Eute arren gogotsu
ikusi zanian,
gustora ekin ziyon
jendiak lanian.
- 6/ *Eute* asi zaio
arbolari oska:
aundiya dala baño
komeriyak dauzka;
gaur ikusi biar du
nai ez duan festa,
lengo txandan bezela
libratuko ezta⁴.
- 7/ Geren puska orrekin
giñaden atera,
beldur asko gatozen
Urmendi'tik bera;
noizbait ere Karrika'n
allegatu gera,
jendia pozik juañ zan
zurrut egitera.
- 8/ Puska bazan luzian
emezortzi metro,
eun da berrogei ta
zortziren bat beso;
geiena giyar utsa
pisua zan oso,
ura karro gañera
etzan errez jaso.
- 9/ Martiñi abisua,
orla gabiltzala,
nai zuenian puska
eraman zezala;
bildur aundirik gabe
etorriko zala;
ura're utsik juañ zan
itzaiak bezela.
- 10/ Sei pare puntan jarri
ta bat ondotikan,
jaun oiek egin zuten
lana gogotikan;
Eute zuten ango
itzaien kapitán,
eta aiudantia
Egieder'tikan.
- 11/ Martiñ etorri zaigu
biyaramunian,
bere motor da karro
koraje onian,
puska automobilian
sartu degunian,
esanaz: «Eramango
det bi egunian».
- 12/ *Eutek* esan ziyon:
«Zu, Martiñ maitia,
al dan polikiyena
abiya zaitia;
itzaiak ere ala
etorriyak tia⁵,
onekin kostako da
aguro juatia».

13/ Abiyatu zanian
ura aren seta,
mendiko bizi-moduz
etzegon aseta;
zernai egingo zuen
izan balu beta,
aidian eraman du
Xerrai'en meta.

14/ Ondarrabiya'n puska
ikaragarriya,
Anjelen tallarrian⁶
an dago jarriya;
itzaiak egin dute
naiko pikardiya,
ardotan kastatua
omen da erdiya.

15/ Kastilla'n mats-arbol bat
ez det uste danik,
aurten orri aña ardo
kendu diyotenik;
trago ederra pranko
badute eranik,
baño ez det aditu
mozkortu diranik.

16/ Puska ezin altxarik
giñadela ari,
zeñek lagun egiña
izandu zan guri;
kate polearekin
zitzaigun etorri,
eskerrak Karrika'ko
errotariyari.

-
1. *Naparra* orren berri: *Auspoa*'ren 116'an.
 2. Bertso-paperak: *Siglo berriyan ogei ta*.
 3. Bertso-paperak *moimentu gutxi*.
 4. Bertso-paperak: *ez da*; punturako *ezta* bear du.
 5. Bertso-paperak: *etorriyak dia*. Baiña punturako *etorriyak tia* bear du; esan ere ala egiten da, eta Txirritak ere ala esango zuala dudarik ez da.
 6. Bertso-paperak: anjebe'n tallarrian. Baiña Ondarrabi'ko Fernando Artola *Bordari* adiskidea zanak jakin arazi zigunez, *Anjelen tallarrian* bear du; Anjel Aseginolaza alegia, Ondarrabi'n astillero bat zuana.

BUKATU GABEKO JARRI-ALDIA¹

«Txirritak bertso asko jarri ta kantatu zituala danok dakigu, bañan ala ere nai ainbat etzuan jarri.

Entzun izan nion bein baño geiagotan, bere bizitza esplikatuaz bertso on batzuek jarri bear zituala; baita bat edo beste kantatu ere.

Nik jartzeko ta jartzeko esaten nion, jarri-aldia osatzeko alegia; baña, lastima dan bezela, onoko puntu auek besterik ez nizkan gogoan artu.

«Ai gure antziñako» kanta zarraren doñuarekin kantatzen zituen:

.....
.....
.....
nere pasadizuak
bear ditut esan:
neroni're banabill
ni nabillen gisan,
parientiak onak
ez banitu izan,
ospitalen batian
unuzkero ill nitzan!

Bañan beti gerorako utzirik, eriotza etorri zitzaion eta etzuan jarri-aldi ori bukatu.

Ikusten danez, irurogei ta amabost urte munduan pasa arren, bertsoetako lana berak nai bezela bukatu gabe Jaunak eraman zuan».

1. Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illobak idatzia.

ZARRAREN AGURRA

Donostia'n, 1936-I-19'an, Bertsolari-egunean, txapela jantzi ondoren, bost bertso jarri zituan Txirritak eskerrak ematearren-edo, eta *El Día* egunerokoan azaldu ziran, 1936-II-7'an, or goien ezarri degun izenburu orrekin berarekin.

Bearbada, auek izango dira Txirritak jarri zituan azken bertsoak.

Onela diote:

1/ Ontzat artzen det zenbait
bromako esate,
eta bestiak ere
oi egiñ bezate.
Aita banitz bezela
maitatu nazute,
ta nola nagon zarra
ikusten dezute,
ontaz aurrera zuek
segi zaiozute.

2/ Gaztiak jardun dira
bertsuetan bapo,
ixildu gabetandik¹
zipla eta tako;
oriyek ez daukate
memoriya flako,
bakoitzak biar ditu
bi ni bezelako,
errespetatu naute
zarra naizelako.

3/ Talentu asko ditu
zenbaiten buruak,
oietatikan datoz
gauza seguruak;
gureztat izan dira
gizon onraduak,
zar-gaztiak dotatu
ginduzen Murua'k,
ixtimatutzen ditut
zure bost duruak.

4/ Zubimendi ta Ariztimuño
ez dira izdun itsusiyak,
eskolaz ondo jantziyak daude,
gauza asko ikusiyak;
juradu eta sekretariyo
gizon abillak guziyak;
Basarri zuten laguntzallia,
merezi ditu graziyak,
nola maiteko ez du euskera
Zarautz'en jaio ta aziyak?²

5/ Arrokeriyan ez naiz asiko
irrintzi eta algara,
umildadian itzegitia
gustatuzten zait, al bada,
danak alkarri lagunduta're
bizitzen naiko lan bada;
salan ez daukat ezer askorik,
iya ustu zait ganbara,
nere bertsuak aituxe dira,
orain gaztien txanda da.

1. *El Día'n, illi gabetandik dago. Olako zerbait*
bearko dualakoan, *ixildu gabetandik jarri degu.*

2. Txirritak etzuan jakingo Basarri Errezill'en
jaoia zanik.

«Txirrita'ren Testamentua»

«TXIRRITA'REN TESTAMENTUA»

Txirritak, ia-ia bere denbora guzian, paperetan argitaratu zituan bertsoak. Baiña azkeneko urteetan, paperetan ez-ezik bestetan ere bai.

Leenengo, 1930'garren urtean, liburutxo bat atera zuan: *Txirrita'ren Testamentua*.—117 bertso bere denboran jarri dituan obenak.—1930, Imp. Macazaga, Rentería.

117 bertso oietan badira aotik aorakoak eta bai paperean jarritakoak ere. Aotik aorakoak liburu onen leen zatian eman ditugu. Paperean jarri eta *Txirrita'ren Testamentua* liburuxka ortan azalduak, berriz, emen biltzen ditugu.

Oietatik badira leen ere bertso-paperean argitaratuta zeudenak. Ijitoenak, adibidez. Oiek onen aurreko liburuan sartu zitezkean, noski. Baiña Txirritak bere denboran liburu bakarra argitaratu baitzuan, liburu ori dagoan bezelaxe gorde nai izan degu, bere bertso guziekin alegia, aotik aorako oiek izan ezik.

Txirrita'ren Testamentua liburu orrek itzaurrerik ez du. Etzaigu beraz adierazten zer eta nolatan gogoak eman zion liburutxo ori egitea.

Aren illobak esango digu ori. Ara zer idatzi zigun:

«Bein baño geiagotan joaten zitzaion

illoba au Txirritari goizean, oiean zegoen tokira, bertsozik bazuen galdetzera. Askotan izaten baitzuan ordurako bat edo beste sumatua.

Goiz batean, Txirritak bertsoa osatu zai zegoen bitartean, bere illobak, zer eskribitzen zuan inportantzirik eman gabe, denbora pasa bezela, artarako erabiltzen zuen *blok* baten azalean, onela jarri zuan: *Txirrita'ren Testamentua*.

Ain ondo iduritu zitzaion edo billatu zuan gauz au Makazaga jaunak, nola urrena etorri zanean esan zuan izen ortako liburutxo bat ateratzea pentsatzen zuela, Txirritak berak jarri zituan berso guziak edo geienak bilduta».

Onela sortu zan *Txirrita'ren Testamentua* izeneko liburutxoa.

Baiña 1930'garren urtean ez-ezik, geraz geroztik ere argitaratu zuan Makazaga'k liburutxo ori. Bigarrenengo ontan urterik ez da agiri, eta izenburuaren atzetik onela esaten da: «120 bertso 1930'garren urtean berak bildubak».

Iru bertsoko aldea, baiña oiek lendik publikatuta dauzkagu.

* * *

Txirrita'ren Testamentua izeneko beste liburuxka bat ere argitaratu zuan Errenteri'ko Makazaga moldiztegiak.

Azaleko txeetasunak auek dira: «Txirrita'ren Testamentua / 216 bertso bere denboran jarri dituan obenak / 2.º idaztia / (1'00) / Makazagaren irarkolan / Biteri, 32 / Errenderi».

Liburuxka au oso gutxi zabaldu zala uste degu. Gure eskuetara oso nekez iritxi zan, eta beste inun ez degu ikusi.

Leenengo eskuetaratu genduan alea, puskatuta etorri zitzaigun: leendabiziko orria falta, eta egillearen izenik-eta ezin jakin. Urteen buruan, beste ale bat arkitu genduan. Baiña ori ere ez osorik: azken orriak falta. Bien artean osatu degu, beraz.

Bigarren ori eskuetan artu arte, ez ginnan oartu, beraz, liburuxkaren txeetasu-

nez: izenburua, egillea, moldiztegia eta abar.

Urterik ez da esaten. Eta pena artze-koa da. Bearbada, liburuxka au ain gutxi zergatik zabaldu zan, ortxe argituko zitzaigun. Izan ere, gerra aurrexeagotik-edo plazara atera bazan, ondoren etorri zan ekaitzak bide guztiak itxiko zizkion.

Liburuxka onek, Txirritaren bertso-sail ez-ezagun bakarra ematen digu: Azpeiti'ko Premioa zala-ta, Txirritak Uda-rrigiren alde atera zuana.

Orregatik, *Txirrita'ren Testamentua* izeneko leenengo liburuxkaren bertsoei liburu ontan leku berezia eman badiegu ere, ez degu uste izan bigarrengoarekin ori egin bear zanik.

ATSO GEZURTI BATI

Bertso auek Txirritaren gazte denborakoak dira. Errenteri aldean Txirrita illa zala zabaldu zan. Eta onek bertsoak jarri zituan, gezur ori ixiltzearren. Ara nola dion berak:

Bizi naizela jakin dezaten
jartzera nua bertsoak.

Txirritak, Aurriñazpi baserriko etxe-koandarearen kulpa egin zuan. Ura omen zan gezur ori kontatzen asi zana. Aurriñazpi Errenteri'ko baserri bat da.

Urteen buruan, 1930'garrenean, bertso auek *Txirrita'ren Testamentua* deritzaion liburuan azaldu ziran. Baiña inor mindu etzedin, an eta emen aldaketa bartzuk sartu zituan Txirritak; edo, obeto esateko, illobak sartu, osabak esanda.

Aurriñazpi'ko famili ura desegin zan; aietakorik inor ez da bizi. Beste famili berri bat dago orain baserri orretan.

Ez dago, beraz, orain, inor minberatzeko arriskurik. Beste aldetik, berriz, Txirritaren illobak buruz zekizkian bertso auek, eta osabak asieratik jarri zituan bezelaxe jakin ere. Orregatik, bertsoak ostera beren leenengo erara jarri ditugu. 1930'garren urteko aldaketak zein izan ziran, oarretan esango degu.

Aldaketarik geienak motibo bera dute: inor ez minberatzea. Baiña guziak ez. Badira motibo orrekin zer ikusirik ez dau-


katena. Ez dakigu zergatik sartu zituan Txirritak. Baiña geienetan beintzat, bertsoak obeto daude orain illobak esan bezela.

Txirrita'ren Testamentua deritzaion liburuan, bertso auek ez dute izenbururik. Urrena *Bertsolariya'n* agertu ziran, 38'gn. zenbakian, 1932/VI/5'an, leen esandako liburuari itzez-itzez kopiatuta. Eta onek ipiñi zion, guk ere or goien ipiñi degun izenburua.

Leenengo doiñua, Txirritaren illobak kantatua, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun eta paperean ezarria.

Bigarrena, Juanito Zabaleta bertsolaria zanaren kuadernotik artua.

Ni i-to nai-ze-la e-san o-men
du E-rren-te-ri-yan a-tsu-ak,
pe-na aun-di bat ar-tu-
ak di-ra se-ni-da gu-ra-su-



* * *



1/ Ni il naizela sortu omen du
Aurriñazpi'ko atsuak,
pena galanta artuko zuten
siñare ta gurasuak.
Ai zer negarrak nere koñata
eta illoba gaxuak!
Bizi naizela jakiñ dezaten
jartzera nua bertsuak.



2/ Izeba zar bat bada Panplona'n
gure etxian aziya,
artek emanda artua naiz ni
bataiuaren graziya;
argana ere allegatu da
ill naizela notiziya,
koittara ura an omen dabill
guziya lutoz jantziya.



3/ Pamplona'n dedan izeba xarra
zenbatxu maite dedan nik,
ez derizkiyot iñortxok ere
juzgatuko lukianik;
koittara arek abixutxo bat
artu biar du nigandik:
luto oriek erantzitzeko,
bizi naizela oraindik.



4/ Zeruban dauden santu ta santak
daude triste ta seriyo,
gure auzuan bizi dan atso
sorgin bat dala meriyo;
baldin Jainkuak salbaziyorik
orri ematen badiyo,
umildade ta errezatziak
askorik eztu baliyo.

5/ Publiko asko egiña dauka
alaba biren tratua,
beste bat ere salduko luke
baleuka zeñek artua;
inozentiak galtzen dabillen
atso desordenatua,
salbaziyorik iñon ez daukan
amona kondenatua.

6/ Bat itxua zan, mixerabilia,
saldu zuana lenbizi,
kuarto batian sartu zuten da
atia ziyoten itxi;
ezer etzuen ikusten eta
nola juango zan igesi?
Ai zer gustua eman ziyoten
Barrabas eta Judasi!

* * *

Bertso auen atzetik Txirritaren gertae-
ra polit bat kontatu nai genduke. Aren
illoba Jose Ramon Erauskin'ek esanda ja-
kin degu.

Portutxina esaten zioten eskean ibil-
tzen zan amona xar bati. Bertsoak asko
gustatzen zitzaizkion, eta egun batez Txir-
rrita eta Txokua bertsolaria bertsotan adi-
tzen egon zan. Baiña etzuan ezagutu zein
zein ziran.

Andik laister Txirrita il zalako otsa za-

baldu zan. Atso orrengana ere eldu zan
berri ori.

Egun asko gabe, ordea, amona xar
orrek Txirritarekin topo egitea gertatu
zan.

Esan bezela, etzuan zein zein ziran
ezagutzen, eta Txirrita illa bazan ura Txo-
kua izango zala pentsatu zuan.

Onela esan zion:

–Aizu, Txokua: Txirrita il omen da, e?

Eta Txirritak:

–Bai, il omen da, bai.

Eta amonak:

–Bertsolari ona zan ba! Gustora ego-
ten nintzan aren bertsoak aditzen! Aita-
gure bat errezatu bear degu aren anima-
rentzat!

Eta Txirritak:

–Bai, alaxe egin bear degu, bai!

Txirritak txapela erantzi zuan. Eta
amonak esan eta Txirritak erantzun, aita-
gure bat errezatu zuten serio asko Txir-
rritaren animaren alde.

Eta besterik gabe, bakoitzak bere bi-
deari jarraitu zion¹.

1. *Txirrita'ren Testamentua* liburutxoak eta
Bertsolariya aldizkariak dauzkaten aldaketak: 1/1:
Txirrita ill dala kontatu omen du; 1/2: Errenteriya'n
atsuak; 1/3: susto galanta artuko zuten; 1/5: Aiek
negarrak nere koñata; 2/7: ta gaxu ura an omen
dabill; 3/3: iñola ere ez derizkiyot; 3/4: juzgatuko
nukianik; 3/5: mandatari bat bialdu nuen; 3/6: abisa-
tzera emendik; 3/7: lutu tritiak bota ditzala; 4/3: len
esan dedan gezurretako; 4/4: atsua dala meriyo; 5/1:
Atso gaxtuak azkar egin du; 5/2: bi alabaren tratua;
5/3: beste bat laixter salduko luke; 5/6: gaixto des-
ordenatua; 5/7: modu orretan segitzcen badu; 5/8:
laixter da kondenatua; 6/3: kuarto batian preso jarri-
ta; 6/6: nora juango zan igesi; 6/8: Luzifer eta Judasi.

BERTSO BERRIYAK NESKAZAR BAT TENTATZEN TXIRRITAK JARRIYAK

Jarri-aldi au ere *Txirrita'ren Testamentua*'n sartuta dago. Baiña zortzi bertso bakkarik datoz liburu ontan; beste zenbait argitaralditan, berriz, amabi.

Orregatik, naiz-ta bertso auek atal ontan sartu, ez diogu *Txirrita'ren Testamentua*'ri kopiatu, amabi bertsoko beste argitaraldi oiei baizik, oarretan esango degunez.

1/ Dozena bat bertso nai nituzke jarri jaietan kantatzeko entretengarri; nere publikatzia izango da sarri, alabantzak emanaz zenbait neskazarri.

2/ Neskazar bat tentatzen asi naiz lenguan, izan ere alako polita zeguan; umill eta seriyo itz egin genduan, baño gusto guziyak ez dira munduan.

3/ Izketan asi giñan biyak gozo-gozo, ezkontzeko mandatu egin diyot atzo; leiotikan ujuka ama ta bi atso: «Ez dek arrapatuko uste bezin mantso!».

4/ Ama preparatu zait asarez betia, lenbiziko ujuba: «Zenbat dek dotia? Ainbeste kostatako alaba maitia, lastima izango dek iri ematia!».

5/ «Zere familiyari¹ errespetoz eldu, inozente daudenak ez ditezen galdu; diru-truka alaba nai zenduke saldu, lenago erostunik² ez al zaio azaldu?

6/ Nere jakinduriya
ari da atzentzen
errez dala uste du
zenbaitek ezkontzen;
promesa on bat eginda
ezpazera ontzen,
lanak izango dira
zurekin konpontzen!».

7/ «Ez dezu sinistu nai
egiya esanda're:
zintzua nai genduke
pobria izanda're;
gure baztarrak baño
obiak nun dare,
alabari sasoia
pixka bat juanda're?».

8/ «Bere alabarentzat
orrenbeste fama!
Nik ez det sinistatzen,
aiziak darama;
zuen baztarran nik
egitia lana
izan liteke, baña
ez det uste, ama!».

9/ «Ez al dala uste dek
orren errespuestik?
Atarramentu onik
mutill zarrak ezтик!
Nere alabak ez dauka
ezkontzeko kezkek,
i ez bezelakuak
nai-ez-ta zekazkik!»³.

10/ «Itz bat esan biar det
nere borondatez,
ez banau iñork lotzen
grilluz edo katez:
ezkontzeko ideak
banituan ustez,
ardua maitatzen det
andriaren partez».

11/ «Mutil malizioso
deabruz betia,
ez dizut zabalduko
geiago atia;
beñe etzaitut izandu⁴
biotzez maitia,
nigandik libre zera,
or konpon zaitia!».

12/ Orra amabi bertso
oraingo berriyak
bere andregaiari
Txirritak jarriyak;
eman dizkit desgusto
ikaragarriyak,
negar egin lezake
nigatik arriyak!»⁵

1. Paper batzuten: *nere*, besteetan: *zere*. Guk uste, *zere* bear du.

2. Paper guzietan *lenago gustokorik* dago emen; baña Orio'ko kuaderno batean *lenago erostunik* dago. Guk uste onela bear du, eta ala jarri dugu.

3. *Bertsolariyan*'n: *dakazkik*; bertso-paper batean: *zekazkik*.

4. Bertso-paperetan: *beñere*.

5. *Bertsolariya* aldizkaria, 18'gn. zenb., 1932/1/17'an, Errenteria.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga –Rentería», Makazaga'renean bertan.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Fernando Artola, «Bordari», Ondarrabia.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga –Rentería», Juan María Arbelaiz, Intxaurren, Oiartzun.

«Argia» aldizkaria, ez dakit zein egunetakoa.

Bost argitaraldi auek ez dute alkarren artean aldaketarik. Ziur asko, «Bertsolariya»-ri kopiatuz egin dira beste guziak. «Bertsolariya» Txirritaren denboran egiña da; eta, uste deguez, berak moldiztegi bialdutako paper batetik kopiatuko zituan bertso auek. Bialdu baino leen, bertsoak bere gustora jarriko zituan. Orregatik, beroni kopiatu diogu.

Txirritaren Testamentua, 2.^o idaztia, *Makazagaren irarkolan*, *Biteri*, 32, *Errenderi*. Urterik ez du esaten. Baña leen esan bezela, lenagoko argitaraldirik ere bazan: «Chirrita'ren Testamentua» liburu-txoa, 1930, Imp. Macazaga, Rentería. Onck zortzi bertso ditu, ta orden ontan: 12, 2, 3, 4, 5, 7, 8 ta 10'garrena. 1, 6, 9 ta 11'garrena falta dira. Aldaketa bakarra: 12/1: Dozena erdi bat bertso.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Fernan-

do Artola, «Bordari», Ondarrabia. Bertsoak orden ontan: 1, 2, 3, 4, 8, 9, 7, 6, 11, 10 ta 12'garrena; ta 6 ta 11'garrenaren bitartean, gaiñerako paperetan ez dagoan bertso bat. Aldaketak: 1/1: Dozenatxo bat bertso; 1/2: biar ditut jarri; 1/7: neskatxa orrek dis-kit; 1/8: lan txarrak ekarri; 2/1: Neskata bat tenta-tzen; 4/1: Ama prestatu zaigu; 5'garrena falta da; 6/2; ari da asetzen; 8/3 ez dizut sinistutzen; 8/5: nik zure batzarrian (*sic*); 8/7: bai baliteke baña; 9/1: Ez deala uste al dek; 9/7: i bezelakuak; 9/8: nai ezik zeukazkik; 10/1: Gauza bat esan biet; 10/3: gorroto gabe bizi; 10/4: danok al balitez; 11/3: ez dizut iriki-ko; 12/3: neskatxa orgullosoa; 12/4: batentzat ja-rriyak.

Ta besteetan ez dagoan bertsoa:

Neskatxa ori dago
oso dotoria,
jan da pasiatzeko
ortâko obia;
mutillak tentatzeko
badu baloria,
etzai muratuko
bêla koloria.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. –Rentería»; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion. Onek bederatzi bertso

bakarrrik: 1, 2, 3, 4, 5, 7, 8, 9 ta 10'garrena. Aldaketa bakarra: 12/1: Dozena erdi bat bertso.

Orio'n arkitutako kuaderno batean, amaika ber-tso: 1, 2, 3, 4, 5, 9, 6, 7, 8, 11 ta 12'garrena. Eta beste bat 11 ta 12'garrenaren bitartean, gaiñerako paperak ez dakartena. Aldaketak: 1/1: Bertso berri batzuek; 1/2: biar ditut jarri; 2/8: ezitu munduan; 3/4: egin nien atzo; 3/7: eztek allegatuko; 4/5: Orrenbete kos-tatako; 6/2: ari da azketzen; 6/5: promesen bat egin-da; 8/1: Zere alabarentzat; 8/3: neri etzait gelditzen; 9/1: Uste al dek ez tala; 9/8: nai ezik zeukazkik! 11/3: eztiyat zabalduko; 11/5: beñere ez aut izan; 11/7: nigatik libre zera.

Ta besteetan ez dagoan bertsoa:

Zure interesak
alperrik baliyo,
bestek burla egin
au dala meriyo;
ezkonduko etzerala
ez naiz oso fiyo,
iñork artzen bazaitu
damutuko zayo.

IRU BERTSO

Iru bertso auek ere *Txirrita'ren Testamentua* deritzaion liburutxotik artuak ditugu¹.

Leendabizikoan, lerro bakoitzaren asierako letra artu eta goitik beera irakurriz, GORA EUSKERA irakurtzen da. Erderaz esaten denez, *acróstico* bat da, beraz:

Gure aurreko gerrero zarrak
Odol erruz ixuriyak,
Rato txar asko pasatu zuten,
Aiek ango mixeriyak!
Egurrezko armak
Ugari zeuden
Soldaduentzat jarriyak,
Kasik burniya beziñ fuertiak
Eskuak eta gerriyak,
Rau sartzen ziran aurrera eta
An kolpe izugarriyak.

* * *

Bigarren go ontan, A'rekin asten dira lerro guziak:

Askotan etzait iruditutzen
au danik Euskal-Erriya,
atzerritarren jazkerarekiñ
ain triste dago jarriya,
aitona zarrak nai etzutela
apartetik ekarriya;
azkartasuna badegu baño
artzen zalla da neurriya,
arrazoi gabe pagatzen degu
ai zeñen penagarriya!

* * *

Ta irugarrengoan, berriz, *E'rekin* asten dira:

Emen jendia bizi liteke
elkarri ondo egiñez,
ez izan arren gauza samurra
ez badator bere griñez:
eskeñi zerbait daukagunetik,
eman borondate fiñez;
ezta obia asarretuta
ezer sufritu eziñez;
ez dakitenak ikasitzeko
esaten dizutet ziñez.

1. *Txirrita'ren Testamentua*, 1930, Imp. Macazaga, Renteria.

(1929)

NESKAZAR GAZTIA

- 1/ Neskazar baten pasadizua
iñork nai badu aditu,
ni banegoke ixillik, baño
barrenak ezin kabitu;
berrogei eta amabost urte
gutxieneko baditu,
parragarritzko kontuak dira
ondo esango banitu.
- 2/ Edade ortan gona motzakín,
ori da orren modua;
zazpi errial kosta omen zaio
afaitatzia burua,
atze aldeko ille guziya
bizar-labanaz kendua,
orain bistara azaldu zaigu
len gordian egondua,
garai onian abiyatu da
engañatzera mundua!
- 3/ Dituan zimak urdindu zaizka
eta gorbata gorriya,
azeri-larru baten erdiya
dauka lepuan jarriya,
sudurra berriz oso luzia
eta begiyaz larriya,
auts-koloreko ubel batekin
amarratuba gerriya...
Poxpolo-kajan para liteke,
ain dago parragarriya!
- 4/ Topo eginda beira jarri naiz
sorgiña zalako ustetan,
igarri niyon kristaba zala
asi zanian izketan;
nik esan niyon: «Gaur orla eta
zer ote ziñan gaztetan?».
Erantzun ziran: «Esposatzia
orain jarri zait kasketan¹,
nobiyo on bat billatzen dedan
or izandu naiz festetan».
- 5/ «Beraz, neskatxa, gazte denboran
gogorik ezta izandu?».
«Ez komenentzi aundirik ere
–erdi negarrez esan du–;
okertu nitzan batekiñ eta
geroztik ez naiz zuzendu».
«Komenentzi bat jarriko dizut,
ontzat artuko bazendu:
ni ere oraíndik soltero nago,
nai'zu nerekiñ ezkondu?
- 6/ Nik edadia aitortuko det
bautismuan dan bezela,
jendiak esan ez dezan iñor
engañatzen gabiltzala:
irurogei ta beatzi urte
alde xamar gabiltzala»².
Ark eman ziran errespuesta
neretzat franko itzala:
gero egongo giñala, baño
bastante zarra nitzala³.

1. «Txirrita'ren Testamentua»-n eta «Bertsolariya»-n *jarri naiz*; Txirritaren illobak dionez, *jarri zait* bear du.

2. Beraz, Txirrita 1860'garrenean jaioa zan ez-kero, 1929'garren urteko bertsoak.

3. *Txirrita'ren Testamentua*, 1930, Imp. Macazaga, Renteria.

«Bertsolariya» aldizkaria, 29'gn. zenb., 1932/IV/3. (Aldaketarik ez dute beren artean).

DANTZARIYAREN PREMIYUA

- 1/ Lengo batian Sara'n izan naiz
Santa Gurutza pasatzen,
lau kaskaneta etorri ziran,
etziran asko lotsatzen;
arpegi beltzak zituzten, baño
ondo zekiten dantzatzen,
mundu onetan onen pizkorrik
zanik ez nuan pentsatzen.
- 2/ Titi gabeko mutur igar bat
presentatu zan lenbizi,
bi eskuaidi txistu emanda
plazan saltoka zan asi;
nere begiyen aurrian ez det
pizkorragorik ikusi,
on-ustekuak baziran baño
ura zan ango nagusi.
- 3/ Beste bi beltz-beltz ensaiatutzen
ibillitubak jai ta aste,
beren ordua bete danian
aik ere deitu dituzte;
duro erdi bana eman ziyoten,
gelditu ziraden triste;
batek esan du: «Ez dizkiñagu
patarretako ainbeste!».
- 4/ Laugarren orrek ere bazuben
dantzatzeke jeniyyua,
esanaz: «Biba erari ona,
pakia ta uniyua!».
Erakutsi du zertarako zan
ark bere oponiyua;
titi gabeko mutur igarrak
eraman du premiyua¹.

1. *Txirrita'ren Testamentua*, 1930, Imp. Macazaga, Rentería.

AMERIKAKO BIZITZA

- 1/ Europa'tikan askok egin du
Amerikara bixita,
etxe onian jaiogatik
danak an ezin bizita;
lana egiñaz aberastuak
dabiltza ondo jantzita,
gaur ez lituke ezagutuko
beren amak ikusita.
- 2/ Nik ezagutzen nituen zenbait
Amerikara juañ zian,
gu emen asko gauden bezela,
poltsatik ariñ antzian;
ta orañ berriz pasiatuaz
lujo aundiko kotxian;
gaur gizon batek eztu jakiten
bestia nola bizi'an.
- 3/ Andik onera ezin liteke
diru askorik bialdu,
bat bera nola gertatuko dan
segurantzirik bai al du?
Ameriketan aberasteko
eztira basta bi ordu,
an ere zerbait izango bada
berak saiatu biar du.
- 4/ Ameriketan euskaldun askok
dauzka begiyak argiyak,
an daude beren aziendakin
mendi-ixkiñan jarriyak;
izanagatik eunka beiak
eta millaka ardiyak,
urte batetik bestera igual
galduko zaizka erdiyak.
- 5/ Ameriketan asko dabiltza,
nik kalkulaten dedanez,
naiko okelak janagatikan
erari gutxi eranez,
«Gure sagardo maitagarriyak
aparte daude! –esanez–,
Naiago nuke an banegoke
naiz diru asko izan ez!
- 6/ Lagun prestuak aldamenetik
trankilidade onian,
okela jan da ura eranez
ari liteke lanian;
nere biyotza konsolatzen da
au pentsatzen dedanian:
pena guziyak aztuko dira
aberasten geranian!».
- 7/ Mutill zintzuak Ameriketan
sobra lezake dirua,
ura daukanak segurutzen du
mundu ontako zerua;
andik aurrera nun-nai badago
dibertitzeko modua,
toki on asko badira baño
Donostiya da burua.
- 8/ Amerikatik baldin baletor
gizon bat ona ta fiña,
bere lanaren sakrifiziyo
diru-puska bat egiña,
parientiak bisitatzera
ark dakarren atsegiña;
allegatzian eztu faltako
ondo zeñek itzejiña.

- 9/ Naiagatikan oiek bezela¹
ez dago errez irauten²,
denbora askuan bajatu gabe
mendiyan dira egoten;
ango langille jendiak eztu
ardo askorik eraten,
orren ederrak ez dakit nola³
konserbatutzen zeraten.
- 10/ Len esan degun indianua
allegatu da etxea,
ama gaxua laister altxa zan
ari lepotik eltzea,
esanaz: «Nere seme maitia,
sano ta ondo al zea?
Kristau biziya nekez berenik
nunbaitetik azaltze'a!⁴».
- 11/ «Bai, amatxo, bai, aguantatu dit
osasuna ta biziya,
nerekin ara juan ziradenak
ez daude onla guziyak;
baditut aski lagun maitiak
ill da lurpian utziyak,
nerau txit ondo ibilliya naiz
Jangoikuari graziyak».
- 12/ Gizon prestuba etorri zaigu
onradua ta lasaia,
lenago ere etzan izandu
familiaren etsaia;
diru-puska bat aurreratu du,
badauka naiko sasoa,
gure auzoko neskazar batek
laister artu du usaia:
- 13/ «Mandaburu'ko indianua
etorri omen den, neska,
atzo nigatik ibilliya da
soltera nagon galdezka.
Laister emen den pretenditzera,
ai au demontrezko festa!
Ai ze trajia egingo nuken
aren dirubak baneuzka!
- 14/ Ark berrogei ta bat urte dizkin,
nik ogei ta emezortzi;
urrezko erlojuba omen zaukan
bere kate eta guzi;
erretratorik ere ez diñat
juan zan ezkeru ikusi,
baña egingo diyodana den
biartzen banau ez utzi.
- 15/ Nik emezortzi urte nituen
ura emendik juan zanian,
geroztik beti etxe batian
jardun omen da lanian,
Buenos Aires'tik urruti gabe
Plata'ko aldamenian,
amabi milloi Bankuan dauzkan
euskaldun baten mendian.
- 16/ Gure izeba Frantxiska Antonik
onla esan du lenguan,
Mandaburu'ko indianua
nola topo egin duan:
«Par-irri batek itzuli diyo,
zerbait bazeukan goguan;
buru-zuritzen asi da baño
ai zer mutilla daguan!»
- 17/ «Izeba, neri ez dit inportik
naiz izan erdi zartua,
gazte txorua baño obe det
juiziyan sartua;
diru-piska bat baldin badauka
egingo degu tratua!».
Ia, mutillak, ekarri lasai,
baziok zeñek artua!⁵».

1. *Bertsolariya'k: Naiogatikan.*

2. *Bertsolariya'k: ez dau.*

3. *Bertsolariya'k: arren.*

4. *Txirrita'ren Testamentua'n* da abar, bertso ontako puntuak *etxera, eltzera, al zera ta azaltzera* daude. Baña azkenekoa *azaltzen da* bear luke; ta ori *azaltze'a* laburtzen da. Orregatik besteak ere *etxea, eltzea* ta *al zea* bear dute.

5. *Txirrita'ren Testamentua, 1930*, Imp. Macazaga, Rentería.
Bertsolariya aldizkaria, 20'gn. zenb., 1932/I/31.

Bertso-papera, Juan M.^o Arbelaiz, Intxaurren, Oiartzun. (Ez dute aldaketarik beren artean).

ALPERRAREN SUERTIA TXIRRITAK JARRIYAK

- 1/ Kalipurniyan euskaldun bati gertatutako kasuak danak eztitu merezi baña esango ditut batzuak; penagarriyak ziran orrek an eman zituan pausuak, azkenerako lagundu diyo gure Jaun amorosuak.
- 2/ Alperkeriyak bentzitu zuan, aztu zitzaion lanian, golfo guziyen kapitan zegon Kaliforniya danian, usandutako okelak janaz beti ziar etzanean; ango zakurrak kontentu ziran ura etorri zanian.
- 3/ Labak aldian juntatzen ziran iturri-zoko batera usandutako okelak eta galleta-puskak jatera; Gobiernuak bota zituen Arjentina'ko partera; parientiak orren sustraia etzuten errex atera.
- 4/ Bi naziyotan zeuden jendiak aspertu zituan iya, gure Jainkuak lagundu ziyon, eta bazeukan premiya: an zebilela izandu zuen tokamentu bat aundiya, lanian asko biartu gabe izan da orren Indiya.
- 5/ Al zan bezela billatu eta ekarriya dute andik, an partiera nola izan zan goguan degu oraindik: golfo guziyak ujuka noski eziñ arturikan txandik: «Beti gu joka ari da eta¹ erama'zute emendik!»².

1. *Txirrita'ren Testamentua*-n: *ai*.

2. *Txirrita'ren Testamentua*, 1930, Imp. Macazaga, Rentería.

Bertsolariya, 45'gn. zenb., 1932/VIII/24.

(1895)

REINA REGENTE'RI

Orrela zeritzan gerra-itxasontzi bat:
Reina Regente.

1895'garren urteko martxoaren asierran, Cádiz'tik Tánger'a joan zan itxas ontzi ori, Madrid'en egona zan Sidi Brisha Marrueketako enbajadorea eramatera.

Andik onera martxoaren 11'an abiatu zan, eta aren berririk ez da geiago jakin. Itxasoak irentsi zuan. Lareun lagun zijoa-zen ontzian, eta aietatik bakar bat ere etzan bizirik atera.

Txirritak, agidanean, semea ez-bear artan galdua zuten bi guraso topatu zituan, eta aien eskariz bertso auk jarri:

1/ Aitona zar bat suplikatu zait guztiz modu egokian bertso batzuek onak ipintzen ia bai al nerokian; ikusi orduko igarri niyon etzebilela tranpiyan, arren lastima zabalduko det euskera dagon graziyan.

2/ Aitona orrek klaro esan dit gizon prestuaren gisa, orain galdu dan bafori ortaz kantzak jarri al banitza, dolorez azitako seme bat nola ito zaion aisa; gixagaxuaz urrikalduta baietz eman diyot itza.

3/ Modu ortako deskalabrorik legorrian da bustiyan etzait gôatzen gertatu danik nere denbora guztiyan; pasadizu au nai arren zail da adierazten itz biyan: amaika amaren seme sartu da itsasuaren azpiyan!

4/ Kartzela zarren onduan dago Donostiya'ko kuartela, izenez ezin separatu det andik urrengo otela; len esan dedan aitona zar au etzan jeniyoiz motela, emaztia ta biyak an zeuden negarra zeriyoetela.

5/ Kristo zerura iyo zanetik oraiñdaño bitartian orrelakorik ezta gertatu España'ko partian; milla zortzireun larogei eta amairugarren urtian gure bafore *Reina Regente* ezkutatu da ur-pian¹.

1. *Txirrita'ren Testamentua*, 1930, Imp. Macazaga, Renteria.

¹Txirritak gaizki esaten du urtea: 1895 da; ez 1893.

(1906)

BERTSO BERRIAK

Bertso auek, Euskalerrriaren ta Fue-roen alde jarriak dira.

Ez dira Txirritaren illobak kopiatuak. Orregatik, aldi ontan ezin adierazi izan digu osabak nola moldatu zituan.

Bi tokitan, 6 eta 10'garren bertsoetan, Juan Urbieta aitatzten da. Ez da arritze-koa. Urbieta'ren jaiotetxea eta Txirrita'rena alkarren alde xamarrean baitziran. Gaur egunean biak ere lur jota daude. Urbieta ori izan zan Franzisko I Fran-tzia'ko erregea Pavia'ko burrukan preso artu zuana.

11'garren bertsoan onela esaten da:

Juan dan ogei ta amar urtian
auxen da diferentziya!

Ogei ta amar urte, baiña noiztik kon-tatzen asita? Fueroak kendu zituzten ez-keroztik asi bear baldin bada, 1876'garren urtetik alegia, 1906'garrena degu. Baiña ez da gauza segurua.

Urteen buruan, 1930'garrenean ain zu-zen, bertso auek bildu eta *Txirrita'ren Testamentua* deritzaion liburutxoan argi-tarazi zituan Txirritak berak; baiña leena-gotik jarriak eta bertso-paperetan publi-katuak zituan.

Txirritarenak dirala ez da bertso-pa-

peretan esaten; bai ordea *Txirritaren Testamentua* deritzaion liburutxoan, eta *Bertsolariya* eta *Argia* aldizkarietan. Or-taz gaiñera, or degu illobaren testigan-tza, eta bertsozale guziak ere ori bera diote. Eta joskera ere Txirritarena da bete-betean.

1/ Gure aurreko guraso zarrak aspaldi samar il zian, guk ainbat biar faltatu gabe fede santuko itzian; izar tartetik or daude beida jendia nola bizi'an,¹ negar-malkuak dakazkitela fueruak ofenditizian; zer kontatua izango dute Josafatera biltzian.

2/ Kantabriya da ibai eder bat guziya arraiz betia, eta geiena jenero fiñak, bastuak banakak tia²; beste erriyo zatar batzuek artu ziguten partia, fortunatzen da gaiztuak ona bentzutu edo jatia, beragatikan dago asarre ur onen ama maitia.

- 3/ Nola etxian esposatuta
nagusitzen dan morroya,
alaxen dago ibai on ontan
gaiztuetako arraya;
egiten asi giñadenian
airi ongi-etorriya,
galdu giñuen bizi-lekua,
barriyua eta erriya;
euskaldunentzat au izandu zan
egun goguangarriya.
- 4/ Zori gaiztozko gerra zibilla
sortu zalako meriyo,
lau probentziyak gelditu giñan
fetxaz beteta seriyo;
egun batian lur jo gendubren,
ezin giñazke gora iyo,
berriz altxako ote geraden
ere ez naiz oso fiyo;
erdara etzan bakarrik kapaz,
euskarak lagundu diyo.
- 5/ Gau eta egun antzika dago
gure Kantabri ederra,
alde batera naiago nuke³
ezpanitz emengotarra;
mundu guziyak aditutzen du
euskaldunaren negarra,
enpeñatzia ezpada libre
alperrik degu indarra,
au da txoriyak gari tartian
gosiak egon biarra!
- 6/ Abilan barrena zijualarik⁴
Frantziya'tikan pasuan,
usu eder bat deskuidatu zan
Urbietta'ren lazuan;
golpe gaiztorik etziyon eman
ta artu zuban besuan,
maitatu eta festak egiñaz
aiñ modu kuriosuan,
lau probentziyak kintatik libre
Don Juanek eskatu zuan.
- 7/ Lenengo etsaiak erromatarrak,
bigarren txandan jentillak,
ta gero berriz frantzesarekin
izugarrizko batallak;
gure aurreko aitona zarrak
asko dira gerran illak;
mundu guziya bildurtzen zuten
Kantabriya'ko mutillak,
oraingo mauser ainbat baziran
orduko lizar-makillak.
- 8/ Baldin egiya esaten badu
libruan dagon fediak,
isla asko ta onak zituen
len Españiya'k beriak,
ta geienetan agintzen zuten
euskarazko aguriak;
orain geienak galdu ditugu,
iya egin du guriak,
Zeruko Aita, zuzen gaitzazu
nola baikeran zuriak.
- 9/ Lengo San Tomas egun batian
zazpi t'erdiyak aldian
aitona bati begira egon naiz
Zurriola'ko parian⁵;
dudarik gabe dabil fueruak
ekarritzeko idian,
oso kontentu apenas dagon
atzerritarren mendian,
ezpatarekin erakusten du
euskal mendiyak nun dian.
- 10/ Garai batian Kantabri on au
erregalotan bizi zan,
ta orain berriz jarri gaituzte
miserablearen gisan,
ez ain eskasak geradelako
gerran edo gudaritzan;
Tubalen kasta nunbait oin-pian
ikustia komeni zan,
Urbietta'ren pausu tristiak
etziran alperrik izan!

- 11/ Alegre bizi banitzan ere
nago tristetzen asiya,
atzerritarrak egin digute
iya nai duten guziya;
juan dan ogei ta amar urtian
auxen da diferentziya!
Arrazoi gabe kendu ziguten
aurreko eredentziya,
gu emen ondo ekustiâtik⁶
guraso zarrak utziya.
- 12/ Lekobide zan euskalduntarra,
gerrero izugarriya,
Erroma'ri ta beste askori
artu ziyoten neurriya;
ta Otsobalek egiten ziyon
aldamenetik guardiya,
irugarrena Lartaun gaztia
seme-orde ekarriya;
gaur Kantabriya'n badago alako
kuadrilla baten premiya!
- 13/ Gure arbola maitagarriyak
etzuen ori merezi,
otsolarrak eta aien nastuak⁷
jarri zaizkiyo nagusi;
euskaldun danak lagun zaiegun,
ez iñor galtzera utzi;
Kantabriya'ko lastima au zer dan
orra nik adierazi,
paper bakoitza amar zentimo
nai ditubenak erosi⁸.

1. bizi'an: bizi dan.
2. banakak tia: banakak dira.
3. Bertso-paperetan: *naio genuke*. Bañan Txirritaren illobak dionez, *naïago nuke* da. Ta, egia esan, orrela askoz obeto dago.
4. Bertso-paperetan: Abilan. Ez ote da *Pavia*'n izango?
5. Okendo'ren iduria.
6. Bertso-paperetan: *ekustiagatik*.
7. Bertso-paperak: *otzobalek*; bañan Txirritaren illobak esan digunez, otsolarrak bear du. Otsolarra eta aiena, sasi antzekoak dira. Oso orri gogorra dute. Arbolari itsatsi, puntaraño igo eta nagusi jartzen zaizkio.
8. Bertso auen sei bat argitaraldi eskuratu ditugu, baiña guziak bat datoz, batere aldaketarik gabe:
Bertso-papera: «San Sebastián. –Imp. La Voz», Jertrudis Arrieta zana, Errenteria.
Bertso-papera, Tip. Echenagusía. –Bilbao», Oiarzungo etxe batetik.
Txirrita'ren Testamentua, 1930, Imp. Macazaga, Rentería.
Bertso-papera, «Imp. Macazaga. –Rentería», Adelina Sarasola, Lexo bertsolariaren alaba, Antigua, Donostia.
Argia'ren paper-puska bat; ez dakigu zein egunetakoa dan.
Bertsolariya asterokoa, 11'gn. zenb., 1931/XI/29. Izenburuak onela dio: Gure Fucroak. –*Txirrita'ren Testamentua*'tik artuak.

AITA ETA SUI-GAIA

1/ Gizon bat etorri zait
prestuaren gisan:
biyak aita eta sui
biagula izan,
alabak ere naiko
zuala zeritzan;
nola kastu aundiyak
baizeuden elizan,
dotia sobratzera
Bilbao'ra jua nitzan.

2/ Bilbao'tik etorri ta
lenengo galdera:
«Aita, lengo itzetan
konforme al gera?».
«Mutil zintzo batekin
izan du aukera;
naiago nuen itzik
ez banu atera,
bazijuazke beste
paraje batera».

3/ Nai duena egin da
or dago seriyo,
onuzkero jua da ta
zer erremediyo?
Kristau suertosuak
ez giñan gu jayo,
zintzotuko nitzala
nunbait etzan fiyo,
astiasuar bati
entregatu diyo.

4/ Lenbizi egin diyot
asarre-papera:
«Estimatzekua da
orlako aukera!
Baño gorroto txarra
danentzat kalte da,
ia litro bat ardo
lenbizi atera,
ori eranaz bapo
konponduko gera!».

5/ Biyak mayian giñan
exerita jarri,
pasadizuak esan
dizkagu alkarri:
«Huelga bat sortu ta
ibilli naiz larri,
iru duro besterik
ez ditut ekarri,
baietzkua izan bazan
nitzan parragarri!»¹.

1. *Txirrita'ren Tetamentua*, 1930, Imp. Macazaga, Renteria.

NAGUSIYA TA MAIZTARRA

- 1/ «Oraiñ artian ni izandu naiz, aitona, zure nagusi, errenta txintxo pagatu dezu zere kapoi eta guzi; zu baño gizon umillaguak ez ditut asko ikusi; oraiñ etxea saltzera guaz, nai bazenduke erosi.
- 2/ Larogei duro zuben errenta etxiak oraiñ artian, zedorrek ala pagatu dezu berrogei ta amar urtian; lenguan bertan gelditutzia ezta neretzat kaltian, bost milla duro baliyo ditu ia konpondu gaitian».
- 3/ «Zer familia izandu degun, jauna, nai al du aditu?»¹ Amabi aurren aita naiz ni ta semiak amar baditu; lan egiteko iñor gutxi ta mayian eziñ kabitu, baneukake non enpleatua bost milla duro banitu».
- 4/ Au aditu ta beste aldera bueltatu zan nagusiya, esanaz: «Nik zer kulpada dukat zuk ume asko aziya? Ez dezu asko ixtimatzen nik egin dizuten graziya; zuek artu nai ez badezute bada zeñek erosiya».
- 5/ «Eskerrik asko, nagusi jauna, pakian biagu bizi, baña izketan bukatu arte ez bedi juan igesi; klaro dabillen gizonak eztu arrazoi txarrik merezi; nai dubenari saldu bezaio, guk ezkentzake erosi.
- 6/ Aziendaz ta lan-erremintaz bagenedukan indarra², aiekiñ ere ez degu orain oso alderdi ederra: zazpi baliyo luteken gauzak bostian eman biarra; au pentsatzian etortzen zaigu begietara negarra.
- 7/ Amabi lagun mayian bueltan juntatzen gera jateko, geienaz ere aietatik bost irabazira juateko; pazientziya artuko banu anbat ez nuke kalteko, Jaungoikuari eska zaigun osasuna emateko.
- 8/ Prezisamente martxatu biau³ baserrira edo kalera, norbaiti egin biarko zaio bizi-lekuen galdera, esplikatua z nola izan dan fameliyaren galera; gure Jainkuak nai duen arte nonbait mantenduko al gera!⁴».

1. *Txirrita'ren Testamentua-n eta Bertsolariya-n: jauna, nai al diu aditu.*

2. *Txirrita'ren Testamentua-n eta Bertsolariya-n: bagendukan.*

3. *biau: bear degu.*

4. *Txirrita'ren Testamentua, 1930, Imp. Macazaga, Rentería.*
Bertsolariya, 23, 1932/II/21.

BERTSO BERRIAK TXIRRITAK JARRIAK

Bertso auek ez dira Txirritaren illobak kopiatsuak, arek Gazteluene'ra etorri baiño leen jarriak eta gero *Txirritaren Testamentua* liburutxoari erantsiak baizik.

Ijitoen bizi-modua adierazten digu emen Txirritak.

* * *

Jose Ramon Erauskin, Txirritaren illobak, bere *Aien garaia* liburuan, oar jakin-garri au ematen du ijitoen bertso-sorta oni buruz:

«Bein batean, Ernani'ko peri-egun batean, Txirrita an ari zan taberna batean ijitoen bertsoak kantatzen, buelta guzian jendea zuela.

Peri-plazan erruzko ijitoa zebillen, eta gizon batek esan zion, bertso aiek plazan kantatzen bazituen, merienda bat emango ziola; baita aguro asi ere.

Silla batekin plazan zegoen olezko al-tura batera igo, an exerita jarri eta an kantatu zituen lenago berak jarritako ijitoen bertsoak; baita aguro auek danak beraren aurrera bildu ere, zer esaten zuen adituzeko.

Bukatu zituenean, ala esan omen zioten: oso politak zirala, baña gauza bat bakarra billatzen zutela gaizki: lapurrak zirala esatea, bada ijitoak etzutela beñere ezer ostutzen; baña, iñon deskuidatzen

bazan asto edo zaldirik, laixter erantsiko zizkatela eskuak».

* * *

Leenengo doiñua, Txirritaren illoba orrek berak kantatua, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun eta paperean ezarria.

Bigarrena, Juan Zabaleta bertsolaria zanaren kuadernotik artua.





o-ka-si-yu-a ta es-kan-da-lu-a



fal-ta-tzen e-tza-ye-te-nak.

* * *



Es-plik-atze-ra nu-a kon-tu-ak



i-ji-to jen-de o-ye-nak,



no-la-di-ra-den gu-re ar-ti-an



ger-ta-tu i-zan di-re-nak,



al-pe-rak e-do moz-ko-rak di-ra



er-di la-pu-rak ge-ye-nak,



er-di la-pu-rak ge-ye-nak,



3



- 1/ Esplikatzera nua kontuak ijito jende oienak, nola diraden gure artian gertatu izan diranak; alperrak edo mozkorak dira, erdi lapurrak geienak, okasiyua ta eskandalua faltatuzten etzaienak.

- 2/ Beren asto ta zakur eta ume emen dabilta jai ta aste; mikeletiak iñoiz aurrian atera izandu dituzte, berak baño len ostera etorri ta persegitzen gaituzte; beste olako naziyorik bat iñon danik ezte uste.

- 3/ Beren asto ta zakur eta ume dabilta juan-etorriyan, emakumiak lasto-pretesto kasikan larru gorriyan; gizonak berriz mozketa-aitzaki beren aitzurrak gerriyan, siñalien bat utziko dute sartzen badira erriyan.

- 4/ Emakumiak aurrak artuta eskera dijoazenian: «Etxeko andre, limosnatxo bat Jainkuaren izenian!» Ofrezimentu luzia baño errezo motza azkenian, gauza guziyak gero berentzat iñor bistan eztanian.

- 5/ Kojitutako aberiak
nola nai duten jokatu,
emen ostu ta aruntz eraman¹,
an saldu edo trukatu;
anguak berriz onuntz ekarri,
jabiak ezin topatu;
kontu garbiya nai duenak ez
ijituakin tratatu.
- 6/ Ijituetan gutxi izaten
dirade berriz antzuak,
naturalezaz kasta gogorrek
ta gañera umetsuak;
bizkarrian bat, tripan bestia,
aldamenetan batzuak,
sall galantakin ikusten dira
dabiltzala geientsuak.
- 7/ Usandutako okelak jaten
dira pare gabekuak,
anima salbo zakur gosiak
diraden bezelakuak;
naiz izan usteldu ta lurpian
luzaro egondakuak,
istimatutzat daramazkite
oriyek orrelakuak.
- 8/ Sasiyetako oialak eta
ollo kojitzen atsuak,
ta kalietan poltsak miatzen
dabiltza mutill gaiztuak;
gizonak berriz mendiyetatik
biorrak eta astuak,
gauza gozorik senti badute
azkar erantxi eskuak.
- 9/ Asolbiziyo biarrik ere
ezta izaten oiekin,
fakultadia Aita Santuak
ainbat badute berekin;
naiz aide izan ezkontzen dira
alkar nai dutenarekin,
orretarako gazterik pronto²
naiz dotriñarik ez jakin.
- 10/ Kontraturako ere eztute³
eskribauaren biarrik⁴,
kastuban zertan ibilli biar du
txorakeriyan alperrik?
Naiz aide igual ezkontzen dira,
igual oriye bakarrik;
bodetarako ardua bada
ezta besteren biarrik.
- 11/ Neska-mutillak tokatzen bada
berentzat elkar artzia,
zelebre diran kontuak ortan
ere badarabiltzia:
buruaz gora botako dute
autsi dedilla eltzia,
zenbat puska egin ainbeste urteko
ejituen ezkontzia.
- 12/ Etxe, karrera, ola, telleri
legorrek dauden tokira,
jeneralian gauetarako
erretiatutzen dira;
atentziyuan egon izan naiz
nola dabiltzan begira,
eztute onik asarretu ta
purrukutzen ez badira⁵.

* * *

Don Manuel Lekuona apaiz jaunaren eskutik ja-
so genduan esku idatzitako orri batean, sail ontako
amaika bertso arkitu ditugu. Bigarrena falta. Baita
bertso berri bat ere. Danak ere aldaketaz josiak
baitaude, norbaiten aotik jasoko zituan Lekuona'k,
eta ez inungo paperetan. Orregatik, osorik eskein-
tzen dizkiogu irakurleari, daukaten ordenarekin:

Publikatzera nua kantuak
ijito-jendiarenak,
nola diraden gure kontrara
juntatu izan diranak;
lapurrak dira, askatzalleak,
ordi lapurrak geienak,
maldiziya ta eskandalua
faltatutzen etzaienak.

Etxe korape, olla, tellegi idorrek dauden tokira, jeneralian gabetarako juntatu izandu dira; arriturikan egondua naiz nauni oieri begira, ez da gauz onik aserretuta borrokatzen ez badira.

Aragi usteldu jateko ere dira paregabekuak, anima salbo txakurra ere geienaz orretakuak; naiz izan deilla miñez il eta luzaro egondakuak, ixtimatutzat daramazkite iñun billatutakuak.

Lixibetako oialak eta ollo ostutzen atsuak, jende tartian boltsak ebasten dabiltzan mutil gaiztuak; gizonak berriz mendira joan da biorrak eta astuak, gauza errezik senti badute laister iratxi eskuak.

Lapurtutako aberiak nola izan dute jokatu? Emen ostu ta ara eraman, an saldu edo trukatu; angua berriz onera ekarri jabiak ezin topatu... Kontu garbiya nai duenak ez ijituakin tratatu.

Ijitu oiek gauza lapurtzen guztizko abillak dira, eta eskuak manejatzeke eskasaguak ez dira: jan-gauza bada, aguro gorde, saltzekua urrutira; egon bearra beti oieri eskuetara begira.

Orain gauza geiagoz ere emango det aditzia, zelebriago diran kontuak oitan badarabiltzia: buruaz gora botatzen dute autsi dedilla eltzia, puska jartzen dan ainbeste urteko da oriyen ezkontzia.

Euren ume ta zakur ta asto dabilta joan-etorriyan, emakumiak sesto-pretesto kasikan larru gorriyan; gizonak berriz mozqueta-aitzaki aixturra zarrak gerriyan, señalaren bat utziko dute sartzen badira erriyan.

Kontratarako ere ez dute eskribuaren bearrrik, txorakeritan zertan ibilli diru gastatzen alperrik? Apaizik gabe ezkondu ere asko dirade bakarrik, bodetarako ardua bada ez dago denden aukerik.

Asolbiziyo bearrrik ez da izaten oiekin, fakultadia Aita Santuak ainbat badute berekin; naiz aide izan, ezkontzen dira alkar nai dutenarekin, orretarako gazterik pronto naiz dotriñarik ez jakin.

Ijitu oitan gutxi izaten dirade berriz antzuak, gazterik azi, kasta gogorrek, jatorrizko umatsuak; bizkarrian bat, tripan bestia, inguruetan batzuak, sail galantakin ikusten ditut dabiltzala geientsuak.

Emakumien kondiziyua buskan dijuazeanian: «Itxekoandria, limosnatxo bat Jainkuaren izenian!». Oprezimendu luziak eta errezu motxa azkenian, gauza guziyak berenak ttuzte iñor bistan ez danian.

1. Bertso-paperak: *emen ostatu auntz eraman.*
 2. Bertso-paperetan: *orretako.*
 3. Bertso-paperetan: *Kontratuako.*
 4. Bertso-paperetan: *eskribibaren, eskribanorik, eskribiyaren.*
 5. Bertso-papera, «Imprenta Macazaga. –Rentería», Monika Galarraga zanaren eskutik jaso.
- Oni kopiatu diogu. Ta oni kopiatu diote geroztikako argitaraldi guztiak, edo geienak beintzat. Orregatik, aldaketarik ez dute. Batzuek 10^ogarren bertsoa falta dute.

Txirrita'ren Testamentua liburutxo, 1930. Imp. Macazaga, Rentería. Onek 10'garrena falta du; gainerakoetan aldaketarik ez du.

Txirrita'ren Testamentua liburutxo, gerraz gerroztikako argitaraldia. Onek bertso guziak dauzka, eta aldaketarik batere ez.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Erronteri'ko Makazaga'renean jaso.

Bertso-papera, «Imprenta Ayestaran», Tolosa'ko Julio Rekalde'k emana.

Bertsolariya aldizkaria, 21'garren zenbakia, 1932/II/7.

«Euskal-erriko kanta zarrak», Imp. Macazaga, Rentería, Tomo II.

«Euskal Kantak», Donostia, 1959.

Bertso-papera, «Lasa – Elgoibar», Antonio Arri-llaga zanaren bitartez Elgoibar'ko Urtiaga baserri-rik eskuratua. Onek bost bertso falta ditu: 3, 7, 10, 11 eta 12'garrena. Gainerakoak orden ontan: 1, 2, 8, 4, 9, 6, 5. Aldaketak: 1/1: Kantatutzero; 1/3: gure tarian; 2/4: eraman izan dituzte; 2/5: eurak baño len ostera etorri; 2/7: beste olako probintziarik; 4/7: gauza guztiak gero eurentzat; 5/1: Bizi guztian inon gauzekin; 5/2: oiek nai dute jokatu; 5/8: ijituekin jokatu; 6/5: bizkarrian bat, beste bat soñian; 6/6: aldamenian batzuek; 8/1; Sasietao erropak eta; 8/2: ollo lapur-tzen atsuak; 8/8: bixkor erantzi eskuak; ta lerroak orden ontan: 1, 2, 5, 6, 3, 4, 7, 8; 9/3: Aita Santuak fakultadiak; 9/5: nai dubenian ezkontzen dira.

TXIRRITAREN LENDABIZIKO BERTSO-LAGUNAK

1/ Milla zortzireun irurogei ta
amalau urte urrian,
lenengo plazan kantatu nuen
nik Ernani'ko lurrian,
San Antonio deitzen diyogun
ermita baten aurrian,
lagunak alkar ixtimatuaz
lengo oitura zarrian.

2/ Joxe Migelek atera zuan
oso izketa leguna:
«Au da, gaztiak, prezisamente
guk egin biar deguna:
altxa dezagun San Antoniyo,
gaur da beraren eguna!».
Gaur Goiatz-txiki'n dago itxututa
orduko nere laguna.

3/ Orduko ango bertsolariyak
lau lagun giñan guziyak,
Ernani'n bertan bataiatuak,
barriyu ortan aziyak:
Joxe Migel da Erramun illak,
ni ta Juan Mari biziyak,
San Antoniok merezi du ta
eman zaizkagun graziyak!

4/ Irurogei ta amar bat urte
badaduzkat bizkarrian,
kargamenturik txarrena au da,
eziñ utzi baztarrian;
anka batetik kojoka nabill,
reuma daukat ixtarrian,
baño baditut laguntzalliak,
ez nago modu txarrian.

5/ Gazte-gazterik asi nitzan da
orañdaño bitartian
zenbait umore eder jarri det
Kantabria'ko partian;
pixka batian ez naiz aztuko
sartuagatik lur-pian,
nere aitamenak izango dira
beste larogei urtian¹.

* * *

Bertso oietako bigarreanean, bere la-
gun Joxe Migel aitutzen du Txirritak:

Joxe Migelek atera zuan
oso izketa leguna...

Eta bukaera onela ematen dio ber-
tsoari:

gaur Goiatz-txiki'n dago itxututa
orduko nere laguna.

Joxe Migel orretzaz onela esan digu
Ereñozu'ko Jose Oiarbide'k:

«Guk itxuturik ezagutu genduan. Joxe Migel ori. Gaztetan Txirritarekin ibiltzen zan bertsotan, auzokoak ziran-da. Goiatz-txiki baserrian il zan.

Arena da bertso au, bein batez etxera berandu erretiratuta-edo:

Goizian seitan etxera juan da
ollarra ttuturrukuka,
burua tente jarritzen zigun
tontorrian ikuituta;
zorigaitzeko edari onek
mendian artzen gaitu-ta,
ni're etxera ementxe nator
txanpon guziak aituta».

* * *

Joxe Migel ori irugarren bertsoan ere aitatzen da. Eta ara nola dion Pablo Zubiarraín'ek, «Ernani-Txikia» bertsolariak alegia, bere *Ia kantatuz bezela* liburuaren itzaurrean:

«Otaño'rekin bertsotan aritu ere bai aitona gurea. Bertsolaria zan, ba. Baita aitonaren anaia ere. Plazetan kantatzen zutenak. Txirritak esaten du:

Joxe Migel ta Erramun illak,
ni ta Juan Mari biziak...

Joxe Migel ori gure aitona zan, nere amaren aita. Eta Juan Mari, Altzea'ko itxua, Goiatz-txiki'n itxututa egon zan ura, gure aitonaren anaia. Otxotorena zuten apellidua».

1. *Txirrita'ren Testamentua*, 1930, Imp. Macazaga, Rentería.

«Bertsolariya»

«BERTSOLARIYA»

Ez da bertso-zalerik izango, *Bertsolariya* aldizkariaren izena entzun ez duanik. Ala ere, asteroko orren berri emen ematea, komeni dan gauza dala derizkiogu.

Garai artan bazan Erretereri'n Makazaga izeneko inprenta bat; moldiztegi bat, lengo bertso-paper zaarretan ageri dan bezela esateko.

Bertako nagusia, Juan Jose Makazaga Mendiburu zeritzan. Altxa'n jaioa zan, 1887-I-18'an, eta Erretereria'n il zan, 1963-I-21'an.

Moldiztegi ontan bertso-paper asko eta asko argitaratzen zan: batzuk berri-berriak, jartzaillearen enkarguz; eta beste batzuk lengo zaarrak, Xenpelarrenak eta abar, bertso-saltzailleak ala eskatuta.

Azkeneko, Makazaga jauna bera ere guztiz bertso-zaletu zan. Eta arrezkeroztik bera bere kontu bertsoak argitaratzen asi zan; eta bertso-paperak ez-ezik, liburutxo batzuk ere bai.

Ona emen Makazaga'k argitaratutako bertso-liburutxoan zerrenda:

Euskal Erriko Kanta Zarrak, iru liburutxo.

Xenpelar Bertsolaria, Luis Jauregi apaiz jaunaren itzaurrearekin.

Bilintxen Bertsoak.

Txirrita'ren Testamentua, 1930.

Baiña Makazaga jaunaren lanik aundiena, *Bertsolariya* aldizkaria izan zan. 1931-IX-20'an asi zan, eta 1932-IX-25'ean bukatu. Guzira, 54 zenbaki argitaratu zituan. Astero-astero ateratzen zan. Geienetan, zortzi orri-alde izaten zituan.

Orri-alde oiek bertso zaarrez eta berri-berriak betetzen ziran. Bazan antxe aukera: Xenpelar, Bilintx, Otaño, Altxo'ko Imaz, Alkain, Fermin Imaz, Txirrita, Saiburu, Lexo, Zapirain anaiak, Zabaleta anaiak, Urrutia, Erauskin, eta abar eta abar.

Lan aundi eta bikaiña benetan; eta are txalogarriagoa garai artan. Ara zergatik:

Garai artako euskaltzaleak etzuten erderatik zetorren itzik nai. Eta bertsolariak olakorik maiztxo sartzen baitzuten, bertsoak begitan artuak zeuzkaten. Orduko euskaltzaleak etzuten bertsoak argitaratzen, burla egiteko ez bazan, Agirre'k *Ga-roa'n* egin zuan bezela, edo an eta emen itz asko eta asko aldatuta edo «orraztuta». Bertsoarako oso giro itxusia zegoan; bearbada, iñoiz izan dan txarrena.

Eta une artan, Makazaga jaunak, euskaltzaleei kasorik egin gabe, bertso-liburuak ateratzeari ekin zion; eta liburutxoak ez-ezik, aldizkari bat ere bai.

Orain, urteen buruan, Makazaga'k

arrazoi zuala aitortu bearrean gera; ura zebillen zuzenbidetik, ez euskaltzaleak.

Nik askotan esan izan det, baita aurreantzean esango ere, Makazaga jauna bezin euskaltzale prestu eta egiazkorik inñor gutxi izan dala gure artean.

«Bertsolariya» argitaratzeko laguntzaille-paltarik etzuan Errenteri'n izan. Oietan Zabaleta anaiak aitatu nai nituzke, Juan eta Pello¹.

Aldizkari berriaren asmoak zein ziran, leenengo zenbakian adierazten zan. Eta Txirritaz onela zion:

«Txirritak itza eman digu astero orri bat beteko dubela bere bertso berriyakin».

Eta leenengo orri-aldean, itzaurrearen erdi-erdian, Txirritaren erretrato bat jarri zuan Makazaga'k. Ondo ikusten zuan Txirritaren izenak erostunik asko bilduko ziola.

Zerbait geiago jakin nairik, Txirritaren illoba Jose Ramon Erauskin'i galde egin genion. Itz-lerro auk idatzi eta bialdu zizkion:

«1931'garren urtean bazan Errenteria'n inprenta txiki bat. Bertako nagusia Makazaga jauna zan, oso bertso-zalea eta bertsolarien lagun aundia.

Txirritak berak ere askotan bialtzen zizkion berak jarritako bertsoak inprentatzera.

Egun batean etorri zitzaion Makazaga jauna Txirritari eta esan zion:

–*Bertsolariya* izena duan orritxo bat atera bear degu astero-astero, eta orretarako zuk bertso batzuek jarri bear dituzu.

–Ez al da jendea aspertuko beti nere bertsoak aditzen? –esan zion Txirritak.

–Ez dira zureak bakarrik izango; beste laguntzalle batzuek ere billatuko ditugu:

Saiburu, Telleri-Txiki, Zabaleta, eta beste batzuek ere bai. Nik astean zortzi duro² emango dizkizut, eta zuk astero amar edo amabi bertso jarri itzazu. Eta, inñoz edo bein, len jarritako edo kantatutako batzuek ere jarriko ditugu.

Orrela egin zuten tratua, eta zortzi duro oietatik bat bere illobari, orain au eskribitzen ari dan oni berari, ematen zion, bertso aiek apuntatzeagatik.

Makazaga jaunak berak eman zituan bi blok edo kuadernotxo eta pluma estilografika bat bertso oiek jartzeko; eta bere seme bat bialtzen zuen blok bat ekarri eta bestea eraman egitera. Era orretan bertso oiek guziak blok oietan jasoak gelditzen ziran.

Orrela sortu zan *Bertsolariya* izendatzen zan asteroko orritxo. Berak ekartzen zituan Txirritaren ateraldi eta bertso polit asko, olakori ta alakori, eta emakumeen modari, gaurko egunerako ere ondo letozkenak».

Idazlerik geienak, zartzaroan barealdia izaten dute. Gaztetan baiño lan gutxiago egiten dute. Pixkabanaka itzaldu egiten dira. Eta arritzekoa ere ez da.

Arritzekoa Txirritarena da. 1931'garren urtean, irurogei ta amarretik gora asia zan. Eta orduan, atsedetik artu bearrean, bertso jartzeari inñoz baiño gogotsuago ekin zion; baita bertso-sail ederrik asko jarri eta argitaratu ere.

Txirrita, bere-berea zuan lantegian, bertsogintzan alegia, erretirorik artu gabeko langillea izan zala esan genezake, beraz.

Baiña, egia esan, berak bakarrik etzuan bere burua artara jarri; Makazaga jaunak jarri-arazi zuan. Au ere Makazaga'ri zor diogun mesedea da, beraz.

Makazaga'k *Bertsolariya*-n argitaratu-

tako Txirritaren bertso guziak, emen bildu ditugu, leendik bertso-paperetan publikatuta zeudenak izan ezik.

1. Argitaratua degu Juan eta Pello Zabaleta²-ren bertso-liburua: *Auspoa*, 63-64.

2. Uste det zortzi duro ematen ziola. (Txirritaren illobaren oarra).

(1931)

**BERTSO BERRIYAK
AURTENGO ESTROPADARI
TXIRRITAK JARRIYAK**

- 1/ Bertso berriyak jartzera nua
estropadaren gañian,
itxas-gizonak alabatuaz
merezi duten añian;
aurtengu ontan enpeñatu da
jendia alegiñian,
bosti atsegiñ eman diyote
ospela zeukan oñian¹.
- 2/ Biba Manuel Arrillaga ta
zeren dituzun lagunak,
gauz ori ontzat artuko degu
konprenditutzen degunak;
umore onaz pasa ditugu
estroparako egunak,
danak konforme gelditu gera
bistan ikusi degunak.
- 3/ San Pedrotarrak kontentu dira
zuek egindako lanaz,
patroia ere saiaturzen zan
«Tira, mutillak!» esanaz,
indar guztiyak azaldu gabe
nik pentsatuzten dedanaz;
oraiñ deskantsun egon zaitezte
naikua jan da eranaz.
- 4/ Patroiak uju egiten ziyen:
«Fuerte arraunari tira!»,
ori aditu duten garaian
mutillak saiatu dira;
barkua txuxen eraman zuen
desio zuen tokira,
berialaxen eman ziyoten
bere balizari jira.
- 5/ San Pedro'kuak dute bandera,
Oriyo'kuak urrena,
oien ondoren San Juan eta
Donostiya laugarrena;
txit errespetoz sartu ziraden
beren arraian barrena;
au zan sekulan ikusi degun
estroparik ederrena.
- 6/ Lenengo bueltan bi segundoren
bentajan zegon Oriyo,
Manuel etzan asko estutu
gauz ori zala meriyo;
arrauna fuerte dantzatzen dute
bera jetxi ta gora iyo,
aik berdindu ta beste amalaren
bentaja atera diyo.

- 7/ Zer sentidutan itz egin dedan
konprendi zazute arren,
lenengo bueltan lau txalupa oiek
alde ziraden alkarren,
kolka-txituak ziruditela
bata bestiaren urren;
danak arraunak jaso zituzten
amaika segundo barren.
- 8/ Getariarrak ziran bostgarren,
ala enteratu naute,
eztira ola kostunbratuak
orañ dala zenbat urte;
bakoitzak bere aiekatikan²
enpeñatu dira fuerte,
zer esanikan ez da oientzat,
egñiala egin dute.
- 9/ Ondarrabi'ko arraunlariyak
ziran gero seigarrenak,
gorputz tamaña ederrekuak,
franko altu ta gizenak,
soberbiyarik gabeko mutill
prestubak eta zuzenak;
despreziyorik ez du merezi
fiñ jokutzen dan gizonak.
- 10/ Pasa bezela itz egingo det,
ordena ala nuan-da,
Agiñaga'ko barriyu ori
oriyotarren muan da;
bandera billa saiatu ziran
Donostiya'ra juanda,
danen atzetik etorri ziran
norbaitek biar zuan-da.
- 11/ Eskarrik asko, Donostiya'ko
ziudade amantia,
aurten naikua egin dezute
orrenbeste ematia;
ikusirikan badaukatela
olako borondatia,
berriz biartzen baditu ere
mereziko du juatia.
- 12/ Pasadizuak ikasi ditut
aldian bizi naiz eta,
gañera berriz neonek ere
iñoiz letzen det gazeta;
ongi kostata irabazten da
oinbeste milla pezeta,
orañ deskantsuz egon zaitezte
oloz ta ardoz aseta.
- 13/ Agur, Manuel Arrillaga ta
konpañi maitagarriya,
zu zera urterik faltatu gabe
bost bandera ekarriya;
orantxe Kosta Kantabriyari
artu diozu neurriya³,
biba alkatia Andonaegi ta
gora San Pedro'ko erriya!
- 14/ Aita-semiak, osaba-illobak,
geienak parientiak,
maisuu onaren akolituak,
jakinduriyaz betiak;
gañera berriz aldamenetik
olako aiudantiak,
atrebentziya barka zazute
Pasai'ko lagun maitiak⁴.

1. *Bertsolariya'n zañian* dago, bañan Txirritaren illobaren iritziz *oñian* bidezkoagoa da, ta orrela jarri degu.

2. *Bertsolariya'n*: aietatikan.

3. *Bertsolariya'n*: dituzu.

4. *Bertsolariya'n*: *Pasaiako*.

Bertsolariya astekarian, leenengo zenbakian, 1931-IX-20.

Auspoa'k bere 103-104 zenbakian argitaratu zituan bertso auek, 1971 urtean.

Agustin Zubikarai'k ere argitara eman ditu, bere *Treiñeru estropadak* liburuan, 1987'an..

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

Bertso auek *Bertsolariya* aldizkarian agertu ziran, 3'garren zenbakian, 1931'garren urteko Urriaren 4'an.

Ezkioga'ko garai artako kontuak esaten dizkigute. Txirritak agerpen aien alde azaltzen du bere burua.

Azkeneko bertsoan onela dio:

Kanta-paper au biar bezela
etzan erreza ditatzen...

Badakigu zeñi *ditatzen* zizkion bertsoak: bere illoba Jose Ramon Erauskin'i, liburu ontarako ainbeste argibide eman digunari alegia.

1/ Gaude milla ta bederatzi eun
ogeï ta amaïka urtian,
Kristo zerura iyo zanetik
orañdaño bitartian;
arrigarritzko kaso bat dago
Gipuzkoa'ko partian,
au Ezkio'ko Andua deitzen
zaion barriyo batian.

2/ Amabi urteko alaba eta
zortzi urteko mutilla
amak auzora bialdu ditu
gaberako esne billa;
imajiña bat azaldu zaio
añ ederra ta umilla,
etxera jua da amari oska
aikiñ etorri dedilla.

3/ Alabak amai esaten ziyon:
«Au eziñ al du ikusi?
Oso ederki jantziya dago
bere korona ta guzi».
«Ama Birjiña izango da ta
etzuaztela igesi!».
Belaunikatu lurrian eta
errezuan zian asi.

4/ Aitak Jesusi iju in ziyon:
«Nere Jaungoiko prestua,
argitasun bat bialdu dezu,
etzaude gutzaz aztua;
neronek ez det ikusi baño
biyotza daukat poztua,
zerorren Ama izango dala
nik egin dedan jukua».

5/ Geoztik beste lagun batzuek
badirade ikusiyak,
aldi artara beirutzen dute
etortzen diran guziyak;
milagro aundiya izango dala
baditugu notiziyak,
izketan egon diradenari
adituta ikusiyak.

- 6/ Sinistaturik nola dagoen
gureztat borondatian,
ejenplaria dator jendia
bire guziyak betian;
ataundar batek itz egiten du
egun bitatik batian,
iruritzen zait sartuko dala
zeruetako atian.
- 7/ Imajiñ ori jantzi batekiñ
ikusi zuten lenago,
baño geroztik muatu ditu
beste bi-iru jenero;
ori beñ bistan jarri zaionak,
ni enteratua nago,
berriz ikusi lezakiela
juaten bada egunero.
- 8/ Geok ere guk toki artara
buelta bat egiñ genduan,
ango jenderik geientxuena
zagon sinismen senduan;
toki ori da Ezkio-mendin,
arbola biren onduan,
ainbeste jende izaten zanik
ez nuan uste munduan.
- 9/ Mendi geiena betia zagon
emakumez ta gizonez,
negar-malkuak darizkiyela
errosaiua esanez;
arriturikan alkarri beira
ango seriyotasunez,
gaixto samarrak umildu ziran
naiz fede asko izan ez.
- 10/ Elur-malua bezela dator
jendia arratsaldian,
estaziyotik Ormaiztegi'ra
Ezkiyo non dan galdian;
Zumarraga'tik automobillak
danak alkarren pelian,
orko kontuak aditu eta
zerbait ikasi zalian.
- 11/ Ameriketatik abiyatuak
bai omen dia birian,
Ezkio'n dagon milagru ori
ikusitzeko idian;
ezkera noski surtan erreko
edo itoko urian,
zer izango dan iñork ez daki,
danak beldurrak aidian.
- 12/ Kanta-paper au biar bezela
etzan erreza ditazen,
saiatu biat fabori ori
ote genduken kitatzen,
Ama Birjiñai agur egiñaz
geren animak maitatzen;
aldez aurretik abisatu du
lenbailen presta gaitezen¹

1. *Bertsolariya* asterokoa, 1931'ko Urrilla'ren
4'an.

(1933)

EL GRAN MILAGRO DE LA VIRGEN DE EZQUIOGA

Txirritak aurreko bertsoak jarri ondoren, beste onako sail au zabaldu zan moldiztegi-izenek gabeko paperetan, Ezkio'ko agerpenak gezurrezkoak zirala esanez. Ogei ta lau eta ogei ta bostgarren bertsoetan, Txirrita aitutzen da, aren aurka aundi samarrak jaulkiz.

Egillearen izena ez da paper ontan ageri. Baiña bertso-jartzaille onek berak beste sail bat ere moldatu zuan gai berari buruz, emengo bertso batzuk berriro agertuz eta bere izena aitortuz: «Bertso berriak usurbildar Jose Urdanpilletak jarriak». Bigarren sail au geroago eskeiñiko diogu irakurleari.

Leenengo paper ori jaun auen eskutik jaso genduan: Bizente Mujika, Ormaiztegi; Jose Aldalur, Ugarte, Amezketa; Aita Iñaki Goikoetxea, Aia'n bilduta; eta Makazaga moldiztegia, Errenteri.

1/ Milla bederatzionekiñ ogei ta amairu urte, bertso berriyak jartzeko enkargatu naute; Ezkioga'ko komeriya dala mediante, aspaldiñ jendia franko engañatu dute.

2/ Ama Birjiña Ezkioga'n dala agertutzen, nere buruban ezta au iñola're sartzen; neska-mutill asko dabill panderua jotzen, demoniyua ote dan nago pentsatutzen.

3/ Itxaso'n bai omen dô neskaxa bat ona, Beizama'n ere bada fama bat daukana; amoriyua daukelako Birjiña Amagana, erregalatu omen diye *Niño Jesús* bana.

4/ Komeriyak politik pasatutzen dira, begiyak zabaldua egoten naiz begira; neska-mutillak orla jolasten badira, *Niño Jesús* geiago're agertuko dira.

- 5/ Birjiñakin itzak eta
etsaiakiñ jolastu,
Ama zeñen aguro
egiten zaigun aztu!
Kristau fiñak gezurtiyak
orla zertan nastu?
Ori egiten duanak
kristandareik eztu.
- 6/ Ikusgarriyak bastante
ai dira azaltzen,
bañan gazte artian
dira suertatzen;
larogei urtekotan
au ezta gertatzen,
nunbait Ama Maria
dezu errukitzen.
- 7/ Milagruak ikusteko
geuden desiatzen,
ba banaka batzuek
ari dira azaltzen;
intentziyo aundiyan
dute errezatzen,
oraindik geiago're
ditugu esperatzen.
- 8/ Mutill gazte bat badabill
Urrestilla'kua,
neska gazte askokiñ
jostatutakua;
komentu batian ere
egondutakua,
gaiztoa dan poderiyo
bi galdutakoa.
- 9/ Mutill ori bizi dezu
Urrestill partian,
lanik asko egiñ gabe,
baserri batian;
gau ta egun ortxen dabill
neskatxa tartian,
ari (y) ori jarri leike
artalde batian.
- 10/ Ori emen azaldu zan
brusa zar batekiñ,
oraiñ traje ederra ta
gorbata batekiñ,
oñetan zapatak eta
gabardinarekiñ;
nundik sortzen duan orrek
Jaungoikuak jakiñ.
- 11/ Beste mutill bat badabill
Ataun aldekoa,
etzan gala ta franko
or botatakua;
gorputz ederra dauka
itxura onekua,
kastatik izan biar du
masa onekua.
- 12/ Imajiña azaldu
eiten dan tokiya,
goiko aldetik dago
sail bat otediya;
ezker-eskubitatik
berriz arboldiya,
neska-mutil gaztien
jolastu-tokiya.
- 13/ Beste gizon bat badabill
Legazpiya'kua,
amaika biar Ama
or otseindakua;
maleziyaren faltaz
eztago flakua,
zezenak toriatzeko
ai zer nolakua!
- 14/ Beste andre bat badabill
Bizkai aldekoa,
jaiotzaz izan biar du
Durango errikua;
amaika gezur da saltsa
kontatutakua,
txiki erdik ustutzeko
ai zer nolakua!

- 15/ Zenbat gezurtri traste
dagon gaur munduban,
egon zaitezte zerbait
aditzen kontuban;
arrituko zeate
aditutakuan,
mutill zarren andria
nola egon zeruban?
- 16/ Ikusitzen dutenak
orla deskuidatu,
demoniyuak nola
ditun engañatu!
Alde guztiyetara
ondo begiratu,
etsai gaiztoa dala ori
ortikan pentsatu.
- 17/ Birjiña Ama Maria
ez da gezurtiya,
kristauba danentzako
dauka errukiya;
egunaz gustatzen zaio
ta arpegi argiya,
ez gero pentsa dala ori
gabezko txoriya.
- 18/ Gure guraso maitiak,
faborez aditu,
seme-alabak ortik-
an erretiratu;
bestela sekulako
egingo dira ondatu,
denbora oraiñ da ta
al duna saiatu.
- 19/ Gobiernuban esanik
egiñ nai ez dute,
jakiñduriyaz nunbait
daude oso fuerte;
demoniyuarekiñ
arturikan parte,
larri dabilta beren
buruk galdu arte.
- 20/ Ikusitzen dutenak
dabilta mendiyen,
iñon bildurrik gabe
gau ta gau erdiyan;
besuak gurutzatuta
elkarri gerriyan,
asko izutu gabe
trastekeri biziyan.
- 21/ Nik eztet sinistutzen,
nai dunak sinistu,
zergatik gauza zikiñ
asko dan agertu;
gezurra asko esan,
egiyak ukatu,
oiek orla ezpadira
nai duna kejatu.
- 22/ Kontzientziyak eztit
neri agindutzen,
orregatik asi naiz
bertsuak jarritzen;
iñorentzat ezтира
oiek errukitzen,
alperrikan dabilta
onak desonratzen.
- 23/ Munduban pasatzerik
beste orrenbeste,
ikusi gabetandik
nik ez nuban uste;
neskatxa eta mutill,
senar da emazte,
aspaldiñ allegatu da or
makiña bat traste.
- 24/ Txirrita asi zaigu
burutik nastutzen,
Jesukristoren fedia
ari zaigu galtzen;
Ezkiyo'ko trastekeiya
ari da famatzen,
kontzientziyai eztiyo
asko beiratutzen.

25/ Txirrita gezurretan
zertako ai zera?
Orra nik garbi eman
zuri aditzera;
kristau paltsuen alde
ibiltzen bazera,
Judas beltzaren ondora
laister juango zera.

26/ Mundu triste onetan
danok ditugu faltak,
orra nik emen jarri
egiyak galantak;
obligatu nazute
jarritzeko kantak,
kristauba bazerade
jarri oni bueltak.

27/ Orra ogei ta zazpi bertso
orañgo berriyak,
pasatu diralako
zerbait komeriyak.
Ona zertako nastu
paltso gezurtiyak?
Ezagutuko gaitu
Jangoiko aundi yak.

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

- 1/ Milla zortzireun irurogei ta
amaseigarren urtian,
ekaitz gaizto bat sartu zitzaigun
Kantabriya'ko partian;
lenago etzan kintik tiratzen
gure sor-leku maitian,
elementu au nondik sortu zan
ongi entera gaitian.
- 2/ Kintak jarri ta ondorenian
beste ogei bat urtian
zenbait amaren seme onradu
Kuba'n sartu zan lurpian;
guraso askok negar egin du
ura saldu zan artian,
geienak lutuz jantzi giñaden
Kantabriya'ko partian.
- 3/ Aberats askok pagatzen zuen,
soldadu jua zenbait pobre,
legi ori jarri ez bazan ere
arlotiarentzat obe;
atzenerako estranjerua
egin zan islaren jabe,
len ere Kuba saldu ziteken
oinbeste gizon ill gabe.
- 4/ Orañ errege jua zaigulako
askok biyotzian min du,
ez antziñako oin portamena¹
ondo letuko bagendu;
aitak biyotza gogorra zuen,
orri etzaio bigundu;
orañ ederki bizi liteke,
naiko dirua egin du.
- 5/ Urte batzuek pasa zituen
erreino ontan nagusi,
Donostiya'ra bueltak egiñaz
bere fameli ta guzi;
puska ederrak saldu zituen,
etzuen ezer erosi²,
naikua bildu duen garaian
Frantzi'ra jua da igesi.
- 6/ Zori gaiztuan sartu ziraden
oiek korteko atian,
lege berriyak jarri zituzten
euskaldunaren kaltian;
lenago libre bizi giñanak
lotu ginduzten katian,
oraingu ortan ere ez dakit
nola portatuak tian.

7/ Milla zortzireun irurogei ta
zortzigarrengo urtian,
Urriko illak ogei ta zortzi
zituen egun batian³,
garai orretan gure Fueruak
sartu zituzten lurpian;
errespetua guardatu zuten
amona zegoen artian.

8/ Garai orretan aldegiñ eta
andikan zortzi urtera,
doña Isabelak bialdu zuen
karta zorrotz bat kortera:
letu zazute Bergara'n dagon
Konbeniyoko papera,
euskaldunak zer deretxo duen
ortik kontuak atera.

9/ Zure amona zenbat egiya
munduan esandakua,
ogei ta bederatzi urtian
erregiñ izandakua;
orrek altuan zeukan konduta
jetxi nai zuten bajua,
emen fueruak ez galtziâtik
aldegiña da gajua.

10/ Lengo gizonak kortian eta
lege berriyak non-nari⁴,
esanaz: «Ara emen biria,
ortik barrena jon ari!»
Amaika burla egiten diyo
jende gaiztuak onari,
jeniyu oiek ez dituzu zuk
ikasiyak amonari.

11/ Gure errege izandu ori
portatu da oso noble,
gerrick onena baño pakia
badakit degula obe;
orañ Alcalá Zamora dago
Españi'ko jaun da jabe,
nolabait ere konpondu dira
odolik ixuri gabe.

12/ Semiak lana akabatu du
beraren aitag asiya,
gizon justua nola atera
oien tartian aziya?
Gure fueruak kendu zituzten,
Habana orla utziya,
len Kantabriya ondatu zuten
t'orañ Españi guziya⁵.

1. *Bertsolariya*'k: ez antziñako oin portamenak.

2. *Bertsolariya*'k: etzun.

3. *Bertsolariya*'k: zien.

4. *Bertsolariya*'k: non-nai. Edozein bertsozalek daki *nai* esan bearrean *nari* esan oi dala punturako ala komeni danean.

5. *Bertsolariya* asterokoa, 2'gn. zenb., 1931/IX/27'an.

(1931)

MUNDU ONTAKO BIZI-MODUA ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK

- 1/ Gure munduko bizi-modua guzientzat da laburra, griña gaiztuak tiratzen gaitu, ortatik dator makurra; leku askotan ikusi oi da lapur guardiyan lapurra; animaliya ere igual katua eta zakurra: berak asko nai t'ezin sufritu bestek daraman apurra.
- 2/ Armariyo zar batian nuen esperientziya ikusi: gure Pepita deskuidatuta atia zabalik utzi, katu Moñoña azkar sartu zan bere bigote ta guzi, sagua itota odolkiya artu, goiko sapaira igesi... Animaliyen artian ere lapur aundiya nagusi.
- 3/ Alper askori gustatzen zaio bestek egiña jatia, berentzat zernai komenentzi ta pobriarentzat kaltia; lapur txikiyak preso sartuta gañera berriz katia, aundiarentzat libertadia, beti zabalik atia... Kantabria'ko fueruak ere olaxe kenduak tia¹.
- 4/ Mundu onetan dijuan martxa etzait askorik gustatzen, biar bezela portatzen baña errezago da juzgatzen; pobriarentzat amenazua, kopeta dute beztutzen, sermoi ederrak aditu arren ez dira asko estutzen, lapur txikiyak preso sartuta berak milloiak ostutzen.
- 5/ Lapur txikiyak kastigatzeko non-nai badago kartzela, kupira gabe ematen zaio denbora askoko itzala, esanaz egindako okerrak antxen pagatu ditzala; aundiyak libre iksuten dira pasiuak dabilzala, ez projimua maite bagendu gere burua bezela.
- 6/ Zakurrak ere lapurren kontra zaunkaz pasatzen du gaba, nagusiyari adierazten fuerte zabalduaz aba²; mataderiya non dan badaki, maiz asko juango da ara; usai oneko sudurra dute, belarriyak erne para, puska galantak artuko ditu iñor deskuidatzen bada.

7/ Itsasuan zer gertatutzen dan
ez al dezute ikusi?
Txardiñ berriya eta antxua
izurdiaren igesi,
azpiyan eziñ aguantatu ta
gañera irten-arazi,
an ere arrantzaliak pronto
beren sare eta guzi;
anima salbo jende pobria
gaur olaxe gera bizi.

8/ Gure tartian gauza bat dago
izugarri itsusiya:
begiyetako bista ona ta
iñor ezin ikusiya;
juezak alde daukazkiyenak
irabazten du auziya,
eta orduan egingo diyo
berak nai duan guziya;
aundi gaxtuak nai duen arte
txiki onaren biziya.

9/ Mazopak ere txikiya janaz
bokoia añako aliak,
banda osua tragatzen dute,
izugarrizko jaliak;
komentziya badaukate ta
mokadu onen zaliak,
mendekuari ematen dizka
kulparik gabe daliak,
uste gabian berak olaxe
tragatzen ditu baliak.

10/ Balia dute aundixkuena
arrai guziyen tartian,
kostara bakan arrimatzen da,
naiago du apartian;
ale batzuek gelditu dira
Kantabria'ko partian:
iru edo lau inguru ori
juan dan berrogei urtian;
egun ederrak pasatzen ditu
arpoia sartu artian.

11/ Maite zaituztet, presidentiak³,
ministro, diputaduak,
biar bezela gauzak egiñaz
izan tzizute graduak; (*sic*)
garai onetan zuek zerate
España'ko buruak,
despreziyorik ez du merezi
Elizak eta kleruak,
guk republika maiteko degu⁴
bañan ekarri fueruak.

12/ Arri-urdiñetako semia,
ai orañ bizi baziña,
ill da gero're maite zaitugu
munduan iñor ez aña;
orañ berroi ta amasei urte⁵
sortu ziguten kuziña;
eskritura bat Ernani'n dago
egiyazkua ta ziña,
ori da Juan de Urbietaren
Pavia'ko azaña⁶.

1. kenduak tia: kenduak dira.

2. *Bertsolariya*'k: aboa.

3. *Bersolariya*'k: *zaitzet*.

4. Errepublika etorri berria zan.

5. Fueruak kendu zituzten urtea, 1876'garrena alegia. Txirritak urte bat geitxo esaten du.

6. Emen zerbait falta da neurria osatzeko. Mol-diztegiaren utsegiña izango da.

Bertsolariya, 4^{gn}. zenb., 1931/X/11.

Txirrita'ren Testamentua, 2.^o idaztia, *Makazaga-ren irarkolan*, *Biteri*, 32, *Errenderi*. *Bersolariya*'k be-xelaxe ditu onek bertso guztiak.

**BARTOLO TA MARI IÑAZIREN
PASADIZUAK**
ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK¹

1/ «Jaungoikuak egun on
dizuela, Ma-Iñazi;
zer zabilta zu emen
makilla ta guzi?»
«Ardi-kontu, Bartolo,
nai banazu ikusi,
beste ofiziyorik
ez nuan ikasi».

4/ «Ni izanagatikan
etxe pobrekua,
badakizu naizela
biyotz noblekua,
beste batzuek baño
konduta obekua,
zirri bat ere iñork³
egin gabekua».

2/ «Ez al dezu artu biar,
Ma-Iñazi, gizonik?
Bizi-modu obia
jarriko dizut nik».
«Ez dadukat dirurik²
eta ondasunik;
ez det uste, Bartolo,
zuk naiko nazunik».

5/ «Berrogei ta biña urte
zaizkigu kunplitu,
iya bada garaia
nai bada mugitu;
berel-berelakuan
etzera kupitu,
Jainkuak bestek eztu
nik ainbat sufritu.

3/ «Zu egonagatikan
arrote ta pobre,
zenbait aberats baño
neretzako obe;
atoz, zauden bezela,
xentimorik gabe,
ta zu egingo zera
nere gauzen jabe».

6/ Arreba monja juan zait,
au da desgraziya!,
fameliyan dadukat
indar-eskasiya;
orañ ipintzen dizut
komententziya,
zuria izateko
nik dedan guziya.

- 7/ Iru bei ta ogei ollo,
zakurra ta astua,
lau katu eta bi auntz,
zer bizi poztua!
Morroi bat artuko det
pulamentuzkoa,
ez dago saiatzeko
paraje gaxtua.
- 8/ Etxia neria det,
badituz bi txerri,
baita mendian ere
berrogei bat ardi;
pobria izan arren
azaltzen naiz argi:
zor artzekuak kito,
kontuetan garbi».
- 9/ «Bi aizpa bizi giñan
aita eta ama,
bestiak gobernatzan
nik bakarrik lana;
aientzat justu-justu
sortzen nuen dana,
irabazi orduko
aurretikan jana.
- 10/ Aste batian illak
aita eta ama,
ta aizpa *reumak* artu,
ura gure lana!
Izeba batek artu
zuan beregana,
zerbait biar zanian
beti neregana.
- 11/ Sokorrituzten nuen
onradamentian,
negar egiten zuen
begiyak betian;
orañ bi illabete
sartu zan lurpian,
galanki sufrituta
amar bat urtian.
- 12/ Ez bagera saiatzen
ez dago gauz onik,
ez dezu adituko
alperra naizenik;
egiñala guziya
egingo dizut nik,
nere partetik ezta
galduko gizonik».
- 13/ Bartolo arkitzen zan
estadu motxian,
iñor emakumerik
etzaukan etxian;
dudan ibilli gabe
denbora luzian,
illabete baño len
esposatu zian.
- 14/ Orra pasadizuak
guk adierazi,
saiatzan danak eztu
burlarik merezi;
orañ egin biagu
lengo penak utzi,
alkar istimatuz
ondo-ondo bizi.

1. *Bertsolariya*, 5'garren zenb., 1931/X/18.

Beste argitaraldi bat: Bertso-papera, «Imp. Macazaga. – Rentería», Makazaga'renean bertan jaso nuan. Aldaketarik ez du.

Irugarren argitaraldi bat, aldaketarik gabea au ere: *Txirriá'ren Testamentua*, 2.º idazia, Makazagaren irarkolan, Biteri, 32, Errendari.

2. *Bertsolariya*'k: *daukat*.

3. *Bertsolariya*'k: *zirri bat iñork*.

ORAINGO NESKATXEN JAZKERA ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIAK¹

Doiñua, Azkoiti'ko Patxi Larrañaga bertsolariak kantatua, eta Manuel Yaben eta Ambrosio Zatarain'ek magnetofonotik entzun eta paperean ezarria.

The musical score consists of ten staves of music in treble clef, 2/4 time signature. The first staff is the vocal line, and the remaining nine staves are accompaniment. The melody is simple and rhythmic, with a mix of quarter and eighth notes. The accompaniment provides a steady harmonic background.

1/ Ara, neskatz gaztiak,
zuentzat bertsuak,
bistan daukazkitenai²
petxu ta besuak;
etziran ola bizi
zuen gurasuak,
esperantza ederra
daukate gaxuak
zartzera pasatzeko
egun erosuak!

2/ Gona laburrak jantzi,
illiak moztuta,
nor azalduko zaien
dabilta poztuta;
amaren arrazoiak
baliyo ez-ta.
berenak aundiyago
kopeta beztuta,
gorputza adornatzen
animaz aztuta.

- 3/ Katiak lepuan da
esku-muturretan
jazten dituzte zenbait
fameli pobretan;
aberatsa berdintzen
zalla da obretan;
alabak apainduak
estadu orretan,
ta amak famelira
ogiya zorretan.
- 4/ Zapata koskor-dunak
anketan sartuta,
alpargata txuriyak
paperan artuta,
billeran dantzatzeko
aiek muatuta,
beren antzeko zenbat
enamoratuta,
or dabiltza saltoka
erdi txoratuta.
- 5/ Dantzatik geldituta
illunabarran,
bakoitzak mutill bana
badute urrian;
fallorik ote daukan
atzian t'aurrian,
alkar neurtuko dute
luze-laburrian;
erretiratzen dira
garai ederrian.
- 6/ Zenbaitek esango dit
neronei akaso:
«Kantak jartzia gaizki
egĩn dezu oso;
gona motx, ille, kate,
petxua eta beso,
neskatxa gaztientzat
orrenbeste bertso...»
Konpadriyan ez danak
ez kandelik jaso!
- 7/ Mutill sasoiekuak
badabiltza fuerte,
neskatx oiekiñ artu
nai dutenak parte;
arrosa ta krabeliñ,
releju ta kate,
gorputza dibertitzen
naiz animak kalte,
premiya zeñek daukan
ezagutzen dute.
- 8/ Lengan nesazar bi,
oriyen jazkera:
gona motxak jantzita
pasiatutzera,
otsuak soildutako
ardiyen antzera,
besuak agiriyen,
kolkuan petxera;
amarrak alde arte
ez datoz etxera.
- 9/ Ni askotan bezela
tabernan neguan,
nesazar oiei esan
niyoten languan:
«Jantzi (y) ori ona da
denbora beruan,
baño ez Ilbeltzian³
eta Abenduan;
gaxuak, otzak illko
zaituzte neguan!».
- 10/ Ustez ez niyen egiñ
abertitu baizik,
bat oso zapuztu zan
egĩn gabe itzik;
bestiak errespuesta
eman zian pozik:
«Ez dauka jantzi onek
iñorako lotsik,
sasoi daukanak eztu
sentitutzen otzik».

11/ «Beraz, erare ontan
olako sasoya;
ogei ta bi urtetan
etzcunden lasaya,
adituko zenduen
mutillen usaya;
polita zera, baño
ajutzen asiya⁴,
gona motz oin̄ azpiyan
daukazu etsaya».

12/ Garai batez majuak
bazituan sobran,
orañ zeñek nai duen
emen dabill proban;
afanosa bat dala⁵
ezagun du obran;
iñork jakiñ nai badu
neskatx ori nor dan,
Ote-motxen jaiua⁶
Ximelaren bordan.

Txirrita'ren Testamentua, 2.º idaztia, Makazaga-ren irarkolan, Biteri, 32, Errenderi. Bertsolariya'k bezela onek bertso guztiak, moldiztegi-okere bat edo beste izan eziz.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga, Rentería», Manuel Beraza apaiz jauna, Urretxua. Aldaketa bakarra: 1/3: bistan daukatenari.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga – Rentería», Juan Iturralde, «Juanito Kojua», Donostia. Aldaketak: 1/3: bistan daukatenentzat; 11/7: polita zera eta; 11/8: oraindik e saia; 11/9: ez izan gogoaren; 11/10: kontrako etsaia; 12/1: Garai baten majuak.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga – Rentería», Balderiano Oyarzabal, Portugal-etxeberrri, Oiarzun. Aldaketak: 1/3: bistan daukatenentzat; 4/7: beren antzeko zenbait; 6/9: kofradiyan ez danak; 11/7: polita zera eta; 11/8: oraindik e saia; 11/9: ez izan gogoaren; 11/10: kontrako etsaia; 12/1: Garai baten majuak.

Bertso-papera, «Etsnagusia'ren irarkolca. – Bilbao'n», Medianborda baserria, Ondarrabia. Aldaketak, aurreroko paperak bezelaxe.

Bertso-papera, «Imp. de Etxenagusia, María Muñoz, 8. –BILBAO».

Bertso-papera, «Tip. Elustondo – Zarauz»; ez nuan apuntatu nori jaso nion. Aldaketak: 1/3: bistan daduzkatenak; 1/4: kolko ta besuak; 2/1: laburra; 2/2: illia moztuta; 2/3: nor azalduko'ote dan; 3/3: ikusten dira zenbait; 4/3: abarketa txuriyak; 4/7: beren antzeko zenbait; 5/2: inulabarrian; 5/5: koraje aundiyakin; 5/6: prestatu aurrian; 6/1: Zenbaitek esango du; 6/2: nigatik akaso; 6/6: petxu eta beso; 6/9: kofradiyan ez danak; 7/2: dabilta fuerte; 8/2: ariyen jazkera; 8/3: gona motza jantzita; 8/9: amarrak alde-rarte; 10/7: jantzi onek eztauka; 11/2: orlako sasoiak; 11/7: polita zerade ta; 11/8: oraindikan saia; 11/9: ez izan gogoaren; 11/10: kontrako etsaia; 12/1: Garai baten majubak.

1. *Bertsolariya* aldizkaria, 6'gn. zenb., 1931/X/25.

2. *Bertsolariya'n: daukatitenai.*

3. *Bertsolariya'n: baño libeltzian;* bertso-papera: *baño ez libeltzian.* Onela jarri degu.

4. *Bertsolariya'n:* eta bertso-papereetan *bajatzan;* Txirritaren illobak dionez, *ajutzen* bear du.

5. *Bertsolariya'n: afanoso.*

6. Ote-motx, tokiren bat omen da. Ala esan digu Txirritaren illobak. Askotan entzun izan zion osabari.



Txirritaren oroitarriaren bedeinkazioa.

Ezkerretik: Juan San Ildefonso apaiz jauna, Lazkao-txiki, Jose Ramon Erauskin Txirritaren illoba, Pablo Zubiarrain «Ernani-txikia», Arozamena, Uztapide eta Basarri.

NORTEKO TREN-BIDEARI ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK¹

- 1/ Naparrua'tik ardo-karraio
itzai asko zan ikusi,
prankok bazauzkan iri koskorak
beren kollare ta guzi;
zurezko ardatzak lumerarekiñ²
al zan maizena iyurtzi;
denbora artan Pantorrill zuten
karreteruen nagusi.
- 2/ Garai artako itzai koskorak
ongi zebiltzan lanian,
Gipuzkua'n da Bizkai aldian
da Euskalerrri danian,
gorputzak bapo gobernatuaz
eranian da janian;
akabo oien jornal-biria
trena etorri zanian.
- 3/ Aditu zituztenian trenen
txistua eta marruak,
geientxuenak saldu zituzten
iriyak eta karruak,
esanaz: «Orrek jetxiko dizkik
goi oitan diran arduak».
Garai artako aien abarkak³
ziran basurde-larruak.
- 4/ Milla zortzireun irurogei ta
zazpigarrengo urtian,
lenengo trena ikusi nuen
España'ko partian⁴,
bire pixka bat bistan pasa ta
iñoiz sartua lurpian;
perra berriyak erantxi dizte
andikan orañ artian.
- 5/ Modu orretan jarri zuenak
Norteko ferrokarrilla,
jakinduriya aundiya zuen,
entendimentu abilla;
gizonik eziñ asi liteke
zaldi obiaren billa:
goizian irten Irun'dik eta
illuntzerako Madrilla.
- 6/ Danak alkarri lagun zaiogun
illundu gabe kopetik,
indar aundiyan dijuala're
gelditutzen da kolpetik;
iñor ezertaz biartzen bada
Donostiya'ra Madritik,
izugarritzko adelantua
jarriya dago Nortetik.

- 7/ Linea orrek badauka zenbait tunel, zubi ta erriyo, bi birerekiñ ipiñi dute sekulan baño berriyô, eletrikako indarra eta oinbeste guardarrayo; gau eta egun gelditu gabe beti zerbaiten karrayo.
- 8/ Trenera lasai balijuake egiñagatik zartzera, iyo-biriak ederrak dauzka, kotxian aixa sartze'a; amar legua bire pasa ta ordu beteko etxera, lengo segunda beziñ ederra dago oraingo terzera.
- 9/ Eseri-alki ederrak eta beste gauza bat on-ona: ezertarako biartzen bada kotxe bakoitzak komona; lenguan antxen ikusi nuen larogei urteko amona, frantzes euskaldun buru-zuri bat, Bentaberri'ko Moñoña.
- 10/ Karbonerarik ez dute biar, fogonerorik ain gutxi; or biar dana: begiyak ernai eta llabiari eutsi; abiyatzian iriki eta allegatutzian itxi⁵, gau eta egun gelditu gabe dabill txistu ta irrintzi.
- 11/ Gizon abilla zan eletrika sortu zuben maisu ori, piska-piska bat arrek graduak bajatu zizkan subari; orañ indarra leku askotan kendutzen zaio urari, garai batian merke zan baño gaur baliyo du ugari.
- 12/ Onla esanaz ur irakiñak⁶ egiten zuen negarra: «Prezisia al da beti kalderan kiskaltzen egon biarra? Ez daukat beste alimenturik: suba, kia ta txingarra; ongi miatzen baldin banazu otzian badet indarra».
- 13/ Berari beira jarri zitzaion zabaldurikan besuak, arrazoi ori ontzat artu du eletrikako maisuak: «Badakit zure gau ta egunak dirala lastimosuak, ori egiya esan badezu itzaliko dia suak».
- 14/ Nere munduko jakinduriya izan da oso azala, Jangoikuari eskatzen diyot arren argitu nazala; garai batian ez genekiyen eletrikarik bazala, orañ ur otzak dabillki trenalen irakiñak bezela.

1. *Bertsolariya*, 7'garren zenb., 1931/XI/1.
2. lumera: arrai-koipea.
3. *Bertsolariya*'n: *ayo abarkak*.
4. Zazpi urte zituala, beraz.
5. *Bertsolariya*'n: *allegatzian*.
6. *Bertsolariya*'n: *Onla esa ur irakiñak*.

(1931)

EZKIOGA'KO AGERMENARI TXIRRITAK JARRIYAK

Bertso auk, *Bertsolariya* errebistan argitaratu ziran leenengoz, 1931'ngo Azaroaren 8'an, onako izenburu onekin: «Bertso Berriak, aste ontan Txirrita'k jarriak».

Urrena, berriz, Makazaga'k berak bertso-paperetan argitaratu zituan, Txirritaren erretratua erantsita. Onek izenburua onelaxe zuan: «Ezkioga'ko Agermenari Txirritak jarriyak». Argitaraldi au, Errenteri'ko Pello Zabaleta zanaren eskutik jaso genduan.

Eta irugarrengoz ere, bertso-papere-tan argitaratu ziran, «Beasañ'en L. Zuzunegiren etxian». Onek izenburua onelaxe zuan: «Ezkioga'ko Agermenari bertsoak». Irugarren argitaraldi au Oiar-tzun'go Iturriotz'en jaso nuan, Portugal-etxeberri'ko Baleriano Oyarzabal'en eskutik.

Egokiena idurituta, bigarren argitaraldiari artu diogu guk izenburua. Bertsoak, berriz, leenengoari, beste bien aldaketak gero esateko.

Irugarren argitaraldiko paperak, Txirritaren erretratuaren tokian, beste bertsolari batena dakar, Patxi Erauskin erro-tariarena. Eta ondoren, paperaren beko aldean, onelaxe dio: «Txirritak eta Erauskin'ek».

Egia jakin nairik, Txirritaren illobari galdetu genion, eta, erantzun digunez, bertso auk bere osabak bakar-bakarrik jarriak dira, inongo laguntzailerik gabe, bertsoak idazteko izan ezik.

Dakigun bezela, lan au, sekretariotza alegia, illoba onek berak egiten zion, baita aldi ontan ere; orregatik, gauzaren berri ondo dakiala, ez dago zer dudarik egin.

Erauskin onek, Iztueta'ren bertso batzuk ere bere izenean argitaratu zituan, berak jarriak balira bezela alegia. Bertso-paperak berak salduko zituan; eta, errezagot saltzearren, bere izena erantsi.

1/ Arrantzale bat niganatu da
gizon prestuaren gisa,
Ezkio'n dagon ausuntu ortaz
kantak jarri al banitza;
itxas gañian omen darama
bere munduko bizitza,
biyotzetikan maitatzen ditu
Jaungoikua ta Eliza,
arren negarrak urrikalduta
baietz eman diyot itza.

- 2/ Izugarrizko pasadizuak
jaun orrek dizkit kontatu,
orañ pena det ez nituela
paperian apuntatu;
eziñ kontala jende nola zan
Ezkiyo-mendiñ juntatu,
pobre ta aberats danak nastuan
errezatu ta kantatu...
Aurten bizirik gelditzen dana
izan liteke kontentu.
- 3/ Ama Birjiña datorrenian¹
ikusten dute batzuak,
berari beira gelditzen dira
zabaldurikan besuak;
gezurra dala kontari daude
gaxto soberbiosuak,
badirudite ardi leiala
jaten dabilzan otsuak,
eskarmentua sartu deiela²
gure Jaun amorosuak!
- 4/ Askotan ara juaten zerate
sinismenikan gabiak,
desanparatu nai dituzute
Jesukristoren legiak;
zuek desio dituzutenak
ez dira askoz obiak,
modu orretan bajatutzia
ez du merezi fediak,
milagro on bat egingo digu
zeru lurraren jabiak.
- 5/ Nik sinisten det Jesus dagoela
altueneko graduau,
ta Ezkio'ko kontuak ere
kasik alako moduan;
ori txantxetan etorri danik
ez iñork artu buruan;
Ama Birjiñak ikusi arren
jende asko inguruan,
oiek ez dute apuratutzen,
geiago dago zeruan.
- 6/ Ama Birjiña askok ikusi
Ezkioa'ko larrian³,
jendea franko juntatzen zaio
iñoiz iñulabarrian;
ankak jartzeko tokirik iñork
eziñ billatu lurrian,
Zumarraga'tik beraxiago,
Ormaiztegi'tik urrian,
Andua deitzen zaion tokiyan,
Santa Luzi'ko aurrian.
- 7/ Oraindik ere enpeñatzen da
gu salbatzeko lanakiñ,
sinistamen bat egiazkua
jarri nai luke danakiñ,
bire txarretan gabiltzalako
sentimentu ta penakiñ,
gaxto guziyak gonbertitzera
bere ejemplo onakiñ,
gaurko eguneko batzuek baño
luziagoko gonakiñ.
- 8/ Orren semiak ez balu egiñ
amoriyozko bixita,
gaur oraindikan egongo ziran
zeruko atiak itxita;
zenbaitek gogor egiten digu
ori esaten asita:
«Guk ez dizugu sinistatuko,
ez genduan ikusi ta!».
Orrelakuak egon litezke
beren animaz etsita.
- 9/ Amak badaki zerengatik zan
Jesukristoren bixita,
nola jakintsun ez da egongo
berak egin ta azita?
Kulparik gabe eman ziyoten
zenbait kolpe itxusi ta,
biyotz erdibi egin liteke
arren planta ikusita;
Kalbariyoko mendiyau ill zan
gurutz batian josita!..⁴

- 10/ Jesusen Ama maitagarriya,
aingeruen erregiña,
zeruan sartu obe genduke
inpernuan erre baña;
gauz ori guri adierazten
bazabiltza alegiña,
bera jetxita, negar egiñaz,
ain dezu jeniyo fiña;
guziyak ongi konbertitutzen
badaukazu zer egiña!
- 11/ Españi ontan bizi izan naiz,
iñoizka juanaz Frantzia,
ni neoni're zabarkeriyan
urtia franko pasia;
gorputza ala dabillenan
animak daukan trantzia!
Gazte denborak aldegiñ ziran,
allegatu zait zartzia,
ondu nitzan da esperatzen det
zeruetara sartzia.
- 12/ Urtian beingo konpesiyuan
zabartuxia neguan⁵,
Donostiya'ko jesuitetan
izandu nitzan lenguan;
beldur-beldurrak arrimatu naiz
Padre zar baten onduan,
galdetu ziran zer estadutan
ibilli nitzan munduan...
Bi aguriak ordu erdi bat
gustora pasa genduan⁶.

1. *Bertsolariya*'k: *datorrian*.
2. *Bertsolariya*'k: *sartu diye*.
3. *Bertsolariya*'k: *Ezkioko*. Gaiñerako argitaraldiak: *Ezkioko*.
4. *Bertsolariya*'k: *gurutze*.
5. *Bertsolariya*'k: *zabartutzia*.
6. Aldaketak: Bigarren argitaraldiarenak: 1/3: asunto orrezaz; 1/9: aren negarraz errukituta; 2/1: Arrigarrizko pasadizoak; 2/3: ez det penarik ditualako; 2/4: papelian; 2/5: ezin kontala jendc egiten da; 2/6: Ezkio mendira juntatu; 2/7: denak; 2/9: sinismen auxen daukana; 2/10: bizi leiteke-kontentu; 3/7: bai dirudite ardi leiala; 3/9: sinismen ona sartu deiela; 4/1: Askotan orruz joaten dirade; 4/3: desanparatu nai dituztenak; 4/7: era orretan bajatutzea; 4/9: mila groren bat egingo digu; 4/10: zeru ta lurren jabeak; 5/3: eta Ezkioko ibillera're; 5/5: ori txantxetan agertzen danik; 6/2; Ezkioko lurrean; 6/3: bildutzen zaio; 6/5: anak jartzeko tokirik ez ta; 6/6: dagon leku laburrean; 7/4: denakin; 7/5: bide; 9/8: orren planta ikusita; 9/10; gurutze bati josita; 10/4: sulcizean erre baña; 10/5: gauz ari guri erakutsitzen; 10/9: guziak ondo gonbertitutzen; 11/1: Euskalerrian bizi izan naiz; 11/2: iñoiz juan ere Prantzia; 11/3: neroni ere zabarkerian; 11/4: gazte denbora pasia; 11/6: dauka; 11/7: denbora aiek joan ziraden; 11/8: allegatu naiz zartzia; 12/2: zabar xamarra nenguan; 12/5: bildur bildurraz arrimatua; 12/6: aita zar baten onduan; 12/9: bi agureak denboraldi bat; 12/10; atsegiñ pasa genduan.

Aldaketa auetaz gañera, fonetismoak ere kenduak ditu: *besuak*, *gabiak*, *lanakiñ*, *diyot* jarri bearean, *besoak*, *gabeak*, *lanakin*, *diot* jartzen du.

Irugarren argitaraldiak, bigarrengoak bezelaxe dakarzki bertso guziak, aldaketa auck izan ezik: 2/9: dauka dana; 9/10: kurutze.

BERTSO BERRIAK USURBILDAR JOSE URDANPILLETA'K JARRIAK

Bigarren aldiz ere bertsoak jarri zituan Usurbil'ko Jose Urdanpilleta onek, Erkio'ko gertaerak zirala-ta, Txirritaren bigarren saillari erantzuteko. Ogeigarrenean onela esaten dio:

Txirrita, jartze'irazu
nei buru ariña.

Txirritaren irugarren bertsoan irakurtzen da:

gezurra dala kontari daude
gaxto soberbiosuak.

Batek «gaxto soberbiosuak» esan eta besteak «buru ariña» erantzun.

Bertso auek, moldiztegi izenik gabeko paperetan zabaldu ziran. Paper ori Donostia'ko Juan Iturralde, *Juanito Kojua*'ren eskutik jaso nuan.

1/ Bertso berri batzuben
bear ditut jarri,
Ezkioga'ko komeriyen
entretengarri.
Zertarako ari gera
demandan alkarri?
Ama Birjiña eztagola or
diyogu igarri.

2/ Ama Birjiña ezta ontza
gaubaz ibiltzeko,
eta eunaz arbol-zuluan
lotan egoteko;
eztaukagu lotsik bate
egiya esateko,
txoruak al gera ba gu
ori sinisteko?

3/ Ama Maria eztaill gaubaz
iñor engañatzen,
eta kristaubak jota
lurrera botatzen;
granuja batzuk dabiltza or
bartzarrak nastutzen,
aber Judasen ondora
laister diran sartzen.

4/ Ama Birjiñak eztu
esaten gezurrik,
bi urte ontan ainduaren¹
ezta milagrorik,
sorgiñak nola eztuten
abillidaderik,
jendia pekatuan
jartzeko besterik.

- 5/ Aste santuko eran
batzuek Andua'n,
eta birian berak
karnabal moduban;
ori gertatu dala
nago seguruban,
oiei begira Maria
Birjiña zeruban.
- 6/ Kontu txoliñ asko ta
amoriyo gutxi,
orra nola, kristaubak,
zer zaigun iritxi;
gauz ortan dudan zautenak
obe dezute etsi,
Ama Maria ezta Andua
zerutikan jetxi.
- 7/ Andua'ra etorri ta
orla errezatu,
eta etxera birian
nolanai jolastu;
geren Ama zeñen azkar
eiten zaigun aztu,
deabrubak gauz orrekin
egite'ira poztu.
- 8/ Euskaldun neska gaztiak,
faborez aditu,
gauza biar bezala
nai det esplikatu;
gaurko nere esanak
goguan ondo artu,
Mariak beretzat lagun
garbiyak nai ditu.
- 9/ Munduban bizi zanian
Maria Birjiña,
pobria zendun baña
oso baizan fiña,
garbi saiatutzen zan
bere alegiña;
oraiñ argatik dago
zeruko Erregiña.
- 10/ Batzubek Andua'ra
oiñ utsik dabilta,
errukarriya da oien
munduko bizitza;
erantsiko zaiote
sekulako gaitza,
sorgiñak adoratzen
orla badabilta.
- 11/ Oraiñ bi urte ta erdi
inguru lenbizi
jentillaje klasi ori
nuben nik ikusi;
ni galdutzeko idian
egin ziran asi,
aingerubak laundu ziren,
argatik naiz bizi.
- 12/ Jende klasi ori ondo
dizut nik probatu,
zortzi egun berakin
nituban pasatu;
lagunak nitulako
nitzan engañatu,
bizirik juxtutikan
niyen eskapatu.
- 13/ Andua'ra birajian
dabilzan geienak,
Jangoikorik danik ere
siniste'eztutenak;
zillar dirubaren alde
saiatzen diranak,
etsaien sozidadian
sartuta daudenak.
- 14/ Jose Urdanpilleta'k
orra jarri kantak,
gezurrik gabetanik
egiyak galantak,
zergatik oik eztiran
kristauaren plantak;
Txirrita, jarri formal
paper oni bueltak.

- 15/ Ama Maria Birjiñak
ematen bau itza,
konprituko dubela,
ori seuru pentsa;
Urdanpilleta'k bauka
ortan konfiantza,
nola baitan garbiya ta
egiyazko utsa.
- 16/ Euskaldun kristau maitiak,
aditu zazute,
Jose Urdanpilleta
ezautze'al dezute?
Klasi orikiñ nik aña
supritzen baezute,
buruban memoriya
jarriko zaizute.
- 17/ Debillidaria dala ori
esaten dutenak,
aber berak diran batzuk
partia dutenak;
neri pago ostua janez
juan zeizkidan danak,
ezagutu nitunian
etzirala onak.
- 18/ Txirrita, zuk zerura
juan nai badezu,
ondo lengo libru zarrai
begiratu iozu.
Eguzkiya lenao martxan
ikuste ez al dezu?
Fraile sartu zaitia,
askoz obe dezu.
- 19/ Txirrita, nere esana
aditu ezazu,
edadia baukazu ta
ondo pensa zazu;
munduko propagandak
uzten ezpaituzu,
infernuko zulora
juan biarko dezu.
- 20/ Txirrita, jartze'irazu
nei buru ariña,
obe zenduke orrela
ariko ezpaziña;
zure aundi (y) ori balitz
diamante fiña,
baliyua baleukake
Españia'k aña.
- 21/ Txirrita, jarri zaitez
ondo pentsatuzten,
daukaun relijiyo pixka
ari zera galtzen,
Ezkiyo'ko ibillera
orrela famatzen,
trankill dauden kristau onai
gastatu azitzen.
- 22/ Formal asko esan ziyen
gubernadoriak,
erretiratzeko ortik
negoziantiak;
ala ere eziñ etsi
lotsabe trebiak,
ortik billdu nai lituzke
zillar da urriak.
- 23/ Ondo ezautubak dauzkat
orlako jazkiñak,
azkar muratze'itue traje
beltzak ta urdiñak;
orlako engañiyorik eztu
Maria Birjiñak,
zer lanak emate'ituzten
Ezkiyo'n sorgiñak!
- 24/ Geren animak salbatzen
saiatu alegiñak,
alde batera utzita
etsai ta sorgiñak;
lagunduko digu ta
Maria Birjiñak,
gora gure Jesus ona
eta kristau fiñak!²

1. *Ainduaren* itz au ez dakigu zer izan ditekean. Bearbada, *aginduarren*; bearbada, *Andua* toki-ize-narekin zer ikusirik izango du.

2. Moldiztegi-izenik gabeko irugarren bertso-paper bat ere argitaratu zuan Jose Urdanpilleta orrek. Paper ori jaun-andre auen eskutik jaso genduan: Inozentzio Olea, Legazpia; eta Mikaela Labaen, Astaitzaga, Leitza.

Beste sail onek aurreko paperaren bertso aukeratu: 1, 2, 3, 5, 6, 13, 8, 9, 22, 19, 20, 24, 10 eta 21, orden ortan eta aldaketa auekin:

3/1: Ama Maria eztabil gaubas; 3/3: eta kristaubak ola; 3/8: laster diran sartzen; 5/2: batzubek anduaz; 6/7: Ama Maria esta Ezkiyora; 8/6: ondo goguan artu; 10/1: Batzubek Ezkiyora; 10/7: gaubeko trasti oiekiñ; 13/1: Ezkiyora birajian; 20/3: arrazoic-tan banaiz; 20/4: oraindik zu aña; 21/5: Ezkiogako ibillera.

Bere leenengo saillarenak, berriz, beste bertso aukeratu sartzen ditu irugarren paper ontan: 17, 20, 16, 18 eta 24, aldaketa auekin: 16/3: demoniñuak nola; 17/8: gaubeko txoriya; 18/6: eiño dira ondatu; 20/1: Ikuste'utenak berak; 20/4: gau ta gaberdian; 20/5: besuak kruzatu ta; 20/8: trastekei biziyan; 24/3: Jesukristoren fedian; 24/5: Ezkiogako trastekeiya.

Eta berriak, beste bertso aukeratu:

Gobiernuban esanik
egiñ nai ez dute,
nunbait jakinduriyaz
daude oso fuerte;
demoniñuarekiñ
arturikan parte,
larri dabilta beren
buruk galdu arte.

Mundura Ama Maria
garbi da sortua,
orrerengatikan nator
ni orain kantua;
kristaubak, jarri ondo
burutik kontua,
gora relijiyua
ta errespetua!

Nere lagunak, formal
aditu zazute:
gaubeko ibillera
gustatze'al zazute?
Proba garbiyagorik
emate'ezpazute,
eliz berriya eitia ori
kostako zaizute.

Mundu triste onetan
danok ditugu faltak,
orra nik emen jarri
egiyak galantak;
obligatu nazute
jartzeko kantak,
Txirrita, jarri formal
paper oni bueltak.

Orra ogei ta lau bertso
oraingo berriyak,
pasatu diralako
zerbait komeriyak.
Kristau onak zertan nastu
traste gezurtyyak?
Ezagutuko gaitu
Jaungoiko aundiyak.

GURE TXAKURRARI

ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK¹

Ona emen Txirritaren illobak bertso auengatik idatzi diguna:

«Garai artan bagenduan txakur txiki bat, *Xaxpi* deitzen zitzaiona, zazpi pezeta pagatua zalako.

Etzion ñori pakean uzten etxe ondoan ikusi ezker, eta orregatik artu zioten alako *naitasuna* inguruko jendeak.

Egun batean galdu egin zan, bañan Txirritak etzuan sinistu bidez deskuidatu ta bete lekuren batera joan zanik, baizik *ongi nai* zioten aietakoren batek egindako lana zala esaten zuan.

Eta orregatik onoko bertso auek jarri zituan».

1/ Txakurrarentzat jarri
biaitut bertsuak;
etzeuzkiyen nagiyak
anka ta besuak;
gaxua etzuten egiñ
bere gurasuak
munduan pasatzeko
egun erosuak.

2/ Txakur bat galdu zaigu,
izena du *Xaxpi*,
aren gañian esan
biar ditut itz-pi:
luzaruan kabiyan
egon gabe gaizki
bateonbategen tiroz
illko zuen noski.

3/ Petxua ta bizkarra
zauzkiyen legunak,
oraindikan bagera
aitatzen degunak;
bukatu dira aren
munduko egunak,
ura zitala zan baño
baditu lagunak.

4/ Pena daukagu bera
etxetik juana,
fameliya guziyak
maitatzen zuana;
iñork billatzen badu
ekarri gugana,
pagatuko diyogu
merezi duana.

5/ Eizetikan etzuen
janikan igualtzen,
baño bai baratztatik
olluak bialtzen;
orañ lasai dabilta
landariak galtzen,
oiek daukate poza
ez bada azaltzen.

- 6/ Gureztat etzan bera
txarra izanduba,
ongi gobernatuta
zefon gizenduba;
zartu baño lenago²
utzi du munduba,
amaika sator beltzi
bizitza kenduba.
- 7/ *Perro* samarra zala
aitortzen det egiz,
ezin ikusi zuten
jende askok begiz;
bi bider egondu da
kolpatuta arriz;
biri ortan etzaie
aterako berriz.
- 8/ Bi edo iru aldiz
kojo egondua,
bi belarriyak eta
isatsa kendua;
gorriyak ikusita
utzi du mundua,
gaxtua bazan ere
ederki ondua.
- 9/ Gaxua diru-truka
ez genduen saldu,
aiñ gutxi astinduta³
kanpora bialdu;
patenta pagatu zan
egunian galdu;
orantxe etsi degu,
etzaigu azaldu.
- 10/ Kalte ederra degu
zakur ura illa,
laxter bagijuazke
beste baten billa;
eztu preziso biar
eizian abilla,
ura bezelakua
atera dedilla.
- 11/ Bera gorrantza zan da
anka-puntak beltzak,
agiña fuerte eta
letagiñ zorrotzak,
isatsa kendua ta
belarriyak motzak,
larruzko trajia ta
ezurrezko ortzak.
- 12/ Orra amabi bertso
zakurrari para,
amaika eskale xarri
eman diyo ikara;
asarretzen zanian
beltza zuen kara,
aiek daukate poza
illa baldiñ bada.

1. *Bertsolariya* aldizkaria, Errenteria'n, 9'gn. zenb., 1931/XI/15'an.

Baita ere: *Txirritu'ren Testamentua*, 2.º idazia, *Makazagaren irarkolan*, *Biteri*, 32, *Errenderi*. Aldaketarik ez du.

2. *Bertsolariya*'k: zartu bano basago.

3. *Bertsolariya*'n: aztituta.

NERE ANDREARI

ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK¹

1/ Frantzes euskaldun bat etorri zait
ipiñitzeko bertsuak,
deklaratuaz aren etxian
gertatu diran kasuak;
danak ez dira errexak baño
esango ditut batzuak,
argitasuna ematen badit
gure Juan amorosuak.

4/ Biar bezela funzionatzen
ez dago errex fabrika,
lau urte pasa alkarrekin da
ez degu izan aurrika;
alegin egin-faltan ez daukat
kontzientziyan zorrika,
orañ Paris'en txurruak saltzen
an omen dabill korrika².

2/ Nere barrengo sentimentuak
nai ditut adierazi,
zer estadutan gelditu naizen
iñork nai badu ikasi;
izarra baño ederragoko
andria jua zait igasi,
orañ bi urte aldegin ziran,
geoztik ez det ikusi.

5/ Bi gona motz ta kamisa zar bat
besterik ez det ikusi,
ziran diruak arrapatuta
aldegin ziran igesi;
baita toxa bat ederra ere³
bere tabako ta guzi,
jayan aita gonbidatzeko
ez ninduen gaizki utzi!

3/ Ogei ta amar urte daukazkit,
oraindik franko gaztia,
eta andriak bi gutxiago,
au bizi-modu tristia!
Ark neri egin dizkidan gauzak
esatekuak ezta,
txurrero batek engañatuta
eraman dit emazia.

6/ Alaxen ere desio dizut:
izan zazu osasuna;
non ote dago garai bateko
gure aiskiretasuna?
Etsai gaxtuak au da burura
zuri bialdu dizuna,
orañ andriak bi toxa eta
bat ere gabe gizona.

- 7/ Txurrerua're lan senzillua
da asko irabazteko,
orrek biñipiñ ez du egiten
mantendu eta jazteko;
andriarekiñ alkar artuta
ni modu ontan uzteko,
bi kristau gaxto naikuak dira⁴
bazar guztiyak nasteko.
- 8/ Andria iges jua zania
arren anaiak esana:
«Nere arreba dek, Patxi, baña⁵
etziak trapu zuzena».
Ni naiz orduan ajustadore
Baiona'n ari nitzana,
zuk orañ dezun txurreru ori
ez bezelako gizona.
- 9/ Ni emaztiak utzi ninduan
estadu triste batian,
beste batekiñ aldegiñ ziran
anbat beretzat kaltian;
txurruak janaz ederki dabill
diruak aitu artian,
zer esan biar ote dit neri
Josafatara juatian?
- 10/ Gauzik onenak eta diruak
arrapatuta jua zian,
nuen trajerik onena ere
ostu ta eraman zian;
gosiak zeon txurreru ori
jarri da taju-antzian,
orañ Paris'en bizi omen da
traperu baten etxian.
- 11/ Ez det milagro edukitzia
malkoz beteta muxuak,
kabi ta guzi iges egiñ dit
tamañ ortako uxuak;
nik berriz iñon ikusten badet
adituko du gaxuak:
Non ote dira garai bateko
gure izketa goxuak?
- 12/ Txurreru ori zer gizona dan
sinistu entzun deguna:
lana egiteko gogua falta
eta mingaña leguna;
bedeinkatua izan dedilla
aldegiñ zuten eguna,
gizarajuak arrapatu du
bere moduko laguna.

1. *Bertsolariya* aldizkarian, Errenteria, 11'gn. zenb. 1931/IX/29.

Txirrita'ren Testamentua, 2.º idaztia, *Makazagaren irarkolan*, *Biteri*, 32, Errenderi. Onek *Bertsolariya*'k bezela ditu bertso guztiak.

2. *Bertsolariya*'n: *zorrikan*; bañan bertsolariak "n" ori kendu egiten dute, punturako ala bear danean.

Azkeneko puntuan *karrika*; guk uste, *korrika* bear du.

3. *Bertsolariya*'k: *baña toxa bat ederra*.

4. *Bertsolariya*'k: *bi kristau gaxtuak*.

5. *Bertsolariya*'k: *Nere anai dek Patxi baña*.

GALAI ON BAT

ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK¹

- 1/ Kaso bat nai det adierazi
nere intentziyo fiñez,
arantza batek zulatutzen nau,
nago sufritu eziñez;
biyotzetikan maitatzen nuen
nobiya jarri zait miñez,
esperatzen det sendatutzia,
saiatuko gera ziñez.
- 2/ «Agur, etxeko-andre leiala,
nola dago Manuela?
Bart-arratsian enteratu naiz
oso gaizki daguela;
danak dakigu miñez dagonak
asko sufritzen duela,
sinista beza au adituta
pena artuko nuela».
- 3/ «Lengo batian galdetu ziran
biyok izketan asita:
Ama maitia, nobiyuak noiz
egingo ote du bisita?
Berriz ez dala arrimatuko
kasi jarri naiz etsita,
edo bestela etorriko zan
orren aldian bizi-ta.
- 4/ Juan dan berrogei egun obetan
gaxua or dago oyian,
atzo negonek lagundu eta
atera zan doi-doyian».
«Ez al niteke aurrera pasa?
Nago itz egin nayian».
«Orain lo dago, zuaz etxera
t'atoz urrengo jayian».
- 5/ Jayian juanda galdetu niyon:
«Sendatu al da alaba?».
Erantzun ziran: «Txit ongi dago,
pasa zaitia salara».
«Alimentua ekarri diyot,
artzeko moduan bada:
tori ogi bat, botill bat ardo
eta lakari bat baba».
- 6/ «Gubernatuko degu alaba
ez bizi arren aberets,
zuk ere zerbait egingo dezu,
ala pentsatzen det nerez;
salda ona ta pastel goxuak
emango dizkagu berez,
ekaitzu oiek gureztat eta
orri botilla bat Jerez».

- 7/ «Beron alabak gusto ederra
artzen badiyo *Jerez*'i,
eman bezaio, eran dezala,
ez nuen txarra berezi;
onek gaxuak despreziyoric
ez du nigandik merezi,
nai al du biyar ekarritzia
beste pardel bat gerezi?».
- 8/ «Borondatia badiyozula
orrek artzen duan poza,
baño gaxua fruta jateko
oraindikan ez da gauza;
zuk berriz ezer ekarri biar
baldiñ badezu onuntza:
ollanda pare eder bat eta
dozenatxo bat arraultza».
- 9/ Bere ollanda eta arraultza
allegatu da galaia,
neskatxa ere jeikita zegon
txoriya beziñ alai.
«Iruditzen zait badadukala
zuri zerbait esan naia,
itzalditxo bat nai badezu egiñ
orantxen dezu garaia».
- 10/ «Nekez etorri ziñadelako
egondu nitzan etsita,
ez da milagro, miñez negonik
etzenduen ikasi-ta;
biyotzetikan istimatzen det
egin dirazun bisita;
al dan maizena etorri zaitte,
ez daude atiak itxita».
- 11/ «Al dan geiena ebita zagus
projimuaren pobreza,
amoriyuak ekarri izan dit
zureganako nobleza;
nai al zenduke egin dezagus
Urkiola'ra promesa,
nik pagatuta San Antoniyo'n
biyok entzuteko meza?».
- 12/ «Segi dezagus biar bezela
asi genduan lanian,
gure gorputzak poztuko dira
ura bukatzen danian;
zertan kastatu birian edo
janian da eranian?
Meza ederra entzungo degu
esoposetzen geranian».

1. *Bertsolariya*'n, 12 gn. zenb., 1931/XII/6.

Beste argitaraldi bat: Bertso-papera, «Imp. Makazaga. – Rentería», Aitzol zanaren bertso-bilduman, Donostia'n. Aldaketarik ez du.

Irugarren argitaraldi bat, aldaketarik gabe au ere: *Txirrita'ren Testamentua*, 2.º idaztia, Makazagaren irarkolan, Biteri, 32, Errenderi.

LOPETEGI'TAR ON JOSE MARIA'RI ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK¹

- 1/ Jose Maria Lopetegi du euskaldun batek graziya, igeltseruen kontratista da, Irun'en jaio ta aziya; omenaje bat oso ederra degu orrentzat asiya, nik bertsuakiñ goratuko det al nezakien guziya.
- 2/ Alde ortatik izandu diran diskursolari guziyak, esan dirate nola dituen arriturikan utziyak: orrek kantari bukatzen ditu aiek izketan asiyak, merezitubak izango dira ematen zaizkan graziyak.
- 3/ Biyotz oneko gizona zera eta asko dakizuna, nork du olako borondatia izan arren jakintsuna? Zuk dezu grazi partikular bat Jainkuak eman zizuna, Euskal-erriko jende geienak maite zaituen gizona.
- 4/ Miserabliak sokorritzeko orrek baditu moduak, noizbait ederki ikasiya da bienabenturaduak; leku gutxitan billatzen dira orren gizon onraduak, ez dakit iñork emango dizkan merezi ditun graduak.
- 5/ Nola Irun'go personajia, ala Pauso aldekoa, jendiak pozaz akuditzen du ori dijuan lekua; bere legiak ukatu baño naio luke autsi lepua², erri bakoitzak biar genuke gizon bat orrelakua.
- 6/ Zenbait bezela alperkeriyan ez da egoten oyan, mantendu ona kastatutzen da oien etxeko mayian; aste guziya lanian pasa, diskurtsuetan jayian, bere barrenko sentimentuak adierazi nayian.

- 7/ Euskal-erriko anai maitiak,
aditu nere esanak:
Lopetegi'ri gustatzen zaizka
lege ona ta zuzenak;
erri bakoitzak iru balitu
zu bezelako gizonak,
oraindik ere argi litezke
illunpian dabilzanak.
- 8/ Bertsuakiñ ez asarretzeko
egiten dizut suplika,
nola dan gazte inozentia
Txirritak ez du kulpika;
norbaiten mende bizi biagu,
ortan ez dago dudika,
biar bezela ipiñtzen bada
ona da errepublika.
- 9/ Irun'go gizon onradu onek
au da itz egin duana,
pulamentuzko arrazoia ta
pozaz aditu nuana;
ez dakitenak enteratzeko
ez da denbora juana,
dudan dagona ikasitzera
etorri bedi gugana.
- 10/ Aspalditxoko laguna det nik
len esan degun jaun ori,
gizon gaixtua izan danikan
ez diyot entzun iñori;
martxa ederra jarri du eta
segitzen diyo lanari,
fameli ederra azi du bañan
mutill gazte bat diruri.
- 11/ Leku askotan korrituba da
Españiya'n da Frantziya'n,
gizon onaren itxura dauka
gorputzian ta jantziyan³,
izketan ere oso soseguz
Jaungoikuaren graziyan;
alkar maitiak izandu gera
geren denbora guziyan.
- 12/ Leku askotan ikusi zaitut⁴
umildadez ta pakian,
itz bat bakarrik atera gabe
projimuaren kaltian;
grazi eder au egiten zaitzu
aurten Irun'go partian,
zure izena aitaturko da
beste larogei urtian.

1. *Bertsolariya* aldizkaria, Erretereria, 13'gn.
zenb., 1931/XII/13.

2. Bertsolariya'k: *nai luke*.

3. «Bertsolariya»-n: *eta*.

4. «Bertsolariya»-n: *zaitu*.

(1931)

**SANTO TOMASEKO FERIYA
ASTE ONTAN TXIRRITAK
JARRIYAK¹**

- 1/ Abenduaren ogei ta bata
Santo Tomasen eguna,
Donostiya'ko ziudadian
jai zelebratzen deguna,
pobre ta aberats jende askori
maiz akordatzen zaiguna;
Azpeitiya'n du beste santu bat
bere antzeko laguna.
- 2/ Egun orretan pentsatzen bada
Donostiya'ra juatia,
kuidado gabe etorri lasai,
zabalik dago atia;
goizian plaza ikusiko da
gauza ederrez betia,
falta duena serbitutzeko
badago borondatia.
- 3/ Ezkonberriyak, etorri onuntz,
gure aixkire prestuak,
zuek etxian noiz ikusiko
aurrak an daude poztuak;
«Ama, guretzat zer ekarri du?»
luzaturikan eskuak;
«Ara aizezko pelotak eta
karamelozko txistuak».
- 4/ Bestiak diyo: «Etorri onuntz,
guk baditugu ontziyak,
marmitak eta txokolaterak,
kafetera ta paziyak,
dozena t'erdi poto zurezko
aitona zanak utziyak;²
zazpigarrena eramán dute,
salduko dira guziyak».
- 5/ «Atoz onera, Juan Inazio,
zertako zuaz igesi?
Nik badakit zu bizi zerala
etxe oneko nagusi;
sega ederrak ogeina pezta,
nai badituzu erosi».
«Aiba bost duro, bi arrirekiñ
onen-onena berezi.
- 6/ Len iru duro kastatu ditut
ta orainguak bost tia,
berrogei pezta kosta zait aurten
Santo Tomas ikustia;
neri dirua gustatutzen zait
gauzaren truka uztia,
egin dan konpraz kontentu nua,
ikusi arte, gaztia.

7/ Ogei urteko semia det bat,
amaseikua bestia,
biyen tartian alabatxo bat,
ez dago oso tristia;
aita ta ama anparatzeko
txarrak izandu ezta,
oieiri beira gozatzen gera
ni ta nere emaztia».

8/ «Bost duroko bat kastatuzeko
dudan egondu etzera,
zuk orañ ere puska ederrak
daramazkitzu etxera;
ondorengiak maite dituzu
eginaatik zartzera,
istimatuko zaitu semiak
ola portatzen bazera».

9/ San Tomasetan guazentian
teatrua ikustera,
ezin pasarik ibiltzen gera
kale batetik bestera;
arratsaldeko festa bukatu,
gabian berriz ostera,
an jakiten da nolakua dan
lege zarreko euskera.

10/ Juan dan urteko San Tomasetan
izandu nitzan perira,
bi ordu t'erdia pasa nituen
ango festari begira;
gauza zaukanak enpletzeko
ipintzen zuen segira,
aurten etortzen diranak ere
ortan saiatuko dira.

11/ Donostiarrak ez dira egongo
Santo Tomasez antziyak;
teatru ortan ikusten dira
pareja ondo jantziyak;
oial finetzko traje ederrak
lujo aundiyan josiya;
festa aundiya izango dira,
etorri danak guziyak.

12/ Toki (y) orretan bezin kontentuz
ez naiz bestetan egondu³,
baña gabeko funtziyu ori
akabatzen da berandu;
bakoitzak bere andregaiari
etxera ondo lagundu,
zer esanikan ez da guretzat
ori egingo bagendu.

1. *Bertsolariya*, 14^{gn}. zenb., 1931/XII/20.

2. *Bertsolariya*'k: *aita zanak*. Txirritaren illo-
bak dionez: *aitona zanak*. Onela geiago esaten da, ta
neurritako ere obeto dago.

3. *Bertsolariya*'k: *ez naiz batetan egondu*.

BI GAUZI^K ONENAK ZER OTE DIRAN ASTE ONTAN TXIRRITAK JARRIYAK¹

- 1/ San Tomasetan Donostiya'ra
juan naiz betiko moduan,
ni bezelako baserritarrak
asko ziran inguruan;
nere lagun bat an billatu det
meza nagusi onduan,
tabernan sartu eta zurrut bi
eran ditugun orduan,
sekula aitzen eztan seta bat
onlaxe artu genduan.
- 2/ «Beste lan gabe etorriya nak
juntatziâtik irekiñ,
oraindik lengo jeniyo zarrak
emen zauzkiyat nerekiñ;
iñondik ere legerik balitz
kontu bat nai nitek jakiñ:
mundu ontan bi gauzik onenak
zer ote diran, Serafiñ».
«Nik osasuna eta dirua
artuko nizkikek, Juakiñ».
- 3/ «Jesus! Serafiñ, ori dek ire
itz egiteko modua!
Onez onian esaten diyat,
aîñ aiz gizon onradua:
urtiak ere jua zaizkik eta
nastuba daukak burua,
konfiantza dek gauzik onena,
fiña eta segurua,
artatik asko daukan gizonak
zertarako dik dirua?».
- 4/ «Konfiantzakiñ gauza-karraio
baldin baziña asiko,
buruko miña igual jarri
zeure denbora guziko;
saltzen daudenak ez luke asko
zurekiñ irabaziko;
ori da gauza baliyosua
baña denbora gutxiko,
urte askuan ala ibiltzen
ez lizuteke utziko».
- 5/ «Baña, Serafin, xinista zazu
profeta zarren esana:
jakintsunaren arrazoietan
izan zaitia etzana;
beraz diruba berezi dezu
asko gustatzen zaitzuna;
bata-bestia istimatzia
munduan zeñen gauz ona!
Lapurrak ere ez dute iltzen
konpiantzako gizona».
- 6/ «Nekatu gabe jan biar badu
diru gabeko gizonak,
laxter akabo konfiantza ta
aren amigotasunak;
xinistatuta bizi gaitezen
guraso zarren esanak,
orañ bajuban asko dabilta
lenago altu izanak,
konfiantzaren faltarik ez du
diru askoko gizonak».

- 7/ «Konfiantza da gizonarentzat
oso gauza egokiya,
diruba baño obiagotzat
jakintsunak edukiya;
daukan guziyak emango diyo
erariya edo jakiya,
kuidado gabe ari liteke
kendu artian plakiya,
baita're beste zernai gauza ta
lo egiteko tokiya».
- 8/ «Gazte denborak aldegin ziran²,
allegatu zait zartzia,
argatik nai det ez dakitenak
abertentziyan jartzia³:
pobriak lan du nekatu gabe⁴
bizi-modua sortzia,
edo bestela prezisua du
etxe askotan sartzia,
beñ eman eta lotsa biar du
berriz ara etortzia».
- 9/ «Anaia batek bere arrebari:
Baso bat sagardo ekatzu.
Erantzun ziyon: An daukak giltza⁵,
juanda zedorrek ar zazu;
baita iru ta lau ta bost ere
komeni baldiñ bazazu,
zu zaitutzeraz guazela gu
iruritutzen al zazu?⁶
Ortik naikua berdindutzian
gora iyo ta jan zazu».
- 10/ «Amaika biar juañ gera, Juakiñ,
periya ikusitzera,
ta berriz ere desio nuke
lagun maitien antzera;
anaia baten puestora zuaz
bei esnedun bat artzera,
konfiantzak zer esan nai duen
ongi fijatzen bazera,
emango dizu gustora baño
zorretan zuaz etxera».
- 11/ «Atzo juañ nitzan dirurik gabe
zekor erdi bat artzera,
arakiñ zarrak eta andriak
etzuten egiñ atzera;
izketan ere tratatu naute
obispo baten antzera:
Gure morroiak eramango du
zu bizi zeran etxera,
kuidado gabe jan zazu lasai,
gizon gaiztua etzera».
- 12/ «Konfiantzaren alde izketan
jarduten dira batzuek,
artzen duenak berak askotan
ipiñtzen ditu plazuak;
eta denbora datorrenian
estutzen dira lazuek,
berriz bertara etorri biar
luzaturikan besuek;
dirubak eta errezibuek
bukutzen ditu bertsoak».

1. *Bertsolariya* aldizkarian, 16'gn. zenb., 1932/1/3.

Beste argitaraldi bat: Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Legorreta'ko Jose Antonio Luluagaren eskutik jasoa.

Bertsolariya'k ez dauzka laugarren bertsoaren irugarren eta laugarren lerroa. Bertso-paperetik kopiatu ditugu. Beste aldaketarik ez dute.

Txirrita'ren Testamentua, 2.º idaztia, *Makazagaren irarkolan*, *Biteri*, 32, *Errenderi*. Onek *Bertsolariya*'k bezelaxe ditu bertsoak, moldiztegi-okerrak batzuk eta onako aldaketa auzk izan ezik: 6/4: aren laguntasunak; 7/7: kuidado gabe ori liteke; 8/5: pobriak lagundu nekatu gabe.

2. *Bertsolariya*'n: denboran.

3. *Bertsolariya*'n: abertentziya.

4. *Bertsolariya*'n: pobriak laundu nekatu gabe.

5. *Bertsolariya*'n: dauka.

6. *Bertsolariya*'n: iruritzen al zaizu.



Txirritaren oroitarria, Latzen.

«PROPORZIYO BAT IZANDU NUEN...»

Izenburu ori Erreneri'ko Makazaga moldiztegiak eman zien bertso auei, bai *Bertsolariya* aldizkarian eta bai bertso-pa-peretan ere.

Bertsolariya'n 1932'garren urteko II-beltzaren 24'an argitaratu ziran. Eta argitaraldi ori izango da, gure ustez, danetan zarrena. Leenengo bertsoak onela esaten baitu:

allegatu naiz irurogei ta
amabigarren urtian...

Txirrita 1860'garren urtean jaioa zan. Eta irurogei ta amabi erantsita, 1932'garrena degu, *Bertsolariya*'n bertso auek agertu ziraneko urtea.

1/ Mixiolari baten moduan
juan dan lau illabetian
nabil ejemplo onak ematen
inozentien tartian;
txorakeriyan ibilli giñan
sasoi genduen artian,
allegatu naiz irurogei ta
amabigarren urtian,
zer lastima dan ezkondu gabe
sartu biarra lurpian!

2/ Proporzio bat izandu nuen
erdi zartu ta gero're,
neskatxa batek: «Txirrita, biyok
esosatuko gerade;
dituan gauzak eta diruak
zutzat izango dirade,
edo bestela azken fiñian
penetan illko zerade
gurasu zarren mobimentua
nola dan ikasi gabe».

3/ Esan bezela neskaxa orrek
eman ziran albistia,
errespuesta aditu arte
larri egon zan tristia:
«Alde batera pena artzen det
zu modu ortan uztia,
baña zartu naiz, ezta posible
lan oriyetan astia;
borondatia istimatzen det,
eskerrik asko, gaztia».

4/ Serio xamar letu omen du
bautismoko liburuan
ogei ta zortzi urte dauzkala
San Migelak inguruan.
«Zartu baño len asi zaizkizu
ille txuriyak buruan,
nerekiñ ere etzera asi
oso leku seguruan,
gax'orrek egon biarko dezu
beste askoren moduan».

- 5/ «Bi oi ta bost milla errial dauzkat
amona zarrak utziyak,
milla pezeta arraia saltzen
neronek irabaziyak;
ankak listo ta eztarri ona,
mobimentuak biziyak;
nik dedan ditxa ez dadukate
munduan diran guziyak,
mixeriyarik ez dadukagu
Jaungoikuari graziyak».
- 6/ Mutill zar eta neska zar asko
gelditu giñaden, baño
gure partiak eta geiago
badago zeñek egiña,
sortzen ditugun labore-puskak
aisa kastatzeko diña;
ogei pezeta anea artua,
lau duro t'erdi iriña,
berrogeitaño iritxiko zan
danak ezkondu bagiña.
- 7/ «Ama-alabak bakarrik bizi,
mantenu ona mayian,
esposatzeko egon banitzan
ipiñi nazu gayian;
oinbeste diru sobratuba ta
senarra artu nayian;
eziñ billatu baldin badezu
Donostiya'n ta kayian,
Txomiñenian billera da ta¹
zuaz urrengo jayian».
- 8/ Aiskide batek esan dit neri²
Donostiya'ko partian:
«Iya lazuan sartu ziñuzten,
etzabiltza apartian;
neskatx orri ez kasorik egin,
utzi zaiozu pakian,
goizero an da botillarekiñ
Amueneko atian,
litro erdi bat patar biaute
ama-alaben artian».
- 9/ «Diru ta oiak baziñuela
amona zarrak utziyak;
ni engañatzen ibilli ziñan,
gezurrak dira guziyak;
zuek bi aizpa omen ziñaten
ama gaxuak aziyak,
zurrut geiago egitiatik
arraia saltzen asiyak,
zuk ez baño arrek merezi ditu
eskerrak eta graziyak».
- 10/ Ardua ere kastatzen dute,
ez aguardinta bakarrik,
bazkalduta're kaferik gabe
ez da artutzen patarrik;
ez Donostiya'n jaiotakorik,
aiñ gutxi goiarritarrik,
bere buruba ola ofrezitzen
ez dabill neskatz jatorrik;
baño gaxuak nere kontura
etzuen busti muturrik.
- 11/ Leio-zulotik beiratzen zuen
gu ari giñan lekua,
anima salbo antzarran gisa
luzaturikan lepua;
berak pentsatu zuen bezela
egiñ bazuen jokua,
ni izandu naiz alako batek
merezi bezelakua:
lenago iru baldin badira
ai zer nolako laukua!
- 12/ Eziñ sinistu izandu nuen
neskatxa orren esanik,
ta berak ere etzekiyen ni
zurruterua nitzanik;
alkarregana bildu bagiña
etzan gurekin gauz onik;
jende geiegik jakiñ ez dezan
ez det esango izenik,
oraindik ere soltera dago,
etzuen artu gizonik³.

1. Txomiñenea, Donostia'ko Loiola baillarako taberna bat da.

2. Bertso-paperak: *Adiskide*.

3. *Bertsolariya*, 19^{gn}. zenb., 1932/1/24'an, Erreterria.

Bost tokitan itzak aldatu eta bertso-paperetan bezela jarri degu, auctan neurria ta esan-naia obeto daudelakoan. *Bertsolariya*'n oncla zegoan: 2/6: zureztat izan dirade; 2/9: muimentua; 4/1: Berrio xamar; 5/6: muimentuak; 11/2: anima salbo aten gisa.

Bertso-papera «Imp. Macazaga. – Rentería», Isabel Zuaznabar, Basoandia, Lasarte.

Bertso-papera, «Imp. Macazaga. –Rentería», Makazaga'renean bertan.

Bertso-papera, moldiztegi-izenik gabea, Azpeiti'ko Nikolas Unanue'ren bitartez eskuratua. Aldaketak: 2/8; gerade; 2/9: ofiziyua; 3/8: ezkon banetan asita (bañan «lanetan» bearko du); 4/1: Lengo astian letu omen du; 5/1: Bi oi ta iru armaio dauzkat; 6/5: sortzen diraden labore piskak; 6/10: danok; 8/3: Iya lazuan crori zifan; 8/8: Andres-eneko atian; 9/9: neri

au esan diran lagunai; 10/4: ez da eraten patarrrik; 11/1: beidatzen zuten; 11/3: anima salbo atien gisa; 11/9: baldin baziran.

Bertso-papera, «Tip. Elustondo. – Zarauz», Zarautz'ko baserri batetik, M. Oñatibia'ren bitartez. Aldaketak: 1/1: Misionero baten moduban; 1/5: txorakeriyan ibiltzen giñan; 1/7: gauza bat orain esan biar det; 1/8: abua bete betian; 2/1: Pasadizua publikatzera; 2/2: nua gezurrikan gabe; 2/3: neskatxa batek: «Gusto badezu; 3/7: gure artian gerta liteke; 3/8: enredo edo nastia; 4/3: ogei ta zortzi urte daduzka; 5/1: Amalau milla errial dauzkat; 6/5: sortutzen degun labore pixka; 6/7: milla errial ane artua; 6/8: irureun pesta iriña; 6/9: toki onera iritxiko zan; 7/4: ipiñi naute gayian; 8/8: taberna eder batian; 9/7: egitiarren; 9/9: zuen partez ark mercezi ditu; 10/8: neska; 11/3: aten gisa; 12/1: Paper onctan orra ipiñi; 12/2; garbi arrazoiz zuzenik; 12/3: ez nuben asko esperatutzen; 12/4: orlako ollanda zanik; 12/7: jende guziyak jakin ez dezan; 12/8: ez det esan nai izenik; 12/9: bañan oraindik soltera dago.

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK

- 1/ Galai bat etorri zait
prestubaren gisa,
bertso berri batzuek
para al banitza,
arrazoiaren bidez
nai duela mintza;
saiatuko nitzala
eman niyon itza.
- 2/ Aita bati bezela
esan dizkit itz bi;
oien despreziyuak
goguan daukazki,
kontrariyua pranko
izandu du noski,
tontua izan balitz
etzeguen gaizki.
- 3/ Dama gazte eder bat
ain gustagarriya,
berez naparra zan da
ununtz etorriya,
benta polit batian
serbitzen jarriya,
eta Astiarraga
deitzen da erriya.
- 4/ Diz-diz egiten zuen
izar baten gisa,
biartu nuan eta
eman zian itza,
esanaz: «Beste danak
alperrik dabilta,
zuk dadukazu nere
zarrallaren giltza».
- 5/ Etxian da kanpuan
tabernan t'elizan,
bi urtez zaitu zaitut
zu nola zabiltzan;
beste aitzakiyarik
ez dezu deus izan:
piska bat mudakorra
gaur askoren gisan.
- 6/ Lenengo erromeriya
Astigarraga'n zan,
beste mutill batekin
auntzian juan zan;
alkar billatu degu
beriala plazan,
beste sobranti ori
an zebillen saltsan.

- 7/ Bentako tabernatik
lenengo auzua,
an eztu mutill batek
jeniyo gozua;
biyotz gogorrekua
t'eskandalosua,
arretzek tira ziyon
neskari basua.
- 8/ Ze pikardi izan zan
nua esatera:
autsi ziran basua
ta iru platera;
neskatxa erne zegon,
makurtu zan bera;
gaxua, justutikan
eskapatu zera!
- 9/ Ori da izatia
jeniyo torpia!
Mostradorian tira
zeniyon kolpia;
arrek deitu baziñu
biar dan tokia,
seguru zan luzaro
preso egotia.
- 10/ Beste bat auzokua,
sujeto zuzena,
ni ill biar nauela
askotan esana,
neskatx orren nobiyo
lenago izana,
arrua ta koraje
gutxiko gizona.
- 11/ Bentako iturriyan
illunabar batez,
neskatx ori ikusi det
aspaldiko partez;
izketan egon giñan
biyak borondatez,
ez degu ezer esan
iñorentzat kaltez.
- 12/ Bire-baztar batian
an zegon gordia
makilla motz batekiñ,
aiñ zan kobardia;
buruan jota kendu
nai zian kordia,
neoni ere lotan
ez negon ordia.
- 13/ Itza eman bazizun
orri egin kaso,
ez neri kulpa gabe
makillarik jaso;
nola izandu geran
lagun eta auzo,
barkatzen dizut baño
gaizki dago oso.
- 14/ Beti guri segika
baserri ta kale,
beste lagun batzuek
bazituen alde;
bi kolpe eman dizkat
ukabillaz dale,
andik aurrera etzan
okasiyo-zale.
- 15/ Ni baño larriyago
ezkontzeko bera,
zorrotz galdetu ziran:
«Noiz egiño gera?»
«Oraindik lazua ortan
ez nua sartzera,
nai dezun martxa artu
presaka bazera».
- 16/ Orra.....'k¹
aunditxua lertu,
ojala izar ori
ez balitz agertu!
Ba-etzpada ez nitzan
aurreregi sartu,
oraindik libre dago,
nai dubenak artu².

1. Mutillaren izen-deiturak.
2. *Bertsolariya* asterokoa, 22'gn. zenb., Erren-teri'n, 1932'ko Otsailla'ren 14'an.
Bertso-papera moldiztegi-izenik gabea, Azkoiti-

'ko Larrume-aundi baserriko Martin Larrañaga'k emana. Aldaketak: 1/4: jarri al banintza; 3/8: deitzen dan erriya; 5/5: beste aitzakirikan; 5/6: ez dezu zuk izan; 6/4: bertara juan zan; 7/6: eskandalosua; 11/6: biyok borondatez.

BERTSO BERRIYAK TXIRRITAK JARRIYAK (AMETS BAT)

Bertso auetan, arrats batean Ama Euskera ametsetan nola agertu zitzaion eta alkarri zer esan zioten kontatzen digu Txirritak.

Onela dio seigarren bertsoan Ama Euskerak:

miñez egon naiz juan dan berrogei
eta amabost urtian...

Bertso auek *Bertsolariya* astekarian 1932-IV-17'an agertu ziran. Eta euskal fueroak 1876-VII-22'an kendu zituzten. Kontua eginda, or ateratzen dira berrogei eta amabost urte, Ama Euskerak miñez zeramazkianak alegia.

Beste argitaraldi bat ere eskuratu degu, Errenteri'n argitaratua: «Imprenta Macazaga – Viteri 32». Oiartzun'go Alzibar'ko Olalde baserriko Jose Anjel Sarasola'k eman zigun.

Bi auetatik zarrena zein dan, ez daki-gu. Baiña ajolik ez du orrek, alkarren artean aldaketarik ez baitute.

Obeto esateko bat bakarra dute, eta ura izenburuan. Bertso-paperak onela dio: *Bertso Berriyak Txirritak jarriyak*. Eta aldizkariak: *Amets bat Txirritak jarriyak*. Guk biena jarri degu, onena ala dala iritzita.

Irugarren argitaraldi bat, *Txirrita'ren Testamentua* / 2.^o idaztia liburuxkan agertu zan. Baiña aldaketarik gabe au ere.

1/ Bart ametsetan amona xar bat inguratu da nigana,
esanaz: «Emen bada gizon bat nik ezagutzen dedana?
Anbat etzaio akordatuko ama-semiak gerana,
nere petxuko bularretatik amaika trago erana,
gaur ere pozik egingo diyot nere al dezakedana».

2/ Baju-bajutik galdetu niyon:
«Ama Euskera al zera?».
Erantzun ziran: «Bai, alaxe naiz, baño egin det zartzera;
aspaldietan kanpuan nitzan, oraintxe nator etxera,
nere izkuntza maitatzen duten semiak bixitatzero,
ia zu ere salta zaitia oien anaia bazera».

- 3/ «Ezagutzen det, Ama maitia,
dolorez egin du jira;
orain semiak lagundutzia
oso gauza egoki da;
bakoitzak geren fameliyari
izan zaiogun kupira,
gure anaiak jakin dezaten
biyar guazen batzokira,
gero beorri etxeko-andre
gu bizi geran tokira.
- 4/ Beorri ara dijuanian,
nere anaia gaztiak,
aien orduko begiratuak
eztira izango tristiak;
seme geienak poztutzen gaitu
beren Ama ikustiak,
esanaz: «Orain berexi dira
gure tarteko nastiak,
nik bezelaxe igual-igual
maiteko dute bestiak».
- 5/ Galdetu niyon: «Ama, zer dabill
ola kopeta beztuta?»
«Esango nuke, baño zertako,
berdin baliyo ezta-ta?
Aidian ezta errez ibiltzen
ego-muturrak moztuta,
pena aundiya daukan gorputza
ezin liteke poztu-ta,
nola enitzan asarretuko
oinbeste seme ostuta?»
- 6/ Ama gaxuak erantzun ziran
añ doñu triste batian:
«Miñez egon naiz juañ dan berrogei
eta amabost urtian;
nere malkorik ezta legortu
ordutik orañ artian,
gure izkuntza maitagarriya
sartu nai dute lurpian,
baño gurekiñ ibilliko da
Kantabria'ko partian.
- 7/ Andikan laister jarri zituzten
eskola erderazkuak,
maisu geienak kastillanuak,
kolorez berde askuak;
gure semiak amenazaten
luzeturikan eskuak,
itz bat euskeraz aditzen bada
autsi biarrik kaskuak,
non ote dira garai bateko
emengo maiorazkuak?».
- 8/ Milla zortzireun irurogei ta
zortzigarrengo urtian,
gure izarrik maitatuena
gorde zan lañu tartian¹;
euskerarikan ez tala biar
Kantabria'ko partian...
Uju aundiya egingo ditut
emen eta apartian,
mututze'ezpanaiz ezta galduko
ni bizi naizen artian.
- 9/ Saia gaitian semien billa
galdu ziran tokiyetan,
gau eta egun zuri ujuka
or gaude batzokiyetan;
astian iñoiz juntatzen gera
faltatu gabe jayetan,
Ama gaxua gora altxatzen
sartu ez dedin loyetan,
zeiñ biretatik juañ biar degun
galde dezagun oyetan.
- 10/ Nik dadukadan jakinduriya
alde batera da utsa,
baño maite det biyotzetikan
euskaldunaren izkuntza;
bajatu ziñan pixka bat baño
gora nai zaitugu bultza,
orra semiak non dauden esan,
juañ zaitia aruntza;
kuidado gabe sartu aurrera,
gingo zaizu laguntza.

11/ Ama, guazen gauz oien billa
ostu zituzten tokira,
seme guziyak korajez gaude,
ez izan gutzaz kupira;
euskera baju egon da baño
gora egin du mugira,
Euskal-erriko belar gaixtuak
geienak igartu dira,
oiek aldatu dituzten larrak
arrosa biyurtu dira.

12/ Biyotz biguña daukagu emen
anparatzeko pobriak,
gudarako're non izan dia
lur ontan baño obiak?
Odol beroko kasta gerala
ezagun du koloriak,
mundu guziya ikaratzen du
euskaldunen baloriak,
Tubal zarraren arbolatikan
zabaldutako loriak.

1. 1868 urtean, Isabel II kendu eta errepublika jarri zan.

SENARRA TA EMAZTIA TXIRRITAK JARRIYAK

- 1/ Esposatuta taberna jarri
zuten senar-emaztiak,
bi milla pezta zituen batek,
sei milla errial bestiak;
gizonari maiz agertzen zaizka
bere moduko trastiak,
andre gaxuak pasatzen ditu
gau eta egun tristiak.
- 2/ Nagusiya ta etxeko andria
asarre diran tokiyan,
bizi-modua ezta ikusten
oso planta egokiyen;
gizona zurrut lasai eginda
kantari dago alkiyan,
andriak lanak egiñik dabil¹
negarrez eta plakiyan.
- 3/ Gorputza oso bikaña dauka,
larrua ere leguna,
zurrut egiñaz alperkeriyan
pasatutzen du eguna,
esanaz: «Au da mundu ontatik
guk eramango deguna!».
Etxian ez da prenda ederra
olako bizi-laguna!
- 4/ «Esposatuta sei bat urtian
onla izanak ezkea²,
orañ kolpian muatu zaigu
egun batetik bestea;
zurrutarena asko ezuala
jokua berriz ostea,
danak ez ditu bakarrik jango,
neoni nua astea!».
- 5/ Orren ateera zelebria zan
sagardoteira juanda're:
«Non dia angulak? Benga txuletak!»
markesak aña bondade;
etxian dauzka eder askuak
andria ta bost landare,
gizona gaizki dabillelako
naiko ogiya jan gabe.
- 6/ Biotzeraño sartu zitzaion
nik egin nuen marñua;
berialaxe lajatu zuen
bere jeniyo arrua,
utzi zituan mozkorkeriyak,
kartak eta zigarrua;
len eun kilo pisatzen zuen
orain ezta sei arrua.

- 7/ Bi-iru urte da pasatuxia
zintzotu zala gizona,
nekez bada're sinistu zuen
emaztearen esana;
lan-toki ona arrapatu du,
entregatzen du kintzena;
garai batian ori bezela
orañ ni nago gizona.
- 8/ «Biyotzetikan maitatzen zaitut,
nere senar ondradua,
kupira gabe emango dizut
merezi dezun gradua;
nere suplika aditu eta
bajatu dezu burua,
orañ ez dago mixeriyarik,
badator naiko dirua.
- 9/ Gosaldutzeko litro bat ardo,
etzan bestela eskerrik,
juan daneko lau urte t'erdiyan³
etzaio pasa mozkorrik;
gure lan eta neke tristiak
izaten ziran alperrik,
danak guziyak zurrupatzeko⁴
asko zan bera bakarrik.
- 10/ Aitortzen dizut, senar leiala,
gaizki portatzen etzera,
eguneroko zortzi pezeta
sartzen dituzu etxera;
orañ sasoia daukazun arte
onla ibiltzen bazera,
bizi bagera egun ederrak
guretzat dira zartzera.
- 11/ Nere ondora kuido gabe
etorri zaite jatera,
maia konpleto jarriko zaitzu
kubierto ta platera;
jokuak eta zurrutak utzi
ziñuen alde batera,
bizi-modua nondik datorren
orañ kontubak atera.
- 12/ Orañ esaten aritzen dira
auzoko jende guziyak:
«Zure senarra txit ondo dabill,
poztu du irabaziyak;
egun batian utzi zituen
kostunbre gaixto guziyak».
«Bai, egiya da, txit ongi gera
Jaungoikuari graziyak»⁵.

1. *Dabil* guk erantsia da, olako zerbait beat dualakoan. *Bersolariya*'n falta da itz ori, neurria motx gelditzen dalarik.

2. ezkea: ez gera.

3. *Bertsolariya*'n: *urt' erdiyan*.

4. *Bertsolariya*'n: *dana guziyak*.

5. *Bertsolariya*, 46'gn. alea, 1932/VII/31.

AURTENGO ESTROPADARI TXIRRITAK JARRIYAK

- 1/ Milla beatzireun irurogei ta
amabigarren urtian¹,
estropada bat izandu degu
Donostiya'ko partian;
irabaztunak mesede zuten,
galtzallientzat kaltian,
ausuntu ortaz oroituko naiz
bizirik naizen artian.
- 2/ Nere lagun bat inguratu zait
gizon prestuaren gisa,
denbora pasa dibertitzeko
kantak jarri al banitza;
triste daudenak konsolatzeko
pensamentuan dabilta,
aren gustua egitiatik
baietz eman diot itza.
- 3/ Agur Pasaiko San Pedrotarrak,
gora Manuel Arrillâ,
aita ta seme eta illoba
osatzen dira kuadrilla;
indar aundiko arraunlariyak,
patroia ere abilla,
Donostiya'ra lasai jua ziran
diru ta bandera billa.
- 4/ Orain sei bandera errenkaran
eta len bi ekarriyak,
San Juandarrakin soziyokua
an du Miserikordiyak;
beste txiki bat Tolosa'tika
ongi arturik neurriyak²,
orrekiñ ere onra ederra
dauka Pasaiko erriyak.
- 5/ Lenbizikuan bere lanari
eman diyote segira,
jendia pozez egondua da
aldamenetik begira;
gero txalupak trukatu eta
mansotu zaie mugira,
dirua pranko galdutakuak
azkenekuan badira.
- 6/ Ondarrabiya'k Pasaia'ri ta
Donosti'kuak elkarri,
lauak txalupak trukatu eta
korajez ziraden jarri;
asteko seña egin zanian
mugitu ziraden sarri,
irugarren zan San Pedro baña
bandera berak ekarri.

7/ Biraje onian Donostiarrak
etorri ziran aurrena,
Ondarrabiya bigarren eta
San Pedro irugarrena;
nola oientzat tokatu baizan
txaluparikan txarrena,
uste zan baño nekexiago
sartu ziraden barrena.

8/ Pasai San Pedro'n egun orretan³
gertatuko kasua
pixka batian etzait aztuko,
ementxen daukat jasua;
«Biba Manuel!» esanaz dantzan
larogei urteko atsua,
gazte denboran etzan izango
fandangolari mantsua.

9/ Lendabiziko lau txalupetan
etzagon jende narratsa;
bi bizkaitarrak egin digute
oso joera garratza:
biyak batian balizan buelta,
arraun-kolpia zorrotza,
lendabiziko zein etorri zan
etzan juzgatzen erreza.

10/ Aginaga ta Zumaya'k ere
egin dute alegiña,
ziran indarrak enpeñatuaz,
ori da apustu fiña;
guziyak ezin iritxi degu
altueneko tamaña,
atzetik neurtzen errezago da
aurretik etortzen baña⁴.

1. 1972 urtea beraz; nabarmen dago puntu au Txirritak jarri etzuan bezela dagoala; 1932 bear luke.

2. Tolosa'n San Juanetan egiten dira batel-estropadak.

3. *Bertsolariya*'n: *Pasai San Pedro*.

4. *Bertsolariya*, 54'gn. zenb., 1932'ko Agorri-llaren 25'an.

Auspoa'ren 103-104 zenbakian ere argitaratu zituan bertso auek, 1971 urtean.

Agustin Zubikarai'k ere agertu ditu, bere *Treñeru estropadak* liburuan, 1987 urtean. Baiña ez du esaten nundik artu dituan.

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
-----------------	---

BIZITZA

Jaiotetxean

Jaiota eta bataioa	19
Ereñozu'ko eliza	20
Latze'n	21
Txirritaren burua	24
Itaurrean	25

Txirrita baserrian

Txirrita'n	29
Anaiaren eriotza	38
Txirritaren aita	39
Txirritaren ama	41
Juan Mari anaia	43
Txirritaren arrebak	44
Azken agurra	46
Ezkongai	46
Mutilzar	49
Bare adarduna	50

Lana eta lagunartea

Argintzan	55
Morroí	61
Parrandan	63
Bonatxo'n	66

Jokoan.....	69
Lantokiko lagunekin	71
Oiartzun'go euskal festak	73

Txirrita eta garai artako bertsolariak

Txirrita eta Xenpelar.....	79
Txirrita eta Udarregi.....	80
Txirrita eta Otaño'tarrak	81
Txirrita eta Pello Errota	84
Txirrita eta Gaztelu.....	91
Pello Errota, Gaztelu eta Txirrita	94
Txirrita eta Txintxua	95
Txirrita eta Artzai-txikia.....	97
Txirrita baserrian lau bertsolari.....	101
Txirrita eta Pello Zabaleta.....	102
Txirrita eta Prantzes-txikia	103
Bi bertsolariren epaile	107
Txirrita eta Telleri-txiki.....	108
Puntuan	110
Lau bertsolari Andoain'en.....	113
Txirrita eta Elio	115
Txirrita eta Zubeltzu	116
Txirrita eta Olegario	117
Txirrita eta Ernani-txikia.....	119

Erriz-erri

Erriz-erri	123
Astigarraga'n	126
Azkoiti'ko Martirietan.....	128
Azkoiti'ko Madarixa'n.....	129
Saastien	130
Permiñ itxua	133
Kuarta tenporak.....	136
«Il da Canovas...»	137
Txirritaren deskalabrua	139
Aragoi aldetik.....	140
Ataun (1915)	141

Galizia'ko argiak	144
Arnoate'ko sendagillea	145
San Juan bezperan	147
San Juan festetan	152
Zenbait ateraldi	153
Zenbait gertaera	158
Txirritaren pixua	164
Txirritaren poltsa	165
Zenbait bertso	166
Zelebrekeriak	179
Arrazoi zorrotzak.....	181
«Zuk il zenduen artzaia»	184

Txapelketak eta omenaldiak

Xenpelarren omenaldian	191
Bertsolari-eguna (1935-I-20)	192
Tolosa'ko txapelketa	196
Bertsolari-eguna (1936-I-19)	199
Txirritaren omenaldia (1936-III-22).....	208

Gazteluene'n

Txirritaren kezka	217
Oroipenak	218
Bikario jaunarekin	222
Subearen errezoa	225
Bi bertso-saltzaille.....	226
Txirrita eta Saiburu	227
Bizartegian	233
Eskalea.....	235
Kanta zar bat.....	236
Gaizkiñak	237
Txirritaren koñadua	239
Osaba Xaturdino.....	240
Santa Isabel eguneko meza.....	247
Gazteluene'n.....	248
Txirritaren aitamenak.....	249
Eriotza	250

JARRITAKO BERTSOAK**Bertso-paperetako bertsoak**

Itzaurrea.....	257
Txirritaren bertso-jartzea.....	258
(1886) Bertso Berriak Txirritak jarriak.....	261
(1893) Bertso Berriyak.....	264
Azpeiti'ko premiyuengatik.....	269
(1904) Bertso Berriak Aita San Martin de Loinaz Beasain'goaren bizitzari jarriak.....	273
Bertso Berriak («Zeruko Aita, marka itzazu...»)	276
Bertso Berriyak.....	281
(1909) Bertso Berriak.....	284
(1910) Bertso Berriyak.....	287
(1912) Kantabria'ko itxas-gizonai oroipen bat.....	290
(1913) Bertso Berriak Txirritak jarriak.....	296
(1914) Aita Zapirain'i.....	299
(1916) Bertso Berriyak misiolari pasionistai Joxe Manuel Txirritak jarriak.....	300
(1916) Bertso Berriyak Txirritak jarriyak.....	303
(1918) Bertso Berriyak Txirritak jarriyak.....	306
Bertso Berriyak I. T. T.'ek jarriyak.....	309
Bertso Berriak (Europa'ko gerra, 1914-1918).....	311
(1919) Bertso berriak.....	314
«Salsamendi'ko billera orretan...».....	318
«Dama gazte bat adoratzeko...».....	320
«Kaliporniya'n zer pasatu dan...».....	323
Bertso Berriyak Txirritak jarriyak.....	324
Fermin Imaz eta Txirritaren sesioa.....	328
Bertso Berriyak (Fermin Imaz'ek Txirritari).....	329
Bertso Berriak Txirritak jarriak.....	332
Bertso Berriyak (Fermin Imaz'ek Txirritari).....	335
Bertso Berriak Txirritak jarriak.....	339
Bertso Berriyak Fermin Imaz'ek Txirritari jarriyak.....	342
Bertso Berriyak.....	345
(1923 edo 1924) Bertso Berriyak Txirritak jarriyak.....	348
Bertso Berriak Txirritak jarriak Pernando Amezketarrari.....	351
Korrika-apustua.....	354
Erratxu'ren txerria.....	355
«Andik urrengo jai-arrats batez...».....	357
(1926) Bertso Berriyak Uzkudun'eri Txirritak jarriyak.....	358
Jose Lizarazu bertsolaria.....	361

Bertso Berriyak	363
(1927) Bertso Berriyak	366
(1927) Bertso Berriak Txirritak jarriak.....	369
Bertso Berriak	371
Bertso Berriak Txirritak jarriak	374
Bertso Berriak	376
«Senarrarentzat nai zituenak...».....	378
(1930) Bertso Berriyak Begi-txikiyak esan da Txirritak jarriyak	379
(1931) Bertso Berriyak Astiasu'ko Juanito Kortajarena'k jarriyak.....	382
«Oien kontuak»	385
Bertso Berriak Kortajarena'k esan da Asteasu.ko Aranburu-berri'k jarriyak	386
Begi-txikiyaren bei, gurdi, asto ta idiak.....	389
(1931) Bertso Berriyak	391
(1931) Bertso Berriak Antxo'ko euskal festari Jose Migelek jarriak	394
Igandetako euskal orriarako	397
(1935) Bertso Berriyak	398
(1935) Bertso Berriyak	402
Bertso Berriyak («Arbol izugarri bat»).....	405
Bukatu gabeko jarri-aldia	409
Zarraren agurra	410

«Txirrita'ren testamentua»

«Txirrita'ren testamentua».....	415
Atso gezurti bati	417
Bertso Berriyak neskazar bat tentatzen Txirritak jarriyak	420
Iru bertso	423
(1929) Neskazar gaztia	424
Dantzariyaren premiyua	426
Amerikako bizitza.....	427
Alperraren suertia.....	430
(1895) Reina Regente'ri	431
(1906) Bertso Berriak.....	432
Aita eta sui-gaia.....	435
Nagusiya ta maiztarra.....	436
Bertso Berriak Txirritak jarriak	438
Txirritaren lendabiziko bertso-lagunak.....	443

«Bertsolariya»

«Bertsolariya»	447
(1931) Bertso Berriyak aurtengo estropadari jarriyak	450
Bertso Berriyak Txirritak jarriyak.....	452
(1933) El gran milagro de la Virgen de Ezquioga	454
Bertso Berriyak Txirritak jarriyak.....	458
(1931) Mundu ontako bizi-modua	460
Bartolo ta Mari Iñaziren pasadizuak	462
Oraingo neskaten jazkera	464
Norteko tren-bideari	468
(1931) Ezkioga'ko agermenari	470
Bertso berriak usurbildar Jose Urdanpilleta'k jarriak.....	473
Gure txakurrari.....	477
Nere andreari	479
Galai on bat.....	481
Lopetegi'tar on Jose Maria'ri.....	483
(1931) Santo Romaseko feriya	485
Bi gauzik onenak zer ote diran	487
«Proportziyo bat izandu nuen...»	490
Bertso Berriyak Txirritak jarriyak.....	493
Bertso Berriyak Txirritak jarriyak (Ametz bat)	496
Senarra ta emazia	499
Aurtengo estropadari	501

AUSPOAREN SAIL NAGUSIA

- 1.– Antonio Zavala: TXIRRITA (Bizitza eta bertsoak).
- 2.– «Basarri», Inazio Eizmendi Manterola: NERE BORDATXOTIK (Bertso-bilduma).
- 3.– Manuel Lasarte: BERANDUKO LANAK (Bizitza eta bertsoak).
- 4.– Antonio Zavala: KARLISTEN LEENENGO GERRATEAREN BERTSOAK.
- 5.– Antonio Zavala: PELLO ERROTA (Bizitza eta bertsoak).



1009715


BO-3021

AZKUS BIBLIOTEKA
LU KULTZAINDIA
BILBO

76700

1992 MAI. 11

1009715



auspoa
